

## URTE LITURGIKOA 2019 C-A URTEKOA

Asteak	I	AI	A2	A3	O1	O2	L
<b>URTARRILA</b>							
2 Ejub. C			1	2	3	4	5
3 Ejub. C	<b>6</b>	7	8	9	10	11	12
Bataio C	<b>13</b>	14	15	16	17	18	19
2 Ur. C	<b>20</b>	21	22	23	24	25	26
3 Ur. C	<b>27</b>	28	29	30	31		
<b>OTSAILA</b>							
»						1	2
4 Ur. C	<b>3</b>	4	5	6	7	8	9
5 Ur. C	<b>10</b>	11	12	13	14	15	16
6 Ur. C	<b>17</b>	18	19	20	21	22	23
7 Ur. C	<b>24</b>	25	26	27	28		
<b>MARTXOA</b>							
»						1	2
8 Ur. C	<b>3</b>	4	5	HE	7	8	9
1 Gar. C	<b>10</b>	11	12	13	14	15	16
2 Gar. C	<b>17</b>	18	19	20	21	22	23
3 Gar. C	<b>24</b>	25	26	27	28	29	30
4 Gar. C	<b>31</b>						
<b>APIRILA</b>							
4 Gar. C		1	2	3	4	5	6
5 Gar. C	<b>7</b>	8	9	10	11	12	13
Aste S C	<b>14</b>	15	16	17	OS1	OS2	20
Pazk Ig C	<b>21</b>	22	23	24	25	26	27
2 Pazk C	<b>28</b>	29	30				
<b>MAIATZA</b>							
»				1	2	3	4
3 Pazk. C	<b>5</b>	6	7	8	9	10	11
4 Pazk. C	<b>12</b>	13	14	15	16	17	18
5 Pazk. C	<b>19</b>	20	21	22	23	24	25
6 Pazk. C	<b>26</b>	27	28	29	30	31	
<b>EKAINA</b>							
»							1
IG	<b>2</b>	3	4	5	6	7	8
MEN. C	<b>9</b>	10	11	12	13	14	15
HS. C	<b>16</b>	17	18	19	20	21	22
COR. C	<b>23</b>	24	25	26	27	JB	29
13 Ur. C	<b>30</b>						

Asteak	I	AI	A2	A3	O1	O2	L
<b>UZTAILA</b>							
13 Ur. C		1	2	3	4	5	6
14 Ur. C	<b>7</b>	8	9	10	11	12	13
15 Ur. C	<b>14</b>	15	16	17	18	19	20
16 Ur. C	<b>21</b>	22	23	24	<b>25</b>	26	27
17 Ur. C	<b>28</b>	29	30	31			
<b>ABUZTUA</b>							
»					1	2	3
18 Ur. C	<b>4</b>	5	6	7	8	9	10
19 Ur. C	<b>11</b>	12	13	14	<b>15</b>	16	17
20 Ur. C	<b>18</b>	19	20	21	22	23	24
21 Ur. C	<b>25</b>	26	27	28	29	30	31
<b>IRAILA</b>							
22 Ur. C	<b>1</b>	2	3	4	5	6	7
23 Ur. C	<b>8</b>	9	10	11	12	13	14
24 Ur. C	<b>15</b>	16	17	18	19	20	21
25 Ur. C	<b>22</b>	23	24	25	26	27	28
26 Ur. C	<b>29</b>	30					
<b>URRIA</b>							
»			1	2	3	4	5
27 Ur. C	<b>6</b>	7	8	9	10	11	12
28 Ur. C	<b>13</b>	14	15	16	17	18	19
29 Ur. C	<b>20</b>	21	22	23	24	25	26
30 Ur. C	<b>27</b>	28	29	30	31		
<b>AZAROA</b>							
»						1	2
31 Ur. C	<b>3</b>	4	5	6	7	8	9
32 Ur. C	<b>10</b>	11	12	13	14	15	16
33 Ur. C	<b>17</b>	18	19	20	21	22	23
34 Ur. C	<b>KE</b>	25	26	27	28	29	30
<b>ABENDUA</b>							
1 Aben. A	<b>1</b>	2	3	4	5	6	7
2 Aben. A	<b>8</b>	9	10	11	12	13	14
3 Aben. A	<b>15</b>	16	17	18	19	20	21
4 Aben. A	<b>22</b>	23	24	<b>25</b>	26	27	28
Fam. s.	<b>29</b>	30	31				

**LABURDURAK:** A1 = astelehena • A2 = asteartea • A3 = asteazkena • Aben = abendualdia • Aste S. = aste santua • Cor = Corpus eguna • Ejub = eguberrialdia • Gar = garizuma • HE = hausterre eguna • I = igandea • IG = Jesusen Igokundea • JB = Jesusen Bihotza • L = larunbata • Men = Mendekoste igandea • O1 = osteguna • O2 = ostirala • OS1 = ostegun santua • OS2 = ostiral santua • Pazk = pazkoaldia • Ur. = urteko • JB = Jaunaren Bataioa • HS = Hirutasun Santua.

## PEDRO ARRUPE GONDRA SJ

---

Irakurle lagunok:

Ikusten duzuenetz formatua aldatu dugu. Iradokizunak jaso genituen lodiegia zela, alde batetik; eta, bestetik, testuak hobeto molda zitezkeela. Ea asmatu dugun, zuek duzue hitza.

Aurtengo azala gure herrian eta mundu osoan oso maitatua izan den eta den, esan genezake, Aita Arruperi eskaini diogu. Gogora dezagun bere biografia oparoa:

Bilbon jaio zen 1907an, kultur eta gizarte-maila oneko familian eta sinesmen sakoneko giroan. Gazte zela galdu zituen gurasoak. Bi heriotza horiek sakonki eragin zioten eta erantzukizun handiko sena barneratua geratu zitzaion. Eskolapioen ikastetxean amaitu eta gero, Madrilerako bidea hartu zuen medikuntza ikasketak egiteko. Bukatu gabe eta Lourdesen esperientzia miresgarria izan eta gero, 1927an jesuiten nobizio-aldia hasteari ekin zion Loiolan. Bost urteren buruan Jesusen Lagundia kanporatu zuen Errepublikak Espainiatik; hargatik, Belgikan eta Holandan jarraitu zuen prestakuntza. Azken ikasketak egitera Estatu Batuetara joan zen. Zalantza gabe, deserriak eta bizilekuz aldatzen ibiltzeak beraren bokazioaren jarrera unibertsala bizkortu zuen.

Bai Madrilen bai Estatu Batuetan pobrezia eta sufrimendua gertutik ezagutu zituen, auzo baztertuetan eta presondegietan murgilduz, hurrenez hurren. Baina bere misiolari bokazioak Japoniara eraman zuen. Yokohama kaira 1938an iritsi zen eta berehala hizkuntza eta kultura ikasteari ekin zion buru-belarri. Espioitzaren aitzakian espetxeratu zuten 33 egunez, baina errugabetzat hartua izan zen. Hiroshimako bonba atomikoak izugarri jo zuen nobiziotegia zegoen mendiz beste aldeko hiri gunea. Egoera ikaragarri hartan Arrupek, medikuntza ikasketez baliaturik, ospitale bihurtu zuen berton maisua zen no-

biziotegia. Bizipen latz hark Aita Arrupe gaztea astindu eta bere izaera finkatzen lagundu zion.

Jesusen Lagundiaren Nagusi Jeneral hautatu zuten 1965eko maiatzaren 22an, Kontzilioa azkenetan zela. Hamarkada korapilatsuak bizi izan zituen: kontzilio ondorengo itxaropenak, fede-justiziaren gatazkak, jesuita andanaren eta apaiz eta erlijioso ugariren alde egitea, askapen teologia, iraultzak, arrazakeria, Lagundiaren zatiketaren azpikeriazko ahaleginak, Espainian Frankoren erregimena, eta abar luzea.

Agian desadostasun garrantzitsuenak Juan Paulo II. arekin izan zituen.

Ignazio Arregi jesuitak, ongi ezagutu zituenak Aita Arrupe eta Vatikanoa, horrela idatzi zuen: «Bitan soilik elkarriketatu zirela diote, aldi bakoitzean hamar minutu besterik ez. Biak pentsamolde arras desberdinekoak, nahiz eta denborarekin elkarrenganako estimu eta miresmena gehiagotuz joan».

Aita Arrupe, 1981ean Filipinetatik eta Tailandiatik zetorrrrela, tronbosiak kolpatuta ezgauza geratu zen. Aita Santuak bi ordeko konfiantzazko jesuita jarri zizkion Lagundiari Nagusi Jeneral. Aurrerantzean zazpi urte eta erdi biziko zen Erromako kuriako gaixotegian. 1991ko otsailaren 5ean hil zen, Santa Ageda egunez. Harez gero, maitea eta miretsia askorentzat izan zenak, horrela jarraitzen du izaten Eliza barruan eta baita Elizatik kanpo ere. Bestalde, horrela dio Ignazio Arregik: «Ulertezin bezain harrigarri egiten da Elizaren zenbait arduradunek oraindik ere gizon honen izaerari, profeta-jarrerari, espiritualtasun-sen edo gizatasunari dioten arrangura eta ezinikusia».

Beharbada Frantzisko Aita Santuarekin, jesuita izanik eta Aita Arrupe asko ezagutzen eta estimatzen duena, alda daiteke egoera. Romero monsinorearekin gertatu bezala, Arruperekin ere, Erroman, gerta daiteke orain bilbotar jatorrarekin. Benetan ez lirateke gutxi izango asko poztuko liratekeenak. Nire kasuan esan nahi dizuet, neure fede bizitzan eta jesulagun bezala, beti bidelagun zintzoa sentitzen

dudala. Eta gomendio bat: «HEMEN» aldizkariaren 49. ale osoa (Urtarrila-Martxoa 2016) Aita Pedro Arrupe Gondrari buruzkoa denez, euskaraz irakurtzea eta meditatzea Jaunaren aurrean.

Amaitzeko esan beharra dugu liburutxo honen ebanjelioen iruzkinak Mariola López Villanuevak, Bihotz Sakratuaren mojak, burutu dituela. Kazetaria eta Biblian aditua da, Granadako teologia fakultateko irakaslea. Liburu batzuk argitaratu ditu eta espiritualitate ekintzak bidelaguntzen ditu.

Eskerrik beroenak liburua prestatu eta euskaratu duen Dionisio Amundarain euskal langile aspergabeari.

Urtero bezala, eta Deustuko Unibertsitateari eskerrak emanda, saiatuko gara liburu hau eskegitzen Deustuko Unibertsitateko web orrian: [www.deusto.es/cs/Satellite/estudiantes/es/egunean-eguneko-ebanjelioa](http://www.deusto.es/cs/Satellite/estudiantes/es/egunean-eguneko-ebanjelioa) eta, baita, «Loiola eta Xabierren Lurraldeko jesuitak» web orrian (joan zaitezke egutegira eta klikatu nahi duzun egunean).

Adiorik ez!

Koldo Katxo, s.j.





## **FESTABURU ETA JAI MUGIKORRAK 2019an**

---

Jaunaren Bataioa	urtarrilaren	13a
Hausterre	martxoaren	6a
Jaunaren Piztuera Igandea	apirilaren	21a
Mendekoste igandea	ekainaren	9a
Hirutasun guztiz Santua	ekainaren	16a
Corpus Christi	ekainaren	23a
Jesusen Bihotz guztiz Santua	ekainaren	28a
Jesu Kristo Jauna, diren guztien Erregea	azaroaren	24a
Abendualdiko 1. igandea	abenduaren	1a
Familia Santua	abenduaren	29a

## OSPATZEKO JAI NAGUSIAK 2019AN

---

Andre Maria Jainkoaren Ama	urtarrilaren	1a
Jaunaren Epifania	urtarrilaren	6a
San Jose, Andre Mariaren senarra	martxoaren	19a
San Prudentzio Armentiakoa (Araba)	apirilaren	28a
Santiago apostolua	uztailaren	25a
San Ignazio Loiolakoa (Bizkaia eta Gipuzkoa)	uztailaren	31
Andre Mariaren Jasokundea	abuztuaren	15a
Santu Guztiak	azaroaren	1a
Andre Maria Sortzez Garbia	abenduaren	8a
Jaunaren Jaiotza (Eguberri)	abenduaren	25a



## URTARRILA

### AITA SANTUAREN ASMOAK

**Ebanjelizazioaren alde:** Asiako lurraldeetan, kristauak, beste gutxiengo erlijiosoek bezala, beren fedea aske eta libre bizi ahal dezaten.



Eguberrialdia.

JAINKOAREN AMA MARIAREN FESTABURUA.

Jesus izena ezartzea. Bakearen eguna.

### § Zenbakiak liburutik 6,22-27.

Honela mintzatu zitzaien Jauna Moisesi: «Esaiezu Aaroni eta haren semeei: Honela bedeinkatuko dituzue israeldarrak:

“Bedeinka zaitzala Jaunak eta zaindu.  
Ager diezazula Jaunak aurpegi argia,  
eta erruki dadila zutaz.  
Erakuts diezazula Jaunak aurpegi gozoa,  
eta eman bakea”.

Honela dei egingo diote nire izenari israeldarren alde, eta Nik bedeinkatuko ditut».

[Sal 67 [66]: Erruki bekigu Jainkoa, bedeinka gaitzala.]

### § San Paulok Galaziarrei 4,4-7.

Senideok: Garaia bete zenean, bere Semea bidali zuen Jainkoak, emakumeagandik jaioa, legepeko egina, legepean zirenak askatzera, guk seme-alabatzakoa har genezan. Eta seme-alaba zareten seinaleztat bere Semearen Espiritua bidali du Jainkoak gure bihotzera, «Abba! Aita!» deika ari dena. Beraz, aurrerantzean ez zara esklabo, seme edo alaba baizik, eta seme edo alaba bazara, baita oinordeko ere, Jainkoari esker.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,16-21.

Aldi hartan, artzainak lasterka joan ziren Betleemera, eta han aurkitu zituzten Maria eta Jose eta haurra askan etzana. Ikusi zutenean, jakinarazi zuten haur hartaz esan zitzaiena.

Entzun zuten guztiak harriturik gelditu ziren artzainek esaten zutenarekin. Mariak, berriz, gogoan jasotzen zituen gauza hauek guztiak,

Eguberrialdia.

JAINKOAREN AMA MARIAREN FESTABURUA.

Jesus izena ezartzea. Bakearen eguna.

bere bihotzean hausnartuz. Eta artzainak Jainkoari aintzaka eta goraka itzuli ziren, entzun eta ikusi zutenagatik; dena aingeruak esan bezala gertatu zitzaien.

Jaio eta zortzi egunera haurra erdaindu zutenean, «Jesus» ezarri zioten izena, sabelean sortu aurretik aingeruak esan bezala.

**M**aria da jai honetako protagonista; baina, beste behin, Jesusi utzi nahi dio leku guztia. Jaso du artzainen ahotsa; baita gizon-ema-kume langileena, pobreena, ere: bai baitute hauek zerbait adierazteko, Bestea den horren izenean, eta bihotz isilean hartuz doa errealitatea, eta gero eta hartzaileago eta irekiago ari da bihurtzen Jainkoaren jokamol-dearen aurrean. Bera bizitzen ari denari gehitu dizkio artzainen poza eta gorapena. Mariaren amatasuna bizitzea, geu ere korronte horretan murgiltzea da: Jainkoak, munduan dauden hauskortasun eta zaurgarritasun guztien artean, bere onginahia agertzen digun beheko leku horietan, opari ematen ari zaigun bizitzaren bedeinkazioaren eta zorionaren eta eskerronaren korronte horretan murgiltzea, alegia.

Urte berri hau hastean, jar dezagun geure bizitza Jesusen izenaren pean, eta jar dezagun Andre Mariaren babespean; emakume baketsua da eta baketzailera, bake eske ageri den jendearen hainbat eta hainbat egoeratan. Jar dezagun Mariaren esku Jainkoak eskaini digun aldi berri hau, pasa dezagun astiro bihotzetik ikusten eta entzuten dugun guztia, eta eska dezagun grazia, eguneroko geure bidean aurkitu ahal ditzagun jende txiki eta xumearen Jainkoa den horren seinale txikiak. Jainkoak sortaraz ditzala gure bihotzean bedeinkazioak eta besarkadak eragindako hitz berriak, ireki dezaten urte berri hau esperantzara eta bakera, inor bazterturik gelditu gabe.

Eguberrialdia.

San Basilio Handia eta Naziantzoko San Gregorio, *gotzainak eta eliz irakasleak*.M<sup>a</sup> Ana Soureau dohatsua, birjina eta fundatzailea.

[1 **Joanen liburutik 2,22-28**: Bego zuengan, hasieratik entzun duzuen mezua. **Sal 98 [97]**: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,19-28.**

Hau da Joan Bataiatzaileak egin zuen aitormena, juduek Jerusalemdik apaizak eta lebitarrak bera nor zen galdetzeraz bidali zizkiotenean.

Joanek argi eta garbi aitortu zuen: «Ni ez naiz Mesias». Haiek galdetu zioten: «Nor zara, bada? Elias al zara?» Joanek erantzun: «Ez». Haiek, orduan: «Etortzekoa den profeta al zara?»

Eta hark: «Ez». Berririo galdetu zioten: «Nor zara, bada? Bidali gaituztenei erantzuna eman behar diegu. Zer diozu zeure buruaz?»

Joanek, orduan: «Ni, basamortuan oihuka ari denaren mintzoa naiz: “Zuzendu bidea Jaunarentzat”, Isaias profetak esan zuen bezala».

Bidalitako haietako batzuk fariseuak ziren, eta galdetu zioten: «Zergatik bataiatzen duzu, bada, ez bazara Mesias, ez Elias, ez etortzekoa den profeta?»

Joanek erantzun zien: «Nik urez bataiatzen dut. Zeuen artean bazuze, ordea, ezagutzen ez duzuen bat, nire ondoren datorrena; eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere».

Hau guztia Betanian gertatu zen, Jordan ibaiaz bestaldean, han ari baitzen Joan bataiatzen..

**I**tsu-mustuka ariko da Joan bere nortasunaren bila; harriturik dago Jesusi dagokionaz aurkitzen ari denaz, eta aitortzen du, doi-doi hasi dela hark gainezka agertu dion maitasuna bizitzen. Badaki, bere ahotsa ez dela Mesiasena, ezta Eliasena ere. Nork bere ahotsa dugu, bakarra eta errepika ezina, gertaerak interpretatzeko nork bere era,



Jainkoa adierazteko nork bere era. Eta gure bizitzak, Joanenak bezala, Jesus eta haren Erreinua al du jo puntu, ala, alderantziz, geure burua ari gara agertzen, ala modu sofolean geure buruaren miresleak ditugu bilatzen? Jesusi jarraitzeko orduan beste batzuei gure lagun izan daitezten uztea ez da gauza erraza, apaltasuna, buru argia eta desatxikimena eskatzen du.

\* \* \*

### ANDRE MARIARI, ELIZAREN ETA GURE AMARI

Ama, lagundu gure fedeari! Ireki gure belarriak Hitzari, Jainkoari eta haren deiari antzeman diezaiozun. Biziberritu gudan haren urratsei jarraitzeko gogo, geure «lurretik» irtenez eta haren hitzean konfiantza ipiniz.

Lagundu, ama, haren maitasunari uki gaitzan uzten, fedez bera ukitu ahal dezagun

Lagundu, bete-betea hartaz fida gaitzen, haren maitasunean uste osoa jar dezagun, batez ere atsekabearen eta gurutzearen uneetan, gure fedea haztera eta heltzera deitua denean.

Erein gure fedean Berpiztuaren poza. Egizu, izan dezagula go-goan, sinesten duena ez dagoela sekula bera bakarrik.

Irakatsiezaguz, Jesusen begiez begiratzen, bera izan dezagun argi geure bidean.

Eta fedearen argi hau joan dadila handitzen etengabe gudan, azkenik gabeko eguna, hau da, Kristo bera, zure Semea, gure Jauna iritsiko den arte. (Frantzisko Aita Santua)

Eguberrialdia.

Jesusen Izen guztiz santua, *Jesusen Lagundiko Goiburua*.

Santa Genoveva, *aitorlea*.

San Ziriako, *apaiza eta fundatzailea*.

[1 Joanen liburutik 2,29–3,6: Harengan dagoenak ez du bekaturik egingen. Sal 98 [97]: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,29-34.

Hurrengo egunean, ikusi zuen Joan Bataiatzaileak Jesus beregan eta etortzen eta esan zuen: «Hona hemen Jainkoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Honi buruz esan nuen nik: “Badator nire ondoren gizon bat, niri aurea hartu didana, ni baino lehenagotik baitzen”. Nik ere ez nuen ezagutzen; baina ni urez bataiatzera etorri banaiz, hura Israeli ager zekion etorri naiz».

Eta aitormen hau egin zuen Joane: «Espiritua ikusi dut uso-irudian zerutik jaisten, eta haren gainean gelditzen. Nik ere ez nuen ezagutzen; baina urez bataiatzera bidali ninduenak esan zidan: “Espiritua jaisten eta gainean gelditzen zaiola ikusten duzuna, hura da Espiritu Santuaz bataiatzen duena”. Nik ikusi dut eta aitortzen hauxe dela Jainkoaren Semea».

**G**euk ere baditugu geure Bataiatzaileak, Jesusengana garamatzaten pertsonak, haren jokamolde saneagarriak bistaratzen dizkigutenak. Elkarrekin goaz Jaunari antzematzen, pixkana; guztioi dei egiten digu eguneroko gorabeheretan beraren presentziaz gozatzera. Gelditu beharra izaten dugu eta patxadan kontenplatu beharra, historian Espirituaren arrastoari antzeman eta bera atzemateko. «Jainkoaren gizona zara zu, guri begira jarri zarelako», esan zioten aljeriar musulman batzuek André Depierre apaiz frantsesari; beraiekin ari baitzen ukondo ukondo fabrika batean, testigantza eginez. Zertan nabari da guran Jainkoaren gizon eta emakume gabela?

Santa Genoveva Torres, *fundatzailea (Anjelikak)*.

Santa Elisabet Ana Seton, *ama familiakoa*.

San Manuel Gonzalez, *gotzaina eta fundatzailea*.

[1 Joan liburutik 3,7-10: Jainkoagandik jaio denak ez du bekatirik egiten. Sal 98 [97]: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,35-42.

Aldi hartan, han zegoen Joan Bataiatzailea bere bi ikaslerekin. Jesus handik igarotzen ikusirik, esan zien Joanek: «Horra Jainkoaren Bildotsa». Bi ikasleek, hori entzunik, Jesusi jarraitu zioten. Itzuli zen Jesus eta, jarraitzen ziotela ikusirik, esan zien: «Zeren bila zabiltazte?»

Haiek erantzun: «Rabbi, non bizi zara?» (Rabbik «Maisu» esan nahi du). Jesusek esan zien: «Zatozte eta ikusiko duzue». Joan ziren, ikusi zuten non bizi zen, eta harekin gelditu ziren egun hartan. Arratsaldeko laurak inguru zen.

Joani entzun eta Jesusi jarraitu zioten bietako bat Andres zen, Simon Pedroren anaia. Andresek bere anaia Simonekin egin zuen topo lehenengo, eta esan zion: «Mesias aurkitu dugu». (Mesias hitzak «Kristo» esan nahi du, hau da, «Gantzutua»). Eta Jesusengana eraman zuten. Jesusek, begira-begira jarritz, esan zion: «Simon zara zu, Joanen semea; aurrerantzean “Kefas” izango da zure izena» (Kefas izenak «Pedro» esan nahi du, hau da, «Harkaitza»).

**A** zer erregalua izango genukeen sentitzea, gu ikusi eta entzun dugutenak beste batzuei eragiten hari direla, nor den galdetzera jo dezaten, bizia zor diogun eta geure antsia eta gurari guztien hondoan bilatzen dugun Hari! Izan ote daiteke gure biziera –hitz, irribarre, lan egiteko edo jateko... modua– seinale bat, adierazteko, badela Norbait, etengabe besarkatzen gaituena geure ahuldadean, doako bere maitasunaz eraldatzen gaituena? Batak bestea Jesusengana eramaten ari gara, eta gaur premiatsuki eskatzen digu Jaunak bera oraino ezagutzen ez dutenen bila joateko.

## Eguberrialdia.

San Telesforo, 8. *aita santua*.San Joan Neumann, *gotzaina*.

[1 Joan liburutik 3,11-21: Heriotzatik bizira aldatu gara, senideak maila ditugulako. **Sal 100 [99]**: Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari.]

## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,43-51.

Aldi hartan, Jesusek Galilea aldera joan nahi zuen. Felipe aurkitu zuen, eta esan zion: «Jarraitu niri». Felipe Betsaidakoa zen, Andresen eta Pedroren herrikoa.

Felipek Natanael aurkitu zuen, eta esan zion: «Moisesek legearen liburuan eta profetek beren idazkietan aipatu zutena aurkitu dugu: Jesus, Joserren semea, Nazaretekoa». Natanaelek esan zion: «Nazarete-tik atera ote daiteke ezer onik?» Felipek erantzun: «Zatoz eta ikus».

Jesusek Natanael beregana etortzen ikusi eta esan zuen: «Hona hemen egiazko israeldarra, faltsukeriarik gabea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?» Jesusek erantzun: «Felipek zuri dei egin baino lehen, pikupean zinela, ikusi zintudan».

Natanaelek erantzun zion: «Maisu, Zu Jainkoaren Semea zara; Zu Israelgo erregea zara». Jesusek erantzun: «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako, sinesten al duzu? Handiagorik ere ikusiko duzu». Eta esan zion, gainera: «Egi-egiaz diotsuet: Zerua zabalik ikusiko duzue eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera Gizonaren Semearen gain».

**J**esusi jarraitzeko orduan, lehen urratsa ez da izan gurea; horregatik, jarraitzea bera ere ez dago gure indarren edo merezimenduen baitan bakarrik, eta ez gaituzte alduko ere harengandik, ez geure desengainuek, ez geure alde ilunek. Jesusi jarraitzea, lehenik eta behin haren ekimena da, haren erabakia. Haren gonbitak geure bizitzaren muinean berean ukitzen gaitu, eta etengabe jarraitzen du eskaintzen. Guk erantzun aurretik ikusten gaitu, ezteki edota sutuki ukitzen gaitu, eta «gauza handi» horietara irekitzen gaitu, geurez ia-ia sumatu ere ezin ditugun horietara. Onginahi hutsez gara deituak geure ahuldadean; nolatan ez jarraitu berari gero eta esker sutsuagoz eta bihotz handiagoz?

### § Isaías profetaren liburutik 60,1-6.

Jaiki zaitez, Jerusalem, argitu, badator-eta zure argia; zure gainean ageri da Jaunaren aintza. Begira, ilunak estalia du lurra, gau beltzak herriak; zure gainean, ordea, Jauna agertuko da, haren aintza zure gainean azalduko.

Zure argira etorriko dira herriak, zure egunsenti-distirara erregeak.

Jaso itzazu begiak zeure ingurura eta ikus: guztiak elkartu eta zugana datoz, urrutitik datoz zure semeak, besoetan dakartzate zure alabak.

Hori ikustean, distiratsu jarriko zara, bihotza zirraraz eta zabal-zabal duzula, itsasoko aberastasunak zugana etorriko baitira eta nazioen ondasunak zuri ekarriko dizkizute. Gamelu-taldeek estaliko zaituzte, Madiango eta Efako dromedarioek. Sabatik datoz guztiak, urrea eta intsentsua dakartzatela, eta Jaunari gora eta gora diotsotela.

[Sal 72 [71]: Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna, nazio guztiek.]

### § San Paulok Efesoarrei 3,2-6.

Senideok: Jakingo duzue, noski, Jainkoak bere onginahian zuen onerako eman didan eginkizuna, goi-agerpenez jakinarazi baitit bere asmo ezkutua; salbamen-asmo hau ez zitzaien iraganeko gizaldiei jakinarazi; orain, ordea, Espirituaren bidez bere apostolu santuei eta profetei agertu die Jainkoak. Eta hauxe da Jainkoaren asmo ezkutua: Berri Onari esker, jentilak Kristo Jesusekin oinorde-kide direla, harekin gorputz bat bera osatzen dutela eta agintzari beraren partaide direla.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 2,1-12.

Jesus Judeako Betleemen jaio zen Herodes erregearen garaian. Aldi hartan Mago batzuk etorri ziren sortaldetik Jerusalemera, galdezka: «Non da jaioberria den juduen erregea? Haren izarra ikusi dugu sortaldean, eta hura gurtzera gatoz».

Berri honekin larritu zen Herodes erregea, eta Jerusalem osoa harekin batera. Orduan, apaizburuak eta lege-maisuak bildurik, Mesias non jaiotzekoa zen galdetu zien. Haiek erantzun zioten: «Judeako Betleemen, honela idatzi baitzuen profetak:

“Eta zu, Judako Betleem,  
ez zara, ez, Judako hirietan txikiena;  
zugandik aterako baita buruzagia,  
nire herri Israelen errege izango dena”».

Orduan Herodesek, Magoei isilka dei eginik, izarra noiz agertu zitzaien jakin zuen zehatz. Ondoren, Betleemera bidali zituen, esanez: «Zoazte, eta jakin arduraz haurraren berri, eta, aurkitzean, esadazue, ni ere gurtzera joan nadin». Haiek, erregeari entzun ondoren, joan ziren.


Eta bat-batean, sortaldean ikusitako izarra aurretik jarri zitzaientz, haurra zegoen lekuaren gainean gelditu arte. Izarra ikusi zutenean, berealdiko poza hartu zuten. Etxean sarturik, haurra ikusi zuten, Maria bere amarekin, eta, ahuspezturik, gurtu egin zuten. Ondoren, beren kutzak irekita, erregaluak eskaini zizkioten: urrea, intsentsua eta mirra.

Gero, Herodesengana ez itzultzeko albistea ametsetan harturik, beste bide batetik itzuli ziren beren lurraldera.

**Z**er zirrara eragiten digun haurren begiak ikusteak, Erregeen Kalbagatari begira daudenean! Hain sakon txertatu dira Magoen izenak, liburu apokrifoetatik jasoak, non Herodesen beraren izena baino erreagoak direla esango bailitzateke. Txandako hainbat Herodes dago, jende ahulenaren biziaren aurka ari dena, eta ez gaude libre geuk ere halakoen bideetatik jotzeko: mesfidantza, ezkutuko interes, susmo, sentitzen ditugun mehatxuak. Bestetik, urrundik etorri eta bila dabilzanak: galdezka ari dira, elkarrekin datoz, eta txunditu egin dira. Haur

pobre hori ikusteak liluratu ditu eta beren burua eskainirik, ezin itzuli dira bide beretik.

Epifaniaren bidea –maitasunarekin topo egin eta berau adieraztea– agertu zaie orain benetako bide. Epifania, beraz, Jainkoaren ontasun osoa eta edertasuna begiz jotzea da, eta haren berri beste batzuei eramatea «beste bide batetik»; artean ezaguna ez dugun bidetik, itsuak bezala goazela, baina nola egin azaltzen digun argi bati jarraituz: zaurgarri, pobre, apal, pozik.



Jaunaren agerkunde ondokoa  
San Raimundo Peñafortekoa, *apaiza*.

[1 Joan 3,22-4,6: Aztertu espiritua Jainkoagandik datorren ala ez. Sal 2: Nazioak emango dizkizut ondare.]

† Jesu Kristoren ebanjelioa San Mateoren liburutik 4,12-17.23-25.

Egun haietan, Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutela jakin zue-  
nean, Jesus Galileara baztertu zen. Baina, Nazaret utzirik, itsasbazte-  
rrean dagoen Kafarnaumen jarri zen bizitzen, Zabulonen eta Neftali-  
ren lurraldean. Horrela bete zen Isaias profetak esana:

«Zabulonen lurraldea eta Neftaliren lurraldea,  
itsasbidea, Jordanez beste aldean, jentilen Galilea.  
Ilunpean bizi zen herriak argi handia ikusi zuen;  
herio-itzalean bizi zirenei distira egin zien argiak».

Ordutik hasi zen Jesus hots egiten: «Bihotz-berri zaitezte, hurbil  
da-eta zeruetako erreinua».

Galilea osoan barna ibili zen Jesus, hango sinagogetan irakasten, erre-  
nuari buruzko Berri Ona hots egiten eta herrian gaitz eta eritasun guztiak  
sendatzen. Siria guztian zabaldu zen haren izena. Edozein gaitz eta oina-  
zek jotakoak eramaten zizkieten: deabrudun, epileptiko nahiz elbarri, eta  
hark sendatu egiten zituen. Eta Galilea, Dekapolis, Jerusalem, Judea eta  
Jordanez beste aldetik etorritako jendetza handiak jarraitzen zion.

**E**rreinuaz hitz egitean, esan ohi dugu: harentzat lan egin, hura  
eraiki, hura gauzatu; baina Ebanjelioan beste aditz batzuk ageri dira:  
hura onartu, hartan sartu, hura heredatu, hura aurkitu. Hura ez da  
gure merezimenduen fruitu, Jainkoak digu ematen; eskatzen zaiguna,  
oztoporik ez ipintzea da, ez aurre egitea, harrera egiteko prest jartzea;  
hartara itzultzea geure begiez, geure eskuez, geure bihotz osoaz. Uztea  
gugana jauzi egin dezan, eta sentitzea nola hurbiltzen duen gure gor-  
putza oinaze orotara, premia orotara. Erreinuua hurbil dela esaten digu  
Jesusek, jota daudenengan eta txikiengan sendatzerik dagoenean, haie-  
kiko ardurarik dagoenean.



[1 Jn 3,22-4,6: Jainkoa maitasuna da. Sal 71 [70]: Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna, nazio guztiek.]

† Jesu Kristoren ebanjelioa San Markosen liburutik 6,34-44.

Aldi hartan, Jesusek jendetza handia ikusi zuen; erruki izan zituen, artzainik gabeko ardiak bezala baitziren, eta luzaro irakasten hasi zitzairen.

Berandu egin baitzen, ikasleak hurbildu zitzaizkion, esanez: «Leku bakartia da hau eta oso berandu da. Bidal itzazu, inguruko baserri eta auzoetara joan eta jatekoa eros dezaten». Jesusek erantzun zien: «Emaiezue zeuek jaten». Haiek, orduan: «Berrehun denarioren ogiak erostera joango al gara, bada, hauei jaten emateko?» Jesusek esan zien: «Zenbat ogi duzue? Zoazte ikustera». Ikusi eta esan zioten: «Bost, eta bi arrain ere bai».

Orduan, jende guztia belar gainean taldeka eserarazteko agindu zien. Ehunaka eta berrogeita hamarnaka eseri ziren. Jesusek, bost ogiak eta bi arrainak hartu eta, begiak zerura jasorik, bedeinkapen-otoitza egin, ogiak zatitu eta ikasleei eman zizkien, jendeari banatzeko; bi arrainak ere jende guztiaren artean banatu zituen. Asetzeraino jan zuten denek, eta ogi- eta arrain-hondarrek in hamabi saski bete bildu zituzten. Bost mila gizon ziren jan zutenak.

**J**esusek, jendeari begira jartzen denean, maitatu egiten du eta, maitatzean, jendearen sufrimendua, ogi-gosea eta zentzu-gosea nola arinduko ibili ohi da. Gu, berriz, ikasleak bezala, jendeari agur esan eta erostera joan daitezen esateko prest agertu ohi gara. Bizia eragiten duten ekintzak jokatzen daki Jesusek: elkartu eta partekatu. Ez al dugu nabari ohi ugartasun bat beste batzuekin elkartzen garenean, bakoitzaren dohainak eskertu eta gainerakoei eskaintzen dizkiegunean? Neure ogi-puska txikia bestenekin pilatzen dudanean: guztientzat iritsi ohi da orduan, eta, are, sobera izaten da, gehiago behar izaten dutenentzat.

Jaunaren agerkunde ondokoa

San Eulogio Kordobakoa, *apaiza eta martiria*.

---

[1 Joan 4,11-18: Elkar maite badugu, Jainkoa gugan dago. Sal 72 [71]:  
Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna, nazio guztiek.]

† Jesu Kristoren ebanjelioa San Markosen liburutik 6,45-52.

Bost mila gizonak ase ondoren, Jesusek bere ikasleak ontzian sarrarazi eta bere aurretik beste aldera, Betsaidarantz, joateko agindu zien, berak jendeari agur egin bitartean. Jendea bidali ondoren, mendira joan zen, otoiiz egitera.

Ilundu zuenean, ontzia itsaso erdian zen, eta Jesus lehorrean, barkarik. Ikasleak arraunean nekez ari zirela ikusirik, haizea kontra baitzuten, goiz aldera haiengana joan zen ur ganean oinez, haiei aurrea hartu nahian bezala.

Ikasleak, ur ganean ibiltzen ikusi zutenean, mamua zelakoan, deiadarka hasi ziren; denek ikusi zuten eta erabat izutu ziren. Baina Jesus berehala mintzatu zitzaien: «Izan bihotz! Ni naiz; ez beldur izan!» Ontzira igo zitzaien eta haizea gelditu egin zen.

Zeharo harriturik gelditu ziren, ez baitzuten ulertu ogiekin gertatua, adimena itsu zuten eta.

**H**arrapatzen gaituzten gau harro eta haize kontrakoen artean, otoiiz egin beharra izaten dugu, Jesus ontzian geurekin dugula jabetzeko, nahiz eta ez egon bera guk ikusi nahi genukeen eran. Ez gaitu ekaitzetik ateratzen, baizik eta adorea eta arnasa ematen digu, hura gainditzeko; beste behin ere esaten: «Aupa, neu naiz, ez beldur izan». Bera geure artean dugu beti, baina bere eran; ez dihardu gure ordez, baizik eta gurekin batean; berehala hitz egiten digu, gonbidatuz, ez bizitza hain seguru batera, baina bai askoz konfiantzazkora.

Jaunaren agerkunde ondokoa  
San Nicanor, diakonoa eta martiria.  
Dolores Sopena, dohatsua  
(Katekesia Institutuaren fundatzailea).

[1 Joan 4,19–5,4: Jainkoa maite duenak maita dezala bere senidea ere.  
Sal 72 [71]: Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna, nazio guztiek.]

† Jesu Kristoren ebanjelioa San Lukasen liburutik 4,14-22a.

Aldi hartan, Jesus, Espirituaren indarrez, Galileara itzuli zen, eta haren izena lurralde hartan guztian zabaldu zen. Hango sinagogetan irakasten zuen, eta denek goresten zuten.

Jesus Nazaretera, bera hazitako herrira, joan zen, eta larunbatean, ohi zuenez, sinagogan sartu eta zutik jarri zen irakurgai egiteko. Isaias profetaren liburua eman zioten eta, irekitzean, pasarte hau aurkitu zuen:

«Jaunaren Espiritua nire gainean dago,  
hark gantzutu bainau,  
behartsuei Berri Ona emateko.  
Gatibuei askatasuna  
eta itsuei ikusmena hots egitera bidali nau,  
zapalduen askatasuna ematera,  
Jaunaren onginahi-urtea hots egitera».

Liburua bildu ondoren, laguntzaileari eman eta eseri zen. Denak sinagogan begira-begira zeuzkan.

Jesus honela hasi zitzaien: «Gaur bete da orain entzun duzuen Liburu Santuko hitz hau». Denek Jesusen alde hitz egiten zuten eta harriturik zeuden Jainkoaren onginahiaz esaten zituenengatik

**H**unkigarria da Jesusek bere ezagunen artean ageri duen xumetasuna, aldarrikatzeko, nola bihurtu den Espiritua beraren bizitzan hats eta arnasa. Beharrezkoak izan zituen Nazareten bizi izandako urteak, gaur bere baitan antzematen duen Maitasun zehatz horren zaporea bere begietan, eta bere eskuetan, eho ahal izateko. Profetaren pasarte batek baiesten du beraren barnekoitasuna. Aurrerantzean, behartsuek, zapalduak, gabetuek harrapatuko diote bihotza, gau eta egun harrapatu ere. «Gaur» gutako bakoitzak du Hitz bat, gure bizitzan gauzatu nahi dena. Ausartuko al gara hura onartzera hondoraino?

Jaunaren agerkunde ondokoa  
San Higinio, 9. aita santua.  
Santa Honorata, birjina.

---

[1 Jn 5,5-13: Espiritua, ura eta odola. Sal 147: Jerusalem, ospa ezazu Jauna!]

† Jesu Kristoren ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,12-16.

Aldi hartan, Jesus hiri batean zegoela, legenaz (lepraz) jositako gizon bat azaldu zen; Jesus ikustean, ahuspez erori eta erregutu zion: «Jauna, nahi baduzu, garbi nazakezu». Jesusek eskua luzatu eta ukitu egin zuen, esanez: «Nahi dut, geldi zaitetz garbi». Eta orduan bertan alde egin zion legenak.

Inori ez esateko agindu zion Jesusek eta esan: «Zoaz, azaldu apai-zagana eta eskaini garbikuntzaren ordainez Moisesek agindu zuena, agiria izan dezaten».

Jesusen izena gero eta gehiago ari zen zabaltzen eta jendetza handia bildu ohi zen hari entzutera eta beren gaitzetatik sendatzera. Baina Jesus leku bakartietara baztertu ohi zen otoitz egitera.

**E**z gaitzezen gelditu errealitatearen aurrean ikus-entzule pasibo bezala. Ausart gaitzezen laguntza eskatzera. Ez dugu ezer nahiago Jesusen eskuak geure gainean sentitu baino, ondo maitatzea eragozten digun guztia saneatuz. Errepara diezaiogun Jaunari, kamera geldoan, eszena honetan, eta erregutu diezaiogun bere sentimenduak kutsa diezazkigun, beraren desioa edo beraren nahia gizon zauritu haren nahiarekin bat datorren modu hura. Jesus arriskatu egin da eta jokoan jarri du bere burua, tabu erlijioso bat zapuztu du ez-garbitzat emana duten pertsona bat ukituz, maite du, eta maitasunak sendatu du. Bat al datoz nire desioak minetz bizi den jendearen desioekin? Arriskatzen al dut neure xarma halakoekin?

Jaunaren agerkunde ondokoa.  
San Arcadio Mauritaniakoa, *martiria*.

[1 Joan 5,14-21: Eskatzen diogun guztia entzuten digu. Sal 149: Maite du Jaunak bere herria.]

† Jesu Kristoren ebanjelioa San Joanen liburutik 2,22-30.

Aldi hartan, Jesus ikasleekin Judea aldera joan zen; han bizi zen haiekin, eta bataiatzen ari ohi zen. Joan Bataiatzailea ere bataiatzen ari zen Enonen, Salim ondoan, han ur asko baitzen, eta jendea bataiatzera etortzen zitzaion. Joan, artean, kartzelan sartu gabea zen.

Joanen ikasleek eta judu batek eztabaida atera zuten garbikuntza zela-eta. Etorri ziren Joanengana eta esan zioten: «Maisu, Jordanez beste aldean zurekin zebilen hura, zuk aitormen egin zeniona, bataiatzen ari da orain, eta denak harengana doaz».

Joanek erantzun zien:

«Inork ez dezake beretzat ezer har,  
zerutik ematen ez bazaio.

Zuek zarete testigu esan nuela:

“Ez naiz ni Mesias, haren aurretik bidalia baizik”.

Emaztea duena senarra da;

senarraren adiskidea, berriz, ondoan egoten da,  
pozik egon ere hari entzuten.

Horixe dut nik neure poza, eta poz bete-betea.

Hark hazi egin behar du; nik, berriz, txikiago bihurtu».

**A**sko laguntzen digu Joanen jokabideari erreparatzeak. Ez du nahi besteak berari atxikirik gelditzea, ez dio eman ez areriotasunari begira egoteari, ez konparazioak eginez bizitzeari. Ispilutat hartu beharko genuke bera, ulertzeko, arazoa ez dela poltsikoko agenda beterik edukitzea, ezta ere egiten ari garen hartan arrakasta izatea; izan ere, helburua ez gara gu geu, baizik eta Mesias. Misioa ez da gurea, baizik eta bera eman digun eta guran konfiantza ipini duen Jesusena. Gure neu-ak beheratu beharra du, Jesusek eta gainerako jendeak geure barnean leku gehiago har dezaten. Inbasio horretarako eginak gara, eta, zenbat eta gehiago guk hori onartu, hainbat eta gehiago sentituko dugu ematen digun poza.

## JAUNAREN BATAIOA.

## § Isaías Profetaren liburutik 42,1-4.6-7.

«Hona nire zerbitzaria, Nik eusten diodana, nire aukeratua, atsegin dudana. Honengan ipini dut neure espiritua; zuzenbidea ekarriko die herriei. Ez du oihu egingo, ez ahotsa goratuko, ez du kaleetan entzunaraziko bere mintzoa. Kanabera pitzatua ez du hautsiko, doi-doi piztua dagoen argi-metxa ez du itzaliko. Zuzenbidea ekarriko du leialki; ez du etsiko, ez da hautsiko, zuzenbidea lurrean ezarri arte; uharteak haren irakaspenaren zain daude. Nik, Jaun honek, salbamen-egintzarako dei egin dizut, eta eskutik heldu; Nik eratu zaitut eta izendatu herriarentzat itun eta nazioentzat argi izateko, itsuen begiak zabal ditzaazun, giltzapetuak espetxetik askatu eta ilunpean bizi direnak kartzelatik atera ditzaazun».

[Sal 29 [28]: Bere herria bedeinkatuko du bake emanez Jaunak.]

## § Apostoluen Eginak liburutik 10,34-38.

Egun haietan honela mintzatu zen Pedro: «Orain jabetzen naiz betetan Jainkoak ez duela bereizkeriarik egiten, baizik eta onartzen duela begirune diona eta beraren nahia egiten duena, edozein herritakoa dela ere.

Hark bere hitza bidali zien israeldarrei, guztien Jauna den Jesu Kristoren bidez bakearen Berri Ona iragarritz. Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek hots egin zuen bataioaren ondoren: Nazareteko Jesusena, alegia: Jainkoak Espiritu Santuaren indarraz gantzutu zuen, eta hark on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zuen bizitza, Jainkoa berekin baitzuen».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 3,15-16.21-22.

Aldi hartan, herria zain-zain zegoen eta denak ari ziren pentsatzen ez ote zen Joan Bataiatzailea Mesias izango. Joanek guztiei adierazi

## JAUNAREN BATAIOA.

zien: «Nik urez bataiatzen zaituztet; baina badator ni baino ahaltsuago dena eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere. Hark Espiritu Santuaz eta suaz bataiatuko zaituzte».

Herri guztia bataiatzen ari zen batean, Jesus ere bataiatu zen. Eta otoitzean ari zela, zerua zabaldu zen, eta Espiritu Santua jaitsi zitzaion gainera uso-irudian. Eta mintzo hau etorri zen zerutik: «Zu zara nire Semea, nire maitea; Zu zaitut atsegin».

**H**ainbat eta hainbat ahots dira gure inguru-linguru dabiltzanak. Batzuetan, ukatzen edota txikiagotzen gaituzten ahotsak izaten dira, gure jatorrizko bedeinkazioa laiotz uzten dutenak. Hondo-hondoan, nor garen jakin nahiz gabiltza, zein ote den elkarren bila ari garen bigaia honen zentzua. Beti kilikatu izan nau pentsatzeak, Jesusek ere urte asko egin behar izan zuela Nazareten Bataioaren esperientzia bizi aurretik. Aldi horretan beraren bizitzan Jainkoaren jokamoldea itsasten joan zen mantso-mantso; horregatik ilaran azkena jarriz hasi zen, bat gehiago bezala. Bere nortasuna sakonago ikusiko du besteen ondoan, bera ere beharrean dela aitortuz, ezertan nabarmendu gabe, bataio partekatu batean; Joan bera ere harritu da, berari nagusitu zaiona ez baita epaiketa, baizik eta neurririk eta baldintzarik gabeko maitasuna. Goizero isilarazi behar izaten dugu geure baitan ozentasuna errudun jotzen eta murrizten duen hainbat eta hainbat ahots; hain juxtu, geure ahuldadea eta guzti, oso maitetzat jotzen gaituen geure barruko Jaunaren ahotsa entzuteko. Eskain ote diezaiokegu geuk ere ahots hori begiratu garbiz besteen aurpegi bakoitzari, ikusaraziz nolatan den bera ere sakonki maitea?

Urteko 1. astea.

San Fulgentzio, *gotzaina*.

San Juan de Ribera, *Valentziako artzapezpikua*.

---

[Hebreatzei 1,1-6: Jainkoak Semearen bidez hitz egin digu. Sal 97  
[96]: Ahuspez jartzen zaizkio aingeru guztiak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,14-20.

Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutenean, Jesus Galileara joan zen eta Jainkoaren Berri Ona hots egiten zuen. Honela zioen: «Betea da garaia, eta hurbil da Jainkoaren erregetza. Bihotz-berri zaitetze eta sinetsi Berri Ona».

Jesusek, Galileako itsasbaterretik igarotzean, Simon eta honen anaia Andres ikusi zituen sareak urera botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek berehala sareak utzi eta jarraitu egin zioten.

Aurrerago, Santiago eta honen anaia Joan, Zebedeoren semeak, ikusi zituen; sareak konpontzen ari ziren beren ontzian. Ikusi bezain laster, dei egin zien Jesusek. Haiek, beren aita Zebedeo mutilekin ontzian utzirik, Jesusen ondoren joan ziren.

**J**oan atxilotu izana mingarria izan da, noski, Jesusentzat; baina Aitaren maitasunaz duen esperientziak adorea eman dio bideari berrekiteko. Lagun bila hasi da, biziaren ontasuna haiekin iragartzeko, Erreinua hurbil dagoen honetan. Ez du bakarrik jokatu nahi, eta ezin du. Beraren begiratuak eta hitzak elkarrekin kateatu dituzte ikasleak, eta haiek baietsi dute, dena oso argi ez duten arren. Besteentzat bedein-kazio bihurtu den bizitza partekatuz hasi dute misioa. Jesusek denak batera bizitzera dei egin die, bakarka egiten ahal dutena baino harago eramateko. Zer gauza utzi behar ditut nik alde batera, haren deiari bai esanez hasteko: hemen, orain eta honela, nagoen bezala?



[**Hebrearrei liburutik 2,5-12:** Egoki zen, haiek salbamenera gidatuko zituen burua, Jesus, oinazeen bidez bete-beteko egitea. **Sal 8:** Jau-na, zeure eskulan guztien buru gizakia jarri duzu.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,21-28.**

Kafarnaumen, larunbatean sinagogan sarturik, irakasten hasi zen Jesus. Jende guztia txunditurik zegoen haren irakaspenez, nagusitasu-nez irakasten baitzien, eta ez lege-maisuek bezala.

Bazen, hain zuzen, sinagoga hartan espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat, eta oihuka esan zuen: «Zer duk gurekin, Jesus Nazaretarra? Gu hondatzera al hator? Bazekiat nor haizen: Jainkoaren Santua».

Jesusek gogor eraso zion: «Isil hadi eta atera gizon horrengandik!» Espiritu gaiztoak astinaldi gogorra eman zion eta, garrasi handia egin ez, atera egin zen gizonagandik.

Denak ikaraturik gelditu ziren, elkarrri galdezka: «Zer dugu hau? Irakaspen berria, eta nolako nagusitasunez emana gainera! Espiritu gaiztoei ere agintzen die, eta obeditu egiten diote!»

Laster zabaldu zen Jesusen entzutea Galilea aldeko bazter guztietara.

**P**ertsona baten agintea sumatu ohi dugu, haren presentziak gogo berotzen gaituenean, haren hitzak geure hari barnekoienak ukitzen dituenean eta gudan gauzarik hobena esnatzen duenean. Sentitzen dugu, konfiantzaz har dezakegula halako hura geure sostengutzat eta nor-nahi joatera ausartzen gara harekin. Ez ote zen horrelako zerbait jendeak Jesusekin sentitzen zuena? Haren hurbiltasun amodiotsuak, haren hitzen berotasunak eta haren bizitzaren benetakotasunak: horrek guztiak haren argia ikusarazten zien, ordu arte ezagutzen ez zuten argia. Jesusekin, bizitzari kalte egiten dion guztiak galtzen du inori gaitz egiteko indarra, eta onberatasunak eta esperantzak izaten dute azken hitza errealitatearen gain.

Urteko 1. astea.

San Martzelo 1.a, 30. *aita santua, eta martiria.*

[**Hebrearrei liburutik 2,14-18:** Gauza guztietan senideen antzeko izan behar zuen, errukitsu izateko. **Sal 105 [104]:** Gogoan du etengabe Jaunak bere ituna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,29-39.**

Aldi hartan, Jesus sinagogatik atera eta Simonen eta Andresen etxera joan zen zuzenean, Santiagorekin eta Joanekin. Simonen amaginarreba oheratua zegoen sukarrarekin; berehala, hartaz hitz egin zioten Jesusi. Joan zitzaion Jesus ondora, eskutik hartu eta jaikiarazi zuen. Sukarrak alde egin zion, eta zerbitzatzen hasi zitzaion.

Arratsean, eguzkia sartu ondoren, gaixo eta deabrudun guztiak eraman zizkioten Jesusi. Herri guztia bildu zen atarian. Eta hark gaixo asko sendatu zuen, edozein zela ere haien gaitza, eta deabru asko bota zuen. Deabruai ez zien uzten hitz egiten, bazekiten-eta nor zen.

Goizean goiz, artean ilun zegoela, Jesus herritik atera eta bazter barkarti batera joan zen; han otoitzean ari zen. Simon eta lagunak Jesusen bila hasi ziren eta, aurkitzean, esan zioten: «Jende guztia zure bila dabil».

Hark, ordea, erantzun: «Goazen beste norabait, inguruko auzoetara, horietan ere Berri Ona hots egitera, horretarako atera bainaiz». Hala, Galilea guztian barna ibili zen, hango sinagogetan Berri Ona hots egiten eta deabruak botatzen.

**E**banjelio guztiak galduko bagenitu, baina sukarrak joa den emakume honen sendatzearen txatala bakarrik geldituko balitzaigu, bildurik izango genuke horretan Jesusen misioaren muina. «Hurbildu zen»: ahuldade orok amesten duen hurbiltasuna; «eskutik hartu zuen»: ukitzeo eta arintzeko Jesusek duen beste inork ez bezalako era; «jaikiarazi zuen»: zutik jarrarazi du, zuzendu du haren bizitza, gainerakoengana ireki dezan, eskerronez eta osasungarri. Horixe da Jesusek egiten jarraituko duena mila eratan: sufrimendua arindu eta bizitzen irakatsi. Begira jarriko natzaie Jesusen samurtasunari eta askatasunari, eta beraren alboan jarriko naiz, beraren zerbait kutsa diezadan.

Urteko 1. astea.  
San Anton, *abadea*.

[*Hebreairei liburutik 3,7-14*: Adoretu elkar egunero, «gaur» horrek irauten duen bitartean. *Sal 95 [94]*: Entzungo al duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,40-45.

Aldi hartan, legenardun bat etorri zitzaion erreguka Jesusi eta, belaunikaturik, esan zion: «Nahi baduzu, garbi nazakezu». Jesusek, errukiturik, eskua luzatu eta ukitu zuen, esanez: «Nahi dut, izan zaitez garbi». Orduan bertan alde egin zion legenak, eta garbi gelditu zen.

Jesusek bidali egin zuen, zorrotz aginduz: «Kontuz gero! Ez esan inori ezer. Baina zoaz, agertu apaizagana eta eskaini garbikuntzaren ordainez Moisesek agindutakoa, ezaugarri izan dezaten».

Hura, ordea, atera zeneko, gertatua hots egiten eta zabaltzen hasi zen oihuka, eta harrezkero ezin zen Jesus inongo herritan agerian sartu, eta kanpoan gelditzen zen, leku bakartietan. Hala ere, edonondik zetorkion jendea.

**E**z, ez zen izan «mirari» bat baztertua zuten gizon hura sendatu zuena, nola eta afektuari, samurtasunari eta bestearekiko gupidari izen hori ematen ez diogun. Lepraduna sendatu zuena, Jesusek berari begiratu izana izan zen, lepradunak aintzat hartu izana Jesusek esan ziona eta bera ukitu izana. Batez ere, Jesusek bere esku onak haren larru zaurituan eta haren bizitza zokoratuan ezarri izana. Jesusen eskuen bidez Jainkoaren ukitu saneagarria izan zen gizon hari bere duintasuna eta edertasuna itzuli zizkiona. Eta zein premia handia dugun guztiok horrelako ukitu batena! Mariak, minez bizi zen emakume hark, «ukitu ninduen» arrats batean, bere lagunartea eta arretea eskaini zizkidanean, nire begiitsuak eta nire maitasun hertsia garbitu zizkidan.

Urteko 1. astea.

Santa Priska eta Santa Margarita, birjinak.

Kristauen Batasunaren aldeko zortziurrenaren hasiera.

[Hebreenre liburutik 4,1-5.11: Saia gaitezen atsedean horretan sartzen.

Sal 78 [77]: Ez ahaztu Jainkoaren egintza handiez.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2,1-12

Zenbait egunen ondoren, Jesus Kafarnaumen sartu zen berriro, eta etxean zegoeneko berria zabaldu zen. Bildu zen jendetzarekin ez zegoen inon tokirik, ezta atarian ere. Eta mezua adierazten zien.

Hartan, elbarri bat ekarri zioten lau lagunen artean. Baina jendetzatik ezin zuten eraman Jesusenganaino. Orduan, bera zegoen parean etxe-gaina zulatu eta zulotik behera eraitsi zuten elbarria, etzanik zegoen ohatilan. Jesusek, haien sinesmena ikusirik, esan zion elbarriari: «Seme, barkatuak dituzu bekatuak!»

Baziren han eserita lege-maisu batzuk, eta hau zioten beren baitan: «Zer ari duk hau horrela? Biraoka ari duk. Nork barka zitzakek bekatuak, Jainkoak berak izan ezik?»

Baina Jesusek bere barruan haien gogoetei igarri eta esan zien: «Zergatik dituzue gogoeta horiek zeuen baitan? Zer da errazago, elbarriari “barkatuak dituzu bekatuak” esatea ala “jaiki, hartu ohatila eta zabilta” esatea? Orain ikusiko duzue, bada, Gizonaren Semeak baduela mundu honetan bekatuak barkatzeko ahalmena. Eta esan zion elbarriari: “Zuri diotsut: Jaiki, hartu ohatila eta zoaz etxera”».

Berehala jaiki, ohatila hartu eta guztien aurrean atera zen. Denak harriturik gelditu ziren, eta Jainkoa goresten zuten, esanez: «Ez dugu sekula horrelakorik ikusi».

**B**atak bestea animatu beharra izaten dugu, gizon elbarriaren lau adiskideek bezala, egoera zurrunez beren baitan, errealitate bihurtzeko gai, gordetzen dituzten bedeinkazioen bila jarduteko. Osasun-falta

Urteko 1. astea.

Santa Priska eta Santa Margarita, birjinak.

Kristauen Batasunaren aldeko zortziurrenaren hasiera.

dagoen hartan –blokeoa, bizitza hesitua, eman gabeko barkazioa, ezintasun metatuak–: egoera hartan ere bada errealitate bat, noiz eta nork aintzat hartuko eta sendatuko zain. Geure etxean berean, hurbilenik ditugun aurpegietan, eguneko unerik txikienetan... Han ere izaten ditugu sendabide eta zentzu-emaile izango diren hitzen zain. Izan ere, gauden lekuan bedeinkaziorik aurkitzeko gai ez bagara, nolatan aurki genezake beste nonbait?

\* \* \*

### KRISTAUEN BATASUNAREN ALDEKO ZORTZIURRENA

Urtarrilaren 18tik 25era kristauen batasunaren aldeko zortziurrena ospatzen dugu. Jesusen jarraitzaileok ahaztu egin izan gara Jesusen beraren otoiitz hartaz: «Guztiak bat izan daitezela, Aita» (Joan 17,21).

Halere, XX. mendean, mugimendu ekumenikoa jaio zen. Vatikanoko II.ak biziki erregutu zien katolikoei mugimendu horrekin bat egitea. Besteak beste, hiru baldintza aipatuz: 1. – katoliko ez diren anai-arreba kristauez arduratzea, beraiekin Elizako arazoez hitz eginez, haiekin topaketak egitera joz. 2. – ekumenismorako, ezinbestekoa dela bihotz-berritzea. 3. – batasunaren bidea oztopa lezakeen arinkeria guztiei uko egitea.

Ordudanik, bilera asko egin dituzte Aita Santuek eta beste Elizetako arduradun nagusiek. Borondate oneko keinu eta jarrera asko ikusi dugu.

Adituen mailan, adostasun handiak lortu dira sakramentuen mailan. Baita graziari eta justifikazioari dagozkien irakaspenen inguruan ere.

Badirudi, batasunerako biderik egokiena, arazo praktikoetan elkarrekin jokatzeko dela: ekologian, lur hau zaintzen, biziaren alde, familiaren alde, etab. Ezinbestekoa, otoiitza. Bihotz garbiz eta egiatz egina. (D. Amundarain, J.-R. Flecharen testu batez baliatuz)

Urteko 1. astea.

Joan Ogilvie, Esteban Pongrác, Meltxor Grodziecki *apaizak*, eta Marko Krizevcanin, *Esztergom-eko kalonjea*; Ignazio de Azevedo, *apaiza* eta lagunak\*

[**Hebrearrei liburutik 4,12-16**: Hurbil gaitzen konfiantza osoz Jainkoaren graziaren tronura. **Sal 19 [18]**: Zure hitzak, Jauna, espiritu eta bizi dira.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2,13-17

Aldi hartan, Jesus itsasaldera atera zen berriro. Jende guztia berarengana zihoan, eta irakasten hasi zitzaien. Bidez zihoala, Lebi Alfeorena ikusi zuen, zergak biltzeko mahaian eseria, eta esan zion: «Jarrai niri». Lebig zutitu eta jarraitu egin zion.

Geroago, Jesus mahaian zegoen Lebiren etxean; bazen beste zergalari eta bekataria asko ere Jesusekin eta honen ikasleekin mahaian; izan ere, asko zihoazkion ondoren.

Fariseuen arteko lege-maisu batzuek, bekataria eta zergalariekin jaten ari zela ikustean, esan zieten ikasleei: «Nolatan jaten du zergalari eta bekatariekin?»

Hori aditzean, Jesusek esan zien: «Ez dute osasundunek behar sendagilea, gaixoez baizik; ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik».

**C**aravaggiok jasoa du pasadizo hau arnasten duen misterio leuna. Pintura horretan, Mateok bera seinalatzen duen Jesusen eskuaren ukietua bizi du. Honen ahotsak baino lehen honen begiratuak harrapatu du, eta zerga-biltzaile honen aurpegia sumaezineko argitasunak jo du. Harriturik, bere bihotza ireki dio Mateok –bere etxea eta mahaia–, eta gai sentitu da ostatu-harrera eskaintzeko. Nola igaro gintezke geure probetxuen erakusmahaitik besteen premien mahaira? Bide bakarra dugu: guk geuk gero eta maiteago izateko premia aitortzea. Gauden-gaudenean berritzen digu Jaunak bere deia. Ez diogu jarraitzen «errugabe» garelako, baizik eta «barkatuak» garelako.

\* Santiago Salès, *apaiza* eta Gilermo Saultemouche, *martiriak, jesuitak*. San Makario Handia, *abadea*. Martzelo Spinola, *dohatsua, fundatzailea (Jainkoaren Bihotzaren mirabeak)*.

## § Isaias profetaren liburutik 62,1-5.

Sionen maitasunez ez naiz isilduko,  
Jerusalemen maitasunez ez naiz geldi egongo;  
haren garaipena goiz-argia bezala agertu arte,  
haren salbamenak zuziak bezala distiratu arte.

Eta ikusiko dute herriek zure garaipena, errege guztiek zure ospea;  
izen berria ezarriko dizute, Jaunak berak emana. Koroa eder izango  
zara Jaunaren eskuan, errege-diadema zeure Jainkoaren eskuan.

Ez dizute berriz deituko «Zapuztua», ezta zure lurraldeari ere  
«Hondatua».

«Ene atsegina» deituko dizute zuri, eta «Emazte» zure lurraldeari.

Atsegin izango baitu zugan Jaunak  
eta emaztetzat hartuko du zure lurraldea.

Mutila neskatzarekin ezkontzen den bezala, hala ezkonduko da  
zurekin zure eraikitzailea; senarra emaztearekin pozten den bezala,  
hala poztuko da zurekin Jainkoa.

[Sal 96 [95]: Zabaldu Jaunaren mirariak herri guztietan.]

## § San Paulok 1 Korintoarrei 12,4-11.

Senideok: Era askotakoak dira dohainak, baina bat bakarra Espiritua;  
era askotakoak zerbitzuak, baina bat bakarra Jauna; era askotakoak  
eginbideak, baina bat bakarra Jainkoa, guztiengan guztia egiten  
duena. Bakoitzari denen onerako ematen dizkio Jainkoak Espirituaren  
dohainak.

Honela, bati jakinduriaz hitz egitea ematen dio Jainkoak Espirituaren  
bidez; beste bati, Espiritu beraren arabera, ezagueraz hitz egitea;  
bati, Espiritu beraren egitez, sinesmen-dohaina ematen dio; beste bati,

Urteko 2. astea.

San Sebastian, *martiria*.San Fruktuoso, *gotzaina* eta San Eulogio eta San Augurio,  
*haren diakonoak, martiriak*.

Espiritu beraren egitez, sendaketak egiteko dohaina; bati, mirariak egiteko ahalmena; beste bati, Jainkoaren izenean hitz egitea; bati espiritu faltsua et benetakoa bereiztea; beste bati, hizketa arrotzez mintzaztea, eta beste bati, hizketa horren esanahia adieraztea.

Hori guztia, ordea, Espiritu batek berak egiten du, bere dohainak nahi duen bezala bakoitzari banatuz.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 2,1-11.

Aldi hartan, ezteiak izan ziren Galileako Kanan, eta han zen Jesu-  
sen ama. Jesus eta honen ikasleak ere ezteietara gonbidatu zituzten.  
Ardoa bukatu zen, eta amak esan zion Jesusi: «Ez dute ardorik». Je-  
susek erantzun zion: «Utz nazazu bakean, emakume. Nire ordua ez  
da oraindik etorri». Jesusen amak esan zien morroiei: «Egizue berak  
esango dizuen».

Harrizko sei ontzi zeuden han, juduek beren garbikuntzetarako  
erabili ohi zituztenak, bakoitza ehun bat litrokoa. Jesusek esan zien  
morroiei: «Bete ontziak urez». Eta haiek leporaino bete zituzten. Jesu-  
sek berriro: «Atera orain, eta eraman mahaizainari». Eta haiek eraman  
zioten.

Dastatu zuen mahaizainak ura ardo bihurtua, nongoa zen jakin  
gabe (morroiek, bai, bazekiten, berek atera baitzuten ura); orduan, ez-  
konberriari deitu eta esan zion: «Ardo ona denek hasieran ateratzen  
dute eta, jendea edanda dagoenean, txarragoa. Zuk, berriz, orain arte  
gorde duzu ardo ona».

Galileako Kanan egin zuen Jesusek bere lehen-ezaugarri hau; ho-  
nela, bere aintza azaldu zuen, eta sinetsi egin zuten harengan ikasleek.

**K**ontenpla dezagun Andre Maria: haren sentiberatasuna besteen  
beharrak ohartzeko eta haren bihotz-askatasuna Jesusi proposatu eta  
itxaroteko. Mariak gogoratu digu, nolako gaitasuna duten gure ur-on-



tziek eta nolako eraldaketa egin nahi duen haietan Norbaitek, uzten badiogu. Orain berean gauzatzen den eraldaketa da, konfiantzaz onartzen ditugunean Jesusen hitzak, gure bizitzako errutinazko uraren gainean esanak. Ardo ona orain eskaintzeak esan nahi du, batetik, ez gordetzea gutako bakoitzak duen on hura, baizik eta, eskuzabal, gauden lekuan ibilian ipintzea, bizitza ospatzeko eta eskertzeko; esan nahi du, bestetik, geure garaiko gizon-emakumeak jasaten ari diren premian geu ere presente egotea, eta ulertzea halakoek duten sakoneko antsia, ulertuak eta animatuak izateko.

Galileako Kana guretzat, Andre Maria ezagutzeko lekua da. Egoera bat eraldatzeko pertsona bakoitzak duen ahalbidea agertu digu bere begiratuaz, eta hark (Jesus) esaten diguna egitera gonbidatu gaitu; izan ere, esperentziaz daki Mariak Jainkoak ugari ematen duela, beti gehiago ematen duela Jesus. Iragana idealizatzeko joera izan ohi dugu, baina Ebanjelioak agertu digu, gauzarik onena gertakizun dela oraino.

\* \* \*

### SAN SEBASTIAN, MARTIRIA

Ipuin eta fabula asko idatzi izan da San Sebastianez. Gauza ziurrik gutxi dakigu. Jatorriz Milangoa bide zen. Erromara joan zen. Kristauen kontrako pertsekuzio handia bizi zuten han. Eta Sebastian ere martiri hil zuten han. San Ambrosioren garaian, IV. mendean, debozio handia zioten Milanen. Zenbait iruditan geziz zeharkatua ageri ohi da; baina badirudi geroagoko asmazio bat dela hori. Nolanahi ere, martiri hiltzeko, adore handia agertu zuen. Etsenplutzat hartzeko gizona dugu, gure askotako arinkeriak gainditze-bidean.

Otoitza: Jauna, emaguzu adore-espirtua, Sebastian martiri santuaren etsenplu aintzatsuak animaturik, ikas dezagula gizon edo emakume izaten, ikas dezagula zure zerbitzari izaten gizon-emakumeen zerbitzari izanez. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

Urteko 2. astea.

Santa Ines, *birjina eta martiria*.

[Hebreaerrei liburutik 5,1-10: Semea izanik ere, oinazearen oinazez ikasi zuen obeditzen. Sal 110 [109]: Apaiz zara Zu, Melkisedek bezala, betiko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2,18-22.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen ikasleek eta fariseuek barau-eguna zuten. Jesusengana joan eta esan zioten: «Nolatan egiten dute barau Joanen ikasleek eta fariseuek, eta zure ikasleek ez?»

Jesusek erantzun zien: «Ezteietara deituek egin ote dezakete barau, senar berria berekin dutelarik? Senar berria berekin duten bitartean, ez dezakete barau egin. Etorriko zaie, bai, senar berria kenduko dieten eguna; orduan, egun hartan, egingo dute barau.

Inork ez dio jantzi zaharrari oihal gordinezko adabakirik josten; bestela, adabaki berriak jantzi zaharra behartu, eta zarratada handiagoa egiten da. Ez du inork ardo berririk sartzen ere zahagi zaharretan; ardoak zahagiak lehertu egingo litzuzke eta, orduan, ez ardo eta ez zahagi. Ardo berria zahagi berritan».

**N**olatan jotzen dugu konparazioak egitera, kontuan izan gabe pertsona bakoitza eta egoera bakoitza mundu bat dela? Begiak itsutzen zaizkigu ez ikusteko, eta Jaunak egindako galderen beharra izaten dugu, gertatzen dena ulertu eta bereizteko. Bada aldi bat ospatzeko eta aldi bat dolu egiteko. Izaten dira uneak besteari mundua zabal-zabal agertu eta haren bihotza animatzeko, eta izaten dira uneak, zeinetan barau egitea komeni izaten baita, funtsezkoa ahogozatzeko. «Senargaiaren» adiskidetasunaren berritasuna gozatzea da kontua, eta onginahi hau zehaztea eguneroko bizitzan. Aski hartzaile eta irekirik al ditugu geure zahagiak ezusteko ardoa jasotzeko?

Urteko 2. astea.

San Bizente, *diakonoa eta martiria*.San Valero Zaragozako, *gozaina*.

[Hebreatzei liburutik 6,10-20: Itzaropen hau dugu geure bizitzaren aingura sendoa eta segurua. Sal 111 [110]: Gogoan du beti Jaunak bere ituna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2,23-28.

Behin batean, larunbatez gari-soroetan barna zihoazen Jesus eta ikasleak; bidenabar galburuak mozten hasi ziren. Fariseuek esan zioten Jesusi: «Nolatan ari dira egiten, larunbatez zilegi ez dena?»

Hark erantzun: «Ez al duzue inoiz irakurri zer egin zuen Davidek beharaldi batean, bera eta bere lagunak goseak gertatu zirenean? Nola, Abiatar apaiz nagusi zelarik, Jainkoaren etxean sartu eta Jaunari eskainiriko ogiak jan zituen, legez apaizek bakarrik jan zitzaizketenak, eta nola bere lagunei ere eman zien?»

Eta esan zien: «Larunbata gizakiarentzat egin zuen Jainkoak, ez gizakia larunbatarentzat. Beraz, Gizonaren Semea larunbataren beraren nagusi da».

**J**udu-tradizioak dio, sei egunetan gure eskuak mundukoak direla, baina zazpigarrean, «shabbat» egunean, gure bihotza Jainkoarena dela. Ezin egin da kontenplaziorik egunerokotasunean, ezin eskaini zaie arretarik besteen ezkutuko oinazei, ez badugu berregiten geure begiratua larunbatarekin, ez egiteko, ez kalkulatzeko, ez probetxurik ateratzeko uneekin; soil-soilik, besteen ondoan bizitzearen mirezgarria biziz, liluratuz, gozatuz egin ahal izango dugu kontenplaziorik. «Shabbat»a, geure burua berregiten uzteko aldia da, Jauntzat aitortzen dugun haren kreakzioaren adorazio-dinamismoan murgiltzeko aldia!

Urteko 2. astea.

San Ildefonso, *gotzaina*.

Santa Emerentziana, *birjina*.

[Hebrearrei liburutik 7,13-15-17: Apaiz zara zu, Melkisedek bezala, betiko. Sal 110 [109]: Apaiz zara Zu, Melkisedek bezala, betiko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,1-6.

Aldi hartan, Jesus sinagogan sartu zen berriro. Bazen han gizon beso-ihar bat. Zelatan zegozkion larunbatean sendatzen ote zuen, zertan salatuko baitzebiltzan.

Jesusek beso-iharrari esan zion: «Jaiki eta zatoz hona, erdira». Eta besteei esan zien: «Larunbatez zer da zilegi, on egitea ala gaitz egitea, bizia salbatzea ala kentzea?» Haiek, ordea, isilik. Jesusek, ingurukoei haserre begiraturik eta beraien setakeriaz mindurik, esan zion gizona-ri: «Luzatu beso hori». Hark luzatu zuen, eta sendatu egin zitzaion. Handik atera orduko, fariseuek eta Herodesen alderdikoek elkar hartu zuten Jesusen kontra, hura nola galduko.

«**J**aiki zaitetz»: berreskura ezazu zeure gizatasuna, zeure duintasuna. Begiz begi begiratzeko eginak gara, bihotzez tente ibiltzeko. «Zatoz hona, erdira»: berreskura ezazu zeure erdigunea, zeure lekua izaki maite bezala, zeure gaitasuna harremanetan jarduteko. Sendatua izateko ahalbideak badu, ordea, eskakizunik ere guretzat: urratsak egin beharra: «luzatu beso hori», eta gainditu mugatzaile dituzun aurreiritziak. Beti izango da marmarreen ariko den ahotsik, errezelorik izango duenik; baina Jesusek funtsezko aukera bat jarri digu aurrean, edozein gorabeheratan galdera hau egitea: lehenik bestearen ona aukeratzen al dut ala ezkutuko interesak ditut tartean, neuretzat probetxugarriagozta hartzen ditudanak?

Urteko 2. astea.

San Frantzisko Saleskoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

[Hebreatzei liburutik 7,25–8.6: Jesusek behin betiko oparia eskaini zuen bere burua eskaini zuenean. Sal 40 [39]: Hemen nauzu, Jaina, zure nahia egin dezadan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,7-12.

Aldi hartan, Jesus itsasbazterrera joan zen bere ikasleekin. Galileatik etorritako jendetza handiak jarraitu zion. Eta, berak egiten zituenak entzunik, Judea, Jerusalem eta Idumeatik, Jordanez bestaldetik eta Tiro eta Sidon aldetik ere jendetza handia bildu zitzaion. Jesusek txalupa prest edukitzeko agindu zien ikasleei, hainbeste jenderen artean zapaldu ez zezaten.

Izan ere, asko zituen sendatuak, eta gaitzen bat zuten guztiak gainera zetozkion, ukitu nahian. Espiritu gaiztoek, ikusten zuteneko, haren oinetara erori eta oihuka esaten zioten: «Jainkoaren Semea zara Zu». Hark, ordea, zorrotz agintzen zien, ez emateko ezagutzera.

**J**esuk beneratzeko lehen kristauek erabili zituzten izenetako bat zen hau: «dohainik sendatzen duzun sendagilea». Guztientzat azaltzen duen gupida hori, desio sakon honetatik datorkio: jendea sufrimendu orotatik aske ikusi nahia. Sendagile honentzat sendaezinezik ez da ezer. Dohainik sendatzen du, bere presentzia hutsaz ematen du osasuna. Espiritu likitsek berek aitortu dute, bizitza on honen jariora Jainkoagandik bakarrik etor daitekeela. Tentazioa Jesusentzat, mirari bat leporatu diezaioten da; horregatik, ez du «publizitaterik» nahi. Beste leku batean agertu digu sendatzeko eta arintzeko duen gaitasunaren sekretua non dagoen. Ez dagi ezer ere bere gisa.

Urteko 2. astea.

San Paulo apostolua Kristogana itzultzea.

Santa Elbira, *abadesa*.

Kristauen Batasunaren aldeko Zortziurrenaren bukaera.

---

[Eginak liburutik 22,3-16: Bataia zaitetz eta garbitu zeure bekatuetatik Jaunaren izenari dei eginez. Sal 117 [116]: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16,15-18.

Aldi hartan, Jesus Hamaikei agertu eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete eta sendatu egingo dira».

**P**aulok bezala, guk ere beharra dugu: Jaunak begiratu garbitu diezagun beharra, «Ananias» aurkitu beharra geure bidean lagundu gaitzan ikusmena berreskuratzen, errealitateari Jainkoak begiratzen dion bezala begiratzeko, eta Jesusek maite duen bezala maitatzeko. Errealitate haren izpirik ez da gelditzen maitasun horren irradiaziotik kanpo: «mundu osoa eta kreaioa guztia» dira maitasun hura onartzeko eginak. Jokamolde guztiz zehatzak adieraziz bidali gaitu Jesusek: ongia sustatzea eta bihotzaren hizkera ikastea; ukitu sendagilea, berri onaren eta bedeinkazioaren zaporerik handiena utziko duen biziera biziz eta azalduz.

Urteko 2. astea,  
San Timoteo eta San Tito, *gotzainak*.

[2 Timoteori gutunetik 1,1-8: Gogoan dut zuk duzun zinezko fedea.  
Sal 96 [95]: Iragarri herri guztiei Jainkoaren egintza miresgarriak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburitik 3,20-21.

Aldi hartan, Jesus etxera itzuli zen bere ikasleekin. Berriro ere jendetza handia bildu zen, eta ezin zuten otordurik ere egin Jesusek eta ikasleek. Jesusen ahaideak, hori jakitean, hura hartu eta eramateko asmotan etorri ziren, burutik egina zegoela esaten baitzuten.

**J**esusen maitasun-parrastadak ezin utzi du inor ere hunkitu gabe. Otorduak guztiekin egiteko duen era, nor zein den begiratu gabe, Jainkoaz hain lau eta profanoki hitz egiteko era, inork besarkatzen ez dituenak besarkatzeko era: bere familiartekoak berak eskandalizatzen iritsi da; ez zaie «normala» iruditzen Jesusen jokabidea, bada zoro-ukitu bat haren jardueran, ezarria dena, aurreikusia eta ondo ikusia dena baino harago doan zerbait. Agian gure bizitza aurreikusgarriegia da eta ondo ikusiegia, gehiegitasun gutxikoa on egiteko. Pauloren hitzek birkokatzen ahal gaituzte: «biziberritu ezazu Jainkoaren dohaina», zaindu eta eskertu.

Urteko 3. astea.

Santa Angela Merici, *fundatzailea (Urtsulinak)*.

San Enrike de Ossó, *fundatzailea (Teresianak)*.

### § Nehemiasen liburutik 8, 2-4a.5-6.8-10.

Egun haietan, Esdras apaizak Moisesen legearen liburua ekarri zuen, gizon-emakume eta ezaguera zuten guztien batzarraren aurrea. Zazpigarren hilaren lehen eguna zen. Eta goizetik eguerdia arte Ur-atearen aurreko plazan batzar osoari irakurtzen aritu zitzaion; herri osoa adi-adi zegoen legearen liburua entzuten.

Esdras lege-maisua, hartarako egina zuten oholtza gainean zegoen zutik. Esdrasek liburua zabaldu zuen herri osoaren aurrean, bera denen gainetik jarria baitzegoen; liburua zabaltzeaz batera, herri osoa zutitu zen. Gero, Esdrasek Jauna Jainko handia goretsi zuen, eta herriak, eskuak jasorik, «Amen, amen» erantzun zuen; ondoren, makurtu eta lurreraino ahuspeztuz, Jainkoa agurtu zuten.

Lebitarrek argi eta garbi irakurtzen zuten Jainkoaren legea, esanahia azalduz, herriak ulertzeko eran.

Herri osoak negarrari eman zion, legearen hitzak entzutean. Orduan, Nehemias gobernariak, Esdras apaiz eta lege-maisuak eta irakasten ari ziren lebitarrek esan zioten herriari: «Gaurko eguna Jaunari, geure Jainkoari, sagaratua dugu; beraz, ez egon triste, ez negar egin».

Gainera, esan zieten: «Zoazte eta jan haragi guria, edan ardo gozoa, eta bidali janaria ezer prestaturik ez dutenei ere, egun hau Jaunari sagaratua baita. Ez atsekabetu, Jaunaren poza baita zuen indarra»..

[Sal 19 [18]: Zure hitzak, Jauna, espiritu eta bizi dira.]

### § San Paulok 1 Korintoarrei 12,12-30.

Senideok: Gorputzak, bat izanik ere, atal asko du; baina atal guztiek, asko izanik ere, gorputz bat bakarra osatzen dute. Gauza bera gertatzen da Kristorekin ere. Gu guztiok, judu nahiz greziar, esklabo nahiz libre, Espiritu bat berarengan izan gara bataiatuak, gorputz bat bakarra egiteko. Eta guztiok Espiritu bat beretik edan dugu.



Urteko 3. astea.

Santa Angela Merici, *fundatzailea (Urtsulinak)*.San Enrike de Ossó, *fundatzailea (Teresianak)*.

Gorputza, izan ere, ez du atal bakarrak osatzen, askok baizik. Oinak esango balu: «Eskua ez naizenez gero, ez naiz gorputzarena», ez lioke horregatik gorputzarena izateari utziko. Eta belarriak esango balu: «Begia ez naizenez gero, ez naiz gorputzarena», ez lioke horregatik gorputzarena izateari utziko. Gorputz guztia begi balitz, non entzumena? Eta dena belarri balitz, non usaimena?

Baina Jainkoak bere tokia jarri zion atal bakoitzari gorputzean, berak nahi bezala. Denak atal bat balira, zer-nolakoa izango litzateke gorputz hori? Baina ez, atalak asko dira; gorputza, ordea, bat bakarra. Begiak ez diezaioke eskuari esan: «Ez dut zure beharrik»; ezta buruak ere oinei: «Ez dut zuen beharrik».

Gehiago oraindik, makalenak diruditen gorputz-atalak beharrezkoenak dira, eta duintasunik gutxieneko iruditzen zaizkigunak itzal eta begirune handiagoz inguratzen eta zaintzen ditugu; izan ere, berez ohoragari direnek ez dute arreta horien beharrik. Jainkoak berak, gorputza eratzean, berez ohore gabeko ziren atalei begirune handiagoa eman zien. Horrela, ez dago zatiketarik gorputzean, eta atal guztiak bata besteaz arduratzen dira. Atal batek min duenean, min dute gainerako atal guztiak harekin; eta, atal bat ohoratua denean, poza dute gainerako guztiak harekin.

Zuek, beraz, Kristoren gorputza zarete, eta zuetako bakoitza gorputz horren atal. Eliz elkartean bakoitzari bere tokia ezarri dio Jainkoak: lehenengo apostoluak jarri ditu, bigarren profetak, hirugarren irakasleak, ondoren mirarigileak, gero sendatzeko edo behartsuei laguntzeko dohaina, nahiz elkartea gidatzeko edota hizketa arrotzez mintzatzeko dohaina dutenak. Denak apostolu ote dira? Denak profeta? Denak irakasle? Denak mirarigile? Denek ote dute sendatzeko dohaina? Denak mintzo ote dira hizketa arrotzez? Denak ote dira hizketa arrotzen interpretari?

Urteko 3. astea.

Santa Angela Merici, *fundatzailea (Urtsulinak)*.

San Enrike de Ossó, *fundatzailea (Teresianak)*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,1-4; 4,14-21.

Teofilo agurgarria: Askok ekin dio gure artean izan diren gertakarien historia idazteari, hasieratik begizko testigu eta gero Berri Onaren predikari izandakoek jakinarazi digutenaren arabera. Neuri ere ongi iruditu zait dena bere harian zuretzat idaztea, hasieratik guztia zehatz-zehatz aztertu ondoren, hartu dituzun irakaspenak zein finkatuak dauden ikus dezazun.

Jesus, Espirituaren indarrez, Galileara itzuli zen, eta haren ize-na lurralde hartan guztian zabaldu zen. Hango sinagogetan irakasten zuen, eta denek goresten zuten.

Jesus Nazaretera, bera hazi zen herrira, joan zen, eta larunbatean sinagogan sartu, ohi zuenez, eta zutik jarri zen irakurgaia egiteko. Isaias profetaren liburua eman zioten eta, irekitzean, pasarte hau aurkitu zuen:

«Jaunaren Espiritua nire gainean dago,  
hark gantzutu bainau,  
behartsuei Berri Ona emateko.  
Gatibuei askatasuna  
eta itsuei ikusmena hots egitera bidali nau,  
zapalduei askatasuna ematera,  
Jaunaren onginahi-urtea hots egitera».

Liburua bildu ondoren, laguntzaileari eman eta eseri egin zen. Denak sinagogan begira-begira zeuzkan.

Jesus honela hasi zitzaien: «Gaur bete da orain entzun duzuen Liburu Santuko hitz hau».

**S**umatu al dugu sekula, Liburu Santuko hitz bat geugan edo beste norbaitengan bete dela? Hori baitu bere zoria Bibliako hitzak. Jesusek, Espirituaren gantzuketa hau, misio batekin eta egitismo batekin hartu

Urteko 3. astea.

Santa Angela Merici, *fundatzailea (Urtsulinak)*.San Enrike de Ossó, *fundatzailea (Teresianak)*.

du bihotzean; beraren bizitza guztia behartsuek eta zapalduak polarizatu dute, egintza guztiz zehatzak eginez: gozatu, askatu, onberatasuna aldarrikatu. Beraren hitzak gaur egun nola betetzen diren sentitzeko, beharrezkoa da belarriak ez ixtea, gure psikologia, gure izaera, unean uneko gure aldartea hunki dezaten uztea. Frantzisko aita santuak geure bizitzan hiru jarrera hauek hedatzera gonbidatu gaitu: «zutik» egoterra Jainkoa onartzeko, «siltasun» patxadatsuan eta «irteera» moduan, besteei aldarrikatzeko.

\* \* \*

### KRISTAU ORO, TEOLOGO ESPERANTZAREN ARRAZOI EMANEZ

Gaurko ebanjelioan, Jesusek bere burua aurkeztu digu: «Jaunaren Espiritua nire gainean dago...». Hona segidan, emakume batek, María López Vigil-ek, bere burua nola aurkezten duen: «Emakume bat naiz. Kuban jaioa. Kubatar sentitzen naiz, nikaraguar eta latin-amerikatar. Nikaraguan bizi naiz orain 30 urtez gero. Kazetaria naiz, baina uste dut, guztien gainetik, komunikatzailea naizela: hitz egin eta idatzi. Nikaraguan, batzuetan, teologo deitzen didate. Nik ez dut sekula teologiarik ikasi, baina betidanik izan ditut gogoko Jainkoaren bila ibiltzea, erlijioa, espiritualitatea, irrika bihurtzeraino. Beti izan dut gogoko Pedroren gutuneko esaldi hau, dioena, beti behar dugula eman «geure esperantzaren arrazoi». Niretzat, horixe da teologia: esperantzaren arrazoi ematea, eta ez soilik geroagoko biziari dagokionez, baita oraingo honi dagokionez ere».

Urteko 3. astea.

Tomas santua Aquinokoa, *apaiza eta eliz irakaslea, domingotarra.*

San Julian Cuencakoa, *gotzaina.*

[**Hebrenarrei liburutik 9,15.24-28:** Kristo behin bakarrik izan zen opari eskainia, bekatuak kentzeko; gero bigarrenez agertuko da beraren zain daudenak salbatzera. **Sal 98 [97]:** Kanta Jaunari kantu berri, egin baititu hainbat harrigarri.]

**Jesu Kristoren ebanjelioa San Markosen liburutik 3,22-30.**

Aldi hartan, Jerusalemdik jaitsitako lege-maisuek hau zioten Jesusi buruz: «Beeltzebul dauka honek barruan», eta «Deabruen buruzagiaren indarrez botatzen ditu honek deabruak».

Jesusek beregana deitu eta parabola hauen bidez hitz egin zien: «Nola bota dezake Satanasek Satanas? Bere baitan zatiturik dagoen erreinuak ezin du irau. Bere baitan zatiturik dagoen familiak ezin du irau. Era berean Satanasek ere, bere buruaren aurka jaiki eta zatiturik baldin badago, ezin du irau; harenak egin du. Ez daiteke inor sartu indartsu baten etxean lapurretara, aldeztu aurretik hura lotzen ez badu; orduan, bai, harrapa ditzake haren etxeko ondasunak.

Benetan diotsuet: Dena barkatuko die Jainkoak gizakiei, bekatuak eta esan litzaketan birao guztiak; baina Espiritu Santuaren aurka birao egiten duenak ez du sekula barkamenik izango; errudun izango da bertiko». Espiritu gaiztoa zeukala ziotenei erantzun zien hau.

**I**rudi dakiguke, pasadizo honek ez duela zerikusi handirik gurekin, eta Jesusi egin dioten salaketatik urrun gaudela; halaz guztiz, badugu geuk ere bihotzean lege-maisu bat, zelataka: egintza on baten garbitasuna aitortzea kostatzen zaigu, datorren lekutik datorrela; batez ere, gure aldekoak ez direnengandik datorrenean, edota gureak ez bezalako pentsaera eta egoera dituztenengandik. Uste izaten dugu, asmo edo interes ezkutukoren bat izan ohi dutela berekin halakoen egintzek, gutxiagotu egiten dugu halakoen egintzaren ekarpena eta nondik nora azpia jango ibiltzen gara. Besteen alde egiten den on guztiak aintzat hartu eta egileei animoak emateko eskatu digu Jesusek.

Urteko 3. astea.

San Gelasio, 49. *aita santua*.Santa Radegunda Trebiñokoa, *birjina*.

[Hebrearrei liburutik 10,1-10: Hemen nauzu, Jainko, zure nahia bete-  
tzeko. Sal 40 [39]: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,31-35.

Aldi hartan, Jesusen ama eta anai-arrebak etorri ziren eta, kanpoan gelditurik, deiarazi egin zuten. Jende asko zegoen Jesusen inguruan eserita, eta esan zioten: «Aizu, hor dituzu kanpoan ama eta anai-arrebak, zeure bila».

Jesusek erantzun zuen: «Zein dira nire ama eta anai-arrebak?» Eta, inguruan eserita zituenei begiratuz, esan zuen: «Hauek ditut Nik ama eta anai-arreba. Jainkoaren nahia egiten duena, horixe dut Nik anaia, arreba eta ama».

**E**zin iraun dugu elkarrekiko loturarik gabe. Janaria bezain beharrezko ditugu. Jesusi ere muinago eta sakonago ditugun lotura haiek leporatzen dizkiote, gure lehen bizi-ehundura eratzen duten haiek, geure sustraia, kidesasuna eta janaria ematen diguten haiek. Jesusen berritasuna, ordea, beraren begiratu zabala da. Ez baldintzatzen, ez apartatzen ez gaituzten lotura batzuen proposamena da Jesusena; hain juxtu, gizon-emakume guztiengana iristen diren loturena. Aurrerantzean, bata bestearen ama, anai-arreba izan gintezke, Jainkoaren ametsa jardueraz beteko dugunean: bizitza guztientzat ona izango denean, txikienak lehenengo direla.

Urteko 3. astea.

San Lesmes, *monjea*.

Santa Martina, *birjina*.

[**Hebrearrei liburutik 10,1-10-**: Beren betera eraman ditu Kristok Jainkoarentzat behin betiko sagaratuak direnak. **Sal 110 [109]**: Apaiz zara Zu, Melkisedek bezala, betiko.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4,1-20.**

Aldi hartan, Jesus berriz ere irakasten hasi zen itsasertzean. Eta hainbeste jende bildu baitzitzaion ondora, urean zegoen txalupa batera igo eta bertan eseri zen. Jende-taldea, berriz, lehorrean zegoen, itsasbaterrean. Gauza asko irakatsi zien parabola bidez hitz eginez. Honela ari zitzaien bere irakastaldian:

«Entzun! Behin batean, irten zen ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide-bazterrean erori zen, eta txoriek etorri eta jan egin zuten. Beste zenbait harri artean erori zen, lur handirik ez zen lekuan, eta, axaleko lurra izanik, berehala erne zen; baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu.

Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiak, haztean, ito egin zuten hazia eta ez zuen fruiturik eman. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta erne, hazi eta fruitua eman zuten: bateko hogeita hamar, hirurogei nahiz ehun». Eta ohar hau egin zien Jesusek: «Entzuteko belarririk duenak, entzun beza!»

Bakarrik gelditu zirenean, Hamabiekin batera berarekin zebiltzanez parabolaren esanahiaz galdetu zioten Jesusi. Eta honek esan zien: «Zuei eman zaizue Jainkoaren erreinuaren misterioa ezagutzea; kanpokoei, ordea, dena parabola bidez ematen zaie, Liburu Santuak dioena bete dadin: “Begiratzen dute, bai, baina ikusten ez; entzuten dute, baina ulertzen ez; horrela, ez dira Jaunagana bihurtzen eta ez zaie barkatzen”».

Eta esan zien gainera: «Parabola hau ez duzuela ulertzen? Nola ulertuko dituzue, orduan, gainerako parabola guztiak?»

Ereileak hitza ereiten du. Hitza ereitean, batzuk “bide-bazterra” bezalakoak dira: entzun bezain laster, Satanasek etorri eta haiengan

Urteko 3. astea.

San Lesmes, *monjea*.Santa Martina, *birjina*.

erein den hitza kendu egiten die. Beste batzuk “harri artea” bezalakoak dira: hitza entzutean, berehala pozik hartzen dute; baina sustrairik gabeak eta iraupen txikikoak izanik, hitza dela-eta estutasun nahiz erasoaldiren bat sortu orduko, huts egiten dute. Beste batzuk, berriz, “sasi artea” bezalakoak dira: entzuten dute hitza, baina mundu hone-tako ardurak, diru-gosea eta bestelako grinak nagusitzen zaizkie eta hitza ito egiten diete, fruiturik gabe utziz. Eta hona nor diren “lur ona” bezalakoak: hitza entzun, onartu eta fruitua ematen dutenak: bateko hogeita hamar nahiz hirurogei nahiz ehun».

**A**rbola handi bati begira jartzen garenean, gauza egokia izango litzateke hazi txiki huts zen hura gogora ekartzea eta unetxo hari begirunez begiratzea. Orduan hasi zen guztia, isil-isilik. Jainkoaren isileko egintzaz hitz egiten dio naturak Jesusi, eta nekazari eskuzabal eta eralgitzaille bezala aurkeztu digu Jainko hori; izan ere, ez du botatzen hazia lur onean bakarrik, baizik eta bidean eta lahar artean ere bai. Pazientzia eta denbora behar direla dio, hazia erne eta itsatsi arte: zailtasunak izango direla, eta prozesu batzuk galduko direla, baina beste batzuek fruitua emango dutela. Datorrena datorrena, ereileak hor jarraituko du. Maitasunez eta aspertu gabe, bere beso-eskuak astinduz.

\* \* \*

### FRANTZISKO AITA SANTUAZ HITZ BI

«Ezin esan dugu Frantzisko aita santua Askapen Teologiari atxiki zaionik. Gizon irekia da, eremuak irekitzen ditu eta urrunera doa, beti ere Elizaren gizarte-irakaspenaren barne, kapitalismo harraparia argiro gaitzestera hurbilduz» (François Houtart, 93 urteko zela 2017-06-06an hila).

Urteko 3. astea.

San Bosco, *apaiza (salesianoen fundatzailea)*.

[Hebrenarrei liburutik 10,19-25: Iraun dezagun sendo itxaropena aitortzen; lagun diezaiogun elkarri, maitasunean elkar gogo berotuz. Sal 24 [23]: Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4,21-25.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Lakaripean edota ohe azpian ipintzeko pizten ote da kriseilua? Ez ote da argimutilaren gainean ipintzeko pizten? Izan ere, ez dago ezer gordea agertuko ez denik, ezta ezkutuan ere argitaratuko ez denik. Entzuteko belarririk duenak, entzun beza!»

Beste hau ere esan zien: «Kontu izan nola entzuten duzuen! Zuek zein neurritan entzun, neurri berean emango dizue Jainkoak, eta gehiago ere bai. Izan ere, duenari eman egingo zaio; ez duenari, ordea, duenapurra ere kendu».

**N**elson Mandelak bere lehendakari-inbestiduran adierazi zuen: «Nork geure argia distiratzeari oharkabeki uzten diogunean, gauza bera egiteko baimena ematen diegu beste pertsona batzuei. Eta geure beldurraz liberatzen garenean, gure presentziak besterik gabe liberatzen ditu gainerakoak». Uste dut, konbentzimendu honek zerikusi handia duela Jesusek egin digun gonbitarekin, geure argia ez ezkutatzekoarekin; izan ere, geure argia eskaintzea, besteak ere berea iratzartzeko modua da. Egiaz uste al dugu, zenbat eta gehiago partekatu argi hori, orduan eta gehiago hazten dela, zenbat eta gehiago eskaini esku betean, orduan eta gehiago handitzen dela bera hartzeko gure gaitasuna?







## OTSAILA / ZEZEILA

### AITA SANTUAREN ASMOA

**Unibertsala.** Ez ustelkeriari. Zehazki, botere materiala, politikoa edo espirituala dutenak ustelkeriaren mende eror ez daitezten.



Urteko 3. astea.

Santa Brigida, *birjina*.

San Pionio, *apaiza eta martiria*.

[Hebrearrei liburutik 10,32-39 Borroka gogorra egin behar izan zenu-  
ten. Ez galdu, beraz, adorea. Sal 37 [36]: Jaunagandik dator zin-  
tzoen salbamen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4,26-34.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Jainkoaren erreinua gi-  
zonak lurrean hazia ereitean gertatu ohi denaren antzekoa da; hura  
lo nahiz iratzaririk egon, gau eta egun, hazia erne eta garatu egiten  
da, hark nola ez dakiela. Lurak berez ematen du fruitua: lehenengo  
landarea, gero galburua eta, azkenik, alea galburua betean. Eta garia  
heltzean, igitaiaz ekiten zaio, uztaroa da eta».

Beste hau ere esan zien: «Zeren antzeko dela esango genuke Jain-  
koaren erreinua? Zein parabolaren bidez adieraz genezake? Mosta-  
za-haziaren antzekoa da: lurrean ereitean, hazi guztietan txikiena da;  
erein eta gero, ordea, gora egiten du eta beste barazki guztiak baino  
handiagoa egiten da; eta hain handiak dira botatzen dituen adarrak,  
txoriek habia egiten baitute haren itzalpean».

Horrelako parabola askoren bidez iragartzen zion Jesusek mezua,  
haiek ulertzeko eran. Ez zien ezer irakasten parabola bidez izan ezik;  
baina bere ikasleei, bakarrean, guztiaren esanahia adierazten zien.

**E**rreinuaren mihia da parabola, gure irudimena iratzarrara-  
zi nahi du eta gure afektibitatea, gure bihotza, mugiarazi. Harrigarri  
gertatzen zaigu Jesus parabolaz baliatzean: hain jantzi laua eta soila  
erabiliz, hain zirikatzaile eta hain bizi mintzo baitzaigu, guri atentzioa  
emateraino. Laborariak ere ez al du jartzen konfiantza haziaren miste-  
rioin: haziz joango dela, beraren ekintzaren gaitasuna gaindituz? Ez  
al digu zirrara eragiten imajinatzeak, gaur itzala eta fruitua ematen  
dizkigun arbola hori kimu txiki batetik joan dela egiten guztiz astiro?  
Eguneroko gorabeheretan geure begiak gauza txikietan ezartzen ez ba-  
ditugu, begirik ez badugu bizitzako prozesu isilak kontenplatzeko, ihes  
egingo digute Jainkoaren albiste entzungabeek.

### § Malakias Profetaren liburutik 3,1-4.

Hau dio Jainko Jaunak: «Hor bidaltzen dut neure mezularia, nire aurretik bidea prestatzera. Eta berehala etorriko da bere santutegira zuek bila zabiltzaten nagusia, eta irrikatzen duzuen ituneko mezularia. Horra non datorren, dio Jaun ahalguztidunak.

Nork jasan haren etorrera-eguna? Nor zutik egon, hura agertzean? Urtzailearen sua bezala izango da, garbitzailearen lixiba bezala. Urtu eta garbitzeko eseriko da; zilarra eta urrea garbitzen diren bezala, halaxe garbituko ditu Leberen ondorengoak, Jaunari opariak behar bezala eskaini diezazkioten. Orduan, atsegin izango zaio Jaunari Judako eta Jerusalemgo oparia, lehengo garaietan bezala».

[Sal 24 [23]: Jaun ahalguztiduna da Errege ospetsua.]

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,22-40.

Moisesen legearen arabera, amari garbikuntza egiteko ueña iritsi zitzaionean, gurasoek Jerusalemara eraman zuten Jesus, Jaunari aurkezteko. Izan ere, honela dago agindua Jaunaren legean: «Lehen-seme guztiak Jaunari sagaratuko dizkiozue». Jaunaren legean ezarritako oparia ere eskaini behar zuten: «Bi usapal edota bi usakume».

Bazen Jerusalemen Simeon izeneko gizon bat, gizon zintzo eta jainkozalea, Jainkoak Israel noiz kontsolatuko zain zegoena. Espiritu Santua berekin zuen, eta aditzera emana zion ez zela hilko Jaunaren Mesias ikusi arte. Eta Espiritu Santuak eraginda tenplura joan zen.

Legeak agintzen zuena betetzeko gurasoek Jesus haurra tenplura eraman zutenean, Simeonek haurra besoetan hartu eta Jainkoa bedeinkatu zuen, esanez:

«Orain utz dezakezu, Jauna,  
zeure morroi hau bakean hiltzen,  
Zeuk hitzeman bezala.

Urteko 3. astea.

JAUNAREN AURKEZPENA.

Kandelen bedeinkapena eta elizbira.

Canterburyko Lorentzo santua, *gotzaina*.

Ikusi dute nire begiok zugandiko salbamena, herri guztien aurrean Zuk aurkeztua: nazioak argitzeko argia eta zure herri Israelen ospea».

Haurraren aita-amak harriturik zeuden haurraz esaten zirenekin. Eta Simeonek bedeinkatu egin zituen, eta haurraren ama Mariari esan zion: «Begira, israeldar asko erortzeko eta beste asko altxatzeko ipinia dago hau; eztabaida sortzen duen ezaugarri izango da, horrela bihotz askotako asmoak agerian geldi daitezten. Eta zuri ezpata batek alde alde zulatuko dizu arima».

Bazen profetesa bat ere, Ana zeritzana, Fanuelen alaba, Aserren jatorrikoa. Urteetan oso aurreratua zen; gaztetan ezkondu eta zazpi urtez senarrarekin bizi ondoren, alargun gelditu zen, eta bazituen lau-rogeita lau urte. Gau eta egun tenpluan egoten zen, barau eta otoitz, Jainkoa zerbitzatzen. Ordu hartan han gertatu zen, eta Jainkoa gores-ten eta haurraz mintzatzten hasi zitzaizen Jerusalemen askatasunaren zain zeuden guztiei.

Jesusen gurasoak, dena Jaunaren legeak agintzen duen bezala bete ondoren, Galileara itzuli ziren, beren herri Nazaretera. Haurra hazten eta indartzen zihoan, jakinduriaz betetzen ari zen eta Jainkoaren gra-zia berekin zuen.

**S**imeon eta Ana bezalako jendearen beharra dugu, inguratzen dituzten guztientzat jarrera onbera eta txerazkoa dutenak, beren bizitzarekin adiskidetuak eta barnekoaren suaz begiak handi dituztenak. Ordu arte imajinatua zutena ez bezalako salbazioa sumatzeko gai izan ziren haiek. Munduan den jende zaugarria eta hauskorra besarkatzen eta kontenplazten dugunean, agertzeko aukera eskaintzen diogu Jainkoari, eta beraren onginahiari geure bidelagun izaten uzten diogu. Beren bizitzako negu-aldian, Simeon eta Ana beren beldurretatik sendaturik sentitu dira haur haren begiratua eta geroa direla medio. Harengan zentzua ikusi diote bizi izan duten guztiari, eta uzten ahal dute, jada, beren bizitza bake osoan.

### § Jeremias profetaren liburutik 1,4-5.17-19.

Josias erregearen egunetan, honela mintzatu zitzaidan Jauna:

«Amaren sabelean sortu aurretik aukeratu zintudan; jaio aurretik sagaratu zintudan eta profeta izendatu, nire mezua herriei iragartzeko. Zu egon prest Nik aginduko dizudan guztia haiei adieraztera joateko. Ez izan haien beldur; bestela, zeuri sartuko dizut Nik haienganako beldurra. Gotorleku egiten zaitut gaur, burdinazko zutabe eta brontzeko hesi, herrialde guztiaren aurka. Borroka egingo dizute, baina ez zaituzte menderatuko; zeurekin izango bainauzu, zu libratzeko».

Hala dio Jaunak.

### Sal 71 [70]: Nire ahoak iragarriko du, Jauna, zure salbamena.]

### § San Paulok 1 Korintoarrei: 12,31–13,13.

Senideok: Irrika itzazue dohainik hoberenak. Eta orain bide bikainagoa adierazi nahi dizuet. Nahiz eta gizakien eta aingeruen hizkuntzetan hitz egin, maitasunik ez badut, brontze soinulari eta ezkila tintinlari besterik ez naiz. Nahiz eta profezi dohaina izan, nahiz eta misterio guztiak eta munduko jakintza guztiak ezagutu eta mendiak lekuz aldatzeko adinako sinesmena izan, maitasunik ez badut, ez naiz ezer. Dudan guztia behartsuen artean banatu eta neure gorputza erretzeraino emanda ere, maitasunik ez badut, ez dit ezertarako balio.

Maitasuna eroapen handikoa da eta bihozbera; ez du bekaizkeriarik, ez handiusterik, ez harropuzkeriarik. Ez da lotsagabea, ez berekoa, ez haserrekorra; kaltea ez du gogoan hartzen. Ez da bidegabeke-riaz pozten, baizik eta egian pozten da. Maitasunak dena barkatzen du, dena sinesten, dena itxaroten, dena ongi eramaten.

Maitasuna ez da sekula itzaltzen. Profezi dohaina desagertuko da, hizketa arrotzez hitz egitea amaituko, jakintza ere desagertuko.

Urteko 4. astea.

San Blas, *gotzaina eta martiria*.

San Oskar, *gotzaina*.

Santa Claudina Thévenet, *fundatzailea (Jesus-Maria)*.

Erdizkakoa baita gure ezaguera, erdizkakoa gure profezia; eta, bete-betekoia iristean, desagertu egingo da erdizkakoa. Ume nintzenean, ume bezala mintzo nintzen, ume bezala sentitzen nuen, ume bezala pentsatzen. Gizon egin naizenean, utzi egin ditut ume-gauzak. Orain dena ilun ikusten dugu, ispiluan bezala; orduan, aurrez aurre ikusiko dugu. Orain erdizka ezagutzen dut; orduan, oso-osoan ezagutuko dut, Jainkoak ni ezagutzen nauen bezala.

Hiru gauza hauek diraute orain: sinesmenak, itxaropenak eta maitasunak; baina hiruretan handiena maitasuna da.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4,21-30.

Aldi hartan, Jesus honela hasi zitzaien hitz egiten: «Gaur bete da, orain entzun duzuen Liburu Santuko hitz hau». Denek Jesusen alde hitz egiten zuten eta harriturik zeuden Jainkoaren ongina hiaz esaten zituenengatik. Baina hau zioten: «Ez al da, ba, hau Joseren semea?»

Orduan, Jesusek esan zien: «Harako esaera hura gogoraraziko didazue, noski: “Sendagile, sendatu zeure burua”, eta esango: “Egitzazu hemen ere, zeure herrian, Kafarnaumen egin omen dituzun gauzak».

Eta erantsi zuen: «Hara Nik egia esan: Ez da profetarik bere herrian onartua denik. Egiaz esaten dizuet: Bazen emakume alargunik asko Israelen Eliasen garaian, hiru urte eta sei hilabetez euria egin gabe egonik, lurralde guztian gosete gorria izan zenean; hala ere, Jainkoak ez zion haietako inori bidali Elias, Sidon herrialdeko Sareptako alargunari baizik. Eta bazen legenardunik asko Israelen Eliseo profetaren garaian; hala ere, ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman baizik».

Hauek entzutean, sinagogan zeuden guztiak amorruez bete ziren. Eta jaikirik, Jesus herritik kanpora atera eta herria eraikia zegoen mendiko amildegira eraman zuten, handik behera botatzeko asmotan. Baina Jesus haien erditik igaro eta bere bidetik joan zen.



**H**iru monjek ohitura zuten, urtero Antonio abadearen kobazulora joateko. Hiruetarik batek bereizmenaz egin zion galdera, bigarrenak arimaren salbazioaz; hirugarrena, berriz, beti isilik egon ohi zen, ezer galdetu gabe. Denbora askoren buruan, Antoniok esan zion: «Urte asko da hona etortzen zarela eta inoiz ez didazu galderarik egin; zergatik?» Orduan ikasleak erantzun zion: «Aski dut zu ikustearekin, aita». Istoriario honen oihartzuna etorri zait gaurko ebanjelioa entzutean. Jesusek Jainkoa irradiatzen bazuen, Jesusen gorputz osoa «mintzo ikusgarri» bihurtu bazen, egina zuena inork ez bezala agerian jartzen bazuen, zergatik kostatu zaie hainbeste berari antzematea ikasleei? Normalegia zen Jesus, gizatiarregia. Hogeita hamar urtez gainerakoak bezalakoa izan da Nazareten. Hain hurbil dute bera, non ezin baitute ikusi haren dohaina! Begira ipintzeko beste modu bat erakutsi digu Jesusek, ohiturari lotu gabea, aurreiritziez lokaztu gabea. Espero ez genuen bezalakoa Jainko bat agertu digu, eta espero ez genuen jende haren bidez. Eta aitortu beharra dugu, kostatu egiten zaigula horrelako Jainko bati antzematea.

\* \* \*

### «AMEN» HITZAREN ESANAHIA

«Amen» hitzak bi adiera ditu: 1. – «Hala da», eta 2. – «Hala izan dadila».

Jaunartzean «Amen» erantzutean, fede-ekintza egiten ari naiz: Kristoren bizia hartzen ari naizela aitortzen dut.

Gainera, «amen» erantzutean, gogo bat adierazten ari naiz: bilaka nadila ni Kristo, egin nadila ni Kristo, beste batzuei bizia emateko, Kristok egin ohi zuen bezala.

Urteko 4. astea.

Santa Joana Valois-koa, *erregina*.

San Joan Brito, *apaiza*; dohatsua: Rodolfo Acquaviva, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak, jesuitak*.

[**Hebreatzei liburutik 11,32-40**: Sinesmenari esker erreinuak menderatu zituzten. Jainkoak zerbait hobea prestatu zuen guretzat. **Sal 31 [30]**: Izan bihotz, Jaunagan itxaroten duzuen guztiok!]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 5,1-20.**

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak itsasoaz bestaldera joan ziren, gerasatarren lurraldera. Jesus ontzitik jaitsi zeneko, espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat atera zitzaion hilobi artetik bidera. Hilobietan bizi zen, eta ezin zuen inork lotuta eduki, ezta katez ere; askotan lotua zuten girgiluz eta katez, baina hark kateak hautsi eta girgiluak puskatu egiten zituen, eta ez zen inor ere hura menderatzeko gauza. Gau eta egun, hilobi artean eta mendiz mendi ibili ohi zen etengabe, marrumak eta bere burua harriz zauritzen.

Urrutitik Jesus ikustean, lasterka joan eta aurrean ahuspeztu zitzaion. Eta oihu handiz esan zion: «Zer duzu nirekin, Jesus, Goi-goiko Jainkoaren Seme horrek? Jainkoarren, ez nazazu oinazetu». Izan ere, Jesusek hau agindu baitzion: «Atera hadi gizon honengandik, espiritu gaizto hori!»

Orduan, Jesusek galdetu zion: «Nola duk izena?» Hark erantzun: «Taldea, asko gara eta». Eta arren eta arren eskatzen zion, ez zitzala lurralde hartatik kanpora bidali.

Txerri-talde handia zebilen mendi inguru hartan, uxarrean. Espiritu gaiztoek eskatu zioten Jesusi: «Bidal gaitzazu txerrietara, beraietan sar gaitezen». Hark baimena eman zien; orduan, espiritu gaiztoak gizonagandik atera eta txerrietan sartu ziren, eta txerri-taldea ezpondan behera itsasora amildu zen; bi mila inguru txerri ito zen.

Txerrizainek ihes egin eta gertatuaren berri zabaldu zuten herrian eta auzoetan; eta jendea, zer gertatu zen ikustera etorri zen. Jesusengana iristean, han ikusi zuten deabruduna, eserita, jantzirik eta bere onean, lehen deabru-taldearen menpe zegoen huraxe bera, eta biziki izutu ziren. Ikusi zutenek, deabrudunari gertatua eta txerrie-

# 4

Astelehena

OTSAILA / ZEZEILA

Urteko 4. astea.

Santa Joana Valois-koa, *erregina*.

San Joan Brito, *apaiza*; dohatsua: Rodolfo Acquaviva, *apaiza*,  
eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*.

---

na kontatu zieten. Orduan, beren lur-mugetatik alde egiteko eskatu zioten Jesusi.

Jesus ontzira igotzean, deabrudun izanak arren eskatzen zion berarekin ibiltzen uzteko; baina Jesusek ez zion utzi, baizik eta esan zion: «Zoaz etxera, zeure senitartera, eta jakinarazi Jaunak, zutaz errukiturik, egin dizun guztia». Joan zen, bada, eta Jesusek egin zionna hots egiten hasi zen Dekapolisko lurraldean. Harriturik gelditzen ziren denak

**J**ende asko bizi da bazterketaren hilobietan. Haien bizitza zauritua eta narriatua da sufritu behar izan duten guztiaren lekuko. Halakoak saneatzen ahal dituen gauza bakarra hurbiltasuna eta samurtasuna dira, begiratzen dien norbaitenak, beraietaz arduratzen den norbaitenak, ezti-ezti onartzen eta arreta agertzen dien norbaitenak. Hunkigarria da pasadizo honetan Jesusen garbitasuna; harreman horietan ez dabil bere onura propioaren bila, ez du gorde ezer ere beretzat, ez du eskatu ezer ere ordainetan. Ai kutsatuko balitzaigu doakotasun honetatik zerbait!; izan ere, hori gabe ezin ulertu dugu Erreinua: hartua dugun errukia besteri agertu, sufrimendu orotara hurbildu, aldarrikatu Jesusek gurekin egiten duena egiten uzten diogunean.

Urteko 4. astea

Santa Ageda, *birjina eta martiria*.

[Hebrearrei liburutik 12,1-4: Ekin diezaiogun etsi gabe aurrean dugun lasterketari. Sal 22 [21]: Goretsiko zaituzte, Jauna, zure bila dabilzanek.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 5,21-43.

Aldi hartan, Jesus itsasoaz bestaldera itzuli zenean, jende-talde handia bildu zitzaion. Artean itsaso ondoan zegoela, sinagogako buruzagietako bat etorri zen, Jairo zeritzana; Jesus ikustean, honen oinetan ahuspezturik, arren eta arren eskatzen zion: «Hilzorian dut alabatxoa; zatoz haren gainean eskuak ezartzera, senda dadin eta bizi». Jesus harekin abiatu zen.

Jende asko zihoakion ondoren, estutuz. Bazen han emakume bat, hamabi urte hartan odol-jarioa zuena. Hamaika sendagileren eskuetan jasatekoak jasana zen, eta bere ondasun guztiak ere horretan emanak zituen; baina sendatu beharrean, gero eta okerrago zihoan. Jesusen berri entzunda, jende artean atzetik joan eta jantzia ukitu zion, hau baitzioen bere artean: «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz». Une berean odol-jarioa gelditu zitzaion, eta gaitza sendatua zuela sumatu zuen bere gorputzean.

Berehala antzeman zion Jesusek halako indar bat atera zitzaioela barnetik eta, jende artean itzulirik, galdetu zuen: «Nork ukitu dit jantzia?» Ikasleek erantzun zioten: «Hainbeste jendek estutzen zaituela ikusi, eta nork ukitu zaituen galdetzen al duzu?» Baina Jesus ingurura begira zebilen, nork egin ote zion hori. Orduan, emakumeak, beldurrez dar-dar –ongi baitzekien zer gertatu zitzaion–, oinetara erori eta egia osoa aitortu zion. Baina Jesusek esan zion: «Alaba, zeure sinesmenak sendatu zaitu; zoaz bakean, eta sendatua bekizu gaitza».

Artean hizketan ari zela, sinagogako buruzagiaren etxetik etorri ziren, esanez: «Hil zaizu alaba. Zertako eman neke gehiago Maisuari?» Baina Jesusek, hitz horiek entzunik, sinagogako buruzagiari esan zion: «Ez beldur izan; zuk sinetsi!»

Urteko 4. astea

Santa Ageda, birjina eta martiria.

Ez zion inori ere berekin joaten utzi, Pedrori, Santiagori eta honen anaia Joani izan ezik.

Sinagogako buruzagiaren etxera iristean, ikusi zuen Jesusek hango istilua, jendea negarrez eta garrasika. Sartu eta esan zien: «Zer dela-eta horrenbeste istilu eta negar? Neskak ez dago hilda, lo dago». Haiek barre egiten zioten.

Baina Jesusek denak kanpora bidali zituen eta, neskatxaren aita-amak eta berekin zituenak harturik, neska zegoen tokira sartu zen. Neskari eskutik heldu eta esan zion: «Talitha, kum» (hau da: «Neskatxa, zuri diotsut, jaiki»). Berehala zutitu eta ibiltzen hasi zen, hamabi urte bazituen eta. Jende guztia harri eta zur gelditu zen. Jesusek zorrotz agindu zien inork ere ez zezala jakin. Eta neskatxari jaten emateko esan zien.

**J**esusek neskatxaren gelan sarrarazi ditu aita eta ama, bizitzaren sorburu biak, baita adiskide minenak dituen hiru ikasleak ere, adierazi nahi baligu bezala, harreman-ehundura hori beharrezkoa dela neskatila esnatzeko. Jakinaren gainean al gaude, ezin dugula geuk bakarrik, beharrezkoa dugula besteekin trukatzea begiratu, harremanak, ahotsa, txikienak direnen bizitza elkarrekin janaritzeko? «Ez da zereginik» delakoaren ezintasunaren buruz buru, esperantza behar dugu proposatu, ahaleginak batzen eta sareak eratzen dituen, ahalbidetuko diotenak jenderik hauskorrenari bere bizitza garatzea osasunez, heziketaz, zentzuz eta edertasunez.

## OTSAILA / ZEZEILA     Asteazkena / Eguaztena

Urteko 4. astea.

San Martin Igokundekoa (Beasain 1567-Japonia 1597), *martiria*.  
San Paulo Miki, *erlijiosoa*, eta lagunak, *santuak*; eta *dohatsuak*: Karlos Spinola eta Sebastian Kimura, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*.

# 6

[Hebrenarrei liburutik 12,4-7.11-15: Maite duena zentzarazten du Jaunak. Sal 103 [102]: Jaunaren maitasuna betidanik betidaino begirune diotenentzat!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,1-6.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen, ikasleak ondoren zituela. Hurrengo larunbatean, sinagogan irakasten hasi zen. Entzule askok, harriturik, hau zioen: «Nondik du honek hori guztia? Zer da eman zaion jakinduria hori? Eta honen eskuz gertatzen diren mirari horiek? Hau ez al da, ba, arotza, Mariaren semea eta Santiago, Jose, Judas eta Simonen anaia? Eta honen arrebak ere ez al dira hemen gure artean bizi?» Eta ezin zuten sinetsi harengan.

Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian, senitarlean eta etxean izan ezik».

Eta ezin izan zuen han miraririk egin; hala ere, gaixo bakar batzuk sendatu zituen, eskuak gainean ezarriz. Eta harriturik zegoen haien sinagogokeriaz. Gero, inguruko auzoetan ibili zen, irakasten.

**E**zin egin ahal izan zuen Jesusek ezer ere Nazareten, hegoak moztu zizkieten han. Ezagunegia zuten haiek Jesus. Harritzekoa da haren egintza saneagarria gure atxikipenaren baitan egotea, Jaunak erregalu eskaintzen diguna gure askatasunaren baitan egotea, onartzeko edota ukatzeko. Geure egunaren egunekoan, familiar, lanean, elkartean, geure harremanetan, hego-emaile al gara ala hego-moztaile? Gai izaten al gara konfiantza berritzeko mutur-aldi baten ondoren eta bakoitzak duen gauzarik hoberenaren aldeko apustua egiteko? Gauzarik zailena, hori guztia «etxe barruan» gordetzea izaten da, baina halaber horixe da gehienik hurbiltzen gaituena Jesusen Berri Onera.

Urteko 4. astea.

San Amant, *gotzaina* (Baionako elizbarrutian).San Rikardo, *erregea*.

[Hebrearrei liburutik 12,18-19.21-24: Sion mendira hurbildu zarete zuek, Jainko biziaren hirira. Sal 48 [47]: Oi Jainko, hausnartzen dugu zure maitasuna, zure tenpluaren erdian.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,7-13.

Aldi hartan, Jesus Hamabiei dei egin eta binaka bidaltzen hasi zen, espiritu gaiztoak botatzeko ahalmena ematen ziela.

Biderako ezer ez hartzeko agindu zien, makila besterik: ez ogirik, ez zakatorik, ezta dirurik ere gerrikoan; oinetan sandaliak eraman zizatela; baina aldatzeko soinekorik ez.

Gero, nola jokatu esan zien: «Etxe batean sartzean, gelditu bertan herri hartatik atera arte. Eta nonbait onartzen ez bazaitzete eta entzun nahi ez badizuete, handik alde egitean, astindu zeuen oinetako hautsa, haien kontrako seinaleztat».

Joan ziren, bada, Hamabiak eta Berri Ona hots egin zuten, jendea bihotz-berri zedin. Deabru asko botatzen zuten eta gaixo asko sendatzen, olioiz gantzutuz.

**A**tsegin dut komentatzea, Jesusek binaka bidaltzen gaituela, bai baitira funtsezko hiru ekintza bakarka ezin gauzatu ditugunak: lehen, erortzen garenean eskua ematea batak besteari; bigarrena, zerbait ospatu eta poz handi bat partekatu behar dugunean topa egitea, eta hirugarrena, paisaia bat edo aurpegi bat bistaratzean alboan dugunari esan ahal izatea: «ikusak, bai ederra!» Batak besteari zerupear samurkiro lagun egitea da arazoa, eskerrak ematea beste batzuek gure bizitza elikatzeagatik eta bidean jarraitzea, jakinik Jaunari ez diogula segitzen geure burua hornituz, baizik erantziz, besteak arinduz, berak egin zuen bezala.

Urteko 4. astea.

San Jeronimo Emiliani, *aitorlea*

(*umezurtzen eta gaztedi utziaren zaindaria*).

Santa Josefina Bakhita, *erlijiosa*.

---

[**Hebrenarrei liburutik 13,1-8:** Jesu Kristo bat bera da atzo, gaur eta beti. **Sal 27 [26]:** Jauna dut argi eta salbamen.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,14-29.**

Aldi hartan, jakin zuen Herodes erregeak Jesusen berri, honen izena oso ezaguna baitzen. Batzuek zioten: «Joan Bataiatzailea piztu da hilen artetik; horregatik du mirariak egiteko ahalmen hori». Beste batzuek, berriz: «Elias da». Eta beste zenbaitek: «Profeta da, antzina-ko profetak bezalakoa». Iritzi hauek entzutean, hau zioen Herodesek: «Nik lepoa moztu nion Joan huraxe piztu da».

Izan ere, Herodesek Joan harrapatu eta kartzelan lotua zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Feliperen emaztea zen Herodias, baina Herodesek bere emaztetzat hartua zuen, eta Joaneke esaten zion: «Ez zaizu zilegi zeure anaia-aren emaztea edukitzea».

Horregatik, gorroto zuen Herodias-ek Joan eta hil egin nahi zuen, baina ezin, Herodesek begirune baitzion Joani; gizon zuzen eta santutzat zeukan, eta babestu egiten zuen. Joanen hitzek kezkarik sortzen bazioten ere, gogoz entzuten zion.

Etorri zitzaion, ordea, Herodias-ari aukerako eguna: Herodesek, bere urtebetetzean, afaria eman zien agintari, gudalburu eta Galileako handikiei. Sartu zen jantokian Herodias-aren alaba eta dantzari egin zuen, eta atsegin izan zitzaion Herodes-ari eta mahaikideei. Orduan, erregeak esan zion neskatxari: «Eskatu nahi duzuna, eta emango dizut». Eta zin egin ez agindu zion: «Eskatu ahala guztia emango dizut, nire erreinuaren erdia bada ere». Atera zen neskatxa eta bere amari galdetu zion: «Zer eskatuko diot?» Amak erantzun: «Joan Bataiatzailearen burua».

Itzuli zen arin-arin erregeagana eta eskaria egin zion: «Emadazu oraintxe bertan Joan Bataiatzailearen burua azpilean». Goibel jarri zen erregea, baina mahaikideen aurrean egindako zinagatik, ez zion ukatu nahi izan. Berehala, bere guardiako bat bidali zuen, Joanen burua ekartzeko aginduz. Joan zen hura kartzelara eta lepoa moztu zion,



eta azpilean ekarri zuen burua; neskatxari eman zion, eta neskatxak amari.

Joanen ikasleak, hori jakitean, haren gorpua jasotzera etorri eta hilobian ehortzi zuten.

**H**erodias eta alaba hau dira, ebanjelioetan aipatu eta Berri Onetik kanpo gelditzen diren emakume bakarrak. Biblian, inoizka, jarduera zital batzuen atzean, beti agertu ohi da emakume bat. Ekintzak zuritzeko jarrera matxista?, garai hark bere-berea zuen aurreiritzia? Istorio hone-tan ere ageri dira emakumeak, baina azken batean Herodesek du jaulkitzen agindua. Joanen martiritza giro oso kaskarin batean gauzatu da; pentsa genezake, horrelako batetik urrun bizi garela; halere, pasadizo hon-ek badu zerbait guretzat ere: nekez egiten ditugu geure besteak penatzen dituzten gure ekintzen ondorioak, azken erantzukizuna gurea den arren.

\* \* \*

### SANTA JOSEFINA BAKHITA

Esklabotzak tradizio handia zuen Sudango zoko batean jaio zen. Behin batean beltz-tratulari bik bahitu zuten. Bost nagusiren eskueta-tik pasatu behar izan zuen, tratu txarra jasanez: zamari bezala, katea-tua, kolpatua, gosea eta egarria jasanez; 13 urteko zela, nagusiak 114 ebakiduraz markatu zuen.

1882an Legnani kontsul italiarrak erosi zuen; «oraingoan egiaz zorioneko izan nintzen; nagusia gizon ona zen...». Nagusi honekin eta honen adiskide batekin, Italiara etorri zen. Azkenean, Bakhita, ahizpa kanosatarren babespean gelditu zen.

Ebanjelioa ezagutzeko aukera izan zuen. Gurutzea eskuetan zuela, behin baino gehiagotan entzun zioten esaten: Kristok lagundu ziola bere martiri-bizitza jasaten. Eta areago: eskerrak ematen zituen bahitu zutelako; bestela ez zelako izango kristau.

Urteko 4. astea.

Santa Apolonia, *martiria*.

San Migel Febres Cordero (Migel anaia), *erlijiosoa*.

[Hebreairei liburutik 13,15-17.20-21: Bakearen Jainkoak piztu zuen hilen artetik artzain handia; berak egin zaitzatela gai egite on orotarako. Sal 23 [22]: Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,30-34.

Aldi hartan, apostoluek, berriro Jesusengana bildu zirenean, egin eta irakatsi zuten guztiaren berri eman zioten. Jesusek esan zien: «Zaiztozte zuek bakarrik leku bakarti batera, eta hartu atsedean pixka bat». Askok baitziren joan-etorrian zebiltzanak, eta ez zuten jateko ere astirik.

Orduan, bazter batera joan ziren beraiek bakarrik, txalupaz. Baina jende askok ikusi zituen alde egiten, eta nora zihoazen igarri ere bai, eta herri guztietatik leku hartara jo zuten lasterka, oinez, haiei aurrea hartuz.

Txalupatik ateratzean, Jesusek jendetza handia ikusi zuen. Errukitu zitzairen, artzain gabeko ardiak bezala baitzebiltzan, eta luzaro irakasten hasi zitzairen.

**J**aunaren gonbitak dei izan ohi dira gure nekearentzat. Behin batean bera ere eseri zen putzu baten ondoan, nekaturik. Bizitza berregin beharra izaten dugu eta elikatu beharra. Badira neke beteak eta neke hutsak. Askotan jotzen dugu ekintzara, isiltasun eta bakardade-aldiari lekuri ez uzteko, nekoso gertatzen zaigulako. Aldi horren bila ibili ohi garen beste batzuetan, berriz, kanpoko eskaria etorri ohi zaigu presaka. Dena den, eguneko joan-etorrien artean, bada konstante bat, eutsi beharrekoa, ezerk ordezka ezin duena: Adiskideari eskainitako eremu barnekoa: «elkartu ziren Jesusekin eta den-dena kontatu zioten».

## § Isaias Profetaren liburutik 6,1-2a. 3-8.

Ozias erregea hil zen urtean, Jauna ikusi nuen, tronu altu eta garai batean eseria; haren mantu-hegalak tenplua betetzen zuen. Suzkoak bezalako izaki batzuk zituen gainean; seina hegal zituzten. Eta honela egiten zioten oihu elkarri:

«Santu, santu, santua, Jaun ahalguztiduna! Lur osoa betetzen du haren aintzak!»

Ahotsaren oihuz tenpluko ate-orpoek dardara egin zuten, eta tenplua kez bete zen. Nik esan nuen:

«Ai ene, galdua naiz!

Ezpain kutsatuak baititut

eta ezpain kutsatuak dituen herrian bizi naiz.

Errege eta Jaun ahalguztiduna ikusi dut neure begiz!»

Une hartan, suzkoak bezalako izaki haietako bat etorri zitzaidan hegan, aldaretik suhatzez harturiko txingarra eskuetan zekarrela, eta txingarraz ahoa ukitu zidan, esanez:

«Hara, txingar honek ezpainak ukitu dizkizu; kendua duzu, bada, gaiztakeria, barkatu zaizu bekatua».

Orduan, Jaunaren ahotsa entzun nuen esaten: «Nor bidaliko dut? Nor izango dugu mandatari?» Eta nik erantzun: «Prest nauzu, bidali ni neu».

[Sal 138 [137]: Eresi egingo dizut, Jauna, aingeruen aurrean].

## § San Paulok 1 Korintoarrei 15,1-11.

Senideok: Irakatsi nizuen Berri Ona oroitarazten dizuet. Zuek onartu egin zenuten, horretan sendo oinarrituak zaudete eta salbatu ere horrexek salbatzen zaituzte, nik iragarri nizuen bezala eusten badiozue. Bestela, alferrik sinetsiko zenuten.

Urteko 5. aste.

Santa Eskolastika, *birjina*

Nik hartu nuena bera eskualdatu nizuen lehen-lehenik, hau da, Kristo gure bekatuengatik hil zela, Liburu Santuek esan bezala; hobiratu egin zutela eta hirugarren egunean piztu egin zela, Liburu Santuek esan bezala; Pedrori agertu zitzaiola, eta ondoren Hamabiei; gero, bostehun eta gehiago senderi agertu zitzaion batera –horietako gehienak bizirik daude oraindik, batzuk hil badira ere–; gero, Santiagori agertu zitzaion, ondoren apostolu guztiei.

Beste guztiei agertu ondoren, neuri ere agertu zitzaidan, garaia baino lehen jaiotako haurra bezalakoa naizen honi.

Izan ere, apostoluetan txikiena naiz ni, apostolu-izenik ere merezi ez duena, Jainkoaren Eliza pertsegitu bainuen. Baina naizen hau Jainkoak bere graziaz egin nau, eta haren grazia ez da nigan fruiturik gabea izan; gainerako apostolu guztiek baino lan gehiago egin dut, izan ere; ez, noski, nik, baizik eta Jainkoak nirekin bere graziaz.

Horrela, bada, bai haiek eta bai nik, horixe da hots egiten dugun mezua, eta horixe zuek sinetsi duzuen.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,1-11.

Aldi hartan, jendea gainera zetorkion Jesusi, Jainkoaren hitza entzuteko; Genesaret aintzira-ertzean zegoen Jesus. Bi txalupa ikusi zituen ur-bazterrean geldituta; arrantzaleak, ontzietatik jaitsita, sareak garbitzen ari ziren. Igo zen txalupa haietako batera, Simonenera, eta lehorretik pixka bat aldentzeko eskatu zion. Gero, eseri eta txalupatik jendea irakasten jardun zuen.

Hitzaldia bukatzean, esan zion Simoni: «Jo itsaso zabalera eta bota sareak arrantzurako». Simonek erantzun zion: «Maisu, gau osoan eginahalak egin eta ez dugu ezer harrapatu; hala ere, Zuk diozunez gero, botako ditut sareak». Hala egin zuten eta, hainbesteko arrain-pila harrapatu zuten, sareak lehertzeko zorian baitzeuden. Beste txalupako lagunei keinu egin zieten laguntzera etortzeko; etorri ziren, eta bi txalupak bete zituzten, ia-ia hondoratzeraino.

Urteko 5. aste.

Santa Eskolastika, *birjina*

Gertatua ikusirik, Jesusen oinetan ahuspeztu zen Simon Pedro, esanez: «Alde nigandik, Jauna, bekataria naiz eta». Izan ere, zur eta lur zeuden Simon eta harekin ziren guztiak, eginiko arrantzuagatik, eta gauza bera gertatzen zitzairen Simonen arrantzu-lagun ziren Zebedeoren seme Santiagori eta Joani ere. Baina Jesusek esan zion Simoni: «Ez beldur izan, hemendik aurrera giza arrantzale izango zara».

Haiek txalupak lehorrera atera zituzten eta, dena utzirik, jarraitu egin zioten.

**I**tsasoan barna arraun egitea eta sareak botatzea bi mugimendu dira, kristau-bokazioaren alderik muinena adierazten dute: bihotz-hondoan gertatu ohi dena: barnekoitasuna, eta besteengana eta besteekin garatzen dena: misioa. Beharrezkoa da ez nahastea misioa zereginarekin. Misioa bere-berea du Jaunari jarraitzeak; zereginak, berriz, misioaren zehaztapan edo konkrezio dira; zereginak aldatu egiten dira adinaren, gorabeheren, testuinguruen arabera. Egunen batean utzi egingo diogu zereginak egiteari, baina misioa beti izango dugu geurekin; izan ere, une orotan izan gaitzke Jaunaren errukiaren isla. Pedrok bezala biziko dugu norberaren txikitasunaren eta duintasun-ezaren sentimendua eta, aldi berean, haren konfiantza hautsezinarena. Jaunak jarraituko du jardunean, hark bakarrik urra dezake gure orain beldurtian emankortasunaren gero bat. Birsor al dezakegu haren deia, sakonkiago maitatzekoa? Berras al dezakegu hemen, orain eta gauden gaudenean? San Ignaziok eskari honekin bukatu ohi zituen bere gutunak: «Jaunak eman diezagula bere grazia, beti beraren gogoa sentitze-ko eta osorik betetzeko».

Urteko 5. astea.

Andre Maria Lourdeskoa.

San Paskual 1.a, 98. aita santua.

[Hasiera liburutik 1,1-19: Jainkoak esan zuen, eta hala izan zen. [Sal 104 [103]: Poztu bedi Jauna bere eginetan!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,53-56.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak, itsasoa igaro ondoren, Genesaretera iritsi ziren eta bertan lehorreratu.

Ontzitik atera orduko ezagutu zuen jendeak Jesus, eta lurralde hartan barna joan ziren; eta Jesus nora, haraxe eramaten zizkioten gaixoak ohatiletan. Jesus joaten zen herri, auzo nahiz baserrietan, gaixoak atarrietan ipintzen zizkioten. Soineko-ertza bederen ukitzen uzteko eskatzen zioten, eta ukitzen zuten guztiak sendaturik gelditzen ziren.

**J**ean Vanier «L'Arche»ren fundatzaileak dio, «ukimena gure mentalitatean erabat desitxuratua dagoen zentzumen bat dela. Samurtasun-ukitu batek ederra dela azaldu ohi dio besteari. Horrek, ordea, esan nahi du, geure-geure egina dugula nork bere gorputzaren errealitatea ukimenaren bidez bestea baiesteko ekintzan, lasai eta bare egoteko». Eric-ekin bizi izan duen esperientziatik mintzo da; mutiko sorra eta itsua da Eric, minusbaliatu psikikoa. Ukimena da berarekin komunikatzeko bide bakarra.

\*\*\*

**B**adira kristauak, aukera edo jarrera bakarra, dirudienez, Garizumarena dutenak, Pazkorik gabe. Aitortzen dut, bai, poza ez dela ehotzen modu berean [...]. Egokitu eta eraldatu egiten da, eta beti jarraitzen du bizirik, gutxienez, argi-kimu gisa, guztia baino harago, mugabeki maitatua zarelako ziurtasun pertsonaletik jaiota. Ulertzen dut pertsona batzuk tristurara emanik agertzea, sufritu behar dituzten zailtasun larriengatik; halere, pixkana utzi beharra diogu fedearen pozari esnatzen has dadin, ezkutuko konfiantza bezala, halere sendo bezala, larritasun okerrenen artean ere. FRANTZISKO AITA SANTUA.

Urteko 5. astea.

Santa Eulalia Bartzelonakoa, *birjina*.San Modesto, *martiria*.

[**Hasiera liburutik 1,20–2,4a:** Egin dezagun gizakia geure antzera, geure irudiko. **Sal 8:** Jauna, gure Jauna, bai miragarria zure izena lurbira osoan!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,1-13.

Aldi hartan, fariseuak eta Jerusalemik etorritako lege-maisu batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi, eta ikasleetako batzuek esku kutsatuekin –hau da, eskuen garbikuntza egin gabe– jaten zutela ikusi zuten. Izan ere, fariseuek, eta juduek oro har, ez dute jaten lehenbizi eskuak arretaz garbitu gabe, zaharren ohiturari tinko eutsiz. Azokatik etxeratzean ere, ez dute jaten garbikuntza egin gabe; eta badute ohiturazko beste hamaika betebeharrak: hala nola, edalontzi, pitxer eta suilen garbiketak.

Horrela bada, fariseuek eta lege-maisuek galdetu zioten Jesusi: «Zergatik ez dute zure ikasleek zaharren ohiturari dagokionez jokatzen? Nolatan jaten dute esku kutsatuekin?» Jesusek erantzun zien: «Itxurazaleok halakook! Ederki asko esan zuen zuetaz Isaias profetak, honako hau idatzi zuenean:

“Herri honek ezpainez ohoratzen nau, baina nigandik urruti du bihotza; alferrik naute gurtzen,

hauen irakaspena giza agindu hutsa da”. Zuek Jainkoaren agindua bazterrerara utzi eta giza ohiturari eusten diozue».

Eta jarraitu zuen: «Bai, lasai zokoratzen duzue Jainkoaren agindua, zeuen usadioak ezartzeko. Esate baterako, Moisesek esan zuen: “Ohoratu aita-amak”, eta “Aita nahiz ama madarikatzen duenak heriotza-zigorra izango du”. Zuek, berriz, beste hau diozue: “Norbaitek aitari edo amari esaten badio: Zuri eman behar nizukeena ‘Korban’ da (hau da, tenplurako opari), halakoak ez du aitari edo amari ezertan lagundu beharrik”. Horrela, Jainkoaren hitza baliogabe uzten duzue zeuen arteko usadioengatik. Eta horrelako asko egiten duzue».

Urteko 5. astea.

Santa Eulalia Bartzelonakoa, *birjina*.

San Modesto, *martiria*.

---

**J**esusek ohartarazten digu, nola eraman dezaketen arauak pertsona bat bere gizatasuna galtzera: biziara ordez hilarazten dutenean; bihotz samurto ordez bihotz gogortzen dutenean. Konturatu gabe, ohitu gintezke biziera bat bizitzera, zeinetan maitasuna zehaztu ordez, maitasuna desitxuratzen baita. Otoitz egitean oso ederki hitz egiten dugu, ez dugu izaten hitz-faltarik, baina oinarrizko geure harreman-sarean hotz agertzen dira enpatia eta bihotz-samurtasuna. Segurtasuna eskaintzen digu legeak ezarria duena betetzeak, baina zertan gelditzen da bere burua eskaintzeari uko egin dion maitasuna, arrisku orori eta segurtasunik ezari uko egitean?

\* \* \*

## BOKAZIOA

Bokazioa Kristoren dohain bat da.

Kristok esana da: «Nik aukeratu zaituztet».

Bokazio guztiek Kristorenak izan behar dute, zinez.

Egiteko eskatu digun lana baliabide bat besterik ez da Jainkoari diogun maitasuna errealitate jakin bat bihurtzeko (Kalkutako Teresa santua).



Urteko 5. astea.

San Benigno, *martiria*.San Kastor, *apaiza eta ermitaia*.

[*Hasiera liburutik 2,4b-9.15-17*: Jainko Jaunak gizona hartu eta Eden-go baratzean ipini zuen. *Sal 104 [103]*: Bedeinka beza nire arimak Jauna!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,14-23.

Aldi hartan, Jesusek jendeari berriro dei egin eta esan zion: «Enzun denok eta ulertu ongi.

Ez da ezer, kanpotik gizakiaren barrura sartuz, hau kutsa dezakeenik; barrutik ateratzen zaionak, horrek kutsatzen du gizakia».

Jendea utzi eta etxeratu zenean, hitz horien esanahiaz galdetu zioten ikasleek. Jesusek esan zien: «Beraz, ez duzue zuek ere ulertzen? Ez al duzue ikusten kanpotik sartzen zaion ezerk ez dezakeela gizakia zikindu? Sartu, ez baitzaio bihotzean sartzen, sabelean baizik, eta handik komun-zulora doa». Hitz hauekin, janari guztiak garbiak direla adierazi nahi zuen.

Eta gaineratu zuen: «Barrutik ateratzen denak, horrek bai egiten duela gizakia zikin. Izan ere, barrutik, gizakiaren bihotzetik, ateratzen dira asmo txarrak, lizunkeria, lapurretak, hilketak, adulterioak, diru-gosea, gaiztakeriak, maltzurkeria, lasaikeria, bekaizkeria, irainak, harrokeria, burugabekeria. Gaiztakeria hauek guztiak barrutik ateratzen dira, eta hauek dute kutsatzen gizakia».

**B**asamortuko gurasoek uste zuten, bakardadean eta bakean irauten zuena hiru borroka-motatatik aske gelditzen zela: entzumenaren borrokatik, hitzarenetik eta ikusmenarenetik (mundua gurean sartzeko eta gu mundura iriteteko hiru zentzumen); eta borroka bakarra gelditzen zitzaiola: bihotzarena. Jesusek azpimarratu digu, bizia barnean jotzen dela. Kanpokoak baldintza dezake, baina gure egintzak barnean kokatzen dira. Geure asmoa garbitu beharra izaten dugu, argi eta egiati aitortu beharra, zein ditugun geure motibaziorik sakonenak, eta bide egin beharra, Jaunari egunero erregutuz: «garbi ezazu gure bihotza».

Urteko 5. astea.

San Zirilo, *monjea* eta San Metodio, *gotzaina*.

(*Europako Zaindariak*).

San Valentin, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 13,46-49: Jentilengana joko dugu. Sal 117 [116]: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,1-9.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta leku guztietara.

Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uztara. Zoazte! Arku-meak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman poltsarik, ez zakatorik, ez oinetakorik, eta ez gelditu bidean inori agur egiten.

Edozein etxetan sartzen zaretela, esazue lehenbizi: “Bakea etxe honetakoei!” Eta han bakezalerik bada, haren gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira. Geldi zaitezte etxe berean; eta jan eta edan daukatenetik, zor baitzaio langileari bere saria.

Ez ibili etxez etxe. Herriren batean sartu eta ondo hartzen bazaitzete, jan jartzen dizuetenetik, sendatu bertako gaixoak eta esaiezue: “Hurbil duzue Jainkoaren erreinua”».

**B**ada atentziora ematen duen zerbaitekin Jesusen gonbit hau entzutean: oinarrizko gure elikatze eta segurtasun-premiei dagokiena da. Hau da lehen irudipena da: bitzta ez dakigula astunegi gerta, izan dezagula ezaugarritzat nolabaiteko arintasun bat, nolabaiteko jarrera bat zamarik gabe bide egiteko, geurekin gehiegizkorik eraman gabe, besteen laguntza ere behar izanez jateko eta ostaturako. Armarik gabe bide egiten ikasteko era bat, defentsarik gabe, bakezko hurbiltasun bati eutsiz. Erreinuaren poza geure poz izan behar dugu, bera hots egin ahal izateko; horrela bakarrik erakarriko dugu jendea kutsaduraz, gutako bakoitza lehen aldian erakarria izan zen bezala.

Urteko 5. astea.

Santa Jovita, *martiria*.San Klaudio de la Colombière, *apaiza, jesuita*.

[Hasiera liburutik 3,1-8: Jainkoa bezalako izango zarete, ongiaren eta gaizkiaren ezagutzaren jabe. Sal 32 [31]: Zorionekoa hobena kendu diotena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,31-37.

Aldi hartan, utzi zuen Jesusek Tiro aldea eta, Sidonen barna, Galileako itsasora itzuli zen berriro, Dekapolisko lurraldean zehar.

Gizon gor eta hitz-motela eraman zioten, eta eskua gainean ezartzeko eskatu. Jesusek, jendeagandik aparte harturik, hatzak belarrietan sartu zizkion eta listuz mihia ukitu. Gero, zerurantz begiratu, hasperen egin eta esan zion: «Effeta», hau da, «Ireki». Eta une berean, belarriak ireki zitzaizkion, mihia askatu eta garbi hitz egiten hasi zen.

Gertatua inori ez esateko agindu zien Jesusek; baina zenbat eta gehiago agindu, orduan eta areago zabaltzen zuten.

Biziki harrিতa, hau zioten: «Ondo egin du dena: gorrei entzun ahal izatea eman die eta mutuei hitz egitea».

**K**omunikatzeko gai ez izatea sufrimen-iturri izan ohi da. Gainera, premien aurrean entzumena galtzen dugunean, sentitzen duguna adierazten ez dugunean eta egunero bizi ohi dugunaren eta gure hitzen artean loturarik ez denean, trabatu edo blokeatu egiten da gauzak sumatzeko edo hautemateko gure gaitasuna, bestearekin sentitzeko gure gaitasuna. Geure alderik hauskorrenean zerbaitek edo norbaitek uki gaitzan beharra izaten dugu, eta geugan ezkutuan dugun harremanetarako ahalbidea liberatuko duen hitza onartu beharra. Bihotz-barnean entzun beharra, ulertzen ez dugun edozein zertzeladatan: «Ireki zaitetz». Izan ere, irekitzen den oro bizirantz doa; aitzitik, ixten den oro biziraupen hutserantz doa.

Urteko 5. astea.

San Onesimo, *gotzaina eta martiria*.

Santa Juliana, *birjina eta martiria*.

[**Hasiera liburutik 3,9-24** Jainko Jaunak Edengo baraztetik bota egin zuen gizakia, lurra landu zezan. **Sal 90 [89]**: Jauna, gure ihesleku Zu izan zara gizalditik gizaldira.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,1-10.**

Egun haietan, berriro jendetza oso ugaria izanik eta zer janik ez, Jesusek ikasleei dei egin eta esan zien: «Erruki dut jende hau; bada-ramate hiru egun nirekin eta ez dute ezer ere jateko. Etxera baraurik bidaltzen badituz, bidean akiturik geldituko dira, urrutitik etorriak ere badira eta». Ikasleek esan zioten: «Baina nondik atera bakardade honetan hauek asetzeko adina ogi?»

Hark galdetu zien: «Zenbat ogi duzue?» Eta haiek erantzun: «Zazpi».

Orduan, jendeari lurtean esertzeko agindu zion. Gero, zazpi ogiak hartu eta, Jainkoari esker onezko otoitza egin ondoren, zatitu eta bere ikasleei eman zizkien, bana zitzaten. Haiek jendeari banatu zizkioten. Bazituzten arraintxo banaka batzuk ere; Jesusek bedeinkatu zituen eta haiek ere banatzeko agindu zien.

Asetzeraino jan zuten denek, eta zazpi otarre bete zituzten hon-darrekin. Lau mila inguru ziren. Ondoren, Jesusek agur egin zien, eta bere ikasleekin txalupara igo eta Dalmanuta aldera joan zen.

**A**ldi bat lehenago, ogi-apurak eskatu zizkion kanaandar emaku-mearekin egona zen Jesus. Hark erakutsi zion «gosea» zer den, jatorri etnikoa edo erlijiosoa baino harago. Aurrerantzean, bizirik biziko du Jesusek gose guztien –osasunarena izan, ogiarena izan edo bizi-zen-tzuarena izan– oihartzuna. Jesusek kontuan hartzen du bakoitzak duen hura, eta ibilian jartzen du eskerronetik. Ez al dugu banatuko geure ogia denbora baino lehenago? Agian, beharrezkoa izango dugu denbora gehixeago uztea haren eskuetan egunero. Eskaintzen ahal badugu, berak den bezala hartzen duelako da, bedeinkatzen duelako, eta zatitzen duelako.

Andre Mariaren Zerbitzarien *Zazpi Fundatzaile Santuak*.  
Amaseako (gaur egungo Amasia, Turkian)  
San Teodoro, *martiria*.

### § Jeremias profetaren liburutik 17,5-8.

Honela mintzo da Jauna:

«Madarikatua konfiantza gizakiagan duena, giza indar hutsean oinarriz dena eta bihotza Jaunagandik urrutiratzen duena. Basamortuko astalarraren antzeko da, ez du sasoi onik izango; basamortu kiskalian landatua dago, bizi ezineko gatz-lurrean.

Bedeinkatua konfiantza Jaunagan duena, bere euskarri Jauna duena. Ur-ertzean landatutako zuhaitzaren antzeko da, ur bizigarrietara zabaltzen ditu sustraiak; ez dio sargoriari beldurrik, haren hostoak beti hezerik; lehor-urtean ere hura lasai, ez dio utziko fruitu emateari».

### [Sal 1: Zorionekoa Jaunagan itxarobidea jartzen duena!]

### § San Paulok 1 Korintoarrei 15,12.16-20.

Senideok: Kristo hilen artetik piztua dela hots egiten bada, nolatan esaten dute zuetako batzuek hilak ez direla pizten? Izan ere, hilak pizten ez badira, Kristo ere ez da piztu. Eta Kristo piztu ez bada, alferrikakoa da zuen sinesmena: zeuen bekatuetan zaudete oraindik. Eta zer esanik ez, hil diren kristauak ere galduak dira. Kristogan jarria dugun itxaropenak bizitza honetarako bakarrik balio badu, gizaki guztietan errukarrienak gara.

Baina ez, piztu da Kristo hilen artetik, heriotzatik piztuko direnatan lehen-fruitu.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,17.20-26.

Aldi hartan, Jesus ikasleekin menditik jaitsi eta zelaigune batean gelditu zen. Ikasle-multzo handia zen harekin; baita herriko jendetza ugaria ere, Judea osotik, Jerusalemdik eta Tiroko eta Sidongo itsasaldetik etorria.

Jesusek, ikasleei begira, esan zien:

Urteko 6. astea.

Andre Mariaren Zerbitzarien *Zazpi Fundatzaile Santuak*.

Amaseako (gaur egingo Amasia, Turkian)

San Teodoro, *martiria*.

«Zorionekoak behartsuok, zuena baita Jainkoaren erreinua.

Zorionekoak orain gose zaretenok, aseko baitzaituzte Jainkoak.

Zorionekoak orain negar egiten duzuenok, barre egingo baituzue.

Zorionekoak zuek, Gizonaren Semea dela-eta jendeak gorrotatu, beren artetik bota eta madarikatuko zaituztetenean eta izen txarra emango dizuetenean. Alaitu zaitetze egun horretan eta egin pozez jauzi, handia izango baita zuen saria zeruan; gauza bera egin zieten profetei jende horren gurasoek.

Baina ai zuek, aberatsok, hartu baituzue zeuen poza!

Ai zuek, orain aseak zaudetenok, gose izango baitzaretel!

Ai zuek, orain barre egiten duzuenok, aiene eta negar egingo baituzue!

Ai zuek, mundu guztiak zuetaz ondo hitz egingo duenean, gauza bera egin baitzieten sasiprofetei jende horren gurasoek!»

**A**itortu behar dut, denbora luzean ez naizela ausartu zoriontasunak komentatzera. Lur sakratuegia zen niretzat, zabar-zabar zapaldu ahal izateko. Iruditzen zitzaidan, doi-doi nuela nik esan nahi zutenaren ideiarik, ez nintzela gai beraien sekretua ulertzeko, eta neure bizitza beraien ondoan jartzen banuen, lotsa ematen zidan neure sentiberatasuna hain hertsia zela sentitzeak, hartzaille zituztenengandik hain hurbiltasun txikikoa zela ikusteak. Harik eta Gogo Jardun batzuetan jesuita batek beste era batean hartzen lagundu zidan arte. Arazoa ez zen neure burua zoriontasunetik neurtzea, jakinik ez nuela emango sekula mailarik, baizik eta Jainkoaren dohaintzat hartuz, gizatasunerako eta zorionerako bidetzat. Beraietan Jesusi berari begiratzea zen arazoa, beraren moduak ezagutzeko, hainbesteko grazia hori onartzeko geure trakeskerian. Ordudanik on handia egiten dit zoriontasun horiek honela hartu eta jaulkitzeak: «Zu bakarrik, Jauna, zara oztana, kutsa iezaguzu zeure oztantasuna. Zu bakarrik, Jauna, bihotzez garbi, kutsa iezaguzu zeure garbitasuna». Orain sentitzen dut, udaberriko euria bezala jaisten direla nire lur lehor honetara; txiki eta jota dauden guztien aurpegitik harrapatzen nauen argi ezti bezala.

[Hasiera liburutik 4,1-15.25 Kainek Abel bere anaiari eraso zion eta hil egin zuen. Sal 50 [49]: Eskaini esker onezko oparia Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,11-13.

Aldi hartan, fariseuak etorri eta Jesusekin eztabaidan hasi ziren. Jainkoagandiko seinale bat eskatzen zioten azpikeriaz. Jesusek, barrutik hasperen eginez, esan zien: «Zer dela-eta ari da gizaldi hau seinale eske? Benetan diotsuet: Gizaldi honi ez zaio seinalerik emango».

Eta, haiek utzirik, berriro txalupara igo eta bestaldera abiatu zen.

**H**an zegoen Jesus, eta seinaleak eskatzen zizkieten. Ez al zaigu gauza bera gertatzen guri? Eguneroko soiltasunetik kanpo ibili ohi gara beraren bila, eta kezka sortzen zaigu bera itxuraz absente dagoenean, erantzunak behar izaten ditugunean. Gogoan izaten ditugu beraren hitzak, baina ez dugu sentitzen bera bizirik eta bertan. Ez gara ibili ohi egunez egun, bera presente dagoela pentsatuz. Eta ez digu eragiten, ez ezustekorik, ez harridurarik. Eguneroko errutina leloan, ez dugu espero izaten bera, ezta gauza txikietan ere, eta alde batera uzten dugu egunerokotasuna, iritsiko ez diren aukera dirdaitsuagoetan berarekin topo egingo dugula pentsatuz. Zergatik ez hartu gogoan herri-jakinduria: astorik nahi ez eta zaldirik ez ukan? Agian on egingo digu Jakobek sumatu zituen hitz haiek geure barnean berregiteak: «Jauna hemen dago eta nik ez nekien» (Hasiera 28,16).

Urteko 6. astea.

San Konrado Confalonieri, *ermitaua*.

[**Hasiera liburutik 6,5-8; 7,1-5.10:** Egin dudan gizakia suntsitu egin-go dut mundutik. **Sal 29 [28]:** Bere herria bedeinkatuko du bakea eman ez Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8,14-21.

Aldi hartan, ikasleei ogia hartzea ahaztu zitzaizen, eta bat bakarra zeukaten ontzian. Jesusek ohar hau egin zien: «Begira gero! Kontuz ibili fariseuen eta Herodesen legamiarekin».

Haiek, berriz, eztabaidan ari ziren elkarrekin, ogirik ez zutelako. Konturatu zen Jesus eta esan zien: «Zer ari zarete ogirik ez duzuela eta? Oraindik ez al duzue ulertzeko adimenik? Hain burugogorak al zarete? Begiak izan, eta ez al duzue ikusten? Belarriak izan, eta entzuten ez? Ez al duzue gogoan, bost mila gizonen artean bost ogiak banatu nituenean, zenbat saski bete zenuten hondarrekin?» «Hama-bi», erantzun zioten. «Eta lau mila gizonen artean zazpi ogiak banatu nituenean, zenbat otarre bete zenuten hondarrekin?» Erantzun zioten: «Zazpi». Orduan, Jesusek: «Eta oraindik ere ez duzue ulertzen?»

**K**ontakizun honetan, Jesusek zortzi galdera egin dizkie ikasleei. Berek daukaten ogia da bera, baina ez dira antzemateko gai izan. «Zertako dituzue begiak ikusten ez baduzue, eta belarriak entzuten ez baduzue?» Jesusek gure zentzumenetara jotzen du, sendatu egin nahi dituzue gure itsutasuna eta gorreria kasu bakoitzean, errealitatea garbi-garbi ikusi ahal dezagun, Jainkoak ikusten duen bezala; bereizi ahal dezagun txandako boteretsuek isilarazi nahi izaten duten txikien xuxurla leuna. Erantzun bila ibili ohi gara gu, baina bihotzean galderak ditugula ibiltzera gonbidatzen gaitu berak, Ebanjelioaren erara hurbil gaitezen. Eskerrak, Jauna, zeure pazientzia handiagatik!



Urteko 6. astea.

San Leon, *gotzaina*.Fatimako Hiazinta eta Frantzisko, anai-arrebak, *santuak*.

[Hasiera liburutik 8,6-13.20-22: Ontziko estalkia ireki eta lurrazala lehor ikusi zuen. Sal 116 [115]: Gorespen-oparia dizut, Jauna, eskainiko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,22-26.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak Betsaidara iritsi ziren, eta itsu bat ekarri zioten, uki zezala eskatuz.

Jesusek itsuari eskutik heldu eta herritik kanpora atera zuen. Begiak listuz igurtzi ondoren, eskuak gainean ezarri zizkion eta galdetu: «Ikusten al duzu ezer?» Hark begiratu eta esan zuen: «Gizonak-edo nabaritzen ditut: zuhaitzak dirudite, baina ibili dabiltza».

Orduan, berriro eskuak ezarri zizkion begietan eta argi ikusten hasi zen gizona; sendaturik gelditu zen, guztia garbi-garbi ikusten zuela. Jesusek etxera bidali zuen, herrian sartu ere ez egiteko aginduz.

**E**karri dioten itsua ukitu egin du Jesusek. Eskutik hartuz, segurtasuna sentiarazi dio, eta, artean itsu, ibiltzen hasi da. Ikusmena galdu duen lekutik atera du Jesusek, errealitatea estreinatzen erakusteko. Ezti-ezti ukitu du zauria duen puntuan, txistuaz sendatu eta lehor dena hezetu, ama batek egin ohi duen bezala txistua ezarriz haurraren urratuan. Handituz doan desestaltze bat da; denbora behar izaten dugu; ez gara gai izaten aurpegi bakoitza bere edertasun osoan eta bateratasun guztian ikusteko. Beste behin eskertzen ditugu beraren eskuak geure begi trakets hauetan: begiratua garbitzen ari zaigu; gauzei dagokienez distira ematen.

Urteko 6. astea.

San Pedro Damiani, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

[**Hasiera liburutik 9,1-13:** Neure ortzadarra ipiniko dut hodeietan, eta hura izango da lurrarekin egiten dudan itunaren ezaugarria. **Sal 102 [101]:** Zerutik lurrera begiratu du Jaunak.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,27-33.**

Aldi hartan, Feliperen Zesarea inguruko auzoetara abiatu zen Jesus bere ikasleekin. Bidean galdera hau egin zien ikasleei: «Ni nor naizela dio jendeak?» Haiek erantzun zioten: «Batzuek Joan Bataiatzailea zarela; beste batzuek Elias; besteek profetaren bat». Jesusek berriro galdetu zien: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Pedrok erantzun: «Zu Mesias zara».

Inori ez esateko agindu zien Jesusek zorrotz. Orduan, irakasten hasi zitzairen, Gizonaren Semeak asko sufritu beharra zuela; zahar, apaizburu eta lege-maisuek gaitzetsi egingo zutela eta hil; eta hiru egunen buruan piztuko zela. Argi eta garbi mintzatzen zitzairen honetaz.

Orduan, Pedro, Jesus aparte harturik, gogor egiten hasi zitzaion. Baina Jesusek, itzuli eta ikasleei begira, gogor eraso zion Pedrori, esanez: «Alde nire ondotik, Satanas! Zure asmoak ez dira Jainkoarenak, gizakiarenak baizik».

**B**idean doala, badirudi Jesusek, halako une batean, bere buruari galdetzen diola: jarraitzen didan jende honek ulertzen ote du komunikatu edo adierazi nahi diodana? Zer atzematen du jendeak? Zer pentsatzen du entzuten diotenean edo haren keinuak ikusten dituztenean? Sumatzen dute, bai, badela Jesusengan zerbait, zerikusia duena profetek esaten zutenarekin. Ondoren, gehienik axola zaion galdera dator: «Eta zuek?» Pedro bezala, Jesusen dohaina da aurkitzen goazena. Berari pozik atxikitzen gataizkio dena ondo doakigunean eta gauzek atarramendu ona dutenean; baina umilazioetan eta sufrimenean berari jarraitu?; beste kontu bat da hori. Gertatu zitzairen eta gertatzen zaigu. Guk era mundukoiz pentsatzen dugu; baina hain desberdinak dira gureak Jesusek agertu duen ikuspegiarekiko!

Urteko 6. astea.

San Pedro apostoluaren gotzain-aulkia.

Santa Margarita Cortona-koa, *erlijiosa*.

[1 Pedro liburutik 5,1-4: Haiek bezala arduradun eta Kristoren sufri-menduen testigu naizen honek. Sal 23 [22]: Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16,13-19.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?» Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat».

Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Simon Pedrok erantzun zuen: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea».

Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitzizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta hau diotsut Nik: Zu Pedro zara –harkaitza–; harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza, eta Herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zeruetako erreinuko giltzak emango dizkizut: zuk mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua, zeruan ere askatua».

**F**rantzisko aita santuak adierazi zuen behin batean, Jaunak Pedrori eman dion egiazko boterea zerbitzari izatea dela, eta bere gailur distiratsua gurutzean duen zerbitzu horretan sartzea duela bere bidea: «Maitasunez zerbitzatzen duenak bakarrik daki zaintzen. Pertsona bakoitza zaintzen, maitasunez, bereziki haurrak, agureak, hauskor direnak eta sarritan gure bihotzaren periferian gelditzen direnak. Zaintze horrek esan nahi du, erne begiratzea nork bere sentimenduei, nork bere bihotzari, zeren eta hortik baitira irteten asmoak, onak eta gaiztoak: eraikitzaile direnak eta suntsitzaile direnak. Izan Jainkoaren dohainen zaintzaile!»

Urteko 6. astea.

San Polikarpo, *gotzaina eta martiria*.

Rafaela Ibarra (Bilbo 1843-1900), *dohatsua, fundatzailea*  
(*Aingeru Zaindaria*).

[**Hebreatzei liburutik 17,1-7:** Sinesmenari esker ulertzen dugu bere hitzez eratu zuela Jainkoak mundua. **Sal 145 [144]:** Ene Jainko, ene errege, bedeinkatuko dut zure izena betiere.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,2-13.**

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek berekin Pedro, Santiago eta Joan, eta mendi garai batera eraman zituen haiek bakarrik. Eta antzaldatu egin zen haien aurrean. Jantziak distiratsu bihurtu zitzaizkion, zuri-zuri, munduan inork jar ditzakeen baino zuriago. Eta Elias eta Moises agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan.

Pedrok esan zion Jesusi: «Maisu, bai ederki gaudela hemen! Egin ditzagun hiru txabola: bata Zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasantzat». Ez zekien zer esaten zuen; izan ere, zeharo beldurrak harturik zeuden.

Orduan, hodei batek estali zituen, eta ahots bat irten zen hodeitik: «Hauxe da nire Seme maitea. Entzuiozue». Eta hartan, ingurura begiratu eta Jesus bakarrik ikusi zuten eurekin, beste inor ez.

Menditik behera jaisterakoan, ikusi zutenaren berri inori ez emateko agindu zien Jesusek, harik eta Gizonaren Semea hilen artetik piztu arte. Agindu hori bete zuten, baina elkarki galdetzen zioten zer izan ote zitekeen «hilen artetik pizte» hori.

Eta galdetu zioten: «Zergatik diote lege-maisuek lehenbizi Eliasek etorri behar duela?» Jesusek erantzun: «Bai, lehenbizi Eliasek etorri eta dena Jainkoak nahi bezala eraberrituko du. Baina, nola dio Liburu Santuak Gizonaren Semeak asko sufritu beharra duela eta arbiatuia izan? Ba, hau diotsuet: Elias etorria da, eta gogoak emandako guztia egin diote, hartaz idatzia zegoen bezala».

**G**arrantzizkoena ez da Jesus dirdaitsu agertu izana, baizik eta ikasleek lehen aldiz bera ikusi izana zen bezala, begietako ezkatat erori

---

zitzaizkien. Nork geure itsutasuna aitortu beharra dugu, argiaz has-tapenak egin ahal izateko. «Bai ondo gaudela hemen», diogu geuk ere Pedrorekin. Jatorrizko hitz grekoa ez da «aghaton» (ona), baizik «ka-los» (ederra). Gauza ederra da, zinez ona eta ederra, eta zoriongarria, bizitza maila horretan bizitzea. Adiskidearen aurpegiaren aurrean jar-tzeak, geurea gainerakoei irekitzeko aukera da. Zenbat edertzen diren errealitaterik apalenak maitasunak eraldatzen dituenen!

Urteko 7. astea.

San Moises, *Itun Zaharreko profeta.*San Luzio, *martiria.*Santa Primitiva, *martiria.***§ 1 Samuel liburutik 26,2.7-9.12-13.22-23.**

Egun haietan, Saul erregea Zif basamortura jaitsi zen, Israelgo hiru mila gizon aukeratu berekin zituela, Daviden bila.

David eta Abixai gaeuz iritsi ziren Saulen gudarostea zegoen lekura. Saul lo aurkitu zuten, kanpalekuaren erdian etzana, lantza lurrean sartua buru ondoan. Abner eta gainerako jendea erregearen inguruan zegoen lo. Abixaik esan zion Davidi: «Jainkoak zeure esku jarri dizu gaur etsaia. Uztazu lantza-kolpe batez lurrari josten; ez dut birritan jo beharrik izango». Davidek, ordea, Abixairi: «Ez hil! Ez litzateke zigorrik gabe geldituko Jaunaren gantzutuari eskua ezarriko liokeena».

Orduan, Davidek Saulen buru ondoan zegoen lantza eta ur-ontzia hartu zituen, eta alde egin zuten biek. Ez zituen inork ikusi, ez zen inor ohartu, ezta inor esnatu ere. Lo zeuden denak, Jaunak bidalitako lozorroak harturik.

David bestaldera joan eta mendi gailurrean gelditu zen, urrutian, etsaien eta bere artean tarte handia utziz. Davidek oihu egin zuen: «Errege, hona hemen zure lantza. Bidal ezazu mutilen bat bila. Nori berea ordainduko dio Jaunak, bere zuzentasunaren eta leialtasunaren arabera. Jaunak nire esku jarri zaitu gaur, baina nik ez diot eskurik ezarri nahi izan Jaunaren gantzutuari»

**[Sal 103 [102]: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.]****§ San Paulok 1 Korintoarrei gutunetik 15,45-49.**

Senideok: «Lehenengo gizakia, Adam, izaki bizidun bilakatu zen»; azkeneko Adam, berriz, Espiritu bizi-emaile.

Ez zen espirituzkoa izan lehenengoa, haragizkoa baizik; ondoren dator espirituzkoa. Lehenengo gizakia lurreko hautsetik hartua izan zen; bigarrena, berriz, zerutik dator. Lurtarra, Adam, lurтарren eredu da; zerutarra, Kristo, zerutarren eredu.

Eta lurtarraren irudiko garen bezala, zerutarraren irudiko ere izango gara.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,27-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hau diotsuet zuei, entzuleoi: Maita itzazue zeuen etsaiak, egin on gorroto dizuetenei, be-deinkatu madarikatzen zaituztetenak, egin otoiitz izen ona kentzen dizuetenen alde. Masail batean jotzen zaituenari eskaini bestea ere; soingainekoa kentzen dizunari ez ukatu jantzia ere. Eskatzen dizun edonori eman, eta zeurea kentzen dizunari ez itzularazi. Eta besteek zuei egitea nahi duzuen, egin zuek ere besteei.

Maite zaituztetenak bakarrik maite badituzue, zer esker on zor zaizue? Bekatariak ere maite dituzte beren maitaleak. Eta on egiten dizuetenei bakarrik egiten badiezue on, zer esker on zor zaizue? Bekatariak ere egiten dute beste horrenbeste. Eta ordaina hartzekotan bakarrik ematen baduzue maileguz, zer esker on zor zaizue? Bekatariak ere aurreratu ohi diote elkarri, dagokiena hartzekotan.

Ez! Zuek maitatu etsaiak, egin on eta eman maileguz, ordainari begiratu gabe; handia izango da zuen saria, eta Goi-goikoaren seme-alaba izango zarete, ona baita hura esker txarrekoentzat eta gaiztoentzat. Izan zaitzete errukiorrak, zuen Aita errukiorra den bezala.

Ez gaitzetsi inor, eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko; ez kondenatu, eta ez zaituzte kondenatuko; barkatu, eta barkatuko dizue; eman, eta emango dizue: neurri betea, sakatua, estutua eta leporainokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurritz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak».

**E**banjelioak ahaztuko bagenitu, eta Jesusen hitz hauek bakarrik gorde ahal bagenitza, aski izango lirateke berak agertu digun maitasunaren berritasuna eta edertasuna sumatzeko. Gonbit bat dira bizitzeko,

Urteko 7. astea.

San Moises, *Itun Zaharreko profeta.*

San Luzio, *martiria.*

Santa Primitiva, *martiria.*

hain modu doakoan, irekian, bedeinkatuan eta eskuzabalean, non horrelako desio bat ezin jaio baita gugandik. Maite gaituztelako maitatu ohi dugu, kideko direnak izaten ditugu gogoko, modu bertsuen erantzuten digutenei eskaintzen diegu geure bihotz-samurtasuna... Jesusek aurkitzera gonbidatzen gaitu, geuregan dugun neurria norainokoa den. Azaldu ohi dugun baino maitetsuago gara.

Gutxieneko portzentajeaz maite ohi dugu, Jainkoak geure bihotzean ezarri digun ahalbidearekin konparaturik: ezarritako hori maitasun armarik gabea da, une guztietan ongia itzultzen duena, maitasun zaurgarri eta bakezalea. Ezin izan dugu maitasun honen edukiaren ideiarik, aldeztetik geugan esperimentatu ez badugu. Jesusen segidako konbentzimendu honen jirabiran dabil guztia: «Aita gupidatsu den bezala», esker txarrekoekin bera on den bezala. Berak gurekiko duen neurri eskuzabal eta gainezkoa eskertzeko gai izango garenean, orduan emango digu Jainkoak geurea beraren eran isuri eta ematea.

\* \* \*

## TESTIGANTZA

Galiziako herriko apaiz batez, Xosé Manuel Carballo-z, kontatua. Seminarioan ikastorduan ari zen batean, ikasle batek galdetu omen zion:

–Irakasle, zer da ilusioa eta zertako da?

–Ilusioa, lurraren eta zeruaren artean ikusten dugun zerumuga hori bezalakoa da. Hamar kilometro egiten baduzu, beste hamar urruntzen da. Ilusioa beti atzemanezina da.

–Eta zertako da?

–Hartarantz bide egiteko, adiskidea, hartara bide egiteko.

Gogoeta ona iruditzen zait, gaurko ebanjelioa errealismoz hartzeko.



Urteko 7. astea.

San Bitorino, *martiria*.Santa Valverga, *abadesa*.

[Ben Siraken liburutik 1,9-10: Gauza guztien aurretik sortua da jakin-duria. Sal 93 [92]: Errege da Jauna, ospez jantzia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,14-29.

Aldi hartan, Jesus eta berekin zituen lagunak menditik jaitsi eta ikasleengana iritsi zirenean, jendetza handia ikusi zuten haien inguruan, eta lege-maisu batzuk haiekin eztabaidan. Jendea harriturik gelditu zen Jesus ikustean eta lasterka joan zitzaizkion agurtzera. Jesusek galdetu zien ikasleei: «Zer zenuten horiekin eztabaidan?»

Jendarteko batek erantzun zion: «Maisu, hemen ekarri dizut neure semea: hitz egiten uzten ez dion espiritua du. Non edo han espiritua jabetzen zaionean, lurrera botatzen du, eta mutikoa, lerdea dariola eta hortz-karraska, gogor-gogor egina gelditzen da. Zure ikasleei eskatu diet espiritua botatzeko, baina ezin izan dute».

Jesusek esan zion: «Hau gizaldi sinesgogorra! Noiz arte egon behar ote dut zuekin? Noiz arte jasan behar ote zaituztet? Ekarri mutikoa». Ekarri zioten, eta espirituak, Jesus ikustearekin batera, gogor astindu zuen mutikoa, eta lurrean iraulka eta lerdea zeriola utzi zuen.

Jesusek galdetu zion aitari: «Noiztik dago horrela?» Hark erantzun: «Ume-umetatik. Askotan bota izan du sura baita urera ere, hilazterako. Ezer egin ahal baduzu, erruki zaitez gutaz eta lagundu iezaguzu». Jesusek esan zion: «Ahal dudan diozu? Dena ahal du sinesten duenak». Orduan, mutikoaren aitak deiadarka: «Sinetsi nahi dut! Lagundu sinesgabe honi!»

Jesusek, jendea pilatzen ari zela ikusirik, gogor eraso zion espiritu gaiztoari: «Espiritu gorra eta mutua, Nik agintzen diat: atera hadi honengandik eta ez sartu berriro». Espiritua, garrasika eta berebiziko astindua emanez, atera egin zen. Mutikoa hilik bezala gelditu zen; hila zegoela zioen askok; baina Jesusek eskutik hartu eta altxarazi zuen, eta mutikoa zutik jarri zen.

Urteko 7. astea.

San Bitorino, *martiria*.

Santa Valverga, *abadesa*.

Jesus etxeratu zenean, ikasleek galdetu zioten bakarrean: «Eta guk, zergatik ezin izan dugu espiritua botatu?» Jesusek erantzun zien: «Gisa honetako espirituak botatzeko bide bakarra otoitza da».

**M**utikoaren aitaren otoitz hau etengabeko lagun izan beharko genituzkeen etsenpluetako bat da. Geure errealitatea eta geure desioak aitortu: sinesten dut, baina dudak ditut; maitatu nahi dut, baina neure burua bilatzen dut; arindu nahi dut sufrimendua, baina aintzat har dezatela neurea; adierazi nahi dut Ebanjelioa, baina neure erara; horregatik, berari eskatu beharra dugu behin eta berriz: «Lagundu iezaguzu!» Bakarrik ezin dugu ezer. Geure asmoak baino harago, beste horrengana jo beharra dugu. Otoitzaren bidez bakarrik egiten ahal diogu aurre txikien bizitza kateatzen duen orori. Zenbat eta konpromiso handiagoa jende ahularekin, orduan eta premia handiagoa beste horren Izenari dei egiteko.

*Hartu zituen Jesusek berekin  
Pedro, Santiago eta Joan, eta  
mendi goi batera igo zen haiekin  
bakarrik, eta hiruren aurrean  
antzaldatu zen.*



Urteko 7. astea.

San Alexandro, *gotzaina*.San Porfirio, *gotzaina*.

[Ben Siraken liburutik 2,1-13: Prestatu zeure burua probarako. Sal 37  
[36]: Utzi Jaunaren esku zeure zoria, berak ekinean jardungo baitu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,30-37.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak menditik alde egin eta Galilean zehar zebiltzan. Jesusek ez zuen hori inork jakiterik nahi, ikasleei irakastera emana baitzegoen. Honela ari zitzaien:

«Gizonaren Semea gizakien esku utziko dute; hilko dute, baina hil eta hiru egunera piztuko da». Haiek, ordea, ez zuten ulertzen zer ari zitzaien; galdetzeak, berriz, beldurra ematen zien.

Iritsi ziren Kafarnaumera eta, etxean zeudela, Jesusek galdetu zien: «Zer eztabaida izan duzue bidean?» Baina haiek hitzik ez; beren artean handiena nor ote zen eztabaidatu baitzuten bidean.

Eseri zen Jesus eta, Hamabiei dei eginik, esan zien: «Lehenengo izan nahi duena izan bedi denetan azkena eta denen zerbitzaria».

Gero, haurtxo bat hartu, haien erdian jarri eta, besarkatuz, esan zien: «Honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak, ez nau Ni onartzen, bidali nauen hura baizik».

**I**noizka, guri ere beldurra ematen digu galdetzeak. Nahiago izaten dugu gauzak ulertzeko geure erari atxiki, gehiegi konprometitu gabe. Nork irekiko lizkioke belarriak umilazioen eta porroten bideari, besteren bila ibili ohi garenean: handitasunaren, egiten dugun hartan esanguratsu eta nabarmen izatearen bila? Buru-eskaintza «handiago egitea bera ere» sare edo tranpa gerta dakiguke, isilik eta ezkutuan norberaren distira bilatzen dugunean. Jesusek asmoaren garbitasuna proposatzen digu: erdigunea txikiei eskaintzea, bihotzez onartzen ditugunean beraren zerbitzari garelako uste izatea. Izan ere, mundualdiko ibilbide honetan, beheratuz igotzen da bat, galduz irabazten da eta emanez hartzen.

Urteko 7. astea.

Ama Doloretakoaren Gabriel Santua, *pasiotarra*.

---

[Ben Siraken liburutik 4,12-22: Jakinduria maite dutenak ditu Jaunak maite. Sal 119 [118]: Gainezka dute bakea, Jauna, zure nahia maite dutenek.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,38-40.

Aldi hartan, Joanek esan zion Jesusi: «Maisu, gizon bat ikusi dugu zure izenean deabruak botatzen, eta galarazi egin nahi izan diogu, ez baita gure taldekoa».

Baina Jesusek erantzun: «Ez galarazi, ez baita inor, nire izenean mirari bat egin eta gero nitaz gaizki esaka jardungo duenik. Zeren gure aurka ez dagoena gure alde baitago».

**J**esusen hitz hauei arreta handiagoa eskainiko bagenie, benetan aldaraziko liguke geure begiratua. Biziaren alde gaudenean, Jainkoaren alde gaude; bizitzarik hauskorrena defenditzen dugunean, Jainkoa defenditzen dugu..., baina bizitza hauskorrena mintzen dugunean, min hartzen du berak. Halako kaltea eragiten duten segidako hitz hauek baztertzeko eskatu digu Jesusek: «ez dira gureetakoak». Jesusekin denak ditugu lagun hurko, aurpegi guztiek dute zerikusirik gurekin, egintza orok agertzen du zerbait Jainkoaz nahiz ezjakinean egina izan. Protagonismo bila ibiltzen al gara, pertsona berezitat al dugu geure burua, agian besteak baino hobetzat? Beste bati laguntzeko gai den pertsona, hori da Jesusek baloratzen duen jarrera bizitzari dagokionez.

Urteko 7. astea.

Rufino, Justo eta Makario santuak, *martiriak*.

[Ben Siraken liburutik 5,1-10: Itzuli Jaunagana luzatu gabe. Sal 1: Zorionekoa Jaunagan itxarobidea jartzen duena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,41-50.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Mesiasen jarraitzaile zaretelako, baso bat ur bada ere ematen dizuena, benetan diotsuet, ez da saririk gabe geldituko.

Nigan sinesten duten txiki hauetakoren baten sinesmena galbidean jartzen duenak hobe luke errotarri bat lepotik lotu eta itsasora amilduko balute.

Zeure eskuak galbidean jartzen bazaitu, moztu; hobe duzu esku-motz betiko bizian sartu, bi eskuak dituzula infernura, itzalezineko sura, joan baino. Zeure oinak galbidean jartzen bazaitu, moztu; hobe duzu hanka-motz betiko bizian sartu, bi oinak dituzula infernura jaurtia izan baino. Zeure begiak galbidean jartzen bazaitu, atera; hobe duzu begibakar Jainkoaren erreinuan sartu, bi begiak dituzula infernura jaurtia izan baino; han ez da hiltzen barruko harra, ezta itzaltzen ere sua.

Izan ere, suaz gazitu behar dira denak. Gauza ona da gatza; baina gatza gezatzen bada, nola gazitu berriro? Eduki gatza zeuen baitan eta zaudete bakean elkarrekin».

**H**itz interpelagarri hauetako zeinek eragiten digu mugitzera? Letra baino harago, garrantzizko irakaspena dute noski; izan ere, Jesusek ikasleei hain zorrotz aurkezten dizkie. Txikien ardura estua du Jesusek, zaintzen dituztenen zaintzaile ageri da; aldi berean, txikiak munduko ezerगतik ez eskandalizatzeko ohartarazi die ikasleei. Halakoen alde jartzeko eskatu digu, geure egintzak (eskuak), hautatzen ditugun bi-deak (oinak) eta halakoei begiratzeko lekua (begiak); izan ere, halakoen zerbitzari izan ordez halakoez baliatzen bagara, Erreintutik urrundu egingo gara. Halakoak dira geure bizitzan gatza ipintzen digutenak, Jainkoaren lehentasunak dastarazten dizkigutenak.



## MARTXOA / EPAILA

### AITA SANTUAREN ASMOA

**Ebanjelizazioaren alde:** Eliza guztiak premiatasun handikotzat har dezan bereizmen espiritualean formatzea, bai alde pertsonalean, bai alde komunitarioan.



Urteko 7. astea.

San Rosendo, *gotzaina*.

San Felix III.a, 48. *aita santua*.

San Leon (Baionan), *gotzaina eta martiria*.

[Ben Siraken liburutik 6,5-17: Balio neurtezina du adiskideak. Sal 119 [118]: Gida nazazu, Jauna, zeure aginduen bidetik!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,10-12.

Aldi hartan, Jesus Judeako mugetan sartu eta Jordan ibaiatz bes-taldera igaro zen. Berriro jendetza handia bildu zitzaion eta bera, ohi zuen bezala, irakasten hasi zitzaion.

Hurbildu zitzaizkion fariseu batzuk eta, Jesus zertan harrapatuko, galdetu zioten: «Zilegi al zaio gizonari emaztea uztea?» Hark erantzun zien: «Zer agindu zizuen horretaz Moisesek?» Eta haiek: «Moisesek dibortzio-agiria idatzi eta emaztea uzteko baimena eman zigun».

Jesusek esan zien: «Zeuen burugogorkeriagatik eman zizuen Moisesek lege hori. Baina, munduaren hasieratik, Jainkoak gizaseme eta emakume egin zituen; horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu eta emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izango dira. Beraz, aurrerantzean ez dira bi, bat baizik. Horrela, bada, Jainkoak bat egin duena ez beza gizakiak banatu».

Gero, etxean, arazo berari buruz galdetu zioten ikasleek. Jesusek esan zien: «Bere emaztea utzi eta beste batekin ezkontzen denak adulterioa egiten du lehenengoaren kontra; eta bere senarra utzi eta beste batekin ezkontzen den emazteak adulterioa egiten du era berean».

**Z**enbat sufrimendu isil ezkontza-bikote askoren sakonean! Bat egitera eragin zien maitasuna galduz joan da eta, inoiz, kontrako bihurtuz. Zer samina, biziaren bidaia egiteko aukeratu zenuen pertsona hura, halako batean pertsona ezezagun gertatu izana, zutaz ez arduratzeaz gain kalte egitera ere iritsi izana. Elkarrekin bizitzea jasanezin bihurtu denean, seme-alabak nozitzen eta mindurik sentitu direnean, irtenbidea bilatu behar. Zenbat samurtasun beharko genukeen agertu halakoan hurbileko garenok, nolako ulermena, zenbat olio gozagarri bota beharko zauri horien gainean: harrera, harrera eta harrera.



Urteko 7. astea.

San Pedro Zuhigakoa, *gotzaina*.

Santa Atanasia, aitorlea.

[Ben Siraken liburutik 17,1-13: Bere irudiko egin zuen Jainkoak gizakia. Sal 103 [102]: Jaunaren maitasuna betidanik betidaino begirune diotenentzat.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,13-6.

Aldi hartan, haurrak eraman zizkioten Jesusi, uki zitzaizkien; ikasleek, ordea, haserre egiten zieten. Hori ikustean, haserretu zen Jesus eta esan zien: «Utzi haurrei nigana etortzen, ez galarazi, horrelakoa da eta Jainkoaren erreinua. Benetan diotsuet: Jainkoaren erreinua haur batek bezala hartzen ez duena ez da inola ere bertan sartuko».

Eta, besarkatuz, bedeinkatu egiten zituen haurrak, eskuak gainean ezarriz.

**A**nekdotak batek dioenez, Serafin Sarov-eko staretz-ak (Eliza Ortodoxoko aita espiritualak), adineko jendeari jaramon egiteaz nekaturik sentitu ohi zenean, gogoko zuen baso batera ihes egiten zuen arnasa hartzera, eta haurren deiari bakarrik erantzuten zion. Hala, jendeak haurrak bidaltzen zituen aurretik haren bila. Haurren ahotsa entzutean, santuak ezin jarraitu izaten zuen ezkutuan, eta han agertzen zitzaizkien haren agure-burua sasiarteetan: «Ene altxorra!», esaten zion, eta haurrek besarkatu egiten zuten konfiantzaz eta zoriontsu. Behin batean, txikiak, Lisak, hurbildu zitzaion ahizpari eta, eskutik harturik, esan zion: «Serafin aitak zahar aurpegia ateratzen digu. Baina haur bat da, gu bezalakoa, ezta, Nadia?»

Urteko 8. astea.

San Emeterio eta San Zeledonio, *martiriak*.

### § Ben Siraken liburutik 27,4-7.

Galbaheari eragindakoan, hondarrak gelditzen dira, eta azterketa egitean, gizakiaren akatsak.

Labeak probatzen ditu eltzegilearen ontziak, eta giza arrazoiketak gizakiaren balioa.

Fruituak erakusten du nola zaindu duten arbola, eta hitzak gizakiaren pentsamoldea.

Ez goratu inor hitz egiten entzun baino lehen, horretan probatzen baitira gizakiak.

[Sal 92 [91]: Bai ederra, Jauna, Zu gorestea.]

### § San Paulok 1 Korintoarrei 15,54-58.

Senideok: Gure izate ustelkorra bizi ustelezinez jantziko denean, eta izate hilkorra hilezkortasunez, orduan beteko da Liburu Santuak dioena: «Behin betiko garaitua gertatu da heriotza. Non duk, herio, heure garaipena? Non heure eztena?» Heriotza dakarren eztena bekatua da, eta bekatuak legetik hartzen du bere indarra. Eskerrak Jainkoari, garaipena eman digulako Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez!

Beraz, ene senide maiteok, iraun sendo, asmoz aldatu gabe, Jaunaren lanean gero eta gogotsuago, jakinik Jaunak ez duela zuen nekea saririk gabe utziko.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,39-46.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Izan ote daiteke itsua itsuaren gidari?

Ez ote dira biak zulora eroriko? Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago, baina ondo eskolaturiko ikaslea bere irakaslea adinakoa izango da.

Nolatan ikusten duzu senidearen begiko lasto-izpia eta zeure begiko habeaz ohartzen ez? Nolatan esan diezaiokezu senideari: “Adis-

Urteko 8. astea.

San Emeterio eta San Zeledonio, *martiriak*.

kide, uztazu begian duzun lasto-izpia ateratzen”, zuk zeurean duzun habea ikusten ez duzula?

Itxurazalea halakoa! Atera lehenik zeure begitik habea, eta orduan ikusiko duzu garbi, senidearen begitik lasto-izpia ateratzeko.

Etz da zuhaitz onik fruitu txarra ematen duenik, ezta zuhaitz txarrik ere fruitu ona ematen duenik. Bere fruituetatik antzematen zaio zuhaitzari; elorritik ez da pikurik biltzen, ezta sasitik mahatsik hartzen ere. Ona denak ona ateratzen du bere barneko ondasun-altxorretik, eta gaiztoak gaitza bere gaiztakeri altxorretik; ahoak esan, bihotzari gainezka dariona esaten baitu».

**B**asamortuko gurasoen esapideetan, akats bat egin zuen Eszitia-ko (antzinako lurraldea, Danubio ibaiaren eta Itsaso Beltzaren artean) anaia baten historia dator. Zaharrenak elkartu ziren, eta Moises abadeari albistea bidali zioten etortzeko esanez. Baina berak ez zuen joan nahi izan. Presbiteroak lagun bat bidali zion esatera: «Zatoz, zain dituzu anaia guztiak». Eta abiatu zen, hartu zuen berekin otarre zahar-zahar bat, hareaz bete eta lepoan hartu zuen. Anaiek, bidera aterarik, galdetu zioten: «Zer da hau, aita?» Eta abadeak esan zien: «Nire bekatuak nire atzean erortzen dira, eta ez ditut ikusten, eta besteren bekatuak juzkatu behar al ditut gaur?» Hau entzunik, anaiek ez zioten ezer esan errudunari eta barkatu zioten. Haientzat, arima erabat garbi ez dagoen proba izan zen hura: artean hurkoaren bekatuez gupidarik ez izatea eta zorrotz epaitu nahi izatea. «Geure anaiaren bekatua estaltzen dugun bakoitzean, gurea estaltzen du Jainkoak. Eta anaien akatsak salatzen ditugun bakoitzean, gauza bera egiten du Jainkoak gureekin». Fruitu ona emateko, beharrezkoa da geure burua arma gabetzea, geure itsutasuna aitortzea, otarra lepoan dugula bide egitea mugarik gabeko onberatasunaren bidean barna.

Urteko 8. astea.

San Kasimiro, *aitorlea*.

[Ben Siraken liburutik 17,20-28: Etorri berriz Goi-goikoagana eta saihestu bidegabekeriatik. Sal 32 [31]: Poztu eta alaitu Jaunagan, zintzook.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,17-27.

Aldi hartan, Jesus abiatzera zihoala, gizon bat etorri zitzaion lasterka eta, aurrean belaunikaturik, galdetu zion: «Maisu ona, zer egin behar dut betiko bizia ondareztat jasotzeko?» Jesusek erantzun zion: «Zergatik esaten didazu ona? Inor ez da ona, Jainkoa besterik.

Badakizkizu aginduak: ez hil inor, ez egin adulteriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, ez egin kalterik, hartu aintzat aita-amak». Hark, orduan: «Maisu, gazte-gaztetandik bete izan dut hori guztia».

Jesus maitasunez begira jarri zitzaion, eta esan: «Gauza bat besterik ez zaizu falta: zoaz, saldu daukazun guztia eta eman behartsuei, eta altxorra izango duzu zeruan; gero, zatoz eta jarraitu niri». Hitz hauek entzutean, ilun jarri zen gizona eta nahigabez joan, ondasun handien jabe baitzen.

Orduan, Jesusek, ingurura begiratu, esan zien ikasleei: «Bai nekez sartuko direla aberatsak Jainkoaren erreinuan!» Harriturik utzi zituen ikasleak esaldi honek. Baina Jesusek berriro ere:

«Ene semeok, zaila da benetan Jainkoaren erreinuan sartzea! Orraztaren begitik gamelua igarotzea errazago, aberatsa Jainkoaren erreinuan sartzea baino».

Ikasleek, gero eta harrituago, elkarki ziotsaten: «Nor salba daiteke, orduan?» Jesusek begira- begira jarri eta esan zien: «Gizakiarentzat ezinezko da, baina Jainkoarentzat ez, dena baitezake Jainkoak».

**G**izon aberats hura premiatsu hurbildu zaio. Korrika etorri eta galdera egin dio. Axola handia agertu du eta, halere, triste alde egin

Urteko 8. astea.

San Kasimiro, *aitorlea*.

дутен pertsonaia bakanetakо bat da, Jesusekin topo egin ondoren. Zer dela eta? Itxuraz, zoriontsu bihur dezakeen guztia du, bere eginbeharrak betetzen ditu eta ematen du dena ondo eratua duela beragan; Jesusen txerak, орdea, beraren bizitza bete-betera eraman nahi izan du: «saldu daukazun guztia eta eman...»; ireki eskuak eta bihotza, egizu txoko bat altxor handiago bat hartzeko. Eta ni neu, zerk nau lotzen, neure bizitzan behartsuei denbora eta afektu gehiago eskaintzea eragozten didanik?

\* \* \*

### Zaude, Jauna, nirekin

Zaude, Jauna, nirekin beti, inoiz ere alde egin gabe, eta joatea erabakitzen baduzu, eraman nazazu, Jauna, zeurekin; zeren eta joango zarela pentsatzeak egundoko beldurra eragiten baitit ni zu gabe gelditzeak, zu ni gabe joateak. Eraman nazazu zurekin, zoazkeen lekura, Jesus; ondotxo baitakit zeu zarela ene arimaren bizia; badakit, zuk ez badidazu bizia ematen, ezin naizela bizi, ezta ni zu gabe gelditzen banaiz ere, zu ni gabe joaten bazara. Horregatik, heriotzari baino handiagoa diot beldurra, Jauna, zuk alde egiteari, eta mila bider nahiago dut hil zu galtzea baino; zeren eta zuk emandako hilezkortasuna badakit ezin dudala lortu ni zu gabe gelditzean, zu ni gabe joatean.

(Frai Damián de Vega)

Urteko 8. astea.

Santa Oliva, *birjina eta martiria*.

San Joan Jose Gurutzekoa, *aitorlea*.

---

[Ben Siraken liburutik 35,1-15: Aginduetara makurtzea opari salbagerria da. Sal 50 [49]: Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamena erakusten.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,28-31.

Aldi hartan, Pedrok esan zion Jesusi: «Hara, guk dena utzi dugu, zuri jarraitzeko».

Jesusek erantzun: «Benetan diotsuet: Nigatik eta Berri Onagatik etxea, senideak, ama, aita, seme-alabak eta lurrak uzten dituenak, orain, mundu honetan, ehun halako hartuko du: etxe, senide, ama, seme-alaba eta lur, erasoaldiekin batera; eta gero, datorren munduan, betiko bizia. Orain lehenengo diren asko azkeneko izango dira, eta orain azkeneko direnak lehenengo».

**Z**enbat kostatzen zaigun doakotasun-giroa bizitzea! Geure burua dakusagu Pedroren hitzetan: egin dugunaren saria behar izaten dugu, odolkiak ordainetan nahi izaten ditugu, batez ere alde afektiboari dagozkionetan, egin duguna aintzat har dezaten desiratzen dugu. Kanpora begira, fakturarik ez dugula egingo esan arren, barnean esker ona ager diezaguten antsiatzen dugu, egindakoa aitortu diezaguten, eta, halakorik iristen ez bada, zapuzturik sentitzen gara. Jesusek, gure izaeraren oso jakitun, aspertu gabe eragin digu geure burua eskuzabaltasunaren bidean finkatzera: geuk eskaintzen edo espero ahal duguna baino askoz gehiago hartzen dugu. Gure desioak labur dira gure bizitza gozatzen duen hainbat dohainen ondoan.

Hausterre eguna.

Santa Rosa Viterbokoa, *birjina*.San Marziano, *gotzaina*.

## § Joel profetaren liburutik 2,12-18.

Hau dio Jaunak.

«Itzul zaitezte nigana bihotz-bihotzez,  
barauz, negarrez eta doluz.

Urta itzazue bihotzak, ez soinekoak;  
itzul zaitezte Jaunagana, zeuen Jainkoagana,  
bihozbera eta errukitsua baita,  
haserregaitza eta maitasun handikoa,  
bere mehatxuez damutzen dena.

Agian atzera egin eta damutuko da,  
eta bedeinkatuko zaituzte ostera,  
labore- eta isurtze-oparia eskain diezaiozuen  
Jaunari, zeuen Jainkoari.

Jo turuta Sionen, antolatu baraualdia, dei egin batzarrera; bildu  
herria batzar santura, bildu zaharrak, ekarri haurrak, baita bu-  
larrekoak ere. Atera bedi senarra ezkontza-gelatik, emaztea ez-  
kon-ohetik.

Negar egin bezate atari eta aldare bitartean  
apaizek, Jaunaren zerbitzariek.

Esan bezate: “Barka, Jauna, barka zeure herriari;  
ez utzi lotsatan zeure ondarea,  
ez dezatela mendera atzerritarrek,  
ez dezatela esan beste herriek:  
Non dute, bada, beren Jainkoa?”»

Bere lurraldearekiko maiteminez bete zen Jauna eta barkatu zion  
bere herriari.

[Sal 51-[50]: Erruki, Jauna, bekatu egin dugu eta.]

Hausterre eguna.

Santa Rosa Viterbokoia, *birjina*.

San Marziano, *gotzaina*.

§ Paulo santuak 2 Korintoarrei 5,20–6.42.

Senideok: Kristoren mandatari gara, eta gure bitartez Jainkoak berak erregutuko balizue bezala da. Kristoren izenean eskatzen dizuegu: adiskidetu zaitetzte Jainkoarekin. Bekatuarekin zerikusirik izan ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatuarekin bat egin zuen, guk haren bitartez Jainkoaren salbamena iritsi genezan.

Jainkoaren lankide garenez gero, eskatzen dizuegu, ez dezazuela alferrik har haren onginahia. Izan ere, Jainkoak dio: «Onginahi-garaian entzun dizut, eta salbamen-egunean lagundu». Begira, beraz: oraintxe da onginahi-garaia, oraintxe salbamen-eguna.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,1-6.16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Begira, gero: ez egin zeuen egintza onak jendaurrean, ikus zaitzaten! Bestela, ez duzue zeruetan dagoen Aitaren saririk izango.

Limosna ematean, beraz, ez ibili aurretik turuta jotzen, itxurazaleak sinagogetan eta kaleetan ibiltzen diren bezala, jendeak txalotu ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk limosna ematean, ordea, ez beza jakin zure ezkerak zer egiten duen eskuinak; horrela, zure limosna ezkutuan geldituko da; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

Otoitz egitean, ez egin itxurazaleek bezala; horiek sinagogetan eta plaza-ertzetan zutik otoitz egitea maite baitute, jendeak ikus ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zu, ordea, otoitz egitean, sar zaitetz zeure gelan, itxi atea eta egiozu otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

Barau egitean, ez agertu kopetilun, itxurazaleak bezala; aurpegia itsustu egiten baitute, barau egiten dutela jendeari agertzeko. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, barau egitean, gantzutu



Hausterre eguna.

Santa Rosa Viterbokoa, *birjina*.San Marziano, *gotzaina*.

zeure burua usain gozoz eta garbitu aurpegia, jendeak ez, baino ezkutan dagoen zure Aitak ikus dezan zure baraua; eta ezkutan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina».

**A**skotan egiaztatzen dugu nor bere buruari begira bizi ohi garena eta, aldi berean, barreiatu kanpora begira, eta ondoez-dosiren batek jota bide eginez. Garizumaren hasieran proposatzen zaizkigun hiru ibilbideek –baraua, limosna eta otoitza– harreman-kutsua dute eta galdetzeraz garrantzitsuak: nola bizi gara geure irentsi beharrenean, nola irekitzen gara gainerakoen premietara, nola bizi gara Jainkoari dagokionez? Hiru ubide: modu osasungarrian zeharkaturik, barne aldera gehiago hazteko eta maitasuna kanporantz hedatzeko aukera ematen digutenak; Jainkoaren begiratupean geure bizitza berregokitzeko aldia da. Bestek gu ikustea oinarrizko beharra dugu, baina geure burua azaltzeko bizitzen garenean, inporta zaiguna ikus gaitzaten eta egiten dugun «ongia» aitortu diezaguten denean, geure egiaz sokinak sakonki faltsutzen eta desitxuratzen dugu. Bihotzaren isiltasunez gelarik sekretuenean sartu ohi gara, eta geure buruarekin bakarrik gelditzen, azpikeriarik eta ihesirik gabe; han ez dugu izaten zeren azpian gorde, eta bakardade biluz horretan zaigu agertzen Jainkoa hurbilenik. Geure baitatik irten, ezer probetxurik gabe eman eta haren aurrean gertatzen gara erabateko doakotasun-giroan. Eta beraren dohainei harrera eta esker ona eskaintzera prestatzen gaitu horrek.

Hausterre ondokoa.

Perpetua eta Felizitas santuak, *martiriak*.

[Deuteronomio liburutik 30,15-20: Bedeinkazioa eta madarikazioa jartzen dizkizut gaur aurrean. Sal 1: Zorionekoa Jaunagan itxarobidea jartzen duena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,22-25.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizonaren Semeak asko sufritu beharra du; zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsi egingo dute eta hil, baina hirugarren egunean piztu egingo da».

Eta hau esan zien denei: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza eguneroko bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia salbatu nahi duenak galdu egingo du; baina bere bizia nigatik galtzen duenak salbatu egingo du. Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen eta hondatzen badu?»

**N**ork bere burua laguntzeko idatzi diren liburuetakoa bakar batean ere ez dugu aurkituko gonbidapenik nork bere buruari uko egingo, ezta ezer galdu behar izatera ere: arrakasta pertsonala etengabe gorensten duen kulturaren bizi gara. Mundu guztiak ihes egiten die galtzaileei, eta ez dugu aipatu ere nahi izaten porrot egiteko ahalbidea. Horrenbestez, non da xarma, Jesusek hain nahasgarria den proposamen hau egiten digunean? Galeren eta irabazien ebanjelioko balantzea munduaren logikaren kontrakoa da. Arazoa ez da ezere truke den-dena ematea, baizik eta askoz ere gehiagoren truke den-dena ematea da. Aurkituko dugun dohainak gu gaintitza. Baliorik handikoena, zerbat ematen dugunean jasotzen dugu.

# 8

Ostirala / Barikua

MARTXOA / EPAILA

Hausterre ondokoa.

San Joan Jainkoarena, *fundatzailea* (*San Joan Jainkoaren Anaiak*). San Beremundo Iratxekoa, (Villatuertan [Nafarroa] 1092 edo 1099an jaioa; hil?), *abadea*.

[**Isaias profetaren liburutik 58,1-9a:** Hau da Nik maite dudan baraua. **Sal 51 [50]:** Zuk ez duzu gutxiesten, ene Jainko, bihotz hautsia eta umildua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,14-15.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen ikasleak Jesusengana hurbildu eta esan zioten: «Zergatik guk eta fariseuek sarritan egiten dugu barau, eta zure ikasleek ez?»

Jesusek erantzun zien: «Ezteietara deituak egon al daitezke triste senar berria berekin duten bitartean? Etorriko zaie senar berria kenduko dieten eguna; orduan, bai, egingo dute barau».

**B**ada aldi bat barau egiteko eta beste bat ospatzeko. Jaunak gogoko duen barauak ez du zerikusirik aszesi lehiakorrekin, baizik eta solidaritate-harremanak izatearekin eta kontsumismo txikiagoko era bizitzearekin. Ahuldadea ikusteko begiak ematen dizkigun baraua da nahi duena, gure eskuak gorputz zaurgarriak ukitzeko sentiberago egiten dituen, ostatu ematera prest jartzen gaituena, besteen sufrimendu isilarekiko bihotz-samurrago bihurtzen gaituena. Zertaz dut barau egin beharra aldi honetan nire bizitza irisgarriago eta bedeinkatzaileago bihur dadin? Pantailari begira bizitzetik, presaka ibiltzetik, eske eta eske, kexuka bizitzetik barau egin beharra?

Hausterre ondokoa.

Santa Frantziska Erromatarra, *erlijiosa*.

San Pazio, *gotzaina*.

[Isaias profetaren liburutik 58,9b-14: Gose denari zeure ogitik ematen badiozu, zure argia ilunpean zabalduko da. **Sal 86 [85]**: Erakutsiezadazu, Jauna, zeure bidea, zurekin leial joka dezadan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,27-32.

Aldi hartan, Jesusek Lebi izeneko zergalari bat ikusi zuen, zergak biltzeko mahaian eseririk, eta esan zion: «Jarrai niri». Hark, dena utzirik, zutitu eta jarraitu egin zion.

Lebig bazkari handia eman zion Jesusi bere etxean; Jesusekin eta honen ikasleekin batera zergalari eta bestelako jende asko zegoen mahaian. Fariseuak eta haien lege-maisuak marmarrean ari ziren eta esan zieten ikasleei: «Zergatik jaten eta edaten duzue zergalari eta bekatariekin?»

Jesusek erantzun zien: «Ez dute osasundunek sendagilea behar, gaixoek baino; ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik, bihotz-berri daitezen».

**L**ebi bere erakusmahaian zegoen, bere eragiketak egiten. Nolatan ez genuke geure burua ikusiko bihotzean gordetzen ditugun «negozio» horietan, barneko kontabilitate isileko horretan? Jesusek ez digu aurpegiratu nahi egina dukegun lapurreta; haren begiratuak juzkatu gabe onartu nahi gaitu, eta beste behin kontua zeroan jarri nahi digu. Bada une giltzarri bat kontakizunean, Jesusek dei egin dion hura: «den-dena utzirik, jaiki eta jarraitu egin zion». Erantzunaren erabatekotasun hori Jesusen errukiak gainez egitearen fruitua da. Egundoko premia dugu, geure probetxu-erak utzi eta beti doako eta saneagarri diren Jaunaren era horietara bihurtzeko.

## § Deuteronomio liburutik 26,4-10.

Moisesek honela hitz egin zion herriari: «Apaizak zure eskutik lehen-fruituen saskia hartu eta Jaunaren zure Jainkoaren aldare aurrean jarriko du.

Orduan, Jaunaren zeure Jainkoaren aurrean esango duzu: “Nire aita noraezean zebilen aramearra zen; Egiptora jaitsi eta etorkin gisa bizi izan zen han, lagun bakar batzuekin. Egipton herri handi egin zen jendez eta indarrez.

Egiptoarrek tratu txarra eman ziguten, zapaldu eta morrontza gogorra ezarri. Deiadar egin genion Jaunari, gure arbasoen Jainkoari; Jaunak gure deiadarra entzun zuen, eta gure atsekabea, nekea eta estualdia ikusi zuen. Eta Egiptotik atera gintuen Jaunak ahalmen handiz eta esku indartsuz, etsaiengan beldur-ikara sortuz, ezaugarri eta egintza harrigarriak eginez. Toki honetara ekarri gintuen eta lurralde hau eman zigun, esnea eta ezta darizkion lurraldea. Orain, hona hemen non dakarzikizudan, Jauna, Zeuk eman didazun lurreko emaitzen lehen-fruituak”.

Hori esanik, Jaunaren zeure Jainkoaren aurrean utziko duzu eskaintza, eta Jauna zeure Jainkoa ahuspez gurtuko duzu».

[Sal 91 [90]: Zaude nirekin, Jauna, larrialdian.]

## § Paulo santuak Erromatarrei 10,8-13.

Senideok: Hau dio Liburu Santuak: «Hurbil duzu hitza, zeure ahoan eta zeure bihotzean».

Hitz hori, hain zuzen, guk hots egiten dugun sinesmenaren mezua da. Izan ere, zeure ahoz aitortzen baduzu Jesus Jauna dela, eta zeure bihotzean sinesten baduzu Jainkoak hilen artetik piztu zuela, salbatuko zara. Zeren bihotzez sinesten duena zuzentzat hartzen baitu Jainkoak, eta ahoz aitortzen duena salbatu egiten da. Liburu Santuak dio: «Harengan sinesten duena ez da lotsagarri gertatuko».

Garizumako 1. astea.

San Alexandro, *martiria*.

Santa Maria Eugenia Milleret, *fundatzailea*  
(*Jasokundeko Erlijosak*).

Judu izan ala ez, ez dago bereizketarik, bat bera baita guztien Jauna, dei egiten dioten guztientzat eskuzabala. Izan ere, «Jaunaren ize-nari dei egiten diona salbatuko da»

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4,1-13.

Aldi hartan, Jesus Espiritu Santuaz beterik itzuli zen Jordandik. Espirituak eramanik, basamortuan barna ibili zen berrogei egunez, deabruak tentatzen zuela. Ez zuen ezer jan egun haietan, eta azkenean go-setu egin zen. Orduan, deabruak esan zion: «Jainkoaren Seme baldin bazara, esaiozu harri honi ogi bihur dadila». Jesusek erantzun zion: «Liburu Santuan idatzirik dago: “Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi”».

Gero, deabruak, toki goi batera eramanik, munduko erreinu guztiak erakutsi zizkion une batean, eta esan zion: «Horien guztien agintea eta ospea emango dizut; neuri eman didate eta nahi dudanari ematen diot. Beraz, gurtzen banauzu, zurea izango da dena».

Jesusek erantzun zion: «Idatzirik dago: “Jauna zeure Jainkoa gurtuko duzu, eta hura bakarrik zerbitzatuko”».

**E**z da izaten inoren gogoko proba bat jasatea, ezta une gogor bati aurre egin behar izatea ere, eta guztioi kostatzen zaigu zerbait galtzea. Halere, gure bizitzan askotan gertatzen dira horrelako egoerak. Tentazioak izan ditu Jesusek: erosoena, distiratsuen eta balioztatuen izango den hura aukeratzera eragin diote; harremana izatera xaxatu dute, baina ez bera behean edo aldamenen kokatzekotan, baizik eta eszenaren erdian eta goian, bera beti garaille izateko moduan. Gure «ego»ak ezagutzen dituen erregistroak dira: nor ez da bizi izan batzuetan uste izanik berari gertatzen zaion horixe dela munduko gauzarik garrantzikoena? Baina tentazio-aldia ahalbidetzen eta graziaren aldia ere izaten da. Tentaturik sentitzen garenean, geure giza izaeratik urruntzen gaituzten bideak hartzerantz, alegia, maitasuna sustraitzeko aukera ere izaten da. Basamortuko bakardadea ez dute betetzen uluek eta zaunkek bakarrik, han izaten da bihotza gozatzen eta adoretzen duen Ahots baten xuxurla ere. Hartua duen maitasunean adoreturik irten da Jesus probalditik, eta bere bizitzaren guztizko sostengu beste hori duelarik eta ez bere ahalbide hutsa.

Garizumako 1. astea.  
 Santa Aurea, *abadesa*.  
 San Eutimio, *gotzaina*.

[Levitarrak liburutik 19,1-2.11-18: Epaitu zuzenbidez zeure herritarra. [Sal 19 [18]: Zure hitzak, Jauna, espiritu eta bizi dira.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,31-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizonaren Semea –eta aingeru guztiak harekin– aintzaz beterik etortzean, bere errege-aulki ospetsuan eseriko da, eta herri guztiak haren aurrean bilduko dituzte. Hark batzuk besteengandik bereiziko ditu, artzainak ardiak ahuntzetatik bereizten dituen bezala: ardiak bere eskuinaldean ipiniko ditu, eta ahuntzak ezker aldean.

Orduan, erregeak esango die eskuinekoei: “Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok; hartazue munduaren sortzetik zuentzat prestaturik dagoen erreinua. Gose bainintzen, eta jaten eman zenidaten; egarri, eta edaten eman; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoan, eta jantzi egin ninduzuen; gaixorik, eta bisitatu; espetxean, eta ikustera etorri zineten”.

Orduan, zintzoeak erantzungo diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goserik, eta eman genizun jaten, edota egarri, eta edaten eman? Noiz ikusi zintugun arrotz, eta etxean hartu, edota biluzik, eta jantzi? Noiz ikusi zintugun gaixorik edota espetxean, eta ikustera joan?”

Eta erregeak erantzungo die: “Benetan diotsuet: nire seniderik txikien hauetakok bati egin zeniotena neuri egin zenidaten”.

Gero, esango die ezkerrekoei: “Alde nigandik, madarikuok, deabruarentzat eta haren lagunentzat prestaturik dagoen betiko sura. Gose bainintzen, eta ez zenidaten jaten eman; egarri, eta ez zenidaten edaten eman; arrotz, eta ez ninduzuen etxean hartu; biluzik, eta ez ninduzuen jantzi; gaixorik eta espetxean nengoan, eta ez zineten ni ikustera etorri”.

Haiek erantzungo diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun gosek edota egarri, arrotz edota biluzik, gaixorik edota espetxean, eta guk lagundu ez?”

Garizumako 1. astea.  
 Santa Aurea, *abadesa*.  
 San Eutimio, *gotzaina*.

Hark erantzungo die: “Benetan diotsuet: txikien hauetako bati egin ez zeniotena, neuri ez zenidaten egin”.

Eta hauek betiko zigorrera joango dira; zintzoak, berriz, betiko bizira».

**M**inik handiena dutenen aurpegietan ezkututzen da Jauna, eta berarekiko gure atxikipena lagun hurkoaren gorputzari eskainiko diogun arretak zehaztuko du. Bizitza afektiboa pobreekin bizi izandako historiak bizitzearekin garatzen da, eta halakoen izenak bihotzean gordetzearekin; txera isurian jarri eta halakoen sufrimena lagunartean eskaintzaz blai egitearekin. Aurpegi minduak eremu sakratu bilakatzeko dira, zeinetan ikasten baitugu eta iristen baikara heldutasunera, eta gorputzik zaurtuenekin ditugun harremanak izango dira gure gizatasunaren neurria: eskuzabala eta betea? Artean egintza samur asko dugu idazteko geure larruan.

\* \* \*

## KRISTOK EZ DU ZUREA BESTE GORPUTZIK

Kristok ez du zurea beste gorputzik.  
 Ez eskurik, ez hankarik Lurrean, zureak besterik.  
 Zureak ditu begiak, begiratzeko dituenak mundu honi gupidaz.  
 Zureak ditu hankak, ibiltzeko dituenak on eginez.  
 Zureak ditu eskuak, bedeinkatzeko dituenak mundu osoa.  
 Zureak ditu eskuak. Zureak ditu hankak.  
 Zureak ditu begiak. Zurea du gorputza.  
 Kristok ez du orain lurrean  
 zurea beste gorputzik.

(Avilako Teresa santuari egotzia)



Garizumako 1. astea.

San Nikodemo, *aitorlea*.

San Maximiliano, *martiria*.

[Isaias profetaren liburutik 55,10-11: Nire hitzak egingo du Nik nahi dudana. Sal 34 [33]: Beldur guztietatik libratu ninduen Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Otoitz egitean, ez jardun esan eta esan, jentilak bezala, uste baitute beren hitz-jarioari esker entzungo diela Jainkoak. Ez izan haien antzeko, badaki-eta zuen Aitak zer behar duzuen, zuek eske hasi baino lehen. Beraz, zuek honela egingo duzue otoitz:

«Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia, zeruan bezala lurrean ere. Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, eta ez utzi gu tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik».

Izan ere, zuek besteei beren hutsegiteak barkatzen badizkiezue, zuei ere barkatuko dizkizue zeruko zeuen Aitak; baina besteei barkatzen ez badiezue, zuei ere ez dizkizue barkatuko Aitak zeuen hutsegiteak».

**J**esusek irakatsi digun otoitzak hiru eskari proposatzen dizkigu biziaren zentzua ikusteko. Beharrezkoak ditugu egunez egun geure harremanetan, eta geugan haziz badoaz, ugaritasuna eta edertasuna izango ditugu. Hiru horietako bakoitza, bakarka harturik ere, aski izango litzatekeela irudi luke; baina hirurak batean harturik, den-dena da biderkatzen. Hona zein diren: «barkazioa», zeina gabe ezinezkoa baita elkarbizitza; «ogia» eta «usaina». Hiru gauza ezinbesteko biderako; horregatik datoz batera Gure Aitan, horregatik ditugu egunero eskatu beharreko: emateko eta hartzeko. Eta non da usaina?, galdetuko duzu. Santu deklaritzen dugun izenaren edukia da.

Garizumako 1. astea.

Sana Eufrasia, *birjina*.

Santa Kristina, *birjina*.

San Silvano, *martiria*.

---

[Jonas profetaren liburutik 1,1-19: Ninivetarrak beren bide okerretik itzuli. Sal 51 [50]: Zuk ez duzu gutxiesten, ene Jainko, bihotz hautsia eta umildua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,29-32.

Aldi hartan, jende asko biltzen ari zelarrik, Jesus honela hasi zitzaien: «Gizaldi hau gaiztoa da. Ezaugarri eske ari da, baina ez zaio ezaugarririk emango Jonas profetarena besterik. Izan ere, niniveta-rrerentzat Jonas ezaugarri izan zen bezala, hala izango da Gizonaren Semea gizaldi honentzat.

Auzi-egunean hegoaldeko erreginak gizaldi honetako jendearen aurka jaiki eta kondenatu egingo du, lurraren azken mugetatik etorri baitzen hura Salomonen jakinduriatzko hitzak entzutera, eta hona hemen Salomon baino gehiago dena.

Auzi-egunean ninivetarrek ere gizaldi honen aurka jaiki eta kondenatu egingo dute, haiek bihotz-berritu egin baitziren Jonasen predikua, eta hona hemen Jonas baino gehiago dena».

**J**esus atsekabetu bada, segurtasuna eta ziurtasuna emango liguketen seinaleak eskatzen ditugulako da, ezohiko gauza esanguratsuen eske ibiltzen garelako, kontuan hartu gabe etengabe gauzkala Jainkoak bere arduraren eta txeraren seinalez inguratutik. Ez dugu falta haren presentziaren aztarnarik; falta ditugunak begiak dira halakoak aurkitzeko, eta bihotza eskertzeko. Zer besterik behar dugu beraren bizi-az gain, behartsu eta txiki den orotan, munduko txikienetan, bera kontenplatzeko? Jauna, barka iezaguzu, eta garbitu pazientzi-az gure begiak, zu bertan izateari antzeman diezaio- gun bizitzako seinale xumeetan eta egunerokoetan.

Garizumako 1. astea.

Santa Matilde, *erregina*.

San Inozentzio, *gotzaina*.

[Esterren liburutik 14,1-3-5.12-14: Ez dut Zu beste laguntzailerik, Jauna. Sal 138 [137]: Dei egin nizunean, erantzun zenidan, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,7-12.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko dizue; eskatzen duenak hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitzen, eta atea jotzen duenari zabaldu egiten baitzaio.

Zuetako norbaitek, semeak ogia eskatuta, harria emango ote dio? Edota arraina eskatuta, sugea emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez dizkie zeruko zuen Aitak gauza onak emango eskatzen dizkiotenei!

Honela bada, besteek zuei egitea nahi zenuketen guztia egin zuek ere besteei; horixe da Moisesen legeak eta profetek diotena».

**D**enbora joan ahala, gero eta gehiago ohartzen gara geure eremu ilunez; eta indar handiagoz egiaztatzen dugu, soilik Pertsona batekin topo egiteak saneatzen gaituela: gure bizitza hartu eta, den bezala, maitatzeko gai den Pertsona hari eskatzeak, bera bilatzeak, berari dei egiteak. Aitortzen ditugu geure itzal-uneak, geure material oharkabea, besteak mintzeko erabiltzen ditugun geure alderdi horiek, geuri ere sufriarazten digutenak... baina aldi berean senti dezakegu geure bizitza Norbaitek besarkatua dela eta ona. Ahalbidez betea den haren samurtasun probidentzialaz. Maitasun hori sentitzeak egiten ahal gaitu doakotasunez maitatzeko gai.

Garizumako 1. astea.

Raimundo santua, Fiterokoa, *abadea (Iruñe eta Tuterako elizbarrutietan)*. Santa Luisa Marilac-ekoa. *fundatzailea Pauleko San Bizenterekin (Karitateko Ahizpak)*.

[Ezekiel profetaren liburutik 18,21-28: Gaiztoaren heriotza nahi ote dut Nik, eta ez jokabidez aldatu eta bizitzea? Sal 130 [129]: Gure erruak gogoan badauzkazu, Jauna, nor dagoke zutik, Jauna?]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,20-26.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jainkoaren nahia lege-maisuek eta fariseuek baino hobeki betetzen ez baduzue, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan.

Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Ez hil inor”, eta norbait hiltzen duena errudun izango da auzitegian. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere senidearekin haserretzen dena errudun izango da auzitegian; senideari “zoroa” esaten diona errudun izango da batzar nagusian, eta “sinesgabea” esaten diona infernuko surako errudun izango da.

Beraz, zeure oparia aldarean eskaintzean, gogoratzen bazara zure senideak baduela zerbait zure aurka, utzi oparia han bertan, aldare aurrean, eta zoaz lehenik senidearekin bakeak egitera; etorri orduan eta eskaini zeure oparia.

Konpon zaitez lehenbailehen zeure etsaiarekin, harekin auzitegira zoazen bitartean, etsaiak epailearen esku jar ez zaitzan, eta epaileak ertzainaren esku, eta giltzapean sar ez zaitzaten. Benetan diotsut: Ez zara handik aterako azken txanpona ordaindu arte»

**A**diskidetu beharra dugu, eta on egiten digu adiskidetu izana beste batzuen aurpegian kontenplatzeak berak. Etty Hillesum-ek ez zuen nahi izan, bere bihotzean inolako erresumin-arrastorik itsatsi zedin, eta, Auschwitzera deportatua izan aurretik, idatzirik utzi zuen bere Egunkarian: «Aitortu beharra dugu jendearen alde ezkorra eta hartatik geure burua babestu beharra; baina ez du esan nahi horrek jendeari uko egin behar diogunik edo mespretxatu behar dugunik, baizik eta, alderantziz, gupidaz tratatu behar dugula. Gauza simplea dela ematen du horrek eta kasik topiko bat dela, baina arau horren arabera biziko bazina, hitz-apur hauek zeure haragi-odoretan sartzen utziz, beste gizaki bat bilakatuko zinateke».

Garizumako 1. astea.

San Hilario, *gotzaina*,

Santa Kolunba, *martiria*.

[Deuteronomio liburutik 26,16-19: Jaunari zeure Jainkoari sagaraturiko herri izango zara. Sal 119 [118]: Zorionekoak Jaunaren lege-bidean dabiltzanak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,43-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzi-nakoei agindua: “Maita ezazu zeure lagun hurkoa eta gorrota zeure etsaia”. Nik, ordea, hau diotsuet: Maita itzazue zeuen etsaiak eta egin otoitz eraso egiten dizuetenen alde, zeruetan dagoen zeuen Aitarean seme-alaba izan zaitezten, hark gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen baitu eguzkia eta zuzentzat eta zuzengabeentzat egiten euria.

Izan ere, maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, beraz, guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona den bezala».

**E**zin liberatu dugu maitasunaren sorburua bakarka. Besteek dute ernearazten, inarosten, gu baitan ezkutuan egon ohi den funtsezko txera eta samurtasuna. Zauritua izan denean, edota bere ildoak aurkitu ezin duenean, era oldarkor eta zurronek hartzen dute pertsona; bizia ilun bihurtzen da samurtasuna falta denean. Sorburuak irekirik jarraitzen duen seinalea distira edo maitasun eskuzabala sortzea da eta harrotzea: keinu maitagarri bat, ongietorri onargarri bat, irribarre bat, entzumen erne bat. Aldeko prestasuna izatea. Maitasun bat, inor ere arrotz ez duena. Ausartuko al gara samur eta ezti izaten pertsona bakoitzarekin, gehienik kostatzen zaigunarekin ere, Jainkoa gurekin dagoen bezala?

Garizumako 2. astea.  
San Patrizio, *gotzaina*.

### § Hasiera liburutik 15,5-12,17-18.

Egun haietan, Jaunak kanpora aterarazi zuen Abram eta esan zion: «Begira zerura eta konta itzazu izarrak, ahal baduzu». Eta, gainera, esan zion: «Horrenbeste izango dira zure ondorengoak». Abramek sinetsi egin zuen Jaunagan, eta Jaunak zuzentzat hartu zuen. Eta esan zion: «Ni naiz Jauna, kaldearren Ur hiritik atera zintuena, lurralde hau zuri jabetzan emateko». Abramek esan zion: «Jainko Jauna, nondik ezagutuko dut lurraldearen jabe izango naizela?» Jaunak erantzun zion: «Ekariezazkidazu hiru urteko txahal bat, hiru urteko ahuntz bat, hiru urteko ahari bat, usapal bat eta usakume bat». Ekarri zituen Abramek hauek guztiak eta erdibi egin zituen, eta puskak bata bestearen aurrez aurre ipini; hegaztiak ez zituen erdibitu. Hegazti harrapariak sarraskira zetozen, eta Abramek uxatu egiten zituen.

Eguzkia sartzean, lozorroan murgildu zen Abram, eta ikara handia sartu zitzaion. Eguzkia sartu eta ilun beltz egin zenean, labe bat ketan eta zuzi bat sutan agertu ziren eta abere-zatien artetik igaro. Egun hartan Jaunak agintzari hau egin zion Abrami: «Zure ondorengoei emango diet lurralde hau, Egiptoko ibaitik hasi eta Eufrates ibai handiraino».

[Sal 27 [26]: Jauna dut argi eta salbamen.]

### § San Paulok Filipoarrei.

Senideok: Izan zaitezte nire antzeko, eta begira nigan duzuen ereduaren arabera bizi direnei.

Izan ere, asko dira Kristoren gurutzearen etsai bezala bizi direnak. Askotan esan dizuet eta berriro diotsuet orain malko artean. Horrelakoen azkena hondamendia da; sabela dute jainko, beren lotsarrietan harrotzen dira eta lurreko gauzetan bakarrik pentsatzen dute.

Gu, ordea, zeruko hiritar gara eta handik itxaro dugu Salbatzailea, Jesu Kristo Jauna. Hark antzaldutako du gure gorputz ezerez hau, bere

Garizumako 2. astea.  
San Patrizio, gotzaina.

gorputz aintzatsuaren irudiko eginez, gauza guztiak bere menpe jarzteko duen ahalmenari esker.

Horrela, bada, ene senide gogoko eta maiteok, nire poza eta nire koroa, iraun ezazue horrela Jaunari leial, maiteok.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,28b-36.

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek berekin Pedro, Santiago eta Joan, eta mendira igo zen otoitz egitera. Otoitzean ari zela, aurpegiko itxura aldatu zitzaion, eta jantzia zuri distiratsu bihurtu. Hartan, bi gizon agertu ziren, Moises eta Elias, aintzaz distiratsu Jesusekin hizketan; Jerusalemen gertatzekoa zen Jesusen heriotzaz mintzo ziren. Pedro eta lagunak logurak jota zeuden; baina esnatu ziren eta Jesusen aintza eta harekin zeuden bi gizonak ikusi zituzten.

Hauk urruntzen ari zirela, Pedrok esan zion Jesusi: «Maisu, bai ederki gaudela hemen! Egin ditzagun hiru txabola: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasentzat». Ez zekien zer esaten zuten ere.

Hau esaten ari zela, hodei batek estali zituen, eta hodeian sartzean beldurtu egin ziren. Ahots bat atera zen hodeitik, esanez: «Hauxe da nire Semea, nire Aukeratua. Entzuiozue». Ahotsa isiltzean, Jesus bakarrik ageri zen.

Ikasleek isilik gorde zuten, eta egun haietan ez zioten inori esan ikusitakorik ezer.

**G**au batean, Pedro izeneko gizon batek, antzaldaturiko eremu batera eraman ninduen ezustean. Periko-izen honekin ezagutzen dute auzoan- bakarrik bizi da ama hil zitzaionetik, eta bizia alkoholak irentsi diezaion utzi du. Oinutsik ikusi nuen kalean eta edanda; hori eta guzti, begirunez hurbildu zitzaidan. Kontatu zidan, zigarroa ezpainetan zuela lokartu zela, eta manta batzuk erre zitzaizkiola, eta berarekin joatera gonbidatu ninduen, ikustera. Sartu nintzen beraren etxean, batere

Garizumako 2. astea.  
San Patrizio, gotzaina.

zaindu gabea ama joan zenetik, zikina, ardo eta janari-hondarren usaina zeriola; berak, presaka, beste gela batera eraman ninduen, eta hura izan nuen argibide: lau koltxoi zituen, lurrean botata; kontatu zidan, han hartzen zituela gauero mutil toxikomano batzuk, nora joanik ez zutenak, lo egiten uzten ziela eta dutxatzen eta arropa garbitzen. Perikoren aurpegia distiratsu bihurtu zen orduan niretzat. Gure auzoko mozkor hark, beste jende oso zauritu bati, bere «kanpadenda» non ezarri uzten zion bere etxea, tarte batean atseden har zezan, lagunarte eta berotasun-pixka bat parteka zezan. Han jaso nuen gizon haren erregalua: bere ahuldade eta gaixotasunean, salbagarri ziren begiak zituen beste batzuentzat. Horrela izaten dira ezusteko, giza bizitzaren eta bihotzaren misterioak.

\* \* \*

## OPTIMISMOA

«Optimismoa», baikor izatea da,  
bizitzari bai esatea.  
«Izan zaitez alai eta optimista!  
Ez galdu denbora atzera begira  
pasatua edo iragana dena, iragana da.  
Begiratu beti aurrera eta segi zeure bideari,  
burua tente eta aurpegi alai,  
on eginez eta denei lagunduz.  
Luzatu eskua hurbiltzen zaizunari,  
esan maitasun edo txerazko hitz kontsolagarriak,  
izan denentzat irribarre onbera ezpainetan.  
Egiazko poza izango da  
zure bizitzako giroa eder egingo duena».

(C. Torres Pastorino, *Arantza*zu egutegia 2017-11-06)



Garizumako 2. astea.

San Zirilo Jerusalemgoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*.  
San Raimundo Fiterokoa (Toledon hil 1163), *abadea*.

[Danielen liburutik 9,4b-10: Guk bekatu egin dugu, gaiztoak izan gara. Sal 79 [78]: Ez gu hartu, Jauna, gure bekatuek merezi bezala.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,36-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Izan zaitetze errukiorrak, zuen Aita errukiorra den bezala. Ez gaitzetsi inor, eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko; ez kondenatu, eta ez zaituzte kondenatuko; barkatu, eta barkatuko dizue; eman, eta emango dizue: neurri bete, saka-tua, estutua eta leporainokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurritz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak».

**L**agungarri gertatu ohi zaigu gogoan hartzea, ukoa eragiten diguten izaeren hondoan, ulertzen ez ditugun jokabideen azpian edota luzaro kristaldurik egon izan den egoera baten hondoan, oinaze bat dagoela, harreman batzuen eske bat dagoela. Zenbat eta komunikazio txikiagoa izan pertsona batek, zenbat eta bakanduago eta bortitzago izan, orduan du barkatua eta maitea dela jakin eta ikusi behar handiagoa. Alegia, baliokoa dela beste batek agertzea, maila gupidatsu batez, berari begiratzeko eta hitz egiteko era maitagarri batez; baliokoa dela beste batek agertzea, mehatxuzko ez den begiratu eskuzabal batez; baiesten duena eta hazten joateko lur-mutur bat eskaintzen diona; norberaren lokatza ezkatuta beharrik gabe, erortzea bezala jaikitzea posible dela agertzen diona.

**§ 2 Samuel liburutik 7,4-5a.12-14a.16.**

Egun haietan, Jaunaren hitza etorri zitzaion Natani: «Zoaz eta esaiozu nire morroi Davidi: “Hau dio Jaunak: Zeure egunak bete eta zeure gurasoekin atsedean hartuko duzunean, ondorengoa eman-go dizut, zure erraietatik ateratakoa, eta sendotuko dut haren erregetza. Hark eraikiko dio etxea nire izenari, eta Nik betiko sendotuko diot tronua. Aita izango nau hark Ni, eta seme izango dut Nik hura.

Zure etxeak eta zure erregetzak betiko iraungo dute nire aurrean, eta zure errege-aulkiak sendo iraungo du beti”».

[Sal 89 [88]: Haren errege-jatorriak betiko iraungo du.]

**§ San Paulok Erromatarrei 4,13.16-18.22.**

Senideok: Beren oinordekotza mundua izango zutela agindu zien Jainkoak Abrahami eta ondorengoei. Agintzari hau, ordea, ez zegokion legea betetzeari, sinesmenak duen salbamen- indarrari baizik. Beraz, agintzaria, dohain hutsa izanik, fedeari dagokio; horrela, Abrahamen ondorengo guztientzat balio du, legearen arabera ondorengo direnentzat ez ezik, baita Abrahamen sinesmenaren arabera direnentzat ere. Bera aita dugu guztiok, Liburu Santuak dioen bezala: «Herri askoren aita egin zaitut». Abraham aita dugu, beraz, Jainkoaren aurrean, hark sinetsi egin baitzuen hildakoak biziarazten eta izaterik ez dutenak izatera deitzen dituen Jainkoagan.

Abrahamek sinetsi egin zuen, inolako itxarobiderik ez zegoenean itxaropenari utsiz; horrela, herri askoren aita egin zen, Jainkoak esan zionaren arabera: «Horrenbeste izango dira zure ondorengoak».

Horrexegatik, hain zuzen, zintzotzat hartu zuen Jainkoak.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1,16.18-21.24a.

Jakobek Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariagandik jaio zen Jesus, Kristo deritzana.

Jesu Kristoren sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Josesekin ezkontzeko hitzeman zegoen eta, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, hura isilean uztea erabaki zuen.

Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez beldur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ipiniko diozu izena, hark salbatuko baitu bere herria bekatuetatik».

Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen.

**B**itartekoez fidatzen ikasi du Josek, eta isiltasunean murgiltzen. Isiltasun bat, guri ametsak erregalatzeko tresna bihurtzen diren ahots suabeak entzuteko aukera ematen duena. Gu baitan isiltasuna egite hori, biziarekiko ez-indarkeriazko konpromisoa ehoz joan ohi da, erritmo patxadatsuan. Geure burua isiltzean, erlatibizatu egiten dira bertatik bertako premiak, isildu egiten dira kezkek, eta Misterioari, zer bait handiago den horri, irekirik gertatzen gara. Joserren esnatzeak Mariari eta haren geroari emandako besarkada esan nahi du, ulertzen ez dugun guztiari emandako besarkada, geure buruari garen bezala emandako besarkada. Jainkoaren egintzari emandako besarkada da, historian den zera edo gauza apal horretatik.

[Jeremias profetaren liburutik 18,18-20: Zatozte, jo dezagun Jeremias.  
Sal 31 [30]: Salba nazazu, Jauna, zeure maitasunaz.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20,17-28.

Aldi hartan, Jesusek, Jerusalemera igotzen ari zela, hamabi ikasleak aparte hartu eta esan zien bidean: «Begira, Jerusalemera igotzen ari gara eta Gizonaren Semea apaizburuen eta lege-maisuen esku utziko dute, heriotzara kondenatuko dute eta atzerritarren esku utziko, iseka egin diezaioten, zigorkatu eta gurutziltza dezaten; baina hirugarren egunean piztuko da».

Orduan, zebedeotarren ama hurbildu zitzaion Jesusi bere semeekin eta aurrean ahuspeztu, eskari bat egiteko. Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu?» Eta hark: «Agindu ezazu nire bi seme hauek, eser daitezela zure erreinuan bata zure eskuinean eta bestea zure ezkerrean».

Eta Jesusek: «Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete Nik edan behar dudan kalizatik edateko?» Erantzun zioten: «Bai, gauza gara!» Jesusek orduan: «Nire kalizatik edan, bai, edango duzue; baina nire ezker-eskuin esertze hori, ez dago nire esku inori ematea; nire Aitak norentzat prestatua duen, hari emango zaio».

Beste hamarrak, hori entzutean, biziki haserretu ziren bi anaiekin. Baina Jesusek dei egin eta esan zien: «Badakizue herrietako agintariek menpean hartzen dituztela herriak, eta handikiek beren agintea ezartzen dietela. Ez bedi izan horrela zuen artean; baizik eta zuen artean handi izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena izan bedi zuen morroi. Gizonaren Semea ere ez baita etorri zerbitzatua izatera, zerbitzari izatera baizik, eta bere bizia askoren ordainsari ematera».

**G**ure logika ez da Jesusena, ezta gure iguripenak ere haren iguripen. Bai ondo ikusten dugula geure burua zebedeotarrengan! Haiek

bezala, beste pertsona batzuek baliatzen gara geure interesak zaintzeko eta gai eta balioko bihurtzen gaituela, «jarraitzaile hobe» egiten gaituela, uste dugun hura lortzeko. Jesusek, ordea, nor geure lekuan ezartzen gaitu berriro: arazoa ez da gora egitea, baizik eta geure burua gero eta gehiago eskaintzea; ez dugu jotzen heldutasunera, goraka eginez, baizik eta beheratuz. Lankide batek egin zidan galdera honek harritu ninduen: «Zein duzu zeure gora-nahia?» Zer da benetan amesten duguna? Hainbat denbora Jesusekin eta oraino ere munduaren jokamoldeak baliatzen gara.

\* \* \*

### ZER DA JESUS?

«Hau da Jesus niretzat:

Hitza, gorputz eginda.

Biziaren Ogia.

Hitza, esana izateko.

Egia, aldarrikatua izateko.

Bidea, ibilia izateko.

Argia, piztua izateko.

Bizia, bizi egiteko.

Maitasuna, maitatua izateko.

Alaitasuna, elkarrekin banatzeko.

Sakrifizioa, besteei bere burua emateko.

Biziaren Ogia, ene janari izateko».

(*Kalkutako Teresa, Arantza:u egutegia 2012-05-25*)

Garizumako 2. astea.

San Benito, *abadea, fundatzailea (beneditarrek).*

San Filemon, *martiria.*

San Justiniano, *gotzaina.*

---

[Jeremias profetaren liburutik 17,5-10: Madarikatua konfiantza giza-kiagan duena. Bedeinkatua konfiantza Jaunagan duena. **Sal 1**: Zorionekoa Jaunagan itxarobidea jartzen duena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16,19-31.

Aldi hartan, honela mintzatu zitzairen Jesus fariseuei: «Bazen gizon aberats bat, purpuraz eta liho finez jantzi eta egunero festa ederrak egiten zituen. Lazaro izeneko eskale bat, berriz, aberatsaren etxe-atarian etzanda egoten zen, zauriz josia; gogotsu jango zukeen aberatsaren mahaitik erortzen zena. Txakurrek berek ere etorri eta zauriak milikatzen zizkieten.

Hontan, hil zen eskalea, eta aingeruek Abrahamen altzora eraman zuten. Hil zen aberatsa ere, eta ehortzi zuten. Hilan Egoitzan oinazetan zegoelarik, begiak jaso eta Abraham ikusi zuen urrutian eta Lazaro haren altoan, eta deiadarka esan zuen: “Aita Abraham, erruki zakizkit! Bidal ezazu Lazaro atzamar muturra urean busti eta niri mihia freskatzera, oinaze gorrian bainago sugar hauetan”.

Baina Abrahamek erantzun zion: “Seme, oroit zaitez zuk zorion franko izan zenuela bizitzan, Lazarok, berriz, zorigaitzak; horregatik, orain hark atsegina aurkitu du, eta zuk oinazeak. Gainera, gure eta zuen artean leize handia dago, eta nahita ere ezin da inor hemendik zuengana igaro, ezta hortik gugana ere”.

Aberatsak berriro: “Orduan, aita Abraham, bidal ezazu, arren, Lazaro gure aitaren etxera, bost anaia badituz eta; jar ditzala jakinarene gainean, eurak ere oinaze-leku honetara etor ez daitezten”. Abrahamek erantzun zion: “Hor dituzte Moises eta profetak; entzun diezaiztetela”. Hark berriro: “Ez, aita Abraham; hildakoren bat joango balitzaie, bihotz-berrituko lirakeke”.

Baina Abrahamek erantzun zion: “Moisesi eta profetei entzuten ez badiete, ez dute sinetsiko ezta hildako bat piztuta ere”».

**I**storio honetan, gizon aberatsak ez du izenik; Lazaro behartsuak bai. Mamadou-k ere izen berezia du. Gau batean, lagun batzuekin, herri-muga bateko alanbre-hesira igo zen. Urratu ederrik izan zuten guztiek ere; Mamadouk jasan zuen okerrera: zorua jo zuen buruaz eta gainera erori zitzaizkion beste batzuk. Ezin egingo du sekula bizitza autonomorik. Ez dut ahaztu nahi beraren historia, eta era ezin argituzkoan sentitzen dut, beraren presentzia zaurtuak, juzkatu behar bagintuzke ere, barkatu egiten digula, beste aukera bat ematen digula: bera bezalako beste gazte batzuk geure begi aurrean ipiniz, jadanik bidetari ekin diotenak... Zer izango litzateke gure aurpegia beste horiek gabe?

\* \* \*

### SAN BENITO NURSIAKOAK

Gaur San Benitoz hitz egin nahi nuke. Mendebaldeko monakismoaren fundatzailea izan zen, eta nire pontifikatuko zaindaria. San Gregorio Handiaren esaldi batekin hasiko naiz. San Benitoz idaztean dioenaz: «Jainkoaren gizon hau distiratsu izan zen lurtean mirari asko eginez; ez gutxiago, ordea, bere irakaspena adieraztean agertu zuen elokuentziatz» (Elkarrizketak II, 36). Gregorio Handiak 592an idatzi zituen hitz hauek; monje santua hila zen 50 urte lehenago eta artean bizirik zegoen jendearen oroitzapenean eta, nagusiki, fundatu zuen ordena erlijioso gorakorrean. Nursiako San Benitok, bere bizitzaz eta obraz, oinarrizko eragina izan zuen europar zibilizazioaren eta kulturaren garapenean. (*Benedikto XVI.a aita santuak*)

Garizumako 2. astea.  
 Santa Basilisa, *martiria*.  
 Santa Erlinda, *aitorlea*.

[**Hasiera liburutik 37, 3-4. 12-13a. 17b-28:** Horra non datorren ameslaria; hil dezagun. **Sal 105 [104]:** Ekarri gogora Jaunak egindako mirariak.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21,33-43.45-46.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien apaizburuei eta herriko zaharrei: «Entzun parabola hau: Behin batean, nagusi batek mahastia landatu zuen eta hesiz inguratu; bertan dolarea egin eta dorrea eraiki zuen; gero, nekazari batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen.

Mahatsa biltzeko garaia iritsi zenean, bere morroiak bidali zituen nekazariengana, fruitutik zegokion partea jasotzera. Nekazariak, ordea, morroiei heldu eta bata jo, bestea hil eta bestea harrikatu egin zituzten. Berritro beste morroi batzuk bidali zituen, aurrekoan baino gehiago, eta haiei ere beste hainbeste egin zieten. Azkenean, bere semea bidali zien, bere baitarako esanez: “Izango diote begirune nire semeari”.

Nekazariak, ordea, semea ikustean, esan zioten elkarri: “Oinordekoa duk. Hil dezagun eta guretzat izango duk ondarea”. Heldu zioten, mahastitik kanpora bota eta hil egin zuten». Jesusek galdetu zien: «Zer egingo die nekazari horiei mahasti-jabeak, itzultzean?»

Erantzun zioten: «Errukirik gabe hilko ditu, eta bere garaian fruitua emango dioten beste nekazari batzuei utziko die mahastia».

Jesusek esan zien: «Ez al duzue Liburu Santuan behin ere irakurri: “Etxegileek baztertutako harria giltzarri gertatu da.

Jaunak egin du hori, gure begien harrigarri?»

Horregatik diotsuet: Jainkoaren erreinua zuei kendu eta fruitua aterako dion herri bati emango zaio».

Parabola hauek entzutean, Jesus beraiengatik ari zela jabetu ziren apaizburu eta fariseuak, eta hura atxilotu nahian zebiltzan; baina jendearen beldur ziren, denek profetatzat baitzeukaten.



Garizumako 2. astea.

Santa Basilisa, *martiria*.

Santa Erlinda, *aitorlea*.

**P**arabola honek, bizitzan kokatzeko bi era azaldu dizkigu: eskertuz edota irentsiz, eskainiz edota gordez; hartutakoari erantzunez edota, konkistatu omen dugulako, geure burua jaun eta jabetzat hartuz. Jakinaren gainean jarri gaitu Jesusek: esker txarrak lehortu egiten du bihotza, eta agerian jartzen zer daukagun bizitzaren sostengutzat. Gure zentzugabekeriarik handiena, dohainak geure jabetzakotzat hartzea da, ez aitortzea, alegia, den-dena hartua dugula. Jesus eta haren Ebanjelioa al ditugu, gaur oraino, geure bizitzaren oinarri, erdi-erdiko eta fundagarri?, ala geure harri gainean nahi dugu eraiki, geure eskuen lanean sostengaturik?

\* \* \*

### BERANDU MAITATU ZINTUDAN

Nire haragia inguratzen duten ate guztietan jo nuen:

«Hitz egidazue neure Jainkoaz, zuek ez baitzarete.

Esadazue zerbait hartaz».

Eta ozenki egin zidaten deiadar:

«Hura da gu geu egin gintuena».

Nire galdera nire begiratu zen;

haien erantzuna beraien edertasuna.

Berandu maitatu zintudan,

edertasun hain antzinakoa eta hain berria,

berandu maitatu zintudan!

Baina kontua da,

zuk nire barnean zinela eta ni kanpoan.

*(Agustin santua, Aitorpenak; 144. orrian jarraipena)*

Garizumako 2. astea.

San Toribio Mogrovejokoa, *gotzaina*.

San Jose Oriol, *apaiza*.

[Mikeas profetaren liburutik 7,14-15.18-20: Itsas hondora botako ditugure bekatu guztiak. Sal 103 [102]: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 15,1-3.11-32.

Aldi hartan, zergalariak eta bekatariak hurbildu ohi zitzaizkion Jesusi, entzutera. Eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrean hasi ziren, esanez: «Honek ongi hartzen ditu bekatariak, eta jan ere egiten du haiekin».

Orduan, parabola hau esan zien Jesusek: «Gizon batek bi seme zituen. Gazteenak esan zion aitari: “Aita, emadazu dagokidan senipartea”. Eta aitak ondasunak banatu zizkien. Handik egun gutxira, seme gazteena, zituen guztiak bildurik, urrutiko herrialde batera joan zen, eta han, lasaikerian biziz, ondasun guztiak jan zituen.

Dena xahutu zuenean, gosete handia sortu zen herrialde hartan eta beharra sentitzen hasi zen. Orduan, herrialde hartako batengana joan eta haren morroi jarri zen, eta hark bere sailetara bidali zuen txerri-zain. Txerriek jaten zuten ezkurrez sabela betetzeko gogoak ematen zion, ez baitzion inork jaten ematen.

Orduan, bere baitara itzulirik, esan zuen: “Hamaika langile bada nire aitarenean, nahikoa ogi duela, eta ni hemen goseak hiltzen. Jaiki, aitagana joan eta esango diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme izena merezi. Har nazazu zeure langileetako bat bezala”. Eta jaiki eta aitagana abiatu zen.

Artean urruti zegoela, ikusi zuen aitak eta erruki izan zuen, eta, lasterka joanik, besarkatu eta musuka hasi zitzaion. Semeak esan zion: “Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme izena merezi...”.

Aitak, ordea, esan zien morroiei: “Atera berehala soinekorik ederrera eta jantzi iezaiozue; ipini eraztuna eskuan eta jantzi oinetakoak; ekarri zekor gizendua eta hil; egin dezagun festa- otordua, nire seme

Garizumako 2. astea.

San Toribio Mogrovejokoa, *gotzaina*.

San Jose Oriol, *apaiza*.

hau hila baitzegoen eta berriz bizi da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu”. Eta festa hasi zuten.

Seme zaharrena soroan zen. Etxera hurbiltzean, soinua eta dantzak sumatu zituen, eta, morroi bati deiturik, zer gertatzen zen galdetu zion. Morroiak erantzun: “Zure anaia etorri da eta zuen aitak zekor gizendua hil du, semea onik bereganatu duelako”. Seme zaharrena biziki haserretu zen, eta ez zuen sartu nahi. Atera zen aita eta erreguka hasi zitzaion. Baina hark erantzun zion aitari: “Hainbeste urte da zure zerbitzuan nagoela, zure agindurik behin ere huts egin gabe, eta ez didazu sekula antxume bat ere eman lagun artean jateko, eta horrako zure seme hori, emagalduekin zure ondasunak jan dituen hori, etorri denean, zekor gizendua hil diozu”.

Aitak erantzun zion: “Seme, zu beti nirekin zaude, eta nirea den gutzia zeurea duzu. Baina egoki zen festa egitea eta poztea, zure anaia hau hila baitzegoen eta berriz bizi da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu”».

**B**uruaski sentitzeak bakandu egiten gaitu eta harremanik gabe uzten: «Zure seme hori», esango dio seme zaharrenak aitari, hotz-hotz. «Zure anaia hori», erantzungo dio aitak, hunkiturik. Eman izan zaigun gutzia aitortzeak bakarrik eramaten ahal gaitu ulertzeraz zein neurritan garen bata bestearen. Seme zaharrenak, bere zuzentasun eta betebeharrean, ez du jakin ospatzen «dena berea duela»; gazteenak, berriz, bere premian hartu beste erremediorik ez du izan, harriturik. Merezki gabe ko halako samurtasuna eskertzea da, aukera ematen diguna Jainkoaren irrika handian esku hartzeko: inor ez dadila gerta bizitzan bakar, inor ez dadila gerta txerarik gabe, samurtasunik gabe.

Garizumako 3. astea.

San Segundo, *martiria*. Santa Katalina Suediakoa, *abadesa*.Oscar Romero, dohatsua, *martiria*, *San Salvadorreko**artzapezpikua*.**§ Irteera liburutik 3,1-8a.13-15.**

Egun haietan, Moisesek bere aitagarreba Jetroren, Madiango apaizaren, ardiak zaintzen zituen. Behin, basamortuan barna eraman zituen eta Horebera, Jainkoaren mendira, iritsi zen. Han Jaunaren aingerua agertu zitzaion, sasi artean pizturiko sugarrean. Moisesek ikusi zuen sasia, sutan egonik ere, ez zela erretzen.

Moisesek esan zuen: «Hurbil nadin gauza harrigarri hori ikustera: nola izan liteke sasia ez erretzea?» Begiratzera zetorrela ikustean, Jaunak dei egin zion sasi artetik: «Moises, Moises!» Honek erantzun: «Hemen nauzu». Eta Jaunak: «Ez hurbildu; kendu oinetakoak, zauden tokia lur santua da eta». Eta gaineratu zuen: «Zure arbasoen Jainkoa naiz Ni, Abrahamen Jainkoa, Isaaken Jainkoa eta Jakoben Jainkoa». Moisesek aurpegia estali zuen, Jainkoari begiratzeko beldurrez. Jaunak esan zion: «Ikusi dut neure herriaren atsekabea Egipton eta entzun dut haien oihua beren zapaltzaileen zigorpean; bai, jabetu naiz haien oinazeez. Eta haiek egiptoarren eskuetatik libratzea etorri naiz, eta lurralde hartatik lurralde on eta zabal batera, esnea eta ezitia darizkion lurraldera, igoaraztera».

Moisesek esan zion Jainkoari: «Hara, joango naiz israeldarrena-gana eta “Zuen arbasoen Jainkoak bidali nau zuengana” esango diet; baina haiek “Nola du izena?” galdetzen badidate, zer erantzun behar diet?» Jainkoak esan zion: «Naizena naiz Ni. Hau esango diezu israeldarrei: “Naizena naiz” deritzanak bidali nau zuengana».

Gainera, Jainkoak esan zion Moisesi: «Esan israeldarrei: “Jaunak, zuen arbasoen Jainkoak, Abrahamen Jainkoak, Isaaken Jainkoak eta Jakoben Jainkoak, bidali nau zuengana. Horixe izango da nire izena betiko; honela deituko nauzue belaunez belaun».

**[Sal 103 [102]: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.]****§ San Paulok 1 Korintoarrei 10,1-6.10-12.**

Senideok: Jakin behar duzue, gure arbasoak denak egon zirela hodeipean eta denek igaro zutela itsaso; denek hartu zuten bataioa hodeian eta itsasoan, Moisesekin bat egiteko; denek jan zuten espirituzko janari bera, eta denek edan espirituzko edari bera. Izan ere, beraiekin zihoan espirituzko harkaitzetik edaten zuten; eta harkaitz hura Kristoren irudi zen. Hala ere, haietako asko eta asko ez zitzaion atsegin izan Jainkoari, eta hilda gelditu ziren basamortuan.

Gauza hauek guretzat ikasbide izateko gertatu ziren, gaiztakeriarik irrika ez dezagun, haiek irrikatu zuten bezala. Ez zaitezela marmarrean ari, haietako batzuk ari izan ziren bezala, eta aingeru suntsitzai-learen esku hil ziren.

Hau guztia gure ikasbiderako gertatu zitzairen eta gure eskarmen-turako idatzi zen, azken garai hauetan bizi garenok zentzarazteko. Beraz, zutik dagoela uste duena ibil bedi kontuz, eror ez dadin.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13,1-9.

Aldi hartan, etorri zitzaizkion batzuk Jesusi, galilear batzuei gertatuaren berri ematera: nola Pilatok hil zituen, eskaintzen ari ziren oparien odolarekin haiena nahastuz. Jesusek erantzun zien: «Uste al duzue galilear haiek gainerako galilearrak baino bekatarriago zirela, horrelako heriotza izan zutelako? Ezetz diotsuet, eta, bihotz-berritzen ez bazarete, guztiok era berean galduko zarete. Eta Siloeko dorrea gainera erorita hil ziren hemezortzi haiek, uste al duzue gainerako jerusalemdarrak baino errudunagoak zirela? Ezetz diotsuet, eta, bihotz-berritzen ez bazarete, guztiok era berean galduko zarete».

Eta parabola hau esan zien: «Gizon batek pikondo bat zeukan, bere mahastian landatua. Joan zen piku bila eta ez zuen aurkitu. Orduan, esan zion mahastizainari: “Bada hiru urte pikondo honetara piku bila natorrela, eta ez dut aurkitzen. Moztu ezazu. Zertako eduki hor, lurra alferrik jaten?”»

Garizumako 3. astea.

San Segundo, *martiria*. Santa Katalina Suediakoa, *abadesa*.

Oscar Romero, dohatsua, *martiria*, *San Salvadorreko*

*artzapezpikua*.

Mahastizainak, ordea, erantzun zion: “Jauna, utzazu aurtengoz; bitartean, ingurua aitzurtu eta ongaria botako diot, ea aurrerantzean fruiturik ematen duen; eta bestela, moztu”».

**J**esusek istorioak kontatzen dizkigu, gure sentiberatasuna hezteko, bizitzan egonarriz eta patxadaz biziz. Behar den denbora guztia hartzen du, pikondoak fruitu eman dezan, eta bitartean bera zaintzen jarraitzen du. Baina, urtea igarorik fruiturik ematen ez badu? Botako ote du? Orain badakigu ez duela horrelakorik egingo. Bere mahastiaz duen maitasun handiak bihurtzen du mahasti-jabea mugagabeki egonarritsu, pazientziadun: ez da aspertzen denbora eta aukerak emateaz, gu heltzen joan gaitezen. Parabola honek, Christian Bobin-ek bere *Resucitar* liburu ederrean bildu duena dakart gogora; egiten duen guztia osagabea, txarra, hutsez betea dela pentsatzen duen emakume batez ari da: «Bigarren bizitzaldi bat eman liezaion nahi izango luke, zuri-zuri letorkeen paper bat bezala, non garbira pasatuko bailuke lehenengoa, mantxa eta ezabatze guztiak kenduz. Ez da konturatzen, egiaren bizitza zikineko bertsioa dela». Egiati izateko, neu ere horrelaxe sentitu izan naiz uneren batzuetan, zuri-zuri legokeen paper baten beharrean, bigarren bizitzaldi baten beharrean. Kostatu egiten zaigu konturatzea, Jainkoak maite duena «bertsio zikina» dela, min ematen digun hura, bere zirrimarrak eta guzti. Hari dagokio, eta ez beste bati, inoiz ez bezalako fruituak emankortasunez eskaintzea.

§ Isaias Profetaren liburutik 7,10-14.

Egun haietan, mezu hau eman zion Jaunak Akaz erregeari Isaias profetaren bidez: «Eska iezaiozu Jaunari, zeure Jainkoari, ezaugarri bat zeuretzat, lurraren barrenean nahiz zeruen goienean».

Akazek erantzun zion: «Ez dut ezaugarririk eskatuko, ez dut tentatuko Jauna». Orduan Isaiasek esan zuten:

«Entzun, Daviden etxe:  
 Gutxi al deritzozue gizakientzat aspergarri izateari?  
 Nire Jainkoarentzat ere aspergarri izan behar al duzue?  
 Horregatik, Jaunak berak emango dizue ezaugarria.  
 Begira, birjina haurdun dago eta semea izango du;  
 Emmanuel ipiniko dio izena, hau da, “Jainkoa gurekin”».

[Sal 40 [39]: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.]

§ Hebrearrei liburutik 10,4-10.

Senideok: Zezenen eta akerren odolak ez ditzake bekatuak desegin. Horregatik, Kristok, munduan sartzean, dio:

«Ez zenuen oparirik eta eskaintzarik nahi izan;  
 baina gorputza eratu zenidan.  
 Erre-oparirik eta bekatuen barkamen-oparirik  
 ez zenuen atsegin izan.  
 Orduan, esan nuen:  
 Hemen nauzu, Jainko, zure nahia betetzeko;  
 hau dago Liburuan nitaz idatzia».

Lehendabizi dio: «Ez zenuen nahi izan, ez atsegin izan, oparirik eta eskaintzarik, ez erre- oparirik, ez bekatuen barkamen-oparirik», nahiz eta gauza guztiok legeak agindutakoak izan. Ondoren beste hau dio: «Hemen nauzu, zure nahia betetzeko».

Garizumako 3. atea.

JAUNAREN GIZAKUNDEAREN ADIERAZPENA.

San Dimas (*lapur ona*).

Lehenengo kultua kentzen du, bigarrena jartzeko. Eta Jesu Kristok, behin betiko egin zuen bere gorputzaren opariaren bidez, Jainkoaren nahia bete duelako izan gara gu sagaratuak.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemanen zegoen.

Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zaitez, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura.

Aingeruak esan zion: «Ez beldur izan, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta “Jesus” ipiniko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakoberen herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango».

Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi».

Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zuek jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrean, eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik».

Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekit zuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

**E**spazio eta denbora jakin-jakin batzuen koordenatuetan etorri da Hitza gure artera. Mariagana «sei hilabetera... Nazaret-en» etorri zen. Graziaren edo onginiaren lehen iragarpena, Ebanjelioaren arabera,



Garizumako 3. astea.  
 JAUNAREN GIZAKUNDEAREN ADIERAZPENA.  
 San Dimas (*lapur ona*).

etxeke eta eguneroko giro arruntean gertatu da. Aingeruak ez dio esan Mariari Jainkoa nor edo zein den, baizik eta berarekin dagoela. Nola-ko indarra ematen duen egoera bakoitzean entzuteak: «zurekin nago». Agurrak agertu dio Mariari, Jainkoak alai eta pozik ikusi nahi duela bera, beraren bizitza irekirik eta zaba-zabalik amesten duela. Dasta al dezaket nik neure eguneroko bizitza Jainkoaren amets honi emandako erantzun bezala? Ez dezagula aukera galdu, egun bakoitzean ematen zaigun guztia eskertzeko.

\* \* \*

### BERANDU MAITATU ZINTUDAN

Eta kanpoan nenbilen ni zure bila  
 eta, itsutasunaren kume gisa,  
 zure sorkarien edertasunaren gainera  
 oldartzen nintzen.  
 Zu nirekin zeunden, baina ni ez zurekin.  
 Zugandik urrun preso nindukaten  
 gauza haiek, zuga izan ez baziren,  
 izaterik izango ez zuketen haiek.  
 Dei egin zenidan, oiuhu egin zenidan,  
 lehertu zenuen nire gorreria.  
 Tximista bota zenuen, distira egin zenuen,  
 eta zure distirak lausotu zuen nire itsutasuna.  
 Bota zenituen zeure lurrinak,  
 hats egin nuen sakon eta zure nago irrikaz  
 Ahogozatu zaitut,  
 eta hiltzen nago goseak eta egarriak.  
 Ukitu nauzu,  
 eta sutan nago zure bakearen antsiatz.

(*Agustin santua, Aitorpenak*)

Garizumako 3. astea.  
San Braulio, *gotzaina*.  
San Kastulo, *martiria*.

[Danielen liburutik 3,25.34-43: Bihotz-damuz eta gogo apalez gatoz-kizu: har gaitzazu onez. Sal 25 [24]: Oroit zaitez zeure errukiaz, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,21-35.

Aldi hartan, hurbildu zizaion Pedro Jesusi eta galdetu zion: «Jauna, nire senideak bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?»

Jesusek erantzun zion: «Zazpi aldiz ez, baizik eta zazpitan zazpi mila aldiz. Hain zuzen, bere morroiekin kontuak garbitu nahi izan zituen erregearekin bezala gertatzen da zeruetako erreinuarekin. Kontuak garbitzen hastean, dirutza izugarria zor zion bat ekarri zioten. Eta nondik ordaindurik ez baitzuen, bera eta emaztea, seme-alabak eta zituen guztiak saltzeko agindu zuen nagusiak, zorra ordaintzeko.

Morroiak, orduan, nagusiaren oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadazu astia eta dena ordainduko dizut”. Nagusiak, errukiturik, dena barkatu eta libre utzi zuen morroia. Baina morroi hark berak, irten orduko, diru apur bat zor zion bere morroi-lagunarekin topo egin zuen, lepotik heldu eta ito beharrean, esan zion: “Ordain iezadak zor didaana”. Lagunak, oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadak astia eta dena ordainduko diat”. Baina besteak ezetz, eta joan eta kartzelan sartu zuen, zorra ordaindu arte.

Beste morroiak, gertatua ikusirik, bizirotseketu ziren, eta nagusiagana joan eta gertatuaren berri eman zioten.

Orduan, nagusiak morroiari deitu eta esan zion: “Morroi gaizto hori! Horrenbesteko zorra barkatu diat nik, eskatu didaialako; ez al zen bidezkoa hi ere heure morroi-lagunaz errukitzea, ni hitaz errukitu nintzen bezala?” Eta nagusiak, haserre bizian, borroeroen esku utzi zuen, zor guztia ordaindu arte.

Garizumako 3. astea.  
San Braulio, *gotzaina*.  
San Kastulo, *martiria*.

**P**astora Mirak gazte bat jaso zuen kalean, hanka batean zauritua. Galdezka hasi gabe, bere etxera eraman zuen mutila, sendatu eta lo utzi zuen. Esnatu zenean, mutilak galdetu zion larri: «Zer egiten dute hor argazki horiek, herenegun hil genuenarenak?» Pastorak erantzun: «Hau du bere etxea, neu nau bere ama eta berea du zu etzanik zauden ohea». Negarrez kontatu zion gazteak, egunetan torturatu zutela. Eta Pastorak esan zion: «munduko txokoren batean izan behar du ama bat, zutaz kezkatzen dena, dei egiozu eta esan bizirik zaudela». Kolonbiar gazte hura Pastorekin lanean jarri zen birgizarteratze eta adiskidetzet zentro batean.

\* \* \*

### BARKAZIOAK EZ DU IRAGANA ALDATZEN, BAINA BAI GEROA

Lehenengo gauza Jainkoaren barkazioa da, artean bekatari ginela emana. Gure egitekoa barkazio hori onartzea da. Hartaraino da Jainkoarena lehen gauza, barkazioa dohain bezala eskaintzea, konbertitu aurretik jada, non Jesusen hitzaren ezaugarri berezi eta «eskandalugarri» gertatu baita, «sumindura-elkaitz bat» eragiterainokoa; izan ere, «garai hartako Jainkoari buruzko arau guztien kontra zihoalako» (*J. Jeremias, in Selecciones de teología 202. Zenb., 2012*).

Garizumako 3. astea.  
Santa Lidia, *martiria*.  
San Ruperto, *gotzaina*.

---

[Deuteronomio liburutik 4,1.5-9: Gorde itzazue eta bete nire aginduak. Sal 148 [147]: Jerusalem, ospa ezazu Jauna!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,17-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez uste izan Moisesen legea edota profeten esanak baztertzera etorria naizenik; ez naiz baztertzera etorri, beren betera eramatera baizik. Benetan diotsuet: Zeru-lurrek iraungo duten bitartean, legearen letrarik edo zeinurik txikienak ere ez du baliorik galduko, dena bete arte.

Beraz, agindurik txikienetako bat hausten duena eta hausten irakasten, txikiena izango da zeruetako erreinuan; betetzen duena, berriz, eta betetzen irakasten, handia izango da zeruetako erreinuan».

**J**esusek egin duen maitasunaren ekarriak gainez egin dio legearen eta profeten ubideari. Egunero dagokiguna betetzea, geure planteamendu eta portaeretan zentzu etikoz bititzea, inori kalterik ez egiteko ahalgina... balio duten eta beharrezko diren proposamen dira bizikidetasun orotarako, baina fondo galdura maitatzeak askoz gehiago eskatzen du. Guzti-guztiari hartu dio gaina Jesusen proposamen berriak; alabaina, aldi berean, aurretiazko bide izan da hura guztia, hau, berri hau, onartzeko. Dohain izango da erreinua beti eta beraren bila ibili beharko dugu eta tarte bat egin beharko geugan bera onartzeko; geure barnea ireki beharko, gehiago maitatzeko gai egiten gaituen orori.

[Jeremias profetaren liburutik 7,23-28: Hona Jaunaren, bere Jainkoaren, mintzoa entzun ez duen herria. Sal 95 [94]: Entzungo ahal duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,14-23.

Aldi hartan, gizon bat mututurik zeukan deabrua botatzen ari zen Jesus. Deabrua atera bezain laster, mutua hizketan hasi zen. Jendea harriturik gelditu zen; batzuek, ordea, honela zioten:

«Deabruen buruzagi den Beeltzebulen indarrez botatzen ditu honek deabruak». Beste batzuek, azpikeriaz, Jainkoagandiko seinale bat eskatzen zioten.

Igarri zizkien Jesusek beren burutazioak eta esan zien: «Bere baitan zatiturik dagoen erreinua erraustu egingo da eta etxea etxearen gain eroriko. Era berean Satanas ere: bere baitan zatiturik badago, nola iraun dezake haren erreinua? Zuek diozue, Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen ditut. Baina Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen baditut, noren indarrez botatzen dituzte zuen ikasleek? Horregatik, zeuen ikasleak izango dituzue epaile. Baina Nik deabruak Jainkoaren indarrez botatzen baditut, garbi dago iritsi dela zuengana Jainkoaren erreinua.

Gizon indartsu batek, armaturik, bere jauregia zaintzen duen birtartean, seguru dauzka bere ondasunak. Baina indartsuago den batek eraso eta menderatzen badu, segurantzia ematen zioten armak kendu, eta banatu egiten ditu hari harrapatutako ondasunak.

Nire alde ez dagoena nire aurka ari da, eta nirekin biltzen ez duenak sakabanatu egiten du».

**H**onela ikusten zuten antzinako gurasoek bekatuaren sarearen egin-tza: sorbaldaz sorbaldala loturiko gatibu bezala irudikatzen zituzten bekatariak, bata besteari aurpegia ezin emanda. Jesusekin egotea, berriz, bestea aurrez aurre ikustea da, baina erreguka dudan aurpegi bezala. Jesusekin biltzea aitortzea da, beti ere gehiago dela batzen gaituena; eskertzea da gauza xumean gertatzen den apurra. Erreinuko seinalerik handiena, nor bere baitan ez biribiltzea da eta nork bere izatea besteen mesederako egituratzea.

Garizumako 3. astea.

San Konstantino, *abadea*.

Santa Gladys, *erregina*.

[*Oseas profetaren liburutik 14,2-10*: Ez diegu gehiago «geure jainko» esango geure eskuz eginei. *Sal 81 [80]*: Ni naiz Jauna zure Jainkoa, entzun nire mintzoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,28b-34.

Aldi hartan, hurbildu zen Jesusengana lege-maisu bat eta galdetu zion: «Zein da agindu guztietan nagusiena?»

Jesusek erantzun: «Hau da nagusiena: “Entzun, Israel: Jauna gure Jainkoa Jaun bakarra da. Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz, adimen guztiz eta indar guztiz”. Bigarrena, berriz, hau da: “Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala”. Ez da hauek baino agindu handiagorik».

Lege-maisuak esan zion: «Ederki, Maisu; egia diozu Jainkoa bakarra dela eta ez dela besterik esatean, baita hura bihotz-bihotzez, adimen guztiz eta indar guztiz maitatzea, eta lagun hurkoa nork bere burua bezala maitatzea, erre-opari eta sakrifizio guztiak baino hobeago dela esatean ere».

Eta Jesusek, zuhurki erantzun zuela ikusirik, esan zion: «Ez zaude urruti Jainkoaren erreinutik».

Eta handik aurrera, ez zen inor galderarik egitera ausartzen.

**L**ehenengo gauza, entzutea da, Jainkoak harremanetan jarri nahi duela gurekin, eta harengandik behin eta berriz hartzea bizi-agindu hau: «Maita ezazu». Maitatzera dei egiten digu Jainkoak: arima, biziz eta bihotz guztiaz maitatzera, garen guztiaz, geure izate guztiaz kanpoan ezer utzi gabe, geure baitako ezer ukatu gabe, haren maitasun-oberatasunak blaituko ez duen txokorik utzi gabe. Nicolas Cabasilas-ek gomendatzen zien munduaren burundarian bizi zirenei: «Kalean automatata gisa zabilatzatenean edota edozein gauza egiten duzuenen, ez dizue inork eskatzen lehenik Jainkoa maitatzeko, baizik eta gogoan izateko, berak maitasun zoroaz maite zaituztela».

Garizumako 3. astea.

San Joan Klimako, *abadea*.

Santa Irene, *martiria*.

[Oseas profetaren liburutik 6,1-6: Nahiago dut maitasuna sakrifizioak baino. Sal 51 [50]: Nahiago dut maitasuna sakrifizioak baino.]

† Jesu Kristoren ebanjelioa San Lukasen liburutik 18,9-14.

Aldi hartan, parabola hau esan zien Jesusek beren burua zintzotzat hartzen eta besteak gutxiesten zituzten batzuei: «Bi gizon igo ziren tenplura otoitz egitera, bata fariseua eta bestea zergalaria. Fariseuak, zutik, honela egiten zuen otoitz bere barruan: “Eskerrak ematen dizkizut, ene Jainko, besteak bezalakoa ez naizelako: lapur, gaizkile, adulterioegile; ezta horrako zergalari hori bezalakoa ere. Astean bitan egiten dut barau, eta ditudan guztien hamarrenak ematen ditut”.

Zergalaria, berriz, urruti gelditurik, ez zen begiak zerura jasotzera ere ausartzen, baizik eta bular joka ari zen, esanez: “Ene Jainko, erruki zakizkio bekatari honi!”

Hara zer diotsuedan: azkeneko hau Jainkoarekin adiskideturik itzuli zen etxera; bestea, berriz, ez. Izan ere, bere burua goratzen duena beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

**I**storio hau Jesusek honelakoei kontatu die: beren burua zuzentzat emana dutenei, beren buruaz gustaturik bizi direnei, gainerakoen aurrean beren burua berezitzat ematea atsegin zaienei. Nola ahokutzen da hori guztia gurekin? Agian hitz egiteko moduan ez gara mintzo fariseua bezain argi, baina hondo-hondoan ez al gara sentitzen inor baino zertxobait hobe? Geure iruzkin edo komentarioetan nabari ohi zaigu, beste batzuen bizitzaz iritzia emateko segurtasunean, inori bera-bera begiratzeko eran. Ez dezagun etsi, konturatzean, geuk ere geure baitan gupida beharra duen zerga-biltzaile bat daramagula. Iritsiko ahal gara geu ere bihotzez esatera: «Eskerrak damazkizut, gainerakoak bezalakoa naizelako».

Garizumako 4. astea.  
San Amos, *profeta*.  
Santa Balbina, *birjina*.

§ Josueren liburutik 5,9.10-12.

Egun haietan, Jaunak esan zion Josueri: «Gaur kendu dizuet gai-netik Egiptoko lotsaria».

Israeldarrek Gilgalen jarri zuten kanpalekua eta hilaren hama-lauan, arratsaldean, Pazko-jaiak ospatu zuten Jerikoko zelaian. Pazko-biharamunean lurraldeko fruituetatik jan zuten: legamiagabeko ogiak eta gari-ale txigortua.

Lurraldeko fruituetatik jaten hasi ziren egunetik aurrera, bukatu egin zen mana. Israeldarrek ez zuten gehiago manarik izan, eta urte hartan Kanaango lurraldeko emaitzez janaritu ziren.

[Sal 34 [33]: Dasta ezazue eta ikus zein ona den Jauna.]

§ San Paulok 2 Korintoarrei 5,17-21.

Senideok: Kristorena dena sorkari berri da; zaharrarenak egin du, berria sortu da. Hau guztia Jainkoagandik dator, Kristoren bitartez berkin adiskidetu baikaitu, eta adiskidetzeko zerbitzua guri eman digu. Izan ere, Jainkoa ari zen Kristogan mundua berekin adiskidetzen, gizon-emakumeei bekatuen kontua eskatu gabe, eta guri eman digu adiskidetzearen mezua.

Senideok: Kristoren mandatari gara, eta gure bitartez Jainkoak berak erregutuko balizue bezala da. Kristoren izenean eskatzen dizugu: adiskidetu zaitezte Jainkoarekin. Bekatuarekin zerikusirik izan ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatuarekin bat egin zuen, guk haren bitartez Jainkoaren salbamena iritsi genezan.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 15,1-3.11-32.

Aldi hartan, zergalariak eta bekatariak hurbildu ohi zitzaizkion Jesusi, entzutera. Eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrean hasi ziren, esanez: «Honek ongaitzen ditu bekatariak, eta jan ere egiten du haiekin».



Garizumako 4. astea.

San Amos, *profeta*.

Santa Balbina, *birjina*.

Orduan, parabola hau esan zien Jesusek: «Gizon batek bi seme zituen. Gazteenak esan zion aitari: “Aita, emadazu dagokidan senipar-tea”. Eta aitak ondasunak banatu zizkien. Handik egun gutxira, seme gazteena, zituen guztiak bildurik, urrutiko herrialde batera joan zen, eta han, lasaikerian biziz, ondasun guztiak jan zituen.

Dena xahutu zuenean, gosete handia sortu zen herrialde hartan eta beharra sentitzen hasi zen. Orduan, herrialde hartako batengana joan eta haren morroi jarri zen, eta hark bere sailetara bidali zuen txerri-zain. Txerriek jaten zuten ezkurrez sabela betetzeko gogoak ematen zion, ez baitzion inork jaten ematen.

Orduan, bere baitara itzulirik, esan zuen: “Hamaika langile bada nire aitarenean, nahikoa ogi duela, eta ni hemen goseak hiltzen. Jaiki, aitagana joan eta esango diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme izena merezi. Har nazazu zeure langileetako bat bezala”. Eta jaiki eta aitagana abiatu zen.

Artean urruti zegoela, ikusi zuen aitak eta erruki izan zuen, eta, lasterka joanik, besarkatu eta musuka hasi zitzaion. Semeak esan zion: “Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme izena merezi...”.

Aitak, ordea, esan zien morroiei: “Atera berehala soinekorik ederre-na eta jantzi iezaiozue; ipini eraztuna eskuan eta jantzi oinetakoak; ekarri zekor gizendua eta hil; egin dezagun festa-otordua, nire seme hau hila baitzegoen eta berriz bizi da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu”. Eta festa hasi zuten.

Seme zaharrena soroan zen. Etxera hurbiltzean, soinua eta dantzak sumatu zituen, eta, morroi bati deiturik, zer gertatzen zen galdetu zion. Morroiak erantzun: “Zure anaia etorri da eta zuen aitak zekor gizendua hil du, semea onik bereganatu duelako”. Seme zaharrena biziki haserretu zen, eta ez zuen sartu nahi. Atera zen aita eta erreguka hasi zitzaion. Baina hark erantzun zion aitari: “Hainbeste urte da zure zerbitzuan nagoela, zure agindurik behin ere huts egin gabe, eta ez didazu sekula antxume bat ere eman lagun artean jateko, eta horrako

Garizumako 4. astea.

San Amos, *profeta*.

Santa Balbina, *birjina*.

zure seme hori, emagalduekin zure ondasunak jan dituen hori, etorri denean, zekor gizendua hil diozu”.

Aitak erantzun zion: “Seme, zu beti nirekin zaude, eta nirea den gutzia zeurea duzu. Baina egoki zen festa egitea eta poztea, zure anaia hau hila baitzegoen eta berriz bizi da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu”».

**P**arabola hau geuri mintzo zaigu gaur, «onak» direla eta etxean bizia segurtatua dutela uste dutenen aldamenean gaudenoi. Bi semeei banatu die aitak ondarea, begirada bera izan du biek, eta joaten utzi dio gazteenari. Aske utzi du, ikasiko duen arte, badela gose bat barnean bakarrik asetzen dena, eta haren zain-zain gelditu da: oso zaurgarria da aita, zain dagoenean

Premiaren premiaz, bizirautekoaren eskale itzuliko da seme gazteena. Zein urrun bizi den, aitak egingo dion harrera sumatu ere sumatetik! Zenbateko zabaltasuna, zenbateko maitasun gordea duintasun eza aurpegiatu gabe eskaintzeko: laztanez betea, imajinatu ere egingo ez zueneraino edertua. Nolatan bedeinka lezake aitak hain buru zoro jokatu duen semea? Nolatan amore eman tamaina horretan, kontuak eskatu behar zizkionean? Nola ez ezagutu geure burua anaia zaharrenaren haserrean?

Jainkoaren neurria ez da gurea, eta istorioak irekirik jarraitzen du guretzat: nola berridatziko dugu bukaera? Seme nagusia sartuko da jaialdira eta esperimentatuko du, berarentzat ere gordea eta eskainia zuela aitak maitasun hori aspaldidanik. Anaia biak besarkatuko dira, aitaren poza bete-betera eramanez, topa egiten eta samurkiro malkotan dagoelarik.





## APIRILA / JORRILA

### AITA SANTUAREN ASMOAK

**Orokorra:** Pentsamenduaren eta ekonomia kudeatzearen erantzuleek adorea izan dezaten bazterketaren ekonomiari uko egin eta bide nahiz arrasto berriak urratzeko.



Garizumako 4. astea.  
 San Venantzio, *gotzaina*.  
 Santa Teodora, *martiria*.

[Isaias Profetaren liburutik 65,17-21: Ez da han gehiago entzungo negar-hotsik, ez garrasirik. [Sal 30 [29]: Goratuko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 4,43-54.

Aldi hartan, Jesus Samariatik atera eta Galileara joan zen. Jesusek berak aitortua zuen, profeta ez dutela bere herrian aintzat hartzen. Hala ere, Galileara iritsi zenean, galilearrek harrera ona egin zioten. Izan ere, Jerusalem izanak ziren berak ere eta ikusiak zituzten Jesusek Pazko-jaietan egin zituen guztiak.

Jesus Galileako Kanara joan zen berriro, ura ardo bihurtu zuen herrira. Bazen han errege-funtzionario bat, semea Kafarnaumen gaxorik zeukana. Funtzionarioak, Jesus Judeatik Galileara etorri zela jakitean, harengana joan eta bere semea sendatzera jaisteko eskatu zion, hilzorian zegoela eta. Jesusek erantzun zion: «Ezaugarriak eta egintza harrigarriak ikusten ez badituzue, ez duzue sinesten». Baina errege-funtzionarioak berriro: «Zatoz, Jauna, nire haurra hil baino lehen». Jesusek esan zion: «Zoaz etxera, onik duzu-eta semea». Gizonak sine-tsi egin zuen Jesusek esana eta joan egin zen.

Etixerakoan, morroiak atera zitzaizkion bidera, semea onik zuela esanez. Orduan galdetu zien zer ordutan hasi zen oneratzen. Eta haiek erantzun: «Atzo eguerdiko ordu batean utzi zion sukarrak». Konturatu zen aita ordu hartan esan ziola Jesusek: «Onik duzu semea». Eta sine-tsi egin zuten Jesusengan berak eta etxeko guztiek.

Judeatik Galileara itzuli zenean egin zuen Jesusek bigarren ezau-garri hau.

**G**eure gauzetan murgilduta zabarturik ibiltzen garenean, ezin izaten dugu jakin egiaz, Jesusen Hitzean sinesten dugun ala ez. Mihiz esan bai, baina harenak ez diren beste hitz batzuek harrapatzen gai-

Garizumako 4. astea.

San Venantzio, *gotzaina*.

Santa Teodora, *martiria*.

tuzte eta beste hitz batzuk izaten ditugu sostengu. Besteen oinazeek geu atakatu behar izaten digute, halakoekin lotura izan behar, «seme-ala-bak» izan behar, haien bitarteko izatera joko badugu, beste batzuekin haiek nola sendatu hasteko. Orduan, aldi on ala aldi txar izan, ekingo diogu eta bideari lotuko halakoen hitzari eta gogoari men eginez. Eta funtzionario honek bezala irrikatuko dugu beste batzuek ere nahi izan dezaten bizia on eta maitagarri itzul dakien.



*Maria Magdalena  
hilobira joan zen goizean  
goiz.  
Atera ziren Pedro eta  
beste ikaslea,  
eta hilobira abiatu ziren.*

Garizumako 4. astea.

Bideko Andre Maria.

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*.

[Ezekiel profetaren liburutik 47,1-9.12: Ura ikusi nuen tenplutik ir-  
teten; eta ur hori iritsi zitzaien guztiak salbatu egin ziren. Sal 46  
[45]: Jaun ahalguztiduna geurekin dugu, Jakobena Jainkoa gure go-  
torleku.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5,1-3.5-16.

Aldi hartan, juduen jai bat ospatzen zen, eta Jesus Jerusalemera igo zen. Bada Jerusalem, Ardien Atea delakoaren ondoan, hebreeraz Betzata deritzan uraska bat, bost aterpe dituen. Aterpeetan gaixo asko egon ohi zen, lurrean etzanda: itsu, herren eta elbarri.

Bazen han hogeita hemezortzi urtez gaixorik zegoen gizon bat. Jesusek, han etzanda ikusi eta aspalditik egoera hartan zegoela jakinik, esan zion: «Nahi al duzu sendatu?» Gaixoak erantzun zion: «Jauna, ez dut inor ura mugitzean uraskara sartuko nauenik; ni iristerako, besteren batek aurrea hartzen dit». Jesusek esan zion: «Jaiki, hartu ohatila eta zabiltza». Une berean sendaturik gertatu zen gizona, ohatila hartu eta ibiltzen hasi zen.

Larunbata zen egun hura, atsedeen-eguna. Horregatik, juduek esan zioten sendatuari: «Larunbata da, eta ez duzu zilegi ohatila eramatea». Hark erantzun zien: «Sendatu nauek berak esan dit: “Hartu ohatila eta zabiltza”». Orduan, galdegin zioten: «Nor da ohatila hartu eta ibiltzeko esan dizuna?» Sendatuak, ordea, ez zekien nor zen, Jesus ezkutatu egin baitzen inguruko jendearen artean.

Gero, Jesusek tenpluan aurkitu zuen eta esan zion: «Begira, sendaturik zaude. Ez egin bekaturik berriro, okerragorik gerta ez dakizun». Joan zen gizon hura, eta juduei jakinarazi zien Jesus zela sendatu zuena. Horregatik, hain zuzen, erasotzen zioten juduek Jesusi: larunbatez halako gauzak egiten zituelako.



Garizumako 4. astea.

Bideko Andre Maria.

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*.

**H**ogeita hemezortzi urte denbora asko da. Ahaleginduko al ginateke gu birgaitzen, bere bizitzako alderen bati dagokionez, horrenbeste edo gehiago urtez elbarri legokeen bat?, ala ezinezkotzat emango genuke? Jesus ez da aspertzen: pertsona bakoitzarengan saiatzen da, edozein duelarik ere bere egoera, barnean dituen ezkutuko gaitasunak arnasten, eta atentzio eman du haren jokamoldeak: galdera egiten dio elbarriari, bere baitan duen osasun eta zentzu gogoarekin erantzukizunez konekta dadin. Norberaren potentziala hartzen du kontuan Jesus, eta apal-apal aitortzera eragiten digu, ezin egin dugula geure bidea, bizkarrean esku-oheren bat hartu gabe.

\* \* \*

### Jainkoagan konfiantza

Gauza bakarra da inporta duena,  
eta da, adoretzu edo koldar,  
gerta gaitezela beti  
Jainkoak nahi gaituen lekuan,  
hartaz fidaturik gainerako guztiaz.  
Bai, ez da beste erremediorik beldurraren kontra,  
itsu-itsuan murgil egitea baizik Jainkoaren nahian,  
txakurrak atzetik segika dituen oreinak  
ur hotz eta beltzean murgil egiten duen bezala.

*(George Bernanosek esanarazten dio Gizakundearen  
Maria amari «Karmeldarren Elkarrizketa»)*

Garizumako 4. astea.  
San Sixto 1.a., 7. aita santua.

[Isaias profetaren liburutik 49,8-15: Herriaren itun izateko izendatu zaitut, lurraldea berreraiki dezazun. Sal 145 [144]: Errukiorra eta bihozbera da Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5,17-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien juduei: «Nire Aita lanean ari da beti, eta Ni ere lanean ari naiz».

Esandako honengatik, juduak are gehiago zebiltzan Jesus hil nahian; larunbateko atsedena ez errespetatzeaz gainera, Jainkoa bere Aita zuela baitzioen, bere burua Jainkoaren pareko eginez. Jesusek esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Semeak ez dezake ezer ere bere kabuz egin, Aita egiten ikusten duena besterik: Aitak zer egin, huraxe bera egiten du Semeak ere. Izan ere, Aitak maite du Semea eta berak egiten dituen guztiak erakusten dizkio, eta hauek baino egintza handiagoak ere erakutsiko dizkio, harritu egingo zaituzteten egintzak. Aitak hilak piztu eta bizia ematen dien bezala, Semeak ere bizia ematen die nahi duenei.

Aitak ez du inor epaitzen, baizik eta epaitzeko ahalmen guztia Semearen esku utzi du, denek, Aita ohoratzen duten bezala, Semea ere ohora dezaten; Semea ohoratzen ez duenak, hura bidali duen Aita ere ez du ohoratzen. Egi-egiaz diotsuet: Nire hitza entzun eta bidali naue-nagan sinesten duenak, betiko bizia du; ez da kondenatua izango, heriotzatik bizira igaroa baita dagoeneko.

Egi-egiaz diotsuet: Badator ordua, hobeto esan, iritsia da, hilda-koek Jainkoaren Semearen ahotsa entzungo dutena, eta entzuten dute-nak biziko dira. Aitak bizia bere baitan duen bezala, Semeari ere bizia bere baitan izatea eman dio. Gainera, epaitzeko ahalmena eman dio, Gizonaren Semea delako. Ez harritu esaten dizuedanaz; badator-eta ordua, hildako guztiek haren ahotsa entzungo dutena, eta hilobietatik aterako direna: ongia egin zutenak betiko bizirako piztuko dira; gaiz-kia egin zutenak, aldiz, kondenatuak izateko. Nik ez dezaket neurez

ezer egin; Aitari entzun bezala epaitzen dut, eta nire epaia zuzena da, ez baitut helburu neure nahia egitea, bidali ninduenarena baizik».

**B**ai maitasun handiz aurkezten digula Jesusek Jainkoa! Eta bai konfiantza handia duela berak harengan! Ez du egiten ezer ere bere gisa, bere gogoa Aitagan ainguraturik du, eta aita esaten dio. Begiratu, mugitu eta jokatu, Jainkoak historian egiten duela ikusten, entzuten eta kontenplazten duenaren arabera egiten du. Beharrezkoa dugu jasotzea, kamara geldian, Jainkoaz dioen guztia: «nire Aitak arian jarraitzen du... Aitak egiten duena egiten du semeak... Aitak maite du semea... Aitak ez du juzkatzen inor... Aitak bere esku du bizia; berak du bidaltzen...». Jesusek bezala, aitortuko al dugu, geure zoriona Aitari atsegin zaion guztia bilatzean eta aurkitzean dugula?

\* \* \*

### KRISTOREKIKO MAITASUNEZ

Jesus izeneko gizon honekiko maitasunez,  
gizaki Jainkoarentzat, gizaki gainerakoentzat,  
hona gu zeure aurrean, gure Aita!  
Mundu honekiko maitasunez, honetara baituzu bidali zuk  
–bildots otso artean– zuzentasuna eraikitsera,  
hona gu zeure aurrean, gure Aita, beraren izenean elkaturik!  
Elizarekiko maitasunez, beraren haragiaren haragi,  
beraren herri santutu, Elkargoaren herri,  
hona gu zeure aurrean, beraren izenean elkaturik,  
zure aintzaren zerbitzari!  
Pobreekiko maitasunez,  
berak zorioneko deituak,  
beraren gorputz samindu munduaren azkena arte,  
hona gu zeure aurrean, gure Aita, beraren izenean elkaturik,  
zure aintzaren zerbitzari, alde guztietan zerbitzari,  
zure aintza handienaren zerbitzari. (*Didier Rimaud, SJ*)

Garizumako 4. astea.

San Benito Palermokoa, *erlijiosoa*.

[**Irteera liburutik 32,7-14:** Egizu atzera, Jauna, zeure herriari egin diozun mehatxutik. **Sal 106 [105]:** Oroitu gutaz, Jauna, zeure herriaganako onginahiagatik.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5,31-47.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien judu-agintariei: «Nik neure buruaren alde egingo banu aitormen, nire aitormenak ez luke balioko. Beste batek du nire alde aitormen egiten, eta jakin badakit hark nire alde egiten duen aitormenak balio duela.

Zuek mandatariak bidali zenizkioten Joan Bataiatzaileari, eta hark aitormen egin zion egitari. Ez dut hau esaten inongo gizakiren aitormen-beharrik dudalako, zuek salba zaitezten baizik. Joan Bataiatzaile argi-zuzi piztua eta distiratsua zen, eta zuek, alditxo batez, poz hartu nahi izan zenuten haren argiaz.

Baina Nik badut Joanen aitormena baino hoberik: Nik betetzeko, Aitak eman dizkidan egintzak; nire egintzek egiten dute aitormen nire alde eta Aitak bidali nauela frogatzen. Bidali nauen Aitak berak ere egiten du aitormen nire alde. Baina zuek ez duzue inoiz haren mintzorik aditu, ez haren aurpegirik ikusi, eta haren hitzak ere ez du zuen baitan lekurik, hark bidaliagan ez sinesteak erakusten duen bezala.

Azterten dituzue Liburu Santuak, betiko bizia haietan aurkituko duzuelakoan, eta horiek dute, hain zuzen, nire alde aitormen egiten; hala ere, ez duzue nigana etorri nahi, betiko bizia izateko.

Ez dut gizakiengandik aintzarik onartzen; baina ongi ezagutzen zaituztet eta badakit ez duzuela Jainkoa maite. Ni neure Aitaren izenean etorria naiz, baina zuek ez nauzue onartu; norbait bere izenean etorriko balitz, hura bai, onartuko zenukete. Nola sinets dezakezue zuek, elkarrengandik onartzen baduzue aintza, eta Jainko bakarragandik datorren aintzak ez badizue axola?

Ez uste izan Aitaren aurrean Nik salatuko zaituztedanik; bada salatuko zaituzten norbait: Moises bera, zeuen itxaropen duzuen. Izan

Garizumako 4. astea.

San Benito Palermokoa, *erlijiosoa*.

ere, Moisesi sinetsiko bazeniote, neuri ere sinetsiko zenidakete, nitaz idatzia baitzuen hark; baina hark idatzia sinesten ez baduzue, nola sinetsiko duzue nik esana?»

**J**ainkoaren ahotsa entzun eta beraren aurpegia ikusi. Izango ahal da horixe gure desiorik handiena. Berari egunero galdetzea, egoera bakoitzean: nola zaude, Jauna, eta zer esan nahi diguzu?, non zauzkagu ezkutuan oraingoan? Iritsi gintezke uste izatera, jada ezagutzen dugula beraren Hitz, eta iritsi gintezke Hitz hori etxekotzera ere, halako moduan geure probetxurako, non ez baitigu irekitzen jada berak bere Presentzia bizi, harrigarri, besterik ez bezalakoa... , beti gehiago maitatzera eragiten digun hori. Beraz, ez gaitzela ohitu pentsatzera, jada ezagutzen dugula, baizik eta izan dezagula eguneroko esperientzian «sutan dagoen sasi hori», bertan bera harrigarri gerta dakigun, eta jakin dezagula beraren aurpegia adoratzen bera daramaten pertsona txiki guztiengan.

\* \* \*

### JAINKOAREN ESKU UZTEAREN OTOITZA

Ene Aita, zeure esku utzia nauzu.  
Egizu nitaz nahi duzuna.  
Nitaz egingo duzuna eskertzen dizut,  
prest nauzu edozertarako.  
Dena dizut onartzen,  
horrela zure nahia betetzekotan nigan  
eta sorkari guztietan.  
Ez dut opa beste ezer, ene Aita.

*(Charles de Foucauld).*

Garizumako 4. astea.  
San Bizente Ferrer, apaiza.

[Jakinduria liburutik 2,1a.12-22: Heriotza lotsagarrira kondenatuko dugu. Sal 34 [33]: Hurbil zaie Jauna bihotz-hautsiei. ]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 7,1-2.10.25-30.

Aldi hartan, Jesus Galilean zebilen; ez zuen Judean ibili nahi, juduek hil egin nahi baitzuten.

Hurbil zen Etxola-jaia, juduen jaietariko bat. Jesusen senideak jaietara joan zirenean, Jesus ere joan zen; baina ez agerian, erdi ezkutan baizik.

Jerusalem dar batzuek zioten: «Ez al da hau hil nahi dutena? Lasai asko ari da, bada, hizketan, eta ez diote ezer esaten. Onartu ote dute agintariiek hau dela Mesias? Baina hau badakigu nongoa den; Mesias etorriko denean, ordea, ez du inork jakingo nongoa den».

Orduan, Jesusek, tenpluan irakasten ari zela, oihuka esan zuen: «Ni ezagutzen nauzue eta badakizue nongoa naizen. Baina Ni ez naiz neurez etorri, baizik eta fidagarria denak bidali nau, eta zuek ez duzue hura ezagutzen. Nik, bai, ezagutzen dut, harengandik bainator eta hark bidalia bainaiz».

Orduan, atxilotu egin nahi izan zuten; baina ezin izan zion inork eskurik erantsi, ez baitzen artean iritsia haren ordua.

**J**esus adoretsua da eta zuhurra, aldi berean. Ez da arriskatzen, arrazoirik gabe, zelatan dituenen aurrean. Badaki noiz merezi duen hitz egitea eta noiz isilik gelditzea. Gorabeheren aurrean badaki bereizten, bizitzea dagokion hartan Jainkoaren nahia onartzeko eta zehazteko. Ez da harro eta ez da arriskatzen bere burua agertzeko; halaz guztiz, esan beharra duenean, argi eta garbi esaten du, beldurrez kikildu gabe; aske da, bihotzean duena egiaz adierazteko. Juzkatu eta kritikatu dute, baina Jesusek ez du bere burua defenditzen, ez du bere burua zuritzen; beti ezagutu beharra dugun Beste horren aginteari egiten dio aipu.

Garizumako 4. astea.

San Ireneo, *gotzaina (eliz gurasoa)*.

[Jeremias profetaren liburutik 11,18-20: Hiltzera daramaten bildots otzana bezala nintzen ni. **Sal 7:** Zugan babesten naiz, Jauna, ene Jainkoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 7,40-53.

Aldi hartan, jende arteko batzuek, Jesusen hitzak entzutean, hau zioten: «Hauxe da egiaz etortzekoa den profeta». Beste batzuek esaten zuten: «Hauxe da Mesias». Beste batzuek, berriz: «Galileatik etor ote daiteke Mesias? Ez al dio Liburu Santuak Mesias Daviden jatorrikoa izango dela eta haren herritik, Betleemetik, etorriko dela?» Iritzi kontrajarriak zeuden, bada, jendearen artean Jesusi buruz. Batzuek atxilotu egin nahi zuten; baina ez zion inork eskurik gainean jarri. Guardiak apaizburu eta fariseuengana itzuli ziren, eta hauek galdetu zieten: «Zergatik ez duzue ekarri?» Guardiiek erantzun zieten: «Ez du sekula inork gizon horrek bezala hitz egin».

Fariseuek erantzun zieten: «Zer? Zuek ere liluratu al zaituzte? Sinentsi ote du harengan agintari edo fariseuetako batek ere? Baina legea ezagutzen ez duen jende hori madarikatua dago».

Orduan, Nikodemok, fariseu haietako batek, behinola Jesusengana joan zenak, esan zien: «Zilegi al da gure legearen arabera inor gaitzestea, berari entzun eta zer egin duen jakin gabe?» Besteek erantzun zioten: «Galilearra al zara zu ere? Aztertu Liburu Santuak eta ikusiko duzu Galileen ez dela inoiz profetarik sortu». Ondoren, nor bere etxera joan zen.

**A**sko kostatzen zaigu errealitatea onartzea, gure egitasmoekin bat ez datorrenean. Simone Weilek esan ohi zuen, antzeman diezaiokegula pertsona bati Jainkoaren maitasunaren sutik igarota den, munduko gauzez hitz egiten duen modutik. Zenbat eliz hizketak mespretxatzen dituen gaur egongo galilear eremuak!, jainkozkotik urruneko jotzen ditu, gupidarik gabe aipatzen ditu... eta doi-doi suma genezake Jainkoaren zenbat gauza ehotzen den halako eremuetan. Gero eta begi apa-lago batzuen beharra dugu, beste ikuspegi batzuk onartzeko.

Garizumako 5. astea.

La Salleko San Joan Bautista, *apaiza eta fundatzailea*  
(*Salletarrak*).

### § Isaías profetaren liburutik 43,16-21.

Honela mintzo da Jauna:

Jaunak bidea zabaldu zuen itsasoan, bidexka ur oldartsuetan; gurdi eta zaldi, gudaroste ahalsua atera zuen gudura; hara, erori dira etsaiak, berriro ez jaikitzeko, itzali dira, bukatu, kandela-metxa bezala.

«Ez oroitu iraganean gertatuez, ez gogoratu antzinakoez. Begira, dena berri egitera noa: hasia da sortzen, ez al diozue antzematen? Bidea irekiko dut basamortuan, ibaiak landa lehorrean.

Basapiztiek, txakal eta ostrukek goretziko naute, ura emango baitut basamortuan, ibaiak sorraraziko landa lehorrean, neure herriari, neure aukeratuari, edaten emateko. Eta neuretzat eratu dudan herriak nire gorespena iragarriko du».

[Sal 126 [125]: Gurekin handikiro jokatu du Jaunak; hau da poza daukaguna!]

### § San Paulok Filipoarrei 3, 8-14.

Senideok: Nire ustez, ez du ezerk ezer balio Kristo Jesus nire Jauna ezagutzearen neurrigabeko ondasunaren aldean. Kristogatik dena galdu nuen eta dena zaborraren pareko jotzen dut, hura irabaztearren eta harekin bat eginda bizitzearren. Ez naiz neurez salbatzen, legea betetzeagatik alegia, Kristogan sinesteagatik baizik, Jainkoak sinestmenaren bidez salbatzen nauelako, alegia. Kristo ezagutu nahi dut, haren piztueraren indarra neuregan sumatu eta haren nekeetan partaide izan nahi dut, haren antzeko bihurtu heriotzan, horrela hildakoan piztueran ere parte izango dudan itzaropenez.

Ez dut esan nahi hori lortu dudanik edota helmugara iritsi naizenik; baina lehian jarraitzen dut ea eskuratzen dudan, Kristo Jesusek ni neu eskuratu ninduen bezala. Senideok, ez dut uste dagoeneko eskuratu dudanik; baina, atzean gelditu denaz ahazturik, aurrera jotzen dut



Garizumako 5. astea.

La Salleko San Joan Bautista, *apaiza eta fundatzailea*  
(Salletarrak).

eta helbururantz lehiatzen naiz, saria iristeko; horretara deitzen baitit Jainkoak goitik, Kristo Jesusen bitartez.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8,1-11.

Aldi artan, Jesus Oliamendira joan zen. Biharamun-egunsentian, ordea, tenplura agertu zen berriro, eta herri guztia etorri zitzaion; Jesus eseri eta irakasten hasi zitzaien.

Lege-maisuek eta fariseuek adulterioan harrapatutako emakume bat ekarri zioten eta, erdian ipiniz, esan zioten Jesusi: «Maisu, emakume hau adulterioan ari zela harrapatu dute. Moisesek horrelakoak harrika hiltzeko agindu zigun legean. Zuk zer diozu?» Azpikeriaz esaten zioten hori, zertan salatu izateko.

Jesus, ordea, makurtu eta atzamarrez lurrean idazten hasi zen. Baina haiek galde eta galde ari baitzitzaizkion, zutitu eta esan zion: «Zuetan bekaturik gabe dagoenak bota diezaiola lehenengo harria». Eta, berriro makurturik, lurrean idazten jarraitu zuen. Haiek, hori entzutean, banan-banan alde egiten hasi ziren, zaharrenetatik hasita. Jesus bakarrik gelditu zen, emakumea aurrean zuela.

Jesusek, zutiturik, esan zion: «Emakume, non dira salatzaileak? Ez al zaitu inork gaitzetsi?» Hark erantzun: «Inork ere ez, Jauna». Orduan Jesusek: «Ezta Nik ere, ez zaitut gaitzesten. Zoaz eta ez egin berriro bekaturik».

**A**gian esango dugu, harririk ez dugula eskuetan. Baina, egiaz ari bagara, aitortu genezake patrikan baditugula. Geure ezinikusiak, ze-loak, inbidiak, gorrotoak... Besteak juzkatzera eta gutxiestera eragiten diguten sentimendu haiek. Jesusek pazientzia handia erakutsi digu geure bihotz-gogorkeriaren aurrean, ondo asko ezagutzen du, baina ez gaitu juzkatzen, gure barne kontzientziari egiten dio dei.

Zer ikusi dute, ordea, gizon haiek gogaikarririk emakume honengan? Zer ari dira gordetzen beren iritzipean? Beste bat kritikatu eta

Garizumako 5. astea.

La Salleko San Joan Bautista, *apaiza eta fundatzailea*  
(*Salletarrak*).

hatz batez seinalatzen dudanean, zerk nau haserrarazten?, zeri ari naitzaio uko egiten neugan?, ez al naiz sentitzen neu ere errudun eta bar-kazio-beharrean? Atera ditzagun patrikan ditugun harriak, eta senti dezagun zertaraino den arintzen bizitza, geure burua geure zauri eta guzti ezti-ezti onartzen dugunean, Jesusek onartzen gaituen bezala. Jesus zutik jarri da emakumearen aurrean, bera aintzat hartuz. Galdera egin dio, eta ahotsa itzuli. Animatu eta bedeinkatu egin du, aske dela sentiaraziz, eta, beragan konfiantza duela erakutsiz, bere baitan duen alderik hobenari begira ipini du, bere orainean berriro maite izateko eta maitatua izateko ahalbidea azaldu dio, bere burua mindu eta kaltetu gabe.

\* \* \*

### GORDE NIRE HAU HAUR-BIHOTZ

Andre Maria, Jainkoaren Ama,  
gorde nire hau haur-bihotz,  
garbi eta garden mendiko iturri bat bezalako.  
Emadazu bihotz xume bat,  
ez dezala gozatu tristuretan,  
bihotz handi bat besteri emana,  
xamur eta gupidatsu,  
leial eta zabal,  
ontasunik ahaztuko ez duena,  
gaitz batengatik gorrotorik gordeko ez duena.  
Emadazu bihotz otzan eta apal bat,  
maitatzeko gai ordainik espero gabe,  
ezkutatzeaz alai,  
bihotz handi eta ezin hezi bat,  
inoren esker gaiztok itxiko ez duena,  
inoren axola-ezak nekaraziko ez duena,  
bihotz irrikatsu bat Jesu Kristoren aintzarekiko,  
haren maitasunez zauritua,  
zauri batez, itxiko dena soilik zeruan.

(*Léonce de Grandmaison, SJ*)

Garizumako 5. astea.  
San Dionisio, *gotzaina*.

[Danielen liburutik 13,1-9.15-17.19-30.33-62: Errugabe izanik ere, hil beharra dut. **Sal 23 [22]**: Ibar beltz ilunean banabil ere, ez naiz gaitzaren beldur, Zu nirekin baitzaude.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8,12-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien fariseuei: «Ni naiz munduaren argia; niri jarraitzen didana ez da ilunpean ibiliko; izango du bizirako argia».

Fariseuek esan zioten: «Zuk zeure buruaren alde egiten duzu aitormen; beraz, zure aitormenak ez du balio».

Jesusek erantzun zien: «Nik aitormen neure buruaren alde egiten badut ere, nire aitormenak balio du, ongi baitakit Nik nondik etorria naizen eta nora noan; baina zuek ez dakizue, ez nondik natorren, ez nora noan. Zuek giza erara epaitzen duzue; Nik ez dut inor epaitzen. Eta epaituko banu ere, nire epaia baliozkoa izango litzateke, ez baitut Nik bakarrik epaitzen, bidali nauen Aitak eta biok baizik. Eta zuen legeari dago idatzia, bi lagunak aitormena baliozkoa dela. Honela bada, Nik neure buruaren alde egiten dut aitormen; baina bidali nauen Aitak ere egiten du aitormen nire alde».

Haiek galdetu zioten: «Non da zure Aita?» Jesusek erantzun zien: «Ez Ni, ez nire Aita, ez gaituzue ezagutzen. Ni ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete».

Tenpluan irakasten ari zela, diru-kutxa ondoan, egin zituen Jesusek adierazpen hauek. Hala ere, ez zion inork eskurik erantsi, ez baitzen artean iritsia haren ordua.

**J**esu fariseuekin hitz egiteko gelditu da, haien asmoak ezagunak dituen arren. Azkenerraino eskaini nahi die aukera graziara itzultzeko. Baina beren arrazoiketarik ez die uzten ulertzen beraien neurriekin eta irizpideekin bat ez datorrena, ez dute ikusi nahi. Jesusi balio

Garizumako 5. astea.  
San Dionisio, *gotzaina*.

---

guztia kentzeko ahaleaginean, beren burua itxi diote hark komunikatu nahi dien bedeinkazioari, Aitaren dohain den haren izateak irradiaztzen duen argiari. Argiari, zeinen bidez gauza guztiak beste era batean ikusten baitira; argiari, zeinak bere jatorria eta emankortasuna azaltzen baitizkigu. Argiari, zeini jarraitzen dionak bizia sentitzen eta gozatzen baitu.

\* \* \*

### SOLIDARITATEA

Juduen «Talmud»ean bada alegia edo ipuin bat gizon-emakumeen arteko solidaritatea oso argi jartzen duena. Kasu honetan bekatuan dugu solidaritatea, oker bakoitzean bizi ohi dugu solidaritatea. Norberaren oker batek besteei eragiten dien kaltean bizi ohi dugu solidaritatea. «Zenbait lagun itsasontzi batean zihoazen. Lagunetako bat zulagailu bat hartu eta zulo bat egiten hasi zen ontziaren zoruan. Gainerakoek, harriturik, esan zioten: «Zer ari zara?» Eta besteak: «Zer inporta zaizue? Ez al naiz ari zuloa egiten neure eserlekuaren azpian?» Eta besteek: «Bai, baina ura denon kalterako sartuko da». Ez ote da ari hau bera gertatzen gure gizartean? Eta Elizan? Eta geure etxean?

Garizumako 5. astea.  
San Maximo, aitorlea.

[Zenbakiak liburutik 21,4-9: Sugeek zizta egindako guztiak, brontzezko sugari begiratzean, sendatu egingo dira. Sal 102 [101]: Entzun, Jauna, nire otoitza, hel bedi zugana nire deiadarra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8,21-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien fariseuei: «Ni banoa, eta nire bila ibiliko zarete; baina zeuen bekatuan hilko zarete. Ni noan tokira zuek ezin zarete joan». Orduan, entzuleek esan zuten: «Bere burua hil behar ote du? Horregatik esan ote du “Ni noan tokira zuek ezin zarete joan”?»

Jesusek jarraitu zuen: «Zuek behekoak zarete, Ni goikoa naiz; zuek mundu honetakoak zarete, Ni ez naiz mundu honetakoa. Horregatik esan dizuet, zeuen bekatuetan hilko zaretela; zeren, “Ni naizela” sinesten ez baduzue, zeuen bekatuetan hilko baitzarete». Orduan, esan zioten: «Nor zara Zu?»

Jesusek erantzun: «Hasieratik ari natzaizue esaten. Badut zuetaz zer esanik eta zer gaitzetsirik asko. Bidali nauena fidagarria da; eta Nik, hari entzun diodana, horixe bera esaten diot munduari». Haiek ez ziren jabetu Aitaz mintzo zitzaiela.

Jesusek, beraz, esan zien: «Gizonaren Semea jasoko duzuenean, orduan jakingo duzue Ni naizela, eta ez dudala neurez ezer egiten; baizik eta Aitak erakutsi didana bakarrik esaten dudala. Ni bidali nauena nirekin dago; ez nau bakarrik utzi, hark atsegin duena egiten baitut beti».

Jesusek gauza hauek esan zituenean, askok sinetsi zuen harengan.

**B**adira bizitzako alderdiak, erabat sekula ulertuko ez ditugunak, soilik esker onetik irekitzen zaizkigu. Soilik, errealitatea eskertzeko gai garenean agertzen digu berak bere sekretua, orduan bakarrik erregalatzten digu berak bere onberatasuna. Ety Hillesumek oihukatu zuen, zerua kontzentrazio-eremu batetik kontenplatuz: «Nire esker ona zuri, ene Jainko, bizitza han ederra egin didazulako bizi naizen edozein parajetan».

Garizumako 5. astea.  
San Ezekiel, *profeta*.  
San Makario, *gotzaina*.

[Danielen liburutik 3,14-20.91-92.95: Jainkoak bere aingerua bidali du bere zerbitzariak libratzera. Sal: Daniel 3: Aintza eta gorespen zuri gizaldietan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8,31-42.

Aldi hartan, Jesusek esan zien beragan sinetsi zuten juduei: «Nire hitzean irauten baduzue, egiaz nire ikasle izango zarete; ezagutuko duzue egia, eta egiak aske egingo zaituzte».

Erantzun zioten: «Gu Abrahamen ondorengoak gara, eta ez gara inoiz inoren esklabo izan. Nola diozu aske izango garela?»

Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Bekatu egiten duena bekatuaren esklabo da. Esklaboa ez da etxean betiko geratzen; semea, bai, betiko geratzen da. Beraz, Semeak askatzen bazaituzte, benetan aske izango zarete. Badakit, bai, Abrahamen ondorengoak zaretela; baina Ni hil nahian zabiltzate, nire hitza ez baita zuengan sustraitzen. Neure Aitaren ondoan ikusi dudana mintzo naiz Ni; zuek, berriz, zeuen aitagandik ikasi duzue».

Haiek erantzun zioten: «Abraham dugu aita». Jesusek orduan: «Abrahamen seme bazinete, Abrahamek egin zuena egingo zenukete. Zuek, ordea, Ni hil nahian zabiltzate, eta Jainkoari entzundako egia besterik ez dizuet esan. Abrahamek ez zuen horrelakorik egin. Zuek zeuen aitak egiten duena egiten duzue».

Erantzun zioten: «Gu ez gara sasikume; aita bakarra dugu, Jainkoa». Jesusek orduan: «Zuen aita Jainkoa balitz, maite izango nindukezue, Ni Jainkoagandik atera bainaiz eta etorri; Ni ez naiz neure kabuz etorria, hark bidalia baizik»

**G**u geu gauza askoren artean harrapatu gabilta, eta okerrean da, ez garela horretaz ohartzen. Ez kanpotik datozkigun ustekizunek, ez barnean indar hartzen ari diren bulkadek uzten digute geure aska-

Garizumako 5. astea.  
 San Ezekiel, *profeta*.  
 San Makario, *gotzaina*.

tasunaz ondo baliatzen. Jesusek eman digu giltzarria: egiaren lurrean bakarrik uzatzen ahal dugu hura. Beragandik hartzen dugunean bakarrik ikusten ahal dugu nola baldintzatzen gaituzten geure biologiak eta geure historiak; orduan bakarrik aitortu ahal izango dugu zenbat urrundu den gure jarduera esaten dugunetik. Jesusek gogoratu digu non dagoen gure askatasunaren sorburua: bereak gaitu Jesusek, hori bezain laua da gure egia. Beragandik irten gara eta beragana goaz.

\* \* \*

### GETSEMANI, MUGA EGOERA

«Ez da une onik hiltzeko. Azken agur bat esateko. Osasuna galtzeko. Bihotzekoak emateko. Minbizi terminal baten diagnostikoa entzuteko, etab. Horregatik, geure barnean horrelakoen kontrako jarrera bizi bat dugu. Kontsolagarri, neurri batean, gerta dakiguke hauxe bera gertatu zitzaiola Jesusi Getsemanin. Bere zoriari beldur handiz egin behar izan zion aurre. Dardaraz. Zori hari ihes egiteko gogoaz. Getsemanin «odol-izerdia» bota zuen, lurrera bizia galtzarekin adiskidetzeko. Getsemaniko baratzean, besteak beste, «muga-egoera» bizi izan zuen Jesusek» (Ron Rolheiser).

Jesusen bizitza, nekaldia, piztuera kontenplatzean, zer pentsa eman beharko liguke horrek: zertaraino maite izan gaituen, nolako esker ona zor diogun, nola erantzun ahal diogun hartarainoko maitasunari...Eta, nola ez?, norberaren muga-egoerari aurre-begirada bat emateko.

Garizumako 5. astea.

San Estanislao, *gotzaina eta martiria*.

[*Hasiera liburutik 17,3-9*: Herri askoren aita izango zara. *Sal 105 [104]*: Gogoan du etengabe Jaunak bere ituna.]

† *Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8,51-59.*

Aldi hartan, Jesusek esan zien juduei: «Egi-egiaz diotsuet: Nire hitza gordetzen duenak ez du inoiz heriotzarik ikusiko».

Juduek esan zioten: «Orain bai dakigula deabruaren menpe zaudela. Abraham hil egin zen eta profetak ere bai; eta Zuk diozu: “Nire hitza gordetzen duenak ez du inoiz heriotzarik ikusiko”? Gure aita Abraham baino handiago al zara, bada, Zu? Hura hil egin zen eta profetak ere bai; nor zarelakoan zaude?»

Jesusek erantzun zien: «Nire burua Neuk ohoratuko banu, nire ohore horrek ez luke ezer ere balioko; baina Aitak, zeuen Jainkoa omen duzuenak, ohoratzen nau Ni; zuek, ordea, ez duzue ezagutzen; Nik, bai, ezagutzen dut, eta ezagutzen ez dudala esango banu, gezurti izango nintzateke zuek bezalaxe; baina ezagutzen dut eta gordetzen ere haren hitza. Zuen aita Abraham pozik zen nire eguna ikusiko zuen itxaropenez; ikusi zuen eta alaitasunez bete zen».

Orduan, juduek esan zioten: «Ez dituzu oraindik berrogeita hamar urte, eta Abraham ikusi duzula?» Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Abraham sortu baino lehenagokoa naiz Ni».

Orduan, harriak hartu zituzten hari jaurtitzeko; baina Jesus ezkuta-  
tu egin zen eta tenplutik atera.

**U**ste izan genezake, Jesusen eta juduen arteko eztabaida hauek oso urruneko gauza ditugula guk; alabaina, geu ere nahaspilatzen gara letratik bizira ezin igaro garenean. Sarritan irakurtzen dugu Liburu Santua, eta bete nahi genuke hura; baina ez al dugu gutxiegi ezaguna haren hondo-hondoan dagoena? Ez al daude haren hitzak indargabeturik gure asmorik eta errutinarik gehienetan? Jesusek premiatsu dei egiten digu hitz haiek entzutera, gordetzera eta eguneratzera. On handia egingo liguke geure buaruari galdetzeak, zenbat albiste onik dagoen eguneroko gure jardunean.



Garizumako 5. astea.  
San Zenon, gotzaina.

[Jeremias profetaren liburutik 20,10-13: Neurekin dut Jauna, gudari indartsu. Sal 18 [17]: Neure larrialdian dei egin nion Jaunari, eta entzun zuen nire oihua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10,31-42.

Aldi hartan, juduek berriro harriak hartu zituzten Jesusi harrika egiteko. Jesusek esan zien: «Egintza onik asko egin dut zuen aurrean Aitaren izenean; horietako zeinengatik egin nahi didazue harrika?»

Erantzun zioten: «Ez zaitugu egintza onak egiteagatik harrikatu nahi, biraio egiteagatik baizik; gizaki izanik, zeure burua Jainko egiten duzulako».

Jesusek erantzun zien: «Ez al dago idatzirik zuen Liburu Santuan: “Nik esan dut: jainko zarete”? Beraz, Jainkoak “jainko” esaten die bere hitza zuzendu zienei, eta Liburu Santuak esana ukaezina da. Nola diozue, bada, Nik, Aitak sagaratu eta mundura bidali nauen honek, biraio egiten dudala, Jainkoaren Seme naizela esateagatik? Nire Aitaren egintzak egiten ez baditut, ez sinetsi niri; baina egiten baldin baditut, niri sinesten ez badidazue ere, sinetsi egintzei. Horrela, behin betiko jakingo duzue Aita nigan dagoela eta Ni Aitagan».

Berriz ere atxilotu egin nahi izan zuten, baina ihes egin zien eskue-tatik. Berriro Jordanez beste aldera joan zen Jesus, garai batean Joan bataiatzen ari izan zen lekura.

Han gelditu zen aldi batez, eta jende asko joaten zitzaion. Hau zioten: «Joanek ez zuen ezaugarririk batere egin, baina hark honetaz esan zuen guztia egia zen». Eta han askok sinetsi zuen Jesusengan.

**P**asadizo bortitz honek harrikatu nahi zuten emakumearen pasartea dakarkigu gogora. Bere burua jarri du Jaunak mespretxatuak direnen lekuan. Hika-mika etengabeak, ihes egin eta ezkutatu beharra, Jainkoa bizitzeko bere moduagatik ukatua izana: nola eutsi izan dio horri guztiari lur jo gabe, gogortu eta elkortu gabe...? Adierazle oso indartsua eskaini digu Jesusek bizitzaren egitasuna ezagutzeko: beraren egintzen ontasuna. Horiek ez dute egainatzen, geure bihotza nori eman diogun azaltzen dute.

Garizumako 5. astea.

San Martin 1.a, *aita santua eta aita santuen artean azken martiria.*

San Hermenegildo, *martiria.*

[Ezekiel profetaren liburutik 37,21-28: Herri bakar bihurtuko ditut.

Sal: Jeremias 31: Zainduko gaitu Jaunak, artzainak artaldea bezala.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 11,45-57.

Aldi hartan, Maria ikustera joandako judu askok, Jesusek Lazarekin egina ikustean, harengan sinetsi zuen. Haietako batzuek, ordea, fariseuengana joan eta Jesusek egin zuena kontatu zieten.

Orduan, apaizburuek eta fariseuek Batzarra bildu zuten, eta esan: «Zer egin? Gizon hau ezaugarri asko egiten ari da. Horrela jarraitzen uzten badiogu, denek sinetsiko dute honengan, etorriko dira erromatarrak eta suntsitu egingo dizkigute bai tenplua eta bai herria». Batzarkideetako batek, urte hartan apaiz nagusi zen Kaifasek, esan zien: «Zuek ez dakizue ezer. Ez al zarete konturatzen hobe duzuela gizon bat herriagatik hiltzea, herri osoa galtzea baino?» Kaifasek ez zuen hori bere kabuz esan; baizik eta, urte hartan apaiz nagusi zenez, profeta bezala hitz egin zuen, Jesus herriaren alde hilko zela adieraztean; eta herriaren alde ez ezik, baita sakabanaturik zeuden Jainkoaren seme-alabak elkartzeko ere. Eta egun hartan, Jesus hiltzea erabaki zuten.

Horregatik, Jesus ez zen agerian ibiltzen juduen artean. Basamortu ondoko bazter batera alde egin zuen, Efraim izeneko herrira, eta han egon zen ikasleekin. Juduen Pazkoa gainean zen, eta herrialdeko jende asko Jerusalemera igo zen Pazkoa baino lehen, garbikuntzak egiteko. Jerusalemera etorriak Jesusen bila zebiltzan eta, tenpluan topo egitean, galdetzen zioten elkarri: «Zer deritzozue? Ez ote da jaietara etorriko?» Apaizburuek eta fariseuek agindua zuten, baldin inork Jesus non zen jakiten bazuen, sala ziezaiela, atxilotu ahal izateko.

**A**paizek eta fariseuek galdetzen diote elkarri: «Zer egin? Zer iruditzen zaizue?» Galdera hauek ez ditugu arrotz geuk ere. Jesusek

irakatsi nahi die ikasleei, galdera hauek dagozkion hura aldarazi egin nahi dutela: «Zer egitera dei egiten digu Jainkoak? ... Zer uste ote du berak?» Gauzak egiteko geure eratik irtetea da kontua, errealitateaz dugun ikusmoldeetik alde egitea, eta bereiztea, bizi behar dugun guztian, zerk gaituen hurbiltzen gehienik Ebanjeliora eta Jesusen jokamoldera. Arazoa ez da asko irakurri eta jakitea, baizik eta Jesusekin bizi izandako doako denbora: zer egiten duen ikusi, zer esaten duen entzun. Beraren seinaleak eta isiluneak kontenplatu.

\* \* \*

### JESUS ETA KALKUTAKO TERESA

«Hau da Jesus niretzat:  
Hitza, gorputz eginda.  
Biziaren Ogia.  
Hitza, esana izateko.  
Egia, aldarrikatua izateko.  
Bidea, ibilia izateko.  
Argia, piztua izateko.  
Bizia, bizi egiteko.  
Maitasuna, maitatua izateko.  
Alaitasuna, elkarrekin banatzeko.  
Sakrifizioa, besteei bere burua emateko.  
Biziaren Ogia, ene janari izateko».

*(Arantzazu egutegia 2012-05-25)*

Erramu.

San Tiburtzio, *martiria*.

Santa Liduvina, *birjina*.

### § Isaias profetaren liburutik 50,4-7.

Jainko Jaunak hitz egiteko trebatu nau, bihotz-eroriei adore-hitza emateko. Goizero dit belarria ernearazten, ikasle onak bezala entzun dezadan. Jainko Jaunak belarria ireki dit, eta nik ez diot aurka egin, ez atzera jo.

Bizkarra eskaini nien jotzen nindutenei, masailak, bizarretik tiraka ari zitzaizkidanei. Ez nien aurpegia saihestu irainei eta listuei.

Jauna dut laguntzaile; horregatik, ez naiz kikildu;

horregatik gogortu dut aurpegia, harkaitza bezala, bai baitakit ez naizela lotsagarri gertatuko.

[Sal 22 [21]: Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?]

### § San Paulok Filipoarrei 2, 6-11.

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik, ez zion gogor eutsi Jainkozko bere mailari; bestela baizik, zegokion aintza utzi eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Eta gizaki bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, menpeko eginez heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino.

Horregatik, denen gainetik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion, Jesusen izenaren omenez denen belaunak makur daitezzen, zeruan, lurpean eta lurpean, eta mihi guztiek aitortu dezaten Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitaren aintzarako.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 22,14–23,56.

*Banuen gogoa,  
sufritu aurretik pazko-afari hau zuekin egiteko.*

**K** Ordua etorri zenean, Jesus mahaian jarri zen apostoluekin eta esan zien:

Erramu.

San Tiburtzio, *martiria*.Santa Liduvina, *birjina*.

† «Banuen gogoia, sufritu aurretik pazko-afari hau zuekin egiteko. Hara zer diotsuedan: ez dut gehiago Pazkoa ospatuko, hau Jainkoaren erreinuan bere betera iritsi arte».

**K** Eta edalontzi bat hartu, esker onezko otoitza egin eta esan zuen:

† «Hartazue eta banatu zeuen artean. Hara zer diotsuedan: ez dut gaurdanik gehiago ardo honetatik edango, Jainkoaren erreinua iritsi arte».

*Egizue hau nire oroigarri.*

**K** Gero, ogia hartu eta, esker onezko otoitza eginez, zatitu eta eman zien, esanez:

† «Hau nire Gorputza da, zuentzat emango dena. Egizue hau nire oroigarri».

**K** Afal ondoan gauza bera egin zuen edalontziarekin, esanez:

† «Edalontzi hau itun berria da, zuentzat isuriko den nire Odolaz ezarria.

*Dohakabea Gizonaren Semea salduko duena!*

Baina begira, nirekin mahaian dago salduko nauena. Gizonaren Semea badoa, erabakia dagoen bezala; baina dohakabea salduko duena!»

**K** Ikasleak beren artean galdezka hasi ziren, nor izan ote zitekeen hori egingo zuena.

*Ni zerbitzari bezala nago zuen artean.*

Eztabaida sortu zen ikasleen artean, zein ote zen handiena beren artean. Jesusek esan zien:

† «Herrietako erregeek menpean hartzen dituzte beren herriak, eta agintedunek “Ongile” deitzea nahi izaten dute. Zuek ez jokatu horre-

Erramu.

San Tiburtzio, *martiria*.

Santa Liduvina, *birjina*.

la; zuen artean nagusiena izan bedi gazteenaren pareko, eta agintaria zerbitzariaren pareko. Izan ere, zein ote da handiago, mahaian jarrita dagoena ala zerbitzatzan ari dena? Ez ote da mahaian dagoena? Ba, Ni zerbitzari bezala nago zuen artean.

Zuek nirekin irauin duzue nire probaldietan. Eta Nik erreinua emanen dizuet, Aitak niri eman zidan bezala; nire mahaian jango eta edango duzue nire erreinuan, eta tronuetan eseriko zarete, Israel herriko hamabi leinuak epaitzeko».

*Zuk, nigana bihurtzean,  
sendo itzazu zeure senideak.*

**K** Eta esan zuen gainera:

† «Simon, Simon! Satanasek beretzat nahi zaituzte, garia galbahean bezala zuek astintzeko; baina Nik otoitz egin dut zure alde, zure fedea itzal ez dadin. Eta zuk, nigana bihurtzean, sendo itzazu zeure senideak».

**K** Pedrok esan zion:

**S** «Jauna, prest nago zurekin baita kartzelara eta heriotzara ere joateko».

**K** Jesusek erantzun zion:

† «Hara zer diotsudan, Pedro: gaur oilarrak jotzerako, hiru aldiz ukatuko duzu Ni ezagutzen nauzula».

*Nigan bete beharrekoa da idatzirik dagoena.*

**K** Ondoren, guztiei esan zien:

† «Falta izan al zenuten ezer, poltsarik eta zakutorik eta oinetakorik gabe bidali zintuztedanean?»

**K** Haiek erantzun:

**S** «Ezer ere ez».

**K** Jesusek berriro:

Erramu.

San Tiburtzio, *martiria*.Santa Liduvina, *birjina*.

† «Orain, ordea, poltsa duenak har dezala eta gauza bera zakutoa duenak; eta ezpatarik ez duenak sal dezala soingainekoa eta erosi ez-pata. Zeren egiaz diotsuet, Nigan bete beharrekoa dela Liburu Santuan idatzirik dagoen hau: “Gaizkileen kidekotzat jo zuten”. Izan ere, ni-reak laster egingo du».

**K** Haiek esan zioten:

**S** «Jauna, baditugu hemen bi ezpata».

**K** Hark erantzun:

† «Nahikoa da!»

*Larriak harturik,  
are eta lehiatsuago egiten zuen otoitz.*

**K** Atera zen Jesus eta, ohi zuen bezala, Oliamendira joan zen; ikasleek ere jarraitu zioten.

Hara iristean, Jesusek esan zien:

† «Egizue otoitz tentaldian ez erortzeko».

**K** Eta haiengandik harrikada bat bide aldenurik, belauniko hone-la egin zuen otoitz:

† «Aita, nahi baduzu, urrun ezazu nigandik edari mingots hau; bai-na ez bedi egin nire nahia, zurea baizik».

**K** Hontan, aingeru bat agertu zitzaion zerutik, adore emanez. Eta, larriak harturik, are eta lehiatsuago egiten zuen otoitz. Izerdia tanta-ka zerion lurrera, odola bezain lodi. Otoitzetik zutiturik, ikasleengana joan zen; nahigabearen nahigabez, lo aurkitu zituen, eta esan zien:

† «Nolatan zaudete lo? Jaiki eta egin otoitz, tentaldian ez erortze-ko».

*Judas, musu batekin saltzen al duzu  
Gizonaren Semea?*

Erramu.

San Tiburtzio, *martiria*.

Santa Liduvina, *birjina*.

**K** Oraindik hizketan ari zela, gizatalde bat agertu zen; Hamabieta-ko bat, Judas zeritzana, zetorren haien buru, eta Jesusengana hurbildu zen musu ematera. Jesusek esan zion:

† «Judas, musu batekin saltzen al duzu Gizonaren Semea?»

**K** Gertatzera zihoana ikusirik, Jesusen inguruan zeudenek esan zioten:

**S** «Jauna, erasoko al diegu ezpataz?»

**K** Eta haietako batek apaiz nagusiaren morroia jo eta eskuineko belarria moztu zion. Baina Jesusek esan zuen:

† «Utzi! Nahikoa da!»

**K** Eta, belarria ukituz, sendatu egin zuen. Orduan, beraren aurka etorriak ziren apaizburu, tenpluko guardia-buru eta herriko zaharrei esan zien:

† «Lapur baten bila bezalaxe etorri zarete, ezpata eta makilekin. Egunero zuekin nintzen tenpluan, eta ez zenidaten eskurik erantsi; baina oraintxe da zuen ordua, ilunpearen nagusialdia».

*Kanpora irtenik,  
negarrari eman zion Pedrok saminki.*

**K** Jesus preso hartu eta apaiz nagusiaren etxera eraman zuten. Pedrok urrutitik jarraitu zion. Batzuk patio erdian sua piztu eta inguruan eserita zeuden; Pedro ere haien artean eseri zen. Neskame batek, Pedro sutondoan eserita ikustean, begira-begira jarri eta esan zion:

**S** «Hau ere Jesusekin ibili ohi zen».

**K** Baina hark ukatu egin zuen:

**S** «Emakume, nik ez dut ezagutzen hori!»

**K** Handik berehala, beste batek ikusi eta esan zion:

**S** «Zu ere horietakoa zara».

**K** Eta Pedrok:

**S** «Ez, gizona! Ni ez!»

**K** Handik ordubetera edo, beste batek gogor egiten zuen:



Erramu.

San Tiburtzio, *martiria*.Santa Liduvina, *birjina*.

**S** «Bai, hau ere Jesusekin ibili ohi zen, galilearra da eta».

**K** Pedrok erantzun zuen:

**S** «Ez dakit zertaz ari zaren, gizona!»

**K** Eta une berean, oraindik hizketan ari zela, oilarrak jo zuen. Itzuli zen Jauna eta Pedrori begiratu zion. Gogoratu zitzaion Pedrori Jaunak esandakoa: «Gaur oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu», eta, kanpora irtenik, negarrari eman zion saminki.

*Asma ezak, profeta: zeinek jo hau?*

Jesus preso zeukatenek burlaka eta joka zerabilten. Begiak estalirik, galdetzen zioten:

**S** «Asma ezak, profeta: zeinek jo hau?»

**K** Eta beste hitz iraingarri asko esaten zioten.

*Batzar Nagusira eraman zuten.*

Eguna argitu zuenean, herriko Zaharren Kontseilua, apaizburuak eta lege-maisuak bildu ziren, eta Jesus Batzar Nagusira eraman zuten. Hau esan zioten:

**S** «Mesias baldin bazara, esaguzu».

**K** Jesusek erantzun:

† «Esaten badizueta, ez didazue sinetsiko eta, galdetzen badizueta, ez didazue erantzungo. Baina hemendik aurrera, Gizonaren Semea Jainko ahalguztidunaren eskuinean eserita egongo da».

**K** Orduan, denek esan zuten:

**S** «Beraz, Jainkoaren Semea zara Zu?»

**K** Hark erantzun zien:

† «Zeuek diozue, Ni naiz».

**K** Haiek orduan:

**S** «Ba al dugu testigantza beharrik? Geuk entzun dugu beraren ahotik».

Erramu.

San Tiburtzio, *martiria*.

Santa Liduvina, *birjina*.

**K** Jaiki ziren denak eta Pilatogana eraman zuten Jesus.

*Nik ez diot errurik aurkitzen gizon honi.*

Han Jesus salatzen hasi ziren, esanez:

**S** «Gure herria nahaspilatzen aurkitu dugu hau; enperadoreari zergak ordaintzea galarazten du eta bera Mesias, erregea, dela esaten».

**K** Pilatok galdetu zion:

**S** «Juduen erregea al zara Zu?»

**K** Jesusek erantzun zion:

† «Zeuk diozu».

**K** Pilatok apaizburuei eta jende-taldeari esan zien:

**S** «Nik ez diot errurik aurkitzen gizon honi».

**K** Baina haiek, behin eta berriro:

**S** «Judea guztian zehar herria asaldatzen ari da bere irakatsiekin, Galileatik hasi eta honaino».

**K** Hori entzutean, gizon hura galilearra zen galdetu zuen Pilatok. Eta, Herodesen menpekoa zela jakin zuenean, harengana bidali zuen, Jerusalemen baitzen egun haietan.

*Herodesek, bere gudariekin batean,  
mespretxuz erabili zuen Jesus.*

Biziki poztu zen Herodes Jesus ikustean, aspaldian baitzuen hura ikusteko gogoia, hartaz entzuna zuenagatik; mirariren bat egiten ikusiko zuela ere espero zuen. Herodesek galdera asko egin zion, baina Jesusek ez zion hitzik ere erantzun. Bitartean, han ari ziren apaizburuak eta lege- maisuak salatu eta salatu. Herodesek, bere gudariekin batean, Jesus mespretxuz eta isekaz erabili ondoren, soineko distiratsu bat jantzi eta Pilatogana bidali zuen berriro. Egun hartan adiskidetu egin ziren Pilato eta Herodes, lehen etsai baitziren.

Erramu.

San Tiburtzio, *martiria*.Santa Liduvina, *birjina*.*Pilatok haien esku utzi zuen Jesus.*

Pilatok apaizburuak, agintariak eta herria berriro bildu eta esan zien:  
**S** «Gizon hau herriaren nahasle bezala ekarri didazue; baina galderak egin dizkiot zuen aurrean eta ez diot aurkitu zuek egotzen diozuen errurik bat ere; ezta Herodesek ere, gugana bidali baitu ostera. Honek ez du heriotza merezi duenik ezer egin. Beraz, zigorraldi bat eman eta askatu egingo dut».

**K** Baina guztiek aho batez deiadarka esan zioten:

**S** «Ken hori eta aska iezaguzu Barrabas».

**K** Hirian izandako matxinada eta giza hilketa batengatik espetxean sartua zuten Barrabas hori. Jesus askatu nahian, Pilato berriro mintzatu zitzaien. Baina haiek deiadarka jarraitu zuten:

**S** «Gurutzera hori! Josi gurutzean!»

**K** Pilatok hirugarren aldiz esan zien:

**S** «Zer oker egin du, bada, honek? Nik ez dut hau kondenatzeko arrazoirik aurkitzen. Beraz, zigorraldi bat eman eta askatu egingo dut».

**K** Baina haiek deiadar eta deiadar ari ziren gurutzera zezala eskatuz, eta gero eta handiagoak ziren deiadarrak.

Orduan, Pilatok haien eskabideari men egitea erabaki zuen, eta haiek eskatzen zutena, matxinada eta hilketagaratik espetxean zegoena, askatu eta haien esku utzi zuen Jesus.

*Jerusalemgo emakumeok, ez egin negarrik nigatik.*

Jesus gurutziltzatzeraz zeramatera, sorotik zetorren bat, Simon Zirenekoa, hartu zuten eta gurutzea leporatu zioten, Jesusen atzetik eraman zezan.

Herriko jende-talde handia zihoan Jesusen ondoren, baita emakume asko ere, bular joka eta harengatik aieneka. Itzuli zen Jesus haiengana eta esan zien:

Erramu.

San Tiburtzio, *martiria*.

Santa Liduvina, *birjina*.

† «Jerusalemgo emakumeok, ez egin negarrik nigatik; egizue negar zeuengatik eta zeuen seme-alabengatik. Hara, badatoz honako hau esango den egunak: “Zorionekoak agorrak, haurrik sortu ez duten sabelak eta hazi ez duten bularrak!” Orduan, honela hasiko dira mendiei esaten: “Eror zaitezte gure gainera”, eta muinoei: “Ezkuta gaitzazue”. Izan ere, egur hezeari hau egiten badiote, zer ez ote diote egingo iharrari?»

**K** Jesusekin batera, bi gaizkile ere eraman zituzten hiltzera.

*Aita, barka iezaiezu, ez dakite-eta zer ari diren.*

«Buru-hezur» zeritzan lekura iritsi zirenean, han gurutziltzatu zuten Jesus, baita bi gaizkileak ere, bata Jesusen eskuinean eta bestea ezkerrean. Jesusek honela zioen:

† «Aita, barka iezaiezu, ez baitakite zer ari diren».

**K** Gudariak Jesusen jantziak banatu zituzten, zotz eginez.

*Hau juduen erregea da.*

Herria begira zegoen. Agintariak, berriz, burlaka ari zitzaizkion, esanez:

**S** «Besteak salbatu dizkik; salba dezala bere burua, Jainkoaren Mesias, Aukeratua, baldin bada».

**K** Gudariak ere iseka egiten zioten; hurbildurik, ozpina eskaintzen zioten, esanez:

**S** «Juduen erregea baldin bahaiz, salba ezak heure burua!»

**K** Gainean idazkun hau zuen: «**HAU JUDUEN ERREGEDA**».

*Gaur nirekin izango zara paradisuari.*

Gurutzetik zintzilik zeuden gaizkileetako bat Jesusi irainka ari zitzaion:

**S** «Hi ez al haiz, ba, Mesias? Salba ezak heure burua eta salba gaitzak gu ere!»

Erramu.

San Tiburtzio, *martiria*.Santa Liduvina, *birjina*.

**K** Baina besteak haserre egin zion, esanez:

**S** «Ez al diok beldurrik Jainkoari, zigorra jasaten hagoela ere? Gu-rea legezkoa duk, geure eginengatik merezia baitiagu; baina honek ez dik inolako okerrik egin».

**K** Gero, esan zuen:

**S** «Jesus, oroit zaitez nitaz, zeure erreinura iristean».

**K** Jesusek erantzun zion:

† «Benetan diotsut: gaur nirekin izango zara paradisu».

*Aita, zure eskuetan uzten dut neure espiritua!*

**K** Eguerdi aldea zen, eta ilundu egin zuen lurbira osoan hirurak arte. Eguzkia ezkutatu zen eta santutegiko oihala erdiz erdi urratu zen. Jesusek deiadar handiz esan zuen:

† «Aita, zure eskuetan uzten dut neure espiritua!»

**K** Eta hau esanik, azken arnasa eman zuen.

### Hemen, belauniko jarri eta egonalditxo bat egingo da.

Erromatar ehuntariak, gertatua ikusirik, Jainkoa goretsi zuen, esanez:

**S** «Benetan zintzoa zen gizon hau!»

**K** Ikuskizunera joandako jende guztia, gertatua ikusirik, bular joka itzuli zen hirira. Han zeuden Jesusen ezagun guztiak, baita Gali-leatik jarraitu zioten emakumeak ere, urrutitik dena ikusten.

*Harkaitzean zulaturiko hilobian ipini zuen Josek  
Jesusen gorpua.*

Orduan, Zaharren Kontseiluko kide bat etorri zen, Jose zeritzana, gizon on eta zintzoa; honek ez zituen ontzat eman Batzar Nagusiaren erabakiak eta jokabidea. Judeako Arimatea herrikoa zen, eta Jainkoa-

Erramu.

San Tiburtzio, *martiria*.

Santa Liduvina, *birjina*.

ren erreinua noiz iritsiko zain zegoen. Josek, beraz, Pilatogana aurkeztu eta Jesusen gorpua eskatu zion. Jesus gurutzetik eraitsirik, izara batean bildu eta harkaitzean zulaturiko eta lehen inor ehortzi gabeko hilobian ipini zuen. Pazko-jairako prestaketa-eguna zen, eta larunbata hastera zihoan.

Jesusekin Galileatik etorritako emakumeek Joseri jarraitu zioten eta hilobia ikusi zuten, baita Jesusen gorpua nola jartzen zuten ere. Gero, itzuli eta usain gozoko ukenduak eta mirra prestatu zituzten. Larunbatean atsedean hartu zuten, agindua zegoen bezala.

**B**egi-bazterraz begiratzen al diegu gurutzearen inguruan dauden pertsonaia desberdinei, eta uste izan genezake, gu geu ez gara Jesusi uko egin dioten horiek bezalako, baizik eta gu geu jende ona gara. Héléne Berr neska judu gazte bat da, Parisko unibertsitatera joaten da ikasle, musika eta liburuak gogoko ditu, eta gazte zoragarri batekin ibiltzen da. Baina ezin esaneko zerbaitek joko du haren bizitza. Bere Egunkarian jasoa du, 1942ko apirilean: «Eguneko ordu bakoitzean errepikatzen da esperientzia mingarria; konturatzen naiz, batzuek ez dakitela, ez dutela imajinatu ere egiten, zer sufritzen duten beste gizon-emakumeek...». Kasik ideiarik ez dugu gure inguruan hainbat jenderen bizitza jotzen duten oinazez.

Ez gaitzela murgildu nekaldian ikusle pasibo bezala, ezta Jesus gurutzerara eraman dutenak besteak balira bezala. Eska dezagun grazia, gurutzea kontenplatzeko, ez errugabe bezala, baizik eta barkatuak bezala.

Gaur sufritzen ari direnen lagun izateak, nekaldian Jesusen lagun izateak, sendatu egiten gaitu eta gizakoi. Tibhirine-ko sei monje trapatarrek, terroristen mehatxuak hartzean, otoitz hau egin zuten: «Jauna, arma gabetu itzazu eta arma gabetu gaitzazu».

Aste Santua.

San Kreszente, *martiria*.Molokaiko Damian dohatsua, *aitorlea*.

[Isaias profetaren liburutik 42,1-7: Ez du oihu egingo, ez du kaleetan entzunaraziko bere mintzoa. Sal 27 [26]: Jauna dut argi eta salbamen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 12,1-11.

Pazkoa baino sei egun lehenago, Jesus Betaniara joan zen; han bizi zen Lazaro, Jesusek hilen artetik piztu zuena. Afaria eskaini zioten; Marta zerbitzatzen ari zen, eta Lazaro Jesusekin mahaiari zeudenetarikoa bat zen. Mariak, nardo jatorrezko kilo erdi bat lurrin-usain gozoduna, balio handikoa, harturik, oinak igurtzi zizkion Jesusi, eta bere ile-adatsez xukatu. Etxea lurrin-usainez bete zen.

Judas Iskariotek, salduko zuen ikasleak, esan zuen: «Zergatik ez da saldu ukendu hori hirurehun denarioan, eta dirua behartsuei eman?» (Hori esan zuen, ez behartsuak axola zitzaizkiolako, lapurra zelako baizik, eta, diru-poltsa berak zenez, hara botatzen zutenetik ostu egiten zuelako.). Jesusek esan zion: «Utziozu bakean; nire hilobiratze-egunerako egin du hori. Izan ere, behartsuak beti dituzue zuen artean; baina Ni ez nauzue betiko izango».

Juduetariko asko, Jesus Betanian zegoela jakinik, hara joan zen, Jesusengatik ez ezik, baita hilen artetik piztu zuen Lazaro ikusteagatik ere. Apaizburuek, orduan, Lazaro ere hiltzea erabaki zuten, hura zela-eta herritar askok haiengandik alde egiten baitzuen eta Jesusengan sinesten.

**M**artak eta Mariak isilik babestu dute Jesus. Beste behin ere badira garbiak ez diren begiratuak, eszena lausotzen dutenak, errezeloak dituztenak, kritikak aurpegiratzen dituztenak. Doakotasuna, fereka eta usaina gainezka denean, beti izaten da kurrinka egiten duen ahotsik. Kontuan izan behar dira horrelakoak eta aurre egin behar zaie, Jesusek egin zuen bezala, irmo eta argiro. Jesusentzat ez da nartzisismo baterako ordua, Judasek sentiarazi nahi dion bezala, baizik eta bedeinkazio-tarte bat. Zeinen premia handia baitu Jerusalem sartu aurre horretan.

Aste Santua.

Toribio Santua Liebanakoa.

Santa Bernardita Soubirouskoa (Lourdeskoa 1844-1879),

*birjina.*

**[Isaias profetaren liburutik 49,1-6:** Nazioen argizat ezarriko zaitut, nire salbamena lurraren azken mugaraino irits dadin. **Sal 71 [70]:** Nire ahoak iragarriko du, Jauna, zure salbamena.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13,21-33.36-38.**

Aldi hartan, ikasleekin mahaiari eseria zegoela, larritu egin zitzaion Jesusi barrua, eta argi adierazi zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Zuetako batek salduko nau». Ikasleak elkarri begira jarri ziren, zeinez ari zen asmatu ezinik.

Ikasleetako bat, Jesusek hain maite zuena, haren ondo-ondoan zegoen mahaiari. Simon Pedrok keinu egin zion, zeinez ari zen galdetzeko adieraziz. Hark, burua Jesusen bular gainean jarriz, galdetu zion: «Zein da, Jauna?»

Jesusek erantzun zion: «Ogi-puska busti hau emango diodana, huraxe da». Eta ogi-puska bustiz, Judasi, Simon Iskarioteraren semeari, eman zion. Eta ogi-puskarekin batera Satanasko sartu zitzaion barrura.

Orduan, Jesusek esan zion: «Egin behar duzuna egizu berehalaz». Mahaikideetako inork ez zuen ulertu zergatik esan zion hori. Judasek diru-poltsaren ardura zuenez, zenbaitek uste izan zuen jairako behar zena erosteko edota behartsuei zerbait emateko esan ziola. Judas ogi-puska hartu eta berehala atera zen. Gaua zen.

Atera zenean, esan zien Jesusek: «Oraintxe agertuko da Gizonaren Semearen aintza, eta haren bidez Jainkoarena. Jainkoaren aintza haren bidez agertzen bada, Jainkoak ere bere aintzaz beteko du hura, eta berehala gainera.

Semetxook, oraintxe ez nago luzarorako zuekin. Nire bila ibiliko zarete, baina juduei esan niena bera esaten dizuet zuei ere: “Ni noan tokira, zuek ezin zarete joan”».

Simon Pedrok galdetu zion: «Jauna, nora zoaz?» Jesusek erantzun: «Ni noan lekura zuek ezin didazu jarraitu orain niri; geroago bai, jarraituko didazu».



Pedrok esan zion: «Zergatik ezin dizut jarraitu orain? Neure bizia emango dut zugatik». Jesusek erantzun zion: «Zeure bizia emango duzula nigatik? Egi-egiaz esaten dizut: Oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu».

**J**esus kritikatu egin dute arerioek eta juzkatu buruzagi erlijioso eta politikoei; berak adorea eta konfiantza agertu izan du horren aurrean. Oraingoan, ordea, estualdi garratzagoa datorkio gainera: lehen orduko adiskideak berak dira, bere isilgordeen eta erruki huts den Jainkoaz izan duen esperientziaren berri eman izan dien haiek berak. Judasek gaizkia itzuliko dio ongiaren truk; Pedro ez da gai izango bere adiskidetasunari eusteko, Jesusentzat gauzak itsusi jarriko direnean; ez da Pedro Jesusi nola jarraitu erabakiko duena. Gu geu oso buru bero agertu ohi gara Pedoren bizkar, eta luze jo ohi digu konturatzeak, Jesusi jarraitzen badiogu, ez dela izango geure merezimenduei esker, baidiz eta Jesusen beraren graziari esker.

\* \* \*

## MAITASUNA

Jesus Haurraren Teresak esana: «Ulertu nuen, maitasunak bakarrik eragiten diola jardutera Elizaren jendeari eta, maitasunak huts egin izan balie, apostoluek berek ez zutela Ebanjelioa hots egingo, ezta martiriek ere odola isuriko. Argi eta garbi ikusi nuen eta konbentzitu nintzen, maitasunak bere baitan dituela bokazio guztiak, maitasuna dela den-dena, aldi eta alde guztiak atzematzen dituela; hitz batean esateko, maitasuna beti-betikoa dela... Elizaren, nire amaren, bihotzean, ni maitasun izango naizela».

Aste Santua.

San Fortunato, *martiria*.

[Isaias profetaren liburutik 50,4-9a: Ez nien aurpegia saihestu irainei. Sal 69 [68]: Erantzun, ene Jainko, zeure maitasun handiaz, mesede-garaia duzu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 26,14-25.

Aldi hartan, Hamabietako batek, Judas Iskariote zeritzanak, apaizburuengana joan eta esan zien: «Zenbat agintzen didazue, Jesus zuei eskura emateagatik?» Haiek zilarrezko hogeita hamar txanpon agindu zioten. Orduz gero, Jesus haiei eskura emateko egokiera bila zebilen Judas.

Legamiagabeko Ogien Jaiko lehen-egunean, ikasleek Jesusengana hurbildu eta galdetu zioten: «Non nahi duzu pazko-afarirako prestaketak egitea?» Jesusek erantzun zien: «Zoazte hirira, halakoagana, eta esaiozue: “Maisuak dio hurbil dela beraren ordua, eta zuen etxean ospatu nahi duela Pazkoa ikasleekin”». Jesusek agindu bezala egin zuten ikasleek, eta pazko-afaria prestatu zuten.

Ilunabarrean, mahaian zegoen Jesus hamabi ikasleekin eta, afaltzen ari zirela, esan zuen: «Benetan diotsuet: Zuetako batek saldu egingo nau». Ikasleak, oso goibeldurik, galdezka hasi zitzaizkion baina: «Nik ote, Jauna?»

Hark erantzun: «Nirekin plater beretik jaten ari den batek salduko nau. Gizonaren Semea badoa, Liburu Santuek hartaz dioten bezala; baina dohakabea Gizonaren Semea salduko duena! Hobe zukeen jaino izan ez balitz».

Orduan, Judasek, salduko zuenak, galdetu zion: «Ni al naiz, Maisu?» Jesusek erantzun zion: «Zeuk esan duzu».

**G**ogoratzen naiz emakume batek komentatu zidala, ezen Judasen amak asko sufritu behar izan zuela bere semearen saldukeriagatik. Kalte egiten duen pertsona baten ondoan, beste bizitza batzuk penatzen

Aste Santua.

San Fortunato, *martiria*.

dituen baten ondoan, ama bat egoten da, semea maitatzen jarraitzen duena, semearen begietan izan zen haur xalo hura ikusten duena. Jesusek bere mahaian onartu du Judas, bere egia eskaini dio, oinak garbitu dizkio; Erreinuko sekretuak agertu dizkio... Nolatan ez zuen jakin Judasek maitasunari harrera ona egiten?, nolatan itzuli zion kaltea hartutako hainbesteko onaren truke? Gizakiak zirika du beti gaitza, ezin ulertu dugun misterioa da. Jesusen etsenplua dugu eskura: ez zion ukatu sekula bere samurtasuna Judasi.

\* \* \*

### EGIA BAKARRA?

Sinesten badut ere Jesus dela «bidea, egia eta bizia», ez naiz sekula seguru izango ezen nire ikuspegi erlijiosoa bat datorrela Egiarekin. Beti gogoratzen naiz Txinako misiolari hartaz: XX. mendearen hasieran jendetza bati predikatzen ari zen kristau-ikasbidea, eta, bukatzeko, esan zien: «Iragarri berria dizuet egia!» Txinatar batek eskua altxatu zuen eta hitza eman zioten: «Aita, hiru egia dira: zurea, nirea eta egia egiazkoa. Zuk eta nik, biok batean, ibili behar dugu egia egiazkoaren bila» (*Frei Betto*).

Aste Santua.

Santa Atanasia, *aitorlea*.San Eusebio, *gotzaina*.

## § Irteera liburutik 12,1-8.11-14.

Egun haietan, honela mintzatu zitzaien Jauna Moisesi eta Aaroni Egipton: «Hilabete hau izango duzue hilabete nagusia, urte guztiko lehenengoa. Esaiozue israeldarren elkarte osoari: “Hil honen hamaurrean, bakoitzak abere xehe bat hartuko du, familia eta etxe bakoitzeko bana. Abere osoa jateko familia aski ez bada, aldameneko bizilagunekin elkartuko da, bakoitzak jan dezakeenaren arabera zenbat lagun behar den kontuan harturik. Aberea akatsik gabea izango da, arra, urtekoa, arkume nahiz antxume. Hilaren hamalaua arte gordeko duzue, eta egun horretan, ilunabarrean, israeldar elkarteko guztiak hilko dute. Gero, odola hartu eta jango duzuen etxeko atearen bi zutoinak eta ateburua odoleztatuko dituzue. Gau horretan, suan erre jango duzue haragia, legamiagabeko ogiz eta belar mingotsez lagundurik.

Honela jango duzue: gerria loturik, oinetakoak jantzirik eta makila eskuan, abiatzeko prest; presaka jango duzue, Jaunaren Pazkoa baita, hau da, Jaunaren igarotzea. Gau horretan Egipto osoan zehar igaroko naiz, eta hil egingo ditut Egiptoko lehen-ume guztiak, bai gizakienak eta bai abereenak, eta neure epaia emango diet Egiptoko jainkoei. Ala Ni Jauna! Odola izango duzue ezaugarri zuek zaudeten etxeetan. Odola ikustean, aurrera igaroko naiz; horrela, Nik egiptoarrak jotzean, izurriak ez zaituzte suntsituko.

Egun hau gogoangarri izango duzue eta jai nagusiz ospatuko duzue Jaunaren ohoretan. Jai honen ospakizuna betiko lege izango duzue belaunez belaun”»

[Sal 116 [115]: Esker onezko kalizak Kristoren odolean elkartzen gaitu.]

## § San Paulok 1 Korintoarrei 11,23-26.

Senideok: Jaunagandik hartu nuen nik, neure aldetik zuei eman dizuedan hau: Jesus Jaunak, saldu zuten gauean, ogia hartu eta, esker

onezko otoitza eginez, zaitu zuela eta esan: «Hau nire Gorputza da, zuentzat emana. Egizue hau nire oroigarri».

Afal ondoan gauza bera egin zuen kalizarekin, esanez: «Kaliza hau itun berria da, nire Odolaz sinatua; egizue hau, edaten duzuen ba-koitzean, nire oroigarri».

Beraz, ogi honetatik jaten eta kaliza honetatik edaten duzuen ba-koitzean, Jaunaren heriotza iragartzen duzue, hura etorri arte

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13,1-15.

Pazko-jaia gainean zen. Jesusek, mundu hau utzi eta Aitagana joa-teko ordua iritsi zitzaiola jakinik, munduan ziren beretarrak maite iza-nik, azkenean bete-betean maitatu zituen.

Afaltzen ari ziren. Ordurako deabruak sartua zion buruan Simon Iskarioteren seme Judasi Jesus saltzeko asmoa. Jesus, Aitak dena bere esku jarri ziola, Jainkoagandik etorria zela eta Jainkoagana zihoala jakinik, jaiki zen mahaitik, erantzi zuen soingainekoa eta, eskuzapia harturik, gerrian lotu zuen; gero, ontzi bat urez bete eta ikasleei oinak garbitzen hasi zitzaien, eta gerrian zuen eskuzapiaz lehortzen.

Simon Pedrogana iritsi zenean, honek esan zion: «Jauna, Zuk niri oinak garbitu?» Jesusek erantzun zion: «Ni egiten ari naizena zuk ez duzu orain ulertzen; geroago ulertuko duzu».

Pedrok berriro: «Zuk ez didazu niri sekula oinik garbituko». Je-susek erantzun: «Garbitzen ez bazaitut, ez duzu nirekin zerikusirik izango».

Simon Pedrok esan zion: «Jauna, orduan oinak ez ezik, baita es-kuak eta burua ere». Jesusek erantzun zion: «Garbitua hartu duenak ez du oinak baizik garbitu beharrik, erabat garbi baitago; eta zuek garbi zaudete, baina ez denok». Izan ere, bazekien nork salduko zuen; ho-rregatik esan zuen: «Ez zaudete denok garbi».

Oinak garbitu zizkienean, soingainekoa jantzi, berriro mahaian eseri eta esan zien: «Ulertzen al duzue egin dizuedana? Zuek Mai-

Aste Santua.

Santa Atanasia, *aitorlea*.

San Eusebio, *gotzaina*.

sua eta Jauna deitzen didazue, eta ongi deitu ere, halaxe naiz eta. Beraz, Nik, Jauna eta Maisua naizen honek, zuei oinak garbitu badizkizuet, zuek ere elkarrri oinak garbitu behar dizkiozue. Jarraibide eman dizuet, zuek ere Nik zuekin bezalaxe joka dezazuen».

**G**ogoan hartu behar da, zer esan nahi duen Jaunaren Pazkora gonbidatua izateak; harrera ona egin behar zaio, Jesus gure bizitzan eta historian apal-apal bizi izanari. Berak, Maisu eta Jaun izanik, beraren garaian emakumeei eta esklaboei zegokien keinua egin du. Jesus feminizatu egin da maitatzean. Gu geu ere lekuz kanpo jartzen gara, Pedro bezala, buruak ezin eman digulako Jainko bat gure oinetan be-laniko ikustea, hartarainoko maitasunez maitatzen... Esan ohi dugu, hobe dela eman hartu baino; eta, hala da, baina zailtasuna sortzen da nola hartu ez dakigunean. Zerbitzari izan nahiz banabil, beste batzuei oinak garbitu nahiz banabil, lehenik hori bera nigatik egin dezan utzi gabe, ezin egingo dut hori adiskide gisa. Guri egiten uzteko Jesusek eskatzen digun keinua guztiz doakoa da, maitasun-gogoari dariona eta ez berak aitorten baten beharra izatetik. Zerbitzari izateko gure jokamol-dea garbitzen duen keinua da eta guztiok parekatzen gaituena. Raimon Panikkarrek dio: «Doakotasuna, galdua dugun zentzu bat da; horregatik galdu dugu Jainkoaren zentzua ere». Doan hartzeko gai naizenean bakarrik izango naiz doan eskaintzeko gai.

Aste Santua.

San Leon IX.a, 152. aita santua.

## § Isaiasen liburutik 52,13–53,12.

Hara, nire zerbitzariak arrakasta lortuko du; goratua, gorengo mailara jaso izango da. Asko eta asko ikaratu ziren hartaz, hain baitzuen giza itxura ere galdua eta gizakia zenik ere ez baitzirudien; era berean, herri asko harrituko dira, erregeak haren aurrean mutu geldituko, inoiz kontaktu ez zitzaiena ikusiko baitute, inoiz entzun ez zutena adituko. Nork sinetsi du gure mezua? Nori agertu zaio Jaunaren ahalmena? Sustraiak lur lehorrean dituen kimua bezala hazi zen Jaunaren zerbitzaria haren aurrean; ez zuen duintasunik, ez edertasunik, ez gure begientzat itxura erakargarririk; mespretxatua eta jendeak baztertua, oinaze-gizona, sufritzen ikasia; ez ikusiarena egiten zaiona bezala, mespretxatu egin genuen eta aintzakotzat hartu ez. Baina gure gaitzak bere gain hartu zituen hark eta gure oinazeak eraman.

Guk, berriz, zigortuzat geneukan, Jainkoak zauritu eta atseka-betuzat. Gure bekatuengatik zulatu zuten, gure erruengatik zanpatu. Haren gainera erori zen guretzat salbagarri den zigorra: haren zauriek sendatu gaituzte.

Ardiak bezala genbiltzan galdurik, bakoitza geure bidetik, eta Jaunak haren gainera bota zuen gu guztion errua. Gaizki erabili zuten, baina hura apaldu egin zen, ahorik zabaldu gabe. Hiltzera daramaten bildotsak bezala, ile-moztaileen aurrean isilik dagoen ardiak bezala, ez zuen ahorik zabaldu. Gogorki eta zuzengabe eraman zuten; baina haren zoria nori axola? Bizidunen lurretik erauzi zuten, nire herriaren bekatuagatik jota. Gaiztoen artean lur eman zioten, gaizkileekin batera hilobiratu, nahiz eta hark bidegabekeriarik ez egin eta haren ahoan maltzurkeriarik ez izan.

Jaunak oinazez josi nahi izan zuen. Bekatuen ordainetan bizia eman zuelarik, izango ditu ondorengoak eta bizitza luzea, eta haren bitartez Jaunaren nahia burutuko da. Hainbat neke jasan ondoren, argia ikusiko du eta ase izango da. Ikasi duenaren bidez, nire zerbitzari zuzenak asko egingo ditu zuzen, haien gaitzakeriak bere gain hartu baitzituen.

Aste Santua.

San Leon IX.a, 152. aita santua.

Horregatik, jendetza ugaria emango diot ordainetan, gizataldeak izango ditu garaipen-sari, bere burua heriotzara eman zuelako eta bekatarien kideztat hartu zutelako. Denen bekatuak bere gain hartu zituen eta bekatarien alde erregutu zuen.

Sal 31 [30]: Aita, zure eskuetan uzten dut neure espiritua!]

§ Hebrearrei liburutik 4,14-16; 5,7-9.

Senideok: Gure apaiz nagusi handia, Jesus, Jainkoaren Semea, zereuetan sartua dugunez gero, euts diezaiogun aitortzen dugun sinesmenari; izan ere, gure apaiz nagusia ez da gure ahuleriaz erruki ez daitekeen norbait, hura ere, gu bezala, gauza guztietan probatua izan baita, bekatuan izan ezik. Hurbil gaitezen, bada, konfiantza osoz Jainkoaren graziaren tronura, errukia iritsi eta premialdian laguntza izan dezagun.

Kristok, bere giza bizitzaldian, deiar dar handiz eta negarrez egin zion otoitz eta erregu heriotzatik libra zezakeen Jainkoari, eta, Kristok begirune izan ziolako, entzun egin zion Jainkoak. Eta Semea izanik ere, oinazearen oinazez ikasi zuen obeditzen; horrela, bere betera iritsirik, betiko salbamenaren iturri bilakatu zen obeditzen dioten guztientzat

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 18,1–19,42.

*Getsemanin, Jesus preso hartu  
eta loturik eraman.*

**K** Aldi hartan, Jesus eta ikasleak Zedron erreka igaro eta beste aldean zegoen baratze batera sartu ziren. Judasek ere, Jesus salduko zuenak, ezagutzen zuen leku hura, maiz bildua baitzen Jesus han bere ikasleekin.

Judas, beraz, tenpluko gudari-taldea eta apaizburuak eta fariseuen guardiak harturik, hara joan zen. Zuzi, argiontzi eta armez horniturik



Aste Santua.

San Leon IX.a, 152. aita santua.

zihoazen. Jesusek, ondo baitzekien gertatuko zitzaion guztia, bidera atera eta esan zien:

**S** «Noren bila zatozte?»

**K** Haiek erantzun:

**S** «Jesus Nazaretarraren bila».

**K** Hark orduan:

† «Ni naiz».

**K** Han zen guardiekin batean Judas saltzailea ere. Jesusek «Ni naiz» esan zienean, atzeraka hasi eta lurrera erori ziren. Berrito galdetu zien:

† «Noren bila zatozte?»

**K** Haiek erantzun:

**S** «Jesus Nazaretarraren bila».

**K** Eta Jesusek:

† «Esan dizuet Ni naizela. Nire bila bazatozte, utzi hauei joaten».

**K** Horrela bete zen Jesusek berak esandakoa: «Eman dizkidazunetatik ez dut bat ere galdu».

Orduan, Simon Pedrok, aldean zeraman ezpata atera, apaiz nagusiaren morroia jo eta eskuineko belarria moztu zion. Morroiak Malko zuen izena. Jesusek esan zion Pedrori:

† «Itzuli ezpata zorrora. Ez al dut, ba, edan behar Aitak eman didan edaria?»

*Jesus Anasen etxera eraman zuten lehenengo.*

**K** Gudari-taldeak bere buruzagiarekin eta judu-agintarien guardiek Jesus preso hartu eta, loturik, Anasen etxera eraman zuten lehenengo; urte hartako apaiz nagusi Kaifasen aitaginarreba zen Anas hau (Kaifas zen juduei aholku hau eman ziena: «Hobe da gizon bat herriagatik hiltzea»).

Simon Pedro eta beste ikasle bat Jesusen atzetik joan ziren. Beste ikaslea apaiz nagusiaren ezaguna zen eta, Jesusekin batera, apaiz

Aste Santua.

San Leon IX.a, 152. aita santua.

nagusiaren jauregiko patiora sartu zen; Pedro, berriz, kanpoan gelditu zen, ate ondoan. Atera zen orduan apaiz nagusiaren ezaguna zen ikaslea eta, atezainari hitz egin ondoren, Pedro barrura sarrarazi zuen. Atezain zegoen neskameak esan zion Pedrori:

**S** «Zu ere ez al zara gizon horren ikasleetakoa?»

**K** Pedrok erantzun:

**S** «Ez, ez naiz!»

**K** Morroiak eta guardiak sua piztu eta berotzen ari ziren, hotz egi ten baitzuen. Pedro ere haiekin zegoen, berotzen. Apaiz nagusiak bere ikasleez eta irakatsiaz galdetu zion Jesusi. Jesusek erantzun zion:

† «Ageri-agerian hitz egin izan diot Nik mundu guztiari; sinagoga eta tenpluan irakatsi izan dut beti, judu guztiak biltzen diren lekuan, eta ezer ere ez dut ezkutuan esan. Zergatik galdetzen didazu niri? Galdetu nire entzuleei eta emango dizute esan dudanaren berri.»

**K** Hori esan zueneko, han zegoen guardia batek masaileko bat eman zion, esanez:

**S** «Horrela erantzuten al diozu apaiz nagusiari?»

**K** Jesusek erantzun zion:

† «Gaizki hitz egin badut, esan zertan; baina ongi hitz egin badut, zergatik jo nauzu?»

**K** Orduan, Anasek Kaifas apaiz nagusiagana bidali zuen Jesus lotua.

*Zu ere ez al zara, ba, horren ikasleetakoa?  
Ez, ez naiz!*

Bitartean, han zegoen Simon Pedro berotzen, eta esan zioten:

**S** «Zu ere ez al zara horren ikasleetakoa?»

**K** Pedrok ukatu egin zuen, esanez:

**S** «Ez, ez naiz!»

**K** Apaiz nagusiaren morroietako batek, Pedrok belarria moztu zionaren ahaideak, esan zion:

Aste Santua.

San Leon IX.a, 152. aita santua.

**S** «Ez ote zaitut, ba, neuk ikusi horrekin baratzean?»

**K** Ukatu egin zuen Pedrok berriz ere, eta berehala oilarrak jo zuen.

*Nire erregetza ez da mundu honetakoa.*

Kaifasen etxetik Gobernariaren jauregira eraman zuten Jesus. Goizalde zen. Juduak ez ziren jauregian sartu, beren burua ez kutsatzeko, bestela ezin izango baitzuten pazko-afarian parte hartu. Pilatok kanpora atera eta galdetu zion:

**S** «Zertaz salatzen duzue gizon hau?»

**K** Haiek erantzun zioten:

**S** «Gaizkilea ez balitz, ez genizukeen ekarriko».

**K** Pilatok esan zion:

**S** «Eraman zeuek eta epaitu zeuen legearen arabera».

**K** Juduek orduan:

**S** «Guri ez zaigu zilegi inor heriotzara kondenatzea».

**K** Horrela beteko zen Jesusek esandakoa, zein heriotzaz hilko zen adierazi zuenean. Pilato jauregira sartu zen berriro eta, Jesusi deiturik, galdetu zion:

**S** «Zu al zara juduen erregea?»

**K** Jesusek erantzun:

† «Zeure kabuz galdetzen didazu hori ala besteek esan dizute hori nitaz?»

**K** Pilatok esan zion:

**S** «Judua ote naiz, ba, ni? Zeure herritarrek eta apaizburuek ekarri zaituzte nigana. Zer egin duzu?»

**K** Jesusek erantzun:

† «Nire erregetza ez da mundu honetakoa. Nire erregetza mundu honetakoa balitz, nire jendeak borroka egingo luke, Ni juduen eskue-tan ez erortzeko. Nire erregetza, ordea, ez da hemengoa».

**K** Orduan, Pilatok esan zion:

**S** «Beraz, errege zara Zu?»

Aste Santua.

San Leon IX.a, 152. aita santua.

**K** Jesusek erantzun zion:

† «Bai, errege naiz, zeuk diozun bezala. Honetarako jaio eta etorri naiz mundura: egiaren testigantza egiteko. Egiarena denak entzuten du nire ahotsa».

**K** Pilatok galdetu zion:

**S** «Zer da egia?»

**K** Hori esanik, berriz ere juduengana atera eta esan zien:

**S** «Nik ez diot errurik aurkitzen gizon honi. Baina baduzue ohitura nik Pazko-jaietan preso bat askatzekoa: nahi al duzue juduen erregea askatzea?»

**K** Haiek, berriz, deiadarka:

**S** «Hori ez! Askatu Barrabas!»

**K** Barrabas hau bidelapurra zen.

*Agur, juduen errege!*

Pilatok, orduan, Jesus zigorkatzeko agindu zuen. Gudariak, arantzako koroa eginik, buruan ezarri zioten eta purpurazko mantua bota zioten gainera. Eta, hurbildurik, esaten zioten:

**S** «Agur, juduen errege!»

**K** Eta masailekoka zerabilten. Atera zen berriro ere Pilato eta esan zien juduei:

**S** «Hara, kanpora dakarkizuet, jakin dezazuen ez diodala errurik aurkitzen».

**K** Atera zen, bada, kanpora Jesus, arantzazko koroa eta purpurazko mantua zeramatzala.

Pilatok esan zien:

**S** «Hona gizona!»

**K** Apaizburuak eta guardiak, hura ikustean, deiadarka hasi ziren:

**S** «Gurutzera hori! Josi gurutzean!»

**K** Pilatok esan zien:

**S** «Eraman zeuek eta gurutziltzatu; nik ez diot errurik aurkitzen».

Aste Santua.

San Leon IX.a, 152. aita santua.

**K** Juduek erantzun zioten:**S** «Guk badugu legea, eta lege horren arabera heriotza-zigorra merezi du, Jainkoaren Seme egin baitu bere burua».**K** Hori entzutean, are gehiago beldurtu zen Pilato eta, berriro jau-regira sarturik, galdetu zion Jesusi:**S** «Nongoa zara Zu?»**K** Jesusek, ordea, ez zion erantzun ere egin. Orduan, Pilatok esan zion:**S** «Ez al didazu erantzun behar? Ez al dakizu aginpidea dudala Zu askatzeko nahiz gurutziltzatzeko?»**K** Jesusek erantzun zion:**†** «Ez zenuke nire gain inolako aginpiderik izango, Jainkoak eman ez balizu. Horregatik, zure eskura eman nauenak bekatu handiagoa du».*Ken hori, ken! Josi gurutzean!***K** Ordudanik, Jesus askatu nahian zebilen Pilato. Baina juduak deiadarka hasi zitzaizkion:**S** «Hori askatzen baduzu, ez zara enperadorearen adiskide. Bere burua errege egiten duena enperadorearen aurka ari da».**K** Pilatok, hitz horiek entzutean, kanpora eraman zuen Jesus eta auzitegian eserarazi, «Har lauzatua» zeritzan lekuan –hebreeraz «Gabbata»–. Pazko-jairako prestaketa-eguna zen, eguerdi ingurua. Pilatok esan zien juduei:**S** «Hona zuen erregea!»**K** Orduan, haiek deiadarka:**S** «Ken hori, ken! Josi gurutzean!»**K** Eta Pilatok:**S** «Gurutziltzatu egin behar al dut zuen erregea?»**K** Apaizburuek erantzun zioten:**S** «Ez dugu enperadorea beste erregerik».

Aste Santua.

San Leon IX.a, 152. aita santua.

**K** Orduan, Pilatok haien esku utzi zuen, gurutziltza zezaten.

*Gurutzean josi zuten,  
eta harekin batean beste bi.*

Hartu zuten, beraz, Jesus, eta, gurutzea sorbaldan zeramala, «Buru-hezur» –hebreeraz «Golgota»– zeritzan lekurantz atera zen. Han josi zuten gurutzean, eta harekin batean beste bi, alde banatan, eta erdian Jesus. Pilatok kartel bat idatzi eta gurutze-buruan ipini zuen; hau zegoen idatzia: **JESUS NAZARETARRA JUDUEN ERREGEA.**

Judu askok irakurri zuen kartela, hiritik hurbil baitzegoen Jesus gurutziltzatu zuten lekua; gainera, hebreeraz, latinez eta grekoz zegoen idatzia. Juduen apaizburuek esan zioten Pilatori:

**S** «Ez idatzi “Juduen erregea”, baizik “Juduen erregea dela dioena”».

**K** Pilatok erantzun zuen:

**S** «Idatzia bego idatzirik!»

*Nire jantziak beren artean  
banatu zituzten.*

**K** Gudariek, Jesus gurutzean josi ondoren, haren jantziak hartu eta lau zati egin zituzten, bakoitzarentzat bat; gero, tunika hartu zuten, baina josturarik gabea, goitik behera ehundua, zenez, esan zioten elkarri:

**S** «Ez dezagun urratu; zotz egin dezagun, ea zeinentzat den».

**K** Horrela bete zen Liburu Santuak dioena: «Nire jantziak beren artean banatu zituzten, eta nire tunika zotz egin». Hain zuzen ere, horixe egin zuten gudariek.

*Horra hor zeure semea!  
Horra hor zeure ama!*

Aste Santua.

San Leon IX.a, 152. aita santua.

Jesusen gurutzearen ondoan zeuden haren ama, amaren ahizpa, Maria Kleofasen emaztea eta Maria Magdalena. Jesusek, bere ama eta, honen ondoan, maite zuen ikaslea ikusirik, esan zion amari:

† «Emakume, horra hor zeure semea!»

**K** Gero, ikasleari esan zion:

† «Horra hor zeure ama!»

**K** Eta orduz gero ikasleak bere etxean hartu zuen.

*BBete da dena!*

Ondoren, Jesusek, dena betea zela jakinik, Liburu Santuak esana erabat bete zedin, esan zuen:

† «Egarri naiz!»

**K** Bazen han ozpinez betetako pitxar bat. Orduan, belaki bat ozpintan busti eta, kanabera bati muturrean erantsiz, ezpainetara hurbildu zioten. Ozpina hartu zuenean, Jesusek esan zuen:

† «Bete da dena!»

**K** Eta, burua makurtuz, azken arnasa eman zuen.

**Hemen, belauniko jarri eta egonalditxo bat egingo da.**

*Odola eta ura atera ziren.*

Pazko-jairako prestaketa-eguna zen, eta juduek ez zuten nahi larunbatean gorpuak gurutzean gelditzerik, larunbat hura oso jaiegun handia baitzen. Horregatik, gurutziltzatuei berna-hezurak hautsi eta handik kentzeko eskatu zioten Pilatori. Joan ziren, bada, gudariak eta berna-hezurak hautsi zizkieten Jesusekin gurutziltzatutako bie; baina, Jesusengana iritsi zirenean, ordurako hilik zegoela ikusirik, ez zioten berna-hezurrik hautsi, baizik eta gudari batek lantzaz saihetsa zulatu zion, eta bat-batean odola eta ura atera ziren.

Aste Santua.

San Leon IX.a, 152. aita santua.

Ikusi zuenak berak aitortzen du eta egiazkoa da haren aitomena. Hark badaki egia dioela, zuek ere sinets dezazuen. Liburu Santuak dioena bete zedin gertatu zen hau: «Ez diote hezurrik hautsiko». Eta beste pasarte batean hau dio: «Zulatu zutenari begiratu diote».

*Jesusen gorpua oihal-zerrendaz lotu zuten,  
tarteaz lurrun-gaiak ezarriz.*

Gero, Arimateako Josek Jesusen gorpua eramateko baimena eskatu zion Pilatori. Jesusen ikaslea zen Jose, baina isilpean, juduen beldurrez. Pilatok baimena eman zion. Hark, orduan, joan eta Jesusen gorpua eramanez joan zen.

Etorri zen Nikodemo ere, behin batean gaeuz Jesus ikustera joan zen hura, hogeita hamarren bat kiloko mirra eta aloezko nahastura zerkarrela. Hartu zuten, bada, Jesusen gorpua eta oihal-zerrendaz lotu zuten, tarteaz lurrun-gaiak ezarriz, juduek hobiratzeko duten ohituraren arabera. Jesus gurutziltzatu zuten lekutik hurbil, baratze bat zegoen, eta baratzean ordu arte inor ehortzi gabeko hilobi berria. Hilobia hurbil zegoenez, hantxe ipini zuten Jesus, juduen Pazko-eguna hastear baitzegoen.

**D**omingotar emakume batek kontatua da. Ikasgelan txikiekin Nekaldiko kontakizuna irakurri zuten. Ehuntariak «hau egiaz Jainkoaren semea zen» pasartera iristean, deiadar bat entzun zuten. Haur baten oihua zen ikasgelako atzeko muturrean: «garai ederrean!» Denbora asko behar izaten dugu, aurpegi bakoitzean bizi den Jainkoaren argia eta arrastoa atzemateko. Antzina esklaboari «aprosopos» («aurpegirik gabea») esaten zitzaion, «ikusten ez dugun hura», soilik animalia zamari den hura, lan egiten duen gorputz huts hura. Atentziaz ematen du jakiteak zenbat gizon-emakume hartzen den gaur egun «aprosopozat», gizatar baino gutxiago da, merkantzia, esku-



Aste Santua.

San Leon IX.a, 152. aita santua.

lan, aurpegi zaurtu, zeinekin inolako zigorrik gabe trafikutzen baita. Gizon eta emakume, aurpegia estalirik, ilundurik, Jainkoak munduaz duen ametsa zapuzturik. Gurutzean «apropos» baten aurpegi izan da Jesusena: beren aurpegia desitxuraturik, ez ikusia egiten dietela uste duten guztiek begira diezaioten eta harengan berena ikus dezaten. Beretzat ezer gorde gabe eskainia den aurpegia da, aurpegi bedeinkatua eta martirizatua, inongo arotako emakumeek ezin arindu eta musukatu izan dutena erabat.

\* \* \*

Gorputz maitasunak zauritua,  
adoratzen zaitut  
eta jarraitu nahi dizut.  
Oi jaunen Jauna,  
zure oinazeak  
banatu nahi ditut  
gurutzera igoz  
zurekin (*Peman*).

Aste Santua.

San Zakeo, *zerga-biltzailea*.Santa Ines Montepulciano-koa, *birjina*.

## § Irteera liburutik 14,15–15,1a.

Aldi hartan, Jaunak esan zion Moisesi: «Zergatik ari zataizkit oihuka? Esan israeldarrei aurrera egiteko. Eta zuk jaso makila eta luzatu eskua itsas gainera: erdi bi egingo da itsasoa eta israeldarrak erditik igaroko dira, oinik busti gabe. Nik setatsu bihurtuko ditut egiptoarrak, atzetik jarrai diezazueten, eta neure aintza agertuko dut faraoiaren eta haren gudarostearen bizkar, haien gurdien eta zaldizkoen bizkar. Orduan jakingo dute egiptoarrek Ni naizela Jauna, neure aintza agertuko dudanean faraoiaren eta haren gudarostearen bizkar, haien gurdien eta zaldizkoen bizkar».

Israeldarren aurretik zihoan Jainkoaren aingerua atzealdera pasatu zen; laino-adarra ere lekuz aldatu eta atzealdean kokatu zen, israeldarren eta egiptoarren artean jarriz. Lainoa ilunpe bihurtu zen, eta ezin izan ziren gau osoan elkarrengana hurbildu.

Luzatu zuen Moisesek eskua itsas gainera eta, Jaunak eraginda, ekialdeko haize indartsuak jo zuen gau guztian. Haizeak itsasoa lehortu zuen, eta urak erdibi egin ziren. Itsasoa zabaldutako lehor-bidetik igaro ziren israeldarrak, oinik busti gabe, urak ezker-eskuin zituztela harresi gisa. Egiptoarrak, faraoiaren zaldi, gurdi eta zaldizko guztiak, israeldarrei erasoka itsas erdiraino sartu ziren.

Goizaldean, Jaunak su- eta laino-adarretik egiptoarren gudarosteari begiratu zion eta nahasmendua sortu zuen haren baitan. Gurdien gurpilak trabatu zituen, nekez mugitzen zirela utziz. Orduan, egiptoarrek esan zuten: «Goazen ihesi israeldarrendik, Jauna ari baita haien alde eta gure aurka».

Baina Jaunak esan zion Moisesi: «Luzatu eskua itsas gainera, urak egiptoarren gainera, haien gurdien eta zaldizkoen gainera, bihur daitezten». Luzatu zuen Moisesek eskua itsas gainera; eguna argitzean urak ohiko lekura itzuli ziren, eta egiptoarrek, ihes egiteko ahaleginean, urarekin aurrez aurre topo egin zuten; Jaunak itsas hondora amildu zituen egiptoarrak. Beren lekura itzultzean, urek estali egin zituzten is-

raelarren atzetik itsasoan sartu ziren gurdiak, zaldizkoak eta faraoiarren gudaroste osoa; ez zen bat bakarra ere bizirik atera. Israeldarrak, berriz, oinik busti gabe igaro ziren itsas erditik, urak ezker-eskuin ziztuztela harresi gisa.

Egun hartan Jaunak salbatu egin zuen Israel egiptoarren eskuetatik, eta hilik ikusi zituen Israelek egiptoarrak itsasbazerrean. Eta Jaunak egiptoarren kontra erabili zuen ahalmen handia ikusirik, herriak begirune izan zion Jaunari, eta Jaunagan eta honen zerbitzari Moisesengan jarri zuen uste ona.

Orduan, Moisesek eta israeldarrek kantu hau abestu zioten Jaunari:

[Ir 15, 1b-2. 3-4. 5-6. 17-18 (R/. 1b): Jaunari diot kantatzen, garaipen handia lortu duelako.]

### § Ezekiel profetaren liburutik 36,16-17a.18-28.

Honela mintzatu zitzaidan Jauna: «Gizaseme! Israel herriak, bere lurraldean bizi zenean, kutsatu egin zuen lurraldea bere jokabide eta egintza txarrez. Orduan, haien gainera isuri nuen neure sumina, lurraldean odola isuri eta idolatriaz kutsatu zutelako. Atzerriko nazioetan eta lurraldeetan sakabanatu nituen. Beren jokabide eta egintza txarren arabera epaitu nituen. Eta nazio haietara iritsi zirenean ere, nire izen santua belztu zuten, jendea hau esatera bultzatuz: “Jaunaren herria dira, eta haren lurraldetik irten egin behar izan dute”. Orduan, nire izen santua garbitu nahi izan nuen, belztu egin baitzuen Israel herriak, egon zen nazioetan.

Esaiozu, beraz, Israel herriari: Hau dio Jaunak: “Ez dut hau zuenagatik, israeldarrogatik, egiten, baizik eta zuek egon zareten nazioetan belztu duzuen nire izen santuagatik. Santu agertuko dut neure izen handia, nazioetan kutsatua dagoena, haien artean zuek kutsatu duzuen nire izena. Eta zuen bidez haien aurrean santu agertuko naizenean, orduan jakingo dute nazio haiek Ni naizela Jauna –dio Jainko Jaunak–.

Aste Santua.

San Zakeo, *zerga-biltzailea*.Santa Ines Montepulciano-koa, *birjina*.

Nazioen artetik hartuko zaituztet, lurralde guztietatik bilduko eta zeuen lurraldera ekarriko. Ur garbiz zipriztinduko zaituztet, eta garbi geldituko zarete; zeuen kutsadura eta idolatria guztietatik garbituko zaituztet.

Bihotz berria emango dizuet eta barnean espiritu berria ezarriko. Harrizko bihotza kenduko dizuet eta haragizkoa emango. Neure espiritua ipiniko dut zuengan, eta gai egingo zaituztet nire legeen arabera ibiltzeko eta nire aginduak arretaz betetzeko. Zuen arbasoei eman nien lurraldean biziko zarete; nire herri izango zarete zuek, eta Ni zuen Jainko”».

[Sal 42 [41]: Basahuntza iturrien irrikaz bezala, hala daukat, Jainko, gogoan irrikaz Zugana..]

### § San Paulok Erromatarrei 6,3-11.

Senideok: Bataioaz Kristo Jesusekin bat egin dugunok, haren heriotzarekin egin dugu bat. Bataioaren bitartez harekin heriotzan hobiratuak izan gara, Aitaren aintzaz Kristo hilen artetik piztu zen bezala, guk ere bizi berria bizi dezagun.

Izan ere, harena bezalako heriotzan hari itsatsiak izan bagara, hala-xe izango gara harena bezalako piztueran ere. Badakigu lehengo gure izaera Kristorekin gurutziltzatua izan dela, bekatuzko gure izaera hori ezereztua gelditi zedin eta aurrerantzean bekatuaren esklabo izan ez ginatezen. Izan ere, norbait hiltzen denean, bekatutik aske gelditzen da.

Beraz, Kristorekin hil bagara, sinesten dugu, bizi ere harekin biziko garela. Badakigu Kristo, hilen artetik piztuz gero, ez dela berriro hilko; herioak ez du gehiago aginterik harengan; haren hiltzea bekatuentzat behin betiko hiltzea izan baitzen, eta haren bizitzea Jainkoarentzat bizitzea da. Berdin zuek ere; hartu kontuan bekatuentzat hilik zaudetela eta Jainkoarentzat bizirik, Kristo Jesusengan.

[Sal 118 [117]: Aleluia, aleluia, aleluia. Eskerrak Jaunari, ona baita, haren maitasuna betikoa baita. Esan bezate israeldarrek: haren maitasuna betikoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24,1-12.

Asteko lehen-egunean, goizean goiz, hilobira joan ziren emakumeak, prestaturik zituzten usain gozoko ukenduak eramanez. Hilobi-sarrerako harria iraulia aurkitu zuten. Sartu ziren, baina ez zuten Jesus Jaunaren gorpua aurkitu.

Zer pentsa ez zekitela zeuden; hartan, bi gizaseme agertu zitzaizkien jantzi distiratsuz. Emakumeak ikaraz eta burumakur zeudela, gizaseme haiek esan zieten: «Zer zabiltzate hilen artean, bizi denaren bila? Ez dago hemen; piztu da. Gogora ezazue Galilean zegoela esan zizuena: Gizonaren Semea bekatarien esku utzi behar zutela eta gurutziltzatu, baina hirugarren egunean piztu egin behar zuela». Haiek Jesusen hitzez oroitu ziren.

Eta, hilobitik itzulirik, gertaturiko guztien berri eman zieten Hamaiketa eta gainerako ikasleei. Maria Magdalena, Joana eta Santiagoren ama Maria ziren emakumeok; eta hauekin ziren beste emakumeek ere gauza bera esaten zieten apostoluei. Baina hauek zorakeriatzat hartu zituzten berriok, eta ez zieten sinetsi.

Hala ere, Pedro jaiki eta hilobira joan zen lasterka; makurturik, oihal-zerrendak besterik ez zuen ikusi, eta etxera itzuli zen gertatuaz harriturik.

**A**rtean ilun dela, azken maitasun-keinua egiteko prestatu dira emakumeak. Keinua bat itxuraz alferra da, ez eginkorra, guztiz doakoa, jada erremediorik ez dutenengana hurbiltzen den hainbat eta hainbat jenderena bezala. Emakume horiek trebeak dira Jaunaren gorputzari eta historiako gorputz zaurituei arreta eskaintzen. Gutxi ziren eta ahulak hilobi-sarrerako harria mugitzeko; halere, harantz

Aste Santua.

San Zakeo, *zerga-biltzailea*.

Santa Ines Montepulciano-koa, *birjina*.

doaz beren maitasunaren desioa beste indarrrik gabe. Zertan joan, ezin ahalko badugu ezer egin? Zenbat egoera geure bizitzan, buruz gain egiten digutenak. Eta azkenean, zertako!, eta zurrundurik gelditzen gara. Halaz guztiz, emakume horiek elkarrekin doaz, eta orduan dira seinaleak agertzen. Oztopoak eta guzti, hor doaz Jesusen bila eta hori da inporta duena. Eta joan-etorri dabiltzala, Berpiztuaren presentzia distiratsu eta xumeak harrapatu ditu. Emakume gutxi batzuk dira, usain gozoko ukendua daramate; agian, horixe dukegu geure bizitzako bidaia: besteengana joatea eskuak ukendu gozoz beterik, Jainkoaren ezustekoari bihotza irekirik, dena galdua dela ematen duenean, eta guztiok batean Jesusen hitzak gogoratzea. Noiz ikasi behar du gure Elizak emakumeen ahotsa entzun eta hartaz fidatzen?

\* \* \*

### GORETSAZUE JAINKOA

Erroman eta mundu osoan  
entzuten didazuen guztioi diotsuet  
eta eskaintzen Salmoaren gonbita:  
«Goretsazue Jauna, nazio guztiok,  
ospa ezazue, herri guztiok!  
Sendoa da guretzat haren maitasuna,  
beti-betikoa Jaunaren leialtasuna.  
Aleluia! Gora Jauna!» (Sal 117,1-2).

*(Frantzisko aita santua)*

Jesusen Piztuera.

Canterbury-ko San Antselmo, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

§ Apostoluen Eginak liburutik 10,34a.37-43.

Egun haietan, honela mintzatu zen Pedro: «Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek hots egin zuen bataioaren ondoren: Nazareteko Jesusena, alegia; Jainkoak Espiritu Santuaren indarrak gantzutu zuen, eta hark on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zuen bitizta, Jainkoa berekin baitzuen.

Eta gu gara hark juduen lurraldean eta Jerusalemen egindako guztien testigu. Jesus hau habe batetik zintzilik hil zuten; baina Jainkoak piztu egin zuen hirugarren egunean eta agertzeko ahalmena eman zion; ez, ordea, herri guztiari, Jainkoak aurrez testigutzat aukeraturakoei baizik: guri, alegia, hura hilen artetik piztu ondoren harekin jan eta edan dugunoi.

Jesusek berak agindu zigun herriari predikatzeke eta aitortzeke, bera dela Jainkoak bizien eta hilen epaile ipini duena. Profeta guztiak aitormen hau egiten dute hartaz: harengan sinets dezaten guztiak betakuen barkamena hartuko dutela, haren izenean».

[Sal 118 [117]: Hau da Jaunak egin duen eguna, gu pozteko eta alaitzeko eguna.]

§ San Paulok Kolosarrei 3,1-4.

Senideok: Kristorekin berpiztu zareteenez gero, bila itzazue zeruko gauzak, han baitago Kristo, Jainkoaren eskuinaldean eserita. Irrika itzazue goiko gauzak, eta ez lurrekoak, hilik baitzaudete, eta zuen bizia Kristorekin dago Jainkoagan gordea. Kristo, zuen bizia, agertuko denean, zuek ere aintzatsu agertuko zarete harekin batean.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,1-9.

Asteko lehen egunean, Maria Magdalena hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen.

Jesusen Piztuera.

Canterbury-ko San Antselmo, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

Orduan, Simon Pedrogana eta Jesusek maite zuen beste ikasleagana itzuli zen lasterka, eta esan zien: «Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri duten».

Atera ziren, orduan, Pedro eta beste ikaslea, eta hilobirantz abiatu ziren. Biak batera zihoazen lasterka, baina beste ikaslea Pedro baino arinago zihoan, eta lehenago iritsi zen hilobira. Barrura begiratzeko makurturik, oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baina ez zen sartu.

Iritsi zen haren atzetik Simon Pedro ere eta hilobian sartu zen. Oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baita Jesusen burua biltzen egoniko zapia ere; hau, ordea, ez zegoen oihal-zerrendekin batera jarria, beste toki batean bildua baizik. Orduan, sartu zen beste ikaslea ere, hilobira lehenengo iritsi zena. Ikusi eta sinetsi egin zuen. Izan ere, ordu arte ez zuten ikasleek ulertu Liburu Santuak dioena, Jesusek hilen artetik piztu behar zuela.

**M**aria Magdalakoa lagun ona dugu bizitza hobiratu bateko zertzeladak bizi ditugunerako, etsipen-egoera bizi duen, aterabiderik ikusten ez zaion egoera bizi duen jendearen ondoan gaudenerako, «ez da zer eginik, gauzak ez dira aldatuko» esateko tentaturik gaudenerako. Pedro eta Joan esperantza galdurik itzuli dira; Maria, berriz, han gelditu da negarrez, zutik. Ageri den grekozko aditza «histemi» da: eutsi esan nahi du, iraun, sendo segitu. Beste behin ere begiratu du Mariak, baina begiak tristurak harturik ditu. Hartan, ahots batek esnarazi du, bila dabilen maitasunaren ahotsa da. Geure egia propioa aitortzen dugunean, geure izenaz deiturik sentitzen garenean, eta geure azken gelatxo iluneraino onartuak eta maitatuak garelako sumatzen dugunean: orduan gertatzen da gu geu nor garen eta bera guretzat zein den atzematea eta ikustea. Mariak esan dio: «Rabboni (ene Maisu)». Bizitzen irakatsi zion hura da. Nire izena esaten entzutea, neure bihotzaren egiatasunean bide pertsonala aurkitzeko, nire ordeztuak beste inork egingo ez duena.



[Apostoluen Eginak liburutik 2,14.22-23: Jesus hori piztu egin du Jainkoak, eta gu guztiok gara horren testigu. Sal 16 [15]: Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 28,8-15.

Aldi hartan, emakumeak hilobitik arin-arin alde egin eta, ikaraz baina poz-positik, lasterka joan ziren ikasleei berri ematera.

Hartan, Jesus atera zitzaien bidera eta agur egin zien. Emakumeek, hurbildurik, oinak besarkatu zizkioten eta gurtu egin zuten. Orduan, Jesusek esan zien: «Ez beldur izan! Zoazte eta esan nire senideei Galileara joateko. Han ikusiko nauten».

Emakumeak bidean zihoazela, guardiako batzuek hirira joan eta gertatutako guztiaren berri eman zieten apaizburuei. Hauek, zaharrek in bildu eta hitzartu ondoren, dirutza handia eman zieten gudariei, hau aginduz: «Esazue, haren ikasleek gauzez etorri eta zuek lo zeundetelarik, gorpua lapurtu dutela. Eta Gobernariaren belarrietara ezer iristen bada, geuk hitz egingo diogu eta arriskutik aterako zaituztegu».

Haiek dirua hartu eta agindu bezala egin zuten. Eta gaurdaino zabaldu da kontu hori juduen artean.

«**P**oztu zaitzete... ez beldur izan». Gertatua gertatu, maitasunak bere lana egiten jarraitzen du gudan. Ez ote du, ba, Pedrok borroka egin behar izango bere gizaki zaharraren harrokeriarekin?, ez ote du, ba, Maria Magdalakoak jira eta bira ibili beharko bere afektibitatearekin? Segur aski, bai, baina biek halako biek sentitu dute beren ahuldadea Maitasun handiago batek onartua, zeinez bizia harrapatzen joan baitzaie Berpiztua. Ez da poztasun eroso bat orain sentituko dutena, baizik helduz joango den poza, barkazioarekin eta norberaren historia eroantasunez onartzearekin. Bere gizatasuna egundoko samurtasunez onartua dela sentitzen duenaren zoriona da. Jesusen ondoren, denok gara egunsentiko lagun.

Pazkoaldia. Zortziurrena.

San Jorje, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 2,14a.36-41: Bihotz-berri zaitezte eta baitaiatu guztiok Jesus Mesiasen izenean. Sal 33 [32]: Jaunaren graziaz betea dago lurra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,11-18.

Aldi hartan, Maria hilobi ondoan zegoen, kanpoan negarrez. Eta, negarrez zegoela, hilobirantz makurtu zen eta bi aingeru ikusi zituen, zuriz jantziak, Jesusen gorpua egon zen lekuan eserita, bata burualdean eta beste oinetan. Aingeruek esan zioten: «Zer duzu negarrez, emakume?» Hark erantzun zien: «Nire Jauna eraman dute, eta ez dakit non ipini duten».

Hau esan eta berehala, atzera itzuli eta Jesus ikusi zuen zutik, baina ez zen konturatu Jesus zela. Jesusek esan zion: «Zer duzu negarrez, emakume? Noren bila zabiltza?» Hark, baratzezaina zelakoan, esan zion: «Jauna, zuk eraman baduzu, esadazu non ipini duzun, eta nik jasoko dut». Jesusek esan zion: «Maria!» Honek, hurbilduz, esan zion hebreeraz: «Rabbuni!» (hau da, «Maisu!»). Jesusek esan zion: «Utz nazazu, oraindik ez bainaiz Aitagana igo. Zoaz nire senideengana eta esaiezu: “Neure Aitagana eta zuen Aitagana noa, neure Jainkoagana eta zuen Jainkoagana”».

Joan zen Maria Magdalena, eta berri hau eman zien ikasleei: «Jau-na ikusi dut, eta hau eta hau esan dit».

**B**ere lehen joanekoan, Maria Magdalenak informazio bat eman zien elkartekoei; oraingoan, elkartera bigarrenez joan denean, bere bizi erabat eraldatua darama berarekin. Emakumeen gorputzak eta beraien bizitzan gertatu den eraldaketak, Jesus berpiztua daramate, beren hitzak baino gehiago. Ebanjelioan barna egin zuten bezala, keinuen eta harremanaren hizkuntzaz hitz egiten digute. Gaur geuri dagokigu uztea gure belarrietan durundi egin dezaten, beraien egintza profetikoak baino harago, beraien ahotsek eta esperientziek, biziaren misterioari buruzko beraien hizkerak, Jainkoaren gauzez hitz egiteko duten era pertsonalak.

Pazkoaldia. Zortziurrena.

Sigmaringengo San Fidel, *apaiza eta martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 3,1-10: Dudana emango dizut: Jesu Kristoren izenean, jaiki eta ibil zaitez. Sal 105 [104]: Poztu zaitezte bihotzez Jaunaren bila zabilzatenok.]

† Jesu Kristoren Ebanjelio San Lukasen liburutik 24,13-35.

Egun hartan bertan, asteko lehen-egunean, Jesusen bi ikasle Emaus izeneko herrixka batera zihoazen, Jerusalemdik hamaika kilometrora. Jerusalem gertaturiko guztiez mintzo ziren elkarrekin. Eta, hizketan eta eztabaidan ari zirela, Jesus berbera hurbildu zitzaien eta haiekin zihoan; haien begiak, ordea, itsu zeuden eta ez zuten ezagutu.

Jesusek esan zien: «Zertaz diharduzue hizketan bidean elkarrekin?» Haiek gelditu egin ziren, aurpegia ilun, eta bietako batek, Kleofas zeritzanak, erantzun zion: «Zu izango zara Jerusalem egun hauetan gertatu dena jakin ez duen kanpotar bakarra!» Jesusek galdetu zion: «Zer gertatu da, ba?»

Haiek erantzun zioten: «Nazaretoko Jesusi gertatua; profeta ahaltsua zen egitez eta hitzez Jainkoaren eta herri guztiaren aurrean; baina gure apaizburuek eta agintariek heriotzara kondenatu dute eta gurutzean josi. Guk uste genuen hark askatuko zuela Israel; baina bada hiru egun hori gertatu dela. Egia da gure arteko emakume batzuek harriturik utzi gaituztela; goizean goiz joan dira hilobira eta ez omen dute gorpua aurkitu; gainera, Jesus bizi dela esan dieten aingeruak agertu zaizkiela esanez etorri zaizkigu. Gutar batzuk ere izan dira hilobian, eta emakumeek esan bezala aurkitu dute; baina bera ez dute ikusi».

Orduan, Jesusek esan zien: «Bai zentzugabeak zaretela, bai motelak profetek esana sinesteko! Ez al zuen, bada, Mesiasek hori guztia sufritu behar, bere aintzan sartzeko?» Eta, Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuek hari buruz zioten guztia azaldu zien. Zihoazen herrixkara hurbildu zirenean, Jesusek aurrera jarraitzeko keinua egin zuen. Baina haiek arren eta arren eskatu zioten: «Geldi zaitez gurekin, berandu baita eta iluna gainean dugu».

Pazkoaldia. Zortziurrena.

Sigmaringengo San Fidel, *apaiza eta martiria*.

---

Eta herrian sartu zen haiekin gelditzeko. Haiekin mahaian zegoela, Jesusek, ogia harturik, bedeinkapen-otoitza esan, zatitu eta eman zien. Orduan, begiak ireki zitzaizkien eta ezagutu zuten; baina Jesus desagertu egin zitzaien.

Haiek elkarri esan zioten: «Ez al genuen bihotza sutan, bidean hitz egiten zigunean eta Liburu Santuak azaltzen zizkigunean?» Eta berehala altxatu eta Jerusalemara itzuli ziren. Han Hamaikak eta hauen lagunak bildurik aurkitu zituzten, hau ziotela: «Piztu da Jauna egiaz eta Simoni agertu zaio».

Bi ikasleek bidean gertatua kontatu zieten eta nola ezagutu zuten ogia zatitzean.

**N**ola gorde bihotzean, Jesusek errealitateaz proposatu digun «beste irakurketa» hori? Beraren hitzez eta beraren presentzia xumeaz bizi izan dugun guztia bizitzen ikasi beharra dugu. Elkarrean lehengoa bera da egoera, baina begiak eraldaturik itzuli dira Emauskoak. Gure eguneroko bizitzan, direnak dira inguruabarrak; aldatzen dena, hala-koak interpretatzeko eta haietan bizitzeko gure modua da, Jaunarekiko konfiantza berreskuratzen dugunean. Bide-tarte bat elkarrekin egitea, bihotzean pil-pil ari zaigunaz galderak egitea, afektuaren ogia banatzea... Keinu oso gizatarrak dira, berauek bizitzen ditugun moduaz sakratu bilakatzen direnak.

[Apostoluen Eginak liburutik 3,11-26: Biziaren sorburua hil zenuten, baina Jainkoak piztu egin du hilen artetik. **Sal 8:** Jauna, gure Jauna, bai miragarria zure izena lurbira osoan!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24,35-48.

Aldi hartan, Emausko ikasleek bidean gertatua kontatu zuten eta nola ezagutu zuten Jauna ogia zatitzean.

Horretan ari zirela, Jesus bera agertu zen ikasleen erdian eta esan zien: «Bakea zuei». Haiek, beldur-ikaraz beterik, mamua ikusten ari zirela uste zuten. Baina Jesusek esan zien: «Zergatik izutu zarete? Zergatik sortzen zaizkizue zalantza horiek barruan? Ikusi nire esku-oinak: Ni naiz. Uki nazazue eta begira: mamuak ez du hezur-haragirik, eta Nik bai, ikusten duzue». Eta hau esatean, esku-oinak erakutsi zizkien.

Haiek, ordea, pozaren pozez oraindik ere ezin sinetsirik eta harriturik baitzeuden, Jesusek esan zien: «Ba al duzue hemen jatekorik?» Arrain erre puska bat eskaini zioten.

Jesusek hartu eta beraien aurrean jan zuen. Gero, esan zien: «Hauxe da, artean zuekin nengoela, esan nizuena: Moisesen legean, profetetan eta salmoetan nitaz idatzitako guztia bete beharrekoa zela».

Orduan, adimena argitu zien, Liburu Santuak uler zitzaizten. Eta esan zien: «Idatzia zegoen, Mesiasek sufritu egin behar zuela eta hirugarren egunean hilen artetik piztu, eta, Jerusalemdik hasita, bihotz-berritzea hots egin behar zaiela haren izenean herri guztiei, bekatuak barka dakizkien. Zuek zarete gauza hauen testigu».

**B**erpiztuaren seinale argietarik bat, berak bakarrik ematen duen bakea da. Bere bisita-txartela du hori. Bizitzako lazkeria, desegokitzen eta besteengandik banantzen gaituen guztia leuntzen duena. Jauna erdian ipintzen denean, bizitza baketu egiten da eta bere zentzua be-

Pazkoaldia. Zortziurrena.  
SAN MARKOS, EBANJELARIA.

---

rreskuratzen du. Beldurretik harridurara igarotzen gara; bihotz-gabetasunetik alaitasunera; banandurik egotetik topaketa bizi-emailerara. Berpiztuak ukitzen gaituenean, gure bizitza berregiten du eta misio bat gomendatzen digu. Eska diezaiogun grazia, geure harremanetan beraren «arrastoak» agerian eraman ditzagun: hurbiltasuna, alaitasuna, adiskidetasuna, gogo-handitasuna, samurtasuna... bidea eta janaria partekatzea.

\* \* \*

### PAZKOA ERAIKI

Esperantza aldarrikatu nienean  
sufritzen ari zirenei,  
zokoraturik eta bakar bizi zirenei,  
beren larruan jasaten zutenei eraso eta iraina,  
hankapeturik ikusten zutenei beren duintasuna,  
Jainkoaren seme eta alaba izatea  
ukaturik sumatzen zutenei:  
orduan,  
JESUSEN ETA GURE PAZKOA  
ARI NINTZEN ERAIKITZEN.

Pazkoaldia. Zortziurrena.

San Isidoro, gotzaina eta eliz irakaslea.

[Apostoluen Eginak liburutik: Ez dugu beste inor salba gaitzakeenik. Sal 118 [117]: Etxegileek baztertutako harria, berori gertatu da giltzarria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21,1-14.

Aldi hartan, berriro agertu zitzaien Jesus ikasleei Tiberiades itsasertzean. Honela gertatu zen agerpena. Elkarrekin zeuden Simon Pedro, Bikia zeritzan Tomas, Natanael Galileako Kanakoa, Zebedeoren semeak eta beste bi ikasle. Simon Pedrok esan zien: «Arrantzura noa». Gainerakoek erantzun zioten: «Zurekin goaz geu ere». Atera eta ontzira igo ziren. Baina gau hartan ez zuten ezer harrapatu.

Eguna argitu zuenean, ur-ertzean agertu zen Jesus; baina ikasleak ez ziren konturatu Jesus zela. Jesusek esan zien: «Mutilak, ba al duzue jatekorik?» Haiek erantzun: «Ez». Jesusek orduan:

«Bota sarea txaluparen eskuinaldera eta aurkituko duzue». Bota zuten, bada, eta, hainbeste arrain harrapatu zuten, ez ziren sarea atertzeko gauza.

Orduan, Jesusek maite zuen ikasle hark esan zion Pedrori: «Jauna da». Simon Pedrok, Jauna zela aditu zueneko, soinekoa jantzi (erantzia baitzuen) eta jauzi egin zuen urera. Beste ikasleak txalupan etorri ziren, sarea arrainekin arrastaka zekartela, lehorretik hurbil baitzeuden, ehunen bat metrora.

Lehorrera jaitsi zirenean, su-txingarrak ikusi zituzten eta arrain bat gainean, eta ogia. Jesusek esan zien: «Ekarri harrapatu berri dituzuen arrainetako batzuk». Igo zen Simon Pedro ontzira eta lehorrera atera zuen sarea, ehun eta berrogeita hamahiru arrain handiz bete. Eta, hainbeste izanik ere, ez zen sarea urratu. Jesusek esan zien: «Zatozte gosaltzera». Ikasleetako inor ez zen ausartzen nor zen galdetzera, bai baitzekiten Jauna zela. Orduan, Jesusek, hurbildurik, ogia hartu eta eman zien, baita arraina ere.

Pazkoaldia. Zortziurrena.

San Isidoro, gotzaina eta eliz irakaslea.

Hirugarren aldia izan zen hau, Jesus, hilen artetik piztu ondoren, ikasleei agertu zitzaiena.

**J**esus galdezka hurbildu ohi da, eta ez ezer ezarriz. Txeraz hurbildu ohi zaie ikasleei, eta beren biziaren janari izan dezaketenez galdegiten die. Haiek, berriz, konturatzen dira beren ezgaitasunaz. Lehenik aitortu duena, bera gehienik maitatzen utzi duena izan da. Piztuera ez da gauzatzen ezohiko gauzetan, baizik eta errealitaterik ohikoenetan eta xumeenetan. Ikasleak misio-lanean jarri aurretik, elkarte berregin du Jesusek. Ez zaio axola gaitasuna, soilik maitasuna hartzen du aintzat. Beraren hitzek eguneroko egintzak blaitzen dituztenean, hitz beraien emankortasuna adierazten digute hauek. Bota dezagun berriro geure sarea eskuinaldean, baldintzarik gabeko maitasunaren aldean.

\* \* \*

## PAZKO JAIA GURE SOSTENGU

«Pazko jai hau sostengua dugu mundu honetako miserien artean; eta jai honek distiratzen duen salbazioaren poza komunikatzen digu Jainkoak orain; izan ere, alde guztietan elkartzen gaitu guztiok, espirituz, batzar batean; eta denok batean, jai honi dagokion moduan, otoitz egiteko eta eskerrak emateko bidea eskaintzen digu. Hauxe da haren onberatasunaren mirari ikusgarria: berak elkartzen dituela jai hau ospatzera bata besteagandik urrun daudenak, eta fede berean elkartzen dituela gorputzez aparte bizi direnak». (*San Atanasioren pazko-gutunetarik*).



San Pedro Kanisio, *apaiza eta eliz irakaslea, jesuita*.  
 Maria Antonia Bandres, dohatsua (Tolosan 1896-1919),  
*birjina*. San Pedro Chanel, *apaiza eta martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 4,13-21: Guk ezin dugu inola ere entzun eta ikusi duguna isilean gorde. Sal 118 [117]: Eskerrak Zuri, Jauna, erantzun didazulako.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16,9-15.

Asteko lehen-egunean, goizean goiz, pizturik, Jesus Maria Magdalenari, zazpi deabru atera zizkionari, agertu zitzaion aurrena. Hura Jesusekin bizi izan zirenei berri ematera joan zen, triste eta negarrez baitzeuden. Baina haiek, bizi zela eta berak ikusi zuela entzutean, ez zioten sinetsi. Ondoren, ikasleetako biri agertu zitzaien, beste itxura batean, auzo batera bidean zihoazela.

Hauk ere besteei berri ematera joan ziren; baina hauei ere ez zieten sinetsi.

Azkenik, Hamaiketi agertu zitzaien, mahaian zeudela, eta aurpegi-  
 ra bota zien beren sinesgabetasuna eta burugogorkeria, bera pizturik  
 ikusi zutenei sinetsi ez zietelako. Eta esan zien: «Zoazte mundu guzti-  
 ra eta hots egin Berri Ona izaki guztiei».

**B**ihotz gogortzen garenean, gure iruzkin edo komentarioak gar-  
 rratz bihurtu eta gure begiek gogaikarri zaiena seinalatzera jotzen du-  
 tenean, asmo onez fidatzen ez garenean eta ez dugunean uste izaten jada  
 errealitateak ezusteko bat ematen ahal digula... orduan ezgai bihurtu-  
 zen gara Berpiztuaren seinale xumeei antzemateko. Jauna atsekabetu  
 egiten da gure bihotz-gogorkeriaz. Arrazoia ukan nahi izaten dugu eta  
 baldar bihurtzen gara geure buru-eskemak alde batera uzteko eta eza-  
 gunak ez ditugun erregistroz soinua jotzeko. Eska dezagun, eutsi die-  
 zaiogula geure buztinari fresko, Jainkoaren ezustekoa eta ezezaguna  
 gudan moldea dadin.

Pazkoaldiko 2. astea.

Jainkoaren errukiaren eguna.

San Prudentzio, *gotzaina**(Gasteizko elizbarrutiko eta Arabako Zaindaria).***§ Apostoluen Eginak liburutik 5,12-16.**

Mirari eta egintza harrigarri asko gertatzen zen herrian apostoluen eskuz. Fededun guztiak Salomonen aterpean biltzen ziren gogo batez; baina beste inor ez zen haiekin elkartzera ausartzen, herriak goratzen bazituen ere.

Gero eta ugariago ziren Jaunari elkartzen zitzaizkion fededunak, gizon eta emakume. Gaixoak kaleetara ateratzen zituen jendeak eta ohe nahiz ohatiletan ezartzen zituzten, Pedro igarotzean, honen itzalak bederen haietakoren bat edo beste uki zezan. Jerusalem inguruko herrietatik ere jende-talde handiak etorri ohi ziren, gaixoak eta espiritu guaitoen menpe zeudenak ekarriz, eta sendatu egiten zituen guztiak.

**Sal 118 [117]: Eskerrak Jaunari, ona baita, haren maitasuna betikoa baita.]**

**§ Apokalipsia liburutik 1,9-11a.12-13.17-19.**

Ni, Joan, zuen anaia eta Jesusen maitasunagatik atsekabea, erri-nuan eta itxaropen iraunkorrean zuen kideko naizen hau, Patmos deritzan uhartean nengoan erbesteratua Jainkoaren hitzagatik eta Jesusen testigantza egiteagatik. Jaunaren egunean Espirituak hartu ninduen eta neure ostean ahots handia entzun nuen, turuta-hotsa bezalakoa. Hau zioen: «Idatz ezazu liburu batean ikusiko duzuna, eta bidali Asiako eliz elkarteetara».

Itzuli nintzen mintzo zitzaidan ahots hura norena ote zen ikusteko eta, itzultzean, urrezko zazpi argimutil ikusi nituen, eta haien erdian gizaseme antzeko bat, soineko luzez jantzia eta bularraldea urrezko uhalez lotua.

Hura ikustean, hilda bezala erori nintzen haren oinetara. Hark eskuineko eskua gainean jarri zidan, esanez: «Ez beldur izan! Ni naiz lehen eta azkena, bizi dena; hilik egon nintzen, baina orain bizirik

nago menderen mendetan, eta neure esku ditut Herioaren eta Hilan Egoitzaren giltzak. Idatz ezazu, bada, ikusi duzuna; orain dena eta gero izango dena»

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,19-31.

Asteko lehen-egunean, ilunabarrean, etxe batean bildurik zeuden ikasleak, ateak itxita, juduen beldurrez. Sartu zen Jesus eta, erdian jarriarik, esan zien: «Bakea zuei». Hori esanda, eskuak eta saihesta erasutsi zizkien. Ikasleak pozez bete ziren, Jauna ikustean.

Jesusek berriro esan zien: «Bakea zuei. Aitak Ni bidali nauen bezala, Nik zuek bidaltzen zaituztet». Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei, barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die».

Tomas, Hamabietako bat, Bikia zeritzana, ez zegoen haiekin Jesus etorri zenean. Gainerako ikasleek esan zioten: «Jauna ikusi dugu». Tomasek erantzun zien: «Haren eskuetan iltze-zuloak ikusten ez baditut, neure atzamarra haren iltze-zuloetan eta neure eskua haren saihetsean sartzen ez baditut, ez dut sinetsiko».

Handik zortzi egunera, etxean zeuden berriro ikasleak, eta Tomas ere haiekin zen. Sartu zen Jesus, ateak itxirik zeudela eta, erdian jarriarik, esan zien: «Bakea zuei». Gero esan zion Tomasi: «Ekarri atzamarra, begira nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saihetsean, eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik».

Tomasek erantzun zion: «Ene Jauna eta ene Jainkoa!» Jesusek esan zion: «Ikusi nauzulako sinetsi al duzu? Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak».

Beste ezaugarri asko ere egin zuen Jesusek ikasleen aurrean, liburu honetan idatzirik ez daudenak; hauek idatzi dira sinets dezazuen Mesias eta Jainkoaren Semea dela Jesus eta, sinetsiz, haren izenean bizia izan dezazuen.

Pazkoaldiko 2. astea.

Jainkoaren errukiaren eguna.

San Prudentzio, *gotzaina*

(*Gasteizko elizbarrutiko eta Arabako Zaindaria*).

**Z**enbatetan ixten ditugun geure barne ateak beldurrez! Gogogabetasun eta errezero-sentsazioak jo ohi gaitu, behin eta berriz erortzen garrelako betiko geure ahuldadean. Geure bizitzaren eta historiaren zama eta inkoherentzia sentitu ohi ditugu, hainbat eta hainbat jenderen sufri-mendua ikustean, eta ilun eta ahalgabe bihurtzen zaigu bizitza hori... harik eta barnean Jaunaren agurra entzun arte: «Bakea zeure hondorik hondoenean». Jesusek bere eskuak eta saihetsa azaldu arte. Uste eta konfiantza handia behar da besteei zauri sendatuak erakusteko. Soilik, zaurgarritasunak armagabetzen gaitu, itzultzen digu errugabetasuna, sa-neatzen digu beldurra. «Aitak bidali ninduen bezala, hala bidaltzen zai-tuztet nik zuek», zaurgarritasun eta biluztasun berekin, jokamolde apal berekin, eta maitasun-ahaltasun berarekin barkatzeko, sendatzeko, eta bizia berregiteko; izan ere, badira jokamoldeak osasuna ematen dutenak. Frantzisko aita santuaren bedeinkazio askotako bat da, hurbiltasun mai-tagarriz «agurtu» izana gizataldeak, Elizak mesfidantzaz ikusten zitue-nak. Batak bestea «berpiztu» ohi dugu elkar agurtzeko moduz.

\* \* \*

### LAUDATO SI'

Goi-goiko, ahalguztidun, Jaun ona, / zureak gorespenak, aintza, ohorea eta bedeinkapen dena.

Zuri, Goi-goiko horri, dagozkizu bakarrik, / eta ez da gizakirik zu aipatzeko duin denik.

Goretsia zu, ene Jauna, zeure sorkari guztiekin, / batez ere anaia eguzki jaunarekin: / bera da egun-argia eta berarekin diguzu egiten argi.

Eder eta distiratsu da dirdira bizitan:/zure, Goi-goiko horren, irudi da.

Goretsia zu, ene Jauna, arreba ilargi eta izarrengatik:/ argi, bitxi eta eder dituzu zeruan jarri.

Goretsia zu, ene Jauna, anaia haizearengatik,/ eta aire, laino, oskarbi eta edozein eguraldigatik: / beronen bidez ematen diezu mante-nua zeure sorkariei. (jarraipena 229. orrialdean, apirila 29)

Pazkoaldiko 2. astea.

Santa Katalina Sienakoa, *birjina eta eliz irakaslea*  
(Europako Zaindaria).

## § San Joan Apostoluaren 1. gutunetik 1,5–2,2.

Senide maiteok: Hona hemen Jesu Kristogandik entzuna dugun mezua eta zuei iragartzen dizueguna: Jainkoa argi da eta harengan ez da inolako ilunik. Harekin elkartasunean bizi garela esan eta ilunpetan baldin bagabiltza, gezurra diogu eta ez gara egiaren arabera ari. Baina argitan bagabiltza, elkartasuna dugu batak bestearekin eta haren Seme Jesusen odolak bekatu guztitik garbitzen gaitu.

Bekaturik ez dugula esaten badugu, geure burua engainatzen dugu eta egia ez dago gure baitan. Geure bekatuak aitortzen baditugu, ordea, leiala eta zuzena den Jainkoak barkatuko dizkigu bekatuak, eta gaiztakeria guztitik garbituko gaitu. Bekaturik ez dugula egin esaten badugu, gezurti egiten dugu bera, eta haren mezua ez dago gudan.

Ene seme-alabok, bekatuak egin ez dezazuen idazten dizuet hau. Hala ere, norbaitek bekatu egiten badu, badugu laguntzailea Aitaren aurrean: zuzena den Jesu Kristo. Hark bere burua eskaini zuen gure bekatuen barkamenerako; eta gureen barkamenerako ez ezik, baita mundu guztiko barkamenerako ere.

[Sal 103 [102]: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.]

## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,25-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitzikiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik.

Zatozte nigana nekatu eta zamatuz guztiok, eta Nik arinduko zaitzuet. Hartzazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

Pazkoaldiko 2. astea.

Santa Katalina Sienakoa, *birjina eta eliz irakaslea*  
(Europako Zaindaria).

**P**erfekzionismoaren edo erruduntasunaren uztarriari buruz buru, leuna da Jesusen uztarria: dohainak arnastutako bizitzarena. Ez da malktasun gabe legokeenaren uztarria, baizik eta maitatua dela eta malktasunean sostengua duela dakienarena. Esker oneko bizi denari, errazagoa gertatzen zaio arintzea gain-zamatzea baino. Hainbat eta hainbat zama astun dira jende errugabearen bizkarrean!, hainbat eta hainbat errealitate izugarri, normalizat ematen ditugunak! Jesusek hauek denak gonbidatu ditu: minez daudenak, babesgabetasunaren muga-mugan bizi direnak, gehiago ezin dutenak. Giza ahuldadeak Jainkoaren eskuetan du atseden. Sienako Katalinak nozitu zuen hori eta iragarri ere bai.

\* \* \*

#### LAUDATO SI'

(227. orritik dator, apirilaren 28tik)

Goretsia zu, ene Jauna, arreba urarengatik:/ txit ongarri da, apal, bitxi eta garbi.

Goretsia zu, ene Jauna, anaia suarengatik:/ beronen bidez argitzen duzu gaua/ eta ederra da, alaia, sendoa eta indartsua

Goretsia zu, ene Jauna, gure arreba ama-lurragatik: / berak gaitu mantentzen eta gobernatzen, / eta hainbat fruitu, lore koloretsu eta belar sortarazten.

Goretsia zu, ene Jauna, zure amodioz dutenengatik barkatzen/ eta gaixotasuna eta larrialdia eramaten:

zorionekoak bakean sufritzen dituztenak,/ zuk, Goi-goiko horrek, koroatuko dituzu eta.

Goretsia zu, Jauna, gorputzeko gure arreba heriotzagatik:/ ez da gizaki bizidunik ihes egin diezaiokeenik.

Zoritarrekoak bekatu larrian hilko direnak!/ Zorionekoak zure borondate santuan aurkituko dituenak,/ ez baitie kalterik egingo heriotza bigarrenak!

Pazkoaldiko 2. astea.

San Pio V.a, 225. aita santua.

Santa Sofia, birjina eta martiria.

[Apostoluen Eginak liburutik 4,32-37: Sinestedun guztiak bat ziren bihotzez eta gogoz. Sal 93 [92]: Errege da Jauna, ospez jantzia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,5a.7b-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Berriro jaio behar duzue. Haizeak edonondik jotzen du, eta entzuten duzu haren hotsa, baina ez dakizu nondik datorren, ez nora doan. Gauza bera gertatzen da Espiritutik jaio denarekin».

Nikodemok galdetu zion: «Nola gerta daiteke hori?»

Jesusek erantzun: «Zu maisu zara Israelen eta ez dakizu hori? Egi-egiaz diotsut: Guk dakiguna esaten dugu eta ikusi duguna aitortzen; baina zuek ez duzue gure aitormena onartzen. Nik lurreko gauzak esatean sinesten ez baduzue, nola sinetsiko didazue zerukoak esatean? Ez da inor zerura igo zerutik jaitsei zena baizik, Gizonaren Semea. Eta Moisesek basamortuan brontzezko sugea altxatu zuen bezala, hala izan behar du altxatua Gizonaren Semeak, harengan sinesten duten guztiek betiko bizia izan dezaten».

**T**estu hau hobeto ulertzen dugu urteak bete ahala, eta sumatzen dugu baduela nolabaiteko egitasun bat Nikodemok adierazten duen horrek. Geure ohiturak eta tenperamendua kristalduz joan ohi gara, eta hasiera hartako buru-eskaintzaren distira itzaliz. Jada ezin sinetsi izaten dugu «berriro jaio gaitzkeelako» hura; halaz guztiz, bidaiari garen munduan gugandik zerbait onik itzaroten jarraitzen du jendeak. Soilik, gurutzeari begira jartzeak sendatuko gaitu, ondo eginak garela agertuko digu –garenak garela– Jainkoaren biziak zeharkatu gaitzan uzteko, maitasun handi hori eskaintzeko, gauden lekuan gaudela, geure anbiguotasun, zentzugabekeria eta guzti.



## MAIATZA / ORRILA

### AITA SANTUAREN ASMOA

**Ebanjelizazioa: Laikoen misioa.**

Laiko fededunek beren misio edo egiteko berezia bete dezaten, beren sormena gaur egungo munduaren erronken zerbitzura ipiniz.





Pazkoaldiko 2. astea.  
SAN JOSE LANGILEA

[Apostoluen Eginak liburutik 5,17-26: Kartzelan sartu zenituzten gizonak tenpluan daude eta herriari irakasten ari dira. Sal 34 [33]: Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,16-21.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Hain maite izan zuen Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinesten duen inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan.

Jainkoak ez baitzuen bere Semea mundura bidali, mundua kondenatzera, haren bitartez mundua salbatzera baizik. Harengan sinesten duena ez dago kondenatua; sinesten ez duena, berriz, kondenatua dago jadanik, Jainkoaren Seme bakarraren izenean sinetsi ez duelako. Hauxe da kondenazioaren arrazoia: argia mundura etorria dela, eta gizakiek ilunpea nahiago izan dutela argia baino, haien egiteak gaiztoak zirelako. Izan ere, gaizkia egiten duenak gorrotoa dio argiari, eta ez dator argira, haren egiteak agerian geldituz ez daitezten. Egiaren arabera ari dena, berriz, argira dator, haren egiteak Jainkoak nahi bezala eginak direla ager dadin».

Jesusek bere maitasunaren argia eman digu, eta argi horri pasatzen uzteko eskatu digu hertsiki, jendeari aurpegia lausotzen dion lainoa ken diezaion. Hazi beharra dugu, Ekialdeko geure anai-arrebekin batean, bizitzaren ikono-alderdi hori aintzat hartuz; izan ere, ikono-mundu horretan errealitatea desestaltirik bezala gertatzen da, argi-argiturik: gauzetan barneraturik dagoen hura agerian ipintzeko izaera du den-denak, hura irradiatzeko egina da aurpegi oro. Helder Camarak, laurogei urteko zela, esaten zien bere adiskide sendagileei: «Pilula bat aurkitu beharko zenukete, aukera emango lukeena, mutur-muturreko esklerosi-egoeratan beretan ere, mundua den bezala ikusteko: Jainkoagandik eta haren argitik hurbil.

\*\*\*

## SAN JOSEREN JAIKO MEZA

## § Hasiera liburutik 1,26–2,3.

Jainkoak esan zuen: «Egin dezagun gizakia geure irudiko, geure antzeko; mendera ditzala itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak, etxeko abereak eta lurreko narrastiak».

Jainkoak, beraz, bere irudiko egin zuen gizakia, Jainkoaren beraren irudiko egin zuen; gizaseme eta emakume kreatu zituen. Eta bedeinkatu egin zituen Jainkoak eta esan zien: «Sor itzazue umeak eta ugaritu, bete lurra eta izan haren nagusi; mendera itzazue itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurrean dabilzan piztia guztiak».

Jainkoak esan zuen: «Begira, zuei ematen dizkizuet lurraren azalean diren hazidun landare guztiak eta hazidun fruitua dakarten zuhaitz guztiak; janari izango dituzue horiek. Abereei, zeruko hegaztiei eta lurrean dabilzan bizidun guztiei, berriz, belarra ematen diet janari». Eta hala izan zen. Eta egindako guztia ikusi zuen Jainkoak, eta oso ona zen. Eta arrats eta goiz: seigarren eguna burutu zen.

Honela, burutuak gelditu ziren zeru-lurra eta hauetan dagoen guztia. Zazpigarren egunerako burutu zuen Jainkoak egindako lana, eta zazpigarren egunean, egindako lan guztiaren ondoren, atsedean hartu zuen. Jainkoak bedeinkatu egin zuen zazpigarren eguna eta sagaratu, egun horretan hartu baitzuen atsedean bere krezio-lan guztitik.

[Sal 90 [89]: Sendotu ezazu, Jauna, gure eskuen lana.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,54-58.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen, eta irakasten hasi zen sinagogan. Jendeak, harriturik, hau zioen: «Nondik du honek horrelako jakinduria, eta nondik mirari horiek? Ez al da, ba, arotzaren semea? Ez al da Maria honen ama, eta Santiago, Jose, Judas eta Simon honen

Pazkoaldiko 2. astea.  
SAN JOSE LANGILEA

---

anaiak? Eta honen arrebak ere ez al dira hemen gure artean bizi? Non-dik du, beraz, hori guztia?» Eta ezin zuten sinetsi harengan.

Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian eta etxean izan ezik».

Eta ezin izan zuen han mirari askorik egin, ez baitzuten sinesten.

### **Jose, arotza**

2005eko maiatzaren leian, eta lehen aldiz bere aitasantutza-aldian, Vatikanoko leihora atera zen Benedikto XVI.a, Joan Paulo II.aren ohi-turari jarraituz. Eta, noski, San Joseri buruz hitz egin zuen: «Gaur maiatza hasten dugu, kristau herrian ongi errotutako ospakizun liturgiko batekin, San Jose Langilearenarekin. Eta dakizuenez, ni ere Jose deitzen naiz. Pio XII.a Aita Santuak ezarri zuen oroitzapen-egun hau, duela berrogeita hamar urte; lanaren garrantzia nabarmentzeko, hain zuzen ere, eta baita Kristoren eta Elizaren garrantzia ere langileen munduan. Gaurko gizartean ere beharrezkoa da “lanaren ebanjelioaren” testigantza egitea, Joan Paulo II.ak Laborem exercens bere entziklikan aipatu bezala.

Desio dut inoiz lanik ez falta izatea, gazteek batez ere, eta lan-baldintzak izan daitezela gero eta errespetu handiagokoak pertsonentzat». «Joserren bizitza osoa hartzen du “arotzaren” tituluak. Lana izan zen Nazareteko bere Familiari izan zion maitasuna adierazteko eguneroko bidea. Jesus ere esaneko izan zen, Joserren lanean parte hartuz, eta ezagutu ere “arotzaren semetzat” ezagutzen zuten» (Joan Paulo II).

Pazkoaldiko 2. astea.

San Atanasio, *gotzaina eta eliz irakaslea*.San Felix, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 5,27-33: Geu gara gauza hauen testigu, baita Espiritu Santua ere. Sal 34 [33]: Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,31-36.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Goitik datorrena denen gainetik dago. Lurretik sortua lurrekoa da eta lurrekoaz mintzo da. Zerutik datorrena denen gainetik dago; ikusi eta entzun duena aitortzen du; baina haren aitormena ez du inork onartzen. Haren aitormena onartzen duenak Jainkoak egia dioela baieztatzen du. Izan ere, Jainkoak bidali zuenak Jainkoaren hitzak esaten ditu, neurririk gabe ematen baitio bere Espiritua.

Aitak Semea maite du, eta haren esku jarri du dena. Semeagan sinesten duenak betiko bizia du; baina Semeagan sinesten ez duenak ez du bizia ikusiko, baizik eta Jainkoaren haserrea du gainean».

«**J**ainkoak ez du ematen espiritua neurturik», baina guk, neurgailu eta pisu asko erabiltzen ditugu geure eguneroko harremanetan. Eskuzabal ematen digu Jainkoak. Modu ezustekoan eta gainezka ematen digu bere Espiritua, kalkulerik gabe eta fakturarik gabe. Berari dagokionez, eskainia du den-dena Jesusengan; geuri dagokigunez, edukiontzia prestatu beharra dugu, ireki beharra, sakonago egin beharra, gero eta gehiago hartu ahal izateko. Ireki egiten gaitu geure ahuldadea aitortu ahal dezagun, eta geure esku ipini digun guztia eskertzeko prestatzen gaitu. Hazi egiten gara berari begira jartzen garenean, edozein goeratan geure buruari galdetzean: nola egingo lioke aurre Jesusek?

Pazkoaldiko 2. astea.

San Felipe eta Santiago, *apostoluak*.

### § San Paulok 1 Korintoarrei 15,1-8.

Senideok: Irakatsi nizuen Berri Ona oroitarazten dizuet. Zuek onartu egin zenuten, horretan sendo oinarrituak zaudete eta salbatu ere horrexek salbatzen zaituzte, nik iragarri nizuen bezala eusten badiozue. Bestela, alferrik sinetsiko zenuten.

Nik hartu nuena bera eskualdatu nizuen lehen-lehenik, hau da, Kristo gure bekatuengatik hil zela, Liburu Santuek esan bezala; hobiratu egin zutela eta hirugarren egunean piztu egin zela, Liburu Santuek esan bezala; Pedrori agertu zitzaiola, eta ondoren Hamabiei; gero, bostehun eta gehiago senideri agertu zitzaion batera –horietako gehienak bizirik daude oraindik, batzuk hil badira ere–; gero, Santiagori agertu zitzaion, ondoren apostolu guztiei.

Beste guztiei agertu ondoren, neuri ere agertu zitzaidan, garaia baino lehen jaiotako haurra bezalakoa naizen honi.

[Sal 19 [18]: Zeruek Jainkoaren aintza dute kontatzen.]

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,6-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Tomasi: «Ni naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitagana joan, nire bidez izan ezik. Ni benetan ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete. Are gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue». Orduan, Felipek esan zion: «Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta nahikoa dugu».

Jesusek erantzun: «Hainbeste denbora zuekin, eta ez al nauzu ezagutzen, Felipe? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du. Nola diozu: “Erakutsiezaguzu Aita”? Ez al duzu sinesten Ni Aitagan nagoela eta Aita nigan? Nik esaten dizuedana ez dizuet neure kabuz esaten. Nigan bizi den Aita da bere egintzak burutzen ari dena. Sinetsiezadazue: Ni Aitagan nago eta Aita nigan. Besterik ez bada ere, sinetsi egintzen-gatik.

Pazkoaldiko 2. astea.

San Felipe eta Santiago, *apostoluak*.

Egi-egiaz diotsuet: Nigan sinesten duenak Nik egiten ditudan egintzak burutuko ditu berak ere, eta are handiagoak, Ni Aitagana bainoa. Nire izenean eska dezazuen guztia emango dizuet, Aitaren aintza Semeagan ager dadin. Nire izenean zerbait eskatzen baduzue, emango dizuet Nik».

**J**esusek Feliperi egin dion galdera hori bidelagun dugu geuk ere geure ibilian. Jesus hain gizatar eta xume agertzen zaigu, non ez baitugu ezagutzen, bidean bere ondoren joanik ere. Koloka ipintzen digu begiratzeko dugun geure era, hain lau eta azalekoa, eta gauzen gardentasuna atzematera eragiten digu, Jainkoaren biziaren sakontasuna, alegia, beraren sorkari txikienetan grabatua. Birtualtasunaren sareek asebetetzen dizkigute begiak eta harrapaturik, zabarturik, eusten digute, funtsezkotik urrun. Bizi dudan aro honetan, neuk al dut hautatzen bihotza non jarri?, esan al dezaket Jesus dudala benetan neure bidea, neure egia, neure bizia?

\* \* \*

### SAN FELIPE APOSTOLUA

Antzinateko dokumenturik gehienek diote, San Felipe Hierapolisen (gaur egungo Turkian) hil zela, K.o. 80. urtean. Martiri hil zen, bere fedeagatik, hankaz gora gurutziltzaturik, San Pedro bezala. Hierapolisen hilobiratu zuten. Hiri hartako antzinako nekropolian idazkun bat aurkitu zen, Feliperi eskainia. Ezagutzen ez dugun data batean, Feliperen gorpua Konstantinoplara eraman zuten. Eta VI. mendean Erromara, Santiago apostoluaren ondoan ehortziz, biei eskainitako tenplu batean. Geroago, 1500ean, tenplu hura guztiz handikiro edertu zuten; gaur egun, «Apostolu santuena» deritzo.

Santiago hau ez da nahastu behar Galiziako Santiagon beneratzen denarekin; honi Santiago Handia esaten zaio. Feliperen hilobi-kide den Santiago, Alfeoren semea zen, «Jesusen anaia», Jerusalemgo kristau-elkartearen buru izan zen.

Lagundu diezagutela gaurko kristauei, benetako apostolu izaten.

Pazkoaldiko 2. astea.

San Jose Maria Rubio, *aitorlea, jesuita*.

[Apostoluen Eginak liburutik 6,1-7: Zazpi gizon aukeratu zituzten, Espiritu Santuaz beteak. Sal 33 [32]: Betor gugana, Jauna, zure maitasuna, zugan baitugu geure uste ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,16-21.

Arratsean, Jesusen ikasleak itsasora jaitsi eta, txalupara igorik, itsasoaz bestaldera abiatu ziren, Kafarnaum aldera.

Iluna zen ordurako, eta artean Jesus ez zen haiengana iritsi. Haize zakarra zebilen, eta itsasoa harrotzen hasi zen.

Bospasei kilometro arraunean egitean, Jesus ikusi zuten ur gainean oinez eta txalupara hurbiltzen, eta beldurrak hartu zituen. Baina hark esan zien: «Ni naiz; ez beldur izan!» Haiek txalupan hartu nahi izan zuten, baina txalupa berehala iritsi zen zihoazen tokira.

**H**ainbat eta hainbat jenderentzat gaua ilun beltz den honetan dugu premiarik handiena Jesus hurbileko nola egiten den ezagutzea. Beharrezkoa dugu arraunean besteekin egitea, itsasaldian partaide ditugunei begietara begiratzea, halakoen atsekabeak eta ametsak ezagutzea, elkarrekin egitea bidaiaren tarterik ilunenak, eta barruntatzea, hain justu geure kezken eta beldurren artean, nola hurbiltzen zaigun Jauna. Nor bakoitza lasaitu egin du —«neu naiz»— eta taldea baretu —«ez beldur izan»—, bere hurbiltasun maitagarriaren bi eskuez. Presentzia bakegarri eta bihotz-emailea da: horixe da bera, eta horixe nahi du gu elkarrekiko izan gaitezen.



Pazkoaldiko 3. astea.

Santa Felizisima, *martiria*.Santa Irene, *martiria*.

### § Apostoluen Eginak liburutik 5,27b-32.40b-41.

Egun haietan, apaiz nagusiak esan zien apostoluei: «Ez al geni-zuen zorrotz agindu ez irakasteko Jesusen izenean? Zuek, berriz, Je-rusalem osoa bete duzue zeuen irakaspenez; gainera, gizon horren he-riotzaren erantzukizuna geuri leporatu nahi diguzue».

Pedrok eta beste apostoluek erantzun zuten: «Jainkoaren esana egin behar da aurrena, ez gizakiena. Gure arbasoen Jainkoak piztu egin du zuek egur batetik zintzilik hil zenuten Jesus. Jainkoak goratu egin du bere eskuinaz, Buruzagi eta Salbatzaile eginez, Israeli bihotz-berritzea eta bekatuaren barkamena emateko. Geu gara gauza hauen testigu, geu eta esaneko zaizkionei Jainkoak ematen dien Espiritu Santua».

Jesusen izenean hitz egitea zorrotz debekatu zieten. Ondoren, as-  
katu egin zituzten. Apostoluak pozez atera ziren Batzarretik, Jesusen  
izenagatik irainak jasateko Jainkoak duin aurkitu zituelako

[Sal 30 [29]: Goratuko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako.]

### § Apokalipsia liburutik 5,11-14.

Nik, Joanek, ikuskarian, tronuaren, bizidun izakien eta zaharren inguruan zeuden aingeru askoren ahotsa entzun nuen; milaka eta mi-lioika ziren, eta hots handiz zioten:

«Hila izan den Bildotsa bada nor  
ahalmena eta aberastasunak, jakinduria eta indarra, ohorea, aintza  
eta gorespena hartzeko».

Eta zeruan, lur gainean, lurpean eta itsasoan dauden sorkari guz-tiei, hau esaten entzun nien:

«Tronuan eseria dagoenari eta Bildotsari gorespena, ohorea, aintza  
eta agintaritza gizaldi eta gizaldietan».

Lau izaki bizidunek «Amen» erantzun zuten, eta zaharrek ahus-  
peztu eta gurtu egin zuten.

Pazkoaldiko 3. astea.

Santa Felizisima, *martiria*.

Santa Irene, *martiria*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21,1-19.

Aldi hartan, berriro agertu zitzaizen Jesus ikasleei Tiberiades itsasertzean. Honela gertatu zen agerpena. Elkarrekin zeuden Simon Pedro, Bikia zeritzan Tomas, Natanael Galileako Kanakoa, Zebedeoren semeak eta beste bi ikasle. Simon Pedrok esan zien: «Arrantzura noa». Gainerakoek erantzun zioten: «Zurekin goaz geu ere». Atera eta ontzira igo ziren. Baina gau hartan ez zuten ezer harrapatu.

Eguna argitu zuenean, ur-ertzean agertu zen Jesus; baina ikasleak ez ziren konturatu Jesus zela. Jesusek esan zien: «Mutilak, ba al duzue jatekorik?» Haiek erantzun: «Ez». Jesusek orduan: «Bota sarea txaluparen eskuinaldera eta aurkituko duzue». Bota zuten, bada, eta, hainbeste arrain harrapatu zuten, ez ziren sarea ateratzeko gauza.

Orduan, Jesusek maite zuen ikasle hark esan zion Pedrori: «Jauna da». Simon Pedrok, Jauna zela aditu zueneko, soinekoa jantzi (erantzia baitzuen) eta jauzi egin zuen urera. Beste ikasleak txalupan etorri ziren, sarea arrainekin arrastaka zekartela, lehorretik hurbil baitzeuden, ehunen bat metrora.

Lehorrera jaitsi zirenean, su-txingarrak ikusi zituzten eta arrain bat gainean, eta ogia. Jesusek esan zien: «Ekarri harrapatu berri dituzuen arrainetako batzuk». Igo zen Simon Pedro ontzira eta lehorrera aterra zuen sarea, ehun eta berrogeita hamahiru arrain handiz betea. Eta, hainbeste izanik ere, ez zen sarea urratu. Jesusek esan zien: «Zatozte gosaltzera». Ikasleetako inor ez zen ausartzen nor zen galdetzera, bai baitzekiten Jauna zela. Orduan, Jesusek, hurbildurik, ogia hartu eta eman egin zien, baita arraina ere.

Hirugarren aldia izan zen hau, Jesus, hilen artetik piztu ondoren, ikasleei agertu zitzaiena.

Gosaldu ondoren, Jesusek esan zion Pedrori: «Simon, Joanen semea, hauek baino maiteago al nauzu?» Hark erantzun: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala». Jesusek, orduan: «Bazka itzazu nire bildotsak».

Pazkoaldiko 3. astea.

Santa Felizisima, *martiria*.Santa Irene, *martiria*.

Bigarrenez galdetu zion Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite al nauzu?» Hark erantzun: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala». Jesusek, orduan: «Zaindu itzazu nire ardiak».

Hirugarrenez galdetu zion Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite al nauzu?» Pedro goibeldu egin zen maite al zuen hirugarrenez galdetu ziolako, eta erantzun zion: «Jauna, Zuk dena dakizu; Zuk badakizu maite zaitudala». Orduan, Jesusek esan zion: «Bazka itzazu nire ardiak. Bene-benetan diotsut: Gazteago zinenean, zeuk lotzen zenuen gerrikoa eta nahi zenuen tokira joaten zinen; zahartzean, ordea, zuk besoak luzatu eta beste batek lotuko dizu gerrikoa eta nahi izango ez duzun tokira eramango zaitu».

Horrela, zer-nolako heriotzaz Jainkoari aintza emango zion adierazi zuen Jesusek. Ondoren, esan zion: «Jarraitu niri».

**J**esus Berpiztuari antzematea gehienik zertan kostatzen ote zaigun? Esango nuke, gure bizitzara hurbiltzeko duen normaltasunean kostatzen zaigula. Ebanjelioko pasarte honek geure lantokira begira jartzen gaitu, bertako aurpegiak hurbilenak eta guzti. Nola bizi ohi dugu egunerokotasuna, Jauna urrun dela uste dugunean –gaua da eta ez dugu ezer harrapatu–?, eta nola eraldatzen da guztia Jesus eszenaren erdian bero-bero jartzen denean, su-txingarrak sutan dituela? Bere jokamoldea apala du eta xumea: galdetu, eskatu, gonbidatu. Arrantzuari kale egin dugunean, berriro saiatzera animatzen gaitu: sareak botatzera, sekula nekatzen ez den maitasunaren aldera. Zirrara eragiten du beraren keinuen xumetasunak: txeraz gosari bat prestatu du. Geure pobretasunean eta ahuldadean digu erregalatzen Jaunak bere maitasuna, eta orduan gomendatzen digu gehienik atsegin duena. Hau da Berpiztuaren dohaiarik handiena: bizitzarik hauskorrenak zaintzeko gai egiten gaitu; bere maitasunaz gai bihurtzen gaitu geugan dugun funtsezko ardura hori berreskuratzeko. Ez dezagun beldurrik izan geure eskuak luzatzeko, berak eraman gaitzan. Geure txirotasunarekin adiskideturik, ez diogu beldurrik Jesusen poza bihotzetik kentzeko asmoz etorriko zaigunari..

Pazkoaldiko 3. astea.

Domingo Savio santua, *aitorlea*.

San Luzio, *profeta eta doktorea*.

[Apostoluen Eginak liburutik 6,9-15: Ezin izan zioten aurre egin Espirituak mintzatzeko ematen zion jakinduriari. Sal 119 [118]: Zorioneakoak Jaunaren lege-bidean dabiltzanak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,22-29.

Bost mila gizonezkoei, ase ziren arte, jaten eman ondoren, ur gainean oinez ikusi zuten Jesus ikasleek. Biharamunean, itsasoaz bestaldean zegoen jendea ohartu zen han txalupa bakarra izan zela, eta Jesus ez zela ikasleekin ontziratuta, baizik eta hauek bakarrik joan zirela. Bitartean, beste zenbait txalupa etorri zen Tiberiadestik, Jaunak esker onezko otoitza egin ondoren ogia jan zuten ingurura.

Jesus eta ikasleak han ez zeudela ikustean, jendea txalupetara igo eta Kafarnaumera joan zen, Jesusen bila. Itsasoaz bestaldean aurkitu zutenean, esan zioten: «Maisu, noiz etorri zara hona?» Jesussek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Nire bila zabilzate, ez ezaugarriak ikusi dituzuelako, ogia asetzera joan duzuelako baizik. Ahalegindu zaitezte, ez galtzen den janariagatik, irauten duenagatik baizik, betiko bizia ematen duenagatik; hori Gizonaren Semeak emango dizue, bera egin baitu Jainko Aitak bere aginpidearen ordezkari».

Orduan, galdetu zioten: «Zer egin behar dugu, Jainkoak nahi duena egiteko?» Jesussek erantzun zien: «Hau da Jainkoak nahi duena: berak bidali duenagan zuek sineste».

**B**ai erraza dela txertatzea gure lan eta jardueretan baliokotzat ematen dugun hura, betetzen gaituen hura. Bihotza geure lanarekin baterik edukitzeak, guk adina lan egiten ez dutenez eta gu bezain emanik bizi ez direnez (erlijioso batek esan zidan behin batean: «Nire probintzian gehiena irabazten duena naiz!») kexatzeak, eta geure buruaz hain beterik eta harro egoteak, kasik bistarik ez izatea ekartzen digu, ez besteen premiak ikusteko, ez norberaren bizitzako alderik erregaluzkoenak ikusteko ere. Nolatan antzeman Jainkoaren doako seinaleei geure egunez egunerokoan, gudan gailen eta nagusi dena materialki eraginkor eta probetxugarri izatea bada?

[Apostoluen Eginak liburutik 7,51–8.1a: Jesus Jauna, hartazazu nire bizia. Sal 31[30]: Zure eskuetan uzten dut, Jauna, neure bizia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,30-35.

Aldi hartan, jendeak esan zion Jesusi: «Zein ezaugarri egiten duzu, guk haiek ikusi eta zugan sinesteko? Zer egiten duzu? Gure arbasoek mana jan zuten basamortuan, Liburu Santuak dioen bezala: “Zeruko ogia eman zien jatan”».

Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Ez zizuen Moisesek eman zeruko ogia; nire Aitak ematen dizue zeruko egiazko ogia; zeren Jainkoaren ogia zerutik jaitsi eta munduari bizia ematen diona baita».

Orduan, haiek Jesusi: «Jauna, emaguzu beti ogi horretatik». Jesusek erantzun zien: «Ni naiz bizia ematen duen ogia; nigana datorrena ez da gose izango, eta nigan sinesten duena ez da behin ere egarri izango».

**G**ure gorputzaren gosean grabatua dago, ezen nire «neu»aren alderik hobena ez dela gauzatzen bitzta isolatuan, baizik eta harremanezkoan. Dena dela pertsonak bizi duen aroa, denok izaten gara pozbidetxiki batzuen eskale, azkeneraino. Jesusek azaldu digu, biziartzten gaituen ogi bakarra maitasuna dela. Nola erasaten dit hainbat jendeke jasaten duen «goseak»? Ogiaren goseak, afektuarenak, duintasunarenak, zentzuarenak... Goseak: soilik, maite gaituenaren presentziak sendatzen denak. Elsa Támez teologo andreak dio: «Gure Jainkoa maitasun eta ogi da. Aitortu behar dut, ezin bizi naizela Jainkoa gabe, zeren eta ezin bizi bainaiz maitasunik eta ogirik gabe».

Pazkoaldiko 3. astea.

Antiguako Andre Maria.

Santa Dominga, *martiria*.

---

[Apostoluen Eginak liburutik 8,1b-8: Alde guztietara joan ziren, Berri  
Ona hots eginenez. Sal 66 [65]: Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,35-40.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Ni naiz bizia ematen duen ogia; nigana datorrena ez da gose izango, eta nigan sinesten duena ez da behin ere egarri izango. Zuek, ordea, lehen ere esan di-zuedanez, ez duzue sinesten, ikusi nauzuen arren. Aitak niri ematen dizkidan guztiak nigana etorriko dira, eta nigana etortzen denik ez dut kanpora botako, ez bainaiz zerutik jaitsi neure nahia egitera, bidali naunenaren nahia baizik.

Eta hauxe da bidali naunenaren nahia: berak eman dizkidan guztie-tatik, ez dezadala bat ere galdu, baizik eta piztu ditzadala azken egu-nean. Hauxe da nire Aitaren nahia: Semea ikusi eta harengan sinesten duenak izan dezala betiko bizia; eta Nik piztuko dut azken egunean».

**J**esusek ezagutzen ditu gure oinarrizko premiak, eta haietaz baliatzen da, gu beragana eramateko. Ogirik eta urik gabe ezin bizi bagara, hainbat gutxiago bizitzen ahal gara bete-betean beraren graziarik gabe. Doako bere graziarekin irten ohi zaigu bidera, janaria eta aterpea eskaintzen dizkigu, gal ez gaitezen, eta bere burua eta duena Aitaren esku uzten du, bai baitaki Bestea den hark guztiz onartzen duela bera. Jesusi sinesteak bai esatea esan nahi du beraren jokamoldeari, bizitzan on eginenez bizitzea, bihotza asetzen ez duten ogien inguruan lehian ibili ordez. Zer egiten dugu: jaten eman ala intoxikatu? Bestea onbideratu ala galdu? Hunkitu gaitzala Jesusek guztiei agertu dien txerak.

[Apostoluen Eginak liburutik 8,26-40: Hona ura; zerk eragozten du ni bataiatzea? Sal [66] 65: Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,44-51.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Ezin da inor nigana etorri, bidali nauen Aitak erakartzen ez badu. Eta Nik piztuko dut azken egunean. Hau dio profeten liburuak: “Jainkoaren ikasle izango dira denak”. Aitari entzun eta hark irakatsia bereganatzen duena nigana dator. Horrek ez du esan nahi inork Aita ikusi duenik; Jainkoagandik etorri denak bakarrik ikusi du Aita.

Egi-egiaz diotsuet: Sinesten duenak betiko bizia du. Ni naiz bizia ematen duen ogia. Zuen gurasoek mana jan zuten basamortuan eta, halere, hil egin ziren. Bestelakoa da zerutik jaisten den ogia; honetatik jaten duena ez da hilko. Ni naiz zerutik jaitsia den ogi bizia; ogi honetatik jaten duena betiko biziko da. Eta Nik emango dudana ogia nire haragia da, mundua bizi dadin emana».

**O**gia, Biblia osoan barna ageri diren oinarrizko sinboloetakoa da. Jaiotze-ordutik erlazionatzen dugu janaritua izatea maitatua izatearekin; horregatik, besteei jaten ematea egintza sakon bihurtzen da: erakusten digu, ez soilik jana ematen, baita geure burua osorik ematen ere. Emozio-jana ematen dugu, maitasuna, estimua, harreman bihozkoia, konfiantza agertu eta eskainiz. Badira gizatar bihurtzen gaituzten jateko erak; gaur egun, ordea, arrisku ditugu presa, «zakar-janaria» eta ziztu biziko harremanak: gusturik ez hartzea, ez digeritzea, ez esker-teea jaten duguna.

Pazkoaldiko 3. astea.

San Joan Avilakoa, *apaiza*.

San Damian Molokaikoa, *apaiza eta aitorlea*.

[Apostoluen Eginak liburutik 9,1-20: Neure zerbitzurako aukeratutut gizon hori, jentilei nire izena adieraz diezaien. Sal 117 [116]: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,52-59.

Aldi hartan, juduak eztabaidan ari ziren beren artean: «Nola eman diezaguke honek bere haragia jaten?»

Jesusek esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Gizonaren Semearen haragia jaten eta haren odola edaten ez baduzue, ez duzue bizirik izango zeuengan. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duenak betiko bizia du, eta Nik piztuko dut azken egunean. Zeren nire haragia egiazko janari baita eta nire odola egiazko edari. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duena nigan dago eta Ni harengan.

Bizia den Aitak bidali nau eta Ni Aitari esker bizi naiz; era berean, Ni jaten nauena niri esker biziko da. Hau da zerutik jaitsi den ogia; ez da zuen gurasoek jan zutena bezalakoa, haiek hil egin baitziren. Ogi honetatik jaten duena betiko biziko da».

Hau guztia Kafarnaumgo sinagogan irakatsi zuen Jesusek.

**G**auza paradoxakoa da, emakumeok Eukaristia sakramentu-eran ezin prestatu (presiditu) ahal izatea; haatik, sarri prestatzen dugu otordua eguneroko bizitzan. Jesusen bizitzan beste batzuk janaritzean datzan keinu nagusia berregiten dugu, haztea eragiten duen buru-eskaintza batean, Jainkoak bere burua ematen digun eran. Familia batean edo elkarte batean bizi den estimu-maila nabari daiteke, batak bestearentzat jatekoa prestatzen duten eran. Beste bizitza batzuk fisikoki zaintzea ez dugu zerikusirik ez duen gauza; sakondu egiten du gure ikusmoldea, batak bestea, bihotzeko funtsezko gose horri dagokionez, sakonkiago janaritzea esan nahi duena.



[Apostoluen Eginak liburutik 9,31-42: Eraikiz eta ugalduz zihoan Eliza, Espiritu Santuagandiko adoreari esker. **Sal 116 [115]:** Nola ordainduko diot Jaunari egin didan on guztia?]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,60-69.

Aldi hartan, Jesusen ikasleetako askok esan zuten: «Gogorra da hizkera hau. Nork adi dezake?»

Jesusek, bere baitan oharturik ikasleak marmarka ari zirela, esan zien: «Onartezina iruditzen al zaizue hori? Eta Gizonaren Semea lehen zegoen tokira igotzen ikusiko bazenute, orduan zer? Espiritua da bizia ematen duena; gizakiak ezin du berez ezer eman. Nik esan dizkizuedan hitzak espiritu eta bizi dira. Baina badira zuen artean sinesten ez duten batzuk». Izan ere, Jesusek hasieratik zekien nork ez zuen sinesten eta nork salduko zuten. Eta esan zuen gainera: «Horregatik esan dizuet ezin dela inor ere nigana etorri, Aitak ez badio horretarako gaitasuna ematen».

Geroztik, haren ikasleetariko askok atzera egin zuten, eta aurrerantzean ez zen harekin ibili. Orduan, esan zien Jesusek Hamabiei: «Zuek ere alde egin nahi al duzue?» Erantzun zion Simon Pedrok: «Jauna, norengana joango gara? Zure hitzek betiko bizia dute. Eta guk sinetsi dugu eta badakigu Zu zarela Jainkoaren Santua».

**B**adira orduak, zeinetan jaitsi egiten baitiegu bolumena Jesusen hitzei, bortitzenak iruditzen zaizkigunei; orduan handitu egiten da, sinesten dugula esaten dugunaren eta bizi ohi dugun biziera zehatzaren artekoa. Hasiera batean, nolabaiteko atsekabez izaten da; ondoren, gertatzen zaiguna zurituz eta bekoz beko berari begiratu nahi ezta, hariak eta geuri esandakotzat hartzen dugun arte Jesusek ikasleei egindako galdera hau: «Zuek ere alde egin nahi al duzue?» Gure aukera berriri bere lekuan ipintzeko ueña izaten da eta atzematetako ezin jarraituko diogula sekula bide horretatik boluntarismo hutsez eta neurgailuz; soilik, berak erakarririk eta esker onez jarraitu ahal izango diogu.

Pazkoaldiko 4. astea.

Santo Domingo Ozkabartekoa (de la Calzada, Errioxan),  
*erlijiosoa*. San Nereo eta San Akileo, *martiriak*.  
San Pankrazio, *martiria*.

### § Apostoluen Eginak liburutik 13,14.43-52.

Egun haietan, Paulo eta Bernabe Pergetik Pisidiako Antiokiara joan ziren. Eta larunbatean sinagogan sartu ziren eta han eseri.

Judu askok eta Jainkoa gurtzen zuten judu berri askok Paulori eta Bernaberi jarraitu zieten; hauek, beren hitzez, Jainkoaren graziari atxikirik irauteko adore ematen zieten.

Hurrengo larunbatean, ia herri osoa bildu zen Jaunaren hitza entzuteko. Jendetza hura ikusirik, juduak bekaitzez bete ziren eta irainka egiten zioten kontra Paulok esaten zuenari. Orduan, Paulok eta Bernabek ausarki esan zuten: «Zuei adierazi behar genizuen lehendabizi Jainkoaren hitza; baina hitza baztertu eta zeuen buruak betiko bizirako gai ikusten ez dituzueenez gero, jentilengana joko dugu. Hauxe agindu baitigu Jaunak: “Nazioen argitzat ezarri zaitut, salbamina lurraren bazterreraino eramán dezazun”».

Hau entzutean, jentilak poztu ziren eta Jaunaren hitza goresten zuten. Eta betiko bizirako zirenek sinetsi egin zuten.

Jaunaren hitza zabaltzen ari zen herrialde hartan guztian. Baina juduek andre handiki jainkozale batzuk eta herriko jauntxoak berotu zituzten, Pauloren eta Bernaberen kontra erasoaldia sortu zuten eta beren lurraldetik bota zituzten. Paulo eta Bernabe, protesta gisa beren oinetako hautsa haien aurka astindu eta Ikoniora joan ziren. Ikasleak, berriz, pozez eta Espiritu Santuaz beterik gelditu ziren

[Sal 100 [99]: Jaunaren herri gara eta haren larreko artalde.]

### § Apokalipsia liburutik 7,9.14b-17.

Nik, Joanek, gizatalde handi bat ikusi nuen, inork ezin konta aha-lekoa, nazio eta arraza, herri eta hizkuntza guztietako jendez osatua, tronuaren eta Bildotsaren aurrean zutik, soineko zuriz jantzia eta palma-adarra eskuetan.

Zaharretako batek esan zidan: «Hauek larrialdi handitik datozenak dira. Bildotsaren odolean garbitu dituzte beren soinekoak, eta zuritu. Horregatik daude Jainkoaren tronu aurrean, gau eta egun hari gurtza ematen bere tenpluan, eta tronuan eseria dagoena haiekin biziko da. Ez dira gehiago gose, ez egarri izango, eta ez ditu eguzkiak, ez sargoriak joko, tronuaren erdian dagoen Bildotsak bazkatuko baititu eta ur biziko iturrietara eramango. Eta Jainkoak begietako malko guztiak xukatuko dizkie»

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10,27-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Nire ardiek aditzen dute nire aho-tsa; Nik ezagutzen ditut, haiek jarraitu egiten didate, eta Nik betiko bizia ematen diet; ez dira betiko galduko, ez dizkit inork ere eskutik kenduko.

Haiek eman dizkidan nire Aita beste guztiak baino handiagoa da, eta ezin ditu inork ere kendu nire Aitaren eskutik. Aita eta biok bat gara».

**B**ai txera handiz agertzen dituela Jesusek bereekiko dituen atxikimendua eta elkartasuna. Hor dago Galileako bideetan bere begiak beteko dizkion irudia, adi-adi eta pazientziaz bizi diren artzainena; baita sinagogan entzundako profeten testuak ere, Jainkoaren arabera artzain batez mintzo direnak, galdutako ardiaren bila joan eta makalak sendatzen dituenarenak... bat datoz berak une horretan eskaintzen duenarekin, irudi hori behin betiko Zaintzaile eta unibertsaltzat eman ez. Hiru aditz errepikatu ditu Jesusek, paradigmatico bihurtu direnak: entzun, ezagutu, jarraitu. Lehenik, arreta beraren ahots gozoari historiako zarata artean: aditzen duguna familiarterko bihurtzen digun entzutea da, komunikatzen zaigun harekin bat egiten gaituena. Artzain hau da hondoraino ezagutzen gaituen bakarra, geure baitan ezkutuan dagoen onberatasuna esnatzen duena, zeini jarraitzen ikasten baitugu, jokoan dugulako horretan janaria, atsedena, babesa, lagunartea... Benetan uste al dugu bat garela Aitarekin, Jesusekin eta arnasadun diren izaki guztiekin? Nola biziko ginateke egoera horretan egongo bagina?

Pazkoaldiko 4. astea.

Zeruko Andre Maria Fatiman agertua.

San Andres Huberto Fournet, *apaiza*.

[Apostoluen Eginak liburutik 11,1-18: Jentilei ere eman die Jainkoak bizira daraman bihotz-berritzea. Sal 42 [41]: Jainko biziaren egarri naiz: noiz iritsiko ote naiz Jainkoaren aurpegia ikustera?]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10,1-10.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Egi-egiaz diotsuet: Artegian, atetik ez, baino beste nonbaitetik sartzen dena lapurra da eta harrapatzailea. Atetik sartzen dena, berriz, artzaina da. Honi ireki egiten dio atezainak, eta ardiek aditzen dute haren ahotsa; ardi bakoitzari bere izenaz deitzen dio, eta kanpora ateratzen ditu. Ardi guztiak atera ondoren, aurretik joaten zaie eta ardiek jarraitu egiten diote, ezagutzen baitute haren ahotsa. Arrotzari, ordea, ez diote jarraituko; aitzitik, ihes egingo diote, arrotzaren ahotsa ez baitute ezagutzen».

Jesusek adibide hau eman zien, baina haiek ez zuten ulertu zer esan nahi zien. Orduan, honela azaldu zien Jesusek: «Egi-egiaz diotsuet: Ni naiz ardien atea. Nire aurretik etorritako guztiak lapurrak ziren eta harrapatzaileak; horregatik, ardiek ez zieten jaramonik egin. Ni naiz atea. Ate honetatik sartzen dena onik izango da, lasai sartuko da eta aterako, eta aurkituko du jatekoa. Lapurra ez doa artaldera ostu, hil eta hondatzera baizik; Ni, berriz, bizia izan dezaten etorri naiz, bizia ugari izan dezaten».

**I**zan dezagula bizia ugari: horixe da Jesusen desiorik handiena. Gogora datorkit emakume etorkin baten aurpegia, bere hiru seme lagun dituela. Astean egun batean ere ez du atsedunik hartzen, semeak aurrera ateratzeko. Larunbatetan agure bat zaintzera joaten da, igande arratsaldea arte; etxera itzultzen da semeekin; astelehenean, goizean goiz, lanera joango da. Orain, ordea, oinaze bortitza du belaunean. Beti esaten dit: «Jainkoa bada; bestela ez nintzen ni aurrera irtengo. Gu zaindu gaitu eta hartan jarraituko du».

[Apostoluen Eginak liburutik 1,15-17.20-26: Zotz eginik, Matiasi egokitu zitzaion, eta hamaika apostoluekin elkartu zuten. Sal 113 [112]: Bere herriko handikiekien eserarazi du Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,9-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Aitak Ni maite izan nauen bezala, halaxe maite izan zaituztet Nik ere zuek; iraun tinko nire maitasunean. Nire aginduak betetzen badituzue, nire maitasunean iraungo duzue, Nik ere, Aitaren aginduak bete ditudalako, haren maitasunean irauten dudan bezala.

Hau esan dizuet nire poza zeuengan izan dezazuen, eta zuen poza bete-betea izan dadin. Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar, Nik maite izan zaituztedan bezala. Ez du inork maitasun handiagorik, bere bizia adiskideen alde ematen duenak baino.

Zuek nire adiskide izango zarete, Nik agindua betetzen baduzue. Aurrerantzean ez dizuet morroi deituko, morroiak ez baitu jakiten nagusiak zer egiten duen; zuei adiskide deitzen dizuet, neure Aitak jakinarazi didan guztia adierazi baitizuet.

Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, Nik aukeratu zintuztedan zuek, eta eginkizun hau eman dizuet: edonon fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela; horrela, Aitari nire izenean eskatuko diozuen guztia emango dizue. Hauxe agintzen dizuet: maita dezazuela elkar».

**A**sko maitatzera gonbidatu gaitu Jesusek, eta maita gaitzaten uztera, bihotz handiko gizon eta emakume izatera. Geure bizitzan beraren poza bere betera eraman dezagun nahi du, poz ezti hori, gure beldurra baino barruagatik ernetzen dena, bera presente dagoenean, eta emankor izan gaitezen desiratzen du. Emankortasun hori arrakasta ez bezalakoa da oso. Emankortasunak kimatu beharra izaten du; arrakasta, berriz, lorpen bila ibili ohi da; emankortasunak ibilbide bat behar izaten du; arrakastak, berriz, bat-bateko emaitzak; emankortasunak lurraren iluntasuna behar izaten du: xumetasuna, pazientzia, konfiantza... Eta emankortasun hori ez dugu geuk neurtzen sekula, Mahastiainaren esku utzi behar izaten da.

Pazkoaldiko 4. astea.

San Isidro, *nekazaria*.

Santa Joana Lestonac-ekoa, *fundatzailea (Mariaren Lagundia)*.

[Apostoluen Eginak liburutik 12,24–13,5a: Bereizi niretzat Bernabe eta Saulo. Sal 67 [66]: Ene Jainko, aipa zaitzatela herriek, aipa zaitzatela herri guztiek.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 12,44-50.

Aldi hartan, Jesusek oihu eginez esan zuen: «Nigan sinesten duenak nigan ez ezik, Ni bidali nauengan ere sinesten du. Eta Ni ikusten nauenak Ni bidali nauena ere ikusten du.

Ni argi izateko etorri naiz mundura, nigan sinesten duen inor ilunpean geldu ez dadin. Nire hitzak entzun bai, baina betetzen ez dituenak, ez dut Nik gaitzesten, ez bainaiz mundua gaitzestera etorri, mundua salbatzera baizik.

Ni ukatu eta nire hitzak onartzen ez dituenak badu nork gaitzetsi; Nik adierazitako hitzak berak gaitzetsiko du azken egunean; Nik ez baitut neure kabuz hitz egin, baizik eta bidali nauen Aitak agindu dit zer esan eta zer irakatsi. Eta badakit haren aginduak betiko bizia ematen duela. Horrela, bada, Nik esaten dudana, Aitak agindu bezala esaten dut».

**J**esusek hondo-hondoraino sinetsi zuen, eta harreman bizia sentitu eta bizi izan zuen Jainkoarekin. Aitak agertzen zizkion hitzen eta argiaren harira ibili zen. Badakigu, ez dagoela neurgailurik pertsona baten fedea neurtzeko. Jainkoarekiko atxikimenduaren eta harremanen maila besteek bakarrik neurtzen ahal dute: presentziaren halako kalitate bat dela, isiltasunaren geure egoitza propioa desirarazten digun isileko irradiazio bat dela, gainerakoei opa diegun guztia dela eta, batez ere, gugan gauzarik hobena arnasten duen txera pertsonalaren sententzia dela. «Salbaturik» sentitzen gara: distiratsuago eta maitagarriago Jainkoaren presentzian.

Pazkoaldiko 4. astea.

San Mikel Garikoitz, *apaiza, fundatzailea (Betharramgo Jesusen Bihotzeko Apaizen Elkarte [Betharramdarra])*\*

[Apostoluen Eginak liburutik 13,13-25: Daviden hazitik atera zion Jainkoak Israeli Salbatzailea, Jesus alegia. Sal 89 [88]: Jauna, zure maitasuna abestuko dut betierez betiere.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13,16-20.

Jesusek, bere ikasleei oinak garbitu ondoren, esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Morroia ez da nagusia baino handiago, ezta bidalia ere bidaltzailea baino handiago. Hortaz jabeturik, zorionekoak izango zarete, horren arabera jokatzeko baduzue.

Ez naiz zuek guztiotaz ari; badakit, bai, zein aukeratu ditudan; baina bete beharrekoa da Liburu Santuak dioen hau: “Nire ogitik jaten duena kontra altxatu zait”. Aurrez, gertatu baino lehen, esaten dizuet, gerta dadinean, “Ni naizela” sinets dezazuen.

Egi-egiaz diotsuet: Nik bidalia onartzen duenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali ninduenak onartzen du».

**M**aisu eta Jaun den Jesus beheratu egin da –etxeko nagusiak egiten ez zuena– oinak garbitzera, eta guztiei garbitu dizkie bereizketarik egin gabe. Hori bizitzean agertu dituen sakontasunak, gupidak eta transzendentziak, keinu sakratu bihurtu dute Jesusen ekintza hori; behin eta berriz gogoratu beharko genuke hau. Oso gutxi onetsia den zoriontasun bat eskaini digu Joanen kapitulu honetan: Jesusen jokamoldeaz jokatzeko zoriona eta poza aurkitzen dugu. Kontua ez da, jokamolde hori ezagutze hutsa, ezta oso ikasia izatea ere, ezta komentatze hutsa ere... baizik eta praktikatzea. Esana zigun beste behin batean: «zoaz eta egizu gauza bera».

\* San Andres Bobola, *apaiza eta martiria, jesuita*.  
San Ubaldo, *martiria*. Santa Gema Galgani, *birjina*.

Pazkoaldiko 4. astea.

San Paskoal Bailon, *erlijiosoa*.

[Apostoluen Eginak liburutik 13,26-34: Agintzaria geuri bete digu Jainkoak, Jesus berpiztuz. Sal 2: Nire seme zara zu; Nik zaitut gaur sortu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,1-6.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez izan kezkarik; sinetsi Jainkoagan eta sinetsi nigan ere. Nire Aitarenean bizitoki asko dago; horrela izan ez balitz, esango nizuekeen. Orain zuentzat tokia prestatzera noa. Joan eta tokia prestatu ondoren, berriro etorri eta neurekin eramango zaituztet, Ni nagoen tokian zuek ere egon zaitezten. Zuek badakizue Ni noan tokirako bidea».

Tomasek esan zion: «Jauna, ez dakigu nora zoazen, eta nola jakin bidea?» Jesusek erantzun: «Ni naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitagana joan, nire bidez izan ezik».

**J**auna ez da aspertzen gugan konfiantza jartzeaz; izan ere, ezagunak ditu gure izaera beldurtia eta gure segurtasun bila ibili beharra. Bititza osoa eman genezake estuturik, osasunaren, izen onaren edota ondasun materialen mehatxu izan genezakeen edozergatik. Ez dugu horrelakorik agerian esaten, baina segurtasun-falta horrek geure pentsarari eta lanei egiaz erasaten die. Jesusek gure etorkizuna bere presentzia maitetsuaren arroka irmoan sostengatu nahi du: beraren «bidean» gabiltza, bera da gure «egia» –esperimentatu ohi dugun sasikoa baino sakonagoa–, bera da gure bizia, arnasten dugun guztian. Berarekin, ez gara galduko sekula.



[Apostoluen Eginak liburutik 13,44-52: Jentilengana joko dugu. Sal 98 [97]: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,7-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni benetan ezagutuko batiniduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete. Are gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue». Orduan, Felipek esan zion: «Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta nahikoa dugu».

Jesusek erantzun: «Hainbeste denbora zuekin, eta ez al nauzu eza-  
gutzen, Felipe? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du. Nola diozu:  
“Erakutsiezaguzu Aita”? Ez al duzu sinesten Ni Aitagan nagoela eta  
Aita nigan? Nik esaten dizuedana ez dizuet neure kabuz esaten. Nigan  
bizi den Aita da bere egintzak burutzen ari dena. Sinetsiezadazue: Ni  
Aitagan nago eta Aita nigan. Besterik ez bada ere, sinetsiezgintzen-  
gatik.

Egi-egiaz diotsuet: Nigan sinesten duenak Nik egiten ditudan  
egintzak burutuko ditu berak ere, eta are handiagoak, Ni Aitagana bai-  
noa. Nire izenean eska dezazuen guztia emango dizuet, Aitaren aintza  
Semeagan ager dadin. Nire izenean zerbait eskatzen baduzue, emango  
dizuet Nik».

**L**ehen kristauak, Izenari dei egiten zion jendetzat hartu ohi zituz-  
ten. Jesusen Izena beraien jabetza bakar eta beraien indar sendatzaile  
bihurtu zen lehen kristau haientzat: beraien bizitzako une guztien usain  
bizia bailitzan. Basamortuko gurasoek adierazten dute, ezen zenbat eta  
hartuagoa duen Izen honek pertsona bat, zenbat eta liberatuagoa izan  
den errukia pertsona batengan, orduan eta adoratzaile handiagoa izan-  
ten dela, orduan eta gehiago erregutzen duela besteen alde, guzti-guz-  
tiak batean eta oso-osorik hartuz, ezer baztertu gabe: «Zorionekoa Je-  
susen izena alferrik hartzen ez duena anaia edo arreba onartzean, zeren  
eta geure anaia edo arreba geure bizia bera baitugu!»

Pazkoaldiko 5. astea.

San Zelestino V.a, 192. aita santua.

San Frantzisko Coll, *apaiza eta fundatzailea*

(*La Anunciata-ko moja domingotarrak*).

### § Apostoluen Eginak liburutik 14,21b-27.

Egun haietan, Paulo eta Bernabe Listrara, Ikoniora eta Antiokiara itzuli ziren. Bidenabar, ikasleen bihotzak sendotzen zituzten, sinesmeanean irauteko adore emanez. «Larrialdi asko jasan behar dugu –esaten zieten– Jainkoaren erreinuan sartzeko». Eliz elkarte bakoitzean arduradunak izendatu zituzten eta, otoitz eta barau egin ondoren, Jaunaren eskuetan utzi zituzten, harengan sinetsi baitzuten.

Pisidian zehar, Panfiliara iritsi ziren eta, Pergen hitza hots egin ondoren, Ataliara jaitsi ziren. Han ontzia hartu zuten Siriako Antiokiara joateko, handik bidaliak baitzituzten burutu berria zuten egitekorako, Jainkoaren ardurapean jarri ondoren.

Iritsi zirenean, eliz elkarteak bildu zuten eta Jainkoak beraien bidez egindako guztia azaldu zieten, baita jentilei federako atea nola ireki zieten ere.

[Sal 145 [144]: Ene Jainko, ene errege, bedeinkatuko dut zure izena betiere.]

### § Apokalipsia liburutik 21, 1-5a.

Nik, Joanek, zeru berria eta lur berria ikusi nituen, desagertuak baitziren lehenengo zerua eta lehenengo lurra, eta itsasorik ere ez zen.

Hiri santua ikusi nuen, Jerusalem berria, zerutik Jainkoagandik jaisten, andregai bere senararentzat bezala apaindua. Eta ahots handia entzun nuen tronutik esaten: «Hona Jainkoaren bizilekua gizakien artean; haiekin biziko da. Haiek izango ditu bere herri, eta Jainkoa bera izango dute haiek berekin.

Begietako malkoak xukatuko dizkie, eta ez da gehiago heriotzarik izango, ez dolurik, ez negarrik, ez nekerik, lehengo mundua desagertua baita».

Eta tronuan eseria zegoenak esan zuen: «Hara, gauza guztiak berri egiten ditut».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13,31-33a.34-35.

Judas afaltokitik atera zenean, esan zien Jesussek: «Oraintxe agertuko da Gizonaren Semearen aintza, eta haren bidez Jainkoarena. Jainkoaren aintza haren bidez agertzen bada, Jainkoak ere bere aintzaz beteko du hura, eta berehala gainera.

Semetxook, oraintxe ez nago luzarorako zuekin. Agindu berria ematen dizuet: maita dezazuela elkar. Nik maite izan zaituztedan bezala, maita zuek ere elkar. Honetan ezagutuko dute guztiak nire ikasle zaretela: zuek elkar maite izatean».

**E**zin onartu ditugu hitz hauek, geure begi aurrean eduki gabe Jesusen sentimenduak, Judasen saldukeriak bihotz-hondoan eragin dion zirrara: konfiantza erakutsi dion eta maite duen harenak, beraren nahigabea Judasek bide okerra eta galdua hartu izana ezin saihestu izateagatik... Sufrimendu eta maitasun handia dute Jesusen hitz hauek: «Ene semeok, denbora gutxirako izango nauzeu zeuen artean». Eska dezagun, hitz horiek hunkitu eta mugi gaitzaten uzteko gai izan gaitezen. Hitz iturburu dira, bizitza oso bat laburbiltzen dute, azken mementoan norbaitek bere aberastasun handien gisa, berei uzten dien testamentu dira: maitatzeko beste era bat. Giltzarria bi hitz hauek dute: «nik bezala...», berak maite izan gaituen bezala. Soilik, nork bere bizia integrazten eta balioztatzen laguntzen ahal diegu besteei; soilik, nork bere bizia adiskidetzen eta den bezala maitatzen; beti ere, geuk uzten dugun neurrian Jaunak ere gurekin egin dezan. Eta ezaguna dugu beraren sekretua: bihotza irekirik du zauri batez. Ez da beste seinalerik, ez da beste erarik Jainkoaz zerbañt esateko, zaurgarritasunak eta txerak joa ez denik, maitasun samur eta pazientzia handiko batek joa ez denik; on zehatz eta saneagarri batek joa ez denik.

San Bernardino Sienakoa, *apaiza, frantziskotarra*.

[Apostoluen Eginak liburutik 14,5-18: Berri on hau adierazten dizuegu: utz ditzazuela idolo hutsalak eta bihur zaitezela Jainko biziagana. Sal 115 [113B]: Ez guregatik, Jauna, baizik zeure izenaren ohoregatik erakutsi zeure ospea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,21-26.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Nire aginduak onartu eta betetzen dituenak, horrexek nau maite, eta Ni maite nauena nire Aitak maite izango du, eta Nik ere maite izango dut eta agertuko natzaio».

Esan zion Judasek, ez Iskariotek, besteak baizik: «Jauna, zer dela-eta agertuko zatzaizkigu guri eta ez munduari?»

Jesusek erantzun zion: «Ni maite nauenak gordeko du nire hitza; nire Aitak maite izango du, eta Aita eta biok harengana etorriko gara eta harenagan egingo dugu bizileku. Ni maite ez nauenak, ordea, ez ditu gordetzen nire hitzak. Eta entzuten duzuen hitza ez da nirea, bidali nauen Aitarena baizik.

Zuekin naizen artean esan dizuet hau. Baina Aitak Laguntzailea, Espiritu Santua, bidaliko dizue nire izenean; hark irakatsiko dizue dena eta gogoraraziko Nik esan dizuedan guztia».

**E**spirituaren lurraldean milaka izen ageri da. Esperantza dute izena, babes bila dabilzan siriari aterpetuentzat. Bake maitea dute izena, aurpegia estalirik hainbateko basakeriatik bizirik atera nahiz dabilzan Afganistango emakume eta haur neskatxentzat. Askatasuna dute izena, urte askoz kartzelan eta oihanean bahiturik direnentzat. Zuzenbidea dute izena, beren kontinente lapurtuan goseak hiltzen ari diren afrikar belaunaldientzat. Edertasuna dute izena, kreatua den guztia baita on eta bikain («argi-zuziak desberdinak dira baina argia bat bera», esan zuten Rumi-k); eta gizartea dute beren izena.

[Apostoluen Eginak liburutik 14,19-28: Jainkoak beraien bidez egin-dako guztia azaldu zioten elkarteari. Sal 145 [144]: Zure adiskideek ager bezate, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.)

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,27-31a.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Bakea uzten dizuet, neure bakea ematen; Nik ematen dizuedan bakea ez da munduarena bezalakoa. Ez kezkatu, ez beldur izan. Entzun duzue esan dizuedana: “Banoa, baina itzuliko naiz zuengana”. Benetan maite baninduzue, poztuko zinatekete Aitagana noalako, Aita Ni baino handiagoa baita.

Orain esan dizuet, gertatu baino lehen, gerta dadinean sinets dezazuen. Ez dut jadanik luze hitz egingo zuekin, bai baitator mundu honetako buruzagia. Horrek ez du nire gain ahalmenik; baina munduak jakin behar du Nik maite dudala Aita eta Aitaren agindua bete egiten dudala».

**O**so premiazko da bakearen alde otoitz egitea eta edozein gerla-motaren aurka azaltzea; baina, aldi berean, premiazkoa da kontuan izatea, ezin hasi gintezkeela eskatzen elkarrizketa, adiskidetasuna, bake-akordioak gatazkan bizi diren lurraldeetan, ez erasotzeko konpromisoak..., baldin eta ondoren, geure egunean eguneko harremanetan, geure eguneroko indarkeriekin, ezkutuko eta kristalduekin, akordioa egiten badugu. Soilik, barkaziotik eta partekaturiko zaurgarritik konpon daitezke bizitza kaltetuak. Jesusen bakea indar eta lotura dugu, oztantasuna dakarkigu, bihotza gogortzera letorkeen ezeri indarrik eman ez diezaiogun.

[Apostoluen Eginak liburutik 15,1-6: Jerusalemera igo zitezela erabaki zuten, apostoluekin eta arduradunekin auzia argitzera. **Sal 122 [121]:** Goazen pozik Jaunaren etxera!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni naiz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da nekazaria. Nigan fruiturik ematen ez duen aihena moztu egiten du Aitak, eta fruitu ematen duena garbitu eta kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek garbi zaudete dagoeneko, Nik adierazi dizuedan hitzari esker. Zaudete nigan, Ni zuengan bezala. Aihenak berez, mahatsondoan ez badago, fruiturik eman ezin duen bezala, zuek ere ez, nigan ez bazaudete.

Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait nigan badago, Ni harengan bezala, hark fruitu asko emango du; Ni gabe ezin baituzue ezer egin. Nigan ez dagoena kanpora botatzen dute, ebaki eta ihartzen den aihena bezala; gero, bildu, sura bota eta erre egiten dute.

Nigan bazaudete eta nire hitzak zuengan badaude, eskatu nahi duzuen eta izango duzue. Honetan azaltzen da nire Aitaren aintza: zuek, nire ikasle izanik, fruitu asko ematean».

**J**esus mahastiaren irudiaz baliatu denean, maitasunaz berak izan duen esperientzia azaltzen ari zaigu. Pixkana ikusiz eta aurkituz joan da maitasun hori: bera ukitu duen emakume odoljaridunagan, bere egitekoaren zeruertza zabalagotu dion kanaandar emakumeagan, beren afektua askotariko keinuz azaldu eta berea nola adierazi erakutsi dioten Marta eta Maria bere adiskideengan. Bere harremanetan bizi izan du Jesusek maitasun zabal, eskuzabal, onbera, saneagarri... honen esperientzia, eta ikusiz joan da bera ere maita dezaten uzten; ikusiz joan da kimatze-aldiari eta loreen eta fruituen aldiari antzematen.

Urteko 5. astea.

San Desiderio, *gotzaina*.Santa Almerinda, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 15,5-21: Ene iritziz, ez zaie alferreko oztoporik ezarri behar Jainkoagana bihurtzen diren jentilei. **Sal 96 [95]**: Zabaldu Jaunaren mirariak herri guztietan.]

† Jesus Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,9-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Aitak Ni maite izan nauen bezala, halaxe maite izan zaituztet Nik ere zuek; iraun tinko nire maitasunean. Nire aginduak betetzen badituzue, nire maitasunean iraungo duzue, Nik ere, Aitaren aginduak bete ditudalako, haren maitasunean irauten dudan bezala.

Hau esan dizuet nire poza zeuengan izan dezazuen, eta zuen poza bete-betea izan dadin».

**B**ada Ana Belén-en abesti bat, dioena: «zorioneko izan zaren lekura itzultzen saiatu beharko zenuke», eta urteek adierazten digute leku hori ez dela eremu fisiko bat, ez dela ere aldi batean dagoen zerbait, baizik eta leku hori barnean dagoela, geurekin etorri ohi dena ibili gabiltzanean. Poza erne, Jesusen txera sentitzearekin erne ohi da, eta sentitzean, beraren maitasun guztia gurea ere badela. Errealitatearen unerik gogorrenetan irribarreari eustea, Jaunaren presentzia isilaren seinalerik garbiena da. Ez gaitzela harritu jenderik alaiena pertsona pobreenak eta xumeenak izateaz, ezbeharrean gehienik ospatzen dutenak, alegia.

Urteko 5. astea.

Stradako Andre Maria, jesuiten ama elizan: Jesù elizan Erroman.

[Apostoluen Eginak liburutik 15,22-31: Espiritu Santuak eta guk erabaki dugu zuei zamarik ez ezartzea, behar-beharrezko direnak izan ezik. Sal 57 [56]: Goretsiko zaitut, Jauna, herrien artean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,12-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar, Nik maite izan zaituztedan bezala. Ez du inork maitasun handiagorik, bere bizia adiskideen alde ematen duenak baino.

Zuek nire adiskide izango zarete, Nik agindua betetzen baduzue. Aurrerantzean ez dizuet morroi deituko, morroiak ez baitu jakiten nagusiak zer egiten duen; zuei adiskide deitzen dizuet, neure Aitak jakinarazi didan guztia adierazi baitizuet.

Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, Nik aukeratu zintuztedan zuek, eta eginkizun hau eman dizuet: fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela edonon; horrela, Aitari nire izenean eskatuko diozuen guztia emango dizue. Hauxe agintzen dizuet: maita dezazuela elkar».

**G**eure bizitzako bidaiaren sekretua, maitasun-esperientzia hau egiteko bakarrik bizi dugu. Maitasun horretarako, Benedettiren poema batek dioenez, «ametsen bila ibili ohi gara eta zeruak estalgabetzen ditugu», bihotzaren dardarizo horretarako, harri bakoitzean isildua, bizi den izaki bakoitzean, begi aurrean agertu ohi zaigun giza begitarte bakoitzean. Ahots hori eman eta hartu nahi dugu soilik. «Inork ez du maitasun handiagorik, bizia bere adiskideengatik ematen duenak baino», diosku Jesusek, eta Unibertsoa ordenatzen eta sostengatzen duen maitasun hartaz ari da bera; Unibertsoa, zeinetan ostera jaiotzeko dei berri bat jaso baitugu, hirurogeita hamar aldiz zazpitan, gero.



Santa Bizenta Maria Lopez Bikuña (Kaskante 1847-Burgos 1890), *birjina, fundatzailea (Maria Sortzez Garbiaren Erlijosak).*\*

[Apostoluen Eginak liburutik 16,1-10: Zatoz Mazedoniara eta laguniezaguzu. Sal 100 [99]: Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,18-21.

Aldi artan, Jesusek esan zien ikasleei: «Munduak gorroto badizue, jakizue zuei baino lehen niri izan didala gorroto. Mundukoak bazinete, munduak maite izango zintuzkete, nork berea maite duen legez; baina Nik aukeratu eta mundutik atera zintuztedanez, munduak gorroto dizue, mundukoak ez zaretelako.

Gogoratu esan nizuena: morroia ez da nagusia baino handiago. Ni pertsegitu banaute, zuek ere pertsegituko zaituztete; nire hitza hartu badute, hartuko dute zuena ere. Nire izenagatik egingo dizuete hori guztia, bidali nauena ezagutzen ez dutelako».

**E**ntzun nion behin batean ahizpa nagusi bati: «Jauna, gauza orotan hartu diguzu aurre, zahardadean salbu». Eta pentsatu nuen, halarre, puntu horri dagokionez ere begiratzen ahal diogula Jaunari bere eskaintzaren alde isilekoenetan eta pasiboenetan. Atentzioa ematen dit Jesusen «niri lehenago» delako horrek. Ez dago dudarik «Jesusen lehenago bizi izan dut» delako horretaz, eta orain eskua luzatzen digu berarekin batean geuk ere bizi ahal dezagun. Ezertan ere ez gaude bakarrik. Abagune garratz edo gozo oro da aukera on berarekin bat egiteko, beraren bizitza gugan luza dadin. Jauna da beti aurrea hartzen diguna: «nik aukeratu zaituztet...». Guri, eskuak luzatzea dagokigu eta uztea bere gisako egin gaitzan.

\* San Beda Agurgarria, *apaiza eta eliz irakaslea*.  
San Gregorio VII.a, *aita santua*.  
Santa Maria Magdalena Pazzi-koa, *birjina*.

Urteko 6. astea.

San Felipe Neri, *fundatzailea (Oratoriokoak)*.

### § Apostoluen Eginak liburutik 15,1-2.22-29.

Egun haietan, Judeatik Antiokiara jaitsi ziren batzuk irakaspen hau ematen hasi ziren hango senideei: «Moisesengandiko usadioaren arabera erdaintzen ez bazarete, ez zaitezketen salba». Hori zela eta, iskanbila sortu zen, eta Paulok eta Bernabek eztabaida gogorra izan zuten haiekin. Orduan, Paulo, Bernabe eta beste batzuk Jerusalemara igo zitezela erabaki zuten, apostoluekin eta arduradunekin auzi hori argitzera.

Apostoluek eta arduradunek, eliz elkarte osoarekin batera, beren arteko batzuk aukeratu eta Paulo eta Bernabekin Antiokiara bidaltzea erabaki zuten. Barsaba deituriko Judas eta Silas aukeratu zituzten, senideen artean itzal handiko gizonak biak, eta gutun hau eman zieten eramateko:

«Anaia apostoluek eta arduradunek Antiokia, Siria eta Zilizia-ko jentil-herrietako senideei, agur! Jakin dugu gure arteko batzuek, guk agindu gabe, beren hitzez kezkatu eta nahastu zaituztetela. Horregatik, ordezkari batzuk aukeratzea erabaki dugu aho batez eta zuengana bidaltzea, Bernabe eta Paulo geure senide maiteekin, beren burua Jesu Kristo gure Jaunaren zerbitzuan eman duten horiekin. Hor bidaltzen dizkizuegu, bada, Judas eta Silas, hau bera ahoz jakinaraz diezazueten. Espiritu Santuak eta guk erabaki dugu zuei zamarik ez ezartzea, behar-beharrezko diren hauek izan ezik: ez dezazuela jan sasi-jainkoei eskainitako haragirik, ez odolik, ez odolustu gabeko abererik, eta utz ditzazuela legearen kontrako haragi-harremanak. Ondo egingo duzue horrelakoetatik alde egiten baduzue. Izan ongi».

[Sal 67 [66]: Ene Jainko, aipa zaitzatela herriek, aipa zaitzatela herri guztiek.]

### § Apokalipsia liburutik 21,10-14.22-23.

Urteko 6. astea.

San Felipe Neri, *fundatzailea* (Oratoriokoak).

Ni, Joan, hartu ninduen aingeruak eta mendi handi eta garai batera eraman ninduen espirituz; Jerusalem hiri santua erakutsi zidan, zerutik Jainkoagandik jaisten, Jainkoaren aintzaz dirdaitsu. Haren distira harribitxi eder baten antzekoa zen, jaspe harria bezain garden.

Harresi sendo eta garaia zuen, hamabi atekoa, eta ate gainetan hamabi aingeru eta hamabi izen idatziak, israeldarren hamabi leinuen izenak. Hiru ate ekialdera zeuden, hiru iparraldera, hiru hegoaldera eta hiru mendebaldera. Hiriko harresiak hamabi oinarri zituen, eta haue-tan idatziak Bildotsaren hamabi apostoluen izenak.

Ez nuen inolako tenplurik ikusi, zeren Jauna Jainko ahalguztiduna eta Bildotsa baitira hango tenplu. Hiriak ez du behar argituko duen eguzkirik nahiz ilargirik, Jainkoaren aintzak baitu argitzen, eta Bildotsa du argiontzi.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,23-29.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni maite nauenak gordeko du nire hitza; nire Aitak maite izango du, eta Aita eta biok harengana etorriko gara eta harengan egingo dugu bizileku. Ni maite ez nauenak, ordea, ez ditu gordetzen nire hitzak. Eta entzuten duzuen hitza ez da nirea, bidali ninduen Aitarena baizik.

Zuekin naizen artean esan dizuet hau. Baina Aitak Laguntzailea, Espiritu Santua, bidaliko dizue nire izenean; hark irakatsiko dizue dena eta gogoraziko Nik esan dizuedan guztia.

Bakea uzten dizuet, neure bakea ematen; Nik ematen dizuedan bakea ez da munduarena bezalakoa. Ez kezkatu, ez beldur izan. Entzun dizue esan dizuedana: “Banoa, baina itzuliko naiz zuengana”. Benetan maite baninduzue, poztuko zinatekete Aitagana noalako, Aita Ni baino handiagoa baita.

Orain esan dizuet, gertatu baino lehen, gerta dadinean sinets dezazuen».

Urteko 6. astea.

San Felipe Neri, *fundatzailea (Oratoriokoak)*.

**J**oanen ebanjelioak Jesusen barne bizitza azaltzen digu, maitagarri zena maitatzera eragiten zion hura, kanporatuak zirenak barnertzera, baketzera... eragiten zion hura, gauza gizatarretan Jainkoaren arrastoa ikustera eragiten zion hura. Ez dio esleitu inoiz ere bere buruari bizitza saneatzeko eta eraberritzeko duen ahalmen hori, Beste Batengandik hartua du eta Beste Huraxe ezagutaraziko du azkenean: «Aitari erregutuko diot beste Laguntzaile bat zuei bidali eta zeuekin izan dezazuen» (Jn 14,16). Gure Barne Maisu izango da, onberatasunera eramán gaitzan guk nola utzi irakatsiko diguna, adiskidetasunera, buru-eskaintzara eta alaitasunera. Espiritua izango da gogoratzera eramango gaituena, bihotzean berriro hausnartzera, Jesusen hitzak eta jokamoldea; uztera eramango gaituena beraren dinamismoa joan dadin gure bizitza eratzen. Simone Weilek esana da: «Ez pertsona batek Jainkoaz hitz egiteko moduz, baizik eta pertsona horrek lurreko gauzez hitz egiten duen moduz bereizi ahal izango dugu hobekien beraren arima Jainkoaren maitasunaren suan bizi den ala ez. Hor ez da posible inolako engainurik. Badira Jainkoaren maitasunaren imitazio faltsuak, baina ez berak ariman egiten duen eraldaketarenik».

\* \* \*

### «EZ BELDUR IZAN»

«Gurekin egon gurekin» abestiaren doinuaz abestekoa

Ez beldur izan. Neu nauzu, lagun.  
Zeure ondoan naukazu.  
Neu nauzu, lagun. Ez beldur izan.  
Ez beldur izan. Neu nauzu.

Ur-ertzaren magala urrun dago,  
ekaitzak joa, urrun dago.  
Baina, Jauna, zu zaitut ziurrago,  
zure ahotsa, ziurrago.

Urteko 6. astea.

San Agustin Canterburykoa, *gotzaina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 11,11-15: Jaunak bihotza ireki zion, Pauloren hitzak gogoz onar zitzan. Sal 149: Maite du Jaunak bere herria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,26–16,4a.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Nik Laguntzailea, jatorria Aitagan duen egiaren Espiritua, bidaliko dizuet Aitagandik. Hark, etortzean, aitormen egingo du nire alde. Eta zuek ere egingo duzue aitormen, hasieratik nirekin baitzaudete.

Zuen sinesmenak huts egin ez dezan esan dizuet hau. Zeren eta judu-elkartetik bota egingo baitzaituztete; are gehiago, badator ordua, zuek hilko zaituztenak Jainkoari kultu ematen diola uste izango duena. Eta horrela jokatuko dute, ez Aita, ez Ni, ezagutu ez gaituztelako. Aurrez esaten dizuet, hori gertatzean esana nizuela gogora dezazuen».

**A**ldi txarretarako prest egon gaitzen animatu nahi gaitu Jesusek. Espirituari ematen dizkion izen guztietatik bat, gogoan hartu beharko genukeen hau da: Babeslea. Bizitzako auzietan gure aldamenean izango dugu, animatuko gaitu eta bakoitzarengan berreskuratuko du ezerk ezaba ezin duen Jainkoaren aztarna hori. Segur aski, ez gara gertatuko sekula Jesusengatik pertsegiturik; baina jasan beharko ditugu ezin ulertu eta ukapen txikiren batzuk; halakoetan, mehatxaturik sentitzen garelarik, oldarkor erreakzionatu ohi dugu. Beste bat da Jesusen proposamena; beste ezer baino lehen, arnasa hartu, ez itzuli gaitza gaitzaren truk, utzi Onberatasunak defenda gaitzan.

Urteko 6. astea.

San Justo, *gotzaina*.

San Viktor, *martiria*.

[Apostoluen Eginak Liburutik 16,22-34: Sinetsi Jesus Jaunagan, eta salbatuko zarete zu eta zure etxeoak. Sal 138 [137]: Zeure eskuienez salbatzen nauzu, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,5-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Orain, bidali ninduen Aitagana noa, eta zuetako inork ez dit nora noan galdetzen. Baizik eta hori esan dizuedalako, tristurak bete du zuen bihotza.

Hala ere, egia diotsuet: hobe da zuentzat Ni joatea; izan ere, joaten ez banaiz, ez zaizue etorriko Laguntzailea. Joaten banaiz, ordea, bidali egingo dizuet.

Hura etortzean, agerian jarriko du munduaren errua bekatuari, zuzentasunari eta epaiari buruz: bekatuari buruz, nigan sinesten ez duelako; zuzentasunari buruz, Aitagana noalako, eta ez nauzue gehiago ikusiko; epaiari buruz, mundu honetako buruzagia jadanik gaitzetsia dagoelako».

**A**sko maite dugun bat hiltzen zaigunean, berarekin odol-loturak edo espiritu-loturak izan baditugu, beraren dohaina ematen zaigu. Jende hobeaz izango gara, hildakoaren bizitza arnasten zuen energiak irauin eta geure bizitzan luzatzen bada. Uste dut, horrelako zerbait azaldu nahi digula Jesusek. Beraren gauzarik hobena beraren absentzian ematen digu Espirituak. Gogoan dut emakume lagun batek esan zidana azken botoak egin genituenean: «guk ezin maitatuko dugu sekula Jesusek bezala». Hasieran ados egon nintzen, baina pentsatzen jarri eta esan nuen: eta zergatik ez? Ez al da hori, gugandik berak gehienik nahi duena? Ez al digu eskaini bera maitatzera gidatu zuen Espiritua bera?

Urteko 6. astea.

Santa Restituta, *martiria*.San Eleuterio, *aitorlea*.

[Apostoluen Eginak liburutik 17,15.22–18,1: Zuek ezagutu gabe gurtzen duzuen, horixe iragartzen dizuet nik. **Sal 148**: Zeru-lurrak beterik dauzka zure distirak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,12-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gauza asko dut oraindik zuei esateko, baina oraingoz ez zarete gai ulertzeko. Halere egiaren Espiritua etortzean, hark gidatuko zaituzte egia osoraino. Ez da bere kabuz mintzatuko, baizik eta entzungo duena esango dizue eta etorkizuna iragarriko. Hark nire aintza azalduko du, adieraziko dizuen niretik hartuko baitu.

Aitak duen gutzia nirea da; horregatik esan dizuet Espirituak niretik hartuko duela adieraziko dizuen».

**B**ingen-go Hildegardak «sorkari orenen bizitzaren bizia» deitu ohi zion Espirituari. Jesusez eta Aitaz adierazpen asko egin ohi dugu; Espirituaz, berriz, berari buruz hitz egin ordez, dei egiten diogu: «Zatoz». Etortzera gonbidatzen dugu jada gugan dagoena bada ere: eraldaketen Egilea da, harreman guztiak Ahalbidetzen dituen; bizitzako kolore eta ehundura guztien, ezagutzen ditugun eta oraindik ere etortzeko ditugun Moldatzaile sekretua da. Afrikar esaera zahar batek dio: «Bizi den orok du arima bat». Munduko arima horretaz da arazoa, eta horretaz hurbiltzeak, hurreratzeak, susmoak egin ditzakegu soilik: horretaz ezin asko gauza askorik esan.

Urteko 6. astea.

San Fernando III.a, *erregea*.

Santa Joana Arc-ekoa, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 18,1-8: Haiekin gelditu zen bizitzen eta lanean, eta sinagogan eztabaidan jarduten zuen. Sal 98 [97]: Ager-tu du Jaunak nazioen aurrean beragandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,16-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Denbora gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira ikusiko nauzue berriro».

Ikasleetako batzuek hau zioten elkarren artean: «Zer ote da esaten digun hau: “Denbora gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira ikusiko nauzue berriro”, eta “Aitagana noa”? Zer esan nahi ote du harako “gutxi barru” horrekin? Ez diogu antzik ere ematen zertaz ari den».

Konturatu zen Jesus galdegin nahi ziotela, eta esan zien: «Eztabaidan ari zarete zeuen artean esan dizuedan honetaz: “Denbora gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira ikusiko nauzue berriro”. Egi-egiaz diotsuet: Negar egingo duzue eta aieneka egongo zarete; mundua, berriz, poztu egingo da. Zuek triste egongo zarete; baina zuen tristura poz bilakatuko da».

**S**usmatu ere, doi-doi susma dezakegun poz bat dugu geure zoria. Guk, ordea, eguneroko geure zorrozkerietan jarraitzen dugu; bitartean aurrera doa bizitza geure begi-bistan, eta alde egiten uzten diogu. Guri eskainitako hainbat eta hainbat edertasun eta dohain dago munduan, non begi-ertze hutsez bakarrik ikusten ahal bagenu, pozez jauzi egingo baikenuke: arbolen doakotasun lasaia, haur batenak bezalako begien jakinduria, eta argi-printza horiek gauzen hondoan zain... Bizitzaren dardarizoa poza da eta ezin harrapatu ahal digu hori ezerk ere. Ez dugu zertan ihes egin eguneroko gauzetatik; soilik eskatzen zaigu, izan dezagula geure barnean aski isiltasun-eremu, egunerokotasun horren eraldaketarako leku izan dadin geuk parte hartuz.



Urteko 6. astea. Andre Mariaren Ikustaldia Elisabeti.  
 Santa Gertrudis, *aitorlea*. San Noe Mawaggali, *martiria*.  
 San Eduardo Cestak dohatsua (1801-1868),  
*Baiona, apaiza eta fundatzailea*,

### Sofonias profetaren liburutik 3,14-18.

Egin poz-irrintzi, Sion hiri! Egin oihu alai, Israel! Poztu zaitez bihotz-bihotzez, alaitu, Jerusalem!

Urratu du Jaunak zure kontrako erabakia, atzerarazi ditu zure etsaiak.

Jauna, Israelgo erregea, zure erdian dago; ez zara gehiago ezeren beldur izango. Egun hartan, esango diote Jerusalem: «Ez beldur izan, Sion! Ez bitez eror zure eskuak! Jauna zure Jainkoa zure erdian dago salbatzaile indartsu! Pozaren pozez alaitzen da zugatik, bere maitasunez biziberritzen zaitu. Pozez jauzika dabil zugatik, jaiegunez bezala».

Honela dio Jaunak: Nik bilduko ditut, Jerusalem, zuregandik urrutu, jairik gabe triste, zeudenak. Bai astuna zure lotsa!

[Salmo: Isaias 12: Egin poz-oihu, handikiro ari baita zuen alde Israelgo Santua.]

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-56.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion.

Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

Mariak esan zuen:

«Handiesten du nire arimak Jauna,  
 pozaren pozez daukat neure barrua,  
 Jainkoa baita nire salbamena,

Urteko 6. astea. Andre Mariaren Ikustaldia Elisabeti.

Santa Gertrudis, *aitorlea*. San Noe Mawaggali, *martiria*.

San Eduardo Cestak dohatsua (1801-1868),

*Baiona, apaiza eta fundatzailea,*

ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna.

Horregatik, dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek,

handiak egin baitizkit Ahalguztidunak;

santua da haren izena,

eta haren errukia gizaldiz gizaldi

begirune diotenengana.

Bere besoaren indarra erabili du, buru-harroak suntsitu ditu; bota

ditu beren aulkietatik ahaltzuak, eta gora jaso ditu ezerezak;

ondasunez bete ditu gose zeudenak eta esku-hutsik bidali abe-

ratsak.

Lagun etorri zaio bere morroi Israeli,

bere errukiaz oroiturik;

hala zien gure gurasoei hitzeman,

Abrahami eta ondorengoei betiko esana».

Mariak hiru hilabete inguru egin zuen Elisabetekin; gero, etxera itzuli zen.

**A**ndre Mariak bere esker-ahestia jaulki du, eta jarraitzaile ageri da Elisabet. Biek ospatu dute Jainkoaren egintza doako eta onbera hori, beren gizatar pobretasun eta ezinetik. Zirrara sentitu dute, txikitasuna aintzat hartua eta maitatua izan delako, errukiak bere besoak luzatu dituelako Lurreko ahulenetatik hasita. Jabetu dira, ez dutela zertan hornidurarik hartu biderako, ezta zertan utzi ere, zeren eta pertsona bat ez baita hazten konkistatuz, baizik eta eskainiz; konturatu dira, arazoa ez dela metatzea, baizik eta askatzea. Pertsona helduak dira biak, apal eta alai ageri dira; erakutsi digute, harreman guztiak arreta eta onarpena eskainiz bizi dituztela; ekintza sakratu bat dela etxe-abegikortasuna eskaintzea.





## EKAINA / BAGILA

### AITA SANTUAREN ASMOA

**Orokorra:** Sare sozialek solidaritatea eta, aldeak alde, hurkoaren errespetua fabora ditzaten.



Pazkoaldiko 6. astea.  
San Justino, *martiria*

---

[Apostoluen Eginak liburutik 8,23-28: Liburu Santuen bidez Jesus zela Mesias frogatu Apolok. Sal 47 [46]: Jauna da mundu osoaren errege.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,23b-28.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Aitari zerbait nire izenean eskatzen badiozue, emango dizue. Orain arte ez diozue ezer eskatu nire izenean. Eskatu eta hartuko duzue, zuen poza bete-betea izan dadin.

Orain arte irudi bidez hitz egin dizuet; baina badator ordua irudi bidez hitz egingo ez dizuedana, baizik eta argi eta garbi emango dizuet Aitaren berri. Egun hartan nire izenean eskatuko duzue, eta ez dizuet esaten Nik Aitari zuen alde eskatuko diodala; zeren Aitak berak maite baitzaituzte, zuek Ni maite izan nauzuelako eta Jainkoagandik etorri naizela sinetsi duzuelako.

Aitagandik irten eta mundura etorri nintzen; orain mundua utzi eta Aitagana noa berriro».

**B**ihotza hunkitzen du Jesusen desioak: pozik eta bihotz zabal bizi gaitzeen delakoak. Hamaika eratan diosku «Aitak maite zaituzte» hori. Nolatan merezi dezakegu guk hartarainoko maitasuna? Nola nabari izango litzatekeen gure bizitzan, sakon maiteak eta bedeinkatuak garaela sentituko bagenu! Gure geneek, gure historiako zauriek eta norberaren psikologiako gorabeherek, ordean, bat egiten dute, Jainkoak eskaintzen digun maitasun hau erabat sinets ez dezagun. Eguna joan eguna etorri, gogora ekarri beharra dugu «Aitak maite zaituzte» hau. Eta guk geuk? Maite al zaitugu, Jauna? Agertzen al dizugu geure txera jende txikiagan, zuk gurekiko duzunaren zazpitik bat izango balitz ere?

## § Apostoluen Eginak liburutik 1,1-11.

Teofilo maitea: Neure lehenengo liburuan, hasieratik zerura jasoa izan zen eguna arte Jesusek egin eta irakatsi zuen guztia idatzi nuen. Zerura igo aurretik, Espiritu Santuaren eraginez aginduak eman zizkien berak aukeratutako apostoluei. Jesus apostoluei agertu zitzairen bere nekaldiaren ostean eta bizirik zegoeneko frogara asko eman zien, berrogei egunez bere burua ikustera emanez eta Jainkoaren erreinuaz hitz eginez.

Haiekin bazkaltzen ari zen batean, hau agindu zien: «Ez alde egin Jerusalemdik. Zaudete han Nik Aitarenen partetik egin dizuedan agintzaria bete zain. Joanek urez bataiatu zuen; baina zuek Espiritu Santuaz izango zarete bataiatuak egun gutxi barru».

Orduan, bildurik zeudenek galdegin zioten: «Jauna, orain ezarriko al duzu berriro Israelgo erreinua?» Jesusek erantzun zien: «Aitak bakarrik du hori erabakitzeke ahalmena, eta ez dago zuen esku zein aldi edo unetan gertatuko den jakitea. Baina zuen gain jaitsiko den Espiritu Santuaren indarra hartuko duzue, eta nire lekuko izango zarete Jerusalem, Judea osoan, Samarian eta lurraren azken mugaraino».

Hori esanik, gorantz igo zen Jesus haien begi aurrean, hodei batek begietatik ezkutatu zien arte. Oraindik zerura nola zihoan begira-begira zeudela, zuriz jantzitako bi gizaseme azaldu zitzaizkien ondoan, eta esan zieten: «Galilearrok, zertan zaudete hor zerura begira? Zuen ondotik zerura igo den Jesus hori, zerura joaten ikusi duzuen bezalaxe etorriko da berriro».

Sal 47 [46]: Oihu alaien artean igo da Jainkoa, turuta-soinuz Jauna.]

## § San Paulok Efesoarrei 1,17-23.

Senideok: Jesu Kristo gure Jaunaren Jainkoak, aintzaren Aitak, eman diezazuela Espirituaren jakinduria eta goi-argia, bera ezagutze-

Pazkoaldiko 7. astea.

JAUNAREN IGOKUNDEA.

San Martzelino, *apaiza*, eta San Pedro, *exorzista, martiriak*.

ko. Argi ditzala zuen barruko begiak, jakin dezazuen zer itxarotera dei egin dizuen, zein aberatsa den fededunentzat oinordekotzan prestatua duen aintza eta zein handia den sinesten dugunon alde erabiltzen duen ahalmena.

Ahalmen eta indar hori Kristogan erakutsi zuen Jainkoak, berau hilen artetik piztu eta zeruan bere eskuinaldean eserarazi zuenean. Jainkoak aginte, botere, indar eta nagusigo ororen gaintetik ezarri du Kristo, eta mundu honetan ez ezik, datorren munduan ere aipa daitekeen izen ororen gaintetik.

Dena jarri du Jainkoak Kristoren oinazpian, eta berau ezarri du denen gaintetik Elizaren buru.

Haren gorputza da Eliza, unibertsoa erabat betetzen duen Kristok betea.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24,46-53.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Liburu Santuan idatzia zegoen, Mesiasek sufritu egin behar zuela eta hirugarren egunean hilen artetik piztu, eta, Jerusalemdik hasita, bihotz- berritzea hots egin behar zaiela haren izenean herri guztiei, bekatuak barka dakizkien. Zuek zarete gauza hauen testigu.

Nire Aitak agindutako dohaina, Espiritu Santua, bidaliko dizuet Nik. Zuek zaudete hirian, Jainkoagandiko indarrez jantzi zaitetzten arte».

Gero, Betania aldera atera zituen Jesusek ikasleak eta, eskuak jasorik, bedeinkatu egin zituen. Bedeinkatzen zituen bitartean, aldendu egin zen haiengandik, eta zerura eraman zuten. Haiek, Jesus ahuspez gurtu ondoren, Jerusalemera itzuli ziren pozez beterik. Eta etengabe tenpluan egon ohi ziren Jainkoa goresten.

**J**ai honek agerian jartzen du Jainkoarekiko gure joera, giza bitzita orok bizi duen grabitatearen indarra den hori. Haziz doan orok



Pazkoaldiko 7. astea.  
JAUNAREN IGOKUNDEA.

San Martzelino, *apaiza*, eta San Pedro, *exorzista, martiriak*.

jotzen du harengana, norberak jakin ala ez. Gure jatorria da bera, eta gure jomuga. Jesusek osorik egin zuen ibilbide hau, haren eskutik guk egin ahal dezagun. Aurrerantzean ez dugu ezer egingo geuk bakarrik, aldioro goitik hartu beharko dugu, aldioro jarri behar dugu hura hartzeko prest; ez, ordea, gora begira egonean, beren baitan bildurik gelditu ziren galilear haiek bezala, baizik era «beherantz begira», bizi garen mundu zehatz honetarantz, beronen intziriak eta gurariak entzuteko. Jesusek bereekin izan duen azken harremana, bedeinkapen-harremana izan da. Bedeinkazio hori onartzeak gizon-emakume bedeinkatzailer bihurtzen gaitu, bestea den tenplu honetan, hurbiltasuna, txera eta hurrentasuna ehotzen den leku bakoitzean. Jauna, argitu itzazu gure bihotzeko begiak; uler dezagula egunez egun, premiari handiena duten zure sorkarien ondoan, zein den eskaintzen diguzun esperantza, orain jada erregalaten diguzun poza, zein den guran bide egin dezan nahi duzun maitasunaren dohaina.

\* \* \*

### «EZ BELDUR IZAN»

«Gurekin egon gurekin» abestiaren doinuaz abestekoa  
(267. orritik, maiatza 26tik, dator).

Zailtasunak lotua, uzkur nago,  
zalantzapean, uzkur nago.  
Baina, Jauna, zu zaitut sendoago,  
zure ahotsa, sendoago.

Ez beldur izan. Neu nauzu, lagun.  
Zeure ondoan naukazu.  
Neu nauzu, lagun. Ez beldur izan.  
Ez beldur izan. Neu nauzu.

*(J.A. Pagolaren, Jesusen gazte taldeak libururako Pello Esnalek  
eta D. Amundarainek eratu, PPC 2018)*

Pazkoaldiko 7. astea.

San Joan XXIII.a, *aita santua*.

Lwangako San Karlos eta lagunak, *martiriak*.

[Apostoluen Eginak liburutik 19,1-8: Hartu al zenuten Espiritu Santua, sinetsi zenutenean? Sal 68 [67]: Munduko erreinuak, kanta Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,29-33.

Aldi hartan, ikasleek esan zioten Jesusi: «Orain bai argi hitz egiten duzula, eta ez irudi bidez. Orain badakigu dena dakizula eta ez duzula inork galdetu beharrik; horregatik sinesten dugu Jainkoagandik etorri zarela».

Jesusek erantzun zien: «Orain sinesten duzuela? Hara, badator ordua, hobeki esan, etorria da, nor bere aldetik joanez sakabanatu eta Ni bakarrik utziko nauzuen ordua. Baina Ni ez nago bakarrik, Neurekin baitut Aita.

Hau esan dizuet, Nigan bakea izan dezazuen. Izango duzue larrialdirik munduan; baina izan adore, garaitu dut Nik mundua».

**B**ada Jesusek errepikatzen duen agindu bat: «begira ezazue». Errealitate guztia sartzen zaigu begien atetik. Jaunari jarraitzeak beste era batean begiratzen ikastea eskatzen du. Gainerakoei eta gertatzen denari norberaren «neu»ren iragazgailutik igarotzen uzten ikasi beharra, alegia, eta bakoitza nolakoa den irizten gelditu gabe, norberaren neurgailuz neurtu gabe, juzkatu gabe sumatzen ikasi beharra... besterik gabe dagoen dagoenean onartzuz, dena dela izaten utziz, leku bat eskainiz. Jesusek baketu egin nahi du gure begiratu, eta adorea eman nahi digu. Beti ari da bera, guri bihotz ematen, baina ezin antzemango diogu gauzen artean egiten duen ezkutuko bere igarotzeari, bihotzaren mugimenduak miatzeko geldialdirik egiten ez badugu.

Pazkoaldiko 7. astea.

San Frantzisko Caracciolo, *fundatzailea*  
(*Arauzko Klerigo Txikianak*).

[Apostoluen Eginak liburutik 20,17-27: Neure ibilaldia burutu eta Jesus Jaunak eman didan egitekoa bete behar dut. Sal 68 [67]: Mundu-duko erreinuak, kanta Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17,1-11a.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta esan zuen: «Aita, iritsi da ordua. Ager ezazu zeure Semearen aintza, Semeak zure aintza ager dezan. Gizon-emakume guztien gain aginpidea eman diozunez gero, betiko bizia eman diezaiela Zuk berari emandakoei. Hau da betiko bizia: Zu, egiazko Jainko bakar hori, eta Zuk bidalitako Jesus Mesias ezagutzea.

Nik zure aintza agertu dut munduan, Zuk eman zenidan egitekoa betez. Orain, Aita, emadazu aintza zeure ondoan, eman mundua mundu izan baino lehen zure ondoan nuen aintza.

Agertu diet zure izena mundutik bereizi eta eman zenizkidan gizon-emakumeei. Zeureak zenituen, Zuk niri eman zenizkidan, eta haiek onartu dute zure hitza. Badakite orain Zuk eman didazun guztia Zugandik datorrela. Zuk niri eman zenizkidan hitzak eman dizkiet Nik, eta hauek onartu dituzte. Eta benetan jakin dute Zugandik atera nintzela, eta sinetsi Zuk bidali ninduzula. Hauen alde erregutzen dizut; ez dut munduaren alde erregutzen, Zuk eman dizkidazunon alde baizik, zureak direlako. Bai, dudan guztia zurea da eta Zuk duzuna nirea, eta hauengan agertu da nire aintza. Ez naiz aurrerantzean munduan egongo; hauek, bai, munduan jarraituko dute. Ni, berriz, zugana noa».

**G**aixoaaldian bizitzen ari diren pertsoneri lagun egiten diegunean, on egiten digu ikusteak beren baitatik irteteko eta gainerakoez kezkatzeko gai izaten direla. Jesusek Aitari eskatu dio: «Bizia eman gomen-datu zenizkidanei... Ezagut zaitzate... Eman zenizkidan eta zeureak dituzun hauen alde erregutzen dizut... Beriengan izan naiz aintzatua». Bai sinestezina! Geuk ere badugu parte barnekoitasun horretan! Zer dagokio orain? Haren hitzetan sinetsi eta gorde.

Pazkoaldiko 7. astea.

San Bonifazio, *gotzaina eta martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 20,28-38: Jainkoaren eskuetan uzten zaituztet; hark badu ahalmen eraikitzeko eta oinordekotza emateko. Sal 68 [67] Munduko erreinuak, kanta Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17,11b-19.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta honela egin zuen otoitz: «Aita santu horrek, zaindu itzazu zeure ahalmenaz Zeuk eman dizkidazunok, bat izan daitezen Gu Geu bat garen bezala. Hauekin izan naizen bitartean, Nik zaindu ditut zeure izenean eman dizkidazunok. Hauen ardura izan dut eta ez da bat ere galdu, galdu behar zuena baik; horrela, Liburu Santuek diotena bete da.

Orain, ordea, Zugana noa. Oraindik munduan nagoela esaten dut hau guztia, nire poza berengan izan dezaten, eta bete-betea izan dezaten. Zure hitza eman diet Nik; baina munduak gorroto die, mundukoak ez direlako, Ni ere mundukoa ez naizen bezala. Ez dizut eskatzen hauek mundutik ateratzeko, Gaiztoagandik gordetzeko baizik. Ez dira mundukoak, Ni ere mundukoa ez naizen bezala.

Sagara itzazu egiaren bidez; zure hitza da egia. Ni mundura bidali ninduzun bezala, Nik ere mundura bidali ditut. Eta hauengatik sagarutzen dizut neure burua, hauek ere sagara ditzazun egiaren bidez».

**J**esusek diotso Aitari: «nola zuk... hala nik ere», eta bere grazia eman digu, beraren ibilbidea egin dezagun: «nola berak... hala geuk ere». Denbora asko eman beharra dugu «nola zu» Galileako bideetan hori kontenplazten, orain geureak ditugun horietan, alegia. Jende guztiaz agertu zuen samurtasuna, begiratzeko zuen era garbia bestearengan honek gordea zuen dohaina iratzarri, arintzeko inor ukitzeko zuen era ezta; oihu egiteko zuen adorea gizakia penatzen duen ororen kontra. Haren izenean beste batzuk zaintzeak, azti bizitzea esan nahi du, bizitza bakar bat ere gal ez dadin, txera eskaintzea, eta haren hitzen ontasunaren eta egiaren araberako beste armarik gabe jokatzeara.

Pazkoaldiko 7. astea.

San Norberto, *gotzaina*.San Martzelino Champagnat, *fundatzailea (Maristak)*.

[Apostoluen Eginak liburutik 22,30; 23,6-11: Erroman ere nire testigu izan behar duzu. Sal 16 [15]: Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17,20-26.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta honela egin zuen otoitz: «Aita santu hori, ez dut erregutzen hauen alde bakarrik, baita hauen hitzaren bidez Nigan sinetsiko dutenen alde ere. Egizu denak bat izan daitezela. Aita, Zu Nirekin eta Ni Zurekin biok bat garen bezala, hauek ere bat izan daitezela Gurekin, munduak sinets dezan Zuk bidali nauzula.

Zuk eman zenidan aintza bera eman diet Nik, bat izan daitezen, Gu biok bat garen bezala: Ni hauekin bat eta Zu Nirekin bat. Horrela gutziz bat izango dira, eta munduak ezagutu ahal izango du Zuk bidali nauzula eta Ni maitatu nauzun bezala maitatu dituzula hauek ere.

Aita, Zuk eman dizkidazunak Ni nagoen tokian Nirekin egotea nahi dut, nire aintza, mundua izan baino lehen maite izan nauzulako eman didazun aintza, ikus dezaten.

Aita zuzen hori, munduak ez zaitu ezagutu; Nik, ordea, ezagutu zaitut, eta hauek jakin dute Zuk bidali nauzula. Jakinarazi diet zure izena, eta aurrerantzean ere jakinaraziko, Zuk niri didazun maitasuna hauengan izan dadin, eta Ni ere hauengan izan nadin».

**E**gide van Broeckhoven jesuita langilea izan zen. Bere adiskideekin eta bizikide izan zituen langile pobreekin eho zuen bere espiritualitatea. Bere Egunkarian jaso du, nola gidatu zuen adiskidetasunak elkartasun bizi batera: «Jainkoaren esperientzia transzendentea eta adiskidearekin egindako topaketa pertsonala, beraien maila sakonetan, bat etortzen dira batasun batean; honen egitasuna susmatu bakarrik egiten dugu, baina zorionez beteko gaitu: “guztiak bat izan daitezela, zu, Aita, nigan eta ni zugar bezala”. Hau gure sentiberatasuneraino sartuko da eta gorputz-izaeraraino, zoriontasun biziko esperientziaren argi-bistan».

Pazkoaldiko 7. astea.  
 Santa Eugenia, martiria.  
 San Roberto, abadea.

[Apostoluen Eginak liburutik 25,13-21: Hila den eta Paulok bizi dela dioen Jesus. Sal 103 [102]: Jaunak zeruan ezarri du bere aulkia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21,15-19.

Jesusek, ikasleei agertu eta haiekin gosaldu ondoren, esan zion Simon Pedrori: «Simon, Joanen semea, hauek baino maiteago al nauzu?» Hark erantzun: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala». Jesusek, orduan: «Bazka itzazu nire bildotsak».

Bigarrenez galdetu zion Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite al nauzu?» Hark erantzun: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala». Jesusek, orduan: «Zaindu itzazu nire ardiak».

Hirugarrenez galdetu zion Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite al nauzu?» Pedro goibeldu egin zen maite al zuen hirugarrenez galdetu ziolako, eta erantzun zion: «Jauna, Zuk dena dakizu; Zuk badakizu maite zaitudala». Orduan, Jesusek esan zion: «Bazka itzazu nire ardiak. Bene-benetan diotsut: gazteago zinenean, zeuk lotzen zenuen gerrikoa eta nahi zenuen tokira joaten zinen; zahartzean, ordea, zuk besoak luzatu eta beste batek lotuko dizu gerrikoa eta nahi izango ez duzun tokira eramango zaitu».

Horrela, zer-nolako heriotzaz Jainkoari aintza emango zion adierazi zuen Jesusek. Ondoren, esan zion: «Jarraitu niri».

**H**unkigarria da Jesus hain gizatar ikustea: bera maite duen galdetu dio Pedrori; maitatzeko eta maitatuak izateko guztiok barnean dugun guraria partekatu nahi du nonbait. Izan ere, beste ezerk ez gaitu egiten zoriontsuago. Hiru bider galdetu dio Pedrori, honek bere errua saneatu ahal dezan. Era berean eraberritzen digu konfiantza geuri ere huts egin ondoren, inongo aurpegi txarrik gabe. Merezi izan gabeko Jesusen txerak saneatu egiten du erruduntasuna, eta iturria ireki. Bihotzetik bihotzerako solasaldi horretan, erdian jartzen da Jauna, adiskidetzeko eta bizitzari mugida eragiteko. Gehienik opa duena, berari hurbilagotik jarraitzeko gai egin gaitzan da, prestuago bizi gaitzen bereak zaintzen.

[Apostoluen Eginak liburutik 28,16-20.30-31: Erroman gelditu zen, Jainkoaren erreinua hots egiten. Sal 11 [10]: Zuzenek ikusiko dute, Jauna, zure aurpegia. ]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21,20-25.

Aldi hartan, Pedrok, itzuli eta Jesusek maite zuen ikaslea ondoren zetorrela ikusi zuen, afarikoan, Jesusen bular gainean jarririk, «Jauna, nor da salduko zaituena?» galdetu ziona. Hura ikusi zuenean, bada, Pedrok galdetu zion Jesusi: «Jauna, eta hori zer?» Jesusek erantzun zion:

«Ni itzuli arte hori gelditzea nahi baldin badut, zuri zer? Zuk jarraitu niri».

Hitz hauek zirela eta, ikasle hura hilko ez zelako zurrumurrua sortu zen senideen artean. Jesusek, ordea, ez zion esan ez zela hilko, beste hau baizik: «Ni itzuli arte hori gelditzea nahi baldin badut, zuri zer?»

Ikasle huraxe da gauza hauez guztiez testigantza egiten duena eta idatzi dituen, eta badakigu egiazkoa dela haren testigantza.

Beste gauza asko ere egin zuen Jesusek. Guztiak banan-banan bilduko balira, nik uste, mundu osoan ere ez lirakekeela sartuko idatzitezkeen liburuak.

**E**kidin ezina izaten dugu gauza on-onetan ere lehiatu behar izatea. Geure «ego»a nonahi itsasten zaigu, eta hiru ekintzek jotzen gaituzte, geure disko gogorrari, bererik hoberenean, azpia jaten diotenak: konparatu, lehiatu eta kritikatu; alde toxikoak dira, zaindu beharrekoak, neutralizatu beharrekoak gure baitan bertakotu nahi duten baikoitzean; izan ere, bidaia guztian izango ditugu geure inguruan, jira eta bira. Gainerakoen bizitzaren kontua geuk erabakitzekeo tentazioan, Pedro bezala, eroriko garenean, eta uste izango dugunean besteek izan behar dutenaren neurria gureak izan behar duela, on egingo digu geure barnean entzuteak: «Eta zuri zer? Zuk, jarraitu niri».

Pazkoaldiko 8. astea.

**MEDEKOSTE.**San Efren, *diakonoa eta eliz irakaslea.*San Jose Antxietakoa, *apaiza (Brasilen apostolu), jesuita.***§ Apostoluen Eginak liburutik 2,1-1**

Mendekoste-eguna iritsi zenean, leku berean bildurik zeuden ikasle guztiak. Bat-batean, haize-bolada indartsu batena bezalako burrunba etorri zen zerutik eta ikasleak zeuden etxe guztia bete zuen. Orduan, suzko mihiak bezalako batzuk agertu zitzaizkien, eta, banatuz, bakoitzaren gainean kokatu ziren. Denak Espiritu Santuaz bete ziren eta hizkuntza arrotzez hitz egiten hasi, bakoitza Espirituak eragiten zion bezala.

Bazen egun haietan Jerusalemen judu jainkozalerik asko, zerupean diren herri guztietakoak. Burrunba hura entzutean, jendetza handia bildu zen eta txunditurik gelditu ziren, nork bere hizkuntzan hitz egiten entzuten baitzien.

Harri eta zur, honela zioten: «Mintzo direnok, ez al dira guztiak galilearrak? Nola entzuten diegu, bada, bakoitzak geure jatorriko hizkuntzan? Gure artean badira partiarak, mediarak eta elamdarrak; baita Mesopotamian, Judean, Kapadozian, Ponton eta Asian bizi direnak ere; badira Frigiakoak eta Panfiliakoak, Egiptokoak eta Zirene inguruko Libiakoak, baita erromatarak ere; eta denok, judu nahiz judu berri, kretar nahiz arabiar, geure hizkuntzan entzuten diegu Jainkoaren egintza harrigarriak hots egiten»..

**[Sal 104 [103]: Zeure arnasa bidal gugana eta lur-azala berritu, Jauna.]****§ San Paulok 1 Korintoarrei 12,3b-7.12-13.**

Senideok: Ezin du inork esan «Jesus da Jauna!» Espiritu Santuak eraginda ez bada. Era askotakoak dira dohainak, baina bat bakarra Espiritua; era askotakoak zerbitzuak, baina bat bakarra Jauna; era askotakoak eginbideak, baina bat bakarra Jainkoa, guztiengan guztia egiten duena. Bakoitzari denen onerako ematen dizkio Jainkoak Espirituaren dohainak.



Gorputzak, bat izanik ere, atal asko du; baina atal guztiek, asko izanik ere, gorputz bat bakarra osatzen dute. Gauza bera gertatzen da Kristorekin ere. Gu guztiok, judu nahiz greziar, esklabo nahiz libre, Espiritu bat berarengan izan gara bataiatuak, gorputz bat bakarra egiteko. Eta guztiok Espiritu bat beretik edan dugu

### NEURTITZA

Zatoz, bai, Gogo Guren eta bidal zerutik zeure argi-izpia. Zatoz, gaixoen aita, zatoz, dohain-emaile, zatoz, bihotzen argi.

Poz-emaile bikaina, etxelagun atsegin, sargorian haize fin. Lan artean atsedean, nekean aringarri, malloetan pozgarri.

Bete, argi dohatsu, zintzoen bihotzeko zirrikiturik barnena. Zure laguntza gabe, ez du gizakiak ezer, ez du ezer on denik.

Garbi zikin dagoena, busti lehor dagoena, zauriak oro senda.

Zurrun dena bigundu, makur dena zuzendu, hotz dagoena berotu.

Zugan uste on duten zintzoei isuri zazpi dohain zerutik. Zintzo sarria eman, osasun hil artean, poza betierez betiere.

Amen. Aleluia.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,19-23.

Asteko lehen-egunean, ilunabarrean, etxe batean bildurik zeuden ikasleak, atea itxita, juduen beldurrez. Sartu zen Jesus eta, erdian jarririk, esan zien: «Bakea zuei». Hori esanda, eskuak eta saihesta erakutsi zizkien. Ikasleak pozez bete ziren, Jauna ikustean.

Jesusek berriro esan zien: «Bakea zuei. Aitak Ni bidali nauen bezala, Nik zuek bidaltzen zaituztet». Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei, barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die».

Pazkoaldiko 8. astea.

**MENDEKOSTE.**San Efren, *diakonoa eta eliz irakaslea.*San Jose Antxietakoa, *apaiza (Brasilen apostolu), jesuita.*

**U**lertzen ahal dugu benetan elkar, aintzat hartzen ahal dugu elkar, hitz egitean burubide desberdinak izan arren, erregistro espiritual desberdinak izan arren? Elkarrizketa da gaur egun Espirituaren ize-netarik bat. Mendekosteko kontakizuna beste ahalbide-eremu bat bezala ageri da, egingarri den amets bat bezala, nora jo izan dezakegun leku bezala. Suak harturik, elkar entzun eta uler zezaketen ikasleek, ez inperioaren hizkuntzan, baizik eta askotariko nor bere hizkuntzan; behetiko harreman eta elkartasun-hizkuntzan. Bakea eta barkazioa Espirituaren dohain dira, eta ez da gero posiblerik haiek gabe. Barkazioa emateko eta hartzeko gai garenean bakarrik estreinatzen ditugu aldi berriak. Bihotz baketua ez da aspertzen beste aukera bat eskaintzen: hautsia berregiten du, gogortua irekitzen eta beldurra besarkatzen. Geurez bakarrik ezin dugu ezer egin. Jesusen Espirituak hartuak garelarik, bedeinkazio-ahalbide bezala gertatzen da dena. Zatoz behartsuen Aita, zatoz txikien Ama! Mundu guztietako hego-haize bikaina! Gupida-olatu geldiezin!

Urteko 10. astea.

Andre Maria, Elizaren Ama.

San Alexandro, *gotzaina*.

[Hasiera 3,9-15.30: Bizidun guztien ama. EDOTA Eginak liburutik 1,12-14: Jesusen ama Mariarekin otoitzari emanak bizi ziren. Sal 88 [87]: Bai pregoi aintzatsua zuretzat, Jainkoaren hiria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 19,25-34.

Aldi hartan, Jesusen gurutzearen ondoan zeuden haren ama, amaren ahizpa, Maria Kleofasen emaztea eta Maria Magdalena. Jesusek, bere ama eta, honen ondoan, maite zuen ikaslea ikusirik, esan zion amari: «Emakume, horra hor zeure semea!» Gero, ikasleari esan zion: «Horra hor zeure ama!»

Eta orduz gero ikasleak bere etxean hartu zuen.

Ondoren, Jesusek, dena betea zela jakinik, Liburu Santuak esana erabat bete zedin, esan zuen: «Egarri naiz!»

Bazen han ozpinez betetako pitxar bat. Orduan, belaki bat ozpintan busti eta, kanabera bati muturrean erantsiz, ezpainetara hurbildu zioten. Ozpina hartu zuenean, Jesusek esan zuen: «Bete da dena!» Eta, burua makurtuz, azken arnasa eman zuen.

Pazko-jairako prestaketa-eguna zen, eta juduek ez zuten nahi larunbatean gorpuak gurutzean gelditzerik, larunbat hura oso jaiegun handia baitzen. Horregatik, gurutziltzatuei berna-hezurak hautsi eta handik kentzeko eskatu zioten Pilatori. Joan ziren, bada, gudariak eta berna-hezurak hautsi zizkieten Jesusekin gurutziltzatutako bie; baina, Jesusengana iritsi zirenean, ordurako hilik zegoela ikusirik, ez zioten berna-hezurrik hautsi, baizik eta gudari batek lantzaz saihesta zulatu zion, eta bat-batean odola eta ura atera ziren.

**H**asieratik beretik, Elizaren tradizioak testigantza egiten du, Jesusen, beraren semearen, elkarte jarraitzaileek bidelagun dutela Andre Maria. «Maria da Eliza eraina izan den lurra», dio San Efrenek. Mariaren, Elizaren Amaren, oroitzapen hau ospatzeak aitortzea esan

Urteko 10. astea.

Andre Maria, Elizaren Ama.

San Alexandro, *gotzaina*.

nahi du emakumeen bizitza ere, hau da, Elizaren eginkizunean emakumeen lana: lan honek bere konkrezio edo zehaztapena izan beharra du Elizaren egituretan eta dinamismoan. Jesusek, gurutzean, uztartu egin du «andrea» ikasle maitearekin, ama beronengandik bizia hartuko dutenekin; eta semeek eta alabek hazi egiten dira beren etxean eta beren gauzetan txoko bat egiten diotenean. Maria han «dago» afaltokian ikasleekin, hartzaile-jarreran eta irekirik Espirituari; han «dago» bere presentzia maitagarriaz elikatzen eta elkartzen gaituen Gurutziltzatua-ren ondoan ere.

\*\*\*

### ANDRE MARIARI, ELIZAREN AMA ETA GURE FEDEAREN AMARI (Frantzisko aita santua)

Ama, lagundu gure fedeari! Ireki gure belarriak Hitzari, Jainkoaren ahotsa eta beraren deia ezagut dezagun. Biziberritu gudan haren urratsei jarraitzeko gogo, geure lurretik irtenez eta haren promesean konfiantza ipiniz.

Lagundu, haren maitasunak uki gaitzen uzteko, fedean bera ukitzeke. Lagundu, harengan konfiantza betea izan dezagun, haren maitasunean ustea izan dezagun, batez ere atsekabe eta gurutze-aldietan, gure fedeari hazten eta garatzen joateko deia egingo zaionean.

Erein gure fedean Berpiztuaren poza. Ekar gure gogora, sinesten duena ez dagoela bakarrik.

Irakats iezaguzu, Jesusen begiez begiratzen, bera izan dezagun argia geure bidean.

Eta fedearen argi hau joan dadila etengabe haziz gu baitan, harik eta iritsiko den ilunik gabeko eguna, hau da, Kristo bera, zure Semea, gure Jauna.

Urteko 10. astea.

SAN BERNABE APOSTOLUA

## § Apostoluen Eginak liburutik 11,21b-26;13, 1-3.

Egun haietan, asko bihurtu ziren Jaunagana eta fededun egin.

Jerusalemgo eliz elkarteak honen guztiaren berri jakin zuelarik, Bernabe bidali zuen Antiokiara. Poztu zen hara iritsi eta Jainkoak bere onginahiaz haien artean egina ikusi zuenean, eta bihotz-bihotzez Jaunarekiko leial irauteko adore ematen zien guztiei; Bernabe gizon ona baitzen, eta Espiritu Santuaz eta sinesmenez betea, jendetza handia elkartu zitzaion Jaunari.

Handik Tarsora joan zen Bernabe Sauloren bila eta, aurkitu zuenean, Antiokiara eraman zuen. Urtebete osoa eman zuten elkarrekin lanean eliz elkarte hartan, jende askori irakasten. Hain zuzen, Antioikian eman zieten ikasleei lehenengoz «kristau» izena.

Bazen Antiokiako eliz elkartearen zenbait profeta eta irakasle: hala nola, Bernabe, Simeon –izengoitiz Beltza–, Luzio zirenaikarra, Manaen –umetan Herodes erregearekin batera hazia– eta Saulo. Behin, barau egunez, Jaunaren kultu-ospakizun batean zeudela, Espiritu Santuak esan zien: «Bereizi Niretzat Bernabe eta Saulo, Nik dei egin die-dan egitekorako». Orduan, barau eta otoitz egin ondoren, haiei eskuak buruan ezarri eta bidali egin zituzten.

[Sal 98 [97]: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garai-pena.]

## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,7-13.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zerueta erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu legenardunak, bota deabruak. Hutsean hartu duze, eman hutsean. Ez eraman urrerik, ez zilarrik, ez dirurik gerrikoan; ez zakutorik biderako, ez soinekorik aldatzeko, ez oinetakorik, ezta makilarik ere, zor baitzaio langileari behar duen jatekoa.

Urteko 10. astea.

SAN BERNABE APOSTOLUA

---

Edozein herritan nahiz auzotan sartzen zaretela, jakizue ba ote den konfiantzazko inor, eta gelditu haren etxean, herri hartatik atera arte. Etxean sartzean, egin bake-agurra; etxeok duin badira, hel bekie zuen bakea; duin ez badira, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira».

**Z**ein garbi eta argi diren adierazpen hauek! Eska dezagun grazia, horiek entzun ahal izateko, lehenbizikoz entzungo bagenitu bezala; gure ahalegina ez dadila izan Jainkoaren hurbiltasuna eta beraren baldintzarik gabeko txera iragartzeko baizik. Gonbit handia egin digu, buruaski senti ez gaitzen, besteengandiko janari-beharra senti dezagun, metatzera jo ez dezagun inolako ondasun-motarik, eta giza logikari inondik inora ez dagokion doakotasuna bizi dezagun. Etorri datorren Erreinuak hartarainoko saneatzea eta edertasuna ditu berekin: sendatu, bedeinkatu, bizitzako alderdi guztiak saneatu, shaloma, Jainkoak bakarrik ematen duen bakea, zabal dadin historiako txoko bakoitzean.

[Paulo Santuak 2 Korintoarrei 3,4-11: Itun berri baten zerbitzari izateko gai egin gaitu. Itun hori ez da legearen letra soilean oinarritzen, Espirituaren indarrean baizik. Sal 99 [98]: Santua zara Jauna, gure Jainkoa!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,17-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez uste izan Moisesen legea edota profeten esanak baztertzera etorria naizenik; ez naiz baztertzera etorri, beren betera eramatera baizik. Benetan diotsuet: Zeru-lurrek iraungo duten bitartean, legearen letrarik edo zeinurik txikienak ere ez du baliorik galduko, dena bete arte.

Beraz, agindurik txikienetako bat hausten duena eta hausten irakasten, txikiena izango da zeruetako erreinuan; betetzen duena, berriz, eta betetzen irakasten, handia izango da zeruetako erreinuan».

**G**aitasun guztia Jainkoagandik datorkigu. Inor ez da txikiegi edo handiegi, bere distiratik zertxobait eskualdatzeko Jainkoak egin digun gomendiotik aske gelditzeko. Haren begiradapean jarri beharra dugu egunero, beste aurpegientzat «kalos Christi», hau da, Kristoren aurpegi eder izateko. Haren edertasuna, haren erreinua, geurekin darabagunean, noranahi goazela, han ikusi ahal izango dute. Paulok txatal batzuk geroxeago gogoraziko digu: «Gu guztiok, aurpegia agerian, Jaiunaren aintza islatzen dugunean, haren irudi bilakatzen gara gero eta dirdira handiagoz» (2 Kor 3,18).

Urteko 10. astea.

Jesu Kristo gure Jauna betiereko apaiz nagusia.

San Antonio Paduakoa, *apaiza eta eliz irakaslea*.

San Fandila, *apaiza eta martiria*.

---

**Isaias profetaren liburutik 6,1-4.8.**

Ozias erregea hil zen urtean, Jauna ikusi nuen, tronu altu eta garai batean eseria; haren mantu-hegalak tenplua betetzen zuen. Suzkoak bezalako izaki batzuk zituen gainean; seina hegal zituzten: bi hegalez aurpegia estaltzen zuten, beste bi hegalez gorputza, eta beste biez hegan egiten zuten. Eta honela egiten zioten oihu elkarri:

«Santu, santu, santua, Jaun ahalguztiduna! Lur osoa betetzen du haren aintzak!»

Ahotsaren oihuz tenpluko ate-orpoek dar-dar egin zuten, eta tenplua kez bete zen.

Orduan, Jaunaren ahotsa entzun nuen esaten: «Nor bidaliko dut? Nor izango dugu mandatari?» Eta nik erantzun: «Prest nauzu, bidali neu».

**Sal 23 [22]:** Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17,1-2.9.14-26.**

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta esan zuen: «Aita, iritsi da ordua. Ager ezazu zeure Semearen aintza, Semeak zure aintza ager dezan. Gizon-emakume guztien gain aginpidea eman diozun ez gero, betiko bizia eman diezaiela Zuk berari emandakoei. Hauen alde erregutzen dizut; ez dut munduaren alde erregutzen, Zuk eman dizkidazunon alde baizik, zureak direlako. Zure hitza eman diet Nik; baina munduak gorroto die, mundukoak ez direlako, Ni ere mundukoa ez naizen bezala. Ez dizut eskatzen hauek mundutik ateratzeko, Gaiztoagandik gordetzeko baizik. Ez dira mundukoak, Ni ere mundukoa ez naizen bezala.

Sagara itzazu egiaren bidez; zure hitza da egia. Ni mundura bidali ninduzun bezala, Nik ere mundura bidali ditut. Eta hauengatik sagaratzten dizut neure burua, hauek ere sagara ditzazun egiaren bidez.



Jesu Kristo gure Jauna betiereko apaiz nagusia.  
San Antonio Paduakoa, *apaiza eta eliz irakaslea*.  
San Fandila, *apaiza eta martiria*.

Aita santu hori, ez dut erregutzen hauen alde bakarrik, baita hauen hitzaren bidez Nigan sinetsiko dutenen alde ere. Egizu denak bat izan daitezela. Aita, Zu Nirekin eta Ni Zurekin biok bat garen bezala, hauek ere bat izan daitezela Gurekin, munduak sinets dezan Zuk bidali nauzula. Zuk eman zenidan aintza bera eman diet Nik, bat izan daitezten, Gu biok bat garen bezala:

Ni hauekin bat eta Zu Nirekin bat. Horrela guztiz bat izango dira, eta munduak ezagutu ahal izango du Zuk bidali nauzula eta Ni maitatu nauzun bezala maitatu dituzula hauek ere.

Aita, Zuk eman dizkidazunak Ni nagoen tokian Nirekin egotea nahi dut, nire aintza, mundua izan baino lehen maite izan nauzulako eman didazun aintza, ikus dezaten.

Aita zuzen hori, munduak ez zaitu ezagutu; Nik, ordea, ezagutu zaitut, eta hauek jakin dute Zuk bidali nauzula. Jakinarazi diet zure izena, eta aurrerantzean ere jakinaraziko, Zuk niri didazun maitasuna hauengan izan dadin, eta Ni ere hauengan izan nadin».

**J**esusek duen baliabide bakarra, atxilotu baino lehen, bere gorputza du. Ez du beste aberastasunik, ez beste boteririk, ez beste dohainik eskaintzeko. Gorputz hori, bere bizia dun hori, bere gogoz hartu nahi izan zuen, osorik bedeinkatua zuela uste zuen, ezer ere kanpoan utzi gabe. Eskertu zuen eta behin betiko keinua egin zuen berarekin: eman eta eskaini osorik, beretzat ezer gorde gabe. Ordudanik gure esku eta gure baitan dagoen gorputza da, hurbiltasunik handienez eta harremanik barnekoienan. Gorputz horren babesean bakarrik senti dezakegu geure bizitza barkatua eta berregina, besteri emateko gai.

Urteko 10. astea.  
San Eliseo, *profeta*.

[Paulo santuak 2 Korintoarrei 4,7-15: Jesus Jauna piztu duenak piztuko gaitu gu ere Jesusekin, eta haren ondoan ipiniko gaitu zuekin batera. Sal 116 [115]: Gorespen-oparia dizut, Jauna, eskainiko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburitik 5,27-32.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzina-koei agindua: “Ez egin adulteriorik”. Nik, ordea, hau diotsuet: Emakumeari irrikaz begiratzeko dionak egin du jadanik adulterioa bere bihotzean.

Eskuineko begia galbide bazaizu, atera eta bota zeuregandik urruti; hobe duzu gorputz-atal bat galdu, oso-osorik infernura jaurtia izan baino. Eskuineko eskua galbide bazaizu, moztu eta bota zeuregandik urruti; hobe duzu gorputz-atal bat galdu, oso-osorik infernura joan baino.

Agindua dago hau ere: “Emaztea uzten duenak eman diezaiola dibortzio-agiria”. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere emaztea uzten duenak –legez kontra elkartuak ez badira behintzat– adulterioa bultzatzen du emaztea; eta utzitako emakumearekin ezkontzen denak adulterioa egingo du».

**A**penas dakigun Jesusen sentiberatasuna noraino iristen den, harreman bakoitzean sartzean agertzen duen fintasuna, alegia. Hainbat denbora berarekin eta zein labur gelditzen garen geure pentsaera eta sentimenduak ebanjelizatzean! Gure zentzumenen ateak ireki, gure izaera irense eta eskatzailearen neurria irekitzen dira. Adierazpen zorrotz hauen hondoan harremani buruzko jakinduria handi bat dago ezkutuan: gure sentiberatasunaren jarrera irensea jarrera eskaintzaile bilakatu, bizitzako jabetasun-jarrera izaera arduratsu, fin eta bihotz garbiak markatua bilakatu.

[Paulo santuak 2 Korintoarrei 5,14-21: Bekatuarekin zerikusirik ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatu bihurtu zuen. Sal 103 [102]: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,33-37.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzina-koei agindu zitzaiena: “Ez egin gezurrezko zinik”, eta “bete Jaunari egindako zinak”. Nik, ordea, hau diotsuet: Ez egin inolako zinik, ez zeruagatik, Jainkoaren tronua baita; ez lurragatik, haren oin-aulkia baita; ezta Jerusalemengatik ere, Errege handiaren hiria da eta. Ez egin zinik zeure buruagatik ere, ez baitezakezu zeure ile bakar bat ere zuri edo beltz bihurtu.

Zuek esan ezazue “bai”, bai denean, eta “ez”, ez denean; gainerakoa gaiztoagandik dator».

**Z**enbateraino galdu duten gure hitzek beren balioa! Nola politikan hala espiritualitatean gertatu da akidura bat, eta hitzek ez dute adierazten jada esaten dutena, ez dira jada egiazat hartzen. Aise ahazten zaizkigu eta egia-ondokoa-edo nagusitzen da, jada ezerk ere zoru sendorik izango ez balu bezala. Jesusek hondo-hondotik irteten denaren balorera bideratu gaitu, gure erabakirik jatorrenen balorera. Gogoratza, alegia, edozein hitzarmen zigilatzen zuen antzinako hitzemandate eta betetzeko hura, papera sinatu beharrik izaten ez zuen hura. Hitzemandakoaren ontasuna, pertsona baten zintzotasuna, zeinen biziera esaten duen hartara hurbiltzen baita.

**Esaera Zaharrak liburutik 8,22-31.**

Honela mintzo da Jainkoaren Jakinduria:

«Bere jardueraren hasieran sortu ninduen Jaunak, bere lehenbiziko egintzen aurretik. Betidanik eratua naiz hasiera-hasieratik, lurra izan baino lehenagotik. Ur-leizerik ez zenean izan nintzen sortua, iturburu-rik ere ez zegoenean. Mendiak landatuak izan aurretik, muinoak baino lehen izan nintzen sortua; artean ez zituen Jainkoak mundu hau eta kanpokoak eginak, ezta unibertsoaren lehengaiak ere.

Zerua ezarri zuenean, han nintzen ni, ur-leizearen gainetik zeru-sabaia jarri zuenean; hodeiak goian finkatu eta leizeko iturriak tinko ezarri zituenean, itsasoari mugak jarri –urak muga horietatik atera ez zitezten– eta lurrari oinarriak sendotu zizkionean, haren ondoan nengoen ni, obra-maisu bezala; haren gozamina nintzen egunero, haren aurrean jolastuz aldi oro; ludiarekin jolasten nintzen eta gizakiekin nuen gozamina».

[Sal 8: Jauna, gure Jauna, bai miragarria zure izena lurbira osoan!]

**San Paulok Erromatarrei 5,1-5.**

Senideok: Jainkoak fedeagatik zuzentzat hartu gaituenez gero, ba-kean gaude harekin, Jesu Kristo gure Jaunari esker. Honi esker, sinemenagatik eman digu Jainkoak grazi egoera honetan bizitzea, eta harro gaude Jainkoaren aintza iritsiko dugun itxaropenez.

Eta ez hori bakarrik; harro gaude atsekabeez ere, jakinik atseka-beak eroapena duela ondorio, eroapenak probaldia gaintzeko gaitasuna eta probaldia gaintzeak itxaropena. Itxaropenak ez du huts egiten, Jainkoak bere maitasuna isuri baitigu bihotzera, eman digun Espiritu Santuaren bitartez.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,12-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gauza asko dut oraindik zuei esateko, baina oraingoz ez zarete gai ulertzeko. Halere egiaren Espiritua etortzean, hark gidatuko zaituzte egia osoraino. Ez da bere kabuz mintzatuko, baizik eta entzungo duena esango dizue eta etorkizuna iragarriko. Hark nire aintza azalduko du, adieraziko dizuen niretik hartuko baitu.

Aitak duen gutzia nirea da; horregatik esan dizuet Espirituak niretik hartuko duela adieraziko dizuen».

**A**ita kapadoziarrek, IV. mende hartan, dotore adierazi zuten zer esan nahi duen Jainkoa truke bat eta konpromiso sutua, maitasun-harreman hazkorra, biderkatzailea eta kreaizailea delakoak. Gregorio naziantzotarrak Hirutasunari «Argi Hirukoitz, distira Bakar» deitzen dio, eta adiskide bati gutun batean erregutzen dio: «Eginkizun bat duzu, egiazko argia aurkitzeko eginkizuna, zeure biziaren egiazko altuera aurkitzekoa». Sorkari bakoitzarekin lotzen gaituen etengabeko argi eta maitasun-isuri batean murgildurik bizi gara. Hirutasuna geure ama eta laguna dugu, erakusten digu ezin izan garela zorioneko bakarka, maitasunarekin zerikusirik duen ezer ere ez galtzera eragiten digu. Jai hau ospatzeak konpromisoa esan nahi du, elkarrekin bizitzeko, beste gertatzen zaienaz norbera ere ukiturik sentitzeko. Gogora dezagun Hirutasunaren Elisabet: «Bada izate bat, Maitasuna, berarekin elkarturik bizitzera gonbidatzen gaitu... aukera ematen digu mundu honetan beraren bizitza barnekoian sartzeko... Oi ene Jainkoa, Hirutasuna, adoratzeko zaitut!, lagundu iezadazu neure buruaz erabat ahazten zuzan ezar nadin».

Urteko 11. astea.

Santa Valeriana, *martiria*.

San Inozentzio, *martiria*.

[Paulo santuak 2 Korintoarrei 6,1-10: Jainkoaren zerbitzari garel  
agertzen dugu. Sal 98 [97]: Bere garaipena ezagutarazi du Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,38-42.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzina-koei agindua: “Begia begiaren ordain, hortza hortzaren ordain”. Nik, ordea, hau diotsuet: Gaizkileari ez erantzun gaizki; bestela baizik, eskuineko masailean jotzen zaituenari eskaini beste masaila ere; soinekoa kentzeko auzitara eraman nahi zaituenari eman soingainekoa ere; norbaitek mila pauso egitera behartzen bazaitu, egin bi mila berarekin. Eskatzen dizunari eman, eta dirua uzteko eskatzen dizunari ez ukatu».

**N**olatan ez aitortu Jesusen proposamen hauek atentzioa ematen digutela beren xalotasunagatik? Maisuaren hitzak dira, bai, baina ez dira oso baliagarri eguneroko bizitzan; izan ere, Jesusen neurriak hartaraino gainditzen ditu gureak, non apenas barruntatzen ahal dugun bere baitan duen askatasun eta alaitasun-piloa. Zer kenduko beldur izan gintezke, den-dena jada eskainia badugu? Zein kalte egiten ahal digute, hartzean ontasuna handitzen badugu? Zer osten ahal digute, eskatzen digutena baino gehiago ematen badugu? Bizitzan honela bizitzeko era ez da inprobisatzen, ez da egiten norberaren ekinaren ekinaz; ontasun hutsa da. Berak bakarrik bizi izan zuen horrelakorik, eta berak bakarrik erakusten ahal digu.

Urteko 11. astea.

San Markos eta San Martzelino, *martiriak*.San Ziriako eta santa Paula, *martiriak*.

[Paulo santuak 2 Korintoarrei 8,1-9: Jesu Kristo behartsu egin zen zuengatik. Sal 146 [145]: Goretsazu Jauna, ene barrrena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,43-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzi-nakoei agindua: “Maita ezazu zeure lagun hurkoa eta gorrota zeure etsaia”. Nik, ordea, hau diotsuet: Maita itzazue zeuen etsaiak eta egin otoitz eraso egiten dizuetenen alde, zeruetan dagoen zeuen Aitaren seme-alaba izan zaitezten, hark gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen baitu eguzkia eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat egiten euria.

Izan ere, maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, beraz, guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona den bezala».

**T**ito Brandsmak kazetari ziharduen nazien basakeriaren aurka. Atxilotu baino bi egun lehenago idatzia zuen: «Guk ezin egin diogu uko sekula maitasunari... ideologia bat ahuldadetzat ematen eta gutxienen saiatuko bada ere». Dachauko eremuan giltzapeturik, maitasun hori balioztatzen joan zen, eta Jainkoak gizon-emakume guztiei dien maitasun ezin erositakoa bere egiten saiatu zen, eta uko egin zion ahalbide hau galtzeari: txera eta onberatasuna azkeneraino erakustekoa. Azidoa ezarri zion emakume erizainak ezin ahaztu ahal izan zuen berak erail zuen apaiz haren aurpegia. Geroago esango zuen: «nitaz gupida zuen».

Urteko 11. astea.

San Romualdo, *abadea*.

Santa Juliana Falconieri, *birjina*.

---

[San Paulok 2 Korintoarrei 9,6-11: Alai ematen duena maite du Jainkoak. Sal 112 [111]: Zorionekoa Jaunari begirune diona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,1-6.16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Begira, gero: ez egin zeuen egintza onak jendaurrean, ikus zaitzaten! Bestela, ez duzue zeruetan dagoen Aitaren saririk izango.

Limosna ematean, beraz, ez ibili aurretik turuta jotzen, itxurazaleak sinagogetan eta kaleetan ibiltzen diren bezala, jendeak txalotu ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk limosna ematean, ordea, ez beza jakin zure ezkerrek zer egiten duen eskuinak; horrela, zure limosna ezkutuan geldituko da; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

Otoitz egitean, ez egin itxurazaleek bezala; horiek sinagogetan eta plaza-ertzetan zutik otoitz egitea maite baitute, jendeak ikus ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zu, ordea, otoitz egitean, sar zaitez zeure gelan, itxi atea eta egiozu otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

Barau egitean, ez agertu kopetilun, itxurazaleak bezala; aurpegia itsustu egiten baitute, barau egiten dutela jendeari agertzeko. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, barau egitean, gantzutu zeure burua usain gozoz eta garbitu aurpegia, jendeak ez, baino ezkutuan dagoen zure Aitak ikus dezan zure baraua; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.»

**G**izon-emakumeen begiradapean bizi ala Jainkoaren begiradapean lan egin: aukera hori egitean datza funtsezko gauza. Aski egiztatua dugu, nola erortzen den bizia sarean edo trompan, jendeak zer esango begira jokatzan dugunean, eta nola behar diogun eutsi geure



Urteko 11. astea.

San Romualdo, *abadea*.Santa Juliana Falconieri, *birjina*.

buruari, kanpoko iguripenei begira bizi gabe. Itxurari emana den gure gizarte honetan, non ikusten eta erakusten dena baita inporta duena, nolatan aintzat hartu ezkutuko keinuen baloreak, ez baliotzat emanak, ez eskertuak ez diren horiek? Ez gaitezen ari gauzak egiten, berehala faktura eransteko asmoaz. Jainkoaren doakotasunak bakarrik sanea gaitzake geure «ego»aren hozkadetatik.

\* \* \*

## «ESADAZU. ESADAZU»

«Uso zuria zera zu» doinuaz abestekoa:

Esadazu. Esadazu.

Non bizi zara, non, maisu (bis, lerro hau bakarrik).

Non bizi zara, non bizi zara.

Non bizi zara, non, maisu.

Esadazu. Esadazu.

Non bizi zara, non, maisu (bis, lerro hau bakarrik).

*(J.A. Pagolaren, Jesusen gazte taldeak libururako  
Pello Esnalek eta D. Amundarainek eratua, PPC 2018)*

Urteko 11. astea.

Santa Florentina, *birjina*.

San Silverio, *58. aita santua*.

[San Paulok 2 Korintoarrei 11,1-11: Jainkoaren Berri Ona dohainik hots egin nizuen. Sal 111 [110]: Zure egintzak, Jauna, leial eta zintzo dira.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,6-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Otoitz egitean, ez jardun esan eta esan, jentilak bezala, uste baitute beren hitz-jarioari esker entzungo diela Jainkoak. Ez izan haien antzeko, badaki-eta zuen Aitak zer behar duzuen, zuek eske hasi baino lehen. Beraz, zuek honela egingo duzue otoitz:

«Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia, zeruan bezala lurrean ere. Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, eta ez utzi gu tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik».

Izan ere, zuek besteei beren hutsegiteak barkatzen badizkiezue, zuei ere barkatuko dizue zeruko zeuen Aitak; baina besteei barkatzen ez badiezue, zuei ere ez dizkizue barkatuko Aitak zeuen hutsegiteak».

**B**adugu Tertulianogan, II. mendearen azken aldean, Guru Aitaz egindako gutun bat, lehena. Hasiera hartako teologo eta exegeta hauek aitortu ohi zuten, Ebanjelio guztia datorrela laburbildurik otoitz honetan. Beste ezer baino lehen: «Ez izan hitz-jario». Isiltasunaren bihotzean dakusagu, otoitz egitean ez garela ari ohi sekula norbera bakarrik, gure otoitza askorena izaten dela. Bizitzako egoera guztietan, fededunen belaunaldiak jaulki izan dute otoitz hau, eskerrak emateko edo eskatzeko, arrisku baten aurrean eta pozaldi handi baten ondoren. Jainkoaren nahia, beraren sorkariek bizia ugari izan dezaten da, eta ezin izan da horrelakorik ogirik et barkaziorik gabe. Ondo aski daki berak nolako falta dugun bi horiena!

Urteko 11. astea.

San Luis Gonzaga, *jesuita*.San Ramon Rodakoa, *gotzaina*.

[San Paulok 2 Korintoarrei 11,18.21b-30: Horien guztien gainetik, eguneroko nire buruhaustea: eliz elkarte guztien ardura. Sal 34 [33]: Beldur guztietatik atera ninduen Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,19-23.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez pilatu mundu hone-tan zeuen ondasunak, sitsak eta herdoilak jaten baitituzte hemen, eta lapurrek zuloak egin eta harrapatzen. Pilatu zeruan zeuen ondasunak, han ez baititu sitsak, ez herdoilak jaten, ezta lapurrek zuloak egin eta harrapatzen ere. Zeren, zure aberastasuna non, zure bihotza han.

Begia da gorputzari argi egiten dion kriseilua. Begia onik baduzu, zure gorputz osoa argitan ibiliko da. Baina begia gaixo baduzu, zure gorputz osoa ere ilunpetan ibiliko da. Beraz, zure barruan argi izan behar lukeena iluna bada, a zer ilunpea zurea!»

**D**enbora badoa, eta urruneko iruditzen zaigu jada Jesusen ondoren hasitako udaberri hura. Bat-batean Paulo bezala hasi gara sentitzen eguneroko zama, eta eginkizunek eta kezkek hartzen dute lehen tokia, harik eta gaurkoek bezalako hitzek harritzen gaituzten. Hainbat gauza pilatzen dugu Lurrean! Onak izan daitezkeen altxorrek, baina «gureak» izaten jarraitzen dutenak, geuk konkistatuak eta geuk gordeak. Geure burua haietatik askatzera gonbidatu gaitu Jesusek, bihotza prest geldidakin altxor handiago batentzat: beraren inoiz ez bezalako Presentziaren berritasunarentzat, hain juxtu. Inoiz ez da berandu, hoberena dugu oraino aurkitzeko eta estreinatzeko; handia da oraino maitasunaren argia, gu garela medio pasarazi nahi duena.

Urteko 11. astea.

San Paulino Nolakoa, *gotzaina*.

San Joan Fisher, *gotzaina* eta Tomas Moro santua, *aita familiakoa, martiriak*.

[San Paulok 2 Korintoarrei 12,1-10: Pozik harrotuko naiz neure ahuleziaz. Sal 34 [33]: Dasta ezazue eta ikus zein ona den Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,24-34.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ezin da inor bi nagusiren morroi izan; izan ere, bata gorroto izango du eta bestea maiteko, edota bati leial izango zaio eta bestea ez du aintzat hartuko. Ezin zarete Jainkoaren eta diruaren morroi izan.

Horregatik diotsuet: Ez kezkatu bizitzeko zer jango edota gorputza zerez jantziko. Ez ote da bizia janaria baino gehiago, eta gorputza jantzia baino gehiago? Begira zeruko hegaztiei: ez dute ereiten, ez uztarik biltzen, ez mandioan pilatzen; hala ere, zeruko zuen Aitak janaritzen ditu. Ez al duzue zuek haiek baino askoz gehiago balio?

Asko kezkatuta ere, zuetako nork luza lezake apurtxo bat bizitza? Eta jantziaz, zergatik kezkatu? Begira nola hazten diren loreak zelaietan: ez dira lanean nekatzen, ez dute iruten; baina, egia esan, Salomon bera ere, bere ospe guztian, ez zen jantzen horietako bat bezain apain.

Beraz, gaur belardian dagoen eta bihar sutan erreko den belarra Jainkoak horrela jantzen badu, zenbatez gehiago zuek, sinesmen txiki-kook? Ez kezkatu, bada, zer jango, zer edango, zer jantziko duzuen pentsatuz. Jentilak arduratu ohi dira horiez guztiez. Zeruko zuen Aitak badaki horien guztien beharra duzuela. Bilatu lehenbizi Jainkoaren erreinua eta beronen zuzentasuna, eta gainerako guztia gehigarri emango dizue Jainkoak.

Ez kezkatu, bada, biharko egunaz, biharko egunak ere ekarriko baitu bere kezka. Aski ditu egun bakoitzak bere buruhausteak».

**T**xeraz inguraturik haziz joatea. Munduan gustura egotea. Maitasunaren zamaz bihotzaren hondoa zabalduz doan heinean, neurri be-

rean joan ohi da gure bizitza beteago eta xumeago bihurtzen. Gainezka egitearen sentsazioa bizi ohi da, ibaiak gainez egin eta ura ateratzeak nekerik izaten ez duenean bezala: ur-korronteak berak ematen dizu eskura; nekerik izaten ez den bezala arbola gutzia helduz joan denean isilik eta doako. «Erreparatu nola hazten diren soroko lirioak!», esan digu Jesusek: Erreparatu haietako Bizitari, bete-betean! Eta hartarainoko afektua eta jakinduria ditu bere begiratuan!

\* \* \*

### «JAUNA DUT ARTZAIN»

«Aurtxo txikia negarrez dago» abestiaren doinuaz abestekoa

- Jauna dut artzain, Jauna dut artzain.  
Ez dut ezeren beharrik.  
Jauna dut artzain, Jauna dut artzain.  
Ez dut ezeren beharrik.
- Biderik bide gidatzen nauzu,  
larre guritan larratzen.  
Zure begien gerizan baizik  
ez dut atsedetik hartzen.
- Jauna dut artzain, Jauna dut artzain.  
Ez dut ezeren beharrik.  
Jauna dut artzain, Jauna dut artzain.  
Ez dut ezeren beharrik.
- Ibar beltzetan banabil ere  
ez dut gaitzaren beldurrik.  
Gau t'egun zeure baitan naukazu.  
Inoiz ez nago bakarrik.

*(J.A. Pagolaren, Jesusen gazte taldeak libururako Pello Esnalek eta D. Amundarainek eratu, PPC 2018)*

**§ Hasiera liburutik 14,18-20.**

Egun haietan, Melkisedekek, Xalemgo erregeak, ogi-ardoak atera zituen, Goi-goiko Jainkoaren apaiza baitzen, eta Abram bedeinkatu zuen, esanez:

«Goi-goiko Jainkoak, zeru-lurren egileak, bedeinka dezala Abram. Eta bedeinkatua izan bedi Goi-goiko Jainkoa, zeure etsaien garailegin zaituelako».

Abramek harrapakin guztien hamarrenak eman zizkion Melkisedeki.

[Sal 110 [109]: Apaiz zara Zu, Melkisedek bezala, betiko.]

**§ San Paulok 1 Korintoarrei 11,23-26.**

Senideok: Jaunagandik hartu nuen nik, neure aldetik zuei eman dizuedan hau: Jesus Jaunak, saldu zuten gauean, ogia hartu eta, esker onezko otoitza eginez, zatitu zuela eta esan:

«Hau nire Gorputza da, zuentzat emana. Egizue hau nire oroigarri».

Afal ondoan gauza bera egin zuen kalizarekin, esanez: «Kaliza hau itun berria da, nire Odolaz sinatua; egizue hau, edaten duzuen baikoitzean, nire oroigarri».

Beraz, ogi honetatik jaten eta kaliza honetatik edaten duzuen baikoitzean, Jaunaren heriotza iragartzen duzue, hura etorri arte

**† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,11b-17.**

Aldi hartan, Jesusek Jainkoaren erreinuaz hitz egin zion jendeari, eta premia zuten guztiak sendatu zituen. Iluntzen hasia zen. Hamabiek hurbildu eta esan zioten Jesusi: «Bidal ezazu jendea, inguruko baserrietara eta auzoetara joan eta ostatua eta jatekoa bila dezaten, hau leku bazterra da eta». Jesusek erantzun zien: «Emaiezue zeuok

jaten». Haiek, orduan: «Ez dugu bost ogi eta bi arrain besterik, jende honentzat guztiarentzat jatekoa erostera geu joaten ez bagara behintzat». Bosten bat mila gizonezko ziren.

Jesusek esan zien ikasleei: «Eserarazi berrogeita hamarnaka». Hala, denak eserarazi zituzten.

Jesusek, bost ogiak eta bi arrainak hartu eta, begiak zerura jasorik, bedeinkapen-otoitza egin, ogiak zatitu eta ikasleei eman zizkien, jendeari eskaintzeko. Asetzeraino jan zuten denek, eta gelditutako hondarrez hamabi saski bete zituzten.

**E**szena hau gorputz bihurtu beharko genuke geugan, txertatu egin beharko genuke geure begiratzeko eta gauzetan egoteko moduan, eta misioa bizitzeko ditugun moldeak taxutu beharko litzuzke. Eskaleari «joateko esatetik» zer emanih ez omen dugulako, bera «onartzera» pasatu beharko genuke urritasun partekatu batean. Arazo guztia geurea aurrera ateratzea dela uste izatetik, bakoitzaren ogi beharra dugula ikustera iritsi beharko genuke, ugaldu ahal dadin. Geurea bailitzan eskaintzetik, esperimentatzera iritsi beharko genuke, banatu ahal badugu, alde zurratik Jesus Jaunak bedeinkatu eta puskatu duelako dela. Orduan denak ase ahal izango dira, eta sobera ere geldituko da. Jesusekin bizitza emankor bilakatzen da, gure kalkuluen eta aurreikuspenen iguripenak baino harago. Ety Elillesum-ek Jainkoaren ontasunean eta edertasunean ipini zuen konfiantza, eta hondamendi-eremuko zeru urdinpean aurkitu zuen. Han ireki zuen bere aurpegia, ezkutatu gabe, erakutsiz eta eskainiz azkeneraino. Segidako hauek dira bere Egunkarian, gas-labeen hil aurretik, idatzirik utzi zizkigun azken hitzak: «Nire gorputza ogia bezala puskatu dut eta jendearen artean banatu... gabezia askotatik baitzetozen».

Urteko 12. astea.

**SAN JOAN BATAIATZAILEAREN JAIOTZA.**

San Orentzio, *martiria*.

§ Isaias Profetaren liburutik 49,1-6.

Entzun, uharteok! Adu, urrutiko herriok! Jaio aurretik deitu ninduen Jaunak, amaren sabelean nengoela gogoratu zen nitaz. Ezpata zorrotz bihurtu zidan ahoa, bere eskupean babestu ninduen; gezi zortz bihurtu ninduen eta gezi-ontzian gorde. Eta esan zidan:

«Zu zara nire zerbitzaria, Israel, zure bidez agertuko dut neure ospea».

Nik, berriz, hau nioen:

«Alferrik nekatu naiz; alferrik eta hutsean akitu ditut neure indarrak».

Baina Jaunaren baitan zegoen nire eskubidea, Jainkoaren eskuetan nire lansaria. Orain honela mintzo da Jauna, amaren sabelean eratu ninduena haren zerbitzari izateko, Jakoboen leinuak harengana bihurrazteko eta Israel herria biltzeko. Ohorez jantzi nau Jaunak eta neure Jainkoa izan dut indar.

Jaunak esan dit:

«Ez da aski zu nire zerbitzari izatea, Jakoboen leinuak berreraikitzeke eta Israelen bizirik geldituak itzularazteke. Nazioen argitzat ezarriko zaitut, nire salbamena lurraren azken mugaraino irits dadin»».

[Sal 139 [138]: Eskerrak zuri, harrigarriro egin nauzulako.]

§ Apostoluen Eginak liburutik 13,22-26.

Egun haietan, honela mintzatu zen Paulo: «Jainkoak David eman zien errege, honetaz aitormen hau eginez: “Aurkitu dut David, Jeseren semea, nire gogoko gizona, nik nahi gutzia beteko duena”.

Hitzemana zuenez, honen hazitik atera zion Jainkoak Israeli Salbatzailea: Jesus. Hau etorri baino lehen, Joan Bataiatzaileak bihotz-berritzeko bataioa hots egin zion Israel osoari. Eta bere bizitza bukatzera zihoanean, honela zioen Joaneke: “Ez naiz ni zuek uste duzuen;



Urteko 12. astea.

SAN JOAN BATAIATZAILEAREN JAIOTZA.

San Orentzio, *martiria*.

badator nire ondoren beste bat, eta ni ez naiz inor haren oinetakoak askatzeko ere?».

Senideok, Abrahamen ondorengo zaretenok, eta zuek, Israelen Jainkoa gurtzen duzuenok, geuri bidali zaigu salbamen-hitz hau».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,57-66.80.

Haurra izateko denbora bete zitzaionean, Elisabetek semea izan zuen. Jakin zuten auzokoek eta ahaideek zein erruki handia agertu zion Jaunak, eta zorionak ematen zizkioten.

Jaio eta zortzigarren egunera, haurra erdaintzera eraman zuten, eta aitaren izena jarri nahi zioten, Zakarias. Amak, ordea, esan zuen: «Ez! Joan izango du izena». Esan zioten: «Ez duzue senitarTEAN inor izen hori duenik».

Orduan, aitari keinuka galdetu zioten zein izen eman nahi zion haurrari. Eta hark oholtxo bat eskatu eta idatzi zuen: «Joan du izena». Denak harriturik gelditu ziren. Bat-batean mihia askatu zitzaion Zakariasi, eta hitz egiten hasi zen eta Jainkoa goRESTEN.

Beldurrak hartu zituen auzoko guztiak, eta Judeako mendialde guztian zabaldu zen gertatuaren berri. Entzuten zuten guztiak beren baitarako esaten zuten: «Zer izango ote da ume hau?» Zeren Jainkoaren eskua harekin baitzegoen.

Haurra gorputzez hazten ari zen, eta espirituz sendotzen; basamortuan bizi izan zen, Israel herriaren aurrean agertu zen eguna arte.

**E**makume bat haurdun dagoenean, dagarek [=tribu bat] Burkina Faso-n erritual bereziak egiten dituzte: amaren sabelari entzutea, haurrak zein dohain dakarren jakiteko. Elisabetek badaki bere semearena: Jainkoak errukia zein era bihozkoian gauzatuko duen adieraziko du haurrak; horregatik ezarriko diote «Joan» izena. Tradizioak edo ohiturak ezarritakoa baino harago, badaki dena dela posible haur batengan, haurra den guztian egundoko prestasuna dela eta amairik gabea. Za-

Urteko 12. astea.

**SAN JOAN BATAIATZAILEAREN JAIOTZA.**

San Orentzio, *martiria*.

karias hitz egiteko gai bihurtu da, Jainkoak, bere eskua sorkari baten gainean jartzean, bedeinkazioa ematea onartu duenean.

Joanen haztea, Jainkoaren egitasmoan helduz joatea izan zen. Beraren egunak eta gauak betetzen zituena, beraren bihotza hartu zuen altxorra, hitz soil batek gauzatu zuen, izen soil batek: Jesus izenak. Bere ahal guztiaz eragin zion Joaneke Jesusengana gauza orori, axola zitzaion guztia Jesusengana gidatu zuen, ez zuen izan beste zereginik, ez irabazirik; bere argia argiro azaldu zigun argi-zuzia izan zen. Aske Jesus iragartzeko, aske hari jarraitzeko, aske harengatik bizia emateko.

\* \* \*

**SAN JOAN BATAIATZAILEA**

San Joan Bataiatzailearen jaioteguna ospatzen dugu ekainaren 24an; abuztuaren 29an, berriz, Joanen martiritza-eguna. Edozein santuz ari garenean, beti Jesusekin erlazionatu behar izaten dugu. Burubide hau argi eta garbi adierazten digu Elizak datu soil honekin: neguko solstizioan, abenduaren 25ean, Jesusen jaiotza ospatzen dugu; udako solstizioan, ekainaren 24an, Joan Bataiatzailearen jaiotza. Jesus eta Joan aurrez aurre.

Joaneke berak ere argi esan digu Jesusekin duen erlazioa: ni ez naiz Mesias. Nik urez bataiatzen dut; nire ondoren datorrenak urez eta Espirituaz bataiatuko zaituzte.

Frantzisko aita santuak indartsu azpimarratu digu santuen debozioaren inportantzia: «gure bizitza, kristau garen aldetik, sostengu dugun Jainkoaren eskuaren presentzia ahaltsuak markaturik dago. Baita santuen laguntza isilak ere... Hebrearrei egindako gutunean, santuen presentzia hori esapide honekin adierazten da: “lekuko edo testigu izan direnen hodei handi bat”».

[Hasiera liburutik 13,2.5-18: Senitartekoak gara biok. Ez dugu, beraz, bion artean eztabaidarik izan behar. Sal 15 [14]: Nor bizi daiteke, Jauna, zure mendi santuan?]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14,6.12-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez eman zakurrei gauza sakratuak, ez bota zerriei zeuen harri bitxiak, hankapean erabil ez ditzen eta, zuen kontra itzulirik, zatika ez zaitzateten.

Besteek zuei egitea nahi zenuketen guztia egin zuek ere besteei; horixe da Moisesen legeak eta profetek diotena.

San zaitezte ate estutik; zabala baita hondamenerako atea eta lasaia bidea, eta asko dira hortik doazenak. Baina bai estua dela bizirako atea eta meharra bidea, eta gutxi dira aurkitzen dutenak!»

**S**arritan baliatzen da Jesus atea delako konparazio edo irudiaz. Bat egiten du bere burua atearekin: guri Jainkoaganako irispidea irekitzeko edota gure bihotzeko atean joz ageri ohi da, guk ireki arte. Baidira adierazpen batzuk, adibidez, zabalera, ugaritasuna, eremu-handitasuna... bizitza betearen mailan jartzen gaituztenak. Gaurko honetan, aitzitik, kontrakoak dira adjektiboak: ate estua eta bide hertsia, eta, paradoxikoki, egiazko bizira daramate biek. Hornidurarik gabe igaro behar dira eta funtsezko soilarekin: tratu ezitia eta maitea gainerakoei. Gainerako gauza guztiak galdu egingo ditugu.

Urteko 12. astea.

San Pelaio, *martiria*.

San Josemaria Escriba, *fundatzailea (Opus Dei)*.

[**Hasiera liburutik 15,1-12.17-18:** Abrahamek sinetsi egin zuen Jaunagan, eta Jaunak zuzentzat hartu zuen. Eta Jaunak ituna egin zuen harekin. **Sal 105 [104]:** Gogoan du etengabe Jaunak bere ituna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,15-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Kontuz sasiprofeteekin! Ardi-larruz jantzita datozkizue, baina barrutik otso harrapariak dira. Beren egintzetatik antzemango diezue. Elorritik biltzen ote da mahatsik, edota laharretatik pikurik? Zuhaitz onak fruitu ona ematen du, eta zuhaitz txarrak fruitu txarra. Zuhaitz onak ezin du fruitu txarrik eman, ezta zuhaitz txarrak ere fruitu onik.

Fruitu onik ematen ez duen zuhaitza moztu eta sutara botatzen da. Beraz, beren fruituetatik antzemango diezue sasiprofetei».

**J**ainkoagan bizi izan den bitzta baten fruiturik ederrenetako bat xumetasun alai bat da eta gainerakoen ahuldadeari eskainitako begiratu bero bat. Tolesturarik eta azpi-asmorik gabeko xumetasuna; pertsonaren ondoan egonarriz egoteko prest jartzen gaituena, senik handienero bulkadak ezitzen dituena, eguneroko bizikidetasunean zorroztasun muturrekoenaren kontra adi eta azti ipintzen gaituena. Madeleine Delbrelek, emakume mistiko eta egunerokotasunaren olerkariak, esan ohi zuen: «Geuk jasandako sentiberatasunak ahaztu izanak bihotz aske eta fidatu baten xumetasuna ekartzen digu gogora, eta topo egiten duzunari zeure bihotzeko gauzarik hobena agertzera eragiten».

Urteko 12. astea.

San Zirilo Alexandriakoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*.San Zoilo, *martiria*.

[**Hasiera liburutik 16,1-12.15-16:** Agarrek semea eman zion Abrami, eta honek Ismael ezarri zion izena. **Sal 106 [105]:** Eskerrak Jau-nari, ona baita.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,21-29.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez da aski Niri “Jauna, Jauna” esatea zeruetako erreinuan sartzeko; hau da beharrezkoa: zeru-ruan dagoen nire Aitaren nahia egitea. Epai-egunean askok esango dit: “Jauna, Jauna, ez al genuen zure izenean hitz egin eta zure izenean deabruak bota eta zure izenean mirari asko egin?” Baina Nik erantzungo diet: “Ez zaituztet inoiz ezagutu; alde Nigandik, gaizki-leok!”

Beraz, nire hitz hauek entzuten eta betetzen dituen bere etxea har-kaitz gainean eraiki zuen gizon zentzudunaren antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; baina ez zen erori, harkaitz gainean oinarritua baitzegoen.

Nire hitz hauek entzun bai, baina betetzen ez dituen, bere etxea hondar gainean eraiki zuen gizon burugabearen antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; eta erori egin zen eta erabat hondatua gelditu».

Jesusek hitzaldi hau bukatu zuenean, txunditurik zegoen jendetza haren irakaspenaz, nagusitasunez irakasten baitzien, eta ez lege-mai-suek bezala.

**J**esusi bere aginpidea irakasten duenaren eta bizi duenaren arteko koherentziatik datorkio. Ez dio axola asko hitz egitea, ezta dotore esa-tea ere, esandako hura ondoren bizi ez bada, ez baita guretzat beste le-kurik ikasteko eta saneatzeko. Ez al dugu sentitzen nolabaitako ondoez bat bizi nahi dugula esaten dugunaren eta trauski bizi dugunaren arte-ko leizeaz? Eguneroko azterketa eta lagunartea bi erreminta dira, falta ezin direnak, baldin ere benetan arroka gainean eraiki nahi badugu.

Urteko 12. astea.

JESUSEN BIHOTZ GUZTIZ SANTUA.

San Ireneo Lyongoa, *gotzaina eta martiria*.

[Ezekiel profetaren liburutik 34,11-16.]

Hau dio Jainko Jaunak: «Ni Neu egingo naiz artaldearen kargu, Neu arduratuko hartaz. Artzaina, artaldea sakabanatu zaionean, ardiez arduratzen den bezala, halaxe arduratuko naiz Ni neure ardiez; egun lainotsu eta ilunean sakabanaturiko toki guztietatik aterako ditut.

Herri eta lurralde arrotzetatik aterako ditut eta bilduko, eta beren lurraldera eramango; Israelgo mendietan larratuko ditut, ibar heze eta lurraldeko herririk guztietan. Larre oparotan bazkatuko ditut eta Israelgo mendi garaietan izango dituzte eskortak; barruti ederretan hartuko dute atseden eta larre oparotan bazkatuko dira Israelgo mendietan.

Nik Neuk larratuko ditut ardiak eta Neuk harraraziko diet atseden –dio Jainko Jaunak–. Ardi galduaren bila joango naiz, desbideratua artaldera bilduko dut, hanka hautsia lotuko, gaixoa indartuko; gizenak eta indartsuak zainduko ditut. Behar bezala larratuko ditut ardiak».

[Sal 23 [22]: Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.]

§ San Paulok Erromatarrei 5,5b-11.

Senideok: Jainkoak bere maitasuna isuri digu bihotzera, eman digu Espiritu Santuaren bitartez. Izan ere, oraindik bekatupean indargabe geundela, Kristo, Jainkoak erabakitako garaian, gaiztoen alde hil zen. Nekez onartuko luke norbaitek pertsona zuzen baten alde hiltzea; hala ere, pertsona on baten alde baliteke norbait hiltzeko prest egotea.

Baina Kristo, artean gu bekatari ginela, hil zen gure alde; honela erakusten du Jainkoak guri digun maitasuna.

Orain Jainkoak Kristoren odolaz zintzotzat hartu gaituelarik, zenbategi gehiago ez ote gaitu salbatuko zigorretik beraren bitartez!

Etsai ginelarik, Jainkoak berekin adiskidetu bagintuen bere Se-mearen heriotzari esker, zenbategi gehiago, behin adiskidetu z gero, ez ote gaitu salbatuko haren biziari esker! Are gehiago, harrotu ere egiten

Urteko 12. astea.

JESUSEN BIHOTZ GUZTIZ SANTUA.

San Ireneo Lyongoa, *gotzaina eta martiria*.

gara Jainkoaz Jesu Kristo gure Jaunari esker, honen bitartez Jainkoarekin adiskidetzeari iritsia baitugu dagoeneko.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 15,3-7.

Aldi hartan, parabola hau esan zien Jesussek fariseuei eta lege-mai-suei: «Zuetako bat, ehun ardi izan eta bat galtzen bazaio, ez al da joaten, beste laurogeita hemeretziak larrean utzirik, galdutakoaren bila aurkitu arte? Eta, aurkitzean, lepoan hartzen du poz-pozik eta, etxera iristean, adiskideak eta auzokoak bildu eta esaten die: “Poztu zaitezte nirekin, aurkitu baitut galdutako ardia”.

Hara Nik esan: Jainkoak ere poz handiagoa hartzen du bihotz-berritzen den bekatari batengatik, bihotz-berritu beharrik ez duten laurogeita hemeretzi zintzoengatik baino».

**Z**enbat saiatzen den bera bere ardien bila, zenbateko arduraz eta zein begitarte gozoz zaintzen dituen eta miazten duen haien hanka-arrastra: «bila joango natzaie, askatuko ditut, larratuko, lokartuko, sendatuko ditut». Ba al da haiengatik egiten ahal zuen beste ezer? Ahaleginak eta bost egiten ditu artzainak, bihotzez maite baititu bere ardiak. Hunkigarria da ikustea, Jesus urrunago doala Ezekielek aipatzen dituen harrera-ekintza hauek egiten; aginpidedun artzain sentitzen ziren haiengan nahasmena eta ukoa eragiteraino, hain juxtu. Laurogeita hemeretziak utzi, bakar baten bila joateko? Ez al gehiegitxo? Zer axola dio hainbesteren artean bat galtzea? Jesusentzat, ordea, horixe da garrantzikoena, ezgaituena delako, axola handienekoa, hori zeinengatik prest baitago dena arriskatzeko. Eta bihotz-zirraraz aurkitu ez ezik, haxe da, galdua zen hau, lepoan hartzen utzi dion hau alaitasunez beteiko duena. Egundoko maitasun hau, ez dugu erabat ulertuko sekula santan, ez bagara gu geu lepoan hartuak.

Urteko 12. astea.

SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAK.

Santa Maria, *San Markosen ama*.

### § Apostoluen Eginak liburutik 12,1-11.

Aldi hartan, Herodes erregea eliz elkarteko batzuei gogor erasozten hasi zen. Joanen anaia Santiago ezpataz hilarazi zuen eta, hori jудuei atsegin zitzaie la ikusirik, Pedro ere preso hartu zuen. Pazko-astea zen. Pedro atxilotu eta kartzelan sartu zuen, bada, eta launa gudariko lau talderen zainpean jarri, Pazko ondoren herriaren aurrean agerrazteko asmoz. Pedro kartzelan zaindua zeukaten bitartean, eliz elkartea otoitzean ari zitzaion haren alde Jainkoari etengabe.

Herodesek hura kartzelatik atera behar zuen aurreko gauean, Pedro lo zegoen bi gudariren artean, bi katez loturik, eta guardiak atean kartzela zaintzen zeudelarik. Bat-batean, Jaunaren aingerua agertu eta gela guztia argiz bete zen. Aingeruak, saihetsean ukituz, Pedro esnarazi eta esan zion: «Jaiki azkar». Erori egin zitzaizkion kateak eskuetatik. Gero, aingeruak esan zion: «Lotu gerrikoa eta jantzi oinetakoak». Hala egin zuen; eta aingeruak berriro: «Jantzi soingainekoa eta jarraitu niri».

Haren ondoren atera zen Pedro; ez zekien aingeruaren bitartez gertatzen ari zena egia zen ala ez; ametsa iruditzen zitzaion. Lehenengo eta bigarren zaintzaile-taldeen ondotik igarota, kalera zeraman burdinazko ateraino iritsi ziren. Atea berez zabaldu zitzaion eta kanpora irten ziren. Kale bat igaro ondoren, aingeruak bakarrik utzi zuen Pedro. Gertatuaz jabeturik, Pedrok esan zuen: «Orain badakit Jaunak bere aingerua bidali duela, ni Herodesen eskuetatik eta judu-herriak niretzat zituen asmoetatik askatzera».

[Sal 34 [33]: Beldur guztietatik libratu ninduen Jaunak.]

### § San Paulok 2 Timoteori 4,6-8.17-18.

Anaia maitea: Ni neure bizia opari eskaintzeko zorian nago; gainean dut mundu honetatik joateko ordua. Borroka ona egin dut, bukatu dut lasterketa, gorde dut sinesmena. Dagoeneko zain dut garaipenaren



Urteko 12. astea.

SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAK.

Santa Maria, *San Markosen ama*.

koroa, Jaunak, epaile zuzenak, azken egunean emango didan koroa; eta niri ez ezik, baita haren agerraldia maitasunez itxaro duten guztiei ere.

Jauna neurekin izan nuen eta indartu ninduen, nire bidez mezua osorik iragarria izan zedin eta jentil guztiek entzun zezaten. Berak atera ninduen lehoiaren ahotik. Jaunak aterako nau gaitz guztitik eta salbatuko, zeruko bere erreinura eramanez. Berari aintza menderen mendetan. Amen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16,13-19.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?» Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat».

Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Simon Pedrok erantzun zuen: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea».

Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur- mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta hau diotsut Nik: Zu Pedro zara –harkaitza–; harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza, eta Herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zeruetako erreinuko giltzak emango dizkizut: zuk mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua, zeruan ere askatua».

**G**izon bi eta zori bakar bat. Pedro eta Paulo, historia eta izaera oso desberdineko, biak Jesusek hartuak eta haren Ebanjelioaz liluratuak. Anaiak fedean eta inoiz bata besteari desafioka, gauzak ulertzeko era desberdinengatik. Biak ahuldadean joan ziren heltzen. Pedro, aitortzera iritsi zena, grazia hutsarengatik jarraitzen ahal ziola bere Jaunari, eta ez inolako bere merezimenduri esker. Paulo, indarkeriazko iragana zuen gizona, hasiera batean kristauak bere uko egin ziotena, Erreinuaren hots egile adoretzuena eta apalena bilakatua. Biak gure fedearen erro eta sustrai, maitasunik handienaren hasiera hartako lekuko.

Urteko 13. astea.

Erromako Eliza Santuko Lehen Martiriak.

### § 1 Erregeak liburutik 19,16b.19-21.

Egun haietan, Jaunak esan zion Eliasi: «Gantzu ezazu Eliseo, Xafaten semea, Abel-Meholakoa, zeure ondorengo profeta».

Joan zen Elias menditik, eta Eliseo, Xafaten semea, aurkitu zuen goidean; hamabi idi-pare zituen aurrean, berak hamabigarrena zera-mala. Ondotik igarotzean, Eliasek bere soingainekoa bota zion gainera. Eliseo, orduan, idiak utzirik, Eliasen atzetik joan zen lasterka eta esan zion:

«Uztazu, arren, aitari eta amari agur esaten, eta jarraituko dizut gero». Eliasek esan zion: «Zoaz, baina itzuli. Badakizu zer egin dizudan».

Joan zen Eliseo, idi-parea hartu eta oparizat hil zuen; uztarriaz su egin, haragia erre eta jaten eman zion jendeari. Gero jaiki eta Eliasi jarraitu zion, haren zerbitzura jarritz.

[Sal 16 [15]: Zu zara, Jauna, nire ondarea.]

### § San Paulok Galaziarrei 5,1.13-18.

Senideok: Libre izateko askatu gaitu Kristok; iraun ezazue, beraz, sendo eta ez makurtu berriro esklabotzaren uztarpera.

Zuek, senideok, askatasunera deitu zaituzte Jainkoak; baina ez bezikize askatasun hori aitzakia izan grina txarren arabera bizitzeko; bestela baizik, egin zaitzatela maitasunak elkarren zerbitzari. Zeren lege osoa betetzen baita agindu bakar hau betez gero: «Maita ezazu zeure lagun hurkoa zeure burua bezala». Baina elkarri hozka eta elkar irentsi beharrean bazabiltzate, elkar suntsituko duzue azkenean.

Haxe diotsuet: Bizi zaitezte Espirituari dagokionez, eta ez grina txarrei jarraituz. Giza grinak Espirituaren aurkakoak dira, eta Espiritua giza grinaren aurkakoa. Bi indar horiek elkarren aurka dabilta; horrela, ez duzue nahi zenuketena egiten. Espirituak gidatzen bazaituzte, ordea, ez zaudete legearen menpe.

Urteko 13. astea.

Erromako Eliza Santuko Lehen Martiriak.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,51-62.

Jesusek, mundu honetatik eramana izateko garaia zetorkiolarik, Jerusalemera joateko erabakia hartu zuen. Mandatariak bidali zituen aurretik, eta Samariako herri batean sartu ziren, Jesusi ostatua prestatzera. Baina herrikoek ez zuten hartu nahi izan, Jerusalemera zihoalako.

Hori ikusirik, Santiago eta Joan ikasleek esan zioten: «Jauna, aginduko al dugu zerutik sua jaitsi eta kiskal ditzala?» Baina Jesusek, haiengana itzulirik, haserre egin zien. Eta beste herri batera joan ziren.

Bidean zihoazela, batek esan zion Jesusi: «Noranahi jarraituko dizut». Jesusek erantzun zion: «Azeriek badituzte zuloak eta zeruko hegaztiak habiak; Gizonaren Semeak, ordea, ez du burua non ezarri».

Beste bati esan zion: «Jarraitu niri». Baina hark erantzun: «Jauna, uztazu lehenik neure aitari lur ematera joaten». Jesusek erantzun zion: «Utzi hildakoei beren hildakoei lur ematen; zu zoaz Jainkoaren erreinua hots egitera».

Beste batek, berriz, esan zion: «Jarraituko dizut, Jauna, baina uztazu lehenik etxekoei agur egiten». Jesusek erantzun zion: «Goldeari heldu eta atzera begiratzen duena ez da gai Jainkoaren erreinurako».

**E**banjelioaren lehen gonbita, hautatzen ikastekoa da. Bide luzean barna, Jesusek bere erabakiak hartu behar izan ditu. Eguneko gure bizitza ere hautapen txikiez osatua da, pixkana geure taxuera ezartzen digute. Batzuetan, ondoan ditugunek ez dituzte ulertzen gure jardueraren arrazoiak. Jesus aske sentitu izan da bide berri bati ekiteko, eta ukoak galgaturik ez gelditzeko.

Bigarren gonbita Jesusi jarraitzekoa da, azpi-asmorik gabe. Hasierra batean Jesusen erradikaltasuna erakargarri gertatu zitzaigun, baina, bizitzaren erdi aldera iritsirik, erradikaltasun hori konfronta-

Urteko 13. astea.

Erromako Eliza Santuko Lehen Martiriak.

zio bilakatzen zaigu. Posible al da, gero, berari horrela jarraitzea? Jasaten ditugu, bai, beraren hitzak, berari jarraitzeko gure erosotasuna hartuz joan den kode egokigarriz harturik; baina bihotzaren hondoan tristurak jotzen gaitu, bistan ditugulako haren hitzen hondoan diren egia eta onberatasuna: ez gara izan inoiz ere hain aske eta hain zorioneko, berak esan digun guztiaz funts galduan fidatu izan garenean baino.

\* \* \*

### JESUS ZEIN DA ZURETZAT

Elizaren erdigunean zein dagoen argitu behar da. Zuzenean galde-tu die Jesusek ikasleei: «Zuek, zein naizela diozue?» Pedrok erantzun dio guztien izenean: «Mesias zara zu, Jainko biziaren Semea». Sumatu du, alegia, Jesus ez dela itxaro duten Mesias bakarrik. «Jainko biziaren Semea» da. Bizia den Jainkoa da, bizi den ooren iturria eta jatorria. Jesusen misterioa atzeman du Pedrok haren hitz eta keinuetan, jendeari osasuna, barkazioa eta bizi berria ematen dioten haietan.

Zorionak eman dizkio Jesusek: «Zorionekoa zu... hori zeruko nire Aitak bakarrik azaldu ahal izan baitizu». Ez da Jesusenganako fede hori iratzar dezakeen «haragizko eta hezurrezko» gizakirik. Gauza horiek Aitak xumeei agertzen dizkie, eta ez jakintsuei eta adituei. Jesusen jarraitzaile xume horietakoa da Pedro, Aitarekiko bihotza irekirik bizi diren horietakoa. Hori da Pedroren handitasuna, baita benetakoa fededun ororena ere. (*J.A. Pagolaren Homilia batetik*).





## UZTAILA / GARAGARRILA

### AITA SANTUAREN ASMOA

**Ebanjelizazioaren alde:** Beren lan pastoralean nekaturik eta bakar sentitzen diren apaizak kemenez bete daitezten, Jaunaren eta senideen adiskidetasunaren laguntza sumaturik.



## UZTAILA

Urteko 13. astea.

San Aaron (*Moisesen anaia*).

Santa Regina, *aitorlea*.

Santa Ester, *erregina*.

Astelehena

1

---

[**Hasiera liburutik 18,16-33:** Errugabea ere galdu egin behar ote duzu errudunarekin batean? **Sal 103 [102]:** Bihozbera eta errukiorra da Jauna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8,18-22.**

Aldi hartan, Jesusek, bere inguruan jendetza handia ikusirik, beste itsasertzera igarotzeko agindu zuen. Orduan, lege-maisu bat hurreratu zitzaion, esanez: «Maisu, noranahi jarraituko dizut». Jesusek erantzun zion: «Azeriek badituzte zuloak eta zeruko hegaztiek habiak; Gizonaren Semeak, ordea, ez du burua non ezarri».

Beste batek, ikasleetakoa zenak, esan zion: «Jauna, uztazu lehenik nire aitari lur ematera joaten». Jesusek erantzun zion: «Zuk jarraitu niri, eta utzi hildakoei beren hildakoei lur ematen».

**J**esusen ondoan bizitzeko, ikasleak Maisuaren norabidea bera hartu beharra du; ezin egon da leku, ohitura edo pertsona batzuei atxikirik. Etxea aterpe eta eserleku da, aita sustrai, kide eta nortasun den bezala. Ezarritako loturak eta politikoki zuzen dena baino harago egiten digu tira Jesusek. Askatasun afektiboa da lehen erregalua eta lehen eginkizuna. Nola ikasi zerupe gorrian ibiltzen, segurtasunen gizon eta emakume garelarik? Ezin ikasiko dugu arriskatzen ez bagara, esperimentatzen ez badugu nola sostengatzen gaituen haren maitasunak, berari geure burua osorik ematen ez badiogu.



Santuak: Bernardino Realino, Juan Francisco Régis eta Francisco de Gerónimo; dohatsuak: Julián Maunoir eta Antonio Balducci, *apaizak, jesuitak*. San Juvenal, *martiria*. San Odon, *gotzaina*.

[**Hasiera liburutik 19,15-29:** Jaunak sufrezko eta suzko euri-erauntsia bota zuen Sodoma eta Gomorra gainera. **Sal 26 [25]:** Begien aurrean dut, Jauna, zure maitasuna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8,23-27.**

Aldi hartan, Jesus txalupara igo zen eta ikasleek jarraitu zioten. Bat-batean, ekaitz handia sortu zen itsasoan, eta olatuek txalupa estali egiten zuten. Jesus, berriz, lo zegoen. Ikasleek hurbildu eta esnatu zuten, esanez: «Salba gaitzazu, Jauna! Galtzera goaz!»

Hark esan zien: «Zergatik zarete hain beldurti, sineste txikikook?» Eta, zutiturik, haserre egin zien haizeari eta itsasoari, eta barealdi handia egin zen.

Ikasleek, harriturik, hau zioten: «Nor ote dugu hau, berak esana egiten baitute haizeak eta itsasoak ere?»

**J**auna, itsasontzian, han dago, baina ez espero genezakeen bezala. Bere modura dago han, eta kemena ematen digu bere presentziaz. Bere hitzaz baretu egiten ditu gure beldurrak. Beldurrez eta gogotsu, biak batera, ibil gintezke. Beldurti, geure koldarkeriagatik; kementsu, bizitzako ontzian eskaintzen digun etengabeko bere presentziagatik. Loiolako Ignaziok adierazten die Jesusen jarraitzaile bihozkoiz izan nahi dutenei, erregutu diezaiotela etengabe, beren beldurretik eta engainu guztietatik libra ditzan, Jesusen baloreei atxikitzeko.

Urteko 13. astea.

SANTO TOMAS, APOSTOLUA.

San Heliodoro, gotzaina.

[San Paulok Efesoarrei 2,19-22: Apostoluen oinarri gainean eraikiak zaudete. Sal 117 [116]: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,24-29.

Tomas, hamabietako bat, Bikia zeritzana, ez zegoen haiekin Jesus etorri zenean. Gainerako ikasleek esan zioten: «Jauna ikusi dugu». Tomasek erantzun zien: «Haren eskuetan iltze-zuloak ikusten ez badituz, neure atzamarra haren iltze-zuloetan eta neure eskua haren saihetsean sartzen ez badituz, ez dut sinetsiko».

Handik zortzi egunera, etxean zeuden berriro ikasleak, eta Tomas ere haiekin zen. Sartu zen Jesus, ateak itxirik zeudela eta, erdian jarriarik, esan zien: «Bakea zuei». Gero esan zion Tomasi: «Ekarri atzamarra, begira nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saihetsean, eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik».

Tomasek erantzun zion: «Ene Jauna eta ene Jainkoa!» Jesusek esan zion: «Ikusi nauzulako sinetsi al duzu? Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak».

**J**oanen ebanjelioko azken zoriontasun hau guretzat dator. Zoriona da, objektiboki egiaztatu dezakeguna baino harago ikusi edo sumatu ahal izatea. Poz sakona du berekin, bai txikien aurpegia eraldatzeak, bai errealitateak BERPiztuaren maitasun ezta bistaratzeak. Tomasi esker egin dugu geure, esakune eder-eder hau: «Ene Jaun eta ene Jainkoa!» Zoriona da hitz hauek ezpain artean eta bihotzean ditugula ibiltzea. Zoriona da hainbat zauri sendatu gaberen eta bake-behar hain handiren aurrean, kontrako egoera oinazezkoren artean, hitz horiek baltsamo bezala murmurikatzea, zoritxar guztien kontrako zorion-iragarki bezala ahopean esatea.

Urteko 13. astea.

San Valentin Berrio-Otxoa (Elorrio 1827 – Vietnam 1861),  
*domingotarra, gotzaina, eta lagunak, martiriak.*

[**Hasiera liburutik 23,1-19:** Sinesmenean gure aita dugun Abrahamen oparia. **Sal 115 [114]:** Ibiliko naiz Jaunaren aurrean bizidunen lurraldean.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,1-8.**

Aldi hartan, Jesus txalupara igo, itsasoaz bestaldera igaro eta bere herrira etorri zen. Hortan, elbarri bat ekarri zioten, ohatilan etzana. Jesusek, lagun haien sinesmena ikusirik, esan zion elbarriari: «Zan bihotz, seme! Barkatuak dituzu bekatuak».

Orduan, lege-maisu batzuek hau zioten beren baitan: «Biraoka ari duk hau».

Baina Jesusek, haien burutapenei antzemanik, esan zien: «Zergatik dituzue burutapen gaizto horiek zeuen baitan? Zer da errazago, “barkatuak dituzu bekatuak” esatea ala “jaiki eta zabilta” esatea? Orain ikusiko duzue, bada, Gizonaren Semeak baduela mundu hone-tan bekatuak barkatzeko ahalmena. Orduan, esan zion elbarriari: “Jaiki, hartu ohatila eta zoaz etxera!”» Hura jaiki eta etxera joan zen.

Hau ikustean, izaturik gelditu zen jendea eta Jainkoa goresten zuten, gizakiei horrenbesteko ahalmena eman zielako.

**H**arridura eta gorespena: hori du eragiten Jesusek, kateaturik dauden bizitzak saneatzen dituenen. Ez du jokatu inoiz ere bere burua azaltzeko, ez da harenagan inolako azpi-asmorik. Kritikatzen dutenek eta bere onura bila dabilela uste dutenek, pertsona penatuen alde Jesusen onberatasuna bikoiztea lortzen dute soil-soilik. Zer gutxi gustatzen zaizkigun batzuetan gure inguruan gertatzen diren gauza onak; are gehiago, halakoetan zirrikituren baten bila ere ibiltzen gara, erabat zapuzteko. «Zergatik dituzue gogoeta gaizto horiek zeuen baitan?», galdetu die Jesusek Liburu Santua ezagutzen dutenei. Jende xumeak bakarrik aitortzen eta eskertzen du. Eska dezagun laguntza eta grazia, ez jukatzeko, eta esku-ohreak lepoan hartu eta jendea arintzeko.

Urteko 13. astea.

San Antonio Maria Zaccaria, *apaiza, fundatzailea (bernabitak)*.  
Santa Elisabet Portugalekoa, *erregina*.

[*Hasiera liburutik 23,1-4.19; 24,1-8.62-67: Maite izan zuen Isaakek Rebeka. Honela arindu zitzaion Isaaki ama galdu izanaren nahigabea. Sal 106 [105]: Eskerrak Jaunari, ona baita.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,9-13.

Aldi hartan, Jesusek, bidez zihoala, Mateo zeritzan gizon bat ikusi zuen zergak biltzeko mahaian eseririk, eta esan zion: «Jarraitu niri». Mateok zutitu eta jarraitu egin zion.

Geroago, Jesus mahaian zegoen Mateoren etxean; beste zergalari eta bekatarari asko ere etorri eta mahaian eseri ziren Jesusekin eta honen ikasleekin. Fariseuek, hori ikustean, esan zieten ikasleei: «Nolatan jaten du zuen Maisuak zergalariekin eta bekatariekin?»

Hori aditzean, Jesusek esan zien: «Ez dute osasundunek sendagile beharra, gaixoek baizik. Hobe zenukete Jainkoak esandako honetaz jabetuko bazinete: “Nahiago dut errukia sakrifizioak baino”. Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik».

**E**spirituak hartu izanaren seinalerik bistakoena norberaren buruarekiko axola-eza eta besteekiko erruki-ahalmena da: munduari, jendeari eta nork bere buruari begiratzea, argiro eta,aldi berean, samurtasun sarkorrez. Erruki honen barne-indarra gauza jakinetan zabalteak maitatzeko prest egotea esan nahi du, ez berez bezala maite ditugunak bakarrik, baita gure ondora etortzen diren guztiak ere, eta, horien bidez, munduan galduak diren edo sufritzen ari diren guztiak. Mateok Jesusengandik hartu zuen maitasun hori, eta etxea ireki zion merzei gabeko hartarainoko txerari, eta beraren zerga-mahaia abegi eta adiskidetasun-mahai bihurturik gelditu zen.

Urteko 13. astea.

Santa Maria Goretti, *birjina eta martiria*.

[*Hasiera liburutik 27,1-5.15-29*: Jakobek bere anaiari lehen-semetza kendu eta haren bedeinkapena jaso. *Sal 135 [134]*: Goretsezue Jauna, ona baita.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,14-17.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen ikasleak Jesusengana hurbildu eta esan zioten: «Zergatik guk eta fariseuek sarritan egiten dugu baurau, eta zure ikasleek ez?»

Jesusek erantzun zien: «Ezteietara deituak egon al daitezke triste, senar berria berekin duten bitartean? Etorriko zaie senar berria kenduko dieten eguna; orduan, bai, egingo dute barau.

Inork ez dio jantzi zaharrari oihal gordinezko adabakirik josten, jantzia behartu egingo bailuke adabakiak, eta zerratada handiagoa egingo. Ez da ardo berririk sartzen ere zahagi zaharretan; bestela, zahagiak lehertu egingo lirake, eta ardoa isuri eta zahagiak hondatu. Ardo berria zahagi berrietan sartzen da, eta horrela biek irauten dute».

**J**esusen ondoren denbora asko daramagunean, berreskuratzea gehienik kostatzen dena geure burua zerk harritu bilatzea izaten da; beste hitz batzuekin esanda, egunero gure artean presente dagoelako eta alde zurretik ez sumatzeko moduan dagoelako konbentzimendua lortzea. Badakigu jada, ezagutzen dugu jada, eta ez gara harritzen jada. Geure burubidearen eta sentiberatasunaren zahagiak zaharkitu egiten zaizkigu, hainbateko ugaritasuna dela-eta dastatu eta eskertu ezin dugun ardo berriaren aurrean. Alabaina, Jesusen hitzak beti datozkigu arnasa ematera. Emazkiguzu, Jauna, begiak zure urratsei antzemateko eguneroko gauza txikien artean, zure maitasuna topa egiteko eta egingo ditugun gauzetan, beren jokoetan murgildurik bizi ohi diren haurrek bezala, edertasuna eta freskotasuna sentitzeko.

Urteko 14. astea.

San Fermin (Iruñea 3. mendean? – Amiens?), *gotzaina eta martiria, Nafarroako Zaindaria.*

### § Isaías profetaren liburutik 66,10-14.

Poztu zaitzte Jerusalemekin, alaitu harekin, maite duzuen guztiok! Izan orain harekin zoriontsu, harengatik dolu egin zenutenok! Asetzeraino edango duzue haren bular gozotik, atseginez xurgatuko haren ugatz oparotik.

Zeren hau baitio Jaunak:

«Ibaika ekarriko diot Jerusalem zoriona, erreka betean nazioen ondasuna. Bularra emango dizuete, altzoan eramango eta magalean gozatuko. Amak haurra kontsolatzen duen bezala, halaxe kontsolatuko zaituztet Nik; bai, Jerusalem kontsolatuko zaituztet. Hau ikustean, poztuko zaizue bihotza, belar berria bezala loratuko dira zuen hezurrak, eta Jaunak bere ahalmena agertuko die bere zerbitzariei».

[Sal 66 [65]: Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.]

### § San Paulok Galaziarrei 6,14-18.

Senideok: Niri dagokidanez, Jainkoak libra nazala harrotzetik, Jesu Kristo gure Jaunaren gurutzean izan ezik; Kristo gurutzean hil zenez gero, mundua hilik dago niretzat eta ni munduarentzat. Izan ere, erdaindua izateak nahiz erdaingabea izateak ez dio axola; balio duena sorkari berri izatea da.

Bakea eta errukia arau honi lotuak bizi direnei, baita Jainkoaren Israeli ere! Hemendik aurrera ez diezadala inork nekerik eman: Jesu-sen zauri-markak neure gorputzean baitaramatzat nik.

Senideok, Jesu Kristo gure Jaunaren grazia zuen espirituarekin. Amen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,1-12.17-20.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta leku guz-

Urteko 14. astea.

San Fermin (Iruñea 3. mendean? – Amiens?), *gotzaina eta martiria, Nafarroako Zaindaria.*

tietara. Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uzgara. Zoazte! Arkumeak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman poltsarik, ez zakutorik, ez oinetakorik, eta ez gelditu bidean inori agur egiten. Edozein etxetan sartzen zaretela, esazue lehenbizi: “Bakea etxe honek akoe!” Eta han bakezalerik bada, haren gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira. Geldi zaitzete etxe berean; eta jan eta edan daukatenetik, zor baitzaio langileari bere saria. Ez ibili etxez etxe. Herriren batean sartu eta ondo hartzen bazaituztete, jan jartzen dizuetenetik, sendatu bertako gaixoak eta esaie-zue: “Hurbil duzue Jainkoaren erreinua”. Baina herriren batean sartu eta onartzen ez bazaituztete, irten plazara eta esan: “Oinetan itsatsi zaigun zuen herriko hautsa ere hor astintzen dizuegu. Dena dela, jakizue hurbil dela Jainkoaren erreinua”. Begira: auzi-egunean Sodomak zigor bigunagoa izango du, herri horrek baino». Hirurogeita hamabi ikasleak pozez beterik itzuli ziren, eta esan zioten Jesusi: «Jauna, deabruak ere menpean jartzen zaizkigu zure izenean».

Jesusek erantzun zien: «Tximista bezala zerutik erortzen ikusi dut Satanas. Begira, sugeak eta eskorpioiak zapaltzeko eta etsaiaren indar guztiak menderatzeko ahalmena eman dizuet, eta ezin izango dizue ezerk ere kalterik egin. Hala ere, ez poztu espirituak menpean jartzen zaizkizuelako; poztu, bai, zuen izenak zeruan idatzirik daudelako».

«**E**z eraman poltsarik, ez zakutorik, ez oinetakorik». Nola gauzatu hau guztiak gaur egun? Gonbit bat da, Jainkoaren ardura arretatsuan fidatzera: bizitzak emango digu behar duguna, eta bere aroa edo epea guran bete duena eraman egiten du. Zamarik gabe bidali nahi gaitu Jesusek, gehiegizkorik hartu gabe. Gu geurez buruaski ez izate hori aukera bat da besteengandik hartzen ikasteko, hartzaile bezala hazten joateko; ez izateko boterea dutenetakoa, laguntza eskaintzen, baina berentzat behar ez dutenetakoa; baizik eta truke giro horretan sartzeko gonbita da, zeinetan batak bestea elikatuko baitugu, bata bestearen la-

## Urteko 14. astea.

San Fermin (Iruñea 3. mendean? – Amiens?), *gotzaina eta martiria, Nafarroako Zaindaria.*

gun izango baikara. Jaunak bidaiari ekitera dei egin digu, gauzak metatu gabe, zeren eta harrapazka gordetzen dugun orok eragotzi egiten baitigu berritasuna onartzea. Esperimentatu al dugu inoiz nola gertatzen den arinago misioa partekatzen dugunean? Nola jasaten ahal diren ezbeharrak arinago batak bestearen ondoan bizi ohi ditugunean eta nola izaten diren lorpenak handiago elkarrekin ospatzean? Esanguratsua da, nola azpimarratu digun bideari ekin aurretik otoitz egin beharra: «erregutu uzta-jabeari». On guztien Emaileari hurbildu gabe, ezin hots egingo dugu Erreinuaren hurbiltasun saneagarria.

\* \* \*

## SAN FERMIN Iruñeko lehen gotzaina

Iruñea, garai hartan, jentil-herria zen. Aspaldiko idazkiek kontatzen dute, Firmo eta Eugenia Jupiterren tenplura zihoazela. Bidean geldialditxo bat egin zuten atzerritar bati entzuteko. Kristoz ari zen. Harriturik eta txunditurik esaten zuenaz, beren etxera gonbidatu zuten predikari berria. Honesto zuen izena, eta Frantziako Tolosatik etorria zen, hango Saturnino gotzainak bidalia. Gotzaina ezagutzeko gogoa agertu zioten Firmok eta Eugeniak. Aipatu gotzainak laster eman zien aukera berarekin egoteko. Esan ohi da, San Saturninok ebanjelizatu zuela Nafarroa.

Nolanahi den, Honestok eratu zuen gure bikotearen semea, Fermin. Dena den, Ferminen inguruko historia guztia lauso samarra dela esan behar da. Gurasoek Frantziako Tolosara bidali zuten semea, Saturninoren ondoren gotzain egin zuten Honoratogana. Honek apaiz ordenatu zuen, eta, geroago, Iruñeko gotzain. Ferminen suharra Iruñean Saturnino bere aurrekoaren gisakoa izan zen. Ferminen ospeak eragirik, Frantziara eraman zuten. Alde bateko eta besteko pertsekuzioen beldurrik gabe jardun zuen han Ferminen. Azkenean, Amiens-en egin zuten lepo III. mendean.



Urteko 14. astea.

Santa Priszila, *martiria*.San Prokopio, *martiria*.

[**Hasiera liburutik 28,10-22:** Zurubi bat ikusi zuen, eta Jainkoaren ain-geruak zurubian gora eta behera. **Sal 91 [90]:** Ene Jainko, zugan dut konfiantza.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,18-26.**

Aldi hartan, Jesus mintzatzen ari zela, buruzagietako bat etorri zitzaion eta, ahuspezturik, esan zion: «Hil berria dut alaba; baina zatoz hari eskua ezartzera, eta biziko da». Jesus jaiki eta ondoren joan zitzaion bere ikasleekin.

Hontan, hamabi urte hartan odol-jarioz zegoen emakume bat atetik hurbildu zitzaion Jesusi eta soineko-ertza ukitu zion, hau baitzioen bere baitan: «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz».

Itzuli zen Jesus eta, emakumea ikustean, esan zion: «(Zan bihotz, alaba! Zeure sinesmenak sendatu zaitu». Eta ordu beretik sendatu gelditu zen.

Iritsi zen Jesus buruzagiaren etxera eta, hango erostariak eta jendearen istilua ikustean, esan zien: «Alde hemendik! Neskatxa ez dago hila, lo dago». Haiek barre egin zioten.

Jendea bidali zutenean, sartu zen Jesus eta eskutik heldu zion neskatxari, eta neskatxa jaiki egin zen. Inguru hartan guztian zabaldu zen gertatuaren berri.

**B**ere lohitasuna zuela-eta emakume odoljarioduna urrundurik zegoen bere bizitzaren oinarri zituen bi harremanetatik: Jainkoarekiko eta besteekiko harremanetatik. Baztertua gizarteari eta erlijioari zegokienez; Jesusek, ordea, «alaba» esan dio, eta kide izatea itzuli dio, bere egiazko izaera itzuli dio. Emakumearen begiratuak, ukitzeak eta fedeak, batetik, eta Jesusen harmen edo harrerak, bestetik, gauzatu egin dute Jainkoaren gogo: inor ez dadila bakarrik gelditu, inor ez dadila txerarik gabe bizi. Neskatxa eskutik hartu duenean ere, burlen eta kritiken gainetik, badaki Jesusek ez dagoela adinik, guztiok dugula hurbiltasunaren eta harreman saneagarriaren beharra. Zeini uzten diot nik uki nazan, zeini luzatzen diot nik neure eskua?

Urteko 14. astea.

Txinako martiriak: San Agustin Zhao Rong, San Leon Mangin, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*. Leon Mangin, *apaiza*, Maria Zhu Wu eta lagunak, *santuak, martiriak, jesuitak*.

[**Hasiera liburutik 32,22-32**: Israel deituko dizute, borrokan egin baituzu Jainkoarekin eta garaile atera zara. **Sal 17 [16]**: Nik, Jauna, zuzena naizelarik, zure aurpegia dut ikusiko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,32-38.

Aldi hartan, deabruaren menpe zegoen mutu bat ekarri zioten Jesusi. Honek deabrua bota zuen, eta mutua hizketan hasi zen. Jendeak, harriturik, zioen: «Ez da Israelen egundaino horrelakorik ikusi».

Fariseuek, berriz, hau zioten: «Deabruen buruzagiaren indarrez botatzen ditu honek deabruak».

Herriz herri eta auzorik auzo zebilen Jesus, hango sinagogetan irakasten, erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzen. Jendetza ikustean, erruki izan zuen, nekatua eta lur joa baitzegoen jende hura, artzainik gabeko ardiak bezala. Orduan, ikasleei esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Erregutu, bada, uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztara».

**J**ende xumea harritu egin da; fariseuek, berriz, errezeloa hartu dute: merezimenduen logika dute buruan, eta ezin onartu dute Jesusen doako ontasuna. Jesusi, ordea, ez diote atzera eragin kritikek eta gaitzespenek, eta aurrera egin du bere eskaintza eta sendatze-bidean. Erasana diona eta hunkitu duena, jendea lur jota eta bakarrik ikustea izan da; beraren begi errukitsuek ezinduei erreparatu diete; horixe da guri kutsatu nahi diguna. Ez da uzta ugariren faltarik: zenbat jende bizi den penaturik! Horregatik, premiazko da erregutzea, premiazko dugu Jainkoagana itzultzea, hunkidurak eta sufrimendua arintzeko gogoak eragindako otoitza ginez.

Urteko 14. astea.

Santa Rufina, *martiria*.San Felix, *martiria*.

[Hasiara liburutik 41,55-57; 42,5-7.17-24a: Geure anaiari egin genion okerra ari gara ordaintzen. Sal 33 [32]: Betor gugana, Jauna, zure maitasuna, zugar baitugu geure uste ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,1-7.

Aldi hartan, Jesusek, hamabi ikasleei dei eginik, ahalmena eman zien espiritu gaiztoak botatzeko eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzeko.

Hona hamabi apostoluen izenak: lehenbizi Simon, Pedro deritzana, eta honen anaia Andres; Santiago Zebedeorena eta honen anaia Joan; Felipe eta Bartolome, Tomas eta Mateo zergalaria, Santiago Alfeorena eta Tadeo, Simon Zelote eta Judas Iskariote, Jesus saldu zuena.

Hamabi horiek bidali zituen Jesusek, ohar hauek eginez: «Ez joan jentilen lurraldeetara, ez sartu Samariako herrialdean ere, baizik eta zoazte Israel herriko ardi galduetara. Bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua».

**J**esus da aginpidea eman diguna, joateko galduago eta premiatsua-  
go bizi den ororengana. Nor bere izenaz gara deituak, nor bere izenaz  
gara historian ezagunak; aldi berean, elkarrekin gara deituak, elkarre-  
kin gara bidaliak, betiere bakoitzaren dohainak eta ahuldadeak kon-  
tuan harturik, misio jakin baterako: bizia babesteko. Saneatu jendea  
kateaturik, blokeaturik eta kalteturik daukan guztitik. Elkartea uler-  
tzeko bere eran, Loiolako Ignazioentzat ezinbestekoa da «missio» izae-  
ra hau, bereizmenegindako bidalketa hau; izan ere, ez gara lankide  
huts, baizik eta, guztien gainetik, «Jaunagan adiskide».

Urteko 14. astea.

San Benito, *abadea (Europako Zaindaria)*.

### § Esaera Zaharrak liburutik 2,1-9.

Ene seme, nire esanak onartu eta nire aginduak gogoan gordetzen badituzu, jakinduriari kasu eta zuhurtziari jaramon egiten badiezu; adimenari dei eta zuhurtziari oihu egiten badiezu, horiek dirua eta altxorak bezala bilatzen badituzu, orduan ulertuko duzu Jaunaganako begirunea, eta Jainkoa ezagutzera iritsiko zara. Jauna baita jakinduria ematen duena, beragandik datoz ezaguera eta zuhurtzia.

Berak ematen die arrakasta zintzoei eta babesba jokabide zuzenekoei; zuzenbidea babesten du eta zintzoen jokabidea zaintzen. Orduan ulertuko duzu zer den justizia eta zuzenbidea, jatorrasuna eta jokabide on oro.

[Sal 34 [33]: Bedeinkatuko dut aldi oro Jauna.]

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,27-29.

Aldi hartan, Pedrok esan zion Jesusi: «Hara, guk dena utzi dugu, zuri jarraitzeko. Zer izango da guretzat?»

Jesusek erantzun zien: «Benetan diotsuet: Jainkoak mundu hau eraberritzean eta Gizonaren Semea bere aintzako tronuan esertzean, zuek ere, nire jarraitzaileok, hamabi tronutan eseriko zarete, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko. Eta nigatik etxea, senideak, aita, ama, seme-alabak edota lurraak uzten dituenak, ehun halako hartuko du eta betiko bizia jasoko ondare».

**B**ai probetxu-gose ageri dela Pedro: «zer egokituko zaigu?» Ezer-tan ere ez gara jarrera horretaz aske! Gauzarik probetxugabekoenetan ere, eskertuak izatea bilatzen dugu hondo-hondoan; batez ere, afektiboki. Aitor diezaguten nahi izaten dugu, maita gaitzaten, aintzat har gaitzaten. Argitu dio Jesusek Pedrori jakingura. Ez dugu uzten den-dena zerbaitegatik; askoz ere gehiagorengatik uzten dugu. Jaunak ez du gorde ezer beretzat. Den-dena itzultzen digu, biderkatu. Jesusen ondoren bihotz handi eta zabalez ibiltzeko, San Benitoren Arauak bi esakune dakarzkigu: beti begi aurrean izan norberaren hauskortasuna eta ezer ez ipini Kristoren maitasunaren gainetik.

Urteko 14. astea.

San Joan Gualberto, *abadea*.San Hilario, *martiria*.

[*Hasiera liburutik 46,1-7.28-30*: Orain bai hil naitekeela zure aurpegia ikusi ondoren. *Sal 37 [36]*: Jaunagandik dator zintzoen salbamena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,16-23.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Hara, ardiak otso artea bezala bidaltzen zaituztet. Izan zaitezte, bada, sugeak bezain zuhur eta usoak bezain xalo.

Kontuz jendearekin! Auzitegietara eramango zaituztete eta sinagogetan zigorkatuko; agintarien eta erregeen aurrera eramango zaituztete nigatik, aitormen egin dezazuen haien eta jentilen aurrean. Erarmaten zaituztetenean, ez egon zer eta nola esango duzen kezkatan: une hartan bertan adieraziko dizue Jainkoak zer esan; ez zarete zuek mintzatuko, zuen Aitaren Espiritua mintzatuko da zuen bidez.

Anaiak anaia emango du heriotzara, eta aitak semea; seme-alabak gurasoen aurka altxatuko dira eta hil egingo dituzte. Mundu guztiak gorroto izango dizue nigatik; baina azkeneraino irauten duena, horixe izango da salbatua.

Herri batean pertsegitzen bazaituztete, egin ihes beste batera. Benetan diotsuet: Gizonaren Semea etorri aurretik, ez dituzue Israelgo herri guztiak igaroko».

«**E**spiritu handia» behar da Jesusen gonbit hau gauzatzeko: babesik gabe ibiltzea, armarik gabeko maitasuna bizitzea, presentzia xume eta argitsua eskaintzea, emandako hitza ez jatea, ukoaren aurrean atzera ez egitea, nor bere burua ez defendatu nahi izatea mehatxuka. «Ez kezkatu esan beharko duzuenaz»; baina nola arduratzen garen ondo horniturik egoteaz, «zer esango dutenak» kilikatzen gaitu eta proiektatzera goazen irudiak. Jesusen hitzak aldaba-hots dira, bizitza bat gero eta askeago eta fidatu bat ehotzen joateko. Ezina dugu geure indar hutssez, baina Espiritua hor jardun ohi da gudan, egiten uzten badiogu.

Urteko 14. astea.

San Enrique, *enperadorea*.

San Silas, *San Pauloren laguna*.

[*Hasiera liburutik 49,29-33; 50,15-26a*: Jainkoak zuen alde esku hartuko du, eta lurralde honetatik igoaraziko zaituzte. *Sal 105 [104]*: Izan bihotz, apalok, Jainkoaren bila zabiltzatenok!]

† *Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,24-33.*

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago, ezta morroia ere nagusia baino gehiago. Nahikoa du ikasleak irakaslea adinako izatea, eta morroiak nagusia adinako. Etxeko jaunari Beeltzebul deitu badiote, zer ez ote diete deituko haren etxekoei? Ez izan jendearen beldur! Izan ere, ez dago ezer gordea agertuko ez denik, ezta ezer ezkutuan ere jakingo ez denik. Gaueko ilunpean esaten dizuedana esan zuek egun-argitan, eta belarrira entzuten duzuen hots egin etxe-gainetatik. Ez izan beldurrik gorputza hil bai, baina bizia kendu ezin dutenei; izan beldur, gorputza ez ezik, pertsona osoa ere infernuan gal dezakeenari.

Ez al dira bi txori txanpon batean saltzen? Hala ere, ez da bat barkarra ere lurrera erortzen zuen Aitaren baimenik gabe. Zuen buruko ileak ere zenbatuak ditu Jainkoak. Ez, bada, beldur izan; txori guztiak baino gehiago balio duzue zuek.

Jendearen aurrean aitortzen nauena aitortuko dut Nik ere zeruko neure Aitaren aurrean; baina jendearen aurrean ukatzen nauena ukatu egingo dut Nik ere zeruko neure Aitaren aurrean».

**L**autaraino azpimarratu du Jaunak: «ez beldur izan». Jabetzen al gara benetan zenbateraino zurruntzen gaituen beldurrak? Zenbateraino galgatzen edo frenatzen duen ahalbidea, geure burua biziaren ontasunari konfiantzaz gomendatzekoa? Beldurrak blokeatu egiten du bizia eta ez du uzten hegoak zabaltzen. Geure baitan bil-bil egitera bultza egiten digu, eta egindako guztia bizirik iraute hutsera mugatzen da; baina ur bizigarria ematen zaion hark bakarrik du bizia eragiteko jarrera. Bizi betearen bila jarri nahi gaitu Jesusek, Jainkoaren txera arduratsuan fidaturik. Txoriño bat ere ez da erortzen lurrera nork harrera ona egingo dion jakin gabe.

Zudaireko Esteban eta Maiorgako Joan *dohatsuak*, eta lagunak, *martiriak*.

San Kamilo Leliskoa, *apaiza, fundatzailea (Kamilotarrak)*.

### § Deuteronomioa liburutik 30,10-14.

Honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Obedituko diozu Jau-nari, zeure Jainkoari, legearen liburu honetan idatzitako beraren agin-duak eta legeak betez, eta bihotz-bihotzez eta gogo osoz itzuliko zara Jaunagana, zeure Jainkoagana.

Izan ere, gaur nik ematen dizudan agindua ez da zure indarrez gaindikoa, ezta eskuraezina ere. Ez dago zeruan, zuek hau esateko: “Nor igoko zaigu zerura, agindua ekarri eta guri jakinarazteko, bete ahal dezagun?” Ez dago itsasoaz bestaldean ere, zuek hau esateko: “Nor joango zaigu itsasoaz bestaldera, agindua ekarri eta guri jakina-razteko, bete ahal dezagun?” Zeren esku-eskura baituzu hitza, zeure ahoan eta bihotzean, bete dezazun».

[Sal 69 [68]: Izan bihotz, apalok, Jainkoaren bila zabiltzatenok!]

### § San Paulok Kolosarrei 1,15-20.

Jainko ikusezinaren irudi da Kristo, sorkari guztietan lehen-sor-tua. Haren bidez sortu zituen Jainkoak zeru-lurretan diren gauza guz-tiak, ageri direnak eta ez direnak: munduan eragina duten ahalmenak, nagusitzak, aginteak eta botereak; sortua izan den guztiak Kristo du eredu eta helburu.

Gauza guztiak baino lehenagokoa da hura, eta hari esker diraute. Hura da gorpuzaren buru, Elizarena, alegia. Hura da hasiera, hilda-koen artetik lehen-piztua, gauza guztietan hura izan dadin lehenen-go; Jainkoak nahi izan baitu bere izaeraren betea Kristogan egotea, eta honen bidez gauza guztiak berekin adiskidetzea, Kristok gurutzean isuritako odolaz bakeak eginez zeruko eta lurreko gauza guztiekin.

Urteko 15. astea.

Zudaireko Esteban eta Maiorgako Joan *dohatsuak*, eta lagunak, *martiriak*.

San Kamilo Leliskoa, *apaiza, fundatzailea (Kamilotarrak)*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,25-37.

Aldi hartan, lege-maisu batek jaiki eta azpikeriaz galdetu zion Jesusi: «Maisu, zer egin behar dut ondareztat betiko bizia jasotzeko?» Jesusek esan zion: «Zer dago idatzia Moisesen legean? Zer irakurtzen duzu?»

Hark erantzun: «Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz, indar guztiz eta adimen guztiz; eta lagun hurkoa zeure burua bezala». Jesusek erantzun zion: «Ederki erantzun duzu. Bete hori eta bizia izango duzu». Baina, lege-maisuak, galdera bidezkoa zela adierazi nahirik, esan zion Jesusi: «Eta zein da nire lagun hurkoa?»

Jesusek, orduan: «Behin batean, gizon bat zihoan Jerusalemdik behera Jerikorantz, eta lapurren eskuetan erori zen. Lapurrek zeuzkanak kendu eta, egurtu ondoren, alde egin zuten, erdi hilik utziz. Hain zuzen, apaiz bat gertatu zen bide hartan behera eta, gizona ikusi zutenean, bidetik baztertu eta aurrera jo zuen. Beste horrenbeste egin zuen handik igaro zen tenpluko lebitar batek ere: ikustean, bidetik baztertu eta aurrera jo zuen.

Baina bidaian zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, errukitu egin zitzaion. Hurbildu eta zauriak lotu zizkion, olio zuzen eta ardoz igurtzi ondoren; gero, bere asto gainean jarri, ostatura eraman eta bere ardurapean hartu zuen. Biharamunean, zilarrezko bi txanpon ateratu eta ostalariari eman zizkion, esanez: “Zaindu ezazu eta, gehiago gatzatzen baduzu, hurrena natorrenean ordainduko dizut”.

Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu zuen lagun hurko bezala lapurren eskuetan eroritako gizonarekin?» Lege-maisuak erantzun zion: «Hartaz errukitu zenak». Jesusek esan zion, orduan: «Zoaz eta egin zeuk ere beste horrenbeste».

**L**ege-maisuak ez dio eskatu Jesusi lagun hurko kontzeptuaren definiziorik, baizik eta maitatzeko aginduaren mugak zein diren jakin



Zudaireko Esteban eta Maiorgako Joan *dohatsuak*, eta lagunak, *martiriak*.

San Kamilo Leliskoa, *apaiza, fundatzailea (Kamilotarrak)*.

nahi du. Noiz dugu bete agindua eta geldi gintezke lasai? Historiak ez digu esan zein den gizon zauritua; ondotik igaro direnek ezin jakin dute zein klasetakoa, nongoa edo zein erlijiotakoa den. Gauza harrigarria: funtzionario erlijiosoek begiratu diote, baina ez dute ikusi nahi izan: ez parte hartu, ez bizitza korapilatu. Hirugarren bat datorren arte; ez da israeldar on bat, baizik samariar bat, juduek mespretxatua. Eta hona: Jainkoaren arazoetan adituak direnen axola-ezaren kontra, zazpi egin-tza zehatz burutu ditu, bere gorputz osoari parte harraraziz. Den-dena egin du, ezer ere gorde gabe. Azkenean, gupidaren erantzukizuna hartuz joan da: «zaindu ezazu... eta ordainduko dizut». Zeinek jarri zuen jokoan maitasuna eta zein egin zen lagun hurko? Laguntzarik ez zuela emango uste izatekoa zen hark baldintzarik gabeko ardura eskaini zuen. Ez ote da hori gure bizitza espiritualeko erronkarik handiena: ideiak eta begiratuak gainditu, eta eskuak mugitzera eta keinu zehatzak egitera jotzea?

\* \* \*

## ZUDAIRIKO SAN ESTEBAN

Zudairiko Esteban Zudairin (Nafarroan) jaio zen 1548an. 19 urteko zela Jesusen Lagundian sartu zen. Beste 39 jesuitarekin, Brasile-ntara abiatu ziren. Baina bidean piratek hil egin zituzten 40ak.

Tartean zen Maiorgako Joan ere, pintorea. Donibane Garazin jaioa 1533an. 35 urteko zela sartu zen Jesusen Lagundian. Ontzian kalbinderak sartu zirenean, jende guztiari bihotz ematen saiatu zen Joan. Azkenean, berari zuzenean eraso, zauritu eta itsasora bota zuen. 1570a zen.

Urteko 15. astea.

San Buenaventura, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

Joan Maiorga (Donibane Garazi 1530 – Brasileraren bidean

kortsarioek hil 1570), *dohatsua, jesuita eta lagunak, martiriak*.

[*Irteera liburutik 1,8-14.22*: Israeldarren herria gu baino ugariago eta indartsuago bihurtzen ari da. Beraz, joka dezagun zuhur berarekin.

*Sal 124 [123]*: Gure laguntza Jaunaren izena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,34–11,1.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Ez uste izan munduari bakea ekartzera etorria naizenik; bakea ez, baizik banaketa ekartzera etorria naiz. Bai, semea aitagandik banatzera etorri naiz, alaba amagandik eta erraina amaginarrebagandik banatzera. Eta nork bere etxe-koak izango ditu etsai.

Aita nahiz ama Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai; semea nahiz alaba Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai. Bere gurutzera hartu eta jarraitzen ez didana ez da niretzat gai. Bere biziaren jabe izan nahian dabilenak galdu egingo du; bere bizia nigatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du.

Zuek onartzen zaituztenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali nauena onartzen du. Profeta bat, profeta delako, onartzen duenak profetari zor zaion saria izango du, eta pertsona zuzen bat, zuzena delako, onartzen duenak pertsona zuzenari zor zaion saria izango du; eta txiki hauetako bati, nire ikasle delako, baso bat ur fresko besterik ez bada ere ematen diona, benetan diotsuet, ez da saririk gabe geldituko».

Hamabi ikasleei argibide hauek ematen amaitu zuenean, joan egin zen Jesus handik, herri haietan irakastera eta mezua hots egitera.

**A**ma batek alabetako bat galdu zuen, minbiziaz; berak ere jasanya zuen gaixotasun hori. Gaingitu zuen eta, bere onera etorri zenean, otoitz-taldera itzuli zen. Arratsalde batean, bere esku-ahurra erakutsi eta esan zigun: «lehen hatz bat nire seme-alabak ziren, beste bat nire senarra zen, beste bat nire lanbidea, beste bat Jainkoa... Orain konturatu naiz, Jainkoa esku-ahurrean dagoela nire bizitzako harreman guztiei bere maitasuna ihintzatuz. Ez da harreman bat gehiago, maitasun horrek dit ematen egunero indarra bizitzeko».

Urteko 15. astea.

Karmelo Mendiko Andre Maria (Karmengo Ama). Larreako Andra Maria, Karmengo Ama

[Karmengo Amaren Meza: Zakarias 2,14-17: Poztu zaitez, Siongo alaba, banatorkizu-eta! Salmoa: Lukas 1,46-55: Zorionekoa zu, Maria Birjina, betiko Aitaren Semea ekarri zenuena. Mateo 12,46-50: Eskua bere ikasleetara luzatuz, Jesusek esan zuen: «Horra nire ama eta nire senideak».]

[Irteera liburutik 2,1-15a: Moises ezarri zion izena, uretik atera baitzuen, eta, heldua zelarik, bere senideengana joan zen. Sal 69 [68]: Izan bihotz, apalok, Jainkoaren bila zabiltzatenok!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,20-24.

Aldi hartan, Jesus miraririk gehienak egin zitueneko herriak gaitzesten hasi zen, bihotz-berritu ez zirelako: «Ai zu, Korozain! Ai zu, Betsaida! Izan ere, Tiro eta Sidon hiri jentiletan zuengan bezainbeste mirari gertatu izan balitz, bihotz-berrituak ziratekeen aspaldi, dolu-jantziz eta hautsez estalirik. Horregatik, hau diotsuet: auzi-egunean, zigor bigunagoa izango dute Tirok eta Sidonek, zuek baino.

Eta zu, Kafarnaum, zeruraino altxatuko zarela? Lurraren barneraino eroriko zara! Izan ere, zugan bezainbeste mirari gertatu izan balitz Sodoman, gaurdaino iraungo zukeen. Horregatik, hau diotsuet: auzi-egunean, zigor bigunagoa izango du Sodomak, zuk baino».

**L**ehen irakurgaietan, Irteera liburukoan, Jainkoaren begirada ageri da: jende xumea arduraz zaintzen du, kontakizunean ageri diren emakume desberdinei begietara begira ageri da. Pasarte honen aurreko txataltan, hainbat begirada ageri dira: jaioberriak bizirik uzten dituzten emaginen, semea eder iruditzen zaion Moisesen amarena, urrunetik Moises anaia irreparatzen eta jarraitzen dion arrebarena, eta hunkiturik sentitu den Faraoiaren alaba gupidatsuarena. Egoera sozial eta erlijioso desberdinetatik, arriskua hartu nahi izan duten emakumeak dira, gizatasun-usainik gabeko aginduen kontra jokatu dute, eta, buru-aztiz eta jakinduriariz, elkartasuna eratu dute bizirik ahulenaren alde, dauden lekuan.

Urteko 15. astea.

Santa Segunda, *martiria*.

San Leon IV.a, *103. aita santua*.

---

[*Irteera liburutik 3,1-6.9-12: Jaunaren aingerua agertu zitzaion, sasi artean pizturiko sugarrean. Sal 103 [102]: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,25-27.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik».

**H**erriko emakume xume bat da nire ama. Etxeko eguneroko bere mundutxoan, bidelagun dudan keinu bat erregalatu zidan behin batean, ohartu gabe. Patioan dituen loreontzietan jaiotzen ari ziren hosto berriei eztiki musu ematen ikusi nuen. Irribarre egin ohi zien, erne zirelako eskerrek eman nahiz bezala. Gogo bizia sentitu nuen biziaren aurreko sentipen gurtzaile eta liluragarri hark kutsa nintzan. Zapaltzen ditugun lekuei musu ematea eta bizitzea egokitu zaigun aldia debozioz aipatzea. Errealitateaz hitz egiteko, bizia aipatzeko gure erak, iradokitzen al die gure garaikideei zenbat dohainez eta zenbat onginahiz beteak dauden bi haiek?

Urteko 15. astea.  
San Federico, *gotzaina*.

[Irteera liburutik 3,13-20: Naizena naiz Ni. «Naizena naiz» deritzanak bidali nau zuengana. Sal 105 [104]: Gogoan du etengabe Jaunak bere ituna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,28-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartzazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

**J**esusen gonbit honek beraren izatearen nukleorik sakonena azaldu digu: otzantasan eta harmen-ehundura. Halaber, gure bihotza arintzeko eta zabaltzeko duen bere desio handia azaldu digu. Asetzen ez gaituzten gauza askoren bila ibili ohi gara; gerta dakiguke, ordea, neke handiz eginak diren arrakastak lortu izana, baina funtsean frustrazioa sentitzen dugularik. Jaunak bere burua eskainiz arindu nahi digu bizitza, guk geuk beste askoren nekea arindu ahal dezagun. Geure nahas-menduan uzten al diogu besarka gaitzan? Geure egunaren egunekoan eragiten al digu Jesusen txerak? Izango ahal gara aski apal, txera horren premia zenbaterainokoa dugun aitortu ahal izateko!

Urteko 15. astea.

Kordobako Santa Aurea, *martiria*.

[Irteera liburutik 11,10–12,14: Ilunabarrean abere xehe bat hilko du-  
zue; odola ikustean, aurrera igaroko naiz. Sal 116 [115]: Salba-  
men-edontzia dut hartuko eta Jaunaren izenari dei egingo.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12,1-8.

Aldi hartan, larunbatean gari-soroetan barrena zihoan Jesus. Ikas-  
leak goseak zeuden eta galburuak moztu eta jaten hasi ziren. Hori  
ikustean, fariseuek esan zioten Jesusi: «Begira, larunbatez zilegi ez  
dena egiten ari dira zure ikasleak». Hark erantzun: «Ez al duzue ira-  
kurri zer egin zuen Davidek, bera eta lagunak goseak gertatu ziren  
batean? Nola Jainkoaren etxean sartu eta Jaunari eskainiriko ogiak jan  
zituzten, legez ez berak ez beraren lagunek, baizik eta apaizek baka-  
rrik jan zitzaizketenak?

Edota ez al duzue irakurri Moisesen legean apaizek larunbatero  
hausten dutela tenpluan atsedean-legea, horregatik errudun izan gabe?  
Ba, Nik diotsuet: bada hemen tenplua baino gehiago den norbait. Uler-  
tu bazenute zer esan nahi duen Jainkoak esandako honek: “Nahiago  
dut errukia sakrifizioak baino”, ez zenituzketen errugabeok gaitzetsi-  
ko. Zeren Gizonaren Semea larunbataren nagusi baita».

**J**udaismoan ez da bi ordu berdinek, baizik eta ordu bakoitza ba-  
karra da; izan ere, ez da denbora igarotzen dena, baizik eta Jainkoa  
da denboran igarotzen, beti beste era batean. Abraham Heschel-ek dio:  
«Larunbataren santutasunean sartu nahi duenak, komertzioaren zara-  
taren profanotasuna, lanaren esklabo izatea, bertan behera utzi behar-  
ko du; urrundu egin beharko du egun disonanteen istilutik, urdurita-  
susetik, erosi behar minetik, norberaren biziaz abusatzeko grinatik...».  
Sei egunez esaten dugu munduarenak direla gure eskuak; Shabbat-ean  
ikasten dugu Jainkoari bakarrik dagokiola gure bihotza.

Urteko 15. astea.

San Apolinar, *gotzaina eta martiria*.San Elias, *profeta*.

[*Irteera liburutik 12,37-42*: Jaunak israeldarrak Egiptotik atera zitueneko gaua. *Sal 136 [135]*: Eskerrak Jaunari, ona baita, haren maitasuna betikoa baita.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12,14-21.

Aldi hartan, fariseuek, sinagogatik atera zirenean, elkar hartu zuten Jesusen kontra, hura nola galduko.

Jakin zuen hori Jesusek eta alde egin zuen handik. Jende askok jarraitu zion, eta Jesusek denak sendatu zituen, eta agindu zien ez zezatela ezagutzera eman. Horrela, Jainkoak Isaias profetaren bidez esana bete zen:

«Hona hemen nire zerbitzaria, Nik aukeratua, nire maitea, atsegin dudana. Honengan ipiniko dut neure espiritua; zuzenbidea iragarriko die herriei. Ez du haserterik sortuko, ez oihurik egingo, ez da kaleetan haren mintzoa entzungo. Kanabera pitzatua ez du hautsiko, doi-doi pitzua dagoen argi-metxa ez du itzaliko, zuzenbidea nagusiarazi arte. Hura izango dute itxaropen nazioek».

**U**koaren aurrean, otzantasuna. Jesusen ezaugarrietako bat da, Jainkoaren onberatasun erostezina ezagutu baitu. «Denak sendatu zituen», bereizkeriarik gabe, fakturarik egin gabe, atxikimendu eta disiraren bila ibili gabe. Berak jaso dituen hitzak geuri ere eskainiak ditugu. Deigarria da profetak Jainkoaren ahoan ipintzen duen posesibo errepikakorra: nire zerbitzaria, nire hautatua, nire maitea, nire kuttuna. Egunero hautapen maitekor hau onartuz bakarrik bizi gintezke, Jesus bezala, on eginez; horrela bakarrik senti genezake maitasun-faltaz zauritua eta txeraren duin den pertsona bakoitza. Eta izan gintezke pazientzia handiko, eta hurbileko, eta ulerkor.

Urteko 16. astea.

San Lorenzo Brindiskoa, *apaiza eta eliz irakaslea.*

### § Hasiera liburutik 18,1-10a.

Egun haietan, Jauna agertu zitzaion Abrahami Mambreko artadian. Abraham oihal-etxolaren sarreran eseria zegoen, berorik handieneko orduan. Begiak jasorik, hiru gizonezko ikusi zituen bere aurrean zutik. Ikusi orduko, lasterka joan zitzairen etxolaren sarreratik eta, ahuspez jarriarik, esan zuten: «Ene Jauna, gogoko banauzu, ez jarraitu aurrera zeure morroiarekin gelditu gabe. Ura ekarriko dizuet, oinak garbitzeko, eta zuhaizpean hartuko duzue atsedean. Jatekoa ere ekarriko dizuet, indarberri zaitezten, eta gero jarraituko diozue bideari; zerbaitegatik igaro zarete zeuen morroi honen ondotik». Haiek erantzun zioten: «Egizu diozuna».

Abraham lasterka sartu zen oihal-etxolara, Sara emazteagana, eta esan zion: «Bizkor, egizu oreira irin garbiz eta presta itzazu opilak». Abraham bera bizi-bizi joan zen ukuilura eta, zekor gizen on bat aukeraturik, morroi bati eman zion; honek berehala atondu zuen. Gero, hartu zuen Abrahamek gatzatua, esnea eta atondutako zekorra, eta bisitarietara eramane zion. Haiak jaten zuten bitartean, zutik egon zen bera haien ondoan zuhaizpean.

Bukatzean, galdetu zioten: «Non da Sara, zure emaztea?» Abrahamek erantzun: «Hor, oihal-etxolan». Haietako batek esan zion: «Urtebete barru ziur itzuliko natzaizu, eta ordurako zure emazte Sarak semea izango du».

[Sal 15 [14]: Jauna, nor dagoke zure etxean?]

### § San Paulok Kolosarrei 1,24-28.

Senideok: Pozik nago orain, zuen alde jasaten ditudan sufrimenduengatik; horrela, neure gorputzean jasaten ari naizen atsekabeen bidez Kristoren atsekabeak osatzen ditut, haren gorputza den Elizaren alde. Jainkoak Elizaren zerbitzari egin nau eta bere mezua zuei oso-osorik adierazteko eginkizuna eman dit.



Urteko 16. astea.

San Lorenzo Brindiskoa, *apaiza eta eliz irakaslea.*

Mezua Jainkoaren asmo ezkutuari buruzkoa da, mendeetan eta gizardietan gordea eduki ondoren, orain Jainkoak bere fededunei agertu diena. Hauetarako jakinarazi nahi izan die Jainkoak zein aberats eta aintzatsu den jentilentzat asmo ezkutu hori; zuengan den eta aintzarako itxaropen duzuen Kristori buruz ari naitzaizue. Kristo hauxe ari gara hots egiten, denetarik aholku emanez eta jakinduria guztiaz irakatsiz, denak beren kristau-bizitzan heldutasun batera hel daitezten.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,38-42.

Aldi hartan, Jesus herririk batean sartu zen, eta Marta zeritzan emakume batek etxean hartu zuen. Bazuen honek Maria izeneko ahizpa bat, eta hau, Jaunaren oinetan eserita, haren hitza entzuten zegoen.

Marta, berriz, lanpetua zebilen etxeko zereginetan. Orduan, Martak Jesusen aurrean jarri eta esan zion: «Jauna, ez al dizu axola nire ahizpak lan guztia nire gain uztea? Esaiozu laguntzeko». Jaunak, ordea, erantzun zion: «Marta, Marta, gauza askorengatik zabilta kezkatua eta larri; baina bakarra da beharrezko. Alderdirik onena aukeratu du Mariak, eta ez dio inork kenduko».

**M**artak etxean onartu du Jesus; alabaina, oraino ikasi beharra du Jesusek bezala nola zerbitzatu. Gaurko eszena honetan urduri ageri da, bere ahizparekin konparatu du bere burua eta haren lehiakide azaldu da. Bere izena bi aldiz aipatu dio Jesusek, Jainkoak Moisesi dei egin zion bezala, sutan zegoen laharren aurrean. Kontua ez da besteengatik lan egitea bakarrik, geure burua akitzeraino ematea... inporta duena ez da «egiten duguna», baizik eta nola egiten dugun, jardutean eta gauzetan agertzen dugun arreta maitekorra da inporta duena. Gure presentzia eskaintzea Jesusen Presentziari; hori da inortok ere kenduko ez dugun gauza bakarra.

Berriro ere begiratu beharra diogu Martari Joanen ebanjelioan, hau guztia ikasten nola joan den ikusteko (ik. Joan 12,1-7). Kasu hone-

Urteko 16. astea.

San Lorenzo Brindiskoa, *apaiza eta eliz irakaslea.*

tan ere zerbitzari ari da Marta mahaian; baina oraingo honetan bere baitan batuago dakusagu, ez dabil bere onetik aterata, ez da kexu, ez du zertan zuritu bere burua Jesusen aurrean, ez da jada bere ahizparekin konparatzen, dena dela izaten utzi dio –nor bere erregistroan–, bere barnetik ari da zerbitzatzten; gustukoa du Jaunaren presentzia bere etxean, bere eginkizunean baketsu dihardu, eta bera den hura izatea onartu du. Martak zerbitzari jarraituko du, baina oraingoan beste era batean egingo du.

\* \* \*

«UTZI NAZAZU SARTZEN»

«Izotz ondoko eguzki» abestiaren doinuaz abestekoa.

Utzi nazazu sartzen  
hor, zeure etxean,  
negarrez ari zaren  
gela laiotzean.

Hortxe izar bat galtzen  
zaizun bakoitzean,  
beste bat erne ohi da  
gauaren beltzean.

Hortxe bihotz-taupada  
hasi zen gunean,  
bihotza zain dagoen  
sehaska xumean.

Bila zeure erroak  
taupaden harira,  
bila sentimenduak  
dakarren argira.

Hortxe du ezkutuan  
biziak pilpira.  
Hortxe sortzen da gauza  
guztien distira.

Hortxe bihotz-taupada  
hasi zen gunean,  
bihotza zain dagoen  
sehaska xumean.

Utzi nazazu sartzen  
hor, zeure barnean,  
ametsa sortzen zaizun  
txoko hurrenean.

Hortxe, bihotza bila  
duzun sakonean,  
bihotzak pizten duen  
argitasunean.

Hortxe bihotz-taupada  
hasi zen gunean,  
bihotza zain dagoen  
sehaska xumean.

*(J.A. Pagolaren, Jesusen gazte  
taldeak libururako Pello Esnalek  
eta D. Amundarainek eratu,*

*PPC 2018)*

Urteko 16. astea.  
Santa Maria Magdalena.

[Kantarik Ederrena liburutik 3,1-4: Aurkitu nuen neure bihotzeko kutuna. Sal 63 [62]: Zure egarriz daukat gogoia, Jauna, ene Jainkoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,1-2.11-18.

Asteko lehen-egunean, Maria Magdalena hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen. Orduan, Simon Pedrogana eta Jesusek maite zuen beste ikasleagana itzuli zen lasterka, eta esan zien: «Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri duten».

Maria hilobi ondoan zegoen, kanpoan, negarrez. Eta, negarrez zegoela, hilobirantz makurtu zen eta bi aingeru ikusi zituen, zuriz jantziak, Jesusen gorpua egon zen lekuan eserita, bata burualdean eta bestea oinetan. Aingeruek esan zioten: «Zer duzu negarrez, emakume?» Hark erantzun zien: «Nire Jauna eraman dute, eta ez dakit non ipini duten».

Hau esan eta berehala, atzera itzuli eta Jesus ikusi zuen zutik, baina ez zen konturatu Jesus zela. Jesusek esan zion: «Zer duzu negarrez, emakume? Noren bila zabiltza?» Hark, baratze zaina zelakoan, esan zion: «Jauna, zuk eraman baduzu, esadazu non ipini duzun, eta nik jasoko dut».

Jesusek esan zion: «Maria!» Honek, hurbilduz, esan zion hebrearaz: «Rabbuni!» (hau da, «Maisu!»). Jesusek esan zion: «Utz nazazu, oraindik ez bainaiz Aitagana igo. Zoaz nire senideengana eta esaiezu: “Neure Aitagana eta zuen Aitagana noa, neure Jainkoagana eta zuen Jainkoagana”».

Joan zen Maria Magdalena, eta berri hau eman zien ikasleei: «Jau-na ikusi dut, eta hau eta hau esan dit».

**M**aria Magdalenak sentitu du, Jaunak maite duela eta berreraiki egin duela, eta horixe da inporta duena. Ez-bizia den leku batean

Urteko 16. astea.

Santa Maria Magdalena.

kakoturik eta makurturik egotetik, elkarte batera pasatu da, non Jesusen era berezi batean onartu baitu. Izena ezarri die bihotzean bizi dituen nahasmenduari eta oinazeari, eta, sentitzen duena aitortu duenean, sumatu du Norbaitek maitekor egin diola dei. Ahots horretan berrirori aurkitu du maite zuena. Aldi berean, konturatu da, badela aldi bat besarkatzeko eta badela beste aldi bat aske uzteko; konturatu da ere, aurrerantzean, Jesus aurkitu nahi badu, bere anai-arrebengan bilatu behar duela eta ahal guztia egin beharko duela haiek ere senti dezaten Norbaitek maite dituela eta berreraiki.

\* \* \*

## MARIA MAGDALENA

«Asteko lehen eguneko goizean pizturik, Jesus lehenik Magdalako Mariari agertu zitzaion, zeinagandik zazpi deabru bota baitzituen» (Mk 16,9).

Jesus atxilotu eta gurutzean josi zutenean, han egon zen Magdalena gurutzearen ondoan. Jaunaren gorputzari lur eman ziotenean, han gelditu zen hilobi ondoan eseria. Jesus piztuak Maria Magdalenari eman zion piztueraren berri ona eramateko agindua (Jn 20,17). Horrela, «Apostoluentzat apostolu» egin zuen Jaunak Maria Magdalena.

XIII. mendean Letrango meza-liburuak onartu zuen hiru emakume –Maria Magdalakoa, Maria Betaniakoa eta bekatarri ezezaguna– pertsona bakarrean biltzen zituen legenda. Baina Bibliako datuen arabera, egiazkoago dela ematen du hiru Maria (Maria Magdalakoa, Maria Betaniakoa [liturgia grekoan martxoaren 18an], bekatarri anonimoa [bizantziar errituan martxoaren 31n]) bereiztea, Eliza grekoak egiten duen bezala eta Vatikanoko II.a kontzilioaren ondoko liturgiak ikusarazten duenez.

Maria Magdalakoa bila eta bila dabilena da, fede zail baten bidea egin duena, hilobi ondoan negarrez egon dena Kristoren gorputza eraman omen dutelako.

Santa Brigida Suediakoa, *erlijiosa, fundatzailea (Salbatzaile Santu-santuaren Ordena) (Europako Zaindaria)*.  
Zakarias Fernandez, *dohatsua*.\*

### § San Paulok Galaziarrei 2,19-20.

Senideok: Ni legeak eraman ninduen legearekiko lokarria etetera, Jainkoarentzat bizitzeko. Kristorekin gurutziltzaturik nago, eta honzekero ez naiz ni bizi, Kristo bizi da nigan. Eta bere bizia nire alde emateraino maitatu ninduen Jainkoaren Semeaganako sinesmenean oinarriturik bizi dut oraingo neure giza bizitza.

[Sal 34 [33]: Bedeinkatuko dut aldi oro Jauna.]

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni naiz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da nekazaria. Nigan fruiturik ematen ez duen aihena moztu egiten du Aitak, eta fruitu ematen duena garbitu eta kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek garbi zaudete dagoeneko, Nik adierazi dizuedan hitzari esker. Zaudete nigan, Ni zuengan bezala. Aihenak berez, mahatsondoan ez badago, fruiturik eman ezin duen bezala, zuek ere ez, nigan ez bazaudete.

Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait nigan badago, Ni harengan bezala, hark fruitu asko emango du; Ni gabe ezin baituzue ezer egin. Nigan ez dagoena kanpora botatzen dute, ebaki eta ihartzen den aihena bezala; gero, bildu, sura bota eta erre egiten dute.

Nigan bazaudete eta nire hitzak zuengan badaude, eskatu nahi duzuen eta izango duzue. Honetan azaltzen da nire Aitaren aintza: zuek, nire ikasle izanik, fruitu asko ematean».

**A**sko kostatzen zaigu kimatze-aldia onartzea, eta, iristean, ez dugu nahi izaten. Kimatu berria den arbola bat irudikatzen badugu, edertan

\* Joan Pedro Bengoa eta Nizeforo Jesusena eta Mariarena, *dohatsuak*.  
Maturana, *dohatsua* (Berriz) (Bilbon jaio 1884-07-25 – Donostian hil 1934).

Urteko 16. astea.

Santa Brigida Suediakoa, *erlijiosa, fundatzailea (Salbatzaile Santu-santuaren Ordena) (Europako Zaindaria).*

Zakarias Fernandez, *dohatsua.*\*

sunik gabe ageri ohi da, eta barne txarra jartzen digu haren biluztasunak. Baina, ezinbestekoa da kimatze hori. Naturak gauza asko erakusten digu; naturari erreparatuz ikusi du Jesusek Jainkoaren gauza asko. Bere hitzak pluralean zuzentzen dizkigu; izan ere, ezin izan gara emankor bakarka, ez dugu fruiturik emango nork bere aldetik jokatzu. Denborarekin jabetzen gara gure bizitza emankor gertatzen dela besteentzat; ez gure alde distiratsuenengatik, baizik eta gure zatirik ahulengatik, erruki-behar handiena izan dutenengatik.

\* \* \*

## SANTIAGO HANDIA APOSTOLUA

Zebedeoren semea da, Joanen anaia. Jesusek maiteenak zituen hiru ikasleetako bat. Bi anaiei, Santiagori eta Joani, Boanerges ezizena eman zaie: trumoikumeak.

Handia esaten zaio Santiago honi, beste Santiagogandik bereizteko: Txikia, Jesusen anaia, Eginak liburuaren arabera Elizaren fundatzaileetako bat den harengandik bereizteko.

Santiago Handia Agripa erregeak hilarazi zuen Kristo ondoko 41 eta 44 urte bitartean. Jesusek berak esan zion, gai izango zela, Joan anaia bezala, bere kaliza bera edateko.-Oso beranduko tradizio batek Galiziako Compostelako Santiagorekin erlazionatzen du gure Santiago hau. Jakina denez, santutegi oso jendetsua bihurtu da Compostela.

Santiago, arrantzale xumea, bere lagun bihurtu zuen Jesusek, bere bizitzaren eta bere Ebanjelioaren lekuko leial izan zedin. Horixe da, hain zuzen, apostolu guztien eta Jesusen ikasle guztien egitekoa.

\* Joan Pedro Bengoa eta Nizeforo Jesusena eta Mariarena, *dohatsuak.*  
Maturana, *dohatsua* (Berriz) (Bilbon jaio 1884-07-25 – Donostian hil 1934).

Joan Pedro Bengoa (*Arrasate 1890 – Carrion de Calatrava 1936*) eta Nizeforo Jesusena eta Mariarena, *dohatsuak, martiriak 1936.*\*

[*Irteera liburutik 16,1-5.9-15*: Euria bezala jaitsaraziko dizuet zerutik janaria. *Sal 78 [77]*: Zeruko ogia eman zien Jaunak janari.]

† *Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,1-9.*

Egun hartan, Jesus etxetik irten eta itsasertzean eseri zen. Eta hainbeste jende bildu baitzitzaion inguruan, txalupa batera igo eta bertan eseri zen. Jende-taldea, berriz, hondartzan zegoen. Gauza asko esan zien, parabola bidez hitz eginez:

«Behin batean, atera zen ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide-bazterrean erori zen, eta txoriek etorri eta jan egin zuten. Beste zenbait ale harri artean erori zen, lur handirik ez zen lekuan, eta, lur axala izanik, berehala erne zen; baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu.

Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiak, haztean, ito egin zuen hazia. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta fruitua eman zuten: bateko ehun nahiz hirurogei nahiz hogeita hamar. Belarririk duenak entzun beza».

**B**ihotzaz gauzatzen den entzuteaz mintzo da Jesus, arreta eskaintzeko gai izateaz, etengabe kontatzen dizkigun parabei antzeman ahal izateko. Berriro landa-lurra: batetik, ereilea, bikaina baina kalkulatzailer txikia; bestetik, hazia hartzen duten lur-mota desberdinak. Ulertzea komeni da, ezen bizi garen denbora eta lekua direla hazia hazarazteko dugun lur bakarra. Uste izan ohi dugu, dena hobeto gertatuko litzazigukeela beste leku batean, beste jende batekin, beste zertzelada batzuekin... Baina bizi dugun egoerari bai esanez bakarrik hazten ahal gara. Gure bizitzan «den hura maitatuz» bakarrik irits gaitezke heldutasunera.

\* Zakaria Fernandez (*Zentroniko 1917 – Ciudad Real 1936*), *dohatsu, pasiotarra, eta lagunak, martiriak*.  
Santa Kristina, *martiria*. San Arnulfo, *martiria*.

Urteko 16. astea.

SANTIAGO, APOSTOLUA.

San Kristobal, *martiria*.

§ Apostoluen Eginak liburutik 4,33; 5,12.27-33;12,2.

Egun haietan, Apostoluek agin-pide handiz egiten zuten Jesus Jauren piztuaren aitormena, eta jendeak oso estimatuak zituen guztiak. Mirari eta egintza harrigarri asko gertatzen zen herrian apostoluen eskuz.

Batzar Nagusiaren aurrera ekarri zituzten apostoluak, eta apaiz nagusiak esan zien: «Ez al genizuen zorrotz agindu ez irakasteko Jesusen izenean? Zuek, berriz, Jerusalem osoa bete duzue zeuen irakaspenez; gainera, gizon horren heriotzaren erantzukizuna geuri leporatu nahi diguzue».

Pedrok eta beste apostoluek erantzun zuten: «Jainkoaren esana egin behar da aurrena, ez gizakiena. Gure arbasoen Jainkoak piztu egin du zuek egur batetik zintzilik hil zenuten Jesus. Jainkoak goratu egin du bere eskuinaz, Buruzagi eta Salbatzaile eginez, Israeli bihotz-berritzea eta bekatuen barkamena emateko. Geu gara gauza hauen testigu, geu eta esaneko zaizkionei Jainkoak ematen dien Espiritu Santua».

Erantzun honek beren onetik atera zituen batzarkideak, eta hil egin nahi zituzten apostoluak. Eta Herodes erregeak ezpataz hilarazi zuen Joanen anaia Santiago.

[Sal 67 [66]: Ene Jainko, aipa zaitzatela herriek, aipa zaitzatela herri guztiek.]

§ San Paulok 2 Korintoarrei 4,7-15.

Senideok: Altxor baliotsu hau buztinezko ontzian daramagu, argi ager dadin honenbesteko indarra Jainkoagandik datorrela, eta ez gugandik. Alde guztietatik estutzen gaituzte, baina zapaltzen ez; larri gaude, baina etsita ez; erasopean bai, baina eskutik utzita ez; lurrera botatzen gaituzte, baina suntsitzen ez; nonahi eta beti Jesusen heriotza daramagu geugan, Jesusen bizia ere gugan ager dadin.



Urteko 16. astea.  
SANTIAGO, APOSTOLUA.  
San Kristobal, *martiria*.

Bizi garen bitartean, beti heriotzara garamatzate Jesusengatik, gure izate hilkor honetan Jesusen bizia ere ager dadin. Horrela, guban heriotza ari da; zuengan, berriz, bizia.

Hau dio Liburu Santuak: «Sinetsi nuen, eta horregatik hitz egin nuen». Guk ere, sinesmen-espíritu bera dugularik, sinesten dugu eta horregatik hitz egiten dugu, jakinik, Jesus Jauna piztu duenak piztuko gaituela gu ere Jesusekin, eta haren ondoan ipiniko gaituela zuekin batean. Hau gutzia zuen onerako da, Jainkoaren dohaina askorengana zabaltzean, esker ona ere ugal dadin, Jainkoaren aintzarako.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20,20-28.

Aldi hartan, zebedeotarren ama hurbildu zitzaion Jesusi bere semeekin eta aurrean ahuspeztu, eskari bat egiteko. Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu?» Eta hark: «Agindu ezazu nire bi seme hauek, eser daitezela zure erreinuan bata zure eskuinean eta bestea zure ezkerrean».

Eta Jesusek: «Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete Nik edan behar dudan kalizatik edateko?» Erantzun zioten: «Bai, gauza gara!» Jesusek orduan: «Nire kalizatik edan, bai, edango duzue; baina nire ezker-eskuin esertze hori, ez dago nire esku inori ematea; nire Aitak norentzat prestatua duen, hari emango zaio».

Beste hamarrak, hori entzutean, biziki haserretu ziren bi anaiekin. Baina Jesusek dei egin eta esan zien: «Badakizue herrietako agintariek menpean hartzen dituztela herriak, eta handikiek beren agintea ezartzen dietela. Ez bedi izan horrela zuen artean; baizik eta zuen artean handi izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena izan bedi zuen morroi. Gizonaren Semea ere ez baita etorri zerbitzaturia izatera, zerbitzari izatera baizik, eta bere bizia askoren ordainsari ematera».

Urteko 16. astea.

SANTIAGO, APOSTOLUA.

San Kristobal, *martiria*.

---

**G**utxi eskatzen dugu eta eskatzen dugunean nolabait samar egiten dugu. Berak zerbitzu apal batera dei egiten digunean, zerbitzatu egin nahi izaten dugu, baina konparazioen eta lehiaketen dinamikatik irten gabe, norberarentzat hoberenaren eta aintzat hartua izatearen bila ibiltzeari utzi gabe... eta, hori agirian esatea lotsagarri iruditzen zaigulako, Zebedeotarrak bezala, bidea egokituko digun «ama» baten bila hasten gara. Dinamika hori erantsiko zaigunean, eska diezaiogun graziaren laguntza Jainkoari, Kristori behartsu eta apal jarraitu ahal izateko; grazia, alegia, berak gu aukeratzen eta bere zerbitzurako onartzen jarrai dezan.

Urteko 16. astea.

San Joakin eta Santa Ana, Andre Mariaren gurasoak.

[Irteera liburutik 20,1-17: Legea Moisesen bidez emana zen. Sal 19 [18]: Zuk dauzkazu, Jauna, betiko biziaren hitzak.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,18-23.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzun ereilearen parabolen esanahia: erreinuaren mezua entzun bai, baina ulertzen ez duenari, Gaiztoak etorri eta kendu egiten dio bihotzean ereindakoa. Hori da bide-bazterrean ereindakoa.

Harri artean ereindakoa hauxe da: hitza entzutean, berehala pozik hartzen duena; baina, sustrairik gabea eta iraupen txikikoa izanik, hitza dela-eta estutasun edo erasoaldiren bat sortu orduko, berehala huts egiten du.

Sasi artean ereindakoa hauxe da: hitza entzun bai, baina mundu honetako ardurak eta diru-goseak ito egiten diote hitza, fruiturik gabe utziz.

Lur onean ereindakoa, berriz, hauxe da: hitza entzun eta ulertzen duena. Honek ematen du fruitua: bateko ehun nahiz hirurogei nahiz hogeita hamar».

**I**noiz tristura sentitu izan dut parabola hau gogora ekartzean, eman didan horrenbeste eskuartekori erantzuteko gai ez naizelako izan; hain zuzen, uste izan dut, edota galdu nezakeela guztia, edota eragotzi diezaiokedala erretzea hartu dudana hainbat eta hainbat ondasuni, edota ahitzen ahal zaidala denbora egin beharrekoa egin ahal izateko. Urteak badoaz, irudipena uzten digularik, hasiera hartako harrera eskuzabal eta bat-bateko hari, Hitzari gogotik egindako harrera hari, beste jarrera batzuk jan diotela azpia: lanak, iraupen-faltak, presak eta bihotza beste zeregin batzuetan ipini izanak. Orduan, halere, ziurtasun honek bihotz ematen dit, Jainkoaren errukiaren babesean haziz joan den honek: zu bakarrik gure hazia, zu bakarrik gure lur ona, zeinetan ez baita ezer galduko.

Urteko 16. astea.

San Galaktario, *gotzaina eta martiria*  
(*Baionako elizbarrutian*).

Maria Pilar Izquierdo Albero *dohatsua, birjina*.

[*Irteera liburutik 26,3-8*: Jaunak zuekin burutu duen itunaren ezau-  
garria da odol hau. *Sal 50 [49]*: Eskaini esker onezko oparia Jain-  
koari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,24-30.

Aldi hartan, parabola hau esan zion Jesusek jendeari: «Zeruetako erreinuarekin, gizon batek soroan hazi ona erein zuenean bezala gerta-  
tzen da. Jendea lo zegoela, etorri zen etsaia eta gari artean iraka erein  
eta alde egin zuen.

Garia hazi eta burutu zenean, han azaldu zen iraka ere. Joan ziren,  
orduan, morroiak etxeko nagusiagana eta esan zioten: “Jauna, ez al  
zenuen hazi ona erein soroan? Nondik dator, bada, iraka?” Nagusiak  
erantzun zien: “Etsaiaren lana da hori”. Morroiek, orduan: “Joango al  
gara iraka biltzera?” Eta nagusiak: “Ez! Ez dadila gerta, iraka biltzean  
garia ere ateratzea. Utzi biak batera hazten uztaroa iritsi arte; orduan,  
igitariei esango diet: Bildu lehendabizi iraka, lotu eta erre; garia, be-  
rriz, jaso nire mandiora”».

**B**este behin landa-lurreko parabola bat, Espirituaren bideak uler-  
tzen laguntzeko. Landa-lurra eta haren ardura eskola bat ditugu ge-  
re bizi-ibilbideez, bizia hazaraztean behar den jakinduriaz. Gaitzaren  
errealitateak azkeneraino zelatutako gaitu. Diskurtso asko dira, belar  
txarra edo iraka izaten dira sustraitik moztera eragin nahi izan digu-  
tenak. Gari bakarrik izan nahi dute, bizitza asko kaltetuz; izan ere, ez  
gara batzuk onak eta besteak gaiztoak: guztiok daramatzagu bihotzean,  
bai gari-dosi bat, bai iraka-dosi bat. Jesusek azpimarratu digu, batetik  
ez gaitzela erori belar txarra errotik atera nahi izateko tentazioan, eta  
bestetik saia gaitzela aspertu gabe onik den guztia faboratzen.

Julian Plazaola (*Donostia 1915*), Lazaro Mujika (*Idiazabal 1867*), Braulio Maria Corres (*Torralba, Nafarroa, 1897*), *dohatsuak, eta lagunak, erlijiosoak eta martiriak (1936).*\*

### § Hasiera liburutik 18,20-32.

Egun haietan, Jaunak esan zuen: «Izugarría da Sodomaren eta Gomorraren kontrako salakuntza, eta larriegia hiri horien bekatua. Salakuntza hori egia ala gezurra den ikusi behar dut».

Gizasemeez handik atera eta Sodomarantz jo zuten; Abraham, berriz, Jaunaren aurrean zutik gelditu zen. Hurbildurik, esan zion Abrahamek: «Egiaz, errugabea ere galdu egin behar ote duzu errudunarekin batean? Beharbada, badira berrogeita hamar errugabe hirian. Hori ere galdu egin behar ote dituzu? Ez ote diozu barkatuko hiriari berrogeita hamar errugabe horiengatik? Utikan zuek horrelakorik egitea, errugabea errudunarekin batera hilaraztea! Nola jokatu duzu, bada, berdin batarekin zein bestearekin? Zuk ez horrelakorik! Munduaren epaileak ez ote du zuzenbiderik egingo?»

Jaunak erantzun zion: «Sodomako hiri barruan berrogeita hamar errugabe aurkitzen badituz, hiri osoari barkatuko diot haiengatik».

Eta Abrahamek berriz: «Ausardia da benetan hauts eta errauts naizen honek neure Jaunari hitz egitea. Gerta daiteke berrogeita hamarrera iristeko bost falta izatea; hiri osoa suntsituko ote duzu bost horiengatik?» «Ez –erantzun zion Jaunak–, ez dut suntsituko, hirian berrogeita bost aurkitzen badituz». Oraindik ere Abrahamek: «Gerta daiteke berrogei besterik ez izatea». Jaunak erantzun: «Ba, ez dut suntsituko berrogei horiengatik».

Orduan, Abrahamek esan zion: «Ez zaitez haserretu, ene Jauna, hizketan jarraitzen badut. Gerta daiteke hogeita hamar besterik ez izatea». «Ez dut suntsituko, hogeita hamar aurkitzen badituz», erantzun zion Jaunak. Abrahamek berriro: «Badakit ausartegia naizela; baina gerta daiteke hogei besterik ez izatea». Jaunak erantzun: «Ez dut suntsituko hogei horiengatik». Eta Abrahamek: «Ez haserretu, Jauna, beste behin mintzatzen banatzaizu. Gerta daiteke hamar besterik ez izatea». Jaunak erantzun zion: «Ez dut suntsituko hamar horiengatik».

\* Pedro Poveda, *fundatzailea (Teresatar Instituzioa) eta martiria.*

Urteko 17. astea.

Julian Plazaola (*Donostia 1915*), Lazaro Mujika (*Idiazabal 1867*), Braulio Maria Corres (*Torralba, Nafarroa, 1897*),  
*dohatsuak*, eta lagunak, *erlijiosoak eta martiriak (1936)*.\*

[Sal 138 [137]: Dei egin nizunean, erantzun zenidan, Jauna.]

### § San Paulok Kolosarrei 2,12-14.

Senideok: Bataioaren bidez, Kristorekin hobiratuak izan zarete, eta piztu ere, harengan piztu zarete, hura hildakoen artetik piztu zuen Jainkoaren ahalmenean sinetsiz.

Garai batean, hilda zeundeten zeuen bekatuengatik eta erdaingabeak izateagatik; baina Jainkoak biziarazi egin zaituzte Kristorekin batera, bekatu guztiak barkaturik. Gu gaitzesten gintuen epai-agiria suntsitu egin du eta, gurutzean josiz, deuseztatu.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,1-13.

Aldi hartan, Jesus otoitzean ari zen leku batean; bukatu zuenean, ikasleetako batek esan zion: «Jauna, irakatsiezaguzu otoitz egiten, Joanek bere ikasleei irakatsi zien bezala».

Jesusek esan zien: «Otoitz egitean, esazue:

“Aita, santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, emaguzu egunean eguneko ogia, eta barkatu gure bekatuak guk ere zor diguten gutzietatik barkatzen diegunez gero, eta ez utzi gu tentaldian erortzen”».

Gero, esan zien: «Eman dezagun, zuetako batek adiskide bat duela eta gauerdian datorkiola, esanez: “Adiskide, emazkidak hiru ogi, itzuliko ditiat eta; lagun bat etorri zaidak bidaian eta ez zeukaat zer eskaini”. Eman dezagun, besteak barrutik erantzuten diola: “Utz nazak bakean! Atea itxia zégok, eta haurrak eta neu oheratuak; ezin naitekek ematera jaiki”. Hau diotsuet: adiskidea duelako ez bada ere, aspergarri izan ez dakion behintzat, jaiki eta emango dio behar duena».

Hau diotsuet, beraz: «Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko dizue; eskatzen duenak

\* Pedro Poveda, *fundatzailea (Teresatar Institutioa) eta martiria*.

Julian Plazaola (*Donostia 1915*), Lazaro Mujika (*Idiazabal 1867*), Braulio Maria Corres (*Torralba, Nafarroa, 1897*), *dohatsuak, eta lagunak, erlijiosoak eta martiriak (1936).*\*

hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitu, eta atea jotzen duenari zabaldu egiten baitzaio. Zuetako norbaitek, aita izanik, semeak arraina eskatuta, sugea emango ote dio arrainaren orde? Edota arrautza eskatuta, eskorpioia emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez ote die zeruko zuen Aitak Espiritu Santua emango eskatzen diotenei!»

**J**esus otoitz egiten ikusi ohi zuten ikasleek. Ikusten ditugunen antzeko bihurtzen gara azkenean. Jesusek azaldu die, ezen, bakardadera joan beharra sentitzen badu ere, ez duela otoitz egiten bere izenean, zeren eta Jainkoari begira egindako lehen urratsa «neu»tik «geu»ra egindakoa baita, «neure»tik «geure»ra. Besteentzat egiten dugu otoitz; horrela, geuretzat ere egiten dugu. Istorio bat kontatu digu Jesusek. Ezer ez errebelatzaileagorik bizitzako ohiko egoerak baino eta haie-tan izan ohi ditugun jokamoldeak baino. Kontakizun honetan ekinaren ekina azpimarratu da, jardutearen jardutea, saiatzean ez amore ematea... izan ere, gizakiok, aspertzearen aspertzeaz bada ere, erantzuten badiogu etengabe eskatzen digunari, zenbatez gehiago emango dio Jainkoak? Azkena bihoztia da eta egiatia; guk, geure koherentzia eta ondradutasun-falta eta guzti, gauza onak ematen baldin baditugu, zenbatez gehiago Jainkoak, on bakar den hark, emango digu behar dugun hura? Baina guk, zer eskatu behar dugu?; ez hau eta ez bestea, baizik Espiritua, Espiritua bera aski kartsuki. Ezar dezagun geure barnean, suaz, Jesusen konbentzimendu hau: bihotz egiatiz eskatzen diogunean emango digula, deitzen diogunean irekiko digula, haren bila gabiltzanean aurkituko dugula....

\* Pedro Poveda, *fundatzailea (Teresatar Institutioa) eta martiria.*

Urteko 17. astea.

Santa Marta, *Lazaroren arreba eta Mariaren ahizpa*.

[Irteera liburutik 32: Bekatu larria egin du herri honek, urrezko jainkoa eginez. Sal 106 [105]: Eskerrak Jaunari, ona baita.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 11,19-27.

Aldi hartan, judu asko etorri zen Marta eta Mariagana, anaiarengatik doluminak ematera.

Marta, Jesus zetorrela entzun orduko, bidera atera zitzaion; Maria, berriz, etxean gelditu zen. Martak esan zion Jesusi: «Jauna, hemen izan bazina, gure anaia ez zen hilko. Hala ere, badakit eskatuko diozun guztia emango dizula Jainkoak».

Jesusek erantzun zion: «Piztuko da zure anaia». Eta Martak: «Badakit piztuko dela azken egunean, hildakoen piztuerakoan».

Jesusek esan zion orduan: «Ni naiz piztuera eta bizia; nigan sinesten duena, hilik ere, biziko da, eta bizi dena, nigan sinesten badu, ez da betiko hilko. Sinesten al duzu hori?» Martak erantzun zion: «Bai, Jauna, sinesten dut Zu Mesias zarela, Jainkoaren Semea, mundura etortzekoa zena».

**L**azaroren heriotza bedeinkazio mozarrotu bihurtu da Martarentzat eta Jesusentzat. Biek elkarrekin mugen esperientzia zeharkatu ondoren, eta oinazea besarkaturik, indartu egin da bien arteko lotura, eta askoz handiagoa da heda dezaketen elkarrekiko barnekoitasuna. Izan ohi dira gure bizitzan ere bedeinkazio mozarrotu diren gertaerak, soilik gerora eta, agian, orain antzematen ahal badiegu ere: bizitzea kostatzen zaigun haiek ere gordetzen ahal dute bedeinkazio bat. Martari heldutasunera iristen lagundu diote oinazealdian bizi izan dituen erreguek eta konfiantzak; maitasunaren ahalmenean duen fedea emakume azti eta erne bihurtu du, beste batzuk esnatzeko gai.



Urteko 17. astea.

San Pedro Krisologo, *gotzaina eta eliz irakaslea*.  
Braulio Corres *dohatsua eta lagunak, martiriak*.

[Iртеera liburutik 33,7-11: Jaunak aurrez aurre hitz egiten zuen Moise-sekin. Sal 103 [102]: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,36-43.

Aldi hartan, jendea agurturik, etxera joan zen Jesus. Orduan, ikasleak hurbildu zitzaizkion, esanez: «Argi iezaguzu soroko irakaren parabola».

Jesusek erantzun zien: «Hazi ona ereiten duena Gizonaren Semea da; soroa mundua; hazi ona erreinuko seme-alabak dira; iraka, berriz, gaiztoarenak; iraka erein duen etsaia deabrua da; uzta munduaren azkena, eta uzta-biltzaileak aingeruak.

Iraka bildu eta suan erretzen den bezala, hala gertatuko da munduaren azkenean ere. Gizonaren Semeak bere aingeruak bidaliko ditu, eta haren erreinutik bereizi egingo dituzte gaizkileak eta besterentzat gaizpide izan direnak, eta su-labera botako dituzte. Han izango da negarra eta hortz-karraska! Orduan, zintzoek eguzkiak bezala egingo dute distira beren Aitaren erreinuan. Belarririk duenak entzun beza».

**J**ende errugabearen sufrimendua zorarazle bihurtzen denean, Jesusen hitz hauek hartu beharko genituzke bidelagun. Gaitza menperatua izango da. Bortxatuak izan direnak besarkatuak izango dira, bizitza duinik izan ez dutenek Eguzkiak bezala dirdaituko dute erreinuan. Hori da sostengatzen gaituen esperantza, bere bizitza kaltetu ziotenez arduratu zen Jesus sostengatu zuen esperantza bera. Hazi onaren hazkundea beste era batekoa izan ledin (izatea) nahi genuke, baina munduaren alor horretan txera edo maitasun sakon bat baizik ez dago, erabateko konfiantza baizik ez maitasunean: barkatzeko, berregiteko eta hartutako gaitzan ontasuna distirarazteko gai den maitasunean.

Urteko 17. astea.

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, *fundatzailea (Jesusen Lagundia) (Gipuzkoako eta Bizkaiko Zaindaria).*

(ikus Meza berezia beheago)

[Irteera liburutik 34,29-35: Moisesek aurpegia distiratsu zuela ikusirik, beldur ziren harengana hurbiltzeko. Sal 99 [98]: Santua zara Jauna, gure Jainkoa!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,44-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeruetako erreinuarekin soroan ezkutatua dagoen altxorarekin bezala gertatzen da. Norbaitek, aurkitzen duelarik, berriro ezkutatu egiten du eta, pozaren pozez joan, dituen guztiak saldu eta soro hura erosten du.

Era berean, zeruetako erreinuarekin, harri bitxi bila dabilen merkatiarekin bezala gertatzen da. Balio handiko bat aurkitzen duenean, joan, bere gauza guztiak saldu eta erosi egiten du».

**J**esusen esperientzia bera da hau, Erreinuaren doakotasuna eta edertasuna aurkitze gozoa. Zure altxorra non, zure bihotza han, esan zigun, eta bere bizitzako landa-alorrean aurkitu zuen altxorra, ezkutuan, ondo gordea. Eta hainbestekoa izan ohi da poza, une horretara arte pozik bizi izan den guztia, non alde batera ipintzen baita, aurkitutako berritasunari lekua egiteko; ez da ezer ordaindu behar izaten, hura merezi ahal izateko; aitzitik, ez dugu sekula, ez lortuko ez konkistatuko hura; Jainkoaren erabateko doakotasuna da dena saltzera eragiten diguna, berritasuna hartzeko lekua egite aldera.

\*\*\*

## LOIOLAKO SAN IGNAZIO: MEZA BEREZIA

§ Jeremias profetaren liburutik 20,7-9.

Liluratu egin nauzu, Jauna, eta ni zure lilurapean erori; bortxatu egin nauzu eta menderatu.

Urteko 17. astea.

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, *fundatzailea (Jesusen Lagundia) (Gipuzkoako eta Bizkaiko Zaindaria).*

Barregarri gertatu naiz egun osoan; burlaka ari zaizkit denak. Hitz egiten dudan bakoitzean, garrasi egiteko da; indarkeria eta zapalkuntza salatuz hots egin beharra dut; Jaunaren hitza irain- eta iseka-bide da niretzat egun guztian. Hau nioen neure baitarako: «Gogoratu ere ez dut egingo; ez dut gehiago haren izenean hitz egingo».

Baina, orduan, sua bezalako zerbaite sentitzen nuen barruan; hezurretaraino erretzen ninduen; saiatzen nintzen hura itotzen, baina ezin!!

[Sal 1: Bai dohatsu gau eta egun Jaunaren legea hausnartzen duena!]

§ Paulo santuak 1 Korintoarrei 10,31–11,1.

Senideok: Nahiz jan, nahiz edan, nahiz beste edozer egiten duzue, egizue dena Jainkoaren aintzarako. Ez izan erorbide, ez juduentzat, ez jentilentzat, ez Jainkoaren eliz elkartearentzat ere. Ni ere guzti guzta guztietan atsegin ematen saiatzen naiz, eta ez dut bilatzen neure ona, besteena baizik, guztiak salba daitezen.

Izan zaitezte nire antzeko, ni Kristoren antzeko naizen bezala.

† Jesu Kristoren ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,25-33.

Aldi hartan, jende-talde handiak zihoazen Jesusekin; honek, haiengana bihurturik, esan zien:

«Norbaitek nirekin etorri nahi badu, eta bere aita-amak eta emaztea, seme-alabak eta anai-arrebak, eta bere burua bera baino maiteago ez banau, ez daiteke izan nire ikasle. Bere gurutzea hartu eta nire ondoren ez datorrena ez daiteke izan nire ikasle.

Izan ere, zuetako nork, dorrea egin nahi badu, eseri eta ez dituurretik gastuen kontuak ateratzen, bukatzeko lain ba ote duen ikusteko? Bestela, zimenduak hartu ondoren ezin bukatuko balu, hori ikustean barre egingo liokete denek, esanez: “Honako hau eraikitzen hasi huen eta ezin izan dik bukatu”.

Urteko 17. astea.

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, *fundatzailea (Jesusen Lagundia) (Gipuzkoako eta Bizkaiko Zaindaria).*

Edota zein erregek, beste baten kontra gerrara joan nahi badu, eseri eta ez du alde z aurretik deliberatzen, ea hamar mila gizon aski dituen, hoge milarekin kontra datorkionari aurre egiteko? Eta ezetz ikusten badu, artean bestea urruti dela, mandatariak bidaliko dizkio bakea eskatuz.

Era berean, zuetako inor ez daiteke nire ikasle izan, dituen guztiei uko egiten ez badie».

**S**orburu Loiolako San Ignazio duen iturriak bide espiritual asko eta asko ureztatu ditu mendetan barna. Hau izan du bere dohainetako bat: gure gorpuztasun guztia Jainkoaren gogoaren bila jartzeko gaitasuna. Geure bizitzako Jaun bakarra eta hura bakarrik nahi izatearen bila jartzeko dohaina; Jauna bakarrik zerbitzatzera eragiteko gaitasuna, gainerako ondasun guztiak atzerago ipiniz. Baina gogo edo gura handi honek beharrezkoa du «deliberatzera eser gaitezen», bereizmezez bizi gaitezen. Jesusen ikasle izateak berari grazia eskatzea esan nahi du, beraren maitasuna egunekotasunean zehazteko, jakinik guk ezin dugula bera gabe, baina berak ere ezin duela gu gabe, berak horrela nahi izan duelako.

\*\*\*

## LOIOLAKO SEMEA GURE ZAINDARIA

R/. – Loiolako semea gure zaindaria,  
entzun, arren, gure eskaria.  
Jainkoaren aurrean izan zaitetz  
gure lagun,  
zerua irabazi dezagun.

1. – Iruñean zauriturik,  
Loiolan santutu,

Urteko 17. astea.

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, *fundatzailea (Jesusen  
Lagundia) (Gipuzkoako eta Bizkaiko Zaindaria).*

---

**Andre Mariaren bitartez  
zinen bihotz-berritu,  
santu handia,  
zerutik iguzu lagun,  
gure bihotzak berri ditzagun. – R/.**

**2. – Zure gazte bizi  
bekataria zen,  
ta gero santutasunaren  
mendira igo zinen.  
Gure bihotzak  
zurekin jaso ditzagun,  
Jaunaren aintza bila dezagun. – R/.**



## ABUZZTUA / DAGONTILA

### AITA SANTUAREN ASMOA

**Orokorra:** Aukera ekonomiko eta politiko handiek familia babestu dezaten, gizadiaren altxortzat hartuz.



Urteko 17. astea.

San Alfontso Maria Ligorio, *gotzaina eta eliz irakaslea, fundatzailea (erredentoristak).*

[Irteera liburutik 40,16-21.34-38: Lainoak estali zuen elkarteta-etxola eta Jaunaren aintzak bete zuen egoitza. Sal 84 [83]: Bai maitagarria zure egoitza, Jaun ahalguztiduna!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,47-53.

Aldi hartan, esan zion Jesusek jendeari: «Zeruetako erreinuarekin itsasora bota eta mota guztietako arrainak biltzen dituen sarearekin bezala gertatzen da. Beterik dagoenean, baztertera ateratzen dute eta, eseririk, onak saskira biltzen dituzte eta txarrak kanpora botatzen. Horrela gertatuko da munduaren azkenean: aingeruak etorri eta gaiztoak zintzoen artekin bereiziko dituzte eta su-labera botako. Han izango da negarra eta hortz-karraska!»

Jesusek galdetu zien ikasleei: «Ulertu al duzue hau guztia?» «Bai», erantzun zioten. Eta Jesusek: «Beraz, zeruetako erreinuko ikasle egin den lege-maisua, bere altxorretik zaharrak eta berriak ateratzen dituen etxeko jaunaren antzekoa da».

Jesusek, parabola hauek amaitu zituenean, alde egin zuen handik.

**B**atzuetan antzinakoari ezarririk gelditu ohi gara, eta gauzak soilago eta argiago zirela uste genuen garai haiek amestu ohi ditugu. Edota, alderantziz, azken berritasunaren bila jo ohi dugu, eragin diezagukeen gauza bakarra hori delakoan. Pazientziaz aletzera gonbidatzen gaitu Jesusek, sareak garai bakoitzeko itsasora botatzera, ondoren eseri ahal izateko, patxada-pixka bat hartu ahal izateko, on dena biltzeko, on egiten duena jasotzeko, arrainen askotarikotasun handian zenbat dohain dagoen, gorderik, aitortzeko. Astiro eta artisautzaz egindako lan askoren beharra dugu bizi dugun ziztu biziko eta medioen aldi honetan.



# 2

Ostirala / Barikua

ABUZTUA / DAGONILA

Urteko 17. astea.

Aingeruen Andre Maria, San Eusebio Vercelli-koa, *gotzaina*.  
San Pedro Julian Eymard, *apaiza, fundatzailea (Sakramentu Santuaren Apaizak)*. San Pedro Fabro, *apaiza, jesuita*.

[Levitarrak liburutik 23,1. 4-11. 15-16. 27. 34b-37: Jaunaren jaietan batzar santuak egingo dituzue. Sal 81 [80]: Egin pozez oihu laguntzaile dugun Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,54-58.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen eta irakasten ari zitzaizen sinagogan. Jendeak, harriturik, hau zioen: «Nondik du honek horrelako jakinduria, eta nondik mirari horiek? Hau ez al da, ba, arotzaren semea? Honen amak ez al du izena Maria, eta honen anaiek Santiago, Jose, Simon eta Judas? Eta honen arrebak ez al dira gure artean bizi? Nondik du, beraz, honek hori guztia?» Eta ezin zuten sinetsi haren gan.

Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian eta etxean izan ezik».

Eta, haien sinesgorkeriagatik, ez zuen han mirari askorik egin.

**D**esmond Tutu-k (Hego Afrikako klerigo anglikanoa, bakezalea, 1931n jaioa) ederto adierazten du nola ulertzen duten Afrikan, gizaki izatea elkarte bateko kide izatea dela, pertsona bat beste batzuen bidez dela pertsona: «Norbaiti esaten diozunean: “zuk Ubuntu daukazu”, esan nahi da, eskuzabala dela, abegitsua, adiskidetsua eta gupidatsua. Daukazuna partekatzen duzuna. Esango balitz bezala da: “nire gizatasuna kateatua dago ezinbestean zurearekin”. Ez dugu esaten: “pentsatzen dut, beraz banaiz”, baizik eta “atxikirik dagoelako naiz, parte hartzen dudalako, partekatzen dudalako»». Jesusek Ubuntu handi bat du, nahiz eta beraren ezagunei kostatzen zaien gehienik beraren dohaina baloratzea; gauza bera gertatzen zaigu geuri hurbilenak ditugunekin.

## ABUZZTUA / DAGONILA Larunbata / Zapata

Urteko 17. astea.

Santa Kandida Maria Jesusena (Andoain 1845 – Salamanca 1912), *birjina, fundatzailea (Jesusen Alabak)*.

San Pedro Osmakoa, *gotzaina*. Santa Lidia, *martiria*.

# 3

[Levitarrak liburutik 25,1.8-17: Jubileu-urtean, zuetako bakoitzak bere lurren jabetza berreskuratuko du. Sal 67 [66]: Ene Jainko, aipa zaitzatela herriek, aipa zaitzatela herri guztiek.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14,1-12.

Aldi hartan, Jesusen berri jakin zuen Herodes Galileako gobernariak, eta esan zien bere zerbitzariei: «Joan Bataiatzailea da! Hildakoen artetik piztu da, eta horregatik du mirariak egiteko ahalmen hori».

Izan ere, Herodesek Joan harrapatu eta, loturik, kartzelan sartua zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Filiporen emaztea zen Herodias. Joaneke hau esan ohi zion Herodesi: «Ez duzu zilegi emazte hori edukitzea». Herodesek hil egin nahi zuen, baina jendearen beldur zen, profetatza baitzuten denek.

Herodesen urtebetetzean, Herodiasen alabak dantzan egin zuen guztien aurrean eta atsegin izan zitzaion Herodesi. Hargatik, eskatutako guztia emango ziola agindu zion neskatxari, zin eginez. Neskatxak, bere amaren aholkuari jarraituz, esan zion Herodesi: «Emadazu oraintxe bertan Joan Bataiatzailearen burua azpilean». Goibel jarri zen erregea; baina mahaikideen aurrean egindako zinagatik, eskatua emateko agindu zuen, eta Joani lepoa moztu zioten kartzelan. Azpilean burua ekarri eta neskatxari eman zioten, eta neskatxak amari.

Joanen ikasleek haren gorpua jasotzera etorri eta lur eman zioten; gero, Jesusi berri ematera joan ziren.

**J**oan Bataiatzailearen hilketa eta horrek Jesusentzat zer esan nahi ahal zuen begi aurrean ditudala, Oscar Romero dakart gogora; baita berarentzat ere zer esan nahi izan zuen Rutilo Granderen hilketak. Une horretatik zerbait hasia zen aldatzen Romerogan. Jesusentzat ere, Joanen martiritzari dagokionez, lehen aldi bat eta gero aldi bat izan ziren, inondik ere. Romero monsinoreak idatzia da: «Aita jesuita heroi-

# 3

## Larunbata / Zapatua ABUZZTUA / DAGONILA

Urteko 17. astea.

Santa Kandida Maria Jesusena (Andoain 1845 – Salamanca 1912), *birjina, fundatzailea (Jesusen Alabak).*

San Pedro Osmakoa, *gotzaina*. Santa Lidia, *martiria*.

---

koaren, behartsuengatik lepo egindakoaren, gorpuairen aurreko otoiiz-beilan, konturatu nintzen, ezen orduan neuri zegokidala hildakoaren lekua hartzea, ondo asko jakinik, neuk ere neure bizia jarriko nuela arriskuan». Hiletak ospatzean, sentitu zuen, «adore pastoralaren» dohain berezia eskaini ziola Jainkoak.

\* \* \*

### SANTA KANDIDA MARIA JESUSENA

Andoainen jaio zen Kandida 1845ean. Oso gazterik, familiari laguntzeko, Gaztelara joan zen lanera. Behartsuekiko oso sentibera zen. Lanik gabe gelditzeko arriskua eta guzti, berak esana da: «behartsuentzat lekurik ez den hartan, niretzat ere ez».

Valladoliden, 1869an, beste behin errepikatu zion Jaunari eskaria, Familia Santuaren aldare aurrean: argitzeko zein zuen berarekiko bere gogo. Eta Jaunagan gogo hau sumatu zuen Kandidak: kongregazio bat funda zezala haurrak eta gazteak hezteko. Salamancan, 1871n, hasi zuen bere abentura berria beste bost emakumerekin: Jesusen Alabak kongregazioa sortu zuten. Hogei urte geroago, 1911n, bere amets bat beterik ikusi zuen: lehen Jesusen Alabek Brasilerako bidea hartu zuten. Kandida 1912an joan zen zeruko Aitagana.

Urteko 18. astea.

San Joan Maria Vianney, *Ars-eko apaiza*.

### § Kohelet liburutik 1,2; 2,21-23.

Huskeria hutsa –dio Koheletek–, huskeria hutsa, dena huskeria da. Izan ere, gertatu ohi da, batek buruz, egoki eta trebetasunez lan egin ondoren, ezer egin ez duenari dena utzi beharra. Hau ere huskeria da eta oker handia. Zer gelditzen zaio gizakiari eguzkipean egin duen hainbeste lan eta eginahaletatik? Egunero atsekabea besterik ez du, eta bere lanetan nekea; gauetz ere ez du atsedunik haren bihotzak. Hau ere huskeria da.

[Sal 90 [89]: Jauna, gure ihesleku Zu izan zara gizalditik gizaldira.]

### § San Paulok Kolosarrei 3,1-5.9-11.

Senideok: Kristorekin berpiztu zaretenez gero, bila itzazue zeruko gauzak, han baitago Kristo, Jainkoaren eskuinaldean eserita. Irrika itzazue goiko gauzak, eta ez lurtekoak, hilik baitzaudete, eta zuen bizia Kristorekin dago Jainkoagan gordea. Kristo, zuen bizia, agertuko denean, zuek ere aintzatsu agertuko zarete harekin batean.

Hilaraz itzazue, beraz, zeuen baitan mundu honen araberako jarrerak: lizunkeria, lohikeria, irritsak eta grina txarrak eta idolatria den diru-gosea. Ez esan elkarri gezurrik, izaera zaharra eta honen araberrako jokabidea erantzi eta berria jantzi duzuenez gero; izaki berri zarete, beraren egile den Jainkoaren irudira eraberrituz doana, ezaguera beteagora iristeko. Hor ez dago honezkero ez greziarrik eta ez judurik, ez erdaindurik eta ez erdaingaberik, ez kulturadunik eta ez kulturagaberik, ez esklaborik eta ez librerik, baizik eta Kristo da guztia, eta guztiengan bizi da.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,13-21.

Aldi hartan, jende arteko batek esan zion Jesusi: «Maisu, esaiozu nire anaiaari senipartea nirekin erdibanatzeko».

Urteko 18. astea.

San Joan Maria Vianney, *Ars-eko apaiza*.

Jesusek erantzun zion: «Lagun, nork jarri nau Ni zuen artean epaile edota ondasun-banatzaille?» Eta jendeari esan zion: «Kontuz! Gorde zeuen burua diru-gosetik, ondasunek ez baitiote inori bizia seguratzetzen, ugari izanda ere».

Gero, parabola hau kontatu zien: «Gizon aberats bati lurrak uzta handia eman zion. Eta honela hasi zen berekiko pentsatzen: “Zer egin, ez baitut uzta non jasorik”. Eta beretzat esan zuen: “Badakit zer egin: mandio zaharrak bota eta handiagoak egingo ditut eta haietan jasoko gara eta gainerakoak. Gero, esango diot neure buruari: “Ea, motel! Baduk hor gordeta urtetarako ondasunik aski; hartu atsedean, jan, edan eta bizi ongi!”»

Baina Jainkoak esan zion: “Burugabea halakoa! Gaur gauean bertan hil behar duk. Norentzat izango duk pilatu duana?”» Eta honela amaitu zuen Jesusek: «Horra zer gertatzen zaion, Jainkoarentzat aberats izan beharrean, ondasunak beretzat pilatzen dituenari».

**B**i dinamika ageri dira Ebanjelioan barna: batetik, metatzeari eman dionaren dinamika, gordetzeari, bereganatzeari eman dionarena... zorakeriara daramana, eta, bestetik, eskaintzearekin, ematearekin, dohain bihurtzearekin zerikusia duenarena. Biblian hasiera beretik jarri izan da koloka Jainkoaren bedeinkazioa, eta Biblia osoan barna eta eguneroko bizitzan ageri dira bata bestearen aurka ari diren anai-arreben istorioak, ondarea dela eta. Tristeia da egiaztatzea zenbat harremanek huts egiten duen eta zenbat eta zenbat zornatzen den, ondasunak direla eta. Geure burua aurrera begira jartzan dugu, baina geure jabetzako bidez, gaurko parabolako gizon aberatsak bezala; gorde nahi genukeen horrek geroa eta segurantza bermatuko baligu bezala. Joan doakigu bizitza metatu eta metatu: aintzat hartua izatea, lausenguak, lorpenak... Alabaina pertsonaren balioa ez datza gizarte-arrakastan; dena ukatzen ahal digute gauetik goizera. Ety Elillesumek zioena: «Gizaki baten handitasuna, beraren egiazko aberastasuna, ez datza ikusten den hartan, baizik eta bihotzean duen hartan... azaleko distira ematen zion hura itzaliko zaionean geldituko zaion hartan. Zer gelditzen zaio? Bere barne baliabideak, eta beste ezer ez».

Urteko 18. astea.

Andre Mariaren Eliza Sagaratzea Erroman.

Andre Maria Zuria Gasteizen. Elurretako Andre Maria (ikus beheraxeago Elurretakoaren Meza).

[Zenbakiak liburutik 11,4b-15: Nik bakarrik ezin dut herri hau guztia eraman. Sal 81 [80]: Egin pozez oihu laguntzaile dugun Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14,13-21.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen heriotzaren berri jakitean, Jesus leku bakarti batera joan zen bera bakarrik txalupaz. Baina ohartu zen jendea eta oinez jarraitu zion herrietatik. Txalupatik ateratzean, Jesus-ek jendetza handia ikusi zuen; erruki izan zituen eta gaixoak sendatu zizkien.

Ilunabarrean, ikasleek hurbildu eta esan zioten: «Leku bakartia da hau eta orduak aurrera doaz. Bidal ezazu jendea, auzoetara joan eta jatekoa eros dezan». Jesusek esan zien: «Ez dute zertan joan; emaezue zeuok jaten». Haiek, orduan: «Ez dugu hemen bost ogi eta bi arrain besterik». Eta Jesusek: «Ekarri hona».

Jendeari belar gainean esertzeko agindu ondoren, hartu zituen bost ogiak eta bi arrainak, eta, begiak zerurantz jatorik, bedeinkapen-otoitza egin, ogiak zatitu eta ikasleei eman zizkien, eta ikasleek jendeari. Asetzeraino jan zuten guztiek, eta gelditutako hondarrez hamabi saski bete bildu zuten. Bost mila gizon inguru ziren jan zutenak, emakumeak eta haurrak aparte.

**N**ekeaz baino harago, besteen beste premia arduratzen da Jesus. Ikusten dien ezgaitasunak hunkitu egin izan du. Jakina, ezin du berak bakarrik; geuk ere ez. Beharrezkoa dugu daukagun apurra ez gordetzea geuretzat bakarrik, baizik eta guztien esku ipintzea, Jainkoari ematea. Orduan gertatzen da zinez inporta duena: gure ogi-apurra Jainkoak hartua eta eskertua, itzuli egiten digu banatu ahal izateko. Agian asko errepikatzen diogu batak besteari banatzearen bigarren aldi hau: gehienik ikusten dena da. Baina premia handiagoa dugu batak besteari lehen aldikoan laguntzea: Jainkoaren eskuetan irautea egunero aski denbora, bedeinkatuak eta zatituak izateko.

Urteko 18. astea.

Andre Mariaren Eliza Sagaratzea Erroman.  
Andre Maria Zuria Gasteizen. Elurretako Andre Maria

## ELURRETAKO ANDRE MARIA

[Zakarias 2,1-13: Poztu zaitez, Siongo alaba, banatorkizu-eta! Apokalipsia 21,1-5a: Jerusalem berria ikusi nuen, bere senargaiarentzat apaindutako andregaiia bezala. Salmoa: Judit 13: Zugan du gure herriak bere edertasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,27-28.

Aldi hartan, Jesus gauza hauek jendeari esaten ari zela, emakume batek jendartetik deiadarka esan zuen: «Zorionekoa sabelean eraman zintuen eta bularra eman zizun emakumea!»

Baina Jesusek esan zuen: «Hobeki esan, zorionekoak Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!».

**I**kasleek baztertu egin nahi dute bere alabaren osasuna oihuka eskatuz inguruan duten emakume nahastailea. Nekagarri da Maisuarentzat, baina, egia esateko, berak dira harentzat nekagarriago. Azkenean haren alde erregutu diote Jesusi, baina ez gupidaz, baizik eta eragiten ari den iskanbilagatik.

Azkenean, lortu du emakumeak Jesusekin hitz egitea. Gai da ama hori bere burua txakurkume batekin konparatzeko, alabaren osasuna lortzekotan. Otoitz jarraiki eta apal horrek, fedez gainezka, sendatuko duen esperantza eta ama baten maitasun den horrek, harridura eragin dio Jesusi: bete dadila horrenbeste opa duzuna!

Urteko 18. astea.

**JAUNAREN ANTZALDATZEA.**

San Justo eta San Pastor, *anaiak, martiriak*. \*

**§ Daniel Profetaren liburutik 7,9-10.13-14.**

Begira nengoela, tronu batzuk jarri zituzten eta gizon zahar bat eseri zen. Haren soinekoa elurra bezain zuri, buruko ilea artilea bezain garbi! Haren aulkia eta gurpilak, sugar kiskalgarri! Suzko ibaia ateratzen zen haren aurretik. Jendetza izugarria zuen zerbitzari, milaka eta milaka zeuden haren aurrean zutik. Auzia hasi eta zabaldu ziren liburuak. Neure gau-ikuskarian, gizaseme antzeko bat ikusi nuen zeruko hodeietan etortzen. Gizon zaharragana hurbildu zenean, beroni aurkeztu zioten. Agintea, aintza eta erregetza eman zioten: herri, nazio eta hizkuntza guztietako jendeak zerbitzatzeko zuen. Haren agintea bertierkoa, ez da inoiz bukatuko; haren erregetza ez da inoiz hondatuko.

[Sal 97 [96]: Errege da Jauna, Goi-goikoa, lur guztiaren gainetik.]

**§ San Pedoren 2. gutunetik 1,16-19.**

Senide maiteok: Jesu Kristo gure Jauna ahalmenez etorriko den egunaz hitz egin genizuenean, ez ginen oinarritu irudipenezko ipuinetan, geure esperientzian baizik, geure begiz ikusi baikenuen haren handitasuna.

Jesusek bere Aita Jainkoagandik hartu zituen ohorea eta aintza, hau esan baitzion Jainkoaren aintza bikainetik etorritako mintzoak: «Hau da nire Semea, nire maitea, honengan dut neure atsegina». Guk geuk entzun genuen zerutik etorritako mintzo hori, berarekin mendi santuan ginela.

Badugu profeten hitza ere, hitz guztiz sendoa, eta zuek ederki egiten duzue hitz horri adi-adi egonez: toki ilunean argi egiten duen kriseilua bezala da zuentzat, eguna zabaldu eta goizeko izarra zuen bihotzean jaiki arte.

\* Eugenio Maria Erasquin Aranburu (Lazkao 1902 /artzelona 1936, Montserrateko beneditarra) *martiria, dohatsua*.



## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,28b-36.

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek berekin Pedro, Santiago eta Joan, eta mendira igo zen otoitz egitera. Otoitzean ari zela, aurpegiko itxura aldatu zitzaion, eta jantzia zuri distiratsu bihurtu. Hartan, bi gizon agertu ziren, Moises eta Elias, aintzaz distiratsu Jesusekin hizketan; Jerusalemen gertatzekoa zen Jesusen heriotzaz mintzo ziren. Pedro eta lagunak logurak jota zeuden; baina esnatu ziren eta Jesusen aintza eta harekin zeuden bi gizonak ikusi zituzten.

Hauk urruntzen ari zirela, Pedrok esan zion Jesusi: «Maisu, bai ederki gaudela hemen! Egin ditzagun hiru txabola: bata zuretzat, beste Moisesentzat eta bestea Eliaentzat». Ez zekien zer esaten zuen ere.

Hau esaten ari zela, hodei batek estali zituen, eta hodeian sartzean beldurtu egin ziren. Ahots bat atera zen hodeitik, esanez: «Hauxe da nire Semea, nire Aukeratua. Entzuiozue». Ahotsa isiltzean, Jesus bakarrik ageri zen.

Ikasleek isilik gorde zuten, eta egun haietan ez zioten inori esan ikusitakorik ezer.

**E**kialdeko kristauek hain maitea duten Jaunaren Antzaldatzearen jai aintzat hartzeak badu guretzat ere zer esanik: gauza guztiek espero duten argi apal horrek gu geu ere harrapa gaitzan uztea. Argi horrek berak kentzen digu begietako zapia, eta, artean begiak logurak sakon joak baditugu ere, une batez zoriona esperimentatzeko ahala ematen digu: Biziaren argiaren zoriona. Ezti-ezti dardaraziz, barnetik distiraziz beraren sorkarrietako txikiena ere. Den-dena da ikusten on, den-dena da goresten. Hainbateko argia dago aurpegietan noiz eztanda egingo zain. Maitasunak bakarrik daki bera aurkitzen.

\* Eugenio Maria Erauskin Aranburu (Lazkao 1902 / Bartzelona 1936, Montserrat-ko beneditarra) *martiria, dohatsua*.

Urteko 18. astea.

San Sixto II.a, *aita santua* eta lagunak, *martiriak*.

San Kaietano, *apaiza (teatinoen fundatzailea)*.

[Zenbakiak liburutik 13,1-2.25-14,1.26-29.34-35: Ikertutako lurraldeaz gaizki esaka hasi ziren israeldarren aurrean. Sal 106 [105]: Oroitu gutaz, Jauna, zeure herriaganako onginahiagatik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 15,21-28.

Aldi hartan, Tiroko eta Sidongo lurraldera aldendu zen Jesus. Hartan, inguru haietan bizi zen emakume kanaandar bat deiadarka hasi zitzaion: «Jauna, Daviden Semea, erruki zakizkit! Oinaze gorritan dauka deabruak nire alaba». Baina Jesusek ez zion hitzik erantzun.

Ikasleak, hurbildurik, erreguka ari zitzaizkion: «Egiozu kasu, eta doala, deiadarka baitatorkigu atzetik». Jesusek, ordea: «Israel herriko ardi galduengana bakarrik bidali nau Jainkoak».

Baina emakumea, hurbildurik, ahuspez jarri zitzaion, esanez: «Lagun iezaadazu, Jauna!» Jesusek, orduan: «Ez dago ondo seme-alabei ogia kendu eta txakurrei botatzea». Emakumeak erantzun zion: «Bai, Jauna, halaxe da; baina txakurrek ere jan ohi dituzte nagusien mahaitik erortzen diren ogi-apurrak».

Orduan, Jesusek esan zion: «Emakumea, handia da zure fedea! Gerta bekizu nahi duzun hori». Eta une hartatik sendatua gelditu zitzaion alaba.

**T**omas Mertonek idatzi zuen Doroty Dayri egindako gutun batean, 1961eko abenduan: «Jendea ez dugu ezagutzen adimenagatik, ezta dituen burubide edo printzipioengatik bakarrik ere, baizik eta, soilik, maitasunagatik». Eta horixe da gaurko ebanjelioko emakume honek agertu duena: bere nortasuna, Jainkoak maite duen sorkariarena, agertu du, bere etnia, izaera soziala edo erlijioa baino gehiago. Jesusek bere duintasunean artean ezagutzen ez duen emakumeak, batetik «Jauna» esan dio, eta, bestetik, guztiengan dagoen Jainkoagana irekitzera gonbidatu du Jesus. Emakume arrotz eta pagano honek –nork esan!– Jainkoaren berritasunera eta besteen sufrimenera pixka bat gehiago irekitzen irakatsi dio Jesusi.

[Zenbakiak liburutik 20,1-13: Ur-parrasta atera zen. Sal 95 [94]: Entzungo ahal duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16,16-23.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?» Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat».

Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Simon Pedrok erantzun zuen: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea».

Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta hau diotsut Nik: Zu Pedro zara –harkaitza–; harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza, eta Herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zeruetako erreinuko giltzak emango dizkizut: zuk mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua, zeruan ere askatua».

Orduan, bera Mesias zela inori ez esateko agindu zien Jesusek ikasleei.

Une hartatik hasi zen Jesus ikasleei azaltzen beharrezko zela bera Jerusalemara igotzea, eta han asko sufritu beharra zuela apaizburuen eta lege-maisuen aldetik; hil egingo zutela eta hiru egunen buruan piztuko zela. Orduan, Pedro, Jesus aparte harturik, gogor egiten hasi zitzaion: «Inola ere ez, Jauna! Ez zaizu horrelakorik gertatuko!»

Baina Jesusek, itzulirik, esan zion Pedrori: «Alde nire ondotik, Satanas! Oztopo zara niretzat, zure asmoak ez baitira Jainkoarenak, gizakiarenak baizik».

**J**esusek bi galdera egin ditu: bata jendeari dagokio; bestea guri dagokigu zuzenean. Jada bizi izan diren esperientziekin erantzun diote

Urteko 18. astea.

Domingo santua, Guzmangoa, *apaiza, fundatzailea*  
(*domingotarrak*).

lehenari: profetarik handienek eragindakoa iradoki du Jesusek. Bigarrenak gurekin du zerikusia, gure egunean egunekoarekin. Afektuaren eta bata bestea ezagutzearen eremuari dagokio: maitasunari dariona da, bizitzan bide-egite bat partekatzeari dariona. Zer naiz ni zuretzat? Zer esan nahi duk nik benetan zure bizitzan? Bada zoriontasun bat Jaunari bihotzez erantzuten diogunean, onartzen dugunean berarekiko maitasunak oinazea duela tartean.

\* \* \*

### ZU BEZALAKO BESTE «ZORO» BAT

Jauna, emadazu zeure maitasuna, galarazi diezadala «neure giza zuhurtasuna» eta eragin diezadala arriskatzera, jauzia egitera, San Pedro bezala, zugana joateko: uste izanik, ez naizela hondoratuko zuzan konfiantza dudan bitartean.

Ez nuke entzun nahi: «Konfiantza eskaseko gizona, nolatan duda hori?» Zenbat arrazoi teologiko, aszetiko, giza zuhurtasunezko, jaikitzen diren nire espirituan eta saiatzen diren azaltzeko, «ongiaren itxurapean», giza arrazoi askoren bidez, ezen, zuk inspiratzen eta eskatzen didazuna, zuhurtasun-falta dela: Zorakeria bat.

Zu zeu, Jauna, horren arabera, izan zinen «gizakietan zoroena»; izan ere, gurutzearen zorakeria hori asmatu zenuen.

Oi, Jauna!, erakutsi diezadazu zorakeria hori dela zure zuhurtasuna, eta emadazu zure maitasuna, halakoa, non neu ere zu bezalako beste zoro bat izan nadin. (Pedro Arrupe, SJ)

Urteko 18. astea.

Gurutzeko Santa Teresa Benedikta (Edith Stein), *erlijiosa eta martiria, Europako Zaindaria.*

## § Oseas profetaren liburutik 2,16b.17b.21-22.

Honela mintzo da Jauna: «Basamortura eramango dut Nik neure herria, eta bihotzera hitz egingo diot. Han bere gaztaroan bezala erantzungo dit, Egiptotik igo zenean bezala. Neure emazte egingo zaitut betiko; neure emazte egingo justiziaz eta zuzenbidez, maitasunez eta errukiz. Leialtasunez egingo zaitut neure emazte, eta zuk ezagutuko duzu Jauna».

## [Sal 45 [44]: Badator senargaia; irten zakizkiote bidera!]

## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,1-13.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin, beren kriseiluak eskuetan hartu eta senargaiari bidera irten zitzaizkion hamar neskatxekin bezala gertatzen da. Neskatxetako bost zentzugabeak ziren eta bost zentzudunak. Kriseiluak hartzean, zentzugabeek ez zuten oliorik hartu; zentzudunek, ordea, kriseiluekin batera olioia ere hartu zuten ontzietan. Senargaiak luzatzen zuenez, lo-galetu egin ziren denak eta loak hartu zituen.

Gauerdian oiuhu bat entzun zen: “Badator senargaia; irten zakizkiote bidera!” Jaiki ziren neskatxa guztiak, eta beren kriseiluak prestatu zituzten. Orduan, zentzugabeek esan zieten zentzudunei: “Emaguzue olio-pixka bat, kriseiluak itzaltzen ari zaizkigu eta”. Zentzudunek erantzun zieten: “Ea ez dugun nahikoa geuretzat eta zuentzat; hobe duzue, badaezpada, dendara joan eta erosi”.

Baina, eroatera joanak zirelarik, senargaia iritsi zen, eta prest zirenak ezteietara sartu ziren harekin. Eta atea itxi zuten.

Iritsi ziren, azkenik, beste neskatxak ere eta dei egin zuten: “Jauna, Jauna, ireki!” Baina hark erantzun zien: “Benetan diotsuet, ez dakit nor zareten”.

Egon, beraz, erne, ez baitakizue, ez eguna, ez ordua».

Urteko 18. astea.

Gurutzeko Santa Teresa Benedikta (Edith Stein), *erlijiosa eta martiria, Europako Zaindaria*.

**E**dith Steinek pizturik eutsi zion Jainkoaren bila ibiltzeko argi-zuziari, Auschwitzeko bere azken tragiko arte eutsi ere. Idatzi zuen, beharrezkoa zuela pertsona bakoitzak «txoko lasai bat edukitzea, hartan Jainkoarekin harremanak modu berezian izateko, beste ezer existitzen ez balitz bezala... tarterik egokiena goizeko lehen orduena iruditzen zait, lanean hasi aurretik; orduan du hartzen bakoitzak egun bakoitzeko zeregin berezia... nor bere burua tresna huts bailitzan ikusten du, eta lan egiteko dituen indarrak guk geuk behar dugun zerbait bezala ez, baizik eta gudan Jainkoak behar duen zerbait bezala».

\* \* \*

## GURUTZEKO SANTA TERESA BENEDIKTA Edith Stein

Kristo legearen uztarriaren menpeko egin zen, legea osorik betez eta legeagatik eta legearen bidez bizia emanez. Horrela, bizia onartu nahi dutenak liberatu zituen. Baina ezin hartu dute bizi hori, baldin eta berek berena eskaintzen ez badute. Izan ere, Kristo Jesusengan bataiatuak izan direnak, Kristo Jesusen heriotzan izan dira bataiatuak. Haren bizian murgilduak izan dira, haren gorputzaren atal bilakatu eta hark bezala sufritu eta hura bezala hiltzeko, haren atal gisa. Bizi hau ugari etorriko zaigu egun aintzatsuan; halere, orain jada, haragian bizi garelarik, bizi hartan partekatzen dugu, baldin eta sinesten badugu Kristo gugatik hil dela, guri bizia emateko. Fede hau dela medio, harekin bat egiten dugu, atalek buruarekin bat egiten duten bezala; fede honek haren biziaren iturria ireki digu. (Edit Steinen “La Ciencia de la Cruz” liburutik).

Urteko 18. astea.

San Lorenzo, *diakonoa eta martiria*.

[San Paulok 2 Korintoarrei 9,6-10: Alai ematen duena maite du Jainkoak. Sal 112 [111]: Pertsona onak errukitu eta eman egiten du.]

† Jesus Kristoren ebanjelioa San Joanen liburutik 12,24-26.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Gari-alea, lurrean erori eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; baina, hiltzen bada, fruitu asko ematen du. Bere bizia maite duenak galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxiesten duenak betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat eta, Ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena ohoratu egingo du Aitak».

**M**aitasun propioak, oker ulertuak, itsutasunak, bekaizkeriak, esker txarrak eta buru-gogorkeriak: horrek guztiak eraman du Jesus gurutzera. Baina ezin geldiarazi du ezerk ere beraren bizitzaren eman-kortasuna: jende zapuztuarekin duen partekatzeke era, jende hauskor ororen aurrean duen belaunikatzeko era, inork besarkatzen ez duen baina berak duen besarkatzeko era eta ukatuak direnak asetzeko duen era: horrek guztiak beraren fruitu izaten jarraitzen du gaur egun. Haren zerbitzari izateak geure nahieratik eta probetxutik irtetea eskatzen du, eta historiaren behe-beheko lekuak zapaltzea, txeraz eta zuzenbidez blaitzeko; izan ere, Ignazio Ellacuriak zioenez: «Ez dago gizatasunik partekaturiko solidaritaterik gabe».

Urteko 19. astea.  
Santa Klara, *birjina*

### § Jakinduria liburutik 18,6-9.

Aldez aurretik eman zitzaien gure arbasoei pazko-gauaren berri, sinetsi zituzten promesak, sendoak zirela ikustean, adore izan zezaten. Zintzoentzat salbamen eta etsaientzat hondamendi izan zen gau haren zain egon zen zure herria. Izan ere, egintza bat beraz gure etsaiak zigortu zenituen eta gu ohorez bete gintuzun, Zeuregana deituz. Zintzoen seme-alaba fededunek sakrifizioak eskaintzen zituzten ezkutu, eta denek, aho batez, lege santu hau ezarri zuten: aldi onetan nahiz txarretan elkaturik egongo zirela zintzoak. Eta orduan jadanik, kantatzen zituzten arbasoen gorazarreak.

[Sal 33 [32]: Bai dohatsu Jaunak bere oinorde hautatu duen herria.]

### § Hebrearrei idazkitik 11,1-2.8-19.

Senideok: Itxaroten dugunaren oinarria da sinesmena, ikusten ez direnen froga. Sinesmenagatik onetsi zituen Jainkoak gure arbasoak. Sinesmenari esker, Abraham, Jainkoaren deiari erantzunez, ondareztat hartu behar zuen lurraldera abiatu zen, nora zihoan jakin gabe. Sinesmenaren indarrez atzerritar gisa bizi izan zen agindutako lurraldean; oihal-etxoletan bizi izan zen, Jainkoaren agintzari bera hartu zuten Isaak eta Jakob bezalaxe; eta hori, oinarri sendoa duen hiria, arkitekto eta egile Jainkoa bera duen hiria, itxaron zuelako. Sinesmenari esker hartu zuen ondorengoa ekartzeko indarra, bere emazte Sara agorra izan eta berak ere sasoi joana zuen arren, agintzaria egin ziona fidagarria zela sinetsi baitzuen. Horrela, gizon bakarragandik –eta berau horretarako hilik zegoela–, ondorengoak sortu ziren, zeruko izarrak bezain ugari eta itsasbazterreko hondarrak bezain kontaezin.

Horiek guztiak Jainkoak hitzemandako ondasunak eskuratu gabe hil ziren; baina sinesmenenaren argian urrutira ikusi eta agurtu egin zituzten, horrela lur honetan erromes eta arrotz zirela aitortuz; izan



Urteko 19. astea.  
Santa Klara, *birjina*

ere, honela mintzo direnek garbi adierazten dute aberriaren bila dabilzala. Utzi zuten lurraldea gogoan izan balute, izango zuten egokiera hara itzultzeko. Baina lur hobea zuten irrika, zerukoa. Horregatik, Jainkoak ez du «haien Jainko» deitua izateko lotsarik, hiri bat ere prestatu baitzien.

Sinesmenari esker opari eskaini zuen Abrahamek Isaak, Jainkoak probatu zuenean. Bera, agintzariak hartu zituena, prest zegoen bere seme bakarra eskaintzeko, nahiz eta seme horretaz esana zion Jainkoak: «Isaaken bidez izango dituzu ondorengoak». Uste bizia zuen Abrahamek Jainkoa gai dela hildakoak pizteko ere; horregatik, semea berreskuratzea Jainkoaren ahalmenaren ezaugarri gertatu zitzaion.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,32-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez beldur izan, ene artalde txo hori, gogoko izan baitu zuen Aitak erreinua zuei ematea. Saldu zeuen ondasunak eta eman limosna. Pila itzazue zeruan hondatuko ez diren ondasunak, huts egingo ez dizuen altxorra, hara ez baita lapurrik hurbiltzen, ezta ere han sitsak jaten. Zeren, zuen altxorra non, zuen bihotza han.

Zaudete prest, jantziak loturik eta kriseiluak pizturik; izan zaitezte nagusia ezteietatik noiz itzuliko zain dauden morroiak bezalakoak, iritsi eta atea jo bezain laster irekitzeko prest dauden morroiak bezalakoak.

Zorionekoak morroi horiek, nagusiak, iristean, zain aurkitzen baditu! Egia diotsuet: arropak aldaturik, mahaian eseraraziko ditu eta zerbitzatzen hasiko zaie. Eta gauerdian nahiz goizaldean badator eta horrela aurkitzen baditu, zorionekoak haiek!

Hartu gogoan hau: etxeko nagusiak, lapurra zein ordutan etorriko den jakingo balu, ez luke etxea zulatzen utziko. Egon prest zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea».

Pedrok galdetu zion: «Jauna, guretzat ala denentzat esan duzu parabola hau?»

Urteko 19. astea.  
Santa Klara, *birjina*

Jaunak erantzun: «Izan zaitezte etxezain leiala eta zentzuduna bezalakoak, nagusiak, bere orduan behar den janaria banatzeko, morroien buru ipini duena bezalakoak. Zorionekoa morroi hori, nagusiak, iristean, agindua egiten aurkitzen badu! Benetan diotsuet: bere ondasun guztien buru ipiniko du. Baina morroia, nagusiak luzatuko duelakoan, morroi-lagunak eta neskameak jotzen eta jan-edanean eta mozkorkerian hasten bada, gutxien espero duen egunean eta gutxien uste duen orduan etorriko zaio nagusia, gogor zigortuko du eta desleialek merezi dutena emango dio.

Nagusiaren nahia zein den jakin arren, gauzak hark nahi bezala eratzten edo egiten ez dituen morroiak zigor gogorra izango du; nagusiaren nahia zein den jakin gabe, zigorra merezi duen zerbaite egiten duenak, berriz, biguna. Asko eman zitzaionari, asko eskatuko zaio; eta askoren kargua eman zitzaionari, are kontu handiagoa eskatuko».

**Z**ain bizitzeko artea ez dago, gaur egun, punturik gorenean. Behala eta bat-batean nahi izaten dugu dena. Lekuren batean itxarotera behartzen bagaituzte, gutxiesten gaituztelakoan ipintzen gara. Eginkortasuna eta utilitarismoa txalotzen dituen gure kultura honek deuseztatu egin du pazientziaz zain bizitzearen balioa. Erne eta zain bizitzeak zerikusia izaten du espero izaten dugun hartarantz arretaz mugitzearekin, espero izaten dugun hartarantz maitasun-tirandura bizitzearekin. Gaurko kontakizunak zoriontasuna aipatzen du Jauna noiz iritsiko prest bizi direnentzat: zorion bat eta zoriontasun bat dago prest adi eta erne daudentzat gure bizitzara hurbiltzen direnei harrera egiteko, bedeinkazio bat dago inprobisatzen ez duen bihotz abegitsu horretan. Alderantzizkoa da zabar eta urduri bizitzea, unean uneko lilurak harrapaturik eta itsuturik. Jesusek, harrera iraunkorra bizitzera gonbidatu gaitu, hartua den konpromisoari aldi guztian estu eustera: eginkizun bat dela, hitz bat dela, adiskidetasun bat edo maitasun bat dela. Besteek zenbateraino edo nola maite gaituzten, honetatik aterako du: gure zain egoteko denbora hartzeko duten gaitasunetik. Zain ego-teak, leialtasuna eta konfiantza barea esan nahi du.

Urteko 19. astea.

Santa Joana Frantziska Chantalekoa, *erlijiosa, fundatzailea*  
*Salesko Frantziskorekin batean (Ahitza Bisitarien Ordena)*

[Deuteronomio Liburutik 10,12-22: Maita ezazue etorkina, zuek ere etorkin izan baitzineten. Sal 147 [146-147]: Jerusalem, ospa ezazu Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17,22-27.

Aldi hartan, Galilean zehar zebiltzala, esan zien Jesusek ikasleei: «Gizonaren Semea gizakien esku utziko dute; hil egingo dute, baina hirugarren egunean piztuko da». Ikasleak oso nahigabeturik gelditu ziren.

Kafarnaumera iritsi zirenean, tenplurako zerga biltzen zutenek Pedrorengana joan eta esan zioten: «Zuen maisuak ez al du tenplurako zerga ordaintzen?» «Bai», erantzun zien.

Pedro etxeratu zenean, Jesusek aurrean jarri eta esan zion: «Zer deritzozu, Simon? Munduko erregeek zeinengandik hartzen dituzte zergak edo kontribuzioak, etxekeengandik ala arrotzengandik?» Pedrok erantzun zion: «Arrotzengandik». Jesusek, orduan: «Etxekoak libre daude, beraz. Halaz guztiz ere, inori zeresanik ez emateko, zoaz itsasora, bota amua eta hartu lehenengo aterako duzun arraina; ireki iezaiozu ahoa, eta biren zerga ordaintzeko dirua aurkituko duzu. Hartu eta ordaindu zuri eta bioi dagokiguna».

**J**esus ez da baliatzen sekula jakinduriaz, bere garaiko arazoei itsasteari ihes egiteko. Bere garaikideei dagozkien arazoez hitz egiten du eta, lotura guztiak erlatibizatzen baditu ere, ez da irtetzen ezarritako esparrutik: egokitu zaizunari atxiki behar zatzaizkio, bizi zaren lekuko hiritar behar duzu izan eta aintzat hartu erabakitako arauak, baina ondo jakinik gure bizitza non dagoen errotua. Kontrako jokabidea, eliztar pribilegio batzuk dituzula uste izatea izango litzateke, gauza batzuetatik salbuesirik zaudela uste izatea, ez direla zuretzat beste batzuek jasaten dituzten «zergak». Hainbatetatik bat izan zen Jesus, eta izatera hartatik hots egin zuen eta salatu.

[**Deuteronomio liburutik 31,1-8:** Josue, izan bihotz eta adore; zeuk sarraziko duzu herria Jaunak agindutako lurraldera. **Salmo: Dt 32:** Israel bere herrizat aukeratu zuen Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,1-5.10.12-14.

Aldi hartan, hurbildu zitzaizkion ikasleak Jesusi eta galdetu zioten: «Nor da handiena zeruetako erreinuan?» Jesusek, haurtxo bati deitu, haien artean jarri eta esan zien: «Benetan diotsuet: Aldatu eta haurren antzeko bihurtzen ez bazarete, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Beraz, bere burua haur honen antzera apaltzen duena, hori da zeruetako erreinuan handiena. Eta honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau.

Kontuz! Ez dezazuela txiki hauetako inor gutxietsi! Zeren, egia esan, hauen aingeruak zeruko nire Aitaren aurpegia ikusten ari baitira etengabe zeruan.

Zer deritozue? Gizon batek ehun ardi baldin baditu eta bat galtzen bazaio, ez al da laurogeita hemeretziak mendian utzi eta galdutakoaren bila joango? Eta aurkitzen badu, benetan diotsuet, poz handiagoa izango du bakar harengatik, galdu ez diren laurogeita hemeretziengatik baino.

Era berean, zeruko zuen Aitak ez du nahi txiki hauetako bat ere galtzerik».

**A**tentzia ematen du Jesusek txikiez agertu duen arretak. Haur baten alderik funtsezkoena, zauritua ez badago, harritzeko eta konfiantza agertzeko duen gaitasuna da. Gizakiaren zinezko aldea haur izatera itzultzea da, askatzea norberagan xalotasunaren eta onberatasunaren iturriak. Haur batek dena du posible, egundoko eta mugarik gabeko prestasun-jarrera izan ohi du. Bakoitzarengan galdua den txikitasun edo xumetasun hori bilatzen du Jesusek, gaitasun hori, berriro hasteko gizon edo emakume garenongan, gudan berriro oihartzun izaten uzteko Jainkoaren biziari. Izan ere, Jainkoaren biziak ez du eragiten dardararik zurrun den hartan, baizik eta hauskor eta samur den hartan.

Urteko 19. astea.

San Maximiliano Maria Kolbe, *apaiza eta martiria*,  
*kaputxinoa.*

[Deuteronomio liburutik 34,1-12: Han hil zen Moises, Jaunak esan bezala. Ordudanik, ez da sortu Israelen Moises bezalako profeta-rik. Sal 66 [65]: Bedeinkatua Jainkoa, bizirik baitigu eutsi.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,15-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zure senideak bekatu egiten badu zure aurka, zoaz beragana eta zentzarazi bakarrean. Jaramon egiten badizu, irabazia duzu senidea. Jaramonik egiten ez badizu, berri-ri, har itzazu zeurekin lagun bat edo bi, auzia bi edo hiru lekukoren aitortpenaz erabaki behar da eta. Hauei ere jaramonik egiten ez badie, esaiozu elkarteari, eta elkarteari ere jaramonik egin nahi ez badio, izan bedi zureztat jentil edo zergalari baten pareko.

Benetan diotsuet: zuek mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuek mundu honetan askatua, zeruan ere askatua.

Beste hau ere badiotsuet: zuetako bik elkar hartzen badute mundu honetan Jainkoari zerbait eskatzeko, emango die zeruko nire Aitak. Izan ere, nire izenean bizpahiru lagun bilduak dauden tokian, han naiz Ni haien artean».

**E**z gara ausartzen anai-arreba arteko zentzarazpena egiten, ez dugu jakiten nola gauzatu ere. Ez dugu jakiten nola hartu ere, egiten digutenean. Izaten dira uneak, zeinetan ezin esaten ahal baitzaigu ezer, zeinetan ez baitugu onartzen gure jarduera bistan jarriko duen hitzik. Halaz guztiz, kateaturik jarraituko dugu, zentzarazpena praktikatua ezean. Aurrez aurrekotik besteek ematen ahal diguten laguntzara, beharrezkoa dugu geure burua besteen begi aurrean ipintzea, geure oker egotetik eta maitasunetik urruntzen gaituen hartatik atera gaitzaten, bizitza birkreatzen jarraitzeko. Maximiliano Kolbek bere bizia eman zuen beste bat bizi zedin; berak esana da: «soilik maitasuna da indar kreatzaile, soilik maitasunak du kreatzen».

Urteko 19. astea.

ANDRE MARIAREN ZERURATZEA.

Ondarroan, Antiguako Andra Maria.

Durangoan, Uribarriko Andra Maria. San Tarsizio, *martiria*.

### § Apokalipsia liburutik 11,19a; 12,1.3-6a.10ab.

Ireki zen Jainkoaren santutegia zeruan eta haren itun-kutxa agertu zen santutegian. Seinale handia agertu zen zeruan: emakume bat eguzkiz jantzia, ilargia oinazpian eta hamabi izarreko koroa buruan. Haurdun zegoen eta, erdimenez eta haurgintzako oinazez, garrasika ari zen.

Beste seinale bat ere agertu zen zeruan: herensuge gorri handi bat, zazpi buru eta hamar adar zituen, eta buruetan koroa bana. Bere isatsez zeruko izarren herena arrastaka hartu eta lurrera jaurti zuen. Herensugea, haurra izateko zegoen emakumearen aurrean gelditu zen, jaio orduko semea irensteko.

Emakumeak semea izan zuen, herri guztiak burdinazko makilaz gobernatuko dituen; hartu zuten semea eta Jainkoaren tronuraino eraman zuten. Emakumeak, berriz, basamortura egin zuen ihes; han leku bat prestatua zion Jainkoak.

Orduan, ahots handia entzun nuen zeruan esaten:

«Orain etorri dira gure Jainkoaren salbamena, indarra eta erregetza, eta beraren Mesiasen agintea».

[Sal 45 [44]: Zure eskuinean dago erregina, urre finez apaindua.]

### § Paulo santuak 1 Korintoarrei 15,20-27a.

Senideok: Piztu da Kristo hilen artetik, heriotzatik piztuko direnatan lehen-fruitu. Izan ere, heriotza gizon baten bidez etorri zen bezala, gizon baten bidez etorri da hildakoen piztuera ere. Eta Adamekin duten elkartasunagatik gizaki guztiak hiltzen diren bezala, Kristorekin duten elkartasunagatik guztiak itzuliko dira bizira.

Baina bakoitza bere garaian: lehenengo Kristo, lehen-fruitua denez; gero, Kristorenak, hau berriro etortzean. Gero, azkena izango da, Kristok, Jainkoaren kontrako nagusitza, aginte eta indar guztiak ezeztu ondoren, Jainko Aitari erreinua emango dionean. Kristok erre-

ge izan behar baitu, Jainkoak etsai guztiak haren oinazpian ipini arte. Azkena ezereztuko den etsaia heriotza izango da. Izan ere, «gauza guztiak haren menpean jarri ditu Jainkoak».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-56.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion.

Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

Mariak esan zuen:

«Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barrua, Jainkoa baita nire salbamena, ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna. Horregatik, dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, handiak egin baitizkit Ahalguztidunak; santua da haren izena, eta haren errukia gizaldiz gizaldi begirune diotenengana. Bere besoaren indarra erabili du, buru-harroak suntsitu ditu; bota ditu beren aukietatik ahaltsuak, eta gora jaso ditu ezerezak; ondasunez bete ditu gose zeudenak eta esku-hutsik bidali aberatsak. Lagun etorri zaio bere morroi Israeli, bere errukiaz oroiturik; hala zien gure gurasoei hitzemana, Abrahami eta ondorengoei betiko esana».

Mariak hiru hilabete inguru egin zuen Elisabetekin; gero, etxera itzuli zen.

**A**ndre Mariaren oinak, pozak arin, Elisabeten etxera oldartu dira. Konfiantzak hartuak diren bien artean barnekotasun bizia nabari da. Elkar agurtu dute, beren ahuldade emankorra besarkatuz, biak katea-

Urteko 19. astea.

**ANDRE MARIAREN ZERURATZEA.**

Ondarroan, Antiguako Andra Maria.

Durango, Uribarriko Andra Maria. San Tarsizio, *martiria*.

tzen eta errotzen dituen aitortpena eginez. Besteagan errotzeak ematen digu lurra hazten joateko. Elisabetek eta Mariak sabela eskaini dute, etxea, amatasuna. Bien arteko besarkada horrek etorriko diren guztiontzat prestatu ditu bien besoak. Etxea eskaintzeko eginak gara, aterpea emateko. Eguneroko gauzetan besteak besarkatu gabe eta norbera besarkatua izan gabe, elkortu egiten gara eta gogortu. Ezin hazi gara gizatasunean harreman saneagarriak zaindu eta eragin gabe. Guztiak harrapatzen gaituen eta etengabe konektaturik gauzkan bidegurutze birtualean, denboraren eta zentzumenen diziplina zaindu beharra dugu, «internet besarkatzeak» giza presentzia kamustu ez diezagun: begirada eta harremanak dira hurbilekoen behar dituztenak. Bizitzako teknifikazioak hurbiltasuna lapurtzen digunean, soilik xumetasunak eta aurrez aurrekotasunak berregin dezakete. Jasokundearen jaia Jainkoak Mariari eskaini dion behin betiko besarkada da; horrek bihurtu du betea Mariaren bizia, horrek bermatzen digu guztiontzat dela eskainia besarkada hori.



Andre Maria koroatua.  
Fra Angelico



Urteko 19. astea

San Esteban Hungariakoa, *erregea*.San Roke, *Martiria*.

[**Josue liburutik 24,1-13**: Eufrates ibaiaren bestaldetik hartu nuen Abraham, zuen aita; zuek Egiptotik atera zintuztedan eta lurralde bat eman nizuen. **Sal 136 [135]**: Eskerrak Jaunari, ona baita: Harren maitasuna betikoa baita.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,3-12.**

Aldi hartan, fariseu batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi eta, zertan harrapatuko, galdetu zioten: «Zilegi al zaio gizonari bere emaztea dozein arrazoiengatik uztea?»

Hark erantzun zien: «Ez al duzue irakurri Liburu Santuak dioena? Hasieratik Egileak gizaseme eta emakume egin zituela, alegia, eta esan zuela: “Horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu eta bere emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izango dira”. Beraz, aurrerantzean ez dira bi, bat baizik. Horrela, bada, Jainkoak bat egin duena ez beza gizakiak banatu».

Haiek galdetu zioten: «Zergatik eman zuen, bada, Moisesek dibortzio-agiria idatzi eta emaztea uzteko baimena?» Jesusek erantzun zien: «Zueen burugogorkeriagatik eman zizuen Moisesek emaztea uzteko baimena; baina hasieran ez zen horrela. Hau diotsuet: bere emaztea utzi –legearen kontra elkartuak ez badira behintzat– eta beste batekin ezkontzen denak, adulterioa egiten du».

Ikasleek esan zioten orduan: «Baldin horrelakoa bada senar-emaztearen arteko lotura, ez du merezi ezkontzea». Jesusek erantzun zien: «Ez dira denak hori onartzeko gai, Jainkoak gai egiten dituenak baizik. Batzuk ez dira ezkontzen, jaiotzaz ezin dutelako; beste batzuk giza eskuz ezinduak izan direlako; beste batzuk, berriz, zeruetako erreinuagatik hala erabaki dutelako. Onar dezakeenak onar beza».

**G**aur egun zail egiten zaigu iraupena, alde guztietan, eta, harremani dagokienez, gainbehera doan balorea da. Behin behinekotasuna, aldi-batekotasuna, iraungitasuna dira lehenesten ditugun hitzak. Hasia

Urteko 19. astea

San Esteban Hungariakoa, *erregea*.

San Roke, *Martiria*.

den zer bait erdizka ez uztea esan nahi du iraupenak, indar guztiez saiatzea eta azkena arte amore ez ematea bihotza jarri genuen hartan. Iraupen-jarrerak zerikusia du bideari eta hartutako erabakiari datxezkien zailtasunekin. Ez da egun batzuetako borroka, baizik eta une orotakoa da eta aro bakoitzekoa. Barne borroka da, eutsi ahal izateko promes egindakoari, denboran eta bizitasunez.

\* \* \*

### BAKEAREN ZERBITZARI

Jauna, egin nazazu zeure bakearen zerbitzari.  
Gorrotoa dagoen lekuan, erein dezadala maitasuna.  
Iraina dagoen lekuan, sorraraz dezadala barkamena.  
Haserrea dagoen lekuan, bila dezadala elkartasuna.  
Gezurra dagoen lekuan, maitarazi dezadala egia.  
Duda-muda dagoen lekuan, piztu dezadala fedea.  
Etsipena dagoen lekuan, ernearaz dezadala esperantza.  
Ilunpea dagoen lekuan, distiraraz dezadala argia.  
Tristura dagoen lekuan, sar dezadala poza.

(Asisko Frantzisko santuarena)

[Josue liburutik 24,14-29: Aukera ezazue gaur zein zerbitzatu. Sal 16 [15]: Zu zaitut, Jauna, ondasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,13-15.

Aldi hartan, haurrak eraman zizkieten Jesusi, haien gainean eskuak ezarri eta otoitz egin zezan; ikasleek, ordea, haserre egiten zieten. Jesusek esan zien: «Utzi haurrei nigana etortzen, ez galarazi, horrelakoena baita zeruetako erreinua». Eta, haurrei eskuak gainean ezarri ondoren, joan egin zen handik.

**B**ada Eduardo Galeanoren istorio gozagarri bat: Uruguaiar diktadurako maisu preso politiko batez dihardu. Igande batean bost urteko bere alaba Milayren bisita izan du. Txorien marrazki bat eraman du haurrak, eta zentsuratu egin diote. Hurrengo bisitan arbola batzuk eraman ditu; oraingoan utzi diote pasatzen. Aitak goratu egin dio marrazkia, eta adar artean arboletan nabari diren kolorezko biribil txikiez galdetu dio: «Laranja al dira? Zer fruitu dira?» Haurrak isiltzeko esan dio: «Sssh». Eta ahopetik adierazi dio: «Txorrea. Ez al duzu ikusten begiak direla? Ezkutuan ekarri ditudan txori-begiak».

Urteko 20. astea.

San Agapito, *martiria*.

Santa Juliana, *martiria*.

San Alberto Hurtado, *apaiza, jesuita*.

### § Jeremias profetaren liburutik 38,4-6.8-10.

Egun haietan, buruzagiek esan zioten erregeari: «Jeremias honek bizia zor du! Bere hitzez, herrian gelditzen diren gudariak eta herritar guztiak adoregabetu besterik ez du egiten. Ez da ari herriaren onerako, kalterako baizik».

Sedekias erregeak erantzun zien: «Zeuen esku duzue! Erregeak ez dezake ezer zuen aurka». Hartu zuten, beraz, Jeremias eta errege-familiako Melkias printzearen putzuan sartu zuten, sokaz jaitsez. Putzua kartzelako atarian zegoen eta ez zuen urik, lokatza baizik. Jeremias lokatzetan sarturik gelditu zen.

Ebed-Melek jauregitik erregeagana joan zen eta esan zion: «Errege jauna, gaizki jokatu dute gizon horiek Jeremias profetarekin; putzura bota dute, eta goseak hilko da bertan, ez baitago ogirik hirian».

Orduan, agindu hau eman zion erregeak Ebed-Melek etiopiarri: «Hartu zeurekin hiru gizon eta atera Jeremias profeta putzutik, hil baino lehen».

[Sal 40 [39]: Jauna, zatozkit azkar laguntzera!]

### § Hebrearrei egindako liburutik 12,1-4.

Senideok: Hainbat eta hainbat testiguz inguraturik gaudenez gero, utz dezagun oztopo zaigun guztia eta inguratzen gaituen bekatua, eta ekin diezaiogun etsi gabe aurrean dugun lasterketari. Jar ditzagun begiak sinesmenaren iturri eta betetzaille dugun Jesusengan. Honek ere, itxaro zuen zorionagatik, gurutzean hiltzea onartu zuen, heriotza lotsagarria zela kontuan hartu gabe, eta orain Jainkoaren tronuaren eskuinaldean eserita dago.

Izan ezazue, bada, gogoan bekatarien aldetik halako erasoaldia eraman zuen hura, adorea galdu eta etsi ez dezazuen. Oraindik ez zarete bizia galtzeraino iritsi bekatuaren aurkako zeuen borrokan.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,49-53.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Lurrean sua jartzera etorri naiz, eta nahiago nuke dagoeneko sutan balego! Heriotza-urean murgildu behar dut, eta hau larria hori bete arte!

Munduari bakea ekartzera etorri naizela uste al duzue? Bakea ez, banaketa baizik. Zeren hemendik aurrera, etxe bateko bost senideak banaturik egongo baitira: hiru biren kontra eta bi hiruren kontra; aita semearen aurka eta semea aitaren aurka, ama alabaren aurka eta alaba amaren aurka, amaginarreba errainaren aurka eta erraina amaginarrebaren aurka».

**S**ua pertsona bati begietan ikusi ohi zaio. Jesusena, zinez, biziki beroa zen, begiratu zionean lepragatik baztertua zen gizon hari, adulerioagatik kondenatua zen emakume hari, harreman guztietatik kanpo bizi zen emakume odoljariodun hari, uko egin ondoren Pedrori egin zion begiratu hura. Jesusek zeini bere erregalua egin zien begiratu hartan, berriro piztu ahal izan zuten haiek beren bizia. «Su kiskalgarria zen neure hezur artean, eta, atzera egin nahi izan nion arren, ezin izan nuen» (Jeremias 20,9). Suak hartzen gaituenean, ez dugu izaten zer ezkutaturik, eta, hain juxtu, kanporatu nahi izaten ditugun geure bizitzako gai haiek, arbuigarrientzat jotzen ditugun haiek, bihurtzen dira ustekabeen beharrezko gai garra biziartzeko. Geure pobretasunean eta biluztasunean hartzen du su. Behin su hartuz gero, egiteko guztia Suarena da, eta geure burua beraren esku uztea izaten da gure egitekoa, aurka ez jartzea, egin gaitzan uztea. Orduan ulertu ahalko dugu elkar, begirunea erakutsiz ulertu ahalko ditugun gauzetan, baita beti ezezagun geldituko zaizkigun haietan ere, eta odolarena baino lotura indartsuagoak agertuko zaizkigu.

Urteko 20. astea.

San Joan Eudes, *apaiza, fundatzailea (eudistak)*.Ezeziel Moreno Santua, *gotzaina (Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan)*.

[Epaileak liburutik 2,11-19: Jaunak buruzagiak sorrarazi zituen, baina israeldarrek ez zieten kasurik egin buruzagiei ere. Sal 106 [105]: Oroitu gutaz, Jauna, zeure herriaganako onginahiagatik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,16-22.

Aldi hartan, gazte batek Jesusengana hurbildu eta esan zion: «Maisu, zer onik egin behar dut betiko bizia eskuratzeko?» Jesusek erantzun zion: «Zergatik galdetzen didazu onari buruz? Jainkoa bakarrik da ona. Betiko bizian sartu nahi baduzu, bete aginduak».

Hark, berriz: «Zein agindu?» Eta Jesusek: «Ez hil inor, ez egin adulteriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, hartu aintzat aita-amak, eta maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala». Gazteak, orduan: «Hori guztia bete dut; zer falta dut oraindik?» Jesusek erantzun zion: «Gutziz ona izan nahi baduzu, zoaz, saldu zeure ondasunak eta eman behartsuei, eta altxorra izango duzu zeruan; gero, zatoz eta jarraitu niri».

Hitz hauek entzutean, nahigabeturik joan zen gaztea, ondasun handien jabe baitzen.

**T**arteka, erreparatzen diet pertsona batzuei, aurpegira begiratu; errespetua merezi duten pertsonak izaten dira, aspalditik jendeari emanak, baina itxiak ikusten ditut, dirdirarik gabeko bezala, barnean zama tzar bat balute bezala, errealitatearen dardaraz jabetzen uzten ez dien zama tzar bat bezala. Lan asko izaten dute beti egiteko, eta besteek egiten ez dutela kexatzen dira. Ematen du, bizia astun gertatzen zaiela eta batzuetan mehatxu; hondo-hondoan ez dira ageri batere alai, nahiz eta batzuek beren bizia eman duten Maisuari jarraitzen. Nondik nora ihes egiten digu altxorraren pozak, bera lortzeko behin batean dena saldu baikenuen? Ez ote zaigu gertatu, bidean beste jabetza batzuek zamatugula geure burua?

Urteko 20. astea.

San Bernardo, *abadea eta eliz irakaslea*.  
San Samuel, *Israelen epailea eta profeta*.

[Epaileak liburutik 6,11-24a: Gedeon, aska ezazu Israel. Nik bidaltzen zaitut! Sal 85 [84]: Jaunak bakea agintzen dio bere herriari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,23-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Benetan diotsuet: aberatsa nekez sartuko da zeruetako erreinuan. Berriro diotsuet: jostorratzaren begitik gamelua igarotzea errazago, aberatsa Jainkoaren erreinuan sartzea baino».

Hitzok entzutean, ikasleek, zeharo harriturik, honela zioten: «Nor salba daiteke, orduan?» Jesusek begira-begira jarri eta esan zien: «Gizakiarentzat ezinezkoa da hori, baina Jainkoak dena dezake».

Orduan, Pedrok esan zion: «Hara, guk dena utzi dugu, zuri jarraitzeko. Zer izango da guretzat?»

Jesusek erantzun zien: «Benetan diotsuet: Jainkoak mundu hau eraberritzean eta Gizonaren Semea bere aintzazko tronuan esertzean, zuek ere, nire jarraitzaileok, hamabi tronutan eseriko zarete, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko. Eta nigatik etxea, senideak, aita, ama, seme-alabak edota lurrak uzten dituenak, ehun halako hartuko du eta betiko bizia jasoko ondare.

Orain lehenengo diren asko azkeneko izango dira, eta orain azkeneko direnak lehenengo».

**E**z da izaten inportantziarik gabea bizi garen lekua, ezta bidean ikusten ditugun aurpegiak ere. Egunean eguneko paisaiak gure sentiberatasuna moldatuz joan ohi dira. Aberastasun materialak begiak gantuzten badizkigu erreinua ez sumatzeko, aberastasun espiritualak gailenago edo goragoko sentiarazten gaitu eta kontuak eskatzera eragiten digu: «zer izango da guretzat?» Clairvauxko San Bernardok utziak zituen etxea, gurasoak eta anai-arrebak; baina monasterioan gertatu orduko artean zerbait gehiago utzi beharra zuela sentitu zuen, Jainkoa era beteagoan hartzeko; izan ere, sumatu zuen, Jainko ez diren beste gauzek betetzen ahal dituztela gizakiaren arima eta bihotza, baina ase ez.

Urteko 20. astea.

San Pio X.a, 257. *aita santua*.

San Bonoso eta San Masimiano, *martiriak*.

[Epaileak liburutik 9,6-15: Erregea nahi dugu agintari, esaten ari zarete, Jauna errege duzuelarik. Sal 21 [20]: Jauna, zure indarrak poztan da erregea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20,1-16.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin mahasti-nagusiarekin bezala gertatzen da. Goizean goiz bere mahastirako langile bila atera zen. Egunekeo lansaria zilarrezko txanpon batean hizketatu ondoren, mahastira bidali zituen langileak.

Goizeko bederatzia aldera berriro atera zen eta, beste batzuk plazan lanerako zain ikusirik, esan zien: “Zoazte zuek ere nire mahastira eta ordainduko dizuet bidezko dena”. Eta haiek ere joan ziren. Atera zen berriro hamabiak aldera eta hirurak aldera, eta gauza bera egin zuen. Arratsaldeko bostak aldera ere atera zen eta, beste batzuk oraindik geldirik aurkiturik, esan zien: “Zertan zaudete hemen egun osoan lanik egin gabe?” Haiek erantzun zioten: “Ez gaitu inork hartu lanerako”. Hark, orduan: “Zoazte zuek ere nire mahastira”.

Iluntzean mahasti-nagusiak esan zion arduradunari: “Deitu langileei, eta emaiozu bakoitzari bere soldata, azkenekoetatik hasi eta lehenengoetara”. Etorri ziren, bada, arratsaldeko bostetakoak, eta zilarrezko txanpon bana hartu zuten. Lehenengo ordukoek, txanda iritsi zitzaizenean, besteek baino gehiago hartuko zutela uste zuten; baina berek ere zilarrezko txanpon bana hartu zuten.

Orduan, nagusiaren kontra gaizki esaka hasi ziren, eta esan zioten: “Azkeneko hauek ez dute ordubete besterik lan egin, eta gurekin parekatu dituzu, egun osoko nekea eta beroa jasan dugunokin”. Baina nagusiak erantzun zion haietako bati: “Adiskide, ez dizut bidegabekeriarik egiten. Ez al ginen zilarrezko txanpon batean hizketatu? Tori dagokizuna eta zoaz. Zuri bezainbat eman nahi diot azkeneko honi ere. Ezin ote dut neure diruaz nahi dudana egin? Ala inbidia duzu, ni ona naizelako?”



Horrela, bada, azkenekoak lehenengo izango dira eta lehenengoak azkeneko».

**E**ntzuten urte asko daramagun arren, istorio honek beti eragiten digu nahasmendua bezalako zerbait: Jainkoaren neurrigabetasuna eta erabateko askatasuna agertu dizkigu Jesusek. Zuzena al deritzogu horrela jokatzeari? Ba, ikusi egin behar; lehen ordukoen larruan jartzen bagara, ezin ulertuko dugu: ez al dugu merezi lan gutxiago egin dutenek baino gehiago? Baina azken orduan iritsi direnen larruan jartzen bagara, harriduraren harridurak harrituko gaitu, merezi gabeko sari hori dela eta. Giltza, Jainkoaren onberatasunaren aurrean nola jartzen garen da. Gure bizitza bekaizkeriaren eta esker onaren artean kulunkatzen da.

\* \* \*

Oi Jainko Maisua,  
egizu ez nadila saiatu  
ni nork kontsolatuko bila,  
baizik nik nor kontsolatuko.

Ez nadila saiatu  
niri nork harrera ona egingo bila,  
baizik nik nori egingo.

Ez nadila saiatu  
ni nork maitatuko bila,  
baizik nik nor maitatuko.

Izan ere, besteri ematean, orduan dugu hartzen.  
Besteri barkatzean, orduan digute barkatzen.  
Geure gizaki zaharra hiltzean,  
orduan gara jaiotzen betiko bizira.

*(Asisko Frantzisko santua)*

Urteko 20. astea.

Andre Maria Birjina Erregina.

San Fabrizio eta Filiberto, *martiriak*.

[Andre Mariaren MEZA: Isaias 9,2-4.6-7. Sal 113 [112],1-2.3-4.5-6.7-8. Jesu Kristoren Ebanjelioa Lukasen liburutik 1,26-38.]

[Epaileak liburutik 11,29-39a: Ongietorria egitera etxetik aterako zaidan lehenengoa Jaunarentzat izango da eta erre-opari eskainiko diot. Sal 40 [39]: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22,1-14.

Aldi hartan, Jesusek berriro parabola bidez hitz egin zien apaizburuei eta herriko zaharrei:

«Zeruetako erreinuarekin bere semearen ezteiak ospatu zituen erregearekin bezala gertatzen da. Bidali zituen morroiak gonbidatuei dei egitera, baina haiek ez zuten etorri nahi izan.

Berriro beste morroi batzuk bidali zituen mandatu honekin: “Esaiezue gonbidatuei: Hara, gertu daukat bazkaria; hilak ditut zezenak eta zekor gizenduak, prest dago dena. Zatozte ezteietara”. Baina gonbidatuek ez zioten jaramonik egin: bata bere lurretara joan zen, bestea bere negoziotara eta gainerakoek, morroiei heldurik, irainez bete eta hil egin zituzten.

Haserretu zen erregea eta, bere soldaduak bidaliz, hil egin zituen hiltzaile haiek, eta su eman haien herriari.

Gero, bere morroiei esan zien: “Ezteiak prest daude, baina gonbidatuak ez ziren gai. Zoazte, bada, bidegurutzeetara eta deitu ezteietara aurkitu ahala guztiak”. Atera ziren morroiak bideetara eta aurkitutako guztiak bildu zituzten, on nahiz gaizto. Eztei-gela bazkaltiarrez bete zen.

Erregeak, bazkaltiarak ikustera sartu zenean, eztei-jantzirik gabe zegoen bat ikusi eta esan zion: “Adiskide, nolatan sartu zara hona eztei-jantzirik gabe?” Hark hitzik ez. Erregeak mahai-zerbitzariei esan zien, orduan: “Esku-oinak lotu eta bota ezazue kanpora, ilunpera; han izango da negarra eta hortz-karraska!” Zeren gehiago baitira deituak, aukeratuak baino».

Urteko 20. astea.

Andre Maria Birjina Erregina.

San Fabrizio eta Filiberto, *martiriak*.

**E**sker txarraz mintzo zaigu parabola hau. Aintzat hartua ez den gonbit batez, zapuztua izan den eskuzabaltasun batez. Gonbidatuek uko egin diote jai-otordura joateari; halere, erregeak ez du atzera egin, eta aurkitu dituen guztiak gonbidatu ditu. Orduan atentzioa ematen duen zerbait gertatu da; zer esan nahi du mahaikideetako bat jai-jantzirik gabe sartu izanak? Gonbit bat eskertzeko modua, jantzi hobere naz parte hartzea izaten da, ospatzen den hura handietsiz. Seme gazteena bikain jantzi du aitak. Jai-jantzirik gabe parte hartu nahi izateak aintzat ez hartzea esan nahi du gonbidatzailearen doakotasuna, eta ez bide ematea haren errukia ederresteari.

\* \* \*

### ANDRE MARIA ZERURATZEA

Ebanjelariak, Ama Maria aurkeztean, Jesusen Amaganako gure debozioa errepiztu dezaketen moduko ezaugarriez horniturik agertu digute. Ikuspegi horrek Maria maitatzen laguntzen digu, hartaz go-goeta egiten, hura imitatzen, hari otoitz egiten, harengan konfiantza izaten, espiritu berriaz eta ebanjelikoagoaz.

Fededun handia da Maria. Jesusen lehen jarraitzailea. Bere Semearen egintzak eta hitzak bihotzean hausnartzeko gai izan den emakumea. Semeak iragarri duen eta pobreen salbatzailea den Jainkoa kantatu duena. Ama leiala, bere Semea pertsegitua, gaitzetsia, gurutzean josia izan denean haren ondoan jarraitu duen Ama. Kristo berpiztuaren lekukoa, ikasleekin batean Espirituari, Jesusen Elizak beti bidelagun izaneren duen Espirituari, ongi etorri egin diona. (*J.A. Paganaren Homilia batetik*)

Urteko 20. astea.

Santa Arrosa Lima-koa, *birjina*.

San Joan Leskar-ekoa, *gotzaina* (*Baionako elizbarrutian*).

San Zakeo Jerusalemekoa, *gotzaina*.

[Rut liburutik 1,1. 3-6. 14b-16. 22: Itzuli zen Noemi Rutekin, bere errain moabdarrekin, eta Betleemera iritsi ziren. Sal 146 [145]: Goretzazu Jauna, ene barrena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22,34,40.

Aldi hartan, Jesusek saduzearrak hitzik gabe utzi zituela jakitean, elkarrekin bildu ziren fariseuak, eta haien arteko lege-gizon batek azpikeriaz galdetu zion Jesusi: «Maisu, zein da legeko agindurik nagusia?»

Jesusek erantzun: «Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz eta adimen guztiz». Hau da agindurik nagusiena eta lehena. Eta bigarrena horren parekoa da: «Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala». Bi agindu hauetan oinarritzen dira Liburu Santu guztiak».

**M**adeleine Delbrek –poeta eta gizarte-langile– Parisko auzo behartsu batean ainguratu zuen bere bizitza, Mateoren ebanjelioko hitz hauek han itsasten utziz. «Maitasun ikusezinaz» mintzatu ohi zen. Elkarrekin loturik eta egundoko naturaltasunez bizi izan zituen bizitzan alderdi mistikoa eta profetikoa: Jainkoagan itsatsitako esperientzia eta zuzentasunaren zentzua eguneroko sarean; honi, «lagun hurkoarekiko etengabeko klausura» deitu ohi zion. Uste zuen bizitzako bidaiak zeruertz bakarria duela: alegia, geugan bidea irekitzea maitasun ekintzaille, eskuzabal eta neurritz gaindikoari... eta besteengana eramatea.

## § Apokalipsia liburutik 21,9b-14.

Aingeru batek esan zidan: «Zatoz, emaztegaia erakutsi behar dizut, Bildotsaren emaztea». Hartu ninduen aingeruak eta mendi handi eta garai batera eramanez ninduen espirituz; Jerusalem hiri santua erakutsi zidan, zerutik Jainkoagandik jaisten, Jainkoaren aintzaz dir-daitu. Haren distira harribitxi eder baten antzekoa zen, jaspe harria bezain gardena.

Harresi sendo eta garaia zuen, hamabi atekoa, eta ate gainetan hamabi aingeru eta hamabi izen idatziak, israeldarren hamabi leinuen izenak. Hiru ate ekialdera zeuden, hiru iparraldera, hiru hegoaldera eta hiru mendebaldera. Hiriko harresiak hamabi oinarri zituen, eta haue-tan idatziak Bildotsaren hamabi apostoluen izenak.

[Sal 145 [144]: Zure fededunek ager dezatela, Jauna, zure erregetza-ren bikaintasuna.]

## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,45-51.

Aldi hartan, Felipek Natanael aurkitu zuen, eta esan zion: «Moise-sek legearen liburuan eta profetek beren idazkietan aipatu zutena aurkitu dugu: Jesus, Joseran semea, Nazaretekoa». Natanaelek esan zion: «Naza-retetik atera ote daiteke ezer onik?» Felipek erantzun: «Zatoz eta ikus».

Jesusek Natanael beregana etortzen ikusi eta esan zuen: «Hona he-men egiazko israeldarra, faltsukeriarik gabea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?» Jesusek erantzun: «Felipek zuri dei egin baino lehen, pikupean zinela, ikusi zintudan».

Natanaelek erantzun zion: «Maisu, Zu Jainkoaren Semea zara; Zu Israelgo erregea zara». Jesusek erantzun: «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako, sinesten al duzu? Handiagorik ere ikusiko duzu». Eta esan zion, gainera: «Egi-egiaz diotsuet: Zerua zabalik ikusiko duzue eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera Gizonaren Semearen gain».

Urteko 20. astea.

SAN BARTOLOME, APOSTOLUA.

**J**esusekiko lehen harremana topo egite pertsonalen bidez gauzatzena da. Norberak izan duen esperientziak agertzen dizkie besteei Jainkoaren hurbiltasuna eta txera. Natanaelen errezeloak eta guzti –beraren garaiko baldintzek eta aurreiritziek elikatuak– espero ez duen aldetik etorri zaio Jauna. Honek digu aurrea hartzen. Berea izan ohi du ekintza. Beraren maitasuna aurreratu egiten zaio gure baietzari: «Lehenago... ikusi zintudan». Gu konturatu aurretik, guk merezi gabe, guk ordainez erantzun ahal baino lehen; askoz lehenago... norbaitek gogoko gintuen, eta bilatzen.

\* \* \*

### SAN BARTOLOME APOSTOLUA

Pio V.aren egutegian abuztuaren 24a jarri zuten jai hau ospatzeko eguna. Bartolome eta Natanael pertsona bakarraren izena direlako tradizioa oso zabaldua dago. Natanaeli buruz Jesusek esan zuen: «Hona benetako israeldar bat, faltsukeriarik gabea». Eta Natanaelena da aitorten hau: «Maisu, zu Jainkoaren Semea zara, zu Israelgo erregea zara». Aipamen hauetaz aparte, San Bartolomez ez dakigu liburu apokrifiko batzuek diotena baizik: Mendebaldeko Indiara joan zela (Eusebio), Etiopiarra joan zela (Rufinok eta Sokratesek), Mesopotamia aldean edota Likaonia eta Frigia inguruan –gaur egun, Turkia ekialdean– zabaldu zuela Ebanjelioa (Feliperen Eginak), baita Armenian ibili zela ere (Apostoluen Breviariumak).

San Joan Krisostomoren esaldi honek bere tokian ezartzen du San Bartolomeri leporatzen zaion ebanjelizazio-lan handia: «Zeren ez filosofoak, ez maisuak, ez giza gogoia izango ziren gai zergalari eta arrantzale lau batzuk egin zutena imajinatzeko». Jai honek apostolutar elizaz gogoeta egiteko aukera dakarkigu.

Urteko 21. astea.

San Luis Frantziakoa, *erregea*.San Jose Calasanz, *apaiza, fundatzailea (eskolapioak)*.

## § Isaias Profetaren liburutik 66,18-21.

Hau dio Jaunak:

«Ezagutzen ditut Nik gaiztoen egintzak eta asmoak, eta herri eta hizkuntza orotako jendea biltzera etorriko naiz; haiek etorri eta nire aintza ikusiko dute.

Ezaugarri bat emango diet; beraien artean bizirik gelditutako batzuk bidaliko ditut nazioetara; Tarsis, Etiopia eta Lidiara, Mexek, Tubal, Greziara eta urrutiko herrietara, inoiz nire berri izan ez duten eta nire aintzarik ikusi ez dutenengana.

Eta nire aintza iragarriko dute nazioetan. Atzerriko nazio guztietatik ekarriko dituzte, Jaunarentzat opari gisa, zuen senide guztiak; zaldi, gurdi eta ohatiletan, mando eta dromedarioetan ekarriko dituzte Jerusalemgo nire mendi santura –dio Jaunak–, israeldarrek beren opariak Jaunaren etxera ontzi garbietan ekartzen dituzten bezala.

Eta haien arteko batzuk ere aukeratuko ditut apaiz eta lebitar izateko –dio Jaunak–».

## Sal 117 [116]: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.]

## § Hebrearrei liburutik.

Senideok: Ahaztu egin duzue seme-alabei bezala ematen zaizuen aholkua:

«Ene seme, ez baztertu Jaunaren zentzaldia, ezta galdu ere adorea, haserre egiten badizu, maite duena baitu Jaunak zentzarazten eta seme-alabatzat hartzen duena du zigortzen».

Jasaten duzuen zuek zentzarazteko da; Jainkoak seme-alaba bezala tratatzen zaituzte. Izan ere, zein seme nahiz alaba ez du aitak zentzarazten?

Egia esan, edozein zentzabide, momentuan, mingarri da, ez pozgarri; baina, gerora, haren bidez hezitakoei bere fruituak ekartzen dizkie:

Urteko 21. astea.

San Luis Frantziakoa, *erregea*.

San Jose Calasanz, *apaiza, fundatzailea (eskolaioak)*.

bakea eta zuzentasuna. Jaso itzazue, beraz, esku eroriak eta belaan ahulduak, eta ibil zaitezte bide zuzenean, herrenaren hanka hautsi ez dadin, sendatu baizik.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13, 22-30.

Aldi hartan, Jesusek, Jerusalemara bidean zihoala, igarotzen zieten herri eta auzoetan irakasten zuen.

Batek esan zion: «Jauna, gutxi al dira salbatzen direnak?» Jesusek erantzun zion: «Saia zaitezte ate estutik sartzen. Egiaz esan, asko sartu nahi izango du, baina ezin izango da sartu. Etxeko jaunak jaiki eta ate itxiz gero, kanpoan geldituok ate joka hasiko zarete: “Ireki, Jauna!” Baina hark erantzungo dizue: “Ez dakit nongoak zareten”.

Zuek, orduan, honela hasiko zatzaizkiote: “Zurekin jan eta edan izan dugu, eta Zuk gure plazetan irakatsi izan duzu”. Baina hark erantzungo dizue: “Ez dakit nongoak zareten. Alde nigandik, gaizkileok!”

Orduan, negarra eta hortz-karraska izango da, Abraham, Isaak eta Jakob eta profeta guztiak Jainkoaren erreinuan ikustean, zeuen burua, berriz, jaurtia. Asko etorriko dira sortaldetik eta sortaldetik, iparretik eta hegotik, eta Jainkoaren erreinuko mahaian eseriko dira. Begira: orain azkeneko den zenbait lehenengo izango da, eta lehenengo den zenbait azkeneko».

**J** jaunaren istorioek, zeinetan eskatzaile zorrotz agertzen baita, beraren maitasunaren handia sumatzera eramane ohi naute. Bere bizia alferrik galtzen ari den baina asko maite dugun pertsona bat zirikatzen dugunean bezalatsu da; astindu bat eman nahi izaten diogu erreakziona dezan eta esna dadin. Uste dut, horrelako zerbait egiten duela Jesusek esaten digunean «ez dakit nor zareten». Baina ez al garamatza, ba, bere esku ahurrean tatuaturik, ez al gara, ba, eder-eder beraren begientzat! Hain juxtu, horregatik esnarazi nahi gaitu, berak ireki digun atetik urrundu ez gaitzen. Pasatzeko estua den ate hori egunean egu-



Urteko 21. astea.

San Luis Frantziakoa, *erregea*.San Jose Calasanz, *apaiza, fundatzailea (eskolapioak)*.

neko biziera errukitsua da, txikienak zaintzen dituen bizitzeko era bat, Jainkoari dei egiteaz konformatzen ez den biziera, baizik eta nork bere bizitzaz munduarekiko hark duen maitasuna luzatzen duena. Ez ospatzea (jan eta edan) eta esatea (irakatsi) bakarrik, baizik era jarduera gupidatsua, besteengana hurbiltzeko era guztiz gizakoia. Hainbat jende dago, Jainkoaren izena aipatu gabe ere, izen hori ezagutu gabe ere, on eginez eta jendea saneatuz bizi dena! Jesusentzat ez du balio itxurak, baizik eta bihotzaren hondoa egosten denak, batez ere azkenak direla uste dugunen aurrean jokatzeko moduak.

\* \* \*

### ZORIONTASUNAK SINTETIZATURIK

(«Gaudete et exultate» erregu apostolikoan)

1. Pobretasuna (67-70 zenb.): «Bihotzez pobre izatea; hau santutasuna da».
2. Oztantasuna (71-74 zenb.): «Otzan eta apal erreakzionatzea; hau santutasuna da».
3. Bihotzez negar egin (75-76 zenb.): «Besteekin negar egiten jakitea; hau santutasuna da».
4. Zuzentasunaren gose-egarri (77-79 zenb.): «Zuzenaren bila ibiltzea; hau santutasuna da».
5. Errukia (80-82 zenb.): «Errukiz begiratu eta jokatzeko: hau santutasuna da».
6. Bihotz xumea (83-86 zenb.): «Bihotzari garbi eustea: hau santutasuna da».
7. Baketsuak (87-89 zenb.): «Geure inguruan bakea ereitea: hau santutasuna da».
8. Pertsegituak (90-94 zenb.): «Ebanjelioaren bidea onartzea: hau santutasuna da».

(*Marciano Vidal, Una espiritualidad evangélica, Vida Nueva 3.086. zenb.*)

Urteko 21. astea.

Santa Teresa Jesusena Jornet eta Ibars, *birjina* (*Adin handikoen Zaindaria*). Santa Joana Elisabet Bichier des Âges, *birjina, fundatzailea* (*Gurutzearen Alabak*).

[San Paulok 1 Tesalonikarrei 1,1-5.8b-10: Sasijainkoak utzirik, Jainkoagana itzuli zineten, Jainkoak hildakoen artetik piztu zuen bere Semearen zain egoteko. Sal 149: Maite du Jaunak bere herria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23,13-22.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Jendeari zeruetako erreinuko sarrera ixten diozuenok! Zeuek ez zarete sartzen eta sartu nahi dutenei ez diezue uzten.

Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Baten bat judu berri egiteagatik itsaso eta lehor zabiltzate eta, egin duzuenean, zeuek baino bi aldiz gaiago bihurtzen duzue infernurako.

Ai zuek, gidari itsuok! Honela irakasten duzue: “Tenpluagatik zin egiteak ez du baliorik; tenpluko urreagatik zin egiteak, ordea, behartu egiten du”. Zoro itsuok halakook! Zer da handiago, urrea ala urrea sagaratzten duen tenplua? Beste hau ere irakasten duzue: “Aldareagatik zin egiteak ez du baliorik; aldare gaineko opariagatik zin egiteak, ordea, behartu egiten du”. Itsuok halakook! Zer da handiago, oparia ala oparia sagaratzten duen aldarea? Aldareagatik zin egiten duenak, aldareagatik eta gainean dagoen guztiagatik egiten du zin; tenpluagatik zin egiten duenak, tenpluagatik eta bertan bizi den Jainkoagatik egiten du zin; zeruagatik zin egiten duenak, Jainkoaren tronuagatik eta bertan eserita dagoenagatik egiten du zin».

**Z**oritzarrak dira Erreinuko zorionaren aurkia (kontrako aldea). Uste izan genezake, horiek ez direla guretzat. Joera dugu, izan ere, besteren begian zahia ikusteko; baina hitz hauek zizelak bezala jo beharko lukete gure bihotzaren zati gogortuan, geure burua segurutzat ematen duten geruza horietan, jende onaren aldean jartzen gaituzten horietan; izan ere, horrek guztiak besteei zeharka begiratzera eramaten gaitu eta gure neurrikoa ez den guztia maiseatzera. Oharpen bat da ebanjelioa hau, barnea jaten duen hipokresiaren indarraz.

Urteko 21. astea.

Santa Monika, *aitorlea*.San Lizerio, *gotzaina*.

[San Paulok 1 Tesalonikarrei 2,1-8: Prest ginen, Jainkoaren Berri Ona ez ezik, baita geure bizia ere zuei emateko. Sal 139 [138]: Jauna, Zuk aztertzen nauzu eta ezagutzen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23,23-26.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Barazkirik kaxkarrenen hamarrenak ordaintzen dituzue; legeko gauzarik garrantzizkoenak, berriz, zuzenbidea, errukia eta leialtasuna, bazterrera uzten. Hauek bete behar zenituzten, haiek baztertu gabe. Gidariitsuok! Eltxoa iragazten duzue, eta game-lua irensten!

Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Edalontzia eta platea kanpotik garbitzen dituzue, barrutik lapurretaz eta gutiziaz beterik dauden bitartean. Fariseuitsu hori! Garbi ezazu lehenik edalontzia barrutik, kanpotik ere garbi geldidadin».

«**Z**uzenbidea, gupida eta egiatasuna»: bai bizi-egitasmo bikaina. Oinarrizko hiru harremani dagokie: gure jarduerari gizartean, gure harremanei hurkoarekin eta nork bere buruarekiko jarrerari. Horietan jokatzeko dugu, funtsean, Jainkoarekiko geure harremana. Beraren laguntzarekin hirukote hori gauzatu eta zuzen, gupidatsu eta egia bihurtzen goazkeen neurrian joango da garbitzen gure kopa barrutik. Baina gure ibilia bide horretatik urruntzen bada, kanpoan Jesusen jarraitzaile agertu arren, aldentzen joango gara apurka-apurka haren-gandik eta haren egitasmotik.

Urteko 21. astea.

San Agustin, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

Santa Florentina Cartagenakoa, *abadesa*.

[San Paulok 1 Tesalonikarrei 2,9-13: Gau eta egun egin genuen lan Berri Ona hots egin genizuenean. Sal 139 [138]: Jauna, Zuk aztertzen nauzu eta ezagutzen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23,27-32.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Hilobi zurituen antzeko zarete: kanpotik itxura ederrekoak, baina barrutik hil-hezurrez eta ustelkeriaz beteak! Zuek ere honelakoak zarete: kanpotik zintzoak jendearen aurrean, baina barrutik itxurakeriaz eta gaiztakeriaz beteak.

Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Profeten hilobiak eraikitzen eta gizon zintzoen hilarriak apaintzen dituzue, esanez: “Gure arbasoen egunetan bizi izan bagina, ez genukeen parterik hartuko haiekin profeten hilketan”. Horrela, zeuek aitortzen duzue profetak hil zituztenen ondorengoak zaretela. Bete, bada, zeuek ere zuen gurasoen egintza gaiztoen neurria!».

**B**ihotz egia-urruti eta gogorra, Jainkoak ezin jasan du. Jesusek erne jarri gaitu anesthesiaren aurka: besteak baino hobeak gabela uste izatera eraman gaitzakeela, itxura ona balioztatzeraz, eta garrantzi handia eman dio barnekoa eta kanpoko bereizteari. Ikusten dena eta zinez garena bereizteari. Haponako Agustinek bihotza urratzen ari zitzaizola sentitu zuen, Jainkoari gainezka zerion maitasunak bere biziera barreriatua estu hartzen zuela sumatzean, eta negar egin zuen gaitzarekiko bizi zuen itsutasunaz eta konplizitateaz. Soilik, hartutako errukiak sa-neatzen du gure bihotz tematia. Soilik, Jainkoaren adiskidetasunaren esperientziak itzultzen ahal digu bihotz egia.

[San Paulok 1 Tesalonikarrei 3,7-13: Jaunak gero eta handiago egin dezala zuek elkarrentzat eta denentzat duzuen maitasuna. **Sal 90 [89]:** Zeure maitasunaz ase gaitzazu, Jauna, poztu gaitezen zugan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,17-29.

Aldi hartan, Herodesek Joan harrapatu eta kartzelan lotua zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Feliperen emaztea zen Herodias, baina Herodesek bere emaztetzat hartua zuen, eta Joaneke esaten zion: «Ez zaizu zilegi zeure anaiaren emaztea edukitzea».

Horregatik, gorroto zuen Herodiasek Joan eta hil egin nahi zuen, baina ezin, Herodesek begirune baitzion Joani; gizon zuzen eta santutzat zeukan, eta babestu egiten zuen. Joanen hitzek kezkarik sortzen bazioten ere, gogoz entzuten zion.

Etorri zitzaion, ordea, Herodias aukerako eguna: Herodesek, bere urtebetetzean, afaria eman zien agintari, gudaiburu eta Galileako handikiei. Sartu zen jantokian Herodiasen alaba eta dantzan egin zuen, eta atsegin izan zitzaion Herodesi eta mahaikideei. Orduan, erregeak esan zion neskatxari: «Eskatu nahi duzuna, eta emango dizut». Eta zin eginez agindu zion: «Eskatu ahala guztia emango dizut, nire erreinuaren erdia bada ere». Atera zen neskatxa eta bere amari galdetu zion: «Zer eskatuko diot?» Amak erantzun: «Joan Bataiatzailearen burua».

Itzuli zen arin-arin erregeagana eta eskaria egin zion: «Emadazu oraintxe bertan Joan Bataiatzailearen burua azpilean». Goibel jarri zen erregea, baina mahaikideen aurrean egindako zinagatik, ez zion ukatu nahi izan. Berehala, bere guardiako bat bidali zuen, Joanen burua ekartzeko aginduz. Joan zen hura kartzelara eta lepoa moztu zion, eta azpilean ekarri zuen burua; neskatxari eman zion, eta neskatxak amari.

Joanen ikasleak, hori jakitean, haren gorpua jasotzera etorri eta hilobian ehortzi zuten.

\* San Adelfo, *martiria*. Santa Sabina, *martiria*.

**E**z ditugu ezagutzen Joan Bataiatzailearen azken hitzak. Soilik dakigu, –kanpoko eraginengatik eta itxurari eusteagatik– bizia kendu zion hark gizon ondradu eta santutzat zeukala. «Martiri» hitzak lekuko edo testigu esan nahi du. Joanen martiritza ohoratzeak, Jesusengatik bizia eman duten gizon-emakume guztiak ohoratzea esan nahi du; halaber, Frantzisko aita santuaren hitzetan begi aurrean dugun «eguneroko martiritza» hori ohoratzea da: «heriotzarik ez dakarrena, baina bai Kristogatik “bizia galtzea”, nork bere egitekoa maitasunez betez, Jesusen logikaren arabera, eskaintzaren eta sakrifizioaren logikaren arabera».

\* \* \*

### SAN JOAN BATAIATZAILEA Martiri

Jesusen aurrelari izan zen jaiotzan, «amaren sabelean pozez jauzi egin zuen Joanek, gizon-emakume guztien Salbatzailea etorri zitzaionean». Heriotzakoan ere, Jesusen aurrelari izan zen, «bere odola isuri baitzuen, Kristo Jaunari aitormenik ederrena emanaz». Ebanjelioak kontatzen duena (Mk 6,17-29) Makeronteko gazteluan gertatu zen; han zeukan preso Herodes Agripak Bataiatzailea, anaiaren emazte Herodiasekin bizi zela salatzen ziolako. Herodiasen alaba Salomek eskaturik, Joani burua mozteko agindu zuen erregeak.

Beraz, lau ezaugarriok nabarmentzen dute Joan Bataiatzailea: salbamenaren iragarle izatea («Bihozberri zaitzte»), Jesus Jainkoaren bildostzat ematea («Hona Jainkoaren Bildotsa»), Jordan ibaian Jesusen bataiatzaile izatea, Jesusez bete-beteko testigantza egitea.

\* San Adelfo, *martiria*. Santa Sabina, *martiria*.

Esteban Zudairikoa (Ameskoan jaioa) eta Joan Maiorga-koa (Donibane Garazin jaioa), *apaizak*, eta lagunak, *dohatsuak*, *martiriak*, *jesuitak*.

[San Paulok 1 Tesalonikarrei 4,1-8: Hau nahi du Jainkoak zuengan-dik: bizi zaitzela berarentzat, sagaratupei dagokienez. Sal 97 [96]: Poztu zaitzete Jaunarekin, zintzook.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,1-13.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin, beren kriseiluak eskuetan hartu eta senargaiari bidera irten zitzaizkion hamar neskatxekin bezala gertatzen da. Neskatxetako bost zentzugabeak ziren eta bost zentzudunak. Kriseiluak hartzean, zentzugabeek ez zuten oliorik hartu; zentzudunek, ordea, kriseiluekin batera olio ere hartu zuten ontzietan. Senargaiak luzatzen zuenez, lo-galetu egin ziren denak eta loak hartu zituen.

Gauerdian oihu bat entzun zen: “Badator senargaia; irten zakizkio-te bidera!” Jaiki ziren neskatxa guztiak, eta beren kriseiluak prestatu zituzten. Orduan, zentzugabeek esan zieten zentzudunei: “Emaguzue olio-pixka bat, kriseiluak itzaltzen ari zaizkigu eta”. Zentzudunek erantzun zieten: “Ea ez dugun nahikoa geuretzat eta zuentzat; hobe duzue, badaezpada, dendara joan eta erosi”.

Baina, eroatera joanak zirelarik, senargaia iritsi zen, eta prest zirenak ezteietara sartu ziren harekin. Eta atea itxi zuten.

Iritsi ziren, azkenik, beste neskatxak ere eta dei egin zuten: “Jauna, Jauna, ireki!” Baina hark erantzun zien: “Benetan diotsuet, ez dakit nor zareten”.

Egon, beraz, erne, ez baitakizue, ez eguna, ez ordua).

**B**iblian aintzat hartua den bertutea da zuhurtzia. Erreinuaz ari den parabola honetan, emakume zuhur edo zentzudunak dira olio ere eskura dutenak senargaiaren bisita berandutzen bada ere. Noiz agertuko den ez jakite horrek eragiten digu inprobisazioaren mende ez bizitzera. Azken batean, olio ere da lortzen dendan erosiz, ez da hartzen ere beste batzuegandik, baizik eta gordez joaten gara, bihotz barnea ondo hor-

Urteko 21. astea.

Esteban Zudairikoa (Ameskoan jaioa) eta Joan Maiorga-koa (Donibane Garazin jaioa), *apaizak*, eta lagunak, *dohatsuak*, *martiriak*, *jesuitak*.

---

**nituz, han ugaltzen da egunetik egunera, maitasuna helduz doan txoko hartan. Gustukoa dut parabolaren azkena komentatzea: kontua ez da Jaunak atea ez ireki izana, baizik eta bereei falta izana aski argi sartu ahal izateko.**

\* \* \*

### **ASISKO FRANTZISKOREN BIDETIK**

Natura, liburu interesgarri

Hona zer dioen «Laudato si» entziklikan, 2. zenb. Frantzisko aita santuak: «Bestalde Asisko san Frantziskok, Eskriturari leial, proposatzen digu, har dezagula natura liburu guztiz eder gisa, Jainkoak hitz egiten digun eta bere edertasunaz eta bere ontasunaz zerbait adierazten digun liburu gisa: “Izakien handitasun eta edertasunetik, analogiaz, haien Egilea ikusten da” (Jakinduria 13,5), eta “mundua mundu denetik, berez ikusezina dena, hau da, Jainkoaren betiereko ahalmena eta jainkotasuna, ikusgarri gertatzen zaio haren egintzak aztertzen dituenari” (Erromatarrei 1,20). Horregatik, komentuko baratzearen zati bat beti landu gabe uzteko eskatzen zuen, bertan basa belarrak haz zitezen, eta haiek miresten zituztenek beren pentsamendua halako edertasunaren egile den Jainkoarengana jaso ahal zezaten (Zelano). Mundua, argitu eta ebatzi beharreko auzi bat baino gehiago, misterio pozigarria da, gorespen alaitsuz kontenplazten duguna» (*Arantzazuko egutegia 2017-02-03*).



Urteko 21. astea.

San Ramon Nonnato, *apaiza*, *kardinala*.San Jose Arimateakoa eta Nikodemo, *Jesusen ikasleak*.

[San Paulok 1 Tesalonikarrei 4,9-11: Jainkoak berak irakasten dizue elkar maitatzen. Sal 98 [97]: Badator Jauna herriak zuzentasunez epaitzera.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,14-30.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Gizon batek, urrutira joaterakoan, bere morroiei dei egin eta bere ondasunak utzi zizkien. Bati bost talentu eman zizkion, beste bati bi, beste bati bakarra; bakoitzari bere trebetasunaren arabera. Eta gero joan egin zen. Bost talentu hartu zituen haiekin lanean hasi zen berehala, eta beste bost irabazi zituen. Bi hartu zituenak ere gauza bera egin zuen, eta beste bi irabazi zituen. Bat hartu zuenak, ordea, lurtean zuloa egin eta han gorde zuen bere nagusiaren dirua.

Handik luzarora, etorri zen morroi haien nagusia, eta kontuak garbitzen hasi zitzaien. Hurbildu zen bost talentu hartu zituenak, eta beste bost eraman zizkion, esanez: “Jauna, bost talentu utzi zenizkidan; begira, beste bost irabazi ditut”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi zintzoa eta leiala! Gauza txikian leial izan zarela, askoren buruzagi egingo zaitut; sartu zeure nagusiaren festa ospatzera”.

Hurbildu zen bi talentu hartu zituenak, eta esan zion: “Jauna, bi talentu utzi zenizkidan; begira, beste bi irabazi ditut”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi zintzoa eta leiala! Gauza txikian leial izan zarela, askoren buruzagi egingo zaitut; sartu zeure nagusiaren festa ospatzera”.

Azkenean, hurbildu zen talentu bat hartu zuena, eta esan zion: “Jauna, banekien gizon zorrotza zarela; erein ez duzun tokian igitatzen, eta zabaldu ez duzun tokian biltzen duzuna. Beraz, beldurrez joan nintzen, eta lurtean gorde nuen zure talentua. Hemen duzu zeurea!”

Nagusiak erantzun zion: “Morroi gaizto eta alfer hori! Bahekien, beraz, erein ez dudan tokian igitatzen dudala nik, eta zabaldu ez dudan tokian biltzen. Horregatik, nire dirua diru-trukatzaileei utzi behar

Urteko 21. astea.

San Ramon Nonnato, *apaiza, kardinala.*

San Jose Arimateakoa eta Nikodemo, *Jesusen ikasleak.*

hien, nik, etortzean, irabazi eta guzti jaso nezan. Ken iezaiozue, bada, talentu hori, eta eman hamar dituenari. Duenari eman egingo baitzaio, eta gainezka izango du; ez duenari, berriz, duen hura ere kendu egingo zaio. Eta morroi alfer huts hori bota kanpoko ilunpera. Han izango da negarra eta hortz-karraska!”»

**P**arabola osoak hitz hauek ditu ardatz: «Beldurra izan nuen eta zure talentua gordetzera joan nintzen». Adamen hasiera hartako erantzuna iradokitzen dute, Jainkoa bere bila ikusi zuenean: «Beldurra izan nuen eta gorde egin nintzen». Beldurrak zurrundu egin ohi gaitu, eta Jainkoaren presentzia onartzea eragotzi. Jaunari ez zaio axola «kantitate»; soilik, hartu dugun hartan konfiantza izatea da inporta duena eta abian ipintzea, gugan eta gure bidez zabaldu nahi duen biziaren aldeko apustua egitea. Zein nagikeriak eragiten digu «gordetzera», «bizia» galgatzerara? Ebanjelio honek hainbat jenderen bihotzaren sorburua zerraldotzen duen beldurraren zorro hori liberatzerara eragiten digu.

\* \* \*

## GURE AITA

**Gure Aita zeruetan zarena.**

Eta lurrean hiltzen dena

eta zer janik ez duten haurren begietan.

**Santu izan bedi zure izena.**

Eta mundu osoak izan dezala

zure eskuzabaltasun, indar eta ahalmenaren berri.

**Etor bedi zure erreinua.**

Eta distira dezala gurerik

garbienak, onenak, zoragarrienak.

**Egin bedi zure nahia.**

Eta eraman dezala guztiz galdu arte  
zaborra, indarkeria eta gezurra.

**Zeruan bezala lurrean ere.**

Babestu gu, Jauna.  
Lagundu guri, Jauna.

*(Segida 432. or.; iraila 2)*



## **IRAILA**

### **AITA SANTUAREN ASMOA**

**Orokorra:** Afrikako gazteek heziketarako eta lanerako aukera nork bere lurraldean izan dezaten.



Urteko 22. astea.

San Josue, *patriarka*.

San Gil (Egidio), *ermitaua*.

Angostoko Andre Maria (iraileko 1. Igandea)

§ Siraken liburutik 3,19-21.30-31 (gr. 17-18. 20. 28-29).

Seme nahiz alaba, egin otzantasunez egiten duzun guztia, eta Jainkoaren begiko denak maite izango zaitu.

Zenbat eta handiago izan, orduan eta gehiago apaldu zeure burua, eta Jaunaren gogoko izango zara; handia baita Jaunaren ahalmena, eta apalek dute hura goresten.

Harroaren ezbeharrak ez du erremediorik, gaiztakeriaren landarea sustraitua baitu bere baitan. Buruargiak jakinduriatzko esaerak hausnartzen ditu, adi egongo den belarria irrikatzen du jakintsuak.

[Sal 68 [67]: Zuk, ene Jainko, zeure ontasunean eratu duzu dohaka-beentzat etxea.]

§ Hebrearrei egindako liburutik 12,18-19.22-24a.

Senideok: Zuek ez zarete hurbildu, israeldarrak bezala, uki daitekeen mendi batera, su kiskalgarria, hodei itxia, ilunpea eta ekaitza zuden mendira; ez duzue entzun turuta-hotsik, ezta ahotsik ere. Ahotsa entzun zuten israeldarrek gehiago ez ziezaiela hitz egin eskatu zuten.

Sion mendira hurbildu zarete zuek, Jainko biziaren hirira, zeruko Jerusalemara, Jainkoa goresteko bildurik dauden milaka eta milaka aingerurengana, beren izenak zeruetan idatzirik dituzten lehen-semeen batzarrera, guztien epaile den Jainkoagana, beren helburua iritsi diren zintzoen espirituengana, eta itun berriaren bitarteko den Jesusengana.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,1.7-14.

Aldi hartan, larunbat batean, fariseu-buruetako baten etxera joan zen Jesus bazkaltzera, eta fariseuak zelatan zegozkion. Ohartu zen Jesus gonbidatuek aurreneko jarlekuak hartzen zituztela eta ohar hauek egin zizkien:

«Ezteietara gonbidatzen zaituztenean, ez jarri mahaiburuan, bali-teke-eta zu baino gonbidatu ospetsuagoren bat izatea; hala balitz, biok gonbidatu zaituztenak etorri eta esango lizuke: “Utzi tokia honi”. Orduan, azkeneko lekuan eseri beharko zenuke lotsaturik.

Alderantziz, gonbidatzen zaituztenean, jarri azkeneko tokian, gonbidatu zaituenak, datorrenean, esan diezazun: “Adiskide, igo gorago!” Horrela, oso toki onean geldituko zara mahaikide guztien aurrean. Zeren eta bere burua goratzen duena beheratu egingo baitu Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

Eta gonbidatu zuenari esan zion: «Bazkari edo afariren bat ematean, ez gonbidatu zeure adiskideak, ezta senideak, ahaideak edota auzoko aberatsak ere; zeren haiek ere gonbidatu egingo baitzintzuket, eta horrela ordaina hartuko zenuke. Otordua ematean, gonbidatu behartsuak, elbarriak, herrenak etaitsuak. Zorionekoa zu orduan, ezin izango baitizute ordaindu! Zintzoak piztuko direnean jasoko duzu ordaina».

**J**esus parabola kontalari maisu da. Beti uzten dio entzuleari aukea bere burua parabolaren baitan jartzeko; baita zuzenean interpelatua dela sentitzeko aukera ere. Bada hitz bat parabolari ageri ez dena, baina istorioaren hondoan dagoena, distira emanez: Jainkoaren sekulako doakotasuna. Zertaraino gara gu geu doako geure bizitzan? Geure egintzen eta hitzen pean, ez al gara ibiltzen, batzuetan, probetxuren baten bila, irabaziren baten bila, emozioari dagokiona delarik ere?

Loiolako Ignazioren pedagogiak geure egintzetan eta eragiketan bultzatzen gaituen asmoaz ohartarazi gaitu, saneatu eta Erreinuaren biderat gidatzeko. Geure joera, gauza on-onetan beretan ere, «distiratsu» diren postuen bila ibiltzekoa izaten da; leku ilunago eta arrunta-goak baloratzen irakatsi digu Jesusek, besteekin ukonoz ukondo ipintzen gaituzten lekuak, gutxiago dutenen, dezaketenen eta dakitenen ondoan. Guztioi eskaini digu Jainkoak jai-otordu oparoa, eta doakoa da. Baldintza bat du bakarrik: Gonbidatzaileak ez du nahi kanpoan geldi dadin beraren sorkari txikienetako inor.

Urteko 22. astea.

Frantzisko Dardan dohatsua (Isturitze ondoan 1733 – Paris 1792, Iraultzakoan), *dohatsua, apaiza*, eta lagunak, *martiriak (Iruñeko eta Baionako elizbarrutietan)\**.

[San Paulok 1 Tesalonikarrei: Jesusekin bat eginik hil direnak Jainkoak berekin hartuko ditu. Sal 96 [95]: Badator Jauna lurra epaitzera.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4,16-30.

Aldi hartan, Jesus Nazaretera, bera hazitako herrira, joan zen, eta larunbatean, ohi zuenez, sinagogan sartu eta zutik jarri zen irakurgai egiteko. Isaias profetaren liburua eman zioten eta, irekitzean, pasarte hau aurkitu zuen:

«Jaunaren Espiritua nire gainean dago, hark gantzutu bainau, behartsuei Berri Ona emateko, gatibuei askatasuna eta itsuei ikusmena hots egitera bidali nau, zapalduen askatasuna ematera, Jaunaren onginahi-urtea hots egitera».

Liburua bildu ondoren, laguntzaileari eman eta eseri zen. Denak sinagogan begira-begira zeuzkan.

Jesus honela hasi zitzaien: «Gaur bete da orain entzun duzuen Liburu Santuko hitz hau». Denek Jesusen alde hitz egiten zuten eta harriturik zeuden Jainkoaren onginahiaz esaten zituenengatik. Baina zioten: «Ez al da, ba, hau Joserren semea?»

Orduan, Jesusek esan zien: «Harako esaera hura gogoraziko didazue, noski: “Sendagile, sendatu zeure burua”, eta esango: “Egitzazu hemen ere, zeure herrian, Kafarnaumen, egin omen dituzun gauzak”».

Eta erantsi zuen: «Hara Nik egia esan: Ez da profetarik bere herrian onartua denik. Egiaz esaten dizuet: Bazen emakume alargunik asko Israelen Eliasen garaian, hiru urte eta sei hilabetez euria egin gabe egonik, lurralde guztian gosete gorria izan zenean; hala ere, Jainkoak ez zion haietako inori bidali Elias, Sidon herrialdeko Sareptako alargunari baizik. Eta bazen legenardunik asko Israelen Eliseo profe-

\* Santiago Bonnaud, *apaiza*, eta lagunak; Jose Imbert eta Joan Nicolas Cordier, *apaizak*; Tomas Sitjar, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak, jesuitak*.



Frantzisko Dardan dohatsua (Isturitze ondoan 1733 – Paris 1792, Iraultzakoan), *dohatsua, apaiza, eta lagunak, martiriak (Iruñeko eta Baionako elizbarrutietan)\*.*

taren garaian; hala ere, ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman baizik».

Hauek entzutean, sinagogan zeuden guztiak amorruez bete ziren. Eta jaikirik, Jesus herritik kanpora atera eta herria eraikia zegoen mendiko amildegira eraman zuten, handik behera botatzeko asmotan. Baina Jesus haien erditik igaro eta bere bidetik joan zen.

**E**spirituaren DNAn (ADN), batak bestea erakartzen duten bi polaritate daude; geure hornidura genetikoan heredatzen ditugu. Gantzutzen gaituenean, gaitasunez horniturik gertatu ohi gara berri ona hots egiteko: askapena, argia, sendakuntza... guban betetasuna eragiten duten ekintzak. Beste poloan: behartsuak, itsuak, zapalduak: norakoa adierazten dutenak, norabidea eta zentzua azalduz. Eta erakarmen-eremu magnetiko horretan mugitzen dira Jainkoaganako historia eta gure bizitza kokkorra, zaurgarria eta maitea. Geure burua kritikapean edo zailtasunen batean ikustean, iradoki dezagun pasarte honen beste aldeak: Jesus amildu egin nahi izan zuten, baina berak alde egin zuen.

\* Santiago Bonnaud, *apaiza*, eta lagunak; Jose Imbert eta Joan Nicolas Cordier, *apaizak*; Tomas Sitjar, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak, jesuitak*.

Urteko 22. astea.

San Gregorio Handia, *64. aita santua eta eliz irakaslea*.

[San Paulok 1 Tesalonikarrei 5,1-6.9-11: Gugatik hil zen, gu harekin bat eginik bizi gaituzen. Sal 27 [26]: Jaunaren ontasuna ikusi us-tean nago bizidunen lurrean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4,31-37.

Aldi hartan, Jesus Galileako Kafarnaum hirira jaitsi zen, eta larunbatetan jendeari irakasten zion. Txunditurik zegoen jendea haren irakaspenez, nagusitasunez hitz egiten baitzuen.

Bazen sinagogan espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat, eta oihu bizian zioen: «Zer duk gurekin, Jesus Nazaretarra? Gu hondatzera al hator? Bazekiat nor haizen: Jainkoaren Santua».

Jesusek gogor eraso zion: «Isil hadi eta atera gizon horrengandik!» Deabruak jendaratean lurrera bota zuen gizona, baina batere kalterik egin gabe atera zen harengandik.

Ikaraturik gelditu ziren denak, elkarri galdezka: «Zer da hau? Nagusitasunez eta indarrez agintzen die espiritu gaiztoei, eta hauek atera egiten dira».

Jesusen entzutea herrialde hartako bazter guztietara zabaldu zen.

**J**esusen garaikideek galdetzen zuten: «Zer du, gero, horren hitzak?» Gu geu, batzuetan, esapide berritzaileen bila ibili ohi gara, unean uneko gurunen adierazpenen bila, eta ilun gelditzen zaizkigu Jesusen hitzen ahalatasun bizigarria eta haietara jo beharra, bizitza kalteztan duten hainbat deabrutatik sendatzeko. Pertsona bakoitzari aginpi-dea emateko grazia zuen Jesusek, nori bere duintasuna itzuli eta bere bihotzaren indarrekin konektatzen laguntzeko grazia. Ez zuen esaten sekula «zugatik egin nuen nik hau». Pertsona norberaren izatearen hondora bidali ohi zuen: «zeure konfiantzak sendatu zaitu», zeugan bizi den Jainkoaren onberatasunak.

Urteko 22. astea.  
San Moises, *profeta*.

[San Paulok Kolosarrei 1,1-8: Zuengana iritsi da Berri Ona, eta lur osora. Sal 52 [51]: Jauna, zure maitasunean dut konfiantza betiko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4,38-44.

Aldi hartan, Jesus sinagogatik atera eta Simonen etxean sartu zen. Simonen amaginarreba sukar handiaz zegoen, eta haren alde zerbit egiteko eskatu zioten.

Orduan, harengana makurturik, zorrotz agindu zion sukarrari, eta sukarrak alde egin zion. Berehala jaiki eta zerbitzatzen hasi zitzairen amaginarreba.

Eguzkia sartu zenean, gaixoak zituzten guztiek, edozein zela ere haien gaitza, Jesusi eramaten zizkioten, eta hark, bakoitzari eskuak ezarri, sendatu egiten zituen. Askorengandik deabruak ere ateratzen ziren, deiadarka esanez: «Zu Jainkoaren Semea zara!» Jesusek zorrotz galarazten zien hitz egitea, bazekiten-eta Mesias zela.

Eguna argitu orduko, atera eta bazter bakarti batera joan zen. Jendea haren bila zebilen eta, aurkiturik, eutsi egin nahi zioten, alde egin ez ziezaien. Baina Jesusek esan zien: «Gainerako herrietan ere adierazi beharra dut Jainkoaren erreinuaren Berri Ona, horretara bidali bainau Jainkoak». Eta Judeako sinagogetan ibili zen Berri Ona hots egiten.

**A**tentzioa eman zidan erlijiosa bati otoitzean entzundakoak. Denbora asko zeraman gaixotasun baten kontra borrokan. Arratsalde hartan Isaias profetaren hau irakurtzea egokitu zitzaion: «Jaunak gantzutu nau bihotz urratuak bendatzeko» (Isaias 61,1), eta esan zuen: «hainbat jende bizi da zauriturik, hainbat jende dago arindu beharra duenik, hainbat bihotz sendatzeko... non bai baitut etorkizunik». Jesusi gaixoak eramaten zizkioten «gaitza zena zela»; bazekien berak ere haien baitan zuela bere geroa: eskuak ezarri bakoitzari eta Erreinua hots egin. Guk ere, geure sukarra sendaturik, zerbitzatuko ahal dugu Jesus esker onez.

Urteko 22. astea.

San Lorenzo Justiniano, *gotzaina*.Santa Teresa Kalkutakoa, *fundatzailea* (*Karitateko Misiolariak*).

[San Paulok Kolosarrei 1,9-14: Berak atera gaitu ilunpearen menpetik eta bere Seme maitearen erreinura aldatu. **Sal 98 [97]**: Bere garai-pena ezagutarazi du Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,1-11.

Aldi hartan, jendea gainera zetorkion Jesusi, Jainkoaren hitza entzuteko; Genesaret aintzira-ertzean zegoen Jesus. Bi txalupa ikusi zituen ur-bazterrean geldituta; arrantzaleak, ontzietatik jaituta, sareak garbitzen ari ziren. Igo zen txalupa haietako batera, Simonenera, eta lehorretik pixka bat aldentzeko eskatu zion. Gero, eseri eta txalupatik jendea irakasten jardun zuen.

Hitzaldia bukatzean, esan zion Simoni: «Jo itsaso zabalera eta bota sareak arrantzurako». Simonek erantzun zion: «Maisu, gau osoan eginahalak egin eta ez dugu ezer harrapatu; hala ere, Zuk diozunez gero, botako ditut sareak». Hala egin zuten eta, hainbesteko arrain-pila harrapatu zuten, sareak lehertzeko zorian baitzeuden. Beste txalupako lagunei keinu egin zieten laguntzera etortzeko; etorri ziren, eta bi txalupak bete zituzten, ia-ia hondoratzeraino.

Gertatua ikusirik, Jesusen oinetan ahuspeztu zen Simon Pedro, esanez: «Alde nigandik, Jauna, bekataria naiz eta». Izan ere, zur eta lur zeuden Simon eta harekin ziren guztiak, eginiko arrantzuagatik, eta gauza bera gertatzen zitzaizen Simonen arrantzu-lagun ziren Zebedeoren seme Santiagori eta Joani ere. Baina Jesusek esan zion Simoni: «Ez beldur izan, hemendik aurrera giza arrantzale izango zara».

Haiek txalupak lehorrera atera zituzten eta, dena utzirik, jarraitu egin zitoten.

**H**arridura nagusitu zen Pedroz. Eta guk, ez ote dugu galdu hein batean harritzeko gaitasun hori? Txunditzeko, ikustean gonbit hau berri-rituz doala gure bizitzako aroetan barna? Testuingurua eta lagunak

# 5

Osteguna / Eguena

**IRAILA**

Urteko 22. astea.

San Lorenzo Justiniano, *gotzaina*.

Santa Teresa Kalkutakoa, *fundatzailea* (*Karitateko Misiolariak*).

aldatzen diren arren, Jauna bera da desafia botatzen diguna, bai sarkonkiago bizitzera, bai sareak botatzen aspertu gabe jarraitzera eguneroko gure itsasoan. Geurekin dugu beraren hitza geure porrotak sendatzeko; harriturik, Pedro bezala, ikustean geure ahuldadea eta guzti, geure trakeskeria eta guzti, dei egiten digula Jaunak, beste behin, berrari jarraitu eta besteez arduratzera.

Menora (7 besoko argimutilla [hobe: berezkoa + sei beso], Irteera liburua 25.31; 37.17-26...)



Argazkian menora bat (argimutilla) zizelkatua harri batean. Galileako Magdala herriko sinagoga batean aurkitua. Segur aski, Maria Magdalakoak eta Jesusek ezagutua.

Menora, gaur egun, juduen sinbolorik handienetakoa da.

Urteko 22. astea.  
San Eleuterio, *abadea*.

[San Paulok Kolosarrei 1,15-20: Gauza guztiak beraren bidez eta berarentzat dira eginak. Sal 100 [99]: Sar zaitezte oihu alaiz Jaunaren aurrera.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,33-39.

Aldi hartan, fariseuek eta lege-maisuek esan zioten Jesusi: «Joanen ikasleek sarri egiten dute barau eta otoitz, baita fariseuen ikasleek ere; zureak, ordea, jan eta edan ari dira».

Jesusek erantzun zien: «Nola nahi duzue ezteietara deituek barau egitea, senar berria berekin dutelarik? Etorriko zaie, bai, senar berria kenduko dieten eguna; orduan, egun hartan, egingo dute barau».

Parabola hau ere esan zien: «Inork ez du jantzi berririk urratzen, zaharrari adabakia ipintzeko; bestela, jantzi berria hondatu egingo litzateke, eta zaharrari ez litzaioke berriaren adabakia egoki etorriko.

Ez du inork ardo berririk sartzen ere zahagi zaharretan; ardo berriak zahagiak lehertu egingo litzuzke; ardoa isuri egingo litzateke eta zahagiak galdu. Ardo berria zahagi berrietan sartu behar da. Ardo zaharrarekin ohitua dagoenak ez du berririk nahi, “zaharra hobea duk” esaten baitu».

**S**an Ignaziok, bizitza modu berezi batean bizitzera eragiten digun barne mugimendu hori gomendatzen digu: «Jainkoak zugatik egin duen guztia eta eman dizun guztia bihotzez aintzat hartuz». Baldin eta egun guztiei esker onez aurre egiten badiegu, nolatan ez gozatu bizitzaz? Kontuan hartzen badugu, jaikitetik iluntzera hartzen dugun guztia, nolatan ez bizi alai? Ezin senti gintezke aldi berean eskerroneko eta zoritxarreko. Jesusen berritasunak, beraren ardo berriak, poza ekarri ohi du bihotzera gorabehera zailenetan ere; hain zuzen, gauza guztietan neurtzen dugu gurekiko beraren txera.

Urteko 22. astea.  
Santa Regina, *martiria*.

[San Paulok Kolosarrei 1,21-23: Berekin adiskidetu zaituzte Jainkoak, beraren aurrean santu eta errugabe ager zaitezten. Sal 54 [53]: Nik Jainkoa dut laguntzaile.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,1-5.

Behin batean, larunbatez gari-soroetan barna zihoan Jesus. Eta ikasleak galburuak moztu, eskuetan aletu eta jaten ari ziren. Fariseu batzuek esan zieten: «Nolatan ari zarete larunbatez zilegi ez dena egiten?»

Jesusek erantzun zien: «Ez al duzue irakurri Davidek egin zuena, bera eta beraren lagunak goseak gertatu zirenean? Jainkoaren etxean sartu eta, Jaunari eskainiriko ogiak hartuz, jan egin zituen, eta bere lagunei ere eman zizkien, legez apaizek bakarrik jan zitzaketen ogiak izanik». Eta esan zien: «Gizonaren Semea larunbataren nagusi da».

**B**izia ohoratzen duen atsedena, eta gizonarentzat eta emakumearentzat egin izan dena, aldi bat da, zeinetan liberatu egiten baitugu geugan eta besteengan trabatua eta buxatua dagoena. Mesedez betetako Jainkoaren sorkari garena konturatzeko aukera ematen digun aldia da. Geure burua presentzia saneagarri baten ubide dela aitortzeko aldia da; urte asko konkorturik zeraman emakume hura zuzentzeko Jesusek baliatu zuen larunbat hura bezala; jarduteko gaitasuna atrofiatua zuen gizon hura askatzeko Jesusek baliatu zuen larunbat hura bezala; Erreinuaren bila berarekin zebiltzan haiei jatekoa emateko baliatu zuen larunbat hura bezala.

Urteko 23. astea.

**ANDRE MARIA BIRJINAREN JAIOTZA.**

Artziniagako, Koruko, Guadalupeko, Arrateko, Haizpeko...

Andre Maria.

**§ Jakinduria liburutik 9,13-19 (gr. 13-18).**

Zein gizakik ezagut dezake Jainkoaren asmoa? Zeinek ulertu Jaunak nahi duena? Gizaki hilkorron gogoetak kaskarrak dira, gure ideiak ziurtasun gabeak. Gure gorputz galkorra arimarentzat zama da, eta lurrezko etxola honek berez pentsakor den espiritua nekarazten du.

Nekez igartzen diegu lurreko gauzei eta kostata aurkitzen irispidean duguna ere. Nork arakatuko ditu, beraz, zerukoak? Nork ezagutuko zukeen zure asmoa, Zeuk eman ez bazenio jakinduria eta zerutik bidali zeure espiritu santua?

Horrela bakarrik izan zen zuzena lurarren jokabidea, horrela ikasi zuten gizakiek zer duzun atsegin, eta salbatu ziren jakinduriaren bidez.

**[Sal 90 [89]: Jauna, gure ihesleku Zu izan zara gizalditik gizaldira.]****§ San Paulok Filemoni egindako gutunetik 9b-10.12-17.**

Anaia maitea: Nik, Paulok, dagoeneko zahartua eta orain, gainera, Kristo Jesusengatik kartzelan nagoen honek, mesede bat eskatu nahi dizut, kartzelan sortu dudan neure seme Onesimorentzat. Berriro baldtzen dizut bera, ene bihotz-bihotzeko dudan hau.

Neurekin eduki nahi nuen, zure orde zerbizari izan nezan, Berri Onagatik kartzelan nagoelarik. Hala ere, ez dut zure baimenik gabe ezer egin nahi izan, mesede hori gogoz egin dezazun eta ez behartuta.

Beharbada, horretarako alde egin zizun apur batez, gero betiko har zenezan, eta ez esklabo bezala, esklabo baino zerbait gehiago bezala baizik, anaia maite bezala. Maite-maitea da niretzat, eta zenbatez maiteago ez ote da izango zuretzat, bai gizon den aldetik eta bai kristau den aldetik. Beraz, fedean adiskide banauzu, hartzazu Onesimo nerau banintz bezala.



## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,25-33.

Aldi hartan, jende-talde handiak zihoazen Jesusekin; honek, haiengana bihurturik, esan zien:

«Norbaitek nirekin etorri nahi badu, eta bere aita-amak eta emaztea, seme-alabak eta anai- arrebak, eta bere burua bera baino maiteago ez banau, ez daiteke izan nire ikasle. Bere gurutzea hartu eta nire ondoren ez datorrena ez daiteke izan nire ikasle.

Izan ere, zuetako nork, dorrea egin nahi badu, eseri eta ez dituurretik gastuen kontuak ateratzen, bukatzeko lain ba ote duen ikusteko? Bestela, zimenduak hartu ondoren ezin bukatuko balu, hori ikustean barre egingo liokete denek, esanez: “Honako hau eraikitzen hasi huen eta ezin izan dik bukatu”.

Edota zein erregek, beste baten kontra gerrara joan nahi badu, eseri eta ez du alde zurekin deliberatzen, ea hamar mila gizon aski dituen, hoge milarekin kontra datorkionari aurre egiteko? Eta ezetz ikusten badu, artean bestea urruti dela, mandatariak bidaliko dizkio bakea eskatuz.

Era berean, zuetako inor ez daiteke nire ikasle izan, dituen guztieiko egiten ez badie».

**H**ona seinale bat kontu-emate honetan, geure ondasunei uko egite-kontu honetan, nola gabiltzan ikusteko: geure eguneroko gauzetan, geure bizi-jarrerak kexati izatera ala esker oneko izatera eramaten gaituen. Bi polo horien artean mugitu ohi gara; baina kexatzeko joera handiagoa bada, seinalea asko ematen dudalakoan nagoela eta trukean ezer gutxi ematen zaidalakoan; horrek atsekabetu egiten gaitu, biktimizatu eta, inoiz, erresumina eragiten. Jesusen jarraitzaile asko bizi da kexati. Aldiz, gure bizitzan hondoa esker onerantz mugitzen bada, baldin eta, gorabehera handirekin izanik ere, hori bada gure sakoneko taupada, seinalea, jakitun garena, ezen, emateko gai bagara, aurrez asko hartuak garena; eta sentitzen dugu ez digula inork ezer kentzen, baizik eta geure

## IRAILA

Urteko 23. astea.

### ANDRE MARIA BIRJINAREN JAIOTZA.

Artziniagako, Koruko, Guadalupeko, Arrateko, Haizpeko...

Andre Maria.

Igandea / Domeka

8

baitan dugula ez gordetzea, gordegi isilean dugula ezerekin ez gelditzea. Ez dugu aukeratzen bizia nola eman; berak gaitu gu aukeratzen, maitasuna eta oinazea direla medio. Konturatuko ote gara noizbait Jon Sobrinoren hitz hauek egia direla?: «Zerbitzatzeko errotik askea den biziak berekin dakar bere gozamena, historiako izugarrikerietan beraietan ere».



Andre Mariaren Jaiotza, Krisrok ekarri dizkigun ...  
dohain guztien hasiera izan da: Mariagan  
haragituko da Jainkoaren Semea.

[Paulo santuak Kolosarrei 1,24–2,3: Jainkoak Elizaren zerbitzari egin nau gizaldietan ezkutuan egona den misterioa zuei adierazteko. Sal 62 [61]: Jainkoagan nire salbamena eta ohorea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,6-11.

Beste larunbat batez, Jesus sinagogan sartu eta irakasten hasi zen. Bazen han eskuineko besoa elbarria zuen gizon bat. Lege-maisuak eta fariseuak zelatan zegozkion, larunbatez sendatuko ote zuen, zertan salatu izateko. Jesusek, haien gogoetei igarririk, beso-elbarriari esan zion: «Jaiki eta zatoz hona, erdira». Hura jaiki eta zutik gelditu zen. Jesusek esan zien orduan: «Galdera bat: larunbatez zer da zilegi, on egitea ala gaitz egitea, bizia salbatzea ala hondatzea?» Eta, inguruko guztiei begira, esan zion gizonari: «Luzatu beso hori». Hark luzatu zuen eta sendatu egin zitzaion.

Lege-maisuak eta fariseuak beren onetik atera ziren eta Jesusi zer egingo ari ziren beren artean.

**S**endatzeak larunbatean egin izana aurpegiratu izan diote Jesusi. Alabaina, eszena ikusten ari diren guztien artean, Jesus bakarrik da gai gizon hari bere zaurian eta bere nahasmenduan erreparatzeko, hitz egin eta haren izatearen hondoanari dei egiteko, harengan perlesiaz gordea den potentzialtasunera dei egiteko. San Pedro Claver-ek Jesusen aurpegia aurkitu zuen bere garaiko esklaboengan, eta beren anonimotasunetik aterarazi zituen berak beraiekin bat eginez; jende inportante ziren Pedrorentzat. Eta horrek bakarrik dakar osasuna: jakiteak, norbaitentzat norbait eta maitagarri garela. Jendea sendatu, dauden daudenean maitatuz senda dezakegu jendea. Bihurtzen al dugu geuk ere aldi sakratu bat sendatzeko aldi?

\*\*\*

Urteko 23. astea.

Arantzazuko Andre Maria.

San Pedro Claver, *apaiza, misiolaria, jesuita.*

## ARANTZAZUKO ANDRE MARIA

[Judit liburutik 15,8-10; 16,13-14. Salmoa: Lukas 1,46-54].

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-47.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi-aldera joan zen, Judeako herri batera, eta Zakariasenean sartu, eta Elisabeti agur egin zion. Elisabetek Mariaren agurra entzun orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nondik niri, neure Jaunaren ama nigana etortzea? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, sinetsi duzulako, beteko baitu Jaunak esan dizuna!» Orduan Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barnea».

### Arantzazuko Ama

**G**aur ospatzen ari gara Arantzazuko Andre Mariaren, Gipuzkoako Zaindariaren, eguna. Tradizioak dioenez, Rodrigotxok (Baltzategi baserrikoak) Andre Mariaren harrizko irudi txiki bat aurkitu zuen, Jesus Haurra besoetan zuela.

«Arantzan zu?», galdetu omen zuen txunditurik. Gaurko festa-egun honeko ebanjelioak garbi esaten digu: fede sakonaz onartu du Mariak Jainkoaren hitza. Elisabeten senar Zakarias ez da fidatu aingeruaren hitzaz; Mariak, aldiz, konfiantza osoa eskaini dio: «gerta bekit zuk dizuna». Arantzazuko Andre Mariaren goratasun betea ospatzen dugun honetan, goratasun horretarako bidea zein dugun agertzen digu zeruko amak: bihotza besteengana irekitzea da bidea.

[San Paulok Kolosarrei 2,6-15: Jainkoak biziarazi egin zaituzte Kristorekin batera, bekatu guztiak barkaturik. **Sal 145 [144]**: Ona da Jauna guztientzat.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,12-19.

Aldi hartan, Jesus mendira joan zen otoitz egitera, eta Jainkoari otoitzean igaro zuen gaua. Eguna argitu zuenean, ikasleei deitu eta haietako hamabi aukeratu zituen, eta apostolu izena eman zien: Simon –honi Pedro izena ezarri zion– eta honen anaia Andres, Santiago, Joan, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago Alfeorena, Simon –Zelote zeritzana–, Judas Santiagorena eta Judas Iskariote, Jesusen saltzaile izango zena.

Jesus ikasleekin menditik jaitsi eta zelaigune batean gelditu zen. Ikasle-multzo handia zen harekin; baita herriko jendetza ugaria ere, Judea osotik, Jerusalemdik eta Tiroko eta Sidongo itsasaldetik etorria, hari entzutera eta beren gaitzetatik sendatzen. Espiritu gaiztoek oinazetuak sendatu egiten ziren. Jende guztiak Jesus ukitu nahi zuen, halako indar bat baitzerion, denak sendatzen zituen.

**H**autatze-egun garrantzikoetan, Jesusek luze egin ohi du otoitz. Aitak ematen dizkiola uste duen haiek hautatzera doa, eta ez du jokatu haiei curriculumei erreparatuz, ezta haiei aurrekariari begira ere –ez litzaioke ondo aterako–, baizik eta Jainkoak haietako bakoitzarengan denborarekin egingo duen eraldaketaz fidatu da, haien bihotza Erreinurako eraten egingo duen isileko lanaz. Lagun bakoitzak bere izena eta bere historia izango ditu; nork bere askatasuna izango du «bai» esateko nahiz gomendioaz axolagabe agertzeko. Erantzunik ez jasotzeko, eta saldukeria ere jasateko, arriskatzen den maitasunaren zaurgarritasunaz jokatzeko du Jesusek. Horiek eta guzti, guztien aldeko apustua egin du. Beraren presentzia hutsak du sendatzen eta arnasten.

Urteko 23. astea.

Tomas Zumarragakoa (Gasteiz 1577 – Japonia 1622), *dohatsua, apaiza, eta lagunak, martiriak (Gasteizko elizbarrutian)*.

[San Paulok Kolosarrei 3,1-11: Kristorekin hilak zaudete. Hilaraz itzazue zeuen baitan mundu honen araberako jarrerak. Sal 145 [144]: Ona da Jauna guztientzat.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,20-26.

Aldi hartan, Jesusek, ikasleei begira, esan zien:  
 «Zorionekoak behartsuok, zuena baita Jainkoaren erreinua.  
 Zorionekoak orain gose zaretenok, aseko baitzaituzte Jainkoak.  
 Zorionekoak orain negar egiten duzuenok, barre egingo baituzue.  
 Zorionekoak zuek, Gizonaren Semea dela-eta jendeak gorrotatu, beren artetik bota eta madarikatuko zaitzutenean eta izen txarra emango dizuetenean. Alaitu zaitzte egun horretan eta egin pozez jauzi, handia izango baita zuen saria zeruan; gauza bera egin zieten profetei jende horren gurasoek.

Baina ai zuek, aberatsok, hartu baituzue zeuen poza!

Ai zuek, orain aseak zaudetenok, gose izango baitzarete!

Ai zuek, orain barre egiten duzuenok, aiene eta negar egingo baituzue!

Ai zuek, mundu guztiak zuetaz ondo hitz egingo duenean, gauza bera egin baitzieten sasiprofetei jende horren gurasoek!»

**J**esusek behartsuei kontsolamendua ematen die eta aberatsei astindua. Gainerakoen iraina kontuan hartzen ez duen bizieraren aurka jaiki da. Metatzeak, aseak, axolarik ezak eta harrokeriak sorgortu egiten dituzte zentzumenak eta bihotza, eta kamustu egiten gaituzte besteen sufrimena sumatzeko. Jesusek gabezia jasaten dutenen ondoan ipini du Erreinuko poza, beren bizitza duintasunez garatzeko baliabiderik eta aukerarik ez dutenen ondoan. Jesusengatik halako ondoan jartzen garenean izaten dugu zoriona. Alabaina, zoriontasunen ate hau gurutzatzea ez da izango gure lorpen; soilik, Jaunaren laguntzarekin lortu ahalko dugu.

Urteko 23. astea.

Estibalizko Andre Maria (*Arabako Zaindaria*).  
(ikus beherago Estibalizko Andre Mariaren Meza)

[San Paulok Kolosarrei 3,12-17: Izan maitasuna, hori baita elkartasun betearen lokarria. Sal 150: Gorets beza Jauna arnasa duen orok!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,27-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hau diotsuet zuei, entzuleoi: Maita itzazue zeuen etsaiak, egin on gorroto dizuetenei, be-deinkatu madarikatzen zaituztetenak, egin otoiitz izen ona kentzen dizuetenen alde. Masail batean jotzen zaituenari eskaini bestea ere; soingainekoa kentzen dizunari ez ukatu jantzia ere. Eskatzen dizun edonori eman, eta zeurea kentzen dizunari ez itzularazi. Eta besteei zuei egitea nahi duzuen, egin zuek ere besteei.

Maite zaituztetenak bakarrik maite badituzue, zer esker on zor zaizue? Bekatariak ere maite dituzte beren maitaleak. Eta on egiten dizuetenei bakarrik egiten badiezue on, zer esker on zor zaizue? Bekatariak ere egiten dute beste horrenbeste. Eta ordaina hartzekotan bakarrik ematen baduzue maileguz, zer esker on zor zaizue? Bekatariak ere aurreratu ohi diote elkarri, dagokiena hartzekotan.

Ez! Zuek maitatu etsaiak, egin on eta eman maileguz, ordainari begiratu gabe; handia izango da zuen saria eta Goi-goikoaren seme-alaba izango zarete, ona baita hura esker txarrekoentzat eta gaiztoentzat. Izan zaitzete errukiorrak, zuen Aita errukiorra den bezala.

Ez gaitzetsi inor, eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko; ez kondenatu, eta ez zaituzte kondenatuko; barkatu, eta barkatuko dizue; eman, eta emango dizue: neurri bete, sakatua, estutua eta leporainokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurritz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak».

**E**tty Hillesum-ek, juduentzat eraturako Westerbork-eko esparruan sartu dutenean, deportatu ahal izateko, milagarren aldiz irakurriko du Pauloren «Maitasunari gorazarrea» eta hitz horiek jasotzean

Urteko 23. astea.

Estibalzko Andre Maria (*Arabako Zaindaria*).

gertatu zaiona kontatu du: «Zer ari zen gertatzen ni baitan testu hori irakurtzen ari nintzela? Oraindik ezin adierazi dut oso ondo. Susmoa nuen ezen makilatxo miragarri batek ukitzen zidala ene bihotzeko zati gogortua eta bat-batean iturri gordeak isurarazi zituela hartatik. Eta berehala belauniko sentitu nuen ene burua... maitasunak, askaturik, izate guztian zeharkatzen ninduelarik, askaturik bekaizkeriatik, jelsiatik, antipatiatik».

\*\*\*

### ESTIBALIZKO ANDRE MARIA

[Sirak 24,1-2.5-6.12-16.26-30: Maria, jakinduriaren aulkia. **Salmoa:**  
1 Samuel: Jauzika daukat bihotza Jaunagan, nire Salbatzaileagan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-47.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion.

Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oiheu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

Mariak esan zuen:

«Handiesten du nire arimak Jauna,  
pozaren pozez daukat neure barrua,  
Jainkoa baita nire salbamena,  
ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna.



Urteko 23. astea.

Estibalizko Andre Maria (*Arabako Zaindaria*).  
(*ikus beherago Estibalizko Andre Mariaren Meza*)

## Estibalizko Andre Maria Birjina

**E**stibalizko santutegiaren lehenbiziko albiste idatzia 1074koa da, Estibalizko Jaun edo Kondeak elizako eskuineko aldea Donemiliaga Kukulako (Errioxa) monasterioari emate-agirian. Sortzez, bertako jaunaren otoitz-leku izango zen santutegia. XII-XVI mende artean joera eta debozio handia zion Arabako herriak Estibalizko santutegiari. Bi jai nagusi izan ohi ziren Estibalitzen: Jainkoaren Semearen Gizakundekoa –gehienetan Garizuman izaten denez, maiatzaren 1ean ospatu ohi zuten– eta iraileko igande batean, ziur aski Estibalizko Andre Mariari uztarengatik eskerrak emateko. 1608an Frantziskotarrek beren ardurapean hartu nahi izan zuten Estibalizko santutegia, eta Gasteizko Udalak baimena ere eman zien; baina ez zuten antolatu anaidirik. XIX. mendeko gerrateak zirela eta, santutegi oineko Villafrancako parrokiara jaitsi zuten Andre Mariaren irudia. XX. mendean berpiztu eta indarberritu egin zen Estibalitzeko joera eta debozioa, batez ere 1906an santutegia eraberritu eta urriaren 21ean Andre Maria berriz ere hara igo zutenez geroztik. 1915ean aldare nagusi berria sagaratu zuen apezpikuak. 1923az geroz, antzina kaperauarena zen etxea handiturik, beneditar lekaide-taldea kokatu zen Estibalitzen. (*Dionisio Amundarain*).

Urteko 23. astea.

San Joan Krisostomo, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

[San Paulok 1 Timoteori 1,1-2.12-14: Ni lehenago biraolari izan nintzen, baina nitaz errukitu egin zen Jainkoa. Sal 16 [15]: Zu zara, Jauna, nire ondarea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,39-42.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Izan ote daiteke itsua itsuaren gidari? Ez ote dira biak zulora eroriko? Irakaslea ez da irakaslea baino gehiago, baina ondo eskolaturiko ikaslea bere irakaslea adinakoa izango da.

Nolatan ikusten duzu senidearen begiko lasto-izpia eta zeure begiko habeaz ohartzen ez? Nolatan esan diezaiokezu senideari: “Adiskide, uztazu begian duzun lasto-izpia ateratzen”, zuk zeurean duzun habea ikusten ez duzula?

Itxurazalea halakoa! Atera lehenik zeure begitik habea, eta orduan ikusiko duzu garbi, senidearen begitik lasto-izpia ateratzeko».

**B**asamortuko arimei galdetzen zietenean nola jakin zitekeen ikasle bat Jainkoagandik hurbil zegoen, honelatsu erantzuten zieten: bere ahizparen ahuldadea txeraz estaltzen badu eta haren zama arintzen badu. Ama haiek ulermen bizia zuten besteek bizi zituzten barneko borrokez. Bihotz samurra, zaugarria eta zabalkorra lantzen zuten, bortizki egiten zioten uko edozein jarrera kritiko edo salatzailei, irakasten zuten beharrezkoa dela buru-ezagutza elkarbizitzarako, zeren eta norberaren ahuldadeen berri izatea aukera izaten baita besteen ahulda-deez dugun gupida sakontzeko.

Urteko 23. astea.

GURUTZE SANTUAREN GORAPENA.

Jerusalemeko San Alberto, *gotzaina*.

## § Zenbakiak liburutik 21,4b-9.

Egun haietan, herria, bidez gogaituta, gaizki esaka hasi zen Jainkoaren eta Moisesen aurka: «Zertako atera gintuzun Egiptotik? Basamortuan hiltzeko? Ez dugu ogirik, ez urik, eta asperturik gaude mana delako janari kaskar honekin».

Jaunak suge pozoitsuak bidali zizkion herriari, eta haien zitzadaz israeldar asko hil zen. Orduan, Moisesengana joan eta esan zioten: «Bekatu egin dugu, Jaunaren eta zure kontra gaizki esaka jardunez. Erregutu Jaunari sugeak gugandik urruntzeko».

Erregutu zuen Moisesek herriaren alde, eta Jaunak esan zion: «Egizu brontzezko sugea eta ipini haga baten muturrean. Sugeek zizta egindako guztiak, brontzezko sugeari begiratzean, sendatu egingo dira». Egin zuen Moisesek brontzezko sugea eta hagaren muturrean ipini zuen. Eta sugeren batek norbaiti zizta egiten zionean, brontzezkoari begiratzean sendatu egiten zen.

[Sal 78 [77]: Ez ahaztu Jaunaren egintza handiez.]

## § San Paulok Filipoarrei 2,6-11.

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik, ez zion gogor eutsi Jainkozko bere mailari; bestela baizik, zegokion aintza utzi eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Eta gizaki bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, menpeko eginez heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino.

Horregatik, denen gaintetik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion, Jesusen izenaren omenez denen belaunak makur daitezzen, zeruan, lurpean eta urpean, eta mihi guztiek aitoren deitzen Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitaren aintzarako.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,13-17.

Urteko 23. astea.

GURUTZE SANTUAREN GORAPENA.

Jerusalemeko San Alberto, *gotzaina*.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Ez da inor zerura igo zerutik jaitsi zena baizik, Gizonaren Semea. Moisesek basamortuan brontzezko sugea altxatu zuen bezala, hala izan behar du altxatua Gizonaren Semeak, harengan sinesten duten guztiek betiko bizia izan dezaten.

Izan ere, hain maite izan zuen Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinesten duen inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan. Jainkoak ez baitzuen bere Semea mundura bidali mundua kondenatzera, haren bitartez mundua salbatzera baizik».

**G**aurko jai honek geure begiak gorantz begira jartzera gonbidatzen gaitu, eta geure burua ardatz jartzeari uztera. Gurutzearen misterio saneagarriaz gogoeta egiteko eguna dugu gaurkoa: jende xumeari eta sufritzaileari emana den bizitza baten indar sendatzaileaz gogoeta egiteko, alegia. Geroago esango du Jesusek: «alxtatuko nautenean, neugana erakarriko ditut denak». Jesusen erakarmen salbatzaile horretan parte hartzera deituak gara, gurutzetik gainezka darion maitasun askatzailearen irradiazioan parte hartzera. Maite duenak bakarrik eman dezake bere burua. Casaldáliga gotzainak idatzia da: «Erraz egiten da Jesusen gurutzea bularrean eramatea; gauza zaila, bulartsu eta adoretu izatea da, Jesusi jarraitzeko».

Urteko 24. astea.  
DOLORETAKO ANDRE MARIA.

§ Irteera liburutik 32,7-11.13-14.

Egun haietan, Jaunak esan zion Moisesi: «Jaitsi zaitetz menditik, bekatu egin baitu Egiptotik atera zenuen zeure herriak. Laster asko okertu dira agindu nien bidetik. Zekor-irudia egin dute, eta haren aurrean ahuspeztu eta opariak eskaini dizkiote, esanez: “Hau da zure jainkoa, Israel, Egiptotik atera zintuena”».

Jaunak esan zion gainera: «Ikusten dut herri hau burugogor dela; uztazu, bada; nire haserre horien aurka sutu eta suntsitu egingo ditut, eta zugandik herri handi bat sorraraziko dut».

Moisesek, ordea, otoitz egin zion Jaunari, bere Jainkoari: «Jauna, nolatan jarriko zara, bada, haserre-sutan, hain ahalmen handiz eta esku indartsuz Egiptotik atera zenuen zeure herri honen aurka?»

Gogora itzazu zeure zerbitzariak, Abraham, Isaak eta Israel, eta zeure buruagatik haiei egin zenien zin hau: “Zuen ondorengoak zeruko izarrak bezain ugari egingo ditut, eta agindu dizuedan lurralde hau guztia betiko ondareztat emango diet”».

Hala, Jaunak atzera egin zuen bere herriari egindako mehatxutik.

[Sal 51 [50]: Altxatu eta banoa neure aitarengana.]

§ San Paulok 2 Timoteori 1,12-17.

Anaia maitea: Eskerrak ematen dizkiot Kristo Jesus geure Jaunari, bere apostolu-zerbitzua nire gain uzteko fidagarri aurkitu nauelako eta indar eman didalako niri, beraren kontra biraolari, pertsegitzaile eta laidoztatzaile izan nintzen honi; baina nitaz errukitu egin zen Jainkoa, neure sinesgabean ez bainekien zer egiten ari nintzen. Eta gainezka agertu zidan geure Jaunak bere onginahia, Kristo Jesusengan dugun sinesmena eta maitasuna emanez.

Sinesgarria eta guztiok onartzekoa da doktrina hau: Kristo Jesus bekatariak salbatzera etorri zela mundura. Eta inor ez ni baino bekata-

Urteko 24. astea.  
DOLORETAKO ANDRE MARIA.

riago; horrexegatik, hain zuzen, iritsi nuen errukia, Jesu Kristok bere pazientzia aurrenik nigan erakutsi zezan eta betiko bizia izateko haren-gan sinetsiko zutenentzat eredu izan nendin.

Mendeen Erregeari, beraz, Jainko hilezkor, ikusezin eta bakarrari, ospe eta aintza gizaldi eta gizaldietan. Amen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 15,1-32.

Aldi hartan, zergalariak eta bekatariak hurbildu ohi zitzaizkion Jesusi, entzutera. Eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrean hasi ziren, esanez: «Honek ongi hartzen ditu bekatariak, eta jan ere egiten du haiekin».

Orduan, parabola hau esan zien Jesusek: «Zuetako bat, ehun ardi izan eta bat galtzen bazaio, ez al da joaten, beste laurogeita hemeretziak larrean utzirik, galdutakoaren bila aurkitu arte? Eta, aurkitzean, lepoan hartzen du poz-pozik eta, etxera iristean, adiskideak eta auzokoak bildu eta esaten die: “Poztu zaitezte nirekin, aurkitu baitut galdutako ardia”.

Hara Nik esan: «Jainkoak ere poz handiagoa hartzen du bihotz-berritzen den bekatari batengatik, bihotz-berritu beharrik ez duten laurogeita hemeretzi zintzoengatik baino.

Eta zein emakumek, zilarrezko hamar txanpon izan eta bat galtzen bazaio, ez du, kriseilua pizturik, etxea garbitu eta ardura guztiz bilatzen aurkitu arte? Eta aurkitzean, adiskideak eta auzokoak bildu eta esaten die: “Poztu zaitezte nirekin, aurkitu baitut galdutako txanpona”.

Hara Nik esan: Berdin pozten da Jainkoa bere aingeruekin bihotz-berritzen den bekatari batengatik».

Beste hau ere esan zien Jesusek: «Gizon batek bi seme zituen. Gazteenak esan zion aitari: “Aita, emadazu dagokidan senipartea”. Eta aitak ondasunak banatu zizkien. Handik egun gutxira, seme gazteena, zituen guztiak bildurik, urrutiko herrialde batera joan zen, eta han, lasaikerian biziz, ondasun guztiak jan zituen.

Urteko 24. astea.  
DOLORETAKO ANDRE MARIA.

Dena xahutu zuenean, gosete handia sortu zen herrialde hartan eta beharra sentitzen hasi zen. Orduan, herrialde hartako batengana joan eta haren morroi jarri zen, eta hark bere sailetara bidali zuen txerrizain. Txerriek jaten zuten ezkurrez sabela betetzeko gogoak ematen zion, ez baitzion inork jaten ematen. Orduan, bere baitara itzulirik, esan zuen: “Hamaika langile bada nire aitarenean, nahiko ogi duela, eta ni hemen goseak hiltzen. Jaiki, aitagana joan eta esango diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme izena merezi. Har nazazu zeure langileetako bat bezala”. Eta jaiki eta aitagana abiatu zen.

Artean urruti zegoela, ikusi zuen aitag eta erruki izan zuen, eta, lasterka joanik, besarkatu eta musuka hasi zitzaion. Semeak esan zion: “Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme izena merezi...”.

Aitag, ordea, esan zien morroiei: “Atera berehala soinekorik ederrera eta jantzi iezaiozue; ipini eraztuna eskuan eta jantzi oinetakoak; ekarri zekor gizendua eta hil; egin dezagun festa-otordua, nire seme hau hila baitzegoen eta berriz bizi da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu”. Eta festa hasi zuten.

Seme zaharrena soroan zen. Etxera hurbiltzean, soinua eta dantzak sumatu zituen, eta, morroi bati deituta, zer gertatzen zen galdetu zion. Morroiak erantzun: “Zure anaia etorri da eta zuen aitag zekor gizendua hil du, semea onik bereganatu duelako”. Seme zaharrena biziki haserretu zen, eta ez zuen sartu nahi. Atera zen aita eta erreguka hasi zitzaion. Baina hark erantzun zion aitari: “Hainbeste urte da zure zerbitzuan nagoela, zure agindurik behin ere huts egin gabe, eta ez didazu sekula antxume bat ere eman lagun artean jateko, eta horrako zure seme hori, emagalduekin zure ondasunak jan dituen hori, etorri denean, zekor gizendua hil diozu”.

Aitag erantzun zion: “Seme, zu beti nirekin zaude, eta nirea den gutzia zeurea duzu. Baina egoki zen festa egitea eta poztea, zure anaia hau hila baitzegoen eta berriz bizi da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu”».

Urteko 24. astea.  
DOLORETAKO ANDRE MARIA.

**E**rrepara diezaiogun emakumearen parabolari; barneko galera batez mintzo zaigu: norberaren etxe barnean galtzen den altxor-zati horretaz. Ez du dena galdu, ezta erdia ere; hamar txanponetarik bat galdu du emakumeak. Ezdeusa irudi liezaguke, baina galerarik bizi izan dugunean, badakigu zer esan nahi duen horrek: haustura bat, hotzaldi bat, jaitsiera bat... Bizitzak aurrera jarraitzen du txanpon hori gabe, baina beste era batean. Gauzen artean ibiltzen gara; baina ez dira erabat oso. Orduan, etxea errazteko ideia etorri ohi zaigu, garbitzeko, bila hasteko. «Poztu nirekin», diotse emakumeak auzokoei. Merezgi gabeko poza da, gainezka egiten duena, Jainkoak gudan egin duenagatik, gure bila ibiltzeko agertu duen eragatik, geure galera guztien artean besarkatzen gaituen moduagatik. Eta norberaren bizitzaren birbizitze bat gauzatzen da, geure pobretasunak tristatu ordez errukiz aberats egiten gaituenean. Eta erruki hori geuk hartzen dugunean bilakatzen gara poz-iturri bata bestearentzat. Kubatar jazz-musikari batek -90 urtetan jotzen jarraitzen du- esan ohi zuen: «Gizaki baten kapitalik handiena, beraren bizitza besteentzat poz-iturri izatea da».

\*\*\*

### Neurtitza (Doloretako Andre Mariarena)

Zutik, gurutze ondoan, / Ama samina zegoan, / eta Semea zintzilik.  
/ Haren arimaren mina!, / zazpi ezpatek egina, / han zegoen larririk.

Hain estu eta atsekabea, / Seme bakardun Andrea, / Ama bedeinkatua!  
/ Oinazez eta atsekabez, / Seme kutunaren lanez / zegoen kupitua.

Nork ez du negar egingo, / Jesusen Ama halako oinazez ikusita? /  
Ama Semeak ikustean / biak oinaze berean / elkarrekin josita?

Bazekien beretarren / erruz zutela zigortzen / Jesus, bere maitea. /  
Inortxok ere ez laguntzen, / eta azken arnasa ematen / han zekusan Semea.

Hots, Ama, maite-iturri, / zurekin oinaze bizi / har dezadan egizu.  
/ Sutu Kristoren maitean / bihotz hau, eta haren aurrean / eder egin nazazu.



Urteko 24. astea.  
DOLORETAKO ANDRE MARIA.

---

Ama, nire bihotzari / Kristoren zauriak jarri, / otoi, mami-mamian.  
/ Seme horren neke-lanak / erdiz bidal niregana, / maite nauen sarian.

Zurekin negar bizian / naukazu, eta haren zorian, / hil nadin arte-  
raino. / Zurekin gurutze ondoan / lagunduz, negar malkoan / nagon  
bizi naizeino.

Birjinetan ederrena, / zakizkit samurrena, / niri negar eragin. /  
Kristoren neke-herio / zauriak hartzeko, bihotz / hau adoretzu egin.

Zauri ni zeure zauriez, / zora ni zeure odolez, / gurutze-iturripean.  
/ Sugarrez erre ez nazaten / nire alde jarri, arren, / Ama azken egunean.

Hemendik irtetekoan, / Amaren bidez ni noan, / Kristo, garaipene-  
ra. / Nire gorputz hau hiltzean, / arima doala hegan / Zeruko pozetara.  
Amen.

Urteko 24. astea.

San Kornelio, *aita santua* eta San Zipriano, *gotzaina, martiriak*.

[San Paulok 1 Timoteori: Egin otoitz Jainkoari gizaki guztien alde, gizaki guztiak salbatzea nahi baitu berak. Sal 28 [27]: Bedeinkatua Jauna, entzun baitu nire erregu-oihua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7,1-10.

Aldi hartan, Jesus, herriari egindako hitzaldia amaiturik, Kafarnaumen sartu zen. Bazen han erromatar ehuntari bat, eta honek morroi bat zuen, oso maitea; morroia gaizki zegoen, hilzorian. Ehuntariak, Jesusen berri entzunik, judu buruzagi batzuk bidali zizkion, morroia sendatzera etortzeko erreguaz.

Haiek, Jesusengana joanik, arren eta arren eskatu zioten: «Merezi du Zuk hori egitea, maite baitu gure herria eta berak egin digu sinagoga ere».

Jesus haiekin joan zen. Etxera hurbilduxea zela, lagun batzuk bidali zizkion ehuntariak, esatera: «Ez hartu nekerik, Jauna, ni ez bainaiz inor Zu nire etxean sartzeko. Horregatik, ez naiz ausartu neu zugana joaten; aski duzu hitz bat esatea, nire morroia sendatzeko. Nik ere, neu besteren mendean egon arren, soldaduak ditut neure mendean, eta bati joateko agintzen badiot, joan egiten da; beste bati etortzeko agindu, eta etorri; eta nire morroiari zerbait egiteko esan, eta hala egiten du».

Hau entzutean, Jesus harritu egin zen hartaz eta, ondoren zetorkion jendeagana itzulirik, esan zuen: «Egia esan, Israelen bertan ere ez dut aurkitu horrelako sinesmenik». Mandatariak etxera itzuli zirenean, sendatua aurkitu zuten morroia.

**G**araiko «jende ona» Jesusen egintzez eta doakotasunaz mesfidati ageri den testuinguru batean, harrigarri eta animagarri da ehuntari honen konfiantzazko apaltasuna: ez da gai sentitzen Jesusi zuzenean hitz egiteko; egiazko fedez mintzo zaigu, batzuetan galdu egiten dugun konfiantzaz; zeinen aurrean agertzen garen egiaz jakiteaz mintzo zaigu, zeini ari garen eskatzen jakiteaz. Jainko biziaren aurrean, gaixotasun eta oinaze orotatik sendatzen duenaren aurrean garelako sentitzearen harridura da. Jauna, ni ez naiz nor zu nire etxean sartzeko, baina zenbat desiratzen dudan zu nirean gelditzea!

Urteko 24. astea.

San Roberto Belarmino, *gotzaina eta eliz irakaslea, jesuita.*

[San Paulok 1 Timoteori 3,1-13: Zuzendariak akatsik gabea izan behar du; diakonoek ere Jainkoak agertu eta guk sinetsiriko egia kontzientzia garbiz gordetzen dutenak. Sal 101 [100]: Bihotz akats gabez jokatuko dut.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7,11-17.

Aldi hartan, Nain izeneko herrira joan zen Jesus, bere ikasleak eta jende asko lagun zituela. Herriko sarrerara hurbildu zenean, hildako bat, ama alargun baten seme bakarra, zeramaten lur ematera. Herriko jende asko zihoan amarekin.

Hau ikustean, errukitu egin zitzaion Jauna eta esan zion: «Ez egin negarrik!» Hurbildurik, hilkutxa ukitu zuen, eta zeramatenak gelditu egin ziren. Orduan, esan zuen: «Gazte, zuri diotsut: jaiki!» Jaiki zen hildakoa eta hizketan hasi, eta Jesusek amari eman zion.

Beldurrak hartu zituen denak eta Jainkoa goresten zuten, esanez: «Profeta handia sortu da gure artean». Eta beste hau ere bazioten: «Bere herria salbatzera etorri da Jainkoa». Judean eta inguruko lurralde gutzian zabaldu zen gertaera honen berria.

**O**inazerik handienetakoa izaten da seme edo alaba bat galtzea. Gupida eragin dio Jesusi emakume alargun hau negarrez ikustekak, eta hildako mutikoari mintzatu zaio, juduen tradizioan debekatua bazegoen ere hildako batengana hurbiltzea: lohikeria kutsatzen zuen. Jesusen hitzak biziaren eremura jaikiarazi du hildakoa: zutik dago eta hitz egiteko moduan; orduan, «amaren esku ipini du» Jesusek. Ez du eskatu Jesusek ezer ere beretzat, ez du ezer galdatu. Doako samurtasuna da. Gertatuaren aurrean, jende xumeak antzeman du Jainkoaren keinu maite bat izan dela, Jainkoak bere herria bisitatu duela, eta goratu egin du. Besteen probetxurik gabeko onberatasunak gidatzen al nau neu ere Jainkoa gorestera?

Urteko 24. astea.

Karlos Eraña (Aretxabaleta 1884 – Ciudad Real 1936),  
*marianista*, Fidel Fuidio eta Jesus Hita, *dohatsuak, erlijioso*  
*eta martiriak*. San Jose Kupertino-koa, *frantziskotarra*.

[San Paulok 1 Timoteori 3,14-16: Handia da gure erlijioaren miste-  
 roia. Sal 111 [110]: Jaunak eginak handi dira.]

† Jesu Kristoren ebanjelioa San Lukasen liburutik 7,31-35.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Zeinekin konparatuko nuke gi-  
 zaldi honetako jendea? Zeinen antzekoa da? Plazan eserita dauden  
 haurren antzekoa da, honela oihu egiten baitiete batzuek besteei: “Soi-  
 nua jo dizuegu, eta zuek dantzarik ez; hiletak jo, eta zuek negarrik ez”.

Izan ere, etorri da Joan Bataiatzailea, ogirik jaten eta ardorik eda-  
 ten ez duela, eta deabruak hartua dagoela diozue. Etorri da Gizonaren  
 Semea, jaten eta edaten duela, eta hau diozue: “A zer tripazaina eta  
 mozkorra, zergalarien eta bekatarien adiskidea!” Baina hura onartu  
 dutenek arrazoi eman diote Jainkoaren jakinduriari».

**B**atzuetan ez zaigu atsegin izaten bizitzan gertatzen zaiguna, eta  
 etengabeko asegaitz bihurtzen gara, bizitzak dakarkiguna onartu ezi-  
 nik, bizitza bera baino jakintsuago izango bagina bezala, zer behar  
 lukeen izan erabakitzeko. Poztea egokitzen zaigunean ere izaten dugu  
 zertaz kexu izan; kinka zailak bizi behar izaten ditugunean neketsu ger-  
 taten zaigu halakoak sakon eta fedez bizitzea. Gure bizitza Jainkoa  
 agerian jartzen duen pasarte baldin bada –eta hala da–, ikasi beharra  
 dugu gorabeheretan haren igarotzeari eta irakaspenei antzematen. Bi-  
 zitza harekin batean bizi dugunean, gai izaten gara haren markak, ha-  
 ren arrastoa, haren samurtasuna, haren gogoia sumatu eta atzemateko.

Urteko 24. astea.

San Jenaro, *gotzaina eta martiria*.

[San Paulok 1 Timoteori 4,12-16: Egin kontu zeure buruari eta irakaspenari; hori eginez, salbatuko baitituzu bai zeure burua, bai entzuleak. Sal 111 [110]: Jaunak eginak handi dira.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7,36-50.

Aldi hartan, fariseu batek bazkaltzera gonbidatu zuen Jesus. Joan zen, bada, Jesus fariseuaren etxera eta mahaiari jarri zen.

Honetan, emakume bat, herrian bekataria bezala ezaguna, Jesus fariseuaren etxean bazkaltzen zela jakinik, bertara joan zen, harzurizko ontzi bat ukendu zeramala. Jesusen atzean, oinen ondoan, jarri zen negarrez, eta haren oinak malkoz bustitzen hasi zen; gero, ileaz xukatu eta musukatu ondoren, ukenduz gantzutu zizkion.

Hau ikusirik, gonbidatu zuen fariseuak bere baitan zioen: «Gizon honek, benetan profeta balitz, jakin behar luke zer-nolakoa den bera ukitzen ari den emakumea, bekataria baita».

Jesusek esan zion: «Simon, badut zer bait zuri esateko». Hark erantzun: «Esazu, Maisu».

«Mailegu-emaile batek bi zordun zituen: bata bostehun denario zor zizkion, eta besteak berrogeita hamar. Nondik ordaindu ez zutelarik, barkatu egin zien biei. Bietako zeinek izango ote du maiteen?» Simonek erantzun zion: «Gehien barkatu zaionak, nik uste». Jesusek esan zion: «Zuzen diozu».

Eta, emakumeagana itzulirik, Simoni esan zion: «Ikusten al duzu emakume hau? Zuenean sartu naizenean, zuk ez didazu oinak garbitzeko urik eman; honek, berriz, malkoz busti dizkit oinak eta bere ileaz xukatu. Zuk ez nauzu musu emanez agurtu; hau, berriz, sartu denetik ez da gelditu nire oinei musuka. Zuk ez didazu burua olio gantzutu; honek, berriz, oinak ukenduz gantzutu dizkit. Hau diotsut, beraz: hainbesteko maitasuna agertzen duenean, bekatu asko barkatu zaion seinale da; gutxi barkatu zaionak maitasun txikia agertzen du». Eta emakumeari esan zion: «Barkatuak dituzu bekatuak».

Urteko 24. astea.

San Jenaro, *gotzaina eta martiria*.

Beste bazkaltiarrek beren artean esaten hasi ziren: «Nor ote dugu bekatuak barkatu ere egiten dituen hau?»

Baina Jesusek esan zion emakumeari: «Zeure sinesmenak salbatu zaitu. Zoaz bakean».

**M**aite dugun hari ematen diogu musu. Gure aurrekoek ogiari musu eman ohi zioten, lurrera erortzen bazen. Musu ematen dioguna gustuko gertatzen zaigu, baliotsu. Nola bizi gintezke, ez maiseatuz, baikik eta musu emanez? Edertasun gutxi nabari ohi dugu eguneroko gauzetan, gutxi eskertzen baldin badugu eta gainezka kexatzen, geure harremanetan dirdaitsu agertu ordez batak bestea itzaltsu egiten badugu, elkarrekiko samur agertu ordez elkor izaten bagara. Emakume honen keinuak interpelazio dira guztiontzat. Zer gertatzen zaigu?, izan ere, elkarrekin maitasunez bizitzea kostatu egiten zaigu, partekatuz guztiok hain zaugarri izatea, elkarri barkatuz, behin eta berriro hasiz.

\* \* \*

Txoriek bezala hegan ikasi dugu, arrainek bezala igerian.

Baina senide bezala bizitzen ez dugu oraindik ikasi. (Martín Luther King).

Ekaitz oso luzea izanik ere, halako batean eguzkiak beti distira egiten du hodei artean (Khalil Gibran, idazle libanoarra).

Mundua bihar amaituko dela baneki, gaur hala ere zuhaitz bat landatuko nuke (Martin Luther King).

*(Arantzazu egutegia 2018-01-04)*

Urteko 24. astea.

San Andres Kim Taegon, *apaiza*, San Paulo Chong Hassag eta lagunak, *martiriak* (Koreako martiriak).

[San Paulok 1 Timoteori 6,2c-12: Zu, Jainkoaren gizon hori, saia zaitetz justizian. Sal 49 [48]: Zorionekoak gogoz behartsu direnak, berena baitute Jainkoaren erreinua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8,1-3.

Aldi hartan, herriz herri eta auzorik auzo ibili zen Jesus, Jainkoaren erregetzaren Berri Ona hots egiten. Berekin zituen Hamabiak, baita espiritu gaiztoetatik eta gaitzetatik sendatua zuen zenbait emakume ere: Maria Magdalena –honengandik zazpi deabru bota zituen–, Joana –Herodesen etkezain Kusaren emaztea–, Susana eta beste asko; hauek beren ondasunez laguntzen zieten Jesusi eta honen ikasleei.

**E**makumeek oso hurbiletik jarraitu diote Jesusi, oso hurbileko bidelagun izan ditu Jesusek, beti itzalean; horregatik, lehenak izango dira Jesus berpizturik sumatzen. Nola jarraitu zioten, ordea? Zein da, ordea, Jesusen bidelagun izateko modu hori, sufrimenduzko eta zaurgarritasunezko egoera guztietan Jesusen hurbileko egin dituen modu hori? Jainkoaren erraien eroale bihurtu dira, hautsezineko maitasunaren iturri horren eroale. Magdalenaren, Joanaren, Susanaren... ondoan, ipin ditzagun hurbileko eta urruneko hainbat eta hainbat emakumeren izenak, gaur egun Jesusen inguruan elkarteak sortzen ari direnenak; partekatuz lau-lau egunez egun jende xumearekin beren ondasunak, beren jakintza, beren txera.

Urteko 24. astea.

SAN MATEO, APOSTOLUA ETA EBANJELARIA.

San Jonas, *profeta*.

§ San Paulok Efesoarrei 4,1-7.11-13.

Senideok: Nik, Jaunagatik preso nagoen honek, eskatzen dizuet, bizi zaitzela hartu duzuen bokazioari dagokionez. Izan beti apal, otzan eta jasankor, elkar maitekiro eramanez. Saia zaitzete Espirituak sortzen duen batasunari eusten, bakearen lokarritz.

Bat bakarra da gorputza eta bat bakarra Espiritua, Jainkoak egin dizuen deiari dagokion itxaropena ere bat bakarra den bezala. Bat bakarra Jauna, bat bakarra sinesmena, bat bakarra Bataioa; bat bakarra guztien Jainkoa eta Aita, guztien gaintik dagoena, guztien bidez ari dena eta guztiengan bizi dena.

Gutako bakoitzak Kristok eman nahi izan dion neurrian hartu du dohaina. Berak apostolu egin zituen batzuk, beste batzuk profeta, beste batzuk Berri Onaren hotsegile, beste batzuk artzain eta irakasle; horrela gai egiten ditu fededunak beren zerbitzu-lanerako eta Kristoren gorputza eraikitzeko, harik eta guztiok Jainkoaren Semearen sinesmen eta ezagutza berberak izatera iritsi arte, heldutasun beteko pertsona, Kristoren betetasunaren neurriko pertsona, izatera iritsi arte.

[Sal 19 [18]: Lurbira guztira zabaltzen da haien hotsa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,9-13.

Aldi hartan, Jesusek, bidez zihoala, Mateo zeritzan gizon bat ikusi zuen zergak biltzeko mahaian eseririk, eta esan zion: «Jarraitu niri. Mateok zutitu eta jarraitu zion.

Geroago, Jesus mahaian zegoen Mateoren etxean; beste zergalarri eta bekatari asko ere etorri eta mahaian eseri ziren Jesusekin eta honen ikasleekin. Fariseuek, hori ikustean, esan zieten ikasleei: «Nolatan jaten du zuen Maisuak zergalariekin eta bekatariekin?»

Hori aditzean, Jesusek esan zion: «Ez dute osasundunek sendagile beharra, gaixoez baizik. Hobe zenukete Jainkoak esandako honetaz



Urteko 24. astea.

SAN MATEO, APOSTOLUA ETA EBANJELARIA.

San Jonas, *profeta*.

jabetuko bazinete: “Nahiago dut errukia sakrifizioak baino”. Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik».

**F**rantzisko aita santuak kontatu zuen behin batean, berari zer esan zion Mateoren pasarte honek: «Niri beti eman zidan atentzioa Brebiarioko irakurgai batek, esaten duenak ezen Jesusek Mateori jarrera berezi batez begiratu ziola, euskaraturik honelako zerbait izango litzatekeenaz: “erruki izanez eta hautatuz”. Hori izan zen, hain juxtu, nik neuk aitorten hartan Jainkoak nola begiratu zidan sentitu nuena. Eta hori da gainerakoei nik nola begiratu behar diedan Jainkoak eskatzen didan modua: erruki handiz eta hautatzen ari banintz bezala; inor ez zokoratuz, Jainkoaren maitasunarentzat denak direlako jende hautatu». Bere aitasantutzako ikurra du: «erruki izanez eta hautatuz».

\* \* \*

### SAN MATEO

Kafarnaumgoa zen Mateo (arameeraz Mathai, Jainkoaren dohaina). San Markosek eta San Lukasek diote «Lebi» zuela izena, Alfeoren semea zela (Mk 2,14). Beste apostolu bat ere, Jakue (Santiago), Alfeoren seme zela dio Markosek (12, 8); baliteke biak anaiak izatea. Hierapolisko Papiasek (K.o. 95-165) dioena –Mateo dela lehenengo ebanjelioaren idazlea eta arameraz idatzia dela– aipatzen du Eusebio historialariak; baina, gaur egun, ezin onartua da hori: bat da Mateo apostolua eta beste bat Mateo izeneko ebanjelioaren idazlea; auskalo zein. Lebi/Mateo apostolua zergalaria zen, juduen artean gaizki ikusia; baina Jesusek dei egin zionean, berehala dena utzi eta jarraitu zion (Mt 9,9). Idatzi apokrifoez diotenez, Pertsian edota Etiopian ibili zen Mateo ebanjelioa hots egiten, eta han hil zuten.

Urteko 25. astea.

Frantziska Amezual (Abadiño 1881), Justa Maiza (Ataun 1897), Kontxi Odriozola (Azpeitia 1882), Klara Ezkurra (Arrasate 1896), Feliziana Uribe (Muxika 1893)\*

**§ Amos Profetaren liburutik 8,4-7.**

Entzun hau zuek, behartsuak zapaldu eta herriko jende xehea hondatzen duzuenok. Zeuen baitan diozue:

«Noiz igaroko ote da ilberri-jaiia, garia saltzeko, noiz larunbata, alea salmentan ateratzeko? Neurria txikiagotu eta prezioa handituko dugu, okerreko pisuak erabiliz; gari-zahia ere saldu egingo dugu. Jende xehea diruz erosiko dugu eta behartsuak oinetako pare baten truke».

Jakoben ondorengoen harrogarri den Jaunak zin dago ez dituela sekula ahaztuko horien egintza gaiztoak.

[Sal 113 [112]: Goretzazue Jauna, behartsua zaborretik ateratzen duena.]

**§ San Paulok I Timoteori 2,1-8.**

Anaia maitea: Beste ezer baino lehen, gizaki guztien alde eskari, otoitz, erregu eta esker emateak egiteko eskatzen dizut; baita erregeen eta agintea duten guztien alde ere, modu lasaian eta baketsuan bizi gaitezen, jainkozaletasunez eta duintasunez. Eder eta atsegin zaio hau Jainko gure Salbatzaileari, gizaki guztiak salbatzea eta egia ezagutzera iristea nahi baitu berak.

Izan ere, bakarra da Jainkoa eta bakarra Jainkoaren eta gizon-emakumeen bitartekoa ere: gizon bat, Kristo Jesus, bere burua guztien salbamenerako ordain-saritzat eman zuena. Bere garaian egindako aitormena da hau, eta honetarako egin nau ni Jainkoak oihulari eta apostolu –egia diot, ez diot gezurrik–, jentilen maisu, berauei sinesmena eta egia irakasteko.

\* Kotsuelo Cuñado (Bilbo 1884), Antonia Gosenz Saez de Ibarra (Gasteiz 1970), Daria Campillo (Gasteiz 1873) eta lagunak, *vedrunatarrak, dohatsuak, birjinak eta martiriak, 1936*

Frantziska Amezual (Abadiño 1881), Justa Maiza (Ataun 1897), Kontxi Odriozola (Azpeitia 1882), Klara Ezkurra (Arrasate 1896), Feliziana Uribe (Muxika 1893)\*

Beraz, gizonezkoek toki guztietan otoitz egin dezaten nahi dut, zerrurantz esku garbiak jasoz, haserrerik eta eztabaidarik gabe.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16,1-13.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizon aberats batek etxezain bat zuen, eta hau ondasunak alferrik galtzen ari zitzaiola salatu zioten. Deitu eta esan zion: “Zer da zutaz entzun dudan hori? Emadazu etxezaintzaren kontu, ez baitzara aurrerantzean nire etxezain izango”.

Etxezainak, orduan, bere baitan zioen: “Zer egin behar dut nik orain, nagusiak kargua kentzen didanez gero? Aitzurrerako ez naiz gauza, eta eskerako lotsa naiz. Badakit zer egin, kargutik botatzen nautelarik etxean nork hartu izan dezadan”.

Banan-banan bere nagusiaren zordun guztiei deitu eta lehenengoari galdetu zion: “Zenbat zor diozu nire nagusiari?” Hark erantzun: “Ehun upel olio”. Etxezainak, orduan: “Hona zeure ordain-agiria; agudo, eseri eta idatzi berrogeita hamar”. Gero, hurrengoari galdetu zion: “Zuk zenbat zor diozu?” Hark erantzun: “Ehun anega gari”. Etxezainak, orduan: “Hona zeure ordain-agiria; idatzi laurogei”.

Eta nagusiak txalotu egin zuen etxezain zuzengabe hura, zuhur jokatu zuelako. Izan ere, mundukoak zuhurrago dira beren arteko arazoetan, argitakoak berenetan baino.

Beraz, hau diotsuet Nik ere: “Irabaz itzazue adiskideak bidegabeke diruaz; horrela, dirua amaitzean, betiko bizilekuan hartuko zaituzte Jainkoak. Gauza txikietan fidagarri dena, handietan ere fidagarri da, eta gauza txikietan zuzengabe dena, handietan ere zuzengabe. Bidegabeko dirua erabiltzen fidatzekoak izan ez bazarete, nork utzi zuen esku

\* Kotsuelo Cuñado (Bilbo 1884), Antonia Gosenz Saez de Ibarra (Gasteiz 1970), Daria Campillo (Gasteiz 1873) eta lagunak, *vedrunatarrak, dohatsuak, birjinak eta martiriak, 1936*

Urteko 25. astea.

Frantziska Amezual (Abadiño 1881), Justa Maiza (Ataun 1897), Kontxi Odriozola (Azpeitia 1882), Klara Ezkurra (Arrasate 1896), Feliziana Uribe (Muxika 1893)\*

egiazko ondasuna? Zeuena ez duzuen aberastasunarekin fidatzekoak izan ez bazarete, nork eman benetan dagokizuen?

Ezin da morroi bat bi nagusiren zerbitzari izan. Izan ere, bata gorroto izango du, eta bestea maite; edota bati leial izango zaio, eta bestea ez du aintzat hartuko. Ezin zarete izan Jainkoaren eta diruaren morroi”».

**J**esusek gauza txikien balioaz, historia txikarrenez, ikusezin diren baina Jainkoaren begietan eder eta ugalkor diren gizakiaren keinu isilez hezi nahi gaitu. Eguneroko gauza, egintza eta pertsona txikien mundu horretan nabari ohi da Jainkoagan ote gauden zentratuturik eta fidaturik ala garrantziko Bakarrari zerbitzatzen uzten ez diguten beste aberastasun batzuk ote ditugun. Ez zait sekula ahaztuko txiletar emakume batek, oso pobrea bera, esan zidana, Tamarren istorioa irakurtzen ari ginela: komentatu zidan, emakume prostituitu batek hartu zituela bere etxean bera eta beraren ama: «Ahizpa, badakizu zuk zergatik aukeratzen dituen Jainkoak Biblian ageri den hori eta gu bezalako emakumeak? Aberatsak, zerbait gertatu orduko gaizki jartzen direlako, deprimitu eta lur jotzen dutelako. Guri, berriz, hainbat gauza gertatzen zaigu, eta ez gara jartzen hilko ez hilko, eta aurrera egiten dugu... Agian, horregatik jotzen du Jainkoak gugana». Jende honekin bizitzeko zoria izan nuen denboran, poz simple bat aurkitu nuen, ezerekin erosi ezin dena: bizirik jarraitzearen poza, duentxo hura partekatuz eta apurtxo hura jai bihurtuz. Han ikasi nuen, ezen ematen ez duguna bakarrik galtzen dugula.

\* Kotsuelo Cuñado (Bilbo 1884), Antonia Gosenz Saez de Ibarra (Gasteiz 1970), Daria Campillo (Gasteiz 1873) eta lagunak, *vedrunatarrak, dohatsuak, birjinak eta martiriak, 1936*

Urteko 25. astea.

San Pio Pietrelcina-koa, *apaiza, kaputxinoa*.

[Esdras 1,1-6: Jainkoaren herriko diren guztiak igo bitez Judako Jeru-salemera, eta eraiki biezaiote etxea Jaunari. Sal 126 [125]: Gurekin handikiro jokatu du Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8,16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Inork ez du argia pizten eta ontzipean gordetzen edota ohepean ipintzen, baizik eta argimutillaren gainean ipintzen du, sartzen direnek argia ikus dezaten. Izan ere, ez dago ezer gordea agertuko ez denik, ezta ezkutuan ere jakingo eta argitaratuko ez denik.

Kontu izan, beraz, nola entzuten duzuen! Izan ere, duenari eman egingo zaio; ez duenari, ordea, eduki uste duena ere kendu egingo zaio».

**J**ende askok parte hartzen du gure bizitzan. Bakoitzak bere argi-arrastoak uzten digu. Batak besteari eragin beharra dugu argitxo hori berretzat atxiki ez dezan, gorde ez dezan beldurrez, lotsaz, ezkutuko zauriren batengatik... «ebakiondoa da sartzeko argiak hartzen duen lekua» (Rumi). Beste bati ikusaraztea da kontua: baduela balio bat, berekin dituela dohain batzuk, eta berari laguntzea: azkeneraino joan dadin bizi dezakeen hartan. Jesusen argia osorik jarri zen agerian, eskainirik gelditu zen, ezer ezkutatu beharrik gabe, ezer eskatu gabe trukean, azpiko eta gibel-asmorik gabe. Onura-asmorik gabe irradiatzen zuen bizitzan.

Urteko 25. astea.

Mesedeetako Andre Maria.

[Esdras 6,7-8. 12b. 14-20: Bukatu zuten Jainkoaren etxea eraikitzea, eta Pazkoa ospatu zuten. Sal 122 [121]: Goazen pozik Jaunaren etxera!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8,19-21.

Aldi hartan, ama eta anai-arrebak joan zitzaizkion Jesusi, baina jendearen jendeaz ezin iritsi ziren beragana. Eta jakinarazi zioten Jesusi: «Hor dituzu kanpoan ama eta anai-arrebak, Zu ikusi nahian».

Jesusek erantzun zien: «Hauek ditut Nik ama eta anai-arreba: Jainkoaren hitza entzun eta betetzen dutenak».

**J**esusek ez ditu gutxiesten, ez bere ama, Maria, ez bere anai-arrebak. Ez ditu eskatu nahi gurasoekiko eta familiarren arteko loturak, baizik eta berregokitu: beste maila berri batean ezarri ditu. Partekatutako ehundura biologiakoa baino barneago, belaunez belauz eskualdatutako bizi-sorreraren eginkizun sakratua baino sakonago –gure historiak baldintzatzen dituzten gorabehera horietan–, bada lotura estuago bat, heredatuaren determinazioa baino indartsuagoa den bat: gu Jainkoarenak izatearen lotura da, guk haren Hitzaren araberako bizitza izatea. Alde biologikoak goia jo duen puntuan Jainkoaren grazia dugu zain.

Urteko 25. astea.

San Kleofas, *Jaunaren ikaslea*.

[Esdras 9,5-9: Geure Jainkoak ez gaitu eskutik utzi geure esklabotzan.  
Salmoa: Tobit: Bedeinkatua, beti bizi den Jainkoa!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,1-6.

Aldi hartan, Jesusek, Hamabiak beregana bildurik, deabru guztiak botatzeko ahalmena eta gaitzak sendatzeko indarra eman zien. Eta Jainkoaren erreinua hots egitera eta gaixoak sendatzera bidali zituen, esanez: «Ez hartu ezer biderako, ez makilarik, ez zakutorik, ez ogirik, ez dirurik, ezta aldatzeko soinekorik ere. Etxe batean sartzen zaretela, gelditu han herri hartatik atera arte. Eta onartzen ez bazaitzete, herri hartatik ateratzean, astindu zeuen oinetako hautsa, haien kontrako seinaleztat».

Atera ziren, bada, eta herriz herri joan ziren, Berri Ona hots eginez eta alde guztietan gaixoak sendatuz.

**J**esusek aginpidea eman digu, bide egin ahal izateko, berak begi -bistako, ezagun eta maite gaituela jakinik. Beren kontura ez doazenen arintasunez bidali gaitu, beste batzuen kapitalak bermaturik. Baina inoizka bidea segurtatu beharrak itsutzen gaitu, eta ez gara ausartzen ekitera beharrezko baliabideak eskura izan gabe, ez dugu nahi izaten ezer falta dakigun, batez ere teknologiari eta azken berritasunei dago-kienez. Eta agian ilundu egiten zaigu bidean beharrezkoa den gauza bakarra: bidelagun izaten dugun Jainkoaren samurtasun arduratsua, eta haren doako maitasunez jendea sendatu eta arintzeko gogo handia.

Urteko 25. astea.

San Kosme eta San Damian, *martiriak*.

[Ageo profetaren liburutik 1,1-8: Ekin tenplua eraikitzeari; atsegin izango dut Nik hori. Sal 149: Maite du Jaunak bere herria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,7-9.

Aldi hartan, jakin zuen Herodes agintariak gertatzen zen guztia, eta zer pentsatu ez zekiela zegoen. Batzuek Joan Bataiatzailea hilen artetik piztu zela zioten; beste batzuek Elias profeta agertu zela; beste zenbaitek, berriz, antzinako profetaren bat piztu zela.

Herodesek, ordea, honela zioen: «Joani neuk moztu nion lepoa. Nor da, beraz, hau, horrelakoak entzuten baititut honi buruz?» Eta Jesus ezagutzeko egokiera bila zebilen.

**A**geo profetak Jainkoaren ahoan ipini du gonbit errepikakor bat: «Hausnartu zeuen egoera». Guk geuk ere, gorabehera askotan, ez dugu jakiten zeri heldu, ez dugu ikusten argi. Stop bat egiteko abagunea izaten da, isilune bat egiteko, hausnartzeko eta neurtzeko parada bat: zer ikusten dugun, zer bizi dugun, nola kokatzen garen errealitatearen aurrean. Geuk ere izan dezakegu gogoia, Herodes batek bezala, Jesus ikusteko; baina, ondoren, zail gertatzen zaigu Jesusen antzeko biziera egitea, baldin eta egunez egun azterketarik egiten ez badugu, sakontzen ez badugu, nondik nora doazen gure sentimenduak, gure erreakzioak eta besteen aurrean jartzeko modua.



Urteko 25. astea.

San Bizente Paul, *fundatzailea (Pauldarrak eta Karitateko Ahizpak).*

[Ageo profetaren liburutik 1,15b–2,9: Denbora gutxi barru Jaunaren etxea aintzaz beteko dut. Sal 43 [42]: Itxaron Jainkoagan; goretziko dut neure salbatzailea eta Jainkoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,18-22.

Jesus otoitzean bakarrik ari zela, ikasleak hurbildu zitzaizkion, eta Jesusek galdetu zien: «Nor naizela dio jendeak?» Haiek erantzun zioten: «Batzuek Joan Bataiatzailea zarela; beste batzuek Elias; besteek, berriz, antzinako profetaren bat piztu dela». Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Pedrok erantzun zion: «Jainkoaren Mesias».

Inori ez esateko agindu zien Jesusek zorrotz. Eta esan zien, gainera, ikasleei: «Gizonaren Semeak asko sufritu beharra du; zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsi egingo dute eta hil, baina hirugarren egunean piztuko da».

**G**uk geuk ere entzun nahi ez ditugun hitzak dira: «asko sufritu... zapuztua izan»; alabaina, Jesusen ondoren egin nahi den bideko gauza dira horiek. Dorotheé Sólle teologo protestanteak dio, oinazea bazterten ez duten eta sufritzen ikasten duten pertsonak direla gai beren burua eraldatzeko, suntsitzen ez dituen sufrimendu orok bizia gehiago maitatzen irakasten dielako, prest egoten sufrimendua aldatzen lan egiteko. Sufrimendu honek sentiberago bihurtzen ditu munduaren oinazearekiko, eta besteen ahuldadea gehiago maitatzen irakasten die. Horixe da Jesusek Pedrori pazientziaz azaldu nahi diona: nola izan lagun gupidatsu sufrimenduan.

Urteko 25. astea.

San Domingo Erkizia (Errezil 1589), *domingotarra*, San Mikel Aozaraza (Oñati 1598), *domingotarra*, *biak apaizak*, San Lorenzo eta lagunak, *martiriak* (Japonian 1637).

[Zakarias profetaren liburutik 2,5-9. 14-15a: Etorriko naiz eta zure erdian biziko. Salmoa: Jeremias 31: Zainduko gaitu Jaunak, artzainak artaldea bezala.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,43b-45.

Aldi hartan, Jesusek egiten zituenengatik txundituta zeuden guztiak. Hark esan zien ikasleei: «Hartu ongi gogoan hitzok: “Gizonaren Semea gizakien esku utziko dute”».

Haiek, ordea, ez zuten ulertzen zer ari zitzaien; ilun gertatzen zitzaien, eta ez ziren esanahiaz jabetzen; galdetzeak, berriz, beldurra ematen zien.

**A**ldi handia dute biok: alde batetik, Jesusek egiten duenaz miretsirik ageri da jendea; bestetik, atentzioa ematen du, ikasleei, eta geuri, zenbat kostatzen zaigun onartzea bizia sufrimendu eta guzti eskaini behar dugula, sufrimendua Jesusen bide horretako parte denez. Gauzak ondo doazkigunean gustua ematen du Jesusen egitasmoan parte hartzeak; Galileako lurretan barna berari jarraitzea gustagarriagoa zen, baina Jerusalemara igo denean ezin ulertua, ukoa, gaitz esatea, umilazioa jasan beharko dute. Gauza horietarako inork ez du izena ematen nahita; horiei aurrez aurre begiratzeak ere beldurra ematen digu. Jesus, ordea, egiati da, ez du ukatzen, ez du goxatzen errealitatea. Aitzitik, jakinaren ganean aurre egin diezaiegun nahi du, geure burua Jainkoaren eskuetan ipiniz.

Urteko 26. astea.

GOIINGERU SANTUAK: MIKEL, GABRIEL ETA  
RAFAEL.

## § Amos Profetaren liburutik 6,1a. 4-7.

Hau dio Jainko Jaun ahalguztidunak:

«Zoritxarrekoak Sionen lasai bizi direnak eta Samariako mendiaz fidatzen direnak! Marfilezko ohetan luze etzaten dira, artaldeko bildotsak eta ukuiluko zekorrek jaten dituzte; zitararen soinura kantuan egiten dute, doinu berriak asmatuz, David direlakoan; ardoa kopa handitan edaten dute, olio usaintsu bikainenaz gantzuten dute beren burua. Eta ez die axola Israel herriaren hondamendiak!

Horregatik, atzerrira joango dira erbesteratu guztien lerro-buruan, eta hor bukatuko dira horien jan-edanak eta nasaikeriak».

## Sal 146 [145]: Goretsazu Jauna, ene barrena.]

## § San Paulok 1 Timoteori 6,11-16.

Zu, Jainkoaren gizon hori, saia zaitez justizian, jainkozaletasunean, sinesmenean, maitasunean, eroapenean eta otzantasunean. Ekin sinesmenaren borroka jatorrari, eta eskuratu betiko bizia, hartarako deitu baitzaitu Jainkoak eta fede-aitormen bikaina egin baituzu, testigu askoren aurrean.

Gauza guztiak biziarazten dituen Jainkoaren aurrean eta Pontzio Pilatoren auzitegian aitormen bikaina egin zuen Kristo Jesusen aurrean erregutzen dizut: bete agindua akatsik gabe eta esankizunik sortu gabe, Jesu Kristo gure Jauna agertuko den eguna arte, bere garaian agerraraziko baitu Jainkoak.

Hura da Nagusi bakarra eta zorionsua, erregeen Erregea eta jaunena Jauna; hura bakarrik da hilezkorra, eta iritsi ezineko argian bizi da; ez du inoiz gizakiak ikusi eta ezin du ikusi ere.

Berari aintza eta agintea betiko. Amen.

Urteko 26. astea.

GOIINGERU SANTUAK: MIKEL, GABRIEL ETA  
RAFAEL.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16,19-31.

Aldi hartan, honela mintzatu zitzairen Jesus fariseuei: «Bazen gizon aberats bat, purpuraz eta liho finez jantzi eta egunero festa ederrak egiten zituen. Lazaro izeneko eskale bat, berriz, aberatsaren etxe-atarian etzanda egoten zen, zauriz josia; gogotsu jango zukeen aberatsaren mahaitik erortzen zena. Txakurrek berek ere etorri eta zauriak milikatzen zizkioten.

Honetan, hil zen eskalea, eta aingeruek Abrahamen altzora eraman zuten. Hil zen aberatsa ere, eta ehortzi zuten. Hilan Egoitzan oinazetan zegoelarik, begiak jaso eta Abraham ikusi zuen urrutian eta Lazaro haren altzoan, eta deiadarka esan zuen: “Aita Abraham, erruki zakizkit! Bidal ezazu Lazaro atzamar muturra urean busti eta niri mihia freskatzera, oinaze gorrian bainago sugar hauetan”.

Baina Abrahamek erantzun zion: “Seme, oroit zaitez zuk zorion franko izan zenuela bizitzan, Lazarak, berriz, zorigaitzak; horregatik, orain hark atsegina aurkitu du, eta zuk oinazeak. Gainera, gure eta zuen artean leize handia dago, eta nahita ere ezin da inor hemendik zuengana igaro, ezta hortik gugana ere”.

Aberatsak berriro: “Orduan, aita Abraham, bidal ezazu, arren, Lazaro gure aitaren etxera, bost anaia badituz eta; jar ditzala jakinaren gainean, eurak ere oinaze-leku honetara etor ez daitezen”. Abrahamek erantzun zion: “Hor dituzte Moises eta profetak; entzun diezaiete-la”. Hark berriro: “Ez, aita Abraham; hildakoren bat joango balitzaie, bihotz-berrituko lirakeke”.

Baina Abrahamek erantzun zion: “Moisesi eta profetei entzuten ez badiete, ez dute sinetsiko ezta hildako bat piztuta ere”».

**G**ure mundu honetako «lazaroak» ilaran eta multzoka hurbiltzen dira lurralde aberatsetako atetara, **guk** sobera dugun lanaren bila, gure mahaitik eroritako ogi-apurren bila. Gehiegi ohitu gara hor dau-

Urteko 26. astea.

GOIINGERU SANTUAK: MIKEL, GABRIEL ETA  
RAFAEL.

dela jakitera, komunikabideetan halakoei begira egotera baina egiaz ikusten ez ditugula. Kopurua esaten digute, baina izenik ez; ez digute adierazten hor azpian bizi duten sufrimena ere. Ebanjelioan alderantziz da: gizon aberatsak ez du izenik, Lazarok bai. Gabezian eta urritasunean bizi direnen historiak eta sufrimenak ezagutzen saiatu beharko genuke, asebetetik eta gainelikaturik bizi direnekin konparatzeko. Ezer egiten ez badut, gai ez banaiz aitortzeko behar gorria jasaten ari diren aurpegi horiek nirekin zerikusirik badutela, beraiek ni eskertu nazaten aukerak alde egingo dit. Zein izango ote zen istorio honen bukaera, baldin eta gizon aberatsak bere mahaia ireki izan balio Lazarok, jakin gabe, zekarkion egundoko aberastasunari? Amos profetak gure itsutasunaren kausa azpimarratu du: «ez zarete atsekabetzen Joseren hondamendiaz». Gizatasunean aurrera dagigu, besteen egoeraz atsekabetzen garenean eta geure dohainak eta ondasunak haiek arintzeko jartzen ditugunean.

\* \* \*

### SAN DOMINGO ERKIZIA

Irailaren 28an ospatzen dugu

Errezilen (Gipuzkoa) jaio zen, Bildain baserrian, 1589-02-08an. Donostiako San Telmo domingotar komentuan hartu zuen abitua 1604an. Lehenik Manilara eta gero, 1623an, Japoniara joan ziren

hamar fraide; haien artean zen frai Domingo Erkizia. Merkatarri-jantzian, Satzuma hiria jo zuten. Hizkuntza ikasteaz batera, kristau-elkarteei laguntzen saiatzen ziren misiolariak, oihanetan gordez, gauetz lan eginez. Baina, beste asko bezala, atxilotu zuten azkenean Domingo Erkizia ere. Oinetatik buruz behera loturik, bi metro sakon zen eta simaurrez betea zegoen zuloan sartua eduki zuten hogeita hamar orduz, gerria bi ohol lodiz inguratua eta harriz kargatua. 1633-08-19an hil zen, ahotik, sudurretik, begietatik eta belarrietatik odola zeriola.

Urteko 26. astea.

San Jeronimo, *apaiza eta eliz irakaslea*.

[Zakarias profetaren liburutik 8,1-8: Nik salbatuko dut neure herria, sortaldeko eta sartaldeko lurraldeetatik. Sal 102 [101]: Eraiki du Jaunak berriro Sion eta bera aintzaz betea agertu da.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,46-50.

Aldi hartan, eztabaida sortu zen ikasleen artean, zein ote zen haieran handiena. Igarri zizkien Jesusek beren burutazioak, eta, haurtxo bat hartu, beren ondoan jarri eta esan zien: «Haur hau nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali nauen hura onartzen du. Zeren zuetan txikiena, horixe baita handiena».

Orduan, Joanek esan zion: «Maisu, gizon bat ikusi dugu zure izenean deabruak botatzen, eta galarazi egin nahi izan diogu, ez baita gure taldekoa».

Baina Jesusek erantzun zion: «Ez galarazi, zeren zuen aurka ez dagoena zuen alde baitago».

**E**z eragotzi inolako adierazpenik, datorrela datorren lekutik, bi-ziaren aldekoa bada, jende xumearen aldekoa bada. Ospe handia nola hartu bila ibiltzen gara, askotan, gauden lekuan; Jesusek, ordea, beste behin, 180 graduko bira eman digu. Ez da aspertzen laguntza eskaintzen: begira dezagula, ez gorantz, geurezkotik irteten zaigun bezala, baizik beherantz, gauzarik txikienetarantz, esanahi txikieneko aurpegietarantz. Ai, beteko ahal da noizbait Zakariasen profetia eder hori, gerla errukigabeetan urteak eta urteak daramatzaten lurralde horietan: «Bertako kaleetan eseriko dira adin handiko gizon eta emakumeak... Mutikoz eta neskatoz beteko dira kaleak, beren artean jostari».





## URRIA / URRILA

### AITA SANTUAREN ASMOA

**Ebanjelizazioaren alde:** Pertsona sagaratuek indarberritu dezaten beren misiolari-garra, eta bat egin dezaten behartsu, zokoratu eta aho-tsik ez dutenekin.





Urteko 26. astea.

Santa Teresa Jesus Haurrarena, *birjina eta eliz irakaslea.*

[Zakarias profetaren liburutik 8,20-23: Herri asko etorriko da Jerusalemera Jaunaren bila. Sal 87 [86]: Jainkoa gurekin da.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,51-56.

Jesusek, mundu honetatik eramana izateko garaia zetorkiolarik, Jerusalemera joateko erabakia hartu zuen. Mandatariak bidali zituen aurretik, eta Samariako herri batean sartu ziren, Jesusi ostatua prestatzera. Baina herrikoek ez zuten hartu nahi izan, Jerusalemera zihoi-lako.

Hori ikusirik, Santiago eta Joan ikasleek esan zioten: «Jauna, aginduko al dugu zerutik sua jaitsi eta kiskal ditzala?» Baina Jesusek, haiengana itzulirik, haserre egin zien. Eta beste herri batera joan ziren.

**G**ure eguneroko bizitza hautatze txikiek osatzen dute, gure biziera moldatuz. Batzuetan, inguruan izaten dugun jendeak ez ditu ulertzen gure jokabidearen arrazoiak. Egiaren eta askatasunaren ildoan ibiltzea: horra beti handitu beharreko ibilbidea. Abegikortasuna jarra sakratua da judu-herriarentzat, baina Jesus gai da ukatua dela sentitzeko, negatiboki erreakzionatu gabe. Nik neuk ba al dut neure barnean liberaturiko aski eremu, oldarrez ez erantzuteko ukoa adierazten didatenei?, neure burua defenditzen jardun gabe, besteen ezin ulertuak eta purrustadak jasateko? Lisieuxeko Teresak maitasuna ezarri zuen bere erabaki guztien erdigunean.

[*Nehemias* liburutik 2,1-8: Errege jauna, ondo baderitzozu, bidal nazazu nire gurasoen hirira, berriro eraiki dezadan. *Sal 137 [136]:* Nire mingaina ahosabaian itsats bekit, zutaz oroit ez banendi.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,1-5.10.

Aldi hartan, hurbildu zitzaizkion ikasleak Jesusi eta galdetu zioten: «Nor da handiena zeruetako erreinuan?» Jesusek, haurtxo bati deitu, haien artean jarri eta esan zien:

«Benetan diotsuet: Aldatu eta haurren antzeko bihurtzen ez bazarete, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Beraz, bere burua haur honen antzera apaltzen duena, hori da zeruetako erreinuan handiena. Eta honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau.

Kontuz! Ez dezazuela txiki hauetako inor gutxietsi! Zeren, egia esan, hauen aingeruak zeruko nire Aitaren aurpegia ikusten ari baitira etengabe zeruan».

**C**hristian Bobin-ek bere *Presentzia purua* liburuan dio: «Oso egun gutxi dituztenak edota oso adin handiko direnak gurea ez bezalako munduan bizi dira. Gurekin harremanetan ipintzen direnean, sekulariko erregalua eskaintzen digute». Haurrak eta adin handikoak mezulari seguru dira guretzat, xalotasun-zubiak eraikitzen dizkigute, batzuetan gurutzatu nahi izaten ez ditugunak, geure presa dela-eta edota geure begiak «gauza garrantzizkoengatik» gogortuak ditugulako. Erreinerako irispidea erregelatzen digute beraiek, kalte egiteko gai ez den bihotz bat, defenditzen jardun beharrik ez duen presentzia bat, eskainia eta agerikoa: salbatzen gaituen Aurpegi bakar horrengana gidatzen gaituen presentzia hori.

Urteko 26. astea.

San Frantzisko Borja-koa, *apaiza, jesuita*.

San Birila Leirekoa, *abadea (Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan)*.

[**Nehemias liburutik 8,1-4a. 5-6. 7b-12:** Esdrasek legearen liburua zabaldu eta Jauna goretsi zuen, eta herri osoak erantzun: «Amen, amen». **Sal 19 [18]:** Jaunaren arauak zuzenak dira, bihotzaren pozgarri.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,1-12.**

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta leku guztietara.

Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uztara. Zoazte! Arku-meak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman poltsarik, ez zakutorik, ez oinetakorik, eta ez gelditu bidean inori agur egiten.

Edozein etxetan sartzen zaretela, esazue lehenbizi: “Bakea etxe honetakoei!” Eta han bakezalerik bada, haren gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira. Geldi zaitezte etxe berean; eta jan eta edan daukatenetik, zor baitzaio langileari bere saria.

Ez ibili etxez etxe. Herriren batean sartu eta ondo hartzen bazaituztete, jan jartzen dizuetenetik, sendatu bertako gaixoak eta esaiezue: “Hurbil duzue Jainkoaren erreinua”.

Baina herriren batean sartu eta onartzen ez bazaituztete, irten plazara eta esan: “Oinetan itsatsi zaigun zuen herriko hautsa ere hor asintzen dizuegu. Dena dela, jakizue hurbil dela Jainkoaren erreinua”.

Begira: auzi-egunean Sodomak zigor bigunagoa izango du, herri hark baino».

**B**orjako Frantzisko gizon oso aberatsa izan zen, alde guztietatik: halako moduan, non oso maite zuen pertsona bat hiltzen ikusi beharra izan baitzuen, bat-batean gauza guztien iheskortasuna sumatzeko

eta soilik Jaun bat zegoela, eta jabetu zen, harengatik bakarrik merezi duela bizitza eralgitzea edo gastatzea. Ikasle eskuzabala izan zen: bere dohainak partekatzen jakin zuen, eta bere buruaz eta hitz ziurraz Erreinuaren ezinbesteko hurbiltasuna hots egin zuen. Bere lagunak hartu zituen sostengutzat; aldi berean, arnasa eman zien berak haiei, eta ezagutu zuen «neke pozgarri» hori, bete-betean Jaunaren gomen-dioari emanak bizi direnek bizi ohi duten hori. Meltxorren eskua harturik, esan zuen bere bidaia bukatzean: «Jesus bakarrik nahi dut».

\* \* \*

### SAN BIRILA LEIREKO ABADEA

San Birila Leireko monasterioko abade izan zen. Ez dakigu non jaio zen. San Birila La Peña monasterioko testuan aipatzen da. San Birilari eskaini zioten benerezioa, ordea, handia izan zen. Urriaren leian gogoratzen zuten bereziki.

1011n Nafarroako errege Santxo I.a Handiaren diplomaren eredu aipatua dago San Birila, Funesko arantetik musulmanak botatzeko Leireko lekaideei eskariak eta otoitzak egiteko eskatu zienekoan. Legenda batek dio, Leireko mendietara atera zela behin San Birila eta hango oihan batean txori erresiñol edo urretxindorrari entzuten liluraturik hirurehun urte igaro zituela. Monasteriora itzuli zenean, ez zuen inork ezagutzen, jakina. Jainkoak esan omen zion: «Birila, hirurehun urtez egon zara urretxindorrari entzuten eta une bat iruditu zaizu. Zeruko gozamina askoz handiagoa da». Historikoa ala ez, egia handia dakar mezuak. Lagundu diezagula, 300 urtez biziko ez bagara ere, geure urte-apurretan zeruko gozamenaren zain liluraz bizitzen.

Urteko 26. astea.

San Frantzisko Asis-koa, *erlijiosoa eta fundatzailea*  
(*Frantziskotarrak*).

[**Baruken liburutik 1,15-22:** Bekatu egin dugu Jaunaren aurka eta ez diogu obeditu. **Sal 79 [78]:** Libra gaitzazu, Jauna, zeure izenaren ohoregatik.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,13-16.**

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zu, Korozain! Ai zu, Betsaida! Izan ere, Tiro eta Sidon hiri jentiletan zuengan hainbat mirari gertatu izan balitz, aspaldi bihotz-berrituak ziratekeen, dolu-jantziz estali eta hautsean eserita. Horregatik, Tiro eta Sidonek zigor bigunago izango dute auzian zuek baino.

Eta zu, Kafarnaum, zeruraino altxatuko al zara? Lurraren barrenearaino eroriko zara!

Zuei entzuten dizuenak niri entzuten dit, eta zuek onartzen ez zaituztenak Ni ez nau onartzen; Ni onartzen ez nauenak, berriz, bidali nauen hura ez du onartzen».

**L**audato sí-k gogoratzen digu, Asisko Frantzisko iradokiz, gure «etxe komuna», Lurra, ama bat bezalako dela, arreba edo ahizpa bat bezalako, zeinekin partekatzen baitugu bizitza; adierazten digu, etengabe ari zaigula deiadarka eragiten diogun kaltegatik, beragan Jainkoak era dohatsuan eman dizkigun ondasunez erantzukizunik gabe baliatzen garelako, abusua abusuaren gain eginez. Asisko Poverello-az gogoeta egitea erronka handia dugu: funtsezko ardura izatera gonbidatzen gaitu. Kreazioaz maitemindutako gizona izan zen, baketsua, esker onez dirdaitsu. Sorkaririk txikienaren adiskide bere ahuldadean, eta zauritsu Kristoren aurpegia bortxatzen denean, beraren pobreengan. Guzti-guztien haurride.

Urteko 26. astea.

ESKARI ETA ESKER ONEZKO OTOITZ EGUNA.

San Froilan Leon-goia, *ermitaua eta gotzaina*.

## § Deuteronomio liburutik 8,7-18.

Egun haietan, honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Jaunak, zure Jainkoak, lurralde ederrera eramango zaitu: lurralde oparoa da, erreka, iturri eta ibarretan eta mendietan sorturiko iturburuz hornitua; gari, garagar, mahasti, pikondo, granadondo, olibondo, olio eta eztiz hornitua. Ogia neurrigabe jan ahal izango duzu eta ez zaizu ezer ere faltako. Hango harriek burdina dute eta mendietatik kobrea aterako duzu. Ase arte jango duzu, beraz, eta Jauna zeure Jainkoa bedein-katuko duzu, eman dizun lurralde ederragatik.

Baina, kontuz! Ez ahaztu Jauna zeure Jainkoa, gaur ematen dizkizudan haren agindu, lege eta erabakiak bazterrerara utziz. Ez dadila gerta, ase arte jatean, zeuk eraikitako etxe ederretan bizitzean eta zeure behiak eta ardiak, zilarra eta urrea eta era guztietako ondasunak gehitzean, zeu harrotu eta Jauna zeure Jainkoa ahazturik uztea. Berak atera zaitu Egiptotik, esklabotza-lurraldetik; berak eraman zaitu suge pozoitsuz eta eskorpioiz betetako basamortu handi eta ikaragarrian barrena, urik gabeko eremu elkor horretan barrena, berak atera du sukarririk ura eta edaten eman dizu; berak eman dizu jaten basamortuan zure gurasoek ezagutu ez zuten mana. Atsekabetu eta probatu zaitu, bai, baina azkenean zure onerako izan da.

Ez esan zeure buruari: “Neure indarrez eta trebeziak lortu ditut ondasun hauek guztiak”; gogora ezazu Jaunak, zeure Jainkoak, ematen dizula ondasun horiek lortzeko indarra; horrela, leial eusten dio gaur ere zure gurasoei zin eginez hitzemandakoari».

[Salmoa: 1 Kronikak 29: Zeureak dituzu, Jauna, handitasuna eta indarra.]

## § San Paulok 2 Korintoarrei 5,17-21.

Senideok: Kristorena dena sorkari berri da; zaharrarenak egin du, berria sortu da. Hau guztia Jainkoagandik dator, Kristoren bitartez be-

Urteko 26. astea.

ESKARI ETA ESKER ONEZKO OTOITZ EGUNA.

San Froilan Leon-go, *ermitaua eta gotzaina*.

rekin adiskidetu baikaitu, eta adiskidetzeko zerbitzua guri eman digu. Izan ere, Jainkoa ari zen Kristogan mundua berekin adiskidetzen ari zena, gizon-emakumeei bekatuen kontua eskatu gabe, eta guri eman digu adiskidetzearen mezua.

Senideok: Kristoren mandatari gara, eta gure bitartez Jainkoak berak erregutuko balizue bezala da. Kristoren izenean eskatzen dizuegu: adiskide zaitezte Jainkoarekin. Bekatuarekin zerikusirik izan ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatuarekin bat egin zuen, guk haren bitartez Jainkoaren salbamena iritsi genezan.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,7-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko dizue; eskatzen duenak hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitzen, eta atea jotzen duenari zabaldu egiten baitzaio.

Zuetako norbaitek, semeak ogia eskatuta, harria emango ote dio? Edota arraina eskatuta, sugea emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez dizkie zeruko zuen Aitak gauza onak emango eskatzen dizkiotenei!».

**G**aur eskerrak emateko egun berezia da. Bihotzean gogo emateko, bai jasotako hain uzta handi hori eta gertatu zain den ezkutuko hainbat hazi, bai eguneroko gure joan-etorriak pozten dituzten aurpegi horiek. Esker onak konfiantza izaten du berekin eta aurkituko dugun segurtasun maitetsua, benetan gabiltzalako bila, garaiz eta desgaraiz dei egin nahi dugulako, zerbitzatzen dugun Jauna mugagabeki onberagoa eta doakoagoa delako gure bizitza sostengatu eta elikatu izan duen jenderik eskuzabalena baino. Esker onak beti konfiantza handiagoa izatera eramán ohi gaitu. Esker onak mundua berreraiki eta edertu egiten du, gugandik kanpo eta barne.



Urteko 27. astea.

San Bruno, *fundatzailea (Kartusiarrak)*.

## § Habakuk-en liburutik 1,2-3; 2,2-4.

Noiz arte, Jauna, ari behar dut zuri erreguka, Zuk entzun gabe? Noiz arte ari behar dut oihuka gogorkeriaren aurka, Zuk salbatu gabe? Zergatik ikusarazten didazu horrenbeste bidegabekeria? Nola egon zintezke zapalketari begira? Hondamen eta gogorkeria ugari aurrean, haserreak eta borrokak nonahi.

Orduan, Jaunak erantzun zidan:

«Idatz ezazu agertuko dizudana, ezarri taulatxoetan, erraz irakurtzeko eran. Ikuskari hau ez da beteko epea burutu arte, baina badoa helbururantz, ez du huts egingo; luzatzen bada, zuk itxaron, berandu gabe iritsiko baita. Harroak ez du bakerik bere baitan; zintzoa, ordea, bere leialtasunari esker biziko da».

[Sal 95 [94]: Entzungo al duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».]

## § San Paulok 2 Timoteori 1,6-8.13-14.

Anaia maitea: Gomendatzen dizut indarberri dezazula nik eskuak ezartzean Jainkoak eman zizun dohaina, Jainkoak ez baitigu beldurti egiten gaituen espiritua eman, indarra eta maitasuna ematen eta geure buruaren jabe egiten gaituen espiritua baizik. Ez izan, bada, gure Jauna aitortzeko lotsarik, ezta lotsatu ere harengatik kartzelan dagoen honetaz; bestela baizik, Jainkoaren indarraz fidaturik, eraman itzazu nekeak nirekin batean Berri Onaren alde.

Har itzazu jarraibidetzat, Kristo Jesusengan oinarritzen diren sinesmenaz eta maitasunaz nigandik entzun dituzun hitz osasungarriak. Zaindu gordailu eder hau, gudan bizi den Espiritu Santuaren indarraz.

## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,5-10.

Aldi hartan, apostoluek esan zioten Jaunari: «Handitu sinesmena gudan». Jaunak erantzun zien: «Sinesmena bazenute, mostaza hazia

Urteko 27. astea.

San Bruno, *fundatzailea (Kartusiarrak)*.

bezain txikia izanik ere, pikondo honi “atera hortik eta landatu itsasoan” esango zeniokete, eta obeditu egingo lizueke.

Emazue, zuetako batek morroia duela soro-lanean edota artzaintzan. Morroia etxeratzean, “hator berehala mahaira” esango ote dio? Ez ote dio beste hau esango: “Presta iezadak afaria, jantzi aurreko mantala eta zerbitza nazak, nik afaldu bitartean; ondoren, afalduko duk heuk?” Morroiari esker ona zor ote dio, agindua bete duelako?

Zuek ere gauza bera: agindutako gutzia egin eta gero, esan: “Morroi gizajoak gara; egin behar genuena besterik ez dugu egin”.

**H**istoria labur honen azal-bilgarria nahasgarri irudi dakiguke. Ikasleen eskaria onartu eta berehala, funtsezko alderdi bati begira jarri ditu Jesusek; hain zuzen ere, Jainkoaren aurrean jartzeko dugun era eta harreman horren guztizko doakotasuna, biak, ulertu ahal izateko. Jainkoak ez digu ezer zor, ez du beharrezkoa gu «mahaian eserarazi» eta bera zerbitzari aritzea; aitzitik, geuri dagokigu beraren zerbitzari izatea, bera gosteoa. Ez dagokigu guri jauntasuna, baizik eta sorkari eta zerbitzari izatea, beste saririk espero gabe, izaeraz egitea dagokien hura egiten dugulako. Halaz guztiz, bada ezusteko bat historia honen pean, harago joango baita Jesus: zapia gerrian jarri, gure zerbitzari bihurtu eta oinak garbituko dizkigu. Nolako esker onez jokatu du aurrerantzean bere jaunak horrela onartu duela sentitu duen zerbitzariak! Konturatuko denean, atsegin hutsez jokatu duela bere jaunak berearekin, maitasun hutsez! Nolakoak izango lirateke gure zerbitzua eta gure harremanak, benetan iturburu horretatik jarioak izango balira? Hain zorioneko zerbitzariak gara! Egingo al dugu dagokiguna, halako dohainaren jakitun izanik? Batak besteari lagunduko al diogu dohain horren gogoa biziberritzeko?

Urteko 27. astea.

Arrosarioko Andre Maria Birjina.  
Santana Justina, *birjina eta martiria*.

[Jonas liburutik 1,1–2,1.11: Abiatu zen Jonas, Jaunagandik urrun ihes egiteko asmoz. **Salmoa. Jonas 2:** Zuk, Jauna, bizirik atera ninduzun leizetik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,25-37.

Aldi hartan, lege-maisu batek jaiki eta azpikeriaz galdetu zion Jesusi: «Maisu, zer egin behar dut ondareztat betiko bizia jasotzeko?» Jesusek esan zion: «Zer dago idatzia Moisesen legean? Zer irakurtzen duzu?»

Hark erantzun: «Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz, indar guztiz eta adimen guztiz; eta lagun hurkoa zeure burua bezala». Jesusek erantzun zion: «Ederki erantzun duzu. Bete hori eta bizia izango duzu». Baina, lege-maisuak, galdera bidezkoa zela adierazi nahirik, esan zion Jesusi: «Eta zein da nire lagun hurkoa?»

Jesusek, orduan: «Behin batean, gizon bat zihoan Jerusalemdik behera Jerikorantz, eta lapurren eskuetan erori zen. Lapurrek zeuzkanak kendu eta, egurtu ondoren, alde egin zuten, erdi hilik utziz. Hain zuzen, apaiz bat gertatu zen bide hartan behera eta, gizona ikusi zue-nean, bidetik baztertu eta aurrera jo zuen. Beste horrenbeste egin zuen handik igaro zen tenpluko lebitar batek ere: ikustean, bidetik baztertu eta aurrera jo zuen. Baina bidaian zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, errukitu egin zitzaion. Hurbildu eta zauriak lotu zizkion, olio eta ardoz igurtzi ondoren; gero, bere asto gainean jarri, ostatura eraman eta bere ardurapean hartu zuen. Biharamunean, zilarrezko bi txanpon atera eta ostalariari eman zizkion, esanez: “Zaindu ezazu eta, gehiago gastatzen baduzu, hurrena natorrenean ordainduko dizut”.

Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu zuen lagun hurko bezala lapurren eskuetan eroritako gizonarekin?» Lege-maisuak erantzun zion: «Hartaz errukitu zenak». Jesusek esan zion, orduan: «Zoaz eta egin zeuk ere beste horrenbeste».

Urteko 27. astea.

Arrosarioko Andre Maria Birjina.

Santana Justina, *birjina eta martiria*.

**G**ogoan dut oraindik zer esan zigun Frantzisko aita santuak: deitoratu egiten ditugula, gomendatu dizkiguten eginbeharrak, hauek astirik uzten ez digutelako behartsuei kasu egiteko; baina, aldi berean, ez garela gai izaten unetxo bat egoteko geurekin ditugun arreba edo ahizpa adineko eta gaixoeekin. Eginbeharren garrantziak kamustu egiten du gure gaitasuna bideko zaurituak ikusteko: apaiza eta lebitarra jende erlijioso izango ziren, baina ez ziren gizakoi. Beste pertsonengana gupidaz hurbiltzeko dugun moduak eratzten eta adierazten ditu Jainkoarekiko gure harremanak. Pertsonaren ondoko edo urruneko, barnebildu edo ireki, hotz edo samur. Non kokatzen gaitu istorio honek?

\* \* \*

## ANDRE MARIAREN ARROSARIOA

### Gogoeta

*Joan Paulo II.ak bost misterio berri gehitu zizkien ordu arteko misterioei 2002ko urrian. Misterio berri horien egokitasuna azaltzeko, galdera batzuk hemen testu luzeago batetik aterarik.*

*«Ez al zaio gauza bitxia iruditzen arrosarioa errezatzeko ohitura duenari, soilik Jesusen haurtzaroko, nekaldiko eta piztuerako misterioez gogoeta egitea? Ez al da susmagarria, gutxienez, ez gogoeta egitea Jesusen helduaroko ezertaz? Ez beraren mezuez? Ez beraren keinu eta seinale mirarizkoen? Ez beraren adiskide lepradun, emakume, prostituitu, zerga-bilatzaileez, ez erromatar, atzerritar, itsutu, deabrudun, konkordun, mutu, ezindu, gose, pobretu, lohituez...? Ez al da arrosarioaren jardueran gogoetarik egin behar Jainkoaz, Aita den hartaz eta ez epaile, Jesusek esandako hitzez? Ez al da hausnartu behar pertsonaz eskaini duen mezuaz? Ez al dira gogoratu behar bizitzearen, partekatzearen, zerbitzatzearen eta barkatzearen pozaz jaulki izan dituen hitzak? (Carmelo Bueno Heras, Ecclesalia).*

Urteko 27. astea.

Santa Pelagia Antiokia-koa, *birjina eta martiria*.

[Jonas liburutik 3,1-10 Ninivetarrak beren bide okerreтик itzuli ziren, eta damutu zen Jainkoa haiei egindako mehatxuaz. Sal 130 [129]: Gure erruak gogoan badauzkazu, Jauna, nor dagoke zutik?]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,38-42.

Aldi hartan, Jesus herrixka batean sartu zen, eta Marta zeritzan emakume batek etxean hartu zuen. Bazuen honek Maria izeneko ahizpa bat, eta hau, Jaunaren oinetan eserita, haren hitza entzuten zegoen.

Marta, berriz, lanpetua zebilen etxeko zereginetan. Orduan, Martak Jesusen aurrean jarri eta esan zion: «Jauna, ez al dizu axola nire ahizpak lan guztia nire gain uztea? Esaiozu laguntzeko». Jaunak, ordea, erantzun zion: «Marta, Marta, gauza askorengatik zabilta kezkatua eta larri; baina bakarra da beharrezko. Alderdirik onena aukeratu du Mariak, eta ez dio inork kenduko».

**U**rtetan bizi izan nuen desleialtasun-sentimendu bat: uste nuen urrundu egin nintzela Betaniako Mariak aukeratutako alde on hartatik. Esaten nuen neure baitan: «Marta bat egina nago»; batetik bestera, barreiatu, nabilela zetorkidan burura, gainzaturik, eta bate-re ohartzaile izan gabe. Eszenei barneagotik erreparatzean, ohartzena ez dela hori errealitate osoa. Alderik hobena ez da Mariarena –ez al zuen, ba, Jesusek berak bere bizitza egin bidaiari eta mahaian partaide?–; baina bai dela beharrezko gauza bakarra Jesusi eskainitako arreta hori, egiten dugun guztian. Osorik ohartzaile bizi, zerbitzuan eta otoitzean, etxea argituz geurekin dugun Jaunaren presentzia biziari dagokionez.

Urteko 27. astea.

San Dionisio, *gotzaina*, eta lagunak, *martiriak*.

San Joan Leonardi, *apaiza*.

---

[Jonas liburutik 4,1-11: Zuk errukia agertzen diozu landare honi. Eta Nik ez ote diot errukia agertuko Ninive hiri handiari? Sal 85 [84]: Ona zara, Jauna, eta barkabera.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,1-4.

Aldi hartan, Jesus otoitzean ari zen leku batean; bukatu zuenean, ikasleetako batek esan zion: «Jauna, irakatsiezaguzu otoitz egiten, Joane bere ikasleei irakatsi zien bezala».

Jesusek esan zion: «Otoitz egitean, esazue: “Aita, santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, emaguzu egunean eguneko ogia, eta barkatu gure bekatuak guk ere zor diguten guztiei barkatzen diegunez gero, eta ez utzi gu tentaldian erortzen”».

**D**iote, Simone Weil emakume filosofo eta mistiko juduak grekoz otoitzen zuela Gure Aita, egunero lanari ekin aurretik, eta behin eta berriz egunean barna. Berak dio: «testu honen egundoko gozotasunak halako moduan harrapatu ninduen, non ezin bainion utzi bera etengabe esateari». Hain egunerokoa da otoitz hau, non erabateko arreta jarritz esatea proposatu baitio bere buruari, eta berriro hastea, arreta joaten edo lokartzen bazaio. Esatean esperimintatzen du, Kristo bera duela bere aurrean, «baina beraren presentzia gero eta egiazkoagoa da, sakonagoa, argiagoa eta maitasunez beteagoa lehenengoz harrapatu ninduen hartan baino».

Urteko 27. astea.

Santo Tomas Villanueva-koa, *gotzaina*.San Daniel Comboni, *fundatzailea (Konbonianoak)*.

[Malakias profetaren liburutik 3,13-20a.: Badator eguna, labea bezain kiskalgarria. **Sal 1**: Zorionekoa Jaunagan itxarobidea jartzen duena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,5-13.

Aldi hartan, esan zien Jesusek ikasleei: «Eman dezagun, zuetako batek adiskide bat duela eta gauerdian datorkiola, esanez: “Adiskide, emazkidak hiru ogi, itzuliko ditiat eta; lagun bat etorri zaidak bidaian eta ez zeukaat zer eskaini”. Eman dezagun, besteak barrutik erantzuten diola: “Utz nazak bakean! Atea itxia zegok, eta haurrak eta neu oheratuak; ezin naitekek ematera jaiki”. Hau diotsuet: adiskidea duelako ez bada ere, aspergarri izan ez dakion behintzat, jaiki eta emango dio behar duena».

Hau diotsuet, beraz: «Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko dizue; jo atea, eta zabalduko dizue; eskatzen duenak hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitu, eta atea jotzen duenari zabaldu egiten baitzaio. Zuetako norbaitek, aita izanik, semeak arraina eskatuta, sugea emango ote dio arrainaren orde? Edota arrautza eskatuta, eskorpioia emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez ote die zeruko zuen Aitak Espiritu Santua emango eskatzen diotenei!»

**J**esusek Espiritua eskatu beharra dugula errepikatzen digu. Agian, beste mila gauza eskatzen dugu, eta beharrezkoenak alde egiten digu; izan ere, Paulok esana da: ez dakigu behar bezala otoitz egiten. Pobretasun-sentimendu honek garamatza aurkitzera, gure bizitzako alderdi guztiak, benetan guztiak, bihur daitezkeela egokiera, «bilatu, deitu eta eskatu» ahal izateko. Salmoetan Jainkoaz fidatzen ikasten dugu eta zer garen argira ateratzen. Jainkoaren aurrean ipintzen garenean, ez dugu izaten non ezkutatuturik. Bilatu, desiratu, hitz egin, oihu egin, hatsartu, negar egin, prestatu, bihotza ireki. Eskatu mila eratan bizia.

Urteko 27. astea.

Begoñako Andre Maria Birjina (Bizkaiko zaindaria).

Santa Soledad Torres Acosta, *fundatzailea (Mariaren Mirabeak)*. \*

[Joel Profetaren liburutik 1,13-15;2,1-2: Jaunaren eguna, ilunpe-eguna eta itzal beltzeko eguna. Sal 9 [9A]: Justiziaz gobernatzen du Jaunak mundua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,15-26.

Aldi hartan, Jesusek deabru bat bota ondoren, jendarteko batzuek zioten: «Deabruen buruzagi den Beeltzebulen indarrez botatzen ditu honek deabruak». Beste batzuek, azpikeriaz, Jainkoagandiko seinale bat eskatzen zioten.

Igarri zizkien Jesusek beren burutazioak eta esan zien: «Bere baitan zatiturik dagoen erreinua erraustu egingo da eta etxea etxearen gain eroriko. Era berean Satanas ere: bere baitan zatiturik badago, nola irau dezake haren erreinua? Zuek diozueenez, Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen ditut. Baina Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen baditut, noren indarrez botatzen dituzte zuen ikasleek? Horregatik, zeuen ikasleak izango dituzue epaile. Baina Nik deabruak Jainkoaren indarrez botatzen baditut, garbi dago iritsi dela zuengana Jainkoaren erreinua.

Gizon indartsu batek, armaturik, bere jauregia zaintzen duen birtartean, seguru dauzka bere ondasunak. Baina indartsuago den batek eraso eta menderatzen badu, segurantzia ematen zioten armak kendu eta banatu egiten ditu hari harrapaturiko ondasunak.

Nire alde ez dagoena nire aurka ari da, eta nirekin biltzen ez duenak sakabanatu egiten du. Espiritu gaiztoa, norbaitengandik atera ondoren, leku idorretan barrena ibili ohi da atsedean bila; baina aurkitzen ez duelarik, bere buruari esaten dio: “Itzul nadin atera nintzen neure etxera”. Iristean, etxea garbitua eta apaindua aurkitzen du. Orduan, joan eta beste zazpi espiritu hartzen ditu, bera baino gaiztoagoak, eta gizakiagan sartu eta bertan jartzen da bizitzen. Horrela, pertsona horren azken egoera lehengoa baino okerragoa gertatzen da».

\* San Joan XXIII.a, 261. *aita santua.*  
(Ikus beherago Begoñako Andre Mariaren Meza)



**B**ehin batean eraman zioten Hildegarda von Bingen-i emakume bat, deabruak hartua omen zena eta jasateko zaila zen erokeria baten seinaleak azaltzen zituenena. Hildegardak ez du utzi nahi hospizioan, eta mojak izutu egin dira monasterioan ostatu eman nahi diola ikustean: «nolatan har genezake horrelako zama astun bat?», galdetu diote. «Ene alabok, gomendatu zeuen beldurra Jakinduria Andereari. Geure artean izango dugun bitartean ez dugu juzkatu behar emakume hau. Maistratzat bidali digu [Jainkoak], ispilutzat, erronkatzat, geure barnean lo dagiten eta kanporatu nahi ditugun deabruai aurre egiteko».

\*\*\*

## BEGOÑAKO ANDRE MARIAREN MEZA

[Ben Sirak 24,17-22: Maria, jakinduriaren aulkia. **Salmoa**: Lukas 1: Handiesten du nire arimak Jauna. **San Paulok Galaziarrei 4,4-7**: Bere Semea bidali zuen Jaungoikoak, emakumeagandik jaioa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,43-51.

Jesusen gurasoak Jerusalemera joaten ziren urtero erromes Pazko -jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituenean, Jerusalemera igo ziren jaietara, ohitura zen bezala. Jaiegunak bukatutik gurasoak etxerantz abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalemen gelditu zen, haiek jakin gabe. Erromes-kideen artean zetorrelakoan, egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren taldeko ahaideen eta ezagunen artean. Eta aurkitzen ez zutelarik, Jerusalemera itzuli ziren haren bila.

Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, irakasleen artean eserita, haiei entzuten eta galdezka. Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden erantzunetan azaltzen zuen argitasunagatik. Gurasoak, ikusi

\* San Joan XXIII.a, 261. *aita santua*.

Urteko 27. astea.

Begoñako Andre Maria Birjina (Bizkaiko zaindaria).


Santa Soledad Torres Acosta, *fundatzailea (Mariaren Mirabeak).*\*

zutenean, harriturik gelditu ziren, eta amak esan zion: «Seme, baina zergatik egin diguzu hori? Horra nolako atsekabez ibili garen aita eta biok zure bila!» Hark erantzun zien: «Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten Nik neure Aitaren etxean egon behar dudala?» Haiek, ordea, ez zuten ulertu zer esan nahi zien.

Jesus Nazaretera jaitsi zen haiekin, eta haien menpean bizi zen.

### Begoñako Andre Maria

**B**egoñako Andre Mariaren, Bizkaiko Zaindariaren, egun honetan, liturgia-ospakizunerako aukeratutako ebanjelioak, Jesus Haurraren gertakariaz, «galdu eta tenpluan aurkitua» izan zenaz, hitz egin digu. Lukas ebanjelariak, zera esanez amaitu du ebanjelioko pasarte hau: «Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak». Mariaren bizitzako ezaugarriarik sakonenetakoa laburbiltzen duen esaldia da: sinesmena bihotzean bizi; Jainkoaren hitzaz fidatu zen Maria Deikunde edo Iragarkunde egunetik beretik; zeruratua izan zenean, hara eraman zezan utzi zion Jainkoari. Mariak jakin zuen Jainkoari entzuten bere bizitzan, eta gure belarriak irekitzen ditu, Jesusen hitza gure barnera ere sar dadin. Andre Maria, otoitz egizu gure alde!



*Begoñako Andre Maria*

\* San Joan XXIII.a, 261. *aita santua.*

Urteko 27. astea.

Pilare-ko Andre Maria.

San Joan Beyzym, *dohatsua, apaiza, jesuita.*

[1 Kronikak liburutik 15,3-4.15-16; 16,1-2: Ekarrri zuten Jainkoaren kutxa, eta Davidek harentzat eraikia zuen oihal-etxolaren erdian ipini zuten. EDO Apostoluen Eginak liburutik 1,12-14: Jesusen ama Mariarekin otoitzari emanak bizi ziren. Sal 27 [26]: Jaunak koroatu nau eta zutabe gainean goratu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,27-28.

Aldi hartan, Jesus gauza hauek jendeari esaten ari zela, emakume batek jendartetik deiadarka esan zuen: «Zorionekoa sabelean eraman zintuen eta bularra eman zizun emakumea!»

Baina Jesusek esan zuen: «Hobeki esan, zorionekoak Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!»

**B**ai zoriontasun herrikoi eta bizia Mariari eskaini dioten hau. Guk ere eskaintzen ahal genioke nork geure amari: berak, bere familia-ondarea eta bere historiako zauriekin, jakin eta ahal zuen maitasuna eman zigun, eta bizitzeko eta hazten joateko bidea egin zigun. Gustukoa izaten dut pentsatzea Jesusek atsegini izan dituela ebanjelioko emakume honen bat-batekotasuna eta Jesusen amari bota dion loretxoa; baina Jesusek ahaidetasunak ematen ahal diguna baino zoriontasun handiago batera ireki nahi gaitu. Bada zoriontasunik familia bihurtzen gaituen lotura askoz sakonago eta beteago batean: Jainkoarenak izatea ematen digun hartan, Jesusen Hitza onartu eta bizitzetik datorren hartan.

Urteko 28. astea.

Joan Beyzym, *dohatsua, apaiza, jesuita.*San Romulo, *gotzaina.* San Fausto, *martiria.*Santa Zeledonia, *birjina.***§ 2 Erregeak liburutik 5,11-17.**

Egun haietan, jaitsi zen Naaman siriarra Jordan ibaira eta zazpi bider murgildu zen, Jainkoaren gizonak agindu bezala, eta legenarra desagertu eta haurtxoarena bezain garbi gelditu zitzaion haragia.

Orduan, Jainkoaren gizonagana itzuli zen bere lagun-talde osoarekin eta, haren aurrean zutik, esan zion: «Orain badakit ez dela munduan Jainkorik Israelena baizik. Otoi, onar ezazu zerbitzari honen esku-erakutsia». Eliseok erantzun zion: «Ala Jauna, zerbitzari nauena! Ez dut ezer hartuko». Naamanek hartzeko eta hartzeko esan arren, Eliseok ez zuen hartu nahi izan.

Orduan, Naamanek: «Ezezkoan zaudenez gero, utz iezaziozu, berderen, zeure zerbitzari honi, bi mandok eraman dezaketen lurra hartzen; gaurtik aurrera ez baitio zure zerbitzariak erre-oparirik eta sakrifiziorik inolako jainkori eskainiko, Jaunari izan ezik».

[Sal 98 [97]: Agertu du Jaunak nazioen aurrean beragandiko garai-pena.]

**§ San Paulok 2 Timoteori 2,8-13.**

Anaia maitea: Izan gogoan Jesu Kristo, Daviden jatorritik sortua, hilen artetik piztua. Hau da nik irakasten dudan Berri Ona eta honen-gatik nago neketan, gaizkile bezala katez lotua; baina Jainkoaren hitza ez dago katez lotua. Horregatik, dena jasaten dut Jainkoak aukeratu dituenen onerako, horiek ere Kristo Jesusek ematen duen salbamena eta betiko aintza irits ditzaten.

Sinesgarria da adierazpen hau: Harekin hiltzen bagara, harekin biziko gara; harekin sufritzen badugu, harekin izango gara errege; hura ukatzen badugu, hark ere ukatuko gaitu; gu leialak ez bagara ere, hark leial dirau, ez baitezake bere burua ukatu.

Joan Beyzym, *dohatsua, apaiza, jesuita*.  
 San Romulo, *gotzaina*. San Fausto, *martiria*.  
 Santa Zeledonia, *birjina*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,11-19.

Aldi hartan, Jesus Jerusalemera bidean, Samarian eta Galilean barna zihoan. Herrixka batean sartzean, hamar legenardun atera zitzaizkion bidera. Urruti gelditurik, deiadarka esan zioten:

«Jesus, Maisu, erruki zakizkigu!» Jesusek, ikustean, esan zien: «Joan eta azaldu apaizengana». Bidean zihoazela, garbi gelditu ziren.

Haietako bat, sendatua zegoela oharturik, Jainkoa deiadarka goratuz itzuli eta Jesusen oinetara ahuspez erori zen, eskerrak emanaz. Samariarra zen bera.

Jesusek esan zuen: «Ez al dira hamarrak garbi gelditu? Non dira beste bederatziaik? Ez al da izan atzerritar hau besterik Jainkoa goratzeratortzeko?» Gero, esan zion: «Jaiki eta zoaz; zeure sinesmenak salbatu zaitu».

**E**szenan murgilduko naiz bertan banengo bezala, neure lepra-georak aitortuz: baztertzen dudana, edo besteengan ukatzen dudana, edo begiratzea gustatzen ez zaidana, edo, neugan zokoratzen dudana, izan nahi nukkeen irudiarekin bat ez datorrelako. Errealitate horiekin konektatuko naiz eta Maisuari erregutuko. Laguntza edo grazia eskatuko diogu geure bizitzan egiazale izateko eta, egoera horretatik, gupida eskatzeko. Jesusek presa eman digu besoak tolesturik ez gelditzeko, baizik eta mugitzeko: hamar lepradunak «Bidean zihoazela, garbi gelditu ziren». Gure bizitzako bidea jendea sendatzeko bidea da. Hamar lepradun garbi gertatu ziren, baina batek bakarrik sentitu zuen salbazioa. Sendatua izan ondoren, bera bakarrik itzuli da bere esker ona agertzerat, eta narratzaileak arreata handiz adierazi du samariarra zela: gutxienik espero zitekeen horrelakorik atzerritar honengandik. Jabetu zen, ordea, sendatzeaz, «sendatua zegoela ikusirik», eta esker ona jario zitzaion. Esker ona seinale ona izan ohi da gure bizitza saneatuz doala, garatuz doala. Gutxi eskertzen dugunean gutxi hazten gara. Eska dezagun dohaina munduan den guztiarengatik eskerrak emateko, eta eskeretsu bizitzeko izaki guztiakiko onberatasun eta gupida bezala.

Urteko 28 astea.

San Romulo, *gotzaina*.

San Kalisto I.a, *16. aita santua eta martiria*.

[San Paulok Erromatarrei 1,1-7: Jesu Kristogandik hartu genuen apostolu izateko dohaina, jentil-herriei sinesmena eramateko. Sal 98 [97]: Bere garaipena ezagutarazi du Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,29-32.

Aldi hartan, jende asko biltzen ari zelarik, Jesus honela hasi zitzaien: «Gizaldi hau gaiztoa da. Ezaugarri eske ari da, baina ez zaio ezaugarririk emango Jonas profetarena besterik. Izan ere, ninivetarrentzat Jonas ezaugarri izan zen bezala, hala izango da Gizonaren Semea gizaldi honentzat.

Auzi-egunean hegoaldeko erreginak gizaldi honetako jendearen aurka jaiki eta kondenatu egingo du, lurraren azken mugetatik etorri baitzen hura Salomonen jakinduriatzko hitzak entzutera, eta hona hemen Salomon baino gehiago dena.

Auzi-egunean ninivetarrek ere gizaldi honen aurka jaiki eta kondenatu egingo dute, haiek bihotz-berritu egin baitziren Jonasen predikuz, eta hona hemen Jonas baino gehiago dena».

**J**esusi nekagarri gertatu ohi zaio gure ezgaitasuna, Jainkoa nola agertzen den modua ulertu eta sumatzeko. Bizi garen mundu birtual eta presati honetan zirrara eragingo diguten seinale bila ibiltzen gara; uste izaten dugu, azken puntan egon behar dugula eta ikaskuntzan ere aseezin bihurtzen gara; Jesusek, berriz, bere buru-eskaintzaren seinale nahasgarriari erreparatzeko eskatu digu. Salomon eta Jonas aipatzeak, iraganak oraina argitu dezan uztea esan nahi du; ez gelditzea bizi izandakoari josirik, baizik eta geure burua konparatzea eta zirikatzea, Jesusen harira, buru-eskaintza osoa egiten ari diren gizon-emakumeekin.

Urteko 28. astea.

Santa Teresa Jesusena Avilakoa, *birjina eta eliz irakaslea.*

[Ben Sirak 15,1-6: Jakinduria eta adimen-espirituz beteko du eta soinekorik ederrenaz jantziko. Sal 89 [88]: Iragarriko diet zure izena neure senideei, goretsiko zaitut batzarraren erdian.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,25-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik.

Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartazue nire uztarrria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarrria leuna baita, eta nire zama arina».

**J**esusen laudorioa eragiten duen poz honek Jainkoaren bizia jende txiki eta xumeagan aurkitu izatean du bere arrazoia. Esperimentatu du Jesusek jende hori prest dagoela Erreinua onartzeko. Bestelako jarrera da Jainkoarekin onik daudela eta ezeren beharrik ez dutela izate du tenena. Jesusen Teresa emakume adoretsua eta bihotz-apala uzen zen: uste zuen den-dena Jainkoagandik hartzen zuela, eskerrak ematen zizkion dohain guztiengatik, eta eskaini egiten zituen dohain haiek: «Jainko gure Jaunak gida gaitzala nahi duen bidetik. Jada ez gara geure, baizik berarenak».

Urteko 28. astea.

Santa Eduvigis, *moja*.

Santa Margarita Maria Alacoque, *birjina*.

[San Paulok Erromatarrei 2,1-11: Bakoitzari bere egintzen arabera ordainduko dio: juduei lehenengo, baina baita judu ez direnei ere.

Sal 62 [61]: Zuk, Jauna, bere egintzen arabera ordaintzen diozu bakoitzari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,42-46.

Aldi hartan, Jaunak esan zuen: «Ai zuek, fariseuok! Barazkirik kaxkarrenen hamarrenak ordaintzen dituzue, eta zuzenbidea eta Jainkoaren maitasuna, berriz, alde batera uzten. Hauek bete behar zenituzten, haiek baztertu gabe.

Ai zuek, fariseuok! Sinagogetan aurreneko aulkiak eta plazetan jendearen agurrak maite dituzue!

Ai zuek! Ikusten ez diren hilobiak bezalakoak zarete, jendea ohar-kabea haien gainetik baitabil».

Orduan, lege-maisu batek esan zion: «Maisu, horrela hitz eginez, gu ere iraindu egiten gaituzu». Jesusek erantzun zion: «Ai zuek ere, lege-maisuok! Eraman ezineko zamak leporatzen dizkiezue besteei, eta zeuek atzamar batez ere ukitu ez».

**E**banjelioetan, Jesusen hitzik gogorrenak fariseuei eta lege-maisuei zuzenduak dira; eskandalutzat hartzen zuten hori beraiek; izan ere, gure belarrietara egokiturik, uste zuten jende on eta jainkozale zirela, betetzailerak; Jesusek, ordea, «baina» bat leporatzen zien: oso modu sotilean, beren «neu»a eta beren probetxua gainerakoekin premien aurretik jartzen zituzten. Gehiago axola zaien beren irudia bestearen oinazea baino, eta zamak ezartzen dizkiete besteei arindu ordez. Ez dezagun pentsa haiengandik oso urrun gaudenik; aitortu beharra dugu, ezen geure tentaziorik handienetako bat on edo hobe garelako uste izatea dela. «Ai zuek ere», esaten digu Jesusek: iratzarri, esnatu egin nahi gaitu, gal ez gaitzen.



Urteko 28. astea.

San Ignazio Antiokiakoa, *gotzaina eta martiria*.

[San Paulok Erromatarrei 3,21-30a: Fedeagatik hartzen ditu zintzotzat Jainkoak gizon-emakumeak, eta ez legea betetzeagatik . Sal 130 [129]: Jaunagan dago errukia, harengan askatasun ugaria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,47-54.

Aldi hartan, Jaunak esan zuen: «Ai zuek, zuen arbasoek hildako profetei hilarriak eraikitzen dizkiezuenok! Horrela, arbasoek eginda-koarekin ados zaudetela aitortzen duzue; zeren haiek hil egin baitziztuzten profetak, eta zuek hilarriak eraikitzen baitizkiezue.

Zerbaitegatik esan zuen Jainkoaren jakinduriak: “Profetak eta apostoluak bidaliko dizkiet eta batzuk hil eta beste batzuk erasoka erabiliko dituzte”. Baina munduaren hasieratik isuri den profeta guztien odolaren kontuak eskatuko dizkio Jainkoak gizaldi honi: hasi Abelen odoletik eta aldaretik santutegira bitartean hil zuten Zakariasen odol-raino. Bai, Nik diotsuet gizaldi honi eskatuko dizkiola kontuak.

Ai zuek, lege-maisuok, jakintzaren ateko giltzaren jabe egin zaretzenok! Zuek ez zarete sartu, eta sartu nahi zutenei ez diezue utzi».

Jesus handik atera zenean, fariseuek eta lege-maisuok gupidarik gabe eraso zioten, galderak egin eta egin, ea erantzun okerren batean harrapatzen zuten.

**G**aur Antiokiako Ignazio jarriko dugu –Abelen eta Zakariasen ondoren– Jesusengatik beren odola isuri dutenen artean. Kateaturik Erromara zeramatela, kristau-elkarteei egin zizkien gutunez, adorea eman nahi zien fedeari tinko eutsi ziezaioten, eta berari libre eta eskainirik eusten zion esperientzia azaldu zuen. Bere buruari guri emana den izena ezarri zion: «Teoforo», hots, Jainkoaren eroale. Beraren hitzek guretzat erronka izaten jarraitzen dute: «Bota zeuengandik legamia txarra, zaharra jada eta mindua... Bete zaitzete Kristoren gatzaz, zuen arteko inor usteldu ez dadin, zeuen usaina izango baituzue zeuen ezaugarri».

Urteko 28. astea.

SAN LUKAS, EBANJELARIA.

San Justo, *haurra*.

## § 2 Timoteoren liburutik 4,10-17b.

Anaia maitea: Dimasek utzi egin nau; nahiago izan ditu mundu honetako gauzak, eta Tesalonikara joan da; Kreszente, berriz, Galaziarra joan da eta Tito Dalmaziara. Lukas beste inor ez dago nirekin. Hartzazu Markos eta ekarri zeurekin, oso ona baitut lanerako. Tikiko Efesora bidali dut. Hona etortzean, ekar ezazu Troaden, Karporen etxean, utzi nuen soingainekoa, baita liburuak ere, batez ere pergaminoak.

Alexandro errementariak kalte handia egin dit; Jaunak ordainduko dio bere jokabidearen arabera. Kontu izan zeuk ere horrekin, gogor jarri baitzen gure irakatsien kontra.

Nire auziko lehenengo defentsan ez zen inor atera nire alde; barririk utzi ninduten denek; Jainkoak ez diezaiela kontuan har. Baina Jauna neurekin izan nuen eta indartu ninduen, nire bidez mezua osorik iragarria izan zedin eta jentil guztiek entzun zezaten.

[Sal 145 [144]: Zure adiskideek ager bezate, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.]

## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,1-9.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta leku guztietara.

Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uztara. Zoazte! Arku-meak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman poltsarik, ez zakutorik, ez oinetakorik, eta ez gelditu bidean inori agur egiten.

Edozein etxetan sartzen zaretela, esazue lehenbizi: “Bakea etxe honetakoei!” Eta han bakezalerik bada, haren gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira. Geldi zaitezte etxe berean; eta jan eta edan daukatenetik, zor baitzaio langileari bere saria.

Ez ibili etxez etxe. Herriren batean sartu eta ondo hartzen bazaitzute, jan jartzen dizuetenetik, sendatu bertako gaixoak eta esaeizue: “Hurbil duzue Jainkoaren erreinua”».

**E**saera sufi batek dio: «Jainkoaren maitasunez ogia ematen baduzu, ogia lortuko duzu trukean; zeure bizia eskaintzen baduzu haren maitasunez, bizia lortuko duzu trukean». Jesusen ondorengo bidean, ez da aski zerbait ematea, zeure burua behar duzu eman. Horrengatik gauzez arin bidali gaitu. Ez dira gauzak, ezta beharrezko baliabideak ere, kontuan hartzeak eta iragartzearen emankortasuna segurtatzen dutenak; arazoa ez da, batez ere, zer egin dezakegun, baizik eta zer irradiatzen dugun: gure presentziak ager ditzala Jesusen beraren era baketsu eta sendatzaileak, eta adieraz dezala hein batean bidali gaituen eta bidelagun dugun haren hurbiltasun maitagarri eta txeratsua: «geure zain jugularra baino hurbilagokoa dugun harena».

\* \* \*

## SAN LUKAS EBANJELARIA

San Lukas, tradizioak dioenez, Siriakoa zen eta sendagilea (Kol 4,14, Flm 24; 2 Tm 4,11). Bigarren ibilalditik aurrera San Pauloren bidelagun izan zen, 49. urteaz gero. Paulo hil ondoren, Errromatik alde egin zuen eta ez da haren aztarna garbirik ageri.

Ebanjelioan beste ebanjelariet baino hobeto azpimarratu du Jainkoaren errukia, Jesusengan agerian jarria. Ebanjelioaz gain, «Apostoluen Eginak» liburua zor diogu. «Herriak argitzeko argia» da Lukasek aurkeztu digun Salbatzailea (Lk 2,32). Dantek esana da: «Zorionekoa Lukas ebanjelaria, Eliza osoan distirutzen du, bere idazkietan Kristoren errukia nabarmendu duelako».

Urteko 28. astea.

Santuak: Joan de Brébeuf, Isaak Joguez, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*. San Pedro Alkantarakoa, *apaiza*. San Paulo Gurtzekoa, *apaiza*. San Grat (Zuberoa VI. mendean), *gotzaina*.

[San Paulok Erromatarrei 4,13.16-18: Abrahamek sinetsi egin zuen, inolako itxarobiderik ez zegoenean itxaropenari eutsiz. Sal 105 [104]: Gogoan du etengabe Jaunak bere ituna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,8-12.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jendearen aurrean aitortzen nauena aitortuko du Gizonaren Semeak ere Jainkoaren aingeruen aurrean; baina jendearen aurrean ukatzen nauena ukatu egingo dute Jainkoaren aingeruen aurrean. Gizonaren Semearen aurka zerbait esaten duenari barkatuko dio Jainkoak; baina Espiritu Santuaren aurka birao egiten duenari ez dio barkatuko.

Sinagogetara, buruzagien eta agintarien aurrera, eramango zaituztetenean, ez ibili kezkatan nola egin edo zer esan zeuen alde, Espiritu Santuak adieraziko baitizue une hartan bertan zer esan behar duzuen».

**G**ero eta gehiago kontrolatzen dugu teknologia, baina gero eta gutxiago ulertzen beste baten arima. Jesusen alde jokatzea, gizaki guztiak maitatzea da eta ikastea ulertzen ez ditugun errealitate askoren atzeko harietan ezkutuan ari den Espirituaren sarea nola aurkitu. Arakutzen jarraitu beharra dugu, etsi gabe, besteen bizitzan den ongia, eta aintzat hartu beharra dohain gordeak arnasten dituzten ahots horiek. Bizitza eskainia eta armagabea: bai zaila! Emakume behartsu batek esan zuen Gure Aita otoiztean: «Barkatu gure defentsak», eta ezinbesteko otoitz bat eskaini zidan orduan, berak jakin gabe.

Urteko 29. astea.

Santa Aurora, *aitorlea*.San Kornelio, *ehuntaria*.

## § Irteera liburutik 17,8-13.

Aldi hartan, amalektarrek israeldarrei eraso zieten Refidimen. Orduan, Moisesek esan zion Josueri: «Aukeratu zenbait gizon eta atera amalektarren kontra borrokara. Bihar muinoaren gainean zutik egongo naiz ni, Jainkoaren makila eskuan».

Moisesek esan bezala egin zuen Josuek eta amalektarren kontra borrokari ekin zion. Bitartean, Moises, Aaron eta Hur muino gainera igo ziren. Moisesek besoei goian eusten zienean, israeldarrak ziren garaile; behera erortzen zitzaizkionean, ordea, amalektarrak.

Moisesi besoak nekatu zitzaizkionean, harri bat hartu eta azpian ipini zitoten, bertan eser zedin. Aaronek eta Hur-ek haren besoei eutsi zieten, alde banatatik. Honela, Moisesen besoek tinko iraun zuten, eguzkia sartu arte. Eta Josuek amalektarrak garaitu zituen eta ezpataz suntsitu

[Sal 120 [119]: Gure laguntza, Jaunaren izena, zeru-lurrak egin di-tuenarena.]

## § Paulo santuak 2 Timoteori 3,14–4,2.

Anaia maitea: Iraun sendo, ikasi eta sinetsi duzun guztian; hartu gogoan norengandik ikasia duzun eta Liburu Santuak umetatik ezagutzen dituzula. Liburu Santuek eman diezazukete, Kristo Jesusengana-ko sinesmenaren bidez, salbamenera daraman jakinduria. Liburu Santuetan idatzirik dagoen guztia Jainkoak inspiratua da, eta irakasteko, arrazoiak emateko, okerrak zuzentzeko eta biziera zuzenean hezteko baliagarria; horrela, Jainkoaren gizona guztiz hornitua gertatzen da eta edozein eginbehar onetarako prest.

Jainkoaren aurrean eta, errege bezala agertuz, biziak eta hilak epaitzera etorriko den Kristo Jesusen aurrean erregutzen dizut: hots egin Jainkoaren hitza; ekin garaia denean eta ez denean, eman arrazoiak, zentzarazi eta aholkatu, zeure pazientzia guztia eta irakasteko gaitasuna erabiliz

Urteko 29. astea.

Santa Aurora, *aitorlea*.

San Kornelio, *ehuntaria*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18,1-8.

Aldi hartan, etengabe egin behar zutela otoi eta ez zutela etsi behar adierazteko, parabola hau esan zien Jesusek: «Bazen hiri batean epaile bat, ez Jainkoari beldurrik, ez gizakiari begirunerik ez ziona. Bazen hiri berean emakume alargun bat ere. Hau epaile harengana joaten zen, eskatzera: “Egidazu justizia aurkariarekiko auzian”. Luzaroan epaileak ez zion kasurik egin nahi izan, baina azkenean bere baitan esan zuen: “Ez diot Jainkoari beldurrik, ez gizakiari begirunerik; baina, alargun hau go-gaikarri zaidanez, egingo diot justizia, behingoz bakean utz nazan”».

Eta honela bukatu zuen Jaunak: «Begira zer dioen epaile zuzengabeak. Eta Jainkoak, ez ote die justizia egingo, gau eta egun deiadarka ari zaizkion bere aukeratuei? Zain edukiko ote ditu luzaroan? Justizia berehala egingo diela diotsuet. Baina Gizonaren Semeak, datorrenean, aurkituko ote du sinesmenik munduan?»

### ITXARONGO DUT

(Benjamín González Buelta, SJ)

Itxarongo dut haz dadin / arbola / eta itzala eman diezadan,  
baina ongarrituko dut itxarotea / neure hosto lehorrez.

Itxarongo dut sor dadin / iturria / eta ura eman diezadan,  
baina garbituko dut neure ubidea / oroitzapen lokaztuetatik.

Itxarongo dut egunsentia urra dadin / eta argitu nazan,  
baina astinduko dut neure gaua / ahuldura eta izerdia kanporatzeko.

Itxarongo dut irits dadin / ez dakidana / eta har nazan,  
baina hustuko dut neure etxea / kiste egina den guztitik.

Eta arbola ongarritzean, / ubidea garbitzean, gaua astintzean / eta  
etxea hustean,

lurra eta intziria / irekiko zaizkio esperantzari.

[San Paulok Erromatarrei 4,20-25: Hori Liburu Santuak gugatik ere badio; gu ere, harengan sinesten dugunok, zintzotzat hartuko baikaitu Jainkoak. **Salmoa: Lukas 1:** Bedeinkatua Jauna, Israelen Jainkoa, agertu eta bere herria askatu duena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,13-21.

Aldi hartan, jende arteko batek esan zion Jesusi: «Maisu, esaiozu nire anaiari senipartea nirekin erdibanatzeko».

Jesusek erantzun zion: «Lagun, nork jarri nau Ni zuen artean epaile edota ondasun-banatzailerik?» Eta jendeari esan zion: «Kontuz! Gorde zeuen burua diru-gosetik, ondasunek ez baitiote inori bizia segurtatzen, ugari izanda ere».

Gero, parabola hau kontatu zien: «Gizon aberats bati lurrak uzta handia eman zion. Eta honela hasi zen berekiko pentsatzen: “Zer egin, ez baitut uzta non jasorik?”. Eta beretzat esan zuen: “Badakit zer egin: mandio zaharrak bota eta handiagoak egingo ditut eta haietan jasoko ditut garia eta gainerakoak. Gero, esango diot neure buruari: “Ea, motel! Baduk hor gordeta urtetarako ondasunik aski; hartu atsedean, jan, edan eta bizi ongi!”»

Baina Jainkoak esan zion: “Burugabea halakoa! Gaur gauean bertan hil behar duk. Norentzat izango duk pilatu duana?”» Eta honela amaitu zuen Jesusek: «Horra zer gertatzen zaion, Jainkoarentzat aberats izan beharrean, ondasunak beretzat pilatzen dituenari».

«**K**ontuz mota guztietako gutuziekin». Liburu Santuaren hasieratik beretik aipatzen dira bizitzan izango ditugun bi bideak: esker ona edota gutuzia. Aski dut esaten jakitea edota beti asegaitz bizitzea. Eskua irekirik edota eskua itxirik. Arimaren gaixotasun bat da gutuzia, inoiz asetzen ez den zuloa, norberaren barnean. Gutuzia baliabide intelektual eta espiritualei dagokionez eta gutuzia harremanak izateari dagokionez, zenbat eta gehiago eduki baliosago naizelakoan. Gutuzia izaten dugu geure denborari dagokionez ere. Alderantzizko zerbait proposatu digu Jesusek: aberats Jainkoaren aurrean eta hutsik geure buruaz. Desjabetze purua.

Urteko 29. astea.

San Joan Paulo II.a, *aita santua*.

Nunilo (Novila) eta Alodia santuak, ahizpak, *birjinak eta martiriak (Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan)*.

[San Paulok Erromatarrei 5,12. 15b. 17-19. 20b-21: Gizon bakarraren bekatuagatik heriotza nagusitu bazen, zenbatez gehiago ez ote dira salbatuak nagusi izango betiko bizian! Sal 40 [39]: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,35-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zaudete prest, jantziak loturik eta kriseiluak pizturik; izan zaitetzte nagusia ezteietatik noiz itzuliko zain dauden morroiak bezalakoak, iritsi eta atea jo bezain laster irekitzeko prest dauden morroiak bezalakoak.

Zorionekoak morroi horiek, nagusiak, iristean, zain aurkitzen baditu! Egia diotsuet: arropak aldaturik, mahaian eserazako ditu eta zerbitzatzen hasiko zaie. Eta gauerdian nahiz goizaldean badator eta horrela aurkitzen baditu, zorionekoak haiek!»

**E**rne egotea, bat-batean datorren Adiskidearen ahotsari adi bizitzea da, beldurra eta segurtasun-eza baino harago edota, hain juxtu, beraien artean. Gaur beraren ahots mehea aintzat hartzera gonbidatu gaitu, geure garaiko beste milaka ahotsen artean: jende baztertu eta eroriagan deiar egiten duena, alegia; arrotz ditugun lurraldeetatik xuxurlatzen diguna, baketzen eta, orobat, gogaitzen eta koloka jartzten gaituena, norabidea seinalatzen diguna: «jende xehea lehenengo»; arnasten gaituena bedeinkazio mozorrotuei antzematen eta presa ematen diguna desafio berriekin... Beste bizitza batzuekin gupidatsu parte hartzera garamatzan ahots hori. Zorionekoak gu entzuten badugu!



Urteko 29. astea.

San Joan Kapistrano-koa, *apaiza*.

[San Paulok Erromatarrei 6,12-18: Heriotzatik bizira itzulitako gizaki bezala, jarri zeuen gorputz-atalak Jainkoaren zerbitzura. Sal 124 [123] Gure laguntza Jaunaren izena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,39-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hartu gogoan hau: etxeak nagusiak, lapurra zein ordutan etorriko den jakingo balu, ez luke etxea zulatzen utziko. Egon prest zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea».

Pedrok galdetu zion: «Jauna, guretzat ala denentzat esan duzu parabola hau?»

Jaunak erantzun: «Izan zaitetzte etxezain leiala eta zentzuduna bezalakoak, nagusiak, bere orduan behar den janaria banatzeko, morroi buru ipini duena bezalakoak. Zorionekoa morroi hori, nagusiak, iristean, agindua egiten aurkitzen badu! Benetan diotsuet: bere ondasun guztien buru ipiniko du. Baina morroia, nagusiak luzatuko duelakoan, morroi-lagunak eta neskameak jotzen eta jan-edanean eta mozkorkerian hasten bada, gutxien espero duen egunean eta gutxien uste duen orduan etorriko zaio nagusia, gogor zigortuko du eta desleialek merezi dutena emango dio.

Nagusiaren nahia zein den jakin arren, gauzak hark nahi bezala eratzen edo egiten ez dituen morroiak zigor gogorra izango du; nagusiaren nahia zein den jakin gabe, zigorra merezi duen zerbait egiten duenak, berriz, biguna. Askok eman zitzaionari, asko eskatuko zaio; eta askoren kargua eman zitzaionari, are kontu handiagoa eskatuko».

**J**akin beharra dugu zer duen atsegin, eta bizi beharra hura gautzeko prest. Eskuzabal izan nahi izaten dugu, baina askotan ez dugu astirik hartzen Jaunak nahi duenerako. Eta geure bizitza beraren zer-

Urteko 29. astea.

San Joan Kapistrano-koa, *apaiza*.

bitzura jarri nahi izan arren, pixka bat zabartu orduko, geure zilbor hesteari begira aurkitu ohi gara. Premiazkoa dugu bizi dugunaz azterketa egitea, etxeko nagusiaren gogoari harrera egiteko. Lagun gaitzaten beharra izaten dugu, zenbat ematen digun eta hura kudeatzera nola gonbidatzen gaituen barruntatzeko.

\* \* \*

«JAINKOAREN BEGIKOAK»

«Maiteaz galdezka» abestiaren doinuaz abestekoa.

Jainkoaren begiko  
direnei begira  
ez gara iritsiko  
oso urrutira.  
Ez dute ezer eta  
ezer gutxi dira.  
Non dute xarma eta  
non dute distira?

Gaixoz eta pobrez du  
Erreinua bete.  
Horiek ditu-eta  
bereziki maite.  
Bizirautea beste  
lanik ez daukate.  
Ilusioa ere  
ostu baitiete.

Jainkoaren begikoak dira.  
Jainkoaren begikoak dira.

Jainkoaren begikoak dira.  
Jainkoaren begikoak dira.  
(jarraipena 517. or.; urria 26)

*(J.A. Pagolaren, Jesusen gazte taldeak libururako  
Pello Esnaiek eta D. Amundarainek eratu, PPC 2018)*

Urteko 29. astea.

San Antonio Maria Claret, *gotzaina eta fundatzailea*  
(Klaretarrak).

[San Paulok Erromatarrei 6,19-23: Bekatuaren menpetik askaturik, Jainkoaren esklabo eginak izan zarete. Sal 1: Zorionekoa Jaunagan itxarobidea jartzen duena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,49-53.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Lurrean sua jartzera etorri naiz, eta nahiago nuke dagoeneko sutan balego! Heriotza-urean murgildu behar dut, eta hau larria hori bete arte!

Munduari bakea ekartzera etorri naizela uste al duzue? Bakea ez, banaketa baizik. Zeren hemendik aurrera, etxe bateko bost senideak banaturik egongo baitira: hiru biren kontra eta bi hiruren kontra; aita semearen aurka eta semea aitaren aurka, ama alabaren aurka eta alaba amaren aurka, amaginarreba errainaren aurka eta erraina amaginarrebaren aurka».

**E**san behar dut, denekin ondo egotea gustatzen zaienetakoa naizela, denei atsegin izatekoa, inor ez gogaitzea, eta beste behin bere lekuan jarri nau ebanjelioak. Jainkoaren maitasunaren suak harrapatzen gaituenean, gainerako harreman guztiak esperientzia horren anparooan gertatzen dira. Giza loturarik boteretsuenak gainditu eta agindu bi-ziago baten baitan gelditzen gara; honek ingurumen hurbilenean ezin ulertuak esperimentatzera eramango gaitu, eta mundu guztiari ezin atsegin izatera. Baina, azti!, ez da gure «ego»ak eragiten dituen «banaketen» kontua, baizik eta Jesusengatik gertatzen zaizkigun haiena.

Urteko 29. astea.

San Krispin eta Krispiniano, *martiriak* (Zapatarien Zaindaria).  


---

[San Paulok Erromatarrei 7,18-25a: Nork askatuko nau, heriotzara naraman neure izaera honetatik? Sal 119 [118]: Irakatsi niri, Jauna, zeure arauak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,54-59.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Sartaldean lainoa ikusi orduko, “euria dator” esaten duzue, eta hala gertatzen da. Hegoak jotzen duenean, berriz, “sargori dago” esaten duzue, eta hala gertatzen da. Itxurazaleok!, badakizue zeru-lurren itxurari antzematen, eta nolaz ez diozue antzematen garai honi? Zergatik ez duzue zeuen kabuz bereizten zuzena zer den?

Zeure etsaiarekin auzitegira zoazela, saia zaitetz bidean harekin konponbidea aurkitzen; bestela, epaileagana eramango zaitu eta epaileak ertzainaren esku jarriko, eta ertzainak kartzelara botako. Hara Nik esan: ez zara handik aterako, azken xentimoa ordaindu arte».

**B**ihur gintezke jende trebe eta aditu gauza askotan, baina funtsezkoari alde egiten utziz: bizitzea egokitu zaigun aldia interpretatzen jakiteari, alegia. Iraganak anestesiatuak gauzkala edota orainaldi bezala gertatzen den gerora gehiegitxo proiektaturik garelara, «gaur» honek, aldi zehatz honek, ihes egin digu, graziak beterik den eta berari begira osorik bizi gaitzen eskatzen duen «gaur» honek, alegia. Erdizka bizitzeko eta geure «auziak» geroaren geroan erabakitzeko tentazioaren aurrean, gauden gaudenean bizitzera dei egin digu Jesusek, dagokigunari bereizmenez aurre egitera, gura dugunaren arabera bizitzen saiatzera. Izan ere, «orain da edota inoiz ez, hemen da edota beste inon ez».

Urteko 29. astea.

San Evaristo, 5. *aita santua*,

[San Paulok Erromatarrei 8,1-11: Jesus hilen artetik piztu zuen Jainkoaren Espiritua zuengan bizi da. Sal 24 [23]: Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabilzananen taldea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13,1-9.

Aldi hartan, etorri zitzaizkion batzuk Jesusi, galilear batzuei gertauren berri ematera: nola Pilatok hil zituen, eskaintzen ari ziren opariren odolarekin haiena nahastuz. Jesusek erantzun zien:

«Uste al duzue galilear haiek gainerako galilearrak baino bekatariago zirela, horrelako heriotza izan zutelako? Ezetz diotsuet, eta, bihotz-berritzen ez bazarete, guztiok era berean galduko zarete. Eta Siloeko dorrea gainera erorita hil ziren hemezortzi haiek, uste al duzue gainerako jerusalemdarrak baino errudunagoak zirela? Ezetz diotsuet, eta, bihotz-berritzen ez bazarete, guztiok era berean galduko zarete».

Eta parabola hau esan zien: «Gizon batek pikondo bat zeukan, bere mahastian landatua. Joan zen piku bila eta ez zuen aurkitu. Orduan, esan zion mahastizainari: “Bada hiru urte pikondo honetara piku bila natorrela, eta ez dut aurkitzen. Moztu ezazu. Zertako eduki hor, lurra alferrik jaten?”

Mahastizainak, ordea, erantzun zion: “Jauna, utzazu aurtengoz; bitartean, ingurua aitzurtu eta ongarrria botako diot, ea aurrerantzean fruiturik ematen duen; eta bestela, moztu”».

«**E**a fruiturik ematen duen». Hori du bere amets handia Jainkoak gutako bakoitzari dagokionez, emankortasun hori, bere haziaren dohain hori gure lurrean, eta hori du,aldi berean, bere min handia egitasmo honek huts egiten duenean. Horra zergatik ari den Jesus hain errepikakor bihotz-berri gaitetzen, geure bizitza guztia maitasunaren ildoan jar dezagun, pazientzia handiko Mahastizainaren lanari leku eman diezaigun geure egoskortasun antzuan. Gure zain dago bera

Urteko 29. astea.

San Evaristo, 5. aita santua,

beti eta berak dio ekiten lanari: «aitzurtuko dut... ongarrituko dut». Ez urte bat gehiagoz, baizik eta akaberarik gabeko denboran. Horrela jokatzeko al dugu guk gainerakoekin?, ematen al diogu behar den aukerarik artean fruiturik eman ez duenari?

\* \* \*

«JAINKOAREN BEGIKOAK»

«Maiteaz galdezka» abestiaren doinuaz abestekoa.  
(513. orritik dator; urria 23tik)

Gure eguneroko  
egoera beltzak  
zapuzten ditu hainbat  
jenderen ametsak.  
Bihotzik azalduko  
ahal dugu behintzat  
ogi t'ardo apur bat  
behar dutenentzat.

Txiki gaixoak ditu  
Jainkoak begiko:  
haur, puta, mozkor, preso  
eta drogadikto.  
Maitasun berezia  
du horiekiko.  
Denek aurrea hartu  
digute betiko.

Jainkoaren begikoak dira.  
Jainkoaren begikoak dira.

Jainkoaren begikoak dira.  
Jainkoaren begikoak dira.  
Hortxe dute horiek distira.  
Hortxe dute horiek distira.

*(J.A. Pagolaren, Jesusen gazte taldeak libururako  
Pello Esnalek eta D. Amundarainek eratu, PPC 2018)*

Urteko 30. astea.

Bizente, Sabina eta Kristeta, *anai-arrebak, martiriak*.

## § Siraken liburutik 35,15b-17. 20-22a (gr. 12-14. 16-18).

Epailea da Jauna, eta ez du harengan eraginik inoren izenak: ez du alderdikeriarik egiten behartsuaren kontra eta entzuten du zapalduaren eskaria. Ez du umezurtzaren erregua mespretxatzen, ezta kezati doakion alarguna ere.

Jaunak gogo onez hartzen du bera zerbitzatzeko duena, eta honen eskaria zeruraino iristen da.

Apalaren otoitzak hodeiak zulatzen ditu eta ez du onik bere helmugara iritsi arte; ez du etsitzen, Goi-goikoak esku hartu eta erruga-beei justizia egin arte.

[Sal 34 [33]: Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun!]

## § San Paulok 2 Timoteori 4,6-8. 16-18.

Anaia maitea: Ni neure bizia opari eskaintzeko zorian nago; gainean dut mundu honetatik joateko ordua. Borroka ona egin dut, bukatu dut lasterketa, gorde dut sinesmena. Dagoeneko zain dut garai-penaren koroa, Jaunak, epaile zuzenak, azken egunean emango didan koroa; eta niri ez ezik, baita haren agerraldia maitasunez itxaro duten guztiei ere.

Nire auziko lehenengo defentsan ez zen inor atera nire alde; bakarrik utzi ninduten denek; Jainkoak ez diezaiela kontuan har. Baina Jauna neurekin izan nuen eta indartu ninduen, nire bidez mezua osorik iragarria izan zedin eta jentil guztiak entzun zezaten. Berak atera ninduen lehoiaren ahotik. Jaunak aterako nau gaitz guztiak eta salbatuko, zeruko bere erreinura eramanez. Berari aintza menderen mendetan. Amen.

## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18,9-14.

Aldi hartan, parabola hau esan zien Jesusek beren burua zintzotzat hartzen eta besteak gutxiesten zituzten batzuei: «Bi gizon igo ziren

Urteko 30. astea.

Bizente, Sabina eta Kristeta, *anai-arrebak, martiriak*.

tenplura otoitz egitera, bata fariseua eta bestea zergalaria. Fariseuak, zutik, honela egiten zuen otoitz bere barruan: “Eskerrak ematen dizkizut, ene Jainko, besteak bezalakoa ez naizelako: lapur, gaizkile, adulteriogile; ezta horrako zergalari hori bezalakoa ere. Astean bitan egiten dut barau, eta ditudan guztien hamarrenak ematen ditut”.

Zergalaria, berriz, urruti gelditurik, ez zen begiak zerura jasotzera ere ausartzen, baizik eta bular joka ari zen, esanez: “Ene Jainko, erruki zakizkio bekatari honi!”

Hara zer diotsuedan: azkeneko hau Jainkoarekin adiskideturik itzuli zen etxera; bestea, berriz, ez. Izan ere, bere burua goratzen duena beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

**I**storio honen muina, hasieratik beretik eskaini digu kontalariak: «Beren buruaz seguru sentitu ohi ziren, eta gainerakoak mespretxatu egiten zituzten». Ez ote da hau batzuetan gu geu ere harrapatzen gaituen tentazio sotila? Ez ote dugu jotzen besteekin konparatzera eta ez al dugu geure burua zertxobait hobetzat hartzen? Horretatik jario ohi dira lehia eta errezero guztiak. Baina jo dezagun astiroago Jesusek bi gizon ez zuten kontatu digun kontakizun honetara: bi gizon otoizlari dira, be-raien gorpuzkera bera errebelazio bat da jada. Fariseua zut-zutik ari da, bere burua du erreferentzia: «neu», «neu», «neu» entzuten dugu alde guztietan. Darion laudorioa besteekin erkatzetik datorkio: hau eta beste dira gainerakoak; bera, berriz, dotoreago ageri da, zuzen dena eta ezarria dena betetzen du, eta Jainkoak beragan egiten duena eskertu ordez, bere buruari erreparatzen dio, puztu-puzturik bere egingtzentatik eta lorpenengatik. Berezi eta besteak ez bezalako dakusa bere burua. Publikanoa, berriz, gorpuzta makurturik ageri da, alde batera utzia du bere «neu»a, premiadun sentitzen du bere burua gainerakoak bezala, eta Jainkoari buruz dakusa bere burua erabat: zuk begira dezazula, zuk egin dezazula, zuk izan dezazula errukia.



Urteko 30. astea.

San Simon eta San Judas, *apostoluak*.

[San Paulok Efesoarrei 2,19-22: Apostoluen oinarri gainean eraikiak zaudete. Sal 19 [18]: Lurbira guztira zabaltzen da haien hotsa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,12-19.

Aldi hartan, Jesus mendira joan zen otoitz egitera, eta Jainkoari otoitzean igaro zuen gaua. Eguna argitu zuenean, ikasleei deitu eta haietako hamabi aukeratu zituen, eta apostolu izena eman zien: Simon –honi Pedro izena ezarri zion– eta honen anaia Andres, Santiago, Joan, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago Alfeorena, Simon –Zelote zeritzana–, Judas Santiagorena eta Judas Iskariote, Jesusen saltzaile izan zena.

Jesus ikasleekin menditik jaitsi eta zelaigune batean gelditu zen. Ikasle-multzo handia zen harekin; baita herriko jendetza ugaria ere, Judea osotik, Jerusalemdik eta Tiroko eta Sidongo itsasaldetik etorria, hari entzutera eta beren gaitzetatik sendatzera. Espiritu gaiztoek oinazetuak sendatu egiten ziren. Jende guztiak Jesus ukitu nahi zuen, halako indar bat baitzerion, denak sendatzen zituena.

**J**esus adin guztietan irteten zaigu topo egitera, eta gu hautatu izana beraren txeraren fruitu da. Garrantzizko edozein erabaki hartuurretik, otoitzera jotzen du berak eta bere bizia Jainkoari aurkeztera. Gutako bakoitza Jainkoak Jesusi emana da; «eman dizkidazunen alde erregutzen dizut», esango du; hari beretik, guri ere geureak ez ditugun aurpegiak gomendatzen dizkigu: Jainkoak berak ematen dizkigu. Beste batzuekin batean gara deituak, onginahi hutsez, eta elkarrekin ezarri gaitu bidean, nora jo zeruertz bat aurrean azalduz: beste batzuen bizia salbatzera, alegia, bereizketarik gabe eta deskantsurik gabe; gu geu berak liberatzen eta sendatzen gaituen bezala.

Urteko 30. astea.

San Nartziso Jerusalemekoa, *gotzaina*.

[San Paulok Erromatarrei 8,18-25: Izadia bera ere irrikaz dago, zain-zain, Jainkoak noiz agertuko bere seme-alaba izatea zer den. Sal 126 [125]: Gurekin handikiro jokatu du Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13,18-21.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeren irudikoa da Jainkoaren erreinua? Zeren antzekoa dela esango nuke? Gizon batek bere baratzean botatzen duen mostaza-haziaren antzekoa da: hazten da eta zuhaitz egiten, eta txoriek haren adarretan egiten dute habia».

Esan zuen gainera: «Zeren antzekoa dela esango nuke Jainkoaren erreinua? Legamiaren antzekoa da: emakume batek hiru lakari-irinetan nahasten du, eta oraldi guztia harrotzen da».

**B**idez doala, gure begiak heziz doa Jesus, eguneroko bere bizitzako irudiez, landako eta etxekoez. Eta guri geuri, nola mintzo zaigu Erreinaua gauzatzea bere egunerokotasun soil eta lauan? Zenbat parabolak ihes egiten digun gauza txikiez eta xumeez! Bizitza etengabe ari zaigu azaltzen bere metaforak Jainkoaren hurbiltasun maitagarriaz. Erreinaua jende gazte eta adineko horien antzekoa da: ezagunak eta ezezagunak maitasunez agurtzen dituzte, gure ondoan igarotzen dira berezko naturaltasunez eta ibilera alaiz. Eta eguzkiak bere argia ematen digun bezala, hala ematen dute horiek egiten ari direnaz konturatu gabe.

Urteko 30. astea.

San Martzelo, *martiria*.Domingo Collins, *dohatsua, jesuita*.

[San Paulok Erromatarrei 8,26-30: Bera maite dutenen onerako bideratzen ditu Jainkoak gauza guztiak. Sal 13 [12]: Nik zure maitasunean dut, Jauna, konfiantza.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13,22-30.

Aldi hartan, Jesusek, Jerusalemera bidean zihoala, igarotzen zieten herri eta auzoetan irakasten zuen.

Batek esan zion: «Jauna, gutxi al dira salbatzen direnak?» Jesusek erantzun zion: «Saia zaitetze ate estutik sartzen. Egiaz esan, asko sartu nahi izango du, baina ezin izango da sartu. Etxeko jaunak jaiki eta ate itxiz gero, kanpoan geldituok ate joka hasiko zarete: “Ireki, Jauna!” Baina hark erantzungo dizue: “Ez dakit nongoak zareten”.

Zuek, orduan, honela hasiko zataizkiote: “Zurekin jan eta edan izan dugu, eta Zuk gure plazetan irakatsi izan duzu”. Baina hark erantzungo dizue: “Ez dakit nongoak zareten. Alde nigandik, gaizkileok!”

Orduan, negarra eta hortz-karraska izango da, Abraham, Isaak eta Jakob eta profeta guztiak Jainkoaren erreinuan ikustean, zeuen burua, berriz, jaurtia. Asko etorriko dira sortaldetik eta sartaldetik, iparretik eta hegotik, eta Jainkoaren erreinuko mahaian eseriko dira. Begira: orain azkeneko den zenbait jende lehenengo izango da, eta lehenengo den zenbait azkeneko».

**J**aunak sumarazten digu, geure bizitzan aurkituz goazen azkeneko haiek altxor gorde direla, zeinen balioa apenas barrunta ere baitezakegu. Haiei harrera egiteko gai bagara, bihotzeko ate irekitzeko, geure bizitza haienarekin gupidatsu josteko gai bagara, beraiek izango dira harrera egitera irtengo zaizkigunak eta Erreinuko mahaian eseraziko gaituztenak. Badira sekula ezin ulertu izango ditugun gauzak, bizi baditugu baizik, eta beste batzuk, ezin bizi izango ditugunak Jaunaren graziaren bidez baizik. Jaunarekin jan eta edateak, beraren jende txiki eta behartsuarekin gauza bera egitea esan nahi du; izan ere, halakoekin egin du bat berak.

Urteko 30. astea.

San Alonso Rodriguez, *jesuita*.

[San Paulok Erromatarrei 8,31b-39: Ez gaitu ezerk aldentuko Jainkoak Jesu Kristogan agertu digun maitasunetik. Sal 109 [108]: Salba nazazu, Jauna, zure maitasunari dagokionez.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13,31-35.

Aldi hartan, fariseu batzuk joan zitzaizkion Jesusi eta esan zioten: «Zoaz, alde egizu hemendik, Herodes Zu hil nahian baitabil».

Jesusek erantzun zien: «Zoazte eta esan azeri horri: “Hara, gaur eta bihar deabruak botatzen eta sendatzen jarraitu behar dut, eta hirugarren egunean nire azkena izango da”. Baina gaur, bihar eta etzi biderei jarraitu behar diot, profeta ez baitaiteke Jerusalemdik kanpora hil.

Jerusalem, Jerusalem, profetak hiltzen eta Jainkoak zuri bidaliak harrikatzen dituzuna! Zenbat aldiz ez ote ditut bildu nahi izan zure seme-alabak, oiloak bere txitaldia hegalpean bezala, eta zuek ez duzue nahi izan! Horra, bada, hutsik geldituko zaizue etxea! Eta esaten dizuet ez nauzuela ikusiko, hau esango duzuen eguna iritsi arte: “Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena”».

**J**esusi ez diote ikararik eman boteretsuen mehatxuek, ez dute desbideratu ere hartua duen eginkizunetik: on eginez bizi izan da. Min ematen dio jendeak eta beronen setakeriak, itsutasunak eta gogortasunak otzan-otzan eskaini dion maitasunarekiko. Jesusek darabilen irudiak, alde batetik, samurtasun handia adierazten du: txitak zaintzea, babesa eta jana ematea, eta, bestetik, zapuztua izan den bere desioa: «Zenbat bider nahi izan dudana... Baina ez duzue nahi izan». Onari uko egite hau da sakonkienik zauritzen duena, eman digun halako maitasunari zaputz egitea. Ez iezaguzu kendu, Jauna, zeure onginahia, gertatzen dena gertatzen dela ibili ahal gaitzela bedeinkatuz.





**AZAROA / ZEMENDIA**

**AITA SANTUAREN ASMOA**

**Orokorra:** Bihotzaren eta elkarrizketaren hizkuntza lehenetsi dezagun, armaren hizkuntzaren aurrean.



Urteko 30. astea.

**SANTU GUZTIEN OROIPENA.**Pedro Asuakoa (Balmaseda 1890–Liendo [Kantabria] 1936),  
*dohatsua, apaiza, martiria.***§ Apokalipsi liburutik 7,2-4.9-14.**

Nik, Joaneke, beste aingeru bat ikusi nuen ekialdetik igotzen, Jainko biziaren zigilua zuelarik, eta ozenki egin zien deiadar lurra eta itsasoa hondatzeko ahalmena eman zitzaion lau aingeruei, esanez: «Ez hondatu lurra, ez itsasoa, ezta zuhaitzak ere, harik eta gure Jainkoaren zerbitzariak bekokian zigiluz markatu arte».

Zigiluz markatuak zenbat ziren entzun nuen: ehun eta berrogeita lau mila, israeldar leinu guztietatik hartuak.

Ondoren gizatalde handi bat ikusi nuen, inork kontaezin ahalekoa; nazio, arraza, herri eta hizkuntza guztietako jendea zegoen, tronuaren eta Bildotsaren aurrean zutik, soineko zuriz jantziak eta palma-adarra eskuetan. Eta ahots handiz egiten zuten deiadar: «Tronuaren eseria dagoen gure Jainkoari eta Bildotsari zor diegu salbamera».

Tronuaren, zaharren eta lau izaki bizidunen inguruan zutik zeuden aingeru guztiak ahuspeztu egin ziren tronuaren aurrean, eta Jainkoari adoratu zuten, esanez:

«Amen. Bedeinkazioa, aintza, jakinduria, esker ona, ohorea, ahalmena eta indarra gure Jainkoari menderen mendetan. Amen».

Orduan, zaharretako bat mintzatu zitzaidan, esanez: «Soineko zuriz jantziak dauden horiek, zein dira eta nondik datoz?» Nik erantzun nion: «Ene Jauna, zeuk jakingo duzu». Hark esan zidan: «Hauek larrialdi handitik datozenak dira; beren soinekoak Bildotsaren odolean garbitu dituzte eta zuritu».

[Sal 24 [23]: Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.]

**§ San Joan Apostoluaren 1. gutunetik 3,1-3.**

Seme-alaba maiteok: Begira zenbaterainoko maitasuna agertu digun Aitak, Jainkoaren seme-alaba izena baitaramagu, baita izana ere. Hona zergatik munduak ez gaituen ezagutzen: Aita ere ezagutu ez zuelako.



Ene maiteok, orain Jainkoaren seme-alaba gara; gero izango gara oraindik ez da agertu. Badakigu, Kristo agertuko denean, haren antzeko izango garela, den bezalakoa ikusiko baitugu. Harengan itxaropen hau duen orok garbitu egiten du bere burua, hura garbia den bezala.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,1-12a.

Aldi hartan, jendetza ikusirik, Jesus mendira igo zen. Eseri eta ikasleak inguratu zitzaizkion.

Orduan, honela hasi zitzaien irakasten:

«Zorionekoak gogoz behartsu direnak, berena baitute Jainkoaren erreinua.

Zorionekoak atsekabetuak, beraiek baititu Jainkoak kontsolatuko. Zorionekoak apalak, berek izango baitute agindutako lurra ondare. Zorionekoak zuzentasunaren gose eta egarri direnak, beraiek baititu Jainkoak aseko.

Zorionekoak errukitsuak, beraiek baititu Jainkoak erruki izango. Zorionekoak bihotz-garbi direnak, berek ikusiko baitute Jainkoa. Zorionekoak bakegileak, Jainkoaren seme-alaba izango baitira. Zorionekoak zuzentasunagatik erasoa jasaten dutenak, berena baitute Jainkoaren erreinua.

Zorionekoak zuek, nigatik madarikatuko zaituztetenean, erasoka eta gezurrez gaizki esaka erabiliko zaituztetenean. Poztu zaitetze eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruetan».

**A**ngelique Uwamahoro-k, ruandar aterpetuak, alaba izan eta Joy Makena izena ezarri zion: Joy, bizia erregalu berriagatik eta Makena, poza esan nahi duelako. Ematen du, Joyk ez diola erantzun bere izenari, behin eta berriz gaixo egon ohi da eta mediku-zaintza beharrean gertatzen da, eta pazientzia eta txera nork agertu beharra izaten du:

Urteko 30. astea.

**SANTU GUZTIEN OROIPENA.**

Pedro Asuakoa (Balmaseda 1890–Liendo [Kantabria] 1936),  
*dohatsua, apaiza, martiria.*

«biziko ote zara zeure izena bete-betea esperimentatzeko?», galdegiten du amak.

«Jaun maite-maitea, otoitz bat eskaini nahi nizuke neure familiaren alde, ni joango naizenerako. Espero dut, nire haurrek sentituko dutela janaria eman zigun jendea bezalako baten adeitasuna, aurkituko dutela adorea beti gauzarik hobena bilatzeko beren egoera gorabehera, eta esperimentatuko dutela zure maitasuna besteen berotasuna dela medio... ziur nago, beraiek ere ospatuko dutela bizia leku-aldaketa eta guzti, lan-falta, hiesaren zigorra eta guzti. Konbentzimendua dut, den-dena ongi joango zaiela beti. Bizia, maitasuna bezala, hautatze bat da. Fedean oinarrituriko hautatze bat eta, horrenbestez, bizia ospatuko dut eta kanpora botako ditut poza lapurtu nahi didaten lapur guztiak».

Angelique hiesarekin zerikusia duen gaixotasun batez hil zen handik gutxira. Beraren izena, beste hainbat santu anonimorena bezala, grabaturik dago Jainkoaren bihotzean betiko, eta beraren maitasunaren argia bidelagun dugu geure pozerako.

## § Joben liburutik 19,1.23-27a.

Jobek esan zuen:

«Ai nire hitzak idatziak geldituko balira, liburuan ezarriak! Edota burdinazko eztenaz eta berunaz betiko grabatuak haitzean!

Nik badakit nire eskubidearen babeslea bizi dela eta, azkenean, hautsaren gainetik jaikiko dela. Nire larruazal hau hondatu ondoren, gorputzik gabe, Jainkoa ikusiko dut. Nik neuk ikusiko dut, eta ez bestek; neure begiez ikusiko dut. Bihotza sutan dut neure barruan!»

[Sal 25 [24]: Jauna, zugana jasotzen dut gogo.]

## § San Paulok Filipoarrei 3,20-21.

Senideok: Gu zeruko hiritar gara eta handik itxaron dugu Salbatazaila, Jesu Kristo Jauna. Hark antzaldutako du gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren irudiko eginez, gauza guztiak bere mende jartzeko duen ahalmenari esker.

## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 15,33-39; 16,1-6.

Eguerdian lurralde hura guztia ilunpean gelditu zen, arratsalde erdia arte. Eta arratsalde erdian Jesusek oihu handiz esan zuen: «Eloi, Eloi, lema sabaktani» –hau da: «Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?»–. Han zeuden batzuek, hau entzutean, zioten: «Eliasi deika ari da». Eta batek, lasterka joan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera-muturrean jarrita, edateko eman zion, esanez: «Utziozue; ikus dezagun, ea etortzen zaion Elias, gurutzetik jaistera». Eta Jesusek, deiarar handi bat eginez, azken arnasa eman zuen. Jauretxeko oihala erdibi egin zen goitik beheraino. Haren aurrez aurre zegoen gudari-ehuntariak, berriz, era horretan hil zela ikustean, esan zuen: «Gizon hau, benetan, Jainkoaren Semea zen». Bazeuden han, urrutitik begira, emakume batzuk ere; haien artean, Maria Magdalena, Santia-

Urteko 30. astea.

HILDAKO GUZTIEN OROIPENA.

---

go gaztearen eta Joseren ama Maria, eta Salome –Jesus Galilean ibili zenean, laguntzaile eta zerbitzari izaten zituenak– eta beste emakume asko, Jesusekin batean Jerusalemera igo zirenak. Ilunabarrean, Prestaera Eguna, larunbat-bezpera, zelako, etorri zen Arimateako Jose –Batzarreko gizon argia, Jainkoaren erreinua itxaroten zuena bera ere–, eta ausardiaz Pilatogana joan zen, Jesusen gorpua eskatzera. Harritu zen Pilato, ordurako hila zelako, eta, ehuntariari dei eginez, aspaldi hil al zen galdetu zion. Ehuntariaren erantzuna jakin zuenean, utzi zion gorpua Joseri. Honek, izara bat erosi eta, gurutzetik jaitsirik, izaran bildu zuen; harkaitz bizian zulatutako hilobi batean ipini eta, hilobiko sarreran, harri biribil bat ezarri. Maria Magdalena eta Joseren Maria begira zeuden non jartzen zuten.

**K**onfiantza bizitza eraldatuan, udaberrian eta Piztueraren besarkadan. Emakumeak lehenak izan ziren esperimendatzen eta agertzen. Banaturik, Nerudak abesten duenez: «harik eta dena egun izan arte, harik eta dena dirdira eta alaitasun izan arte». Gaurko gurutziltzatuei begira diezaieten uzten dietenek, begiak apartatu gabe, eta mugida eragingo dutenek halakoak atsekabetik ateratzeko: soilik halakoek gurtu ahal izango dute ikusten eta ukitzen dutena: harlosa bat baztertua, zauri batzuk sendatuak, ogi bat zatitua, txingarrak aintzira-ertzean... eta txiki bakoitzaren besterik ez bezalako aurpegia beren begi aurrean, beren bihotza sendatzen.

Urteko 31. astea.

San Martin Porres, *domingotarra*.Ruperto Mayer, *dohatsua, apaiza, jesuita*.

## § Jakinduria liburutik 11,23–12,2.

Jauna, mundu osoa zure aurrean balantzan izpitxo da, lurrean pausatzen den goizeko ihintz-tanta. Guztiez duzu errukia, dena baitezakezu, eta gizakien bekatuei ez ikusiarena egiten diezu, bihotz-berri daitezten. Izaki guztiak maite dituzu, eta ez duzu Zeuk egindako ezer gutxien; zerbait gorroto izan bazenio, ez baitzenukeen egingo.

Nola iraungo luke zerbaitek, Zuk gogoko ez bazenu? Eta nola jarraituko izaten, Zuk dei eginda sortu ez balitz?

Bihozbera zara Zu izaki guztiekin, zureak baitira, bizidunak maite dituzun Jaun horrenak, eta zure espiritu hilezkorra guztiengan dago.

Horregatik, pixkana-pixkana zentzarazten dituzu errudunak, beren bekatuak gogoraziz zuzentzen dituzu, gaizkitik urrundu daitezten eta zugar, Jauna, sinets dezaten.

Sal 145 [144]: Ene Jainko, ene errege, bedeinkatuko dut zure izena betiere.]

## § San Paulok 2 Tesalonikarrei 1,11–2,2.

Senideok: Otoitzean ari gara beti zuen alde, gure Jainkoak bere deiaren gai egin zaitzaten, eta bere ahalmenaz bere betera eraman dezan onerako duzuen gogoia eta zuen sinesmenaren jarduera. Horrela, Jesus gure Jaunaren izena goretsia izango da zuengan, eta zuek harengan, gure Jainkoaren eta Jesu Kristo gure Jaunaren onginahiaren arabera.

Senideok, Jesu Kristo gure Jaunaren azkeneko etorreraz eta gu harekin elkartuko garen uneaz, hau eskatzen dizuegu: ez dezazuela arinegi burua galdu, ezta kezkatu ere, Jaunaren eguna gainean dela dioen goi-agerpen bat edota adierazpen bat nahiz guk egina omen den gutun bat dela eta.

## † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,1-10.

Aldi hartan, Jesus Jerikon sartu eta herrian barna zihoan. Bazen han Zakeo izeneko gizon bat, zergalari-buru zena, oso aberatsa. Jesus

Urteko 31. astea.

San Martin Porres, *domingotarra*.

Ruperto Mayer, *dohatsua, apaiza, jesuita*.

zein zen ikusi nahirik zebilen Zakeo, baina ezin zuen jendetzagatik, txikia baitzen. Lasterka aurrera joan eta pikondo batera igo zen Jesus ikusteko, handik igaro behar baitzuen.

Jesusek, toki hartara iristean, gora begiratu eta esan zion: «Zakeo, jaitsi berehala, gaur zure etxean gelditu behar dut eta». Berehala jaitsi zen eta pozik hartu zuen etxean. Hori ikusirik, denak marmarka hasi ziren: «Bekatari baten etxera joan duk ostatuz».

Zakeok, ordea, zutik jarrita, esan zion Jaunari: «Jauna, neure ondasuren erdiak behartsuei emango dizkiet eta, inori ezer ostu badiot, lau halako bihurtuko diot».

Jesusek esan zion: «Gaur salbamena iritsi da etxe honetara, hau ere Abrahamen ondorengoa baita. Izan ere, Gizonaren Semea galdua zegoena bilatzera eta salbatzera etorri da».

**B**adira pasarteak Ebanjelioan esker onez ikusten ditugunak; izan ere, haiekin topo egiten dugun bakoitzean, aukera berri bat eskaintzen digute: geure bizitzaren gauzarik hobena estreinatzea egokituko bali-tzaigu bezala izaten da. Zakeok bezala, urteak ematen ditugu, esku ar-tean dugunak ahogozorik uzten ez digula, eta geure gizatasun-mailan gutxiturik bageunde bezala ibiltzen gara. Eta, orduan, bat-batean iristen da Jaunaren grazia: haren begiratu hantabil gure bila, arbola gainera begira; haren ahotsak gure izena jaulkitzen du, barne-barneraino ezagutzen gaituelarik, eta haren desiorik handiena gure etxean, dagoen dagoenean, apopilo nagusia bera izatea da. Bai ustekabeko ustekabea!... Zakeok «poz-pezik hartu zuen», ez zen hasi bere buruari begira, ez bere arazotxoeri ere, baizik eta erabat itzulikatu zen baldintzarik gabe emana zitzaion maitasun hartara, espero ez zuen erregalua bezala onartuz, eta parada horretan utzi ahal izan zion Jaunari bera berregiten eta maitatzen. Orduan desegiten da erabat gehiegizko erru-uste guztia; beldurrak konfiantza xumeari uzten dio lekua, eta atxikirik eta gorderik genuen hura biderkatu egiten da dohain bezala gainerakoentzat.

Urteko 31. astea.

San Karlos Borromeo, *gotzaina*.

[San Paulok Erromatarrei 11,29-36: Jainkoak errebelde izaten utzi zien gizon-emakume guztiei, denez erruki izateko. Sal 69 [68]: Mesede-garaia duzu, Jauna; erantzun.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,12-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zion gonbidatu zuen fariseu-buruetakoari: «Bazkari edo afariren bat ematean, ez gonbidatu zeure adiskideak, ezta senideak, ahaideak edota auzoko aberatsak ere; zeren haiek ere gonbidatu egingo baitzintuzkete, eta horrela ordaina hartuko zenuke. Otordua ematean, gonbidatu behartsuak, elbarriak, herrenak eta itsuak. Zorionekoa zu, orduan, ezin izango baitizute ordaindu! Zintzoak piztuko direnean jasoko duzu ordaina».

**O**hartuki edo oharkabean, jarduten dugun hartan gutxienez trukea eskatu ohi dugu: ordainketa afektiboa, gutxienez. Umetatik bizi izan gara geure gurasoen eta dagozkigun adinekoen txera bila; ondoren, adiskide bila, lehen maitasunaren bila... eta horrela doa aurrera gure bizitza: hartzekotan ematen dugu. Halaz guztiz, Jesusek beste ikuspegi batean murgilarazi nahi gaitu, txundidura eragiten diguna da: ireki geure mahaia ezin erantzungo digutenei, ezin itzuliko digutenei, ezin sarituko gaitutenei; zer irabazten dugu horrela? Ezin jakingo dugu, baldin eta saltsa horretan sartzen ez bagara: gainezka egiten duen maitasuna, zenbat eta doakoago izan hainbat eta handiago egiten duena ubidea.

[**San Paulok Erromatarrei 12,5-16b**: Bata bestearen atal gara guztiok. **Sal 131 [130]**: Zaindu ezazu nire bizia bakean zeure baitan, Jauna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,12-14.**

Aldi hartan, Jesusekin mahaian zegoen batek esan zion: «Zorionekoa Jainkoaren erreinuko otorduan parte hartuko duena».

Orduan, Jesusek esan zion: «Gizon batek afari handi bat eman zuen eta jende asko gonbidatu zuen. Afarirako ordua iritsi zenean, morroia bidali zuen gonbidatuei esatera: “Zatozte, prest dago dena”. Baina bata bestearen ondoren aitzakiak jartzen hasi ziren denak. Lehengoak esan zion: “Soroa erosi dut, eta ikustera joan behar dut; barkatu, arren”. Beste batek, berriz: “Bost idi-pare erosi ditut, eta probatzera joan behar dut; barkatu, arren”. Eta hurrengoak: “Ezkondu berria naiz, eta ez naiteke joan”.

Itzuli zen morroia eta guztiaren berri eman zion nagusiari. Etxeko nagusia biziki haserretu zen eta esan zion morroiari: “Hoa bizkor herriko plazara eta kaleetara, eta ekarri behartsuak, elbarriak, itsuak eta herrenak”. Geroago, morroiak esan zion: “Jauna, egin dut agindu duzuna, eta oraindik bada lekurik”. Orduan, nagusiak esan zion: “Hoa bidez bide eta bazterrik bazter eta sarrarazi jendea barrura, etxea bete dakidan”. Egia esan, gonbidatu haietako batek ere ez du nire afaria dasatuko».

**A**skotan salbuesten dugu geure burua, aukera hobe bat etorriko zaigulakoan; bitartean, ordea, instant bakoitzean ari zaigu Norbait bere dohanean eta zorionean parte hartzera gonbidatzen. Presako eginkizunak direla-eta salbuesten dugu geure burua, inportantzia guztia une horretan esku artean dugunari emanez, geure gauzei itsuki loturik ibili ohi gara eta ez dugu aintzat hartzen Norbait horren gonbita, egunean barna sortzen diren ustekabeei hertsiki atxikirik; ez



Urteko 31. astea.

Jesusen Lagundiko santu eta dohatsu guztiak.

Zakarias eta Elisabet santuak, *Joan Bataiatzailearen gurasoak*.

dugu aintzat hartzen eguneroko gauza txikietan ere, ezta tarterrik doakoenetan ere, uste izaten baitugu ez dela ezer gertatzen. Ekin, Jauna, ekin errepika eta errepika. Ez diezagula ihes egin egunak «eztei-otordua dastatu gabe».

\*\*\*

### JESUSEN LAGUNDIKO SANTU ETA DOHATSU GUZTIAK

#### § Deuteronomio liburutik 30,11-14.

Honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Obedituko diozu Jainari, zeure Jainkoari, legearen liburu honetan idatzitako beraren aginduak eta legeak betez, eta bihotz-bihotzez eta gogo osoz itzuliko zara Jaunagana, zeure Jainkoagana.

Izan ere, gaur nik ematen dizudan agindua ez da zure indarrez gaindikoa, ezta eskuraezina ere. Ez dago zeruan, zuek hau esateko: “Nor igoko zaigu zerura, agindua ekarri eta guri jakinarazteko, bete ahal dezagun?” Ez dago itsasoaz bestaldean ere, zuek hau esateko: “Nor joango zaigu itsasoaz bestaldera, agindua ekarri eta guri jakinarazteko, bete ahal dezagun?” Zeren esku-eskura baituzu hitza, zeure ahoan eta bihotzean, bete dezazun».

[Sal 16 [15]: Zu zaitut, Jauna, neure ondarea.]

#### † Jesu Kristoren ebanjelioa San Joanen liburutik 12,23-26.

Aldi hartan, Jesusek erantzun zien ikasleei: «Iritsi da Gizonaren Semearen aintza azalduko den ordua. Bene-benetan diotsuet: Gari-alea, lurrean sartu eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; hiltzen bada, ordea, fruitu asko ematen du. Bere bizia maite duenak galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxiesten duenak betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai

Urteko 31. astea.

Jesusen Lagundiko santu eta dohatsu guztiak.

Zakarias eta Elisabet santuak, *Joan Bataiatzailearen gurasoak*.

biezat eta, ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena Aitak ohoratu egingo du.

**G**aur eskerrak emateko eguna dugu, beren bizia Jainkoaren so-roan ezkutatu zuten haien guztien testigantzagatik, eta Lagundiaren ildoan emankor bihurtu zutelako. Egunero-egunero Jaunari bere grazia eskatu zioten gizonak izan ziren, eta, beren pobretasunean maitatuak zirela sentiturik, musu-truk maitatu zutenak. Beren begiak Jesus behartsu eta apalagan, beren Maisu eta Jaunagan, tinko. Dohain hutsez zerbitzatzera deituak ziren, bidaliko zituzten lekuari Jesusekin batean lotuak. Beren hauskortasunaren eta autoengainuen berri zutenak ziren eta, aldi berean, mugarik gabeko txeran, birkreatzen duen barkazioan oso adituak. Zerbitzari duingabe eta adiskide hautatu. Adoretsu eta makal. Santu eta bekatari: Jaunaren maitasunarekin aski zutenak.

\* \* \*

## ESPERO DUGUN ZERUKO BIZITZA

«[Zeruko] Bizitza hau lortuko duenak, opa dukeen guztia izango du, eta bizitza honetan ezin opa izango du komenigarri ez den ezer.

Han dago biziaren iturria; haren egarria indartu behako genuke otoiitzean, artean esperantzaz bakarrik bizi garen bitartean. Izan ere, espero duguna ikusi gabe bizi gara oraino, seguru haren hegalean gerizpean, zeinen presentzian jarriak baititugu geure antsia guztiak; baina ziurtasuna dugu, haren etxeko gozotasunaz janarituko garela egun batean, eta haren gozamenen uholdetik edango dugula, harengan baitaude iturri bizia eta argia ikusaraziko digun argia; egun hartan gure gurari guztiak geldituko dira aserik haren ondasunez, eta ordudunik ez dugu intzirika ezer eskatu beharrik izango, zeren eta dena izango baitugu eskura gozatzeko». (*Hiponako San Agustin, Proba-ri gutuna, in Liturgia de las Horas IV, urteko 29. ostirala, 336. or.*)

# 6

## Asteazkena / Eguaztena AZAROA / ZEMENDIA

Urteko 31. astea.

Jesusen Lagundiko Hildako Guztiak.

San Severo, *martiria*. Eugenio Mari (Lazkao 1902–Pedralves [Katalunia] 1936), *anaia beneditarra, dohatsu eta martiria*.\*

[San Paulok Erromatarrei 13,8-10: Maite duenak erabat betetzen du legea. Sal 112 [111]: Zorionekoa behartsuei esku betean ematen diena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,25-33.

Aldi hartan, jende-talde handiak zihoazen Jesusekin; honek, haiengana bihurturik, esan zien:

«Norbaitek nirekin etorri nahi badu, eta bere aita-amak eta emaztea, seme-alabak eta anai- arrebak, eta bere burua bera baino maiteago ez banau, ez daiteke izan nire ikasle. Bere gurutzea hartu eta nire ondoren ez datorrena ez daiteke izan nire ikasle.

Izan ere, zuetako nork, dorrea egin nahi badu, eseri eta ez ditu aurretik gastuen kontuak ateratzen, bukatzeko lain ba ote duen ikusteko? Bestela, zimenduak hartu ondoren ezin bukatuko balu, hori ikustean barre egingo liokete denek, esanez: “Honako hau eraikitzen hasi huen eta ezin izan dik bukatu”.

Edota zein erregek, beste baten kontra gerrara joan nahi badu, eseri eta ez du alde zuretik deliberatzen, ea hamar mila gizon aski dituen, hoge milarekin kontra datorkionari aurre egiteko? Eta ezetz ikusten badu, artean bestea urruti dela, mandatariak bidaliko dizkio bakea eskatuz.

Era berean, zuetako inor ez daiteke nire ikasle izan, dituen guztiak uko egiten ez badie».

**M**aitasun handi baten esperientzia bizi izan dugunean, gainerako guztia erlatibizatu egiten dugu, bigarren mailara pasatzen da. Hartarainokoa izan da esperientzia horren indar biltzailea, non gure lehentasunak gainbehera jartzen baitira; lehenago asko inporta zitzaiguna azpiraturik gelditzen da, ibai bateko harriak bezala ur-bidean ustekabeko uholdekoan bezala. Ontzat ematen genuen guztia, bihotza betetzen zigan guztia, hasiera

\* Santuak: Pedro Poveda eta Inozentzio de la Inmaculada, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*.

Joakin Esnaola (Idiazabal 1898–Madril 1936), *apaiza, agustindarra*, Klara Ezkurra (Arrasateko Ulibarri 1896–Valencia 1936), *birjina* eta lagunak, *dohatsuak, martiriak*.

## AZAROA / ZEMENDIA Asteazkena / Eguaztena

Urteko 31. astea.

Jesusen Lagundiko Hildako Guztiak.

San Severo, *martiria*. Eugenio Mari (Lazkao 1902–Pedralves [Katalunia] 1936), *anaia beneditarra, dohatsu eta martiria*.\*

# 6

bateko harremanak, geure bizitzan gurutzetat sentitzen genuena bera... dena utzi behar izaten dugu alde batera, graziaren uholdeak jotzen gaitue-nean. Ikasle, dena harrapatu nahi duen Presentziak atzeman duen hura da.

\*\*\*

### JESUSEN LAGUNDIKO HILDAKO GUZTIAK

[**San Paulok Erromatarrei 14,7-9:** Nahiz bizi nahiz hil, Jaunarenak gara. **Sal 117 [116]:** Jaunaren aurrean ibiliko naiz, bizen lurraldean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,37-40.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Aitak niri ematen dizkidan guztiak nigana etorriko dira, eta nigana etortzen denik ez dut kanpora botako, ez bainaiz zerutik jaitsi neure nahia egitera, bidali naunenaren nahia baizik.

Eta hauxe da bidali naunenaren nahia: berak eman dizkidan guztietatik, ez dezadala bat ere galdu, baizik eta piztu ditzadala azken egunean. Hauxe da nire Aitaren nahia: Semea ikusi eta harengan sinesten duenak izan dezala betiko bizia; eta Nik piztuko dut azken egunean».

**B**izitzan eta heriotzan Jaunarenak gara, diosku San Paulok. Jesu Kristorenak izatea, berme bat da bizitza honetarako eta besterako. Jesuitaren ideala, kristau ororena bezala, «Jesusen jende» artekoa izatea da, haren jarraitzaileetakoia izatea. Gogo Jardunetan, behin eta berriz errepikatzen den eskaria da: eman diezagula Kristorekin osoenik identifikatzea eta aukera gaitzala beraren hurbilenetakoak izatea. Horregatik, seguru gaude lagun izango gaituela zeruko erreinuan ere. Ez da ustekeria, haren Bihotzean konfiantza izatea da.

\* Santuak: Pedro Poveda eta Inozentzio de la Inmaculada, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*.

Joakin Esnaola (Idiazabal 1898–Madril 1936), *apaiza, agustindarra*, Klara Ezkurra (Arrasateko Ulibarri 1896–Valencia 1936), *birjina* eta lagunak, *dohatsuak, martiriak*.

Urteko 31. astea.

San Florentzio Irlandakoa, *gotzaina*.

[San Paulok Erromatarrei 14,7-1: Nahiz bizi nahiz hil, Jaunarenak gara. Sal 27 [26]: Jaunaren ontasuna ikusi ustean nago bizidunen lurtean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 15,1-10.

Aldi hartan, zergalariak eta bekatariaik hurbildu ohi zitzaizkion Jesusi, entzutera. Eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrean hasi ziren, esanez: «Honek ongi hartzen ditu bekatariaik, eta jan ere egiten du haiekin».

Orduan, parabola hau esan zien Jesusek: «Zuetako bat, ehun ardi izan eta bat galtzen bazaio, ez al da beste laurogeita hemeretziak larrean utzirik, galdutakoaren bila joaten aurkitu arte? Eta, aurkitzean, lepoan hartzen du poz-pezik eta, etxera iristean, adiskideak eta auzokoak bildu eta esaten die: “Poztu zaitezte nirekin, aurkitu baitut galdutako ardia”.

Hara Nik esan: Jainkoak ere poz handiagoa hartzen du bihotz-berritzen den bekataria batengatik, bihotz-berritu beharrik ez duten laurogeita hemeretzi zintzoengatik baino.

Eta zein emakumek, zilarrezko hamar txanpon izan eta bat galtzen bazaio, ez du, kriseilua pizturik, etxea garbitu eta ardura guztiz bilatzen aurkitu arte? Eta aurkitzean, adiskideak eta auzokoak bildu eta esaten die: “Poztu zaitezte nirekin, aurkitu baitut galdutako txanpona”.

Hara Nik esan: Berdin pozten da Jainkoa bere aingeruekin bihotz-berritzen den bekataria batengatik».

**N**ork bere poza bakarrik bilatzen dugunean, galdu egiten dugu; besteentzat bilatzen dugunean, berriz, doan eskaintzen digu Jainkoak. Hain juxtu, behartsuekin, deabrudunekin, elbarriekin eta emakume zaurituekin izan zituen harremanetan bizi izan zuen Jesusek poz hau; eta, bizi al dugu guk geuk? Gainerakoan aurkako marmarra seinalea izan ohi da oraino oso gutxi sumatu dugula Jainkoaren onberatasuna. Zoriongarri izaten da pertsona bakoitzean beraren alde onari erreparatzea; Jainkoak gure bihotzean bilatu nahi duen tartetxo hori da alde ona.

Urteko 31. astea.

San Godofredo Amienskoa, *gotzaina*.

[San Paulok Erromatarrei 15,14-21: Jesu Kristoren zerbitzari egin nau jentilentzat, Jainkoarentzat opari atsegingarri izan daitezten. Sal 98 [97]: Agertu du Jaunak nazioen aurrean beragandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren ebanjelioa San Lukasen liburutik 16,1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizon aberats batek etxezain bat zuen, eta hau ondasunak alferrik galtzen ari zitzaiola salatu zioten. Deitu eta esan zion: “Zer da zutaz entzun dudan hori? Emadazu etxezaintzaren kontu, kargutik bota egiten zaitut eta”.

Etkezainak, orduan, hau zioen bere baitan: “Zer egin behar dut nik orain, nagusiak kargua kentzen didanez gero? Aitzurrerako ez naiz gauza, eta eskerako lotsa naiz. Badakit zer egin, kargutik botatzen nautelarik etxean nork hartu izan dezadan”.

Banan-banan bere nagusiaren zordun gutzietei deitu eta lehenengoari galdetu zion: “Zenbat zor diozu nire nagusiari?” Hark erantzun: “Ehun upel olio”. Etkezainak, orduan: “Hona zeure ordain-agiria; agudo, eseri eta idatzi berrogeita hamar”. Gero, hurrengoari galde-tu zion: “Zuk zenbat zor diozu?” Hark erantzun: “Ehun anega gari”. Etkezainak, orduan: “Hona zeure ordain-agiria; idatzi laurogei”.

Eta nagusiak txalotu egin zuen etxezain zuzengabe hura, zuhur jokatu zuelako. Izan ere, mundukoak zuhurrago dira beren arteko arazoetan, argitakoak berenetan baino».

**J**esusek begi aurrean administratzaile azti bat ipini digu gaurko ebanjelioan. Baina zer irakatsi edo azaldu nahi digu? Giza mailan, uste izaten dugu ezen bizitzan estutzen bagaituzte, are gehiago estutu behar ditugula guk besteak, zapaldu alegia zapaldu ez gaitzaten. Hemen, ordea, beste jakinduria bat proposatu digu: ezkor denetik itzul ezazu gutxiengo, baikor denetik beti gehiago. Bizitzak beragan proiektatzen duguna ematen digu. Besteen aurrean jarrera zorrotza dugula koka gintezke; hala, beti sentituko dugu badugula arrazoirik kexatzeko; edota koka gintezke zor diguna ordaintzetik aske utziz, hain juxtu, geu ere zordun garelako, eta kontuan izanik zenbat eman izan diguten jada.

Urteko 31. astea.

Letrango Eliza Sagaratzea.

[Ezekiel profetaren liburutik 47,1-2.8-9.12: Ura ikusi nuen tenplutik iriteten; eta ur hori iritsi zitzaien guztiak salbatu egin ziren. **Sal 46 [45]:** Ibai baten adarrek alaitzen dute Jainkoaren hiria, Goi-goi-koaren bizileku guztiz santua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 2,13-22.

Aldi hartan, hurbil zen juduen Pazko-jaiak, eta Jesus Jerusalemera igo zen. Tenpluan idi-, ardi- eta uso-saltzaileak aurkitu zituen, eta diru-trukatzaileak han eserita. Jesusek, lokarraz zartailua eginik, bota egin zituen denak tenplutik, baita ardiak eta idiak ere, eta tratularien diruak sakabanatu eta mahaiak irauli zituen. Uso-saltzaileei esan zien: «Ken horiek hortik! Ez bihurtu azoka-etxe nire Aitaren etxea». Ikasleak idatzirik dagoenaz gogoratu ziren: «Zure tenpluaren maiteminak sutu nau».

Orduan juduek galdetu zioten: «Zer ezaugarri ematen diguzu hori egiteko?» Jesusek erantzun zien: «Desegin ezazue tenplu hau, eta hiru egunean jasoko dut». Juduek erantzun zioten: «Berrogeita sei urte behar izan ziren tenplu hau eraikitzeko, eta Zuk hiru egunean jasoko duzula?» Hura, ordea, bere gorputzaren tenpluaz ari zen.

Hilen artetik berpiztu zenean, gogoratu ziren ikasleak esandako honetaz, eta sinetsi zuten Liburu Santuetan eta Jesusek esandako hitzean.

**E**skandalizatu egiten gara elizak eta irudi sagaratuak profanatzen dituztenean; baina, asaldatzen al zaigu bihotza behartsuen gorputza penatzen dutenean? Izan ere, bizitzan eremuak eta eremuak bereizten ditugu, batzuetan Jainkoaren presentzia handiagoa dela iritziz; baina gauza jakina da, Jesusentzat ez dela txoko bakar bat ere profano, Jainkoaren presentziarik gabeko. Jesusek «bere gorputzaren tenpluaz hitz egiten zuen», sorkaririk txikienak duen ahalbidez Unibertsoko Krea-tzailearen bizileku izateko. Gorputz orori zor zaio begirunea, gorputz oro behar da zaindu, ohoratu, maitatu. Hori da atsegin duen kultura; hortik kanpoko zernahi merkataritza hutsa da.

Urteko 32. astea.

San Leon Handia, 45. *aia santua eta eliz irakaslea.*

San Andres Avelino, *apaiza.*

## § 2 Makabearrak liburutik 7,1-2,9-14.

Egun haietan, zazpi anaia atxilotu zituzten beren amarekin. Legeak debekatua zuen txerriak jatera behartu nahirik, idi-zainez egin-dako zartailuz zigorkatu zituen Antioko erregeak.

Anaia zaharrenak, denen izenean mintzatuz, esan zuen: «Zer gal-detzen diguzu? Zer jakin nahi duzu gugandik? Prest gaude hiltzeko, gure arbasoen legeak hautsi baino lehen».

Bigarren anaiak ere, azken arnasa ematean, esan zuen: «Zuk, gaiz-kile maltzur horrek, oraingo bizia kentzen diguzu; baina munduko Erregeak betiko bizirako piztuko gaitu beraren legeengatik hiltzen ga-renok».

Gero, irain eta iseka egiten hasi ziren hirugarrenari; mihia ate-ratzeko eskatu ziotenean, berehala atera zuen eta eskuak ere luzatu zituen kementsu. Eta esan zuen gizonki: «Jainkoak eman zizkidan gorputz-atal hauek beraren legeengatik gutxiesten ditut; eta ziur nago beragandik hartuko ditudala berriro». Harriturik gelditu ziren erregea eta beronekin zirenak gaztearen ausardiaz, huskeriatzat baitzituen oi-naze-minak.

Hura hil zenean, oinaze berberaz torturatu zuten laugarrena. Hiltzeaz zegoela, esan zuen: «Merezi du giza eskuz hiltzea, Jainkoak berpizteko itxaropena ematen digunean. Zuk, ordea, ez duzu bizirako berpizterik izango».

[Sal 17 [16]: Esnatzean zure presentziaz naiz aseko, Jauna.]

## § San Paulok 2 Tesalonikarrei 2,16–3,5.

Senideok: Jesu Kristo gure Jaunak berak eta Jainko gure Aitak – maite izan gaituen eta betiereko kontsolamendua eta halako itxaropen zorionsua dohainik eman digun Aitak– bete zaitzateela adorez eta sendotu, on den gutzia egitez eta hitzez burutzeko.



Urteko 32. astea.

San Leon Handia, 45. aita santua eta eliz irakaslea.

San Andres Avelino, apaiza.

Gainerakoan, senideok, egizue otoitz gure alde, Jaunaren mezua bizkor zabal dadin eta denek ospez onar dezaten, zuek onartu zenuten bezala. Egin otoitz ere gu onik atera gaitezen jende oker eta gaiztoengandik, ez baitira denak leialak. Jauna, ordea, leiala da; berak sendotuko zaituzte eta gaiztoagandik gordeko. Zuei dagokizuenetz, guk agindutako guztia egiten duzuen konfiantza ematen digu Jaunak, baita egiten jarraituko duzuen ere. Jaunak zuzendu dezala zuen bihotza Jainkoa maitatzera eta Kristoren itxaropenean irautera.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 20,27.34-38.

Aldi hartan, saduzear batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi (saduzearrek ez dute onartzen hildakoak pizten direla), eta Jesusek esan zien: «Mundu honetan gizon-emakumeak ezkondu egiten dira; baina datorren munduan eta hildakoen piztueran parte hartzeko Jainkoak gai aurkituko dituenak, gizaseme nahiz emakume, ez dira ezkonduko; izan ere, ez daitezke hil, aingeruak bezalako baitira eta Jainkoaren seme-alaba, piztueran parte dutenez gero. Gainera, hildakoak pizten direla Moisesek berak adierazten du, sutan zegoen sasiaren pasartean, Jaunari “Abrahamen Jainko, Isaaken Jainko eta Jakoberen Jainko” deitzen dionean. Ez da hildakoen Jainko, biziena baizik, denak bizirik baitaude harentzat».

**G**ure adimenak, bere ahalmenaren gorenera jota ere, eta gure irudimenak, urrunera begiraturik ere, ezin atzeman dute zer esan nahi duen esaldi honek: gure hondo-hondoko bizitza ezin izan da kaltetua; izan ere, Jainkoaren beraren bizitzari irekia da, Jainkoarena da zirrikiturik gabe. Mila kabala egiten ahal dugu saduzearrek bezala; baina ez dugu hori guztia ezertarako on izango, baldin eta piztueraren itxaroteko gure moduak ez badigu biderik ematen esperimintatzeko, orain jadanik, antzaldatutako bizitzaren izpi txikiren bat, ez bagaitu eramaten konfiantza handi bat bizitzera. Ederki adierazia du Bobin-ek: «Kon-

Urteko 32. astea.

San Leon Handia, 45. aita santua eta eliz irakaslea.

San Andres Avelino, apaiza.

fiantza eman dit Jainkoak. Irudikatzen dut ez dagoela dohain handiagorik. Euria maitatzera zaramatza, ondoren ateratzen den Eguzkia adina. Jabetzen zara ez dagoela etsairik; are gehiago, ez dagoela heriotzarik ere. Ulertezina bera ulertzen dugu, baina ez dakit hau nola formulatu... Bizitzan konfiantza izatea (hain gogorra den horretan) intuizioa edo susmoa izatea da ezen ez dela kaltetuko gehiena maite duzun hura, izena ere eman ezin diogun hura. Ulertu behar da, hondo-hondoan ez gaudela arriskuan. Bizitzaren hondo-hondoan, mundu ez den horretan, ez da ezer arriskutsurik».

\* \* \*

### ZAUDE. NIREKIN JAUNA

Zaude nirekin, Jauna, beti, inoiz ere alde egin gabe, eta alde egi-tea erabakiko duzunean, eraman nazazu zurekin, Jauna, zeren eta alde ezingo duzula pentsatze hutsak sekulako beldurra ematen baitit, ni zu gabe geldituko naizela, zu ni gabe joango zarela.

Eraman nazazu zeurekin zoazkeen lekura, Jesus, ondotxo baitakit zu zarela ene arimaren bizia; zuk ez badidazu bizia ematen, badakik ezin bizi naizela, ez ni zu gabe gelditzen banaiz, ezta zu ni gabe joaten bazara.

Horregatik, hiltzeari baino handiagoa diot ikara, Jauna, zu joateari, eta mila bider nahiago dut bizia galdu zu galdu baino; zeren eta zuk ematen duzun hilezkortasuna badakit ezin atzeman dudala. ez ni zu gabe gelditzean, ez zu ni gabe joatean. (*Frai Damian de Vega*)

Urteko 32. astea.

San Martin Tours-ekoa, *gotzaina*.Toribio santua, *monjea*.

[**Jakinduria liburutik 1,1-7:** Gizakia maite duen espiritua da jakinduria; Jaunaren spirituak lurra betetzen du. **Sal 139 [138]:** Gidatu ni, Jauna, betirako bidetik.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,1-6.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ezinbestekoa da munduan galbideak gertatzea, baina dohakabea inoren sinesmena galbidean jartzen duena! Hobe luke errotarria lepotik lotu eta itsasora botako balute, txiki hauetakoren bat galbidean jartzea baino.

Ibili kontuz! Zure senideak bekatu egiten badu, egiozu haserre, eta, damutzen bada, barkatu. Eta egunean zazpi aldiz zure kontra bekatu egiten badu eta zazpi aldiz etortzen bazaizu “damu dut” esanez, barkatu».

Apostoluek esan zioten Jaunari: «Handitu sinesmena gugan». Jaunak erantzun zien: «Sinesmena bazenute, mostaza hazia bezain txikia izanik ere, pikondo honi “atera hortik eta landatu itsasoan” esango zeniokete, eta obeditu egingo lizueke».

**B**izia hazi, barkazioak elikatzen badu bakarrik hazi ohi da. Barkazioa da osagai nagusia elkarrekin bizitzeko, osasun-baldintza da jendearentzat eta gizartearentzat; hesiturik gordetako barkazioak, berriz, gaixotu egiten gaitu. Txikien hainbat historia dira, Jesusen hitzak baiesten dituztenak; adibidez, Tanzanian aterpetua den ruandar emakumearenek, haurdun zelarik egundoko sufrimenduak eragin zizkioten hairenek: «Neure alabari Clementine Ngiririkigongwe izena ipiniko diot. Ngiririkigongwe-k «barka iezadazu eta barkatzen dizut» esan nahi du; alaba gogoratu dadin hau bera egiteaz beti, beti».

Urteko 32. astea.

San Josafat, *gotzaina eta martiria*.

San Millan [Emiliano] Kukulakoa, *apaiza*. (Donemiliaga)

[**Jakinduria liburutik 2,23–3,9:** Zentzugabeen begietan hilda zeuden behin betiko; baina zintzoak bakean daude. **Sal 34 [33]:** Hau da, Jauna, zure aurpegi hila dabiltzanen taldea.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,7-10.**

Aldi hartan, Jaunak esan zien apostoluei: «Emazue, zuetako bategen morroia duela soro-lanean edota artzaintzan. Morroia etxeratzean, “hator berehala mahaira” esango ote dio? Ez ote dio beste hau esango: “Presta iezadak afaria, jantzi aurreko mantala eta zerbitza nazak, nik afaldu bitartean; ondoren, afalduko duk heuk?” Morroiari esker ona zor ote dio, agindua bete duelako?»

Zuek ere gauza bera: agindutako gutzia egin eta gero, esan: “Morroi gizajoak gara; egin behar genuena besterik ez dugu egin”».

**G**auza on asko egin dezakegu; baina zenbat faktura idazten dugun egiten ditugun ekintzez!, zenbat aldiz mintzo garen zein lanpeturik gabilzan esanez! Itxurak eginez agertzen gara zerbitzari, jendea kontura dadin egiten dugunaz, eta zenbat eta garrantzizkoagoa izan gure lana, orduan eta baliosoago sentitu ohi gara. Jesusek proposatu digun konparazio honek baliagarri den gauza batetik funtsezkoa denera eramanez nahi gaitu, bizitzan egoteko edo kokatzeko era batera, geure burua nabarmendu gabe, uste handiko izan eta agertu gabe, ezer eskatu gabe; dagokiguna eginez, nabarmendu gabe ematen duten eta beren presentzia hutsaz on egiten digutenen naturaltasun xumeaz bizirik. Horrelako jendea da Jainkoaren benetako zerbitzari, une hartan ohartuko ez badira ere.

Urteko 32. astea.

San Estanislao Kostka, *jesuita*.San Leandro Sevillakoa, *gotzaina*.

[Jakinduria liburutik 6,1-11: Entzun, erregeok, jakintsu izaten ikas dezazuen. Sal 82 [81]: Jaiki zaitetz, oi Jainko, epaitu mundua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,11-10.

Aldi hartan, Jesus Jerusalemera bidean, Samarian eta Galilean barrena zihoan. Herrixka batean sartzean, hamar legenardun atera zitzaizkion bidera. Urruti gelditurik, deiadarka esan zioten: «Jesus, Maisu, erruki zakizkigu!» Jesusek, ikustean, esan zien: «Joan eta azaldu apai-zengana». Bidean zihoazela, garbi gelditu ziren.

Haietako bat, sendatua zegoela oharturik, Jainkoa deiadarka goratuz itzuli eta Jesusen oinetara ahuspez erori zen, eskerrak emanez. Samariarra zen bera.

Jesusek esan zuen: «Ez al dira hamarrak garbi gelditu? Non dira beste bederatziak? Ez al da izan atzerritar hau besterik Jainkoa goratzera etortzeko?» Gero, esan zion: «Jaiki eta zoaz; zeure sinesmenak salbatu zaitu».

**N**on egon ohi gara gu eskerrak emateko gaitasuna lausotzen zai-gunean? Bihotzeko lepra da esker txarra; ez digu uzten antzematen sendatuko garen lekua besteekin egindako bidea dela, ez digu uzten ikusten hainbat eta hainbat gauza on. Behin batean lagun batekin bizi nintzen, ez nion entzun sekula eskerrak ematen eguneroko bizitzan, horrek neu ere lehor utzi ninduen. Horrelakoetan uste izaten dugu, batetik, gauzak zor zaizkigula, bestetik gauza normala dela, bai mahai prestatuan esertzea, bai eguneroko hainbat xehetasun jakindakotzat ematea, konturatu gabe ezinbestean beste batzuk ari direla gauza horien atzean eta gure esker ona merezi dutela.

Urteko 32. astea.

San Jose Pignatelli, *apaiza, jesuita (Jesusen Lagundia berrezarri zuena).*

[Jakinduria liburutik 7,22–8,1: Betiko argiaren distira da jakinduria, Jainkoaren indarraren ispilu gardena. Sal 119 [118]: Betierekoa da zure hitza, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,20-25.

Aldi hartan, Jainkoaren erreinua noiz iritsiko zen galdetu zioten fariseuek Jesusi. Honek erantzun zien: «Jainkoaren erreinua ez da nabarmen etorriko. Ezin esango da: “Hona hemen” edota “hara han”; zeren Jainkoaren erreinua zuen artean baitago jadanik».

Gero, ikasleei esan zien: «Iritsiko da garaia, Gizonaren Semea etorri osteko egun bat bederen ikusi nahi izango duzuen, eta ezin izango duzue ikusi. Orduan, “hona hemen”, “hara han” esango dizuete. Baina zuek ez joan, ez atera atzetik lasterka. Izan ere, tximistak une batean zeru-alde batetik besteraino argi egiten duen bezala, hala izango da Gizonaren Semea etorriko den egunean. Baina aurretik asko sufritu behar du, eta gizaldi honek gaitzetsi egingo du».

**J**osé Pignatelli santuak Jesusen Lagundia desegina ikusi zuen, eta atsedetik hartu gabe egin zuen otoitz eta lan hura berrezartzeko. Han eta hemen barreiatu bizi ziren anaiekin egin zituen hogeita bost urteetan, eskura zuen guztia egin zuen berregitea lortzeko. Ez zuen ikusi bere bizitzan Lagundia lehenera itzulia, baina aurrez berregina barruntatu zuen bere «oinazeen eta gaitzespenen» fruitu bezala. Erbestaturik bizi behar izan zuen lekuetan, Erreinuaren seinaleak bilatu eta aurkitu zituen, gauden lekuan gertatzen zaiguna gorabehera, onberatasuna eta esker ona geurekin izango ditugula beti adierazten diguten seinaleak, alegia.

Urteko 32. astea.

San Alberto Handia, *gotzaina eta eliz irakaslea, domingotarra.*

[Jakinduria liburutik 13,1-9: Munduaren barne-egitura ezagutze-ko bezain jakintsu izan badira, nolaz ez dute munduaren Jauna lehenago aurkitu? Sal 19 [18]: Zeruek Jainkoaren aintza dute kontatzen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,27-37.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Noeren garaian bezala gertatuko da Gizonaren Semearen garaian ere: jan-edanean zebilen jendea eta ezkondu egiten ziren gizon-emakumeak, Noe ontzian sartu zen eguna arte; baina etorri zen uholdea eta denak galdu zituen.

Gauza bera gertatu zen Loten garaian ere: jan eta edan, erosi eta saldu, landatu eta eraiki egiten zuen jendeak; baina, Lot Sodomatik atera zen egunean, su eta sufrezko euria egin zuen zerutik eta denak galdu zituen.

Hala gertatuko da Gizonaren Semea agertuko den egunean ere. Egun hartan, etxe gainean egon eta bere gauzak etxean dituen ez bedi hartzera jaitsi; eta, era berean, soroan dena ez bedi atzera itzuli. Oroitu Loten emazteaz.

Bere bizia beretzat gorde nahi duenak galdu egingo du; galtzen duenak, berriz, onik aterako du. Nik diotsuet: gau hartan bi lagun egongo dira ohe berean: bata hartuko dute eta bestea utzi; bi emakume ariko dira batera ehotzen: bata hartuko dute eta bestea utzi». Ikasleek galdetu zioten: «Non izango da hori, Jauna?» Jesusek erantzun zien: «Sarraskia non, han bilduko dira putreak».

**P**asarte apokaliptiko hauek agerian ipintzen digute Jesusen gonbitaren premiatasuna; ezin atzeratu dugu. Ez dira erraz interpretatze-koak Jesusen hitzak, baina garbi nabari diegu premiatasuna, azti jokatutako beharra; bestela, handia izan daitekeela galera. Gorabehera batzuk

Urteko 32. astea.

San Alberto Handia, *gotzaina eta eliz irakaslea,*  
*domingotarra.*

---

noiz gertatuko begira egoteko joera izaten dugu, haietan geure burua benetan eskaintzeko, elkarte bat noiz aurkituko zain egoten gara hartan gurerik hobena emateko, abagune batzuen zain egoten gara geure burua besteen alde arriskatzeko; baina hori guztia ez da iristen guk espero bezala, eta bitartean bizitza aurrera doa eta ihes egiten digu gauzarik hobenak. Orain, gauden gaudenean, eskatzen digu Jaunak ezer ez saihesteko: maitasunarekin zerikusia duen ezer ez saihesteko.

\* \* \*

### LEIALTASUNA ETA HUTS EGITEAK

Kalkutako Teresa santuak 1969an Karitateko ahizpa misiolarietara esana: «Ez zaitezte nahasi berritsukeriatan. Asko entzuten duzue hitz egiten dena uzten duten apaizez eta erlijioso-erlijiosez, ezkontza-bikote hautsiez. Baina ez ahaztu milaka eta milaka direla leial jarraitzen duten apaiz, erlijioso-erlijiosa eta ezkontza-bikoteak. Proba honek garbituko du Eliza giza ahuldadeetatik, eta ederrago eta zinezkoago irtengo da giro horretatik.

Apaizen, erlijioso-erlijiosen eta ezkontza-bikoteen bizi-konstante hau da munduan onberatasunari eusten diona eta eragiten diena datozen belaunaldiei mundu egiazkoago eta solidarioago bat dastatzera, gizakiaz gupidatzeko eta Misteriora bultza egiteko gai izango deneara».



[Jakinduria liburutik 18,14-16; 19,6-9: Ibiltzeko moduko bidea agertu zen Itsaso Gorrian, eta bildotsak bezala saltoka igaro ziren. **Sal 105 [104]:** Ekarri gogora Jaunak egindako mirariak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18,1-8.

Aldi hartan, etengabe egin behar zutela oititz eta ez zutela etsi behar adierazteko, Jesusek parabola hau esan zien: «Bazen hiri batean epaile bat, ez Jainkoari beldurrik, ez gizakiari begirunerik ez zion. Bazen hiri berean emakume alargun bat ere. Hau epaile harengana joaten zen, eskatzera: “Egidazu justizia aurkariarekiko auzian”. Luza-roan epaileak ez zion kasurik egin nahi izan, baina azkenean bere baitan esan zuen: “Ez diot Jainkoari beldurrik, ez gizakiari begirunerik; baina, alargun hau gogaikarri zaidanez, egingo diot justizia, behingoz bakean utz nazan”».

Eta honela bukatu zuen Jaunak: «Begira zer dioen epaile zuzengabeak. Eta Jainkoak, ez ote die justizia egingo, gau eta egun deiadarka ari zaizkion bere aukeratuei? Zain edukiko ote ditu luzaroen? Justizia berehala egingo diela diotsuet. Baina Gizonaren Semeak, datorrenean, aurkituko ote du sinesmenik munduan?»

**S**egur aski, pasarte hau irakurriko dugunok egunero egiten dugu oititz; baina zinezko oititza al da, geure bihotz osoaz eta geure pobretasun osoaz egina? Esan ohi da, gure oititzaren kalitatea gure harremanen kalitatean agertu ohi dela. Aurpegi bat datorkik gogora, dir-diratsua bere zahardadean, ahizpa batena, bere bizitza urte askotan Ugandan jende ahaztuari loturik daraman harena. Edadeko andre itsu batek Euria ezizena ipini zion; zergatik?, jendea haren aurrean lore bat bezala ireki ohi zelako. Konfiantza zuen pertsona bakoitzarengan, bakoitzaren duintasunean, bakoitzaren ezkutuko baliabideetan, Jainkoak bakoitzarentzat gorderik duen geroan. Zertaz da egina gure fedea, gure konfiantza?

Urteko 33. astea.

Santa Elisabet Hungariakoa, *alarguna*.

§ Malakias profetaren liburutik 3,10-20a.

Hau dio Jaun ahalguztidunak: «Badator eguna, labea bezain kiskalgarria. Harro eta gaizkile guztiak lasto izango dira, eta zeharo kiskaliko ditu etortzekoa den egunak; ez die utziko, ez sustrairik, ez abarrik. Baina zuentzat, nire izenari begirune diozuenentzat, eguzkia bezala agertuko da nire justizia, errainuetan osasuna dakarrela».

[Sal 98 [97]: Badator Jauna herriak zuzentasunez epaitzera.]

§ San Paulok 2 Tesalonikarrei 3,7-12.

Senideok: Ondo dakizue nola jokatu behar duzuen guk bezala egiteko; ez ginen zuen artean zabarkerian bizi izan, ez genuen inoren kontura ogia jan; aitzitik, gau eta egun lanean nekatu ginen, zuetako inorentzat zama ez izatearren. Bagenuen zuen kontura bizitzeko esku-biderik, baina lan egin nahi izan genuen zuei jarraibide emateko. Zuekin egon ginenean, arau hau eman genizuen: lanik egin nahi ez duenak ez dezala jan. Zeren jakin baitugu zuetako batzuk zabarkerian bizi direla, ezer egin gabe, ikusmiran zeregintsu. Horrelakoei Jesu Kristo Jaunaren izenean agintzen eta erregutzen diegu, bakean lan eginez, irabaz dezatela beren ogia.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,5-19.

Aldi hartan, tenpluari buruz ari ziren batzuk, harri ederrez eta emaitzez apaindua zegoela aipatuz. Orduan, Jesusek esan zien: «Etorriko da, hor ikusten dituzuen horietatik guztietatik harririk harri gainean geldituko ez den garaia; dena suntsituko dute».

Ikasleek galdetu zioten: «Maisu, noiz gertatuko da hori? Eta zertan antzemango diogu gertatzera doala?»

Jesusek erantzun zien: «Kontuz, ez zaitzatela inork engainatu! Asko etorriko dira nire izenean, “ni naiz Mesias” edo “gainean da

Urteko 33. astea.

Santa Elisabet Hungariakoa, *alarguna*.

garaia” esanez. Ez joan horrelakoen atzetik. Gerra- eta iraultza-hotsak entzutean, ez ikaratu, lehenbizi gertatu beharrekoa baita hori guztia; baina ez dator berehala azkena».

Esan zien, gainera: «Nazioa nazioaren aurka eta erreinua erreinua-aren aurka altxatuko dira; lurrikara handiak izango dira, eta izurriteak eta goseteak han eta hemen. Gauza ikaragarriak gertatuko dira, eta seinale handiak agertuko zeruan.

Baina hori guztia gertatu aurretik, eskua erantsiko dizuete eta erasoko, sinagogetara eta karteletara eramango zaituztete, eta erregeen eta agintarien aurrera zuzenduko nigatik. Aitormen egiteko aukera emango dizue horrek guztiak. Hartu gogoan ez duzuela zeuen burua nola defendatuko kezkatzen ibili beharrik; Nik adieraziko dizuet zer eta nola esan, eta zuen etsaietako inork ez du zuei aurre egiterik edo erantzuterik izango.

Zeuen guraso eta senideek berek, ahaide eta adiskideek berek salduko zaituztete, eta zuetako zenbait hilko; guztiak gorroto izango dizuete nigatik; baina ez duzue buruko ile bat ere galduko. Iraupenaren iraupenez lortuko duzue bizia».

«**E**rne!, ez zaitzatela inork engaina». Loiolako Ignaziok sarritan oharatarazten digu: eska dezagula grazia arerioaren azpijokoen aurrean azti bizitzeko; batez ere, norberaren autoengainuen aurrean, antzemateko askoz zailagoak baitira hauek. Bizi ditugun errealitateei dagokienez, munduan gertatzen diren gertakariei eta askotariko informazio eta trukeei dagokienez, argi-distira beharra dugu eta geurekiko egiati izan beharra, eta gure bihotza argituko duen kontenplazio-saio handi baten beharra. Errealitatea onartu eta beraren gain proiektatu beharra Ebanjelioaren argia eta armarik gabeko Jesusen jokamoldea. Grazia eskatu beharra Ebanjelioaren seinaleak irakurri eta antzemateko, zein neurritan ari garen borrokan geure arazoaren alde eta zein neurritan bizi garen Jesusen arazoaren alde. Arazoa, hau da, gatazka eta pobreak eta txikiak defenditzeagatik jasotako ukoa onartzea da, geure anbiguo-

Urteko 33. astea.

Santa Elisabet Hungariakoa, *alarguna*.

tasuna –eratzen gaituen ongiaren eta gaizkiaren nahastura– geure egin eta besteekin bide egitea, batak besteari barkatuz eta batak besteari bihotz emanaz. Inork ez baitigu bizia kentzen, baizik eta, Jesusekin batean, altzo maitagarri batean ezarriz goaz: une batean ere bakarrik uzten ez gaituen haren altzoan.

\* \* \*

### HERIOTZAREN AURREKO BIZIA

Aretoa leporaino bete zen egun hartan. Hitzaldiaren ondoren galderaz josi zuten Maisua. Heriotzaren ondoren bizirik baden jakin nahi zuen jendeak.

Maisuak irribarre egiten zuen, baina erantzunik eman ez. Geroago, jarraitzaileek galdetu zioten zergatik geratu zen mutu jendearen jakin-minaren aurrean. Maisuak esan zien: «Ez zarete konturatu beste bizitzaz galdetzen dutenak, normalean, bizitza honetan zer egin ez dakitenak izan ohi direla?» «Beno baina, badago ala ez dago beste bizitzarik heriotzaren ondoren?» tematu zen jarraitzaileetako bat. Maisuak esan zion: «Nik beste galdera bat egingo nizuke: Bada bizitzarik heriotzaren aurretik? Hortxe dago koska» gehitu zuen Maisuak. Eta ez zuen beste ezer esan.

Horixe da noski kontua: bizitza hau bizitzen asmatzea. (*Anthony de Mello, Arantzazu egutegia 2017-08-14*)

Urteko 33. astea.

San Pedroren eta San Pauloren elizak sagaratzea.  
San Odon, *abadea, beneditarra*.\*

[1 Makabearrak liburutik 1,10-15. 41-43. 54-57. 62-64: Ikaragarria izan zen Israelek jasan behar izan zuen probaldia. Sal 119 [118]: Gorde nazazu bizirik, Jauna, eta beteko ditut zure legeak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18,35-43.

Aldi hartan, Jesus Jerikora hurbildu zelarik, itsu bat zegoen eskean bide-ertzean eserria. Jendea igarotzen sumaturik, zer zen hura galdetu zuen. Jesus Nazaretarra igarotzen zela jakinarazi zioten. Orduan, deidarka hasi zen: «Jesus, Daviden Seme, erruki zakizkit!»

Aurrean zihoazenek gogor egiten zioten isilarazteko; baina hark oihu handiagoz: «Daviden Seme, erruki zakizkit!»

Jesusek, gelditurik, beregana ekartzeko agindu zien. Hurreratu zenean, galdetu zion: «Zer nahi duzu Nik zuri egitea?» Itsuak erantzun: «Ikus dezadala, Jauna!» Jesusek esan zion: «Ikusi, bada; zeure sinesmenak sendatu zaitu».

Berehala ikusmena berreskuratu zuen eta Jesusen ondoren zihoan, Jainkoa goretsiz. Eta herri osoak, gertatua ikusirik, Jainkoa goratu zuen.

**I**tsu honen eskariak bihotzeko otoitza markatu du kristau-ekialdean: Jesusen gupida eskatzea geuretzat eta, gu bitarteko, mundu osoarentzat: «Zer nahi duzu egin dezadan zuretzat?», esan dio Jesusek, hurbildu denean. Beharrezkoa da galdera hau hondo-hondoraino onartu eta erantzuten saiatzea. Gure premia eta gurari sakonenei dagokie. Bizitza guztia begien jira-biran bizi ohi dugu, eta behin eta berriz behar izaten dugu maitasunak senda ditzan gure irrika, gure irizmena eta gure begiratuaren lausotasuna, eta itzul diezagun, berreskuraturik, Jesusi darion ikusmen hori, kreatua den ororen ontasun zauritua ikusteko gai den hori.

\* M<sup>a</sup> Anjeles Odriozola (Azpeitia), M<sup>a</sup> Engrazia Lekuona (Oiartzun), M<sup>a</sup> Zezilia (Azpeitia), M<sup>a</sup> Ines (Etxarri) eta lagunak, *dohatsu, birjina eta martiri* (1936), *Andre Mariaren Bisitakoak*.

Urteko 33. astea.

San Abdias, *profeta*.

San Agapito, *martiria*.

[2 Makabearrei liburutik 6,18-31: Jarraibide bikaina utziko diet gazteei, gure legeagatik kementsu eman dezaten bizia. Sal 3: Jaunak dit eusten.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,1-10.

Aldi hartan, Jesus Jerikon sartu eta herrian barna zihoan. Bazen han Zakeo izeneko gizon bat, zergalari-buru zena, oso aberatsa. Jesus zein zen ikusi nahirik zebilen Zakeo, baina ezin zuen jendetzagatik, txikia baitzen. Lasterka aurrera joan eta pikondo batera igo zen Jesus ikusteko, handik igaro behar baitzuen.

Jesusek, toki hartara iristean, gora begiratu eta esan zion: «Zakeo, jaitsi berehala, gaur zure etxean gelditu behar dut eta». Berehala jaitsi zen eta pozik hartu zuen etxean. Hori ikusirik, denak marmarka hasi ziren: «Bekatari baten etxera joan duk ostatuz».

Zakeok, ordea, zutik jarrita, esan zion Jaunari: «Jauna, neure ondasunen erdiak behartsuei emango dizkiet eta, inori ezer ostu badiot, lau halako bihurtuko diot».

Jesusek esan zion: «Gaur iritsi da salbamena etxe honetara, hau ere Abrahamen ondorengoa baita. Izan ere, Gizonaren Semea galdua zegoena bilatzera eta salbatzera etorri da».

**Z**ein egingo litzateke, jendaurrean, izen txarra duen baten adisikide? Soilik, gure bihotzean zer dagoen dakien hura. Jesusen doako txerak zuenik eta alderik onena iratzarri zuen Zakeogan. Beste ahots baikor batzuk ziren bere bizitzara hurbildu zitzaizkionak. Onartua zela jakiteak egiazko duintasuna itzuli zion: bera ere izan zitekeen ostalari on bat, besteak onartzeko gai, lapurtua ordaindu eta bere etxea irekitzeko, ez Jesusi bakarrik, baita, harekin batean, premian zen jendeari ere. Bere bizitzan lehenengoz sentitu zituen poza eta ongizatea bere baitan. Ez zuen izan nahi beste pertsona bat, ezta beste leku batean egon ere. Zen bezalako sentitu zen maitatua.

Urteko 33. astea.

San Edmundo, *martiria*.

[2 Makabearrak liburutik 7,1.20-31: Munduaren Egileak itzuliko dizue arnasa eta bizia. Sal 17 [16]: Esnatzean zure presentziaz naiz aseko, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,11-28.

Aldi hartan, Jesusek parabola bat kontatu zion jendeari, Jerusalem dik hurbil baitzen eta jendeak Jainkoaren erreinua une batetik bestera azalduko zela uste baitzuen: «Handiki bat urrutiko lurralde batera joan zen, errege-izendapena hartzera, gero itzultzeko. Bere zerbitzarietako hamarri dei egin eta ontzako urre bana eman zien, esanez: “Saiatu etekina ateratzen, ni itzuli bitartean”.

Baina herritarrek gorroto zuten eta mandatariak bidali zituzten ondotik, esatera: “Ez dugu hori errege nahi”.

Errege-izendapena harturik itzuli zenean, deiarazi zituen dirua banatu zien morroiak, bakoitzak zer irabazi zuen jakiteko.

Aurkeztu zen lehenengoa eta esan zuen: “Jauna, zure ontzakoak hamar halako eman du”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi ona! Gauza gutxian leial izan zarenez gero, hartzazu hamar hiriren agintea”.

Joan zen gero bigarrena eta esan zuen: “Jauna, zure ontzakoak bost halako eman du”. Honi ere nagusiak esan zion: “Hartzazu bost hiriren agintea”.

Joan zen beste bat eta esan zion: “Jauna, hemen duzu zeure ontzakoak; zapian bildua eduki dut. Beldur nizun, gizon gogorra zarelako, eman gabea eskatzen eta erein gabea biltzen duzuna”. Nagusiak, orduan: “Heure esanetik kondenatzen haut, morroi gaizto hori! Baheki gizon gogorra naizela, eman gabea eskatzen eta erein gabea biltzen dudana. Nolatan ez duk, bada, nire dirua bankuan jarri? Horrela, itzultzean, bere interesekin jasoko nian”.

Eta han zeudenei esan zien: “Ken iezaiozue ontzakoak, eta eman hamar dituenari”. Haiek erantzun zioten: “Jauna, lehen ere baditu ha-

Urteko 33. astea.

San Edmundo, *martiria*.

mar ontzako”. Eta nagusiak: “Hara nik esan: Duenari eman egingo zaio; ez duenari, berriz, daukan apurra ere kenduko. Eta errege nahi ez ninduten etsai horiek, ekarri hona eta hil itzazue nire aurrean”».

Hitz hauek esan ondoren, Jesusek Jerusalemgo bidean gora jarraitu zuen denen aurretik.

**G**uztioi eman ohi digu Jainkoak dohain bat. Geure bizia bera da gure altxorrik handiena, baita gugan sortzaile izatekoa den maitasunaren ontzako hori ere. Garrantzikoena nondik datorkigun ezagutu eta aitortzea da: «Jauna, zure ontzakoak eman du bere fruitua». Ez da gurea, doan eman digu Jainkoak, eskuzabal inbertitu dezagun. Zenbat eta handiagoa bera eskertzeko gaitasuna, orduan eta ahalbide handiagoa fruitu emateko. Hirugarren zerbitzariak gorde egin du ontzakoak: «Beldurra zion nagusiari». Ezerk ez du narrasten gure bizitza, ezerk ez gaitu kaskar egiten, geure beldurrari laineza emateak baino gehiago: txeraren inguruan eta geure burua eskaintzeko orduan gure gaitasuna kamustu besterik ez du egiten beldurrak.

\* \* \*

## POLITIKA ETA KRISTAUA

«Politika, hiritar izatearen artea da. Botoa ematea baino askoz gehiago da. (...) Politika, hiritar kontzientziaren adierazpen den aldetik, karitate-modu altuenetako eta ederrenetako bat izatera deitua dago. Politikan parte hartzea inguratzen gaituen egoismoa haustea da. Gure mundu txiki eta pertsonala baino harago konprometitzea da, geure indar guztiez, bihotz osoaz, elkarrekin bilatzeko bizi-kalitate hobe bat guztientzat, bizikidetasun sozial sanoago eta zuzenago bat, herrialde bat bilatzera zeinetan zuzentasunak eta askatasunak, zintzotasunak eta egiak gidatuko baitituzte gure ekintza guztiak. (*Silvio José Baéz Ortega (2017-11-05), gogain laguntzailea Managuan (Nicaragua), karmeldar oimutsa.*)



Urteko 33. astea.

Andre Maria [haurra] Tenpluan Aurkeztua.  
San Gelasio 1.a, *aita santua*.

[1 Makabearrak liburutik 2,15-29: Jainkoak gure arbasoekin egindako itunari eutsiko diogu. Sal 59 [49]: Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamera erakusten.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,41-44.

Aldi hartan, Jesus, Jerusalemera hurbildu eta hiria ikustean, negarrez hasi zen berarengatik, eta esan zuen: «Ai Jerusalem, ulertuko bazenu zuk ere gaur bakerako bidea! Baina ez zara hori ikusteko gauza. Etorriko zaizu, bai, zeure etsaiek lubakiz inguratu, setiatu eta alde guztietatik erasoko dizuten garaia; txikitu egingo zaituztete zu eta zure bizilagunak; eta ez dizute harririk harri gainean utziko, Jainkoak eskaini dizun salbamen-aukera aintzat hartu ez duzulako».

**A**ndre Mariaren Aurkezpenaren jai honek emakume harengana begira jartzen gaitu: «haren [Jesusen] etorrera-uneari» antzeman eta fedez bizitzen ikasi zuen Mariak: ulertzen zuen eta bihotzean gordetzen zuen guztiarekin bizi izan zuen etorrera hura, gainez egiten zion ontasun-misterioari gomendatuz. Mariak hezi zituen Jesusen begiak, hunkiturik negar egiteko, Jainkoaren maitasun-eskaintzari bihotza irekitzeko gai ez direnengatik; hain zuzen ere, min ematen diolako ulertzeko dugun gure trakeskeriaitsuak. Egunero dugu irekirik ahalbidea Jesusen jokamoldearen alde egiteko edota, aitzitik, nor bere zilbor-hes-teari begira zurrun gelditzeko.

Urteko 33. astea.

Santa Zezilia, *birjina eta martiria*.

[1 Makabearrak liburutik 4,36-37.52-59: Aldare berriaren sagaratzeko ospatu zuten, eta erre-opariak eskaini zituzten poz handiz. **Salmoa: 2 Kronikak 29:** Zure izen ospetsua goresten dugu, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,45-48.

Aldi hartan, Jesus, tenpluan sarturik, bertan salerosketan ari zirenak kanpora botatzen hasi zen, esanez: «Liburu Santuak dio: “Nire etxea otoitz-etxe izango da”. Zuek, ordea, “lapur-zulo” bihurtu du-zue».

Egunero tenpluan irakasten ari ohi zen. Apaizburuak, lege-maisuak eta herriko handikiak Jesus hil nahian zebiltzan; baina ez zuten asmatzen zer egin, herri guztia aho zabalik baitzegoen hari entzuten.

**A**saldatu egiten du Jesus Jainkoarekiko harremani ukatu egiten zaiela ikusteak, berak oinarrizkoentzat jotzen duen ezaugarri hura: Jainkoaren erabateko doakotasuna, alegia. «Merkataritza» terminotan eratzen den espiritualitate-mota oro, hamarrenak ordaintzea eta onurak mereitzea eskatzen duen oro, fededunak lehen eta bigarren mailako bereizten dituen oro, Jainkoarekin «harremanak» izatea ahalbidetzeko aitzakian onurak eskatzen dituen oro, kanpora bota behar da. Egia esan, nork bere bihotzean zapaldu litzake otoitz-etxea eta lapur-zulo bat bereizten dituzten lerro gorri horiek. Inor ez gaude libre horretatik. Baina beraren ahoko hitzen zain egoteak bakarrik segurta-tuko digu aldioro bera aintzat hartzea.

Urteko 33. astea.

San Klemente I.a, 4. *aita santua eta martiria*. San Kolunbano, *abadea*. Migel Agustin Pro, *dohatsua, apaiza, martiria, jesuita*.

[1 Makabearrak liburutik 6,1-13: Jerusalemen egin nituen okerrengatik, atsekabearen atsekabez hilko naiz. Sal 9 [9A]: Alaituko naiz, Jauna, zure salbamenaz.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 20,27-40.

Aldi hartan, saduzear batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi (saduzearrek ez dute onartzen hildakoak pizten direla), eta galdetu zioten: «Maisu, Moisesek idatzi zigun: “Norbaiti anaia ezkondua seme-alabarik gabe hiltzen bazaio, ezkon bedi alargunarekin, anaiari ondorengoa emateko”. Baziren, bada, zazpi anaia. Zaharrena ezkondu eta seme-alabarik gabe hil zen. Bigarrena eta hirugarrena alargunarekin ezkondu ziren, eta zazpiak berdin. Eta denak seme- alabarik gabe hil ziren. Azkenik, hil zen emakumea ere. Piztuerakoan, zeinen emazte izango da, zazpiek izan baitzuten emazte?»

Jesusek erantzun zien: «Mundu honetan gizon-emakumeak ezkondu egiten dira; baina datorren munduan eta hildakoen piztueran parte hartzeko Jainkoak gai aurkituko dituenak, gizaseme nahiz emakume, ez dira ezkonduko; izan ere, ez daitezke hil, aingeruak bezalako baitira eta Jainkoaren seme-alaba, piztueran parte dutenez gero. Gainera, hildakoak pizten direla Moisesek berak adierazten du, sutan zegoen sasiaren pasartean, Jaunari “Abrahamen Jainko, Isaaken Jainko eta Jakoberen Jainko” deitzen dionean. Ez da hildakoen Jainko, biziena baizik, denak bizirik baitaude harentzat».

Orduan, lege-maisu batzuek esan zuten: «Maisu, ederki esan duzu». Eta ez ziren ausartzen beste galderarik egitera.

**J**esus bera Misterio handiago batean murgildu da. Ezin aurkitu izaten ditugu hitzak, mundualdi honetako bizitzatik erabat ezin uler-tu izaten ditugun beste munduko gauzak adierazteko; halere, hazten ari zaigu bihotzean Jainkoarenak garen ziurtasuna. Izengabe den hark

Urteko 33. astea.

San Klemente I.a, 4. *aita santua eta martiria*. San Kolunbano, *abadea*. Migel Agustin Pro, *dohatsua, apaiza, martiria, jesuita*.

**digu izena ematen, Atzemanezin den hark gaitu ikusten, Adierazezin den hark digu xuxurlatzen gauza guztiak direla medio. Doi-doi dugu sumatzen guztiok zain dugun ate horren bestaldean dagoena, baina badakigu Jesusen bidez alde honetan imajina genezakeena baino infinituki hobea eta maitagarriagoa dela.**

\* \* \*

### SANTA ZEZILIA

(atzo ospatua)

V. mendea arte ez dago Zeziliaren martiritza (passio) kontatzen duen dokumenturik. Honen arabera, Zeziliarekin batean Valeriano, haren senarra, eta Tiburtzio, haren anaia, ere martiri hil ziren. Zezilia, ziur aski, Erromako Caecili familia kristauko alaba zen; via Appia deituriko bidean zuen lurrean, 210. urte inguruan, San Kalistori kristautentzat hilerria egiteko baimena eman zion familiak. Aldi berean, Trasteveren zuen etxe ondoko eraikina kristau-elkarteari batzar-tokitzat utzi zion. Eraikin horretako urtegi edo igerilekuan itoz hil zuten Zezilia. Martiritzaren kontraerak dioenez, ezkondua izanik ere, birjintasuna gordetzeko hitza emana zuen Zeziliak. Kantarien eta musikarrien zaindaria izatea, garai bateko bezperetan abesten zuten antifona batetik dator: *Cantantibus organis, Caecilia Domino decantabat* (musika-tresnekin batean kantatzen zion Zeziliak Jaunari). Dena den, datu dudagarri asko dago Zeziliaren bizitzaz.

Otoitzetan bi alderdi hauek apatzen dira nagusiki: argia («Aupa, Kristoren soldaduok, utzi alde batera ilunpetako egintzak eta jantzi zaitetze argiaren armez») eta etengabeko otoitza: «Zezilia birjina santuak bere bihotz gainean eraman ohi zuen beti Kristoren ebanjelioa».

### § 2 Samuel liburutik 5,1-3.

Egun haietan, Israelgo leinu guztiak Hebronera Davidengana etorri eta esan zioten: «Zeure odolekoak gaituzu. Lehenago ere, Saul gure errege zenean, zuk gidatzen zenituen Israelen joan-etorriak. Gainera zuri esana dizu Jaunak: “Zeuk gidatuko duzu nire herri Israel eta zeu izango zara israeldarren agintaria”».

Etorri ziren, beraz, israeldarren buruzagi guztiak David erregeagana Hebronera, eta honek hitzarmena egin zuen haiekin Hebronren Jaunaren aurrean. Eta haiek Israelgo errege gantzutu zuten.

### [Sal 122 [121]: Goazen pozik Jaunaren etxera!]

### § San Paulok Kolosarrei 1,12-20.

Senideok:

Eskerrak ematen dizkiogu Aitari, argiaren erreinuan bere santuentzat prestatuak dituen ondasunetan parte izateko gai egin gaituenari. Ilunpearen menpetik atera gaitu, eta bere Seme maitearen erreinura aldatu; honengan dugu askapena, honengan bekatuen barkamena.

Jainko ikusezinen irudi da Kristo, sorkari guztietan lehen-sortua. Haren bidez sortu zituen Jainkoak zeru-lurretan diren gauza guztiak, ageri direnak eta ez direnak: munduan eragina duten ahalmenak, nagusitzak, aginteak eta botereak; sortua izan den guztiak Kristo du eredu eta helburu. Gauza guztiak baino lehenagokoa da hura, eta hari esker diraute. Hura da gorputzaren buru, Elizarena, alegia. Hura da hasiera, hildakoen artetik lehen-piztua, gauza guztietan hura izan dadin lehenengoa; Jainkoak nahi izan baitu bere izaeraren betea Kristogan egotea, eta honen bidez gauza guztiak berekin adiskidetzeara, Kristok gurutzean isuritako odolaz bakeak eginez zeruko eta lurreko gauza guztiakin.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 23,35-43.

Urteko 34. astea.

JESU KRISTO GURE JAUNA, DIREN GUZTIEN  
ERREGEA.

San Andres Dung-Lac, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak*.

Aldi hartan, agintariak burlaka ari zitzaizkion Jesusi, esanez: «Besteak salbatu dizkik; salba dezala bere burua, Jainkoaren Mesias, Aukeratua, baldin bada».

Gudariak ere iseka egiten zioten; hurbildurik, ozpina eskaintzen zioten, esanez: «Juduen erregea baldin bahaiz, salba ezak heure burua!» Gainean idazkun hau zuen: «HAU JUDUEN ERREGEA DA».

Gurutzetik zintzilik zeuden gaizkiletako bat Jesusi irainka ari zitzaion: «Hi ez al haiz, ba, Mesias? Salba ezak heure burua eta salba gaitzak gu ere!»

Baina besteak haserre egin zion, esanez: «Ez al diok beldurrik Jainkoari, zigorra jasaten hagoela ere? Gurea legezkoa duk, geure eginengatik merezia baitiagu; baina honek ez dik inolako okerrik egin». Gero, esan zuen: «Jesus, oroit zaitetz nitaz, zeure erreinura iristean». Jesusek erantzun zion: «Benetan diotsut: gaur nirekin izango zara paradisu».

**G**ogoan dut, duela pare bat urte Gogo Jardun batzuetan, Darío Mollá-k pasarte honetaz egin zigun exegesia, grabaturik gelditu zitzaidan. Esan zigun, lapur onaren otoitza dela Ebanjelioan aurkitzen dugun otoitzik ederrena: eskakizunik gabe, presarik gabe, hoberen iruditzen zaiguna gerta dadin eskatu gabe, soil-soilik «gogora zaitetz nitaz», soil-soilik izan nazazu zeure begi aurrean. Eta Jesusek emandako erantzunean beraren txera onbera ageri da pobreekiko azkeneraino. Halakoekin lotura eginez hil da: «Gaur nirekin izango zara paradisu». Jesusekin izate hori bera gure bizitzaren erdi-erdian jartzea da, gure gurarien, erabakien eta afektuen zinezko erdigunean. Hori da benetan eraldatzen gaituen gauza bakarra. Lapurraren aldamenen dagoelako, «salbatu» egin du Jesusek. Amodiozko hurbiltasun horrek eskaintzen digu zentzua. Garai batean Jesu Kristo gure Jaunaren, diren guztien Erregearen irudiak elizara hurbiltzen zituen mundu honetako boteretsuak; gaur egun Frantziako aita santuak bere hitzaren eta keinuen bidez irudi hori bere leku egokira eramaten lagundu digu: «pobreak, eskaleak dira historiako protagonista... Ziurtasun gutxiren artean kukuturik lo dagoen munduan, jende apala ari da onberatasunaren iraultza prestatzen».

Urteko 34. astea.

Santa Katalina Alexandriakoa, *martiria*.

[Danielen liburutik 1,1-6.8-20: Ez zuen aurkitu Daniel, Hananias, Mixael eta Azarias adinakorik. **Salmoa: Daniel 3:** Bedeinkatua Zu, Jauna, gure arbasoen Jainkoa: Aintza eta gorespen zuri gizaldietan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,1-4.

Aldi hartan, begira zegoela, aberats batzuk ikusi zituen Jesusek tenpluko diru-kutxara limosna botatzen. Ikusi zuen emakume alargun behartsu bat ere bi txanpon botatzen. Eta esan zuen: «Benetan diotsuet: alargun behartsu honek beste guztiek baino gehiago bota du. Izan ere, beste guztiek sobera dutenetik egin dute limosna; honek, ordea, bere eskasian, bizitzeko zeukan guztia eman du».

**G**aurko ebanjelioko emakume alargun honen keinuak –jende askorentzat oharkabea– arreta eragin dio Jesusi, eta geuk ere ikastea nahi duen zerbait agertu digu. Emateko orduan, gehiena dutenek botatzen duten diruak zarata handia ateratzen du erortzean; alargun honen bi sosek doi-doi atera dute hotsik. Bere burua eskainirik –ez baitu ezer gordetzen– bizi den emakume honen keinu txikar honetaz ohartu ahal izateko azti egoten diren belarriak eta begiak eduki behar dira. Beraren gabezia beraren eskuzabaltasuna ikusarazi digu Jesusek. Beraren keinua duen apurtxo beretzat gordetzearen kontrakoa da, guztiz. Besteen premia izan du gogoan eta eskua ireki du, bere konfiantza Misterioaren onberatasunean ezarririk.

Urteko 34. astea.

San Konrado, *gotzaina*.

San Joan Berchmans, *jesuita*.

[Danielen liburutik 2,31-45: Inoiz hondatuko ez den erreinua eraikiko du Jainkoak, eta beste erreinuak suntsituko ditu. **Salmoa: Daniel 3**: Jaunaren sorkari guztiok, bedeinka ezazue Jauna: Goretsi eta ospatu gizaldietan!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,5-11.

Aldi hartan, tenpluari buruz ari ziren batzuk, harri ederrez eta emaitzez apaindua zegoela aipatuz. Orduan, Jesusek esan zien: «Etorriko da, hor ikusten dituzuen horietatik guztietatik harririk harri gainean geldituko ez den garaia: dena suntsituko dute».

Ikasleek galdetu zioten: «Maisu, noiz gertatuko da hori? Eta zertan antzemango diogu gertatzera doala?»

Jesusek erantzun zien: «Kontuz, ez zaitzabela inork engaina! Asko etorriko dira nire izenean, “ni naiz Mesias” edo “gainean da garaia” esanez. Ez joan horrelakoen atzetik. Gerra- eta iraultza-hotsak entzutean, ez ikaratu, lehenbizi gertatu beharrekoa baita hori guztia; baina ez dator berehala azkena».

Esan zien, gainera: «Nazioa nazioaren aurka eta erreinua erreinua- ren aurka altxatuko dira; lurrikara handiak izango dira, eta izurriteak eta goseteak han eta hemen. Gauza ikaragarriak gertatuko dira, eta seinale handiak agertuko zeruan».

**J**akinaren gainean jarri gaitu Jesusek, ikusten eta sostengu dugun gutzia galkor dela esanez. Distiratsu eta lilurakor den gutzia itzaliko da, gizarte-solaskide berriak sortuko dira, erlijioso eta politiko, eta, ondoren, kontrako harikoak jaikiko dira, gaur gozagarri ditugun idoloak eroriko dira, eta larruz aldatuz joango da historia. Nola eraiki funtsezkoa «gerla eta iraultza» artean? Zer edo zein da gure artean irmo geldituko dena aurreikusi ezineko «lurrikaren» ondoren? Beldurrak eta edukitzeko antsiaz gain, badu gizakiak maitasuna ere. Soilik, zoru hori geldituko zaigu, horretan inbertitu izango duguna.



Urteko 34. astea.

Andre Mariaren medaila mirarizkoa.  
San Jakobo Pertiakoa, *martiria*.

[Danielen liburutik 5,1-6. 13-14. 16-17. 23-28: Giza esku bat agertu zen eta hatzez idazten hasi. Salmoa: Daniel 3: Eguzki eta ilargi, bedeinka ezazue Jauna: Goretsi eta ospatu gizaldietan!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,12-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Eskua erantsiko dizue eta erasoko, sinagogetara eta kartzeletara eramango zaituztete, eta erregeen eta agintarien aurrera zuzenduko nitatik. Aitormen egiteko aukera emango dizue horrek guztiak. Hartu gogoan ez duzuela zeuen burua nola defendatuko kezkatan ibili beharrik; Nik adieraziko dizuet zer eta nola esan, eta zuen etsaietako inork ez du zuei aurre egiterik edo erantzuterik izango.

Zeuen gurasoek eta senideek berek, ahaideek eta adiskideek berek salduko zaituztete, eta zuetako zenbait hilko; guztiak gorroto izango dizuite nitatik; baina ez duzue buruko ile bat ere galduko. Iraupenara iraupenez lortuko duzue bizia».

**B**eti eman izan didate atentziora gizon-emakume askoren historiek: mehatxuak jasaten dituztenean, ontasuna itzultzeko gai izaten dira, kalte egiten dietenezat begi gupidatsuak izaten dituzte; beren burua azkeneraino xalo eskaintzen dute, gaizkileez eta beren burua galtzen dutenez kezka bizi dutelako, halakoak ere maitasuna eta zoriona bizitzeko jarioak baitira. Gazteagoa nintzenean, nire galdera zen: nondik ateratzen dute indar hori?, zerk eragiten die arriskuan eta maitale jarraitzera azkeneraino? Orain, aski izaten dut neure barnean halakoen izenak jaulkitzea, neure maitasun estuan argi-bafadak hartzeko: Esteban, Ety Illessum, Joan Alsina, Christian de Cherché, besteak beste.

Urteko 34. astea.

Santa Teodora, *abadesa*.

San Honesto Nimeskoa, *apaiza*.

[Danielen liburutik 6,12-28: Jainkoak aingerua bidali du lehoien ahoak ixtera. **Salmoa: Daniel 3:** Ihintz eta elurte, bedeinka ezazue Jauna: Goretsi eta ospatu gizaldietan!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,20-28.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jerusalem gudarostez inguratu ikustean, jakizue gainean duela bere hondamendia. Orduan, Judean daudenek ihes egin bezate mendietara; Jerusalem barruan daudenek alde egin bezate, eta soroan direnak ez bitez hirian sartu. Zigor-egunak izango dira, orduan beteko baita Liburu Santuan idatzirik dagoen guztia.

Dohakabeak egun haietan haurdun izango direnak edota bularreko haurrak izango dituztenak! Estualdi handia izango baita lur honetan, eta haserre-zigorra herri honentzat. Ezpatapean eroriko dira eta nazio guztietara eramango dituzte gatibu; jentilek zapalduko dute Jerusalem, nazioentzat Jainkoak erabakitako epea erabat bete arte.

Seinaleak izango dira eguzkian, ilargian eta izarretan, eta estu ibiliko dira lurrean herrialdeak, itsasoaren orroaz eta olatuen indarrez aztoraturik. Arnasarik gabe geldituko da jendea, munduari gainera datorcionaren beldurrez, ortzia ere dardaratuko baita.

Orduan, Gizonaren Semea indartsu eta aintza handiz hodeian etortzen ikusiko dute. Hori guztia gertatzen hastean, izan bihotz eta jaso burua, hurbiltzen ari baita zuen askapena».

**Z**aillasun-egoeratan, arnasarik gabe eta nekea nola arindu ez dagigula uzten gaituzten zuzengabekeria- eta gizagabetasun-errealitatean aurrean, bizitzarik ahulena zaindu eta gordetzeko gai sentitzen ez garenean, eta «gainera datorkigunaren aurrean beldurra eta estutasuna» indarrez nagusitzen zaizkigunean: halakoetan izaten dugu bihotza ukitzen eta arnasa ematen duten hitzen eta keinuen beharra, zutik eutsiko digutenena. Atzamarkada askoren ondoko esku leun bezala opa izaten dugu Jainkoaren esku-ukitua beste aurpegi batzuen bidez: «Jaiki zaitzez, jaso burua», zeuekin duzue maite zaituztena.

[Danielen liburutik 7, 2-14: Gizaseme antzeko bat ikusi nuen, zeruetako hodeietan etortzen. **Salmoa: Daniel 3:** Mendi eta muino, be-deinka ezazue Jauna: Goretsi eta ospatu gizaldietan!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,29-33.

Aldi hartan, Jesusek adibide bat jarri zien ikasleei: «Begira pikondoari edota beste edozein zuhaitzi: kimu-berritzen hasi direla ikusi eta, besterik gabe, badakizue hurbil dela uda. Era berean, gauza horiek gertatzen ikustean, jakizue hurbil dela Jainkoaren erregetza. Benetan diotsuet: gizaldi honetakoak hil baino lehen gertatuko dira gauza guztiok. Zeru-lurrak igaroko dira, baina nire hitzak ez dira bete gabe igaroko».

**J**esusek Jainkoaren jokamoldea ikasi eta ezagutu zuen naturaren erritmo pazientziadunari erreparatuz. Amaren etxera joan nintzenetako batean, mirari txiki bailitzan erakutsi zidan loreontzi bat; hamabi urtez zaindu zuen eta orduantxe erne zitzaizkion arrosa koloreko loretxo beldurti batzuk, goialdean. Hunkiturik esan zidan amak: «hainbat urtetan ez dut jakin loreak zaintzen nituenik eta orain, zahardadean, erakusteko aukera izan dut». Kontuan eroarazi ninduen, gauza bera gerta dakigula geuri ere. Jauna, emaguzu grazia, aurkitzeko pertsona bakoitzak bihotzean gorderik dituen lore-emateak, eta jakinduria, jende horri arnasa emateko!

Urteko 34. astea.  
San Andres, apostolua.

---

§ San Paulok Erromatarrei 10,9-18.

Zeure ahoz aitortzen baduzu Jesus Jauna dela, eta zeure bihotzean sinesten baduzu Jainkoak hilen artetik piztu zuela, salbatuko zara. Zeren bihotzez sinesten duena zuzentzat hartzen baitu Jainkoak, eta ahoz aitortzen duena salbatu egiten da. Liburu Santuak dio: «Harengan sinesten duena ez da lotsagarri gertatuko».

Judu izan ala ez, ez dago bereizketarik, bat bera baita guztien Jauna, dei egiten dioten guztientzat eskuzabala. Izan ere, «Jaunaren ize-nari dei egiten diona salbatuko da».

Nola, ordea, dei egin, harengan sinesten ez badute? Nola sinetsi, haren entzuterik ez badute? Nola entzun, nork hots eginik ez bada? Nola hots egin, hartarako bidalirik ez bada? Liburu Santuak dioen bezala: «Bai ederrak berri onak ekartzan dituztenen oinak!» Ez diote, ordea, denek harrera ona egin Berri Onari. Isaiasek dio: «Jauna, nork sinetsi du gure mezua?» Beraz, mezutik dator sinestea, eta Kristoren berri ematea da mezua.

Eta nik galdetzen dut: «Ez al dute entzun?» Bai, noski: «Lurbira guztira zabaldu da haien hotsa, munduaren bazterreraino haien mezua».

[Sal 19 [18]: Lurbira guztira zabaltzen da haien hotsa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 4,18-22.

Aldi hartan, Jesusek, Galileako itsasbazterrean barna zebilela, bi anaia ikusi zituen, Simon, Pedro deitua, eta haren anaia Andres, sareak itsasoan botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek, berehala, sareak utzi eta jarraitu egin zioten.

Aurreraxeago, beste bi anaia ikusi zituen, Santiago eta haren anaia Joan, Zebedeoren semeak, aitarekin ontzian sareak konpon-tzen; eta dei egin zien. Haiek, berehala, ontzia eta aita utzirik, jarraitu egin zioten.

**E**z dio inporta zer izan diren. Jesusek ez die galdegin nondik datozen, baizik eta aurrera egiteko esan die promesean fidaturik, berari lotu nahi zaizkionengan berak zer egiten ahal duen konfiantza izanik. Beraren bidelagun izateko, alde batera utzi beharra izango dute ezagutzen dutena, beren bizia segurtatzen diena, eta beraren ondoren arriskatu beharra izango dute eraman nahi dituen bidetik eta helbururantz: «aurreratu gabe, ibilera bortxatu gabe, jakintsuki ezjakin. Bihotza beragan ezarririk, jarraituko diote». Batak bestearen ardura eta kezka biziko dute. Ezin ahaztuko dute lehen aldiko hura, eta sutsuki nahi izango dute beste asko beraien bidelagun izatea.

\* \* \*

### SAN ANDRES, APOSTOLUA

San Andres Jonasen semea eta Simon Pedroren anaia da. Ebanjelioetako zerrenda guztietan ageri da. Galileako Betsaidakoa zen; baina Kafarnaum herrian bizi zen, arrantzu-lanetan.

Joan Bataiatzaileak Mesias nor zen jakinarazi ziolarik (ik. Jn 1,35-39), Jesusi jarraitu zion. Andresek eman zion anaia Simoni berri ona: «Mesias aurkitu diagu!» (Jn 1,41). Ekialdeko eliz elkarteek «protokleto» (lehen-deitua) esaten diote San Andresi. Ogiak eta arrainak ugalitzean, San Andresen izena aipatzen du Ebanjelioak, San Feliperenarekin batean (Jn 6,5-7). San Andresek eraman zituen, San Feliperekin batean, greziarrak Jesusengana (Jn 12,20-22).

San Jeronimok dioenez, Patras uhartean hil zuten gurutziltzatua, K.o. 95. urte inguruan. Inongo tradizioek ez du esaten nolakoa zen gurutze hura. Aldi batean gurutze latinoa (zutiko egurra zeharkakoa baino luzeagoa) jartzen zioten. Baina X. mendean geroztik, gurutze grekoa (lau besoak luzera berekoak) izan zela zabaldu zen. Geroztik, «San Andresen gurutzea» izena eman zaio gurutze grekoari.



## ABENDUA / GABONILA

### AITA SANTUAREN ASMOA

**Ebanjelizazioaren alde:** Fedea eskualdatzeko zerbitzuari emanak diren pertsonen alde: gaur egunari egokituriko hizkuntza bat aurki dezaten, kulturarekin solasean.



Abendualdiko 1. astea. A urtea.

San Leontzio, *gotzaina*.

Santuak: Edmundo Campion, Roberto Southwell, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*.

### § Isaias profetaren liburutik 2,1-5.

Isaiasek, Amosen semeak, Judaz eta Jerusalemek izandako ikuskaria:

Azken egunetan, Jaunaren etxea dagoen mendia beste mendiak baino gorago ezarriko du Jaunak, beste mendixkak baino gorago; hara joko dute nazio guztiek eta herri asko joango da bertara, esanez: «Zatozte, igo gaitezen Jaunaren mendira, Jakoben Jainkoaren etxera; berak erakutsiko dizkigu bere bideak, eta gu haren bidezidorretan ibiliko gara; Siondik aterako baita legea eta Jerusalemdik Jaunaren hitza».

Berak epaituko ditu nazioak, auzira ekarriko herri guztiak. Golde bihurtuko dituzte ezpatak eta igitai lantzak. Ez du herrik herriren aurka ezpatarik jasoko, ez dira gudurako berriz trebatuko.

Zatoz, Jakoben herri, gabiltzan Jaunaren argitan.

[Sal 122 [121]: Goazen pozik Jaunaren etxera!]

### § San Paulok Erromatarrei 13,11-14a.

Senideok: Ohar zaitzete zein garaitan bizi zareten. Izan ere, ordua da lotatik esnatzeko, sinesten hasiberri hartan baino hurbilago baitugu orain geure salbamena.

Badoa gaua, gainean dugu eguna; ken ditzagun, beraz, ilunpetako egintzak eta jantzi argitako armak. Gabiltzan jator, egun-argiz bezala: ez jan-edankerian eta hordikerian, ez lohikerian eta neurrigabekerian, ez haserre eta norgehiagokerian. Hartazue Jesu Kristo Jauna soineko.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 24,37-44.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Noeren garaian bezala gertatuko da Gizonaren Semearen etorrerakoan ere. Uholde aurreko egunetan jan-edanean zebilen jendea, eta ezkondu egiten ziren gizon-emakumeak, Noe ontzian sartu zen eguneraino; eta ez ziren kon-



turatu, uholdea etorri eta guztiak eraman zituen arte. Horrela izango da Gizonaren Semearen etorrerakoan ere. Orduan, bi gizon izango dira soroan: bata hartu egingo dute eta bestea utzi; bi emakume ariko dira errotarrian: bata hartu egingo dute eta bestea utzi.

Zaudete erne, ez baitakizue zein egunetan etorriko den zuen Jauna. Hartu hau gogoan: etxeko nagusiak baleki gaueko zein ordutan etorriko den lapurra, erne egongo litzateke eta ez luke bere etxea zulatzen utziko. Egon, bada, prest zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko zaizue-eta Gizonaren Semea».

**A** bendualdia haste honek, nola bizi garen kontuan hartzera prestatu nahi gaitu, eta munduan zein jarrera dugun aztertzea; geure buruari galdetza zertaraino zaizkigun axola behartsuak eta txikiak, aitortzea geure begiratuan –begiak jartzen ditugun puntuan sartzen dugu pozoia eta belzten dugu marmarka– geure «ezpatak» gorderik ote daramatzagun ala, alderantziz, begiratu azti bat eskatzen dugun, «goldatzen eta kimatzen» duena eta errealitatea egokitzen duena fruitu hobe emateko. Behin batean, ama lankide batek kontatu zidan hiru urteko semeak galdetu ziona: «Ama, zergatik begiratzen diozu mugikorri gauzei baino gehiago?» Galdera honek sakon erasan zion eta haurrarekin zegoenean mugikorra urrun uztea erabaki zuen, semeari adiago bizitzeko.

Igandearen argi dirdiratsua dela eta, itzalean gelditi liteke Foucauld-eko Karlosen jaia; halere, on handia egin diezaguke Karlosek bizi izan zuen doakotasun harrigarria gogoratzeak, geure nagikeria argitzeko. Atentzioa eman zidan jakiteak, beraren azken balantzea, tuaregs-en artean, afrikar baten eta adineko emakume baten konbertsioa izan zela. Bai gauza eskasa gure begientzat, baina bai eskaintza biziki baliosa Jainkoarentzat! Karlos gogoratzeak ondo asko senda ditzake efikaziaz eta emariaz izaten ditugun bulkadak. Gizon bihotz garbia izan zen, guztientzat anaia / neba samurra. Lagun bikain-bikaina «Jaunaren argian bide egiteko».

Abendualdiko 1. astea. A urtea.

Santa Bibiana, *birjina eta martiria*.

San Viktorino, *martiria*.

[Isaias profetaren liburutik 4,2-6: Edergarri izango da, Israelen bizirik geldituentzat. Sal 122 [121]: Goazen pozik Jaunaren etxera!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8,5-11.

Aldi hartan, Jesus Kafarnaum herrian sartu zelarrik, erromatar ehuntari bat etorri zitzaion, arrenka esanez: «Jauna, elbarri eta oinazetan dago nire morroia etxean». Jesusek esan zion: «Joan eta sendatuko dut».

Baina ehuntariak erantzun zion: «Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko; baina esazu hitz bat eta sendatuko da nire morroia. Nik ere, neu besteren mendean egon arren, soldaduak ditut neure mendean, eta bati joateko agintzen badiot, joan egiten da; beste bati etortzeko agindu, eta etorri; eta nire morroiari zerbait egiteko esan, eta hala egiten du».

Hori entzunik, harritu egin zen Jesus eta ondoren zetozkionei esan zien: «Egia esan, Israelen ez dut inorengan aurkitu horrenbesteko sinemenik. Eta hau diotsuet: Asko etorriko dira sortaldetik eta sartaldetik, eta zeruetako erreinuko mahaian eseriko dira, Abraham, Isaak eta Jakobekin».

**E**huntaria maisu bihurtu da. Gizon horrek badu bereen sufrimenduaren berri, eta eskaria egin dio Jesusi, konfiantzaz eta apal: «Ni ez naiz inor». Aitorpen bat da, geure benetako lekuan ipintzen gaitu. Ez naiz nor beste inor juzkatzeko, ez naiz nor neure ikuspuntua beste inori ezartzeko, ez naiz nor beste inor baino hobea naizela uste izateko... Hitz asko jaulki ohi dugu, ezertako ez direnak, eta grazia eskatu beharra izaten dugu: izan dezagula aski beraren Hitz bat, beraren ahaltasuna eta guzti gure baitan bizia harilduz joateko. Jainkoarekiko erlazioa bera ere «profesionalizatu» egiten dugu eta, beste behin, jende xumea izaten da egiazko bidea agertzen diguna.

# 3

## Asteartea / Martitzena **ABENDUA / GABONILA**

Abendualdiko 1. astea.

San Frantzisko Xabierkoa (Nafarroako Xabierren 1508–Txinako atarian 1552), *apaiza, jesuita*. (*Ikus Xabierren Meza beheraxeago*)

[Isaias profetaren liburutik 11,1-10: Haren gainean Jaunaren espiritua kokatuko da. **Sal 72 [71]**: Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari betieran.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,21-24.

Aldi hartan, Jesusek, Espiritu Santuaren pozez beterik, esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork ezagutzen Semea nor den, Aitak baizik; ezta Aita nor den ere, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak baizik».

Eta ikasleengana itzulirik, esan zien haiei bakarrik: «Zorionekoak, zuek ikusten duzuen ikusten duten begiak. Hara zer diotsuedan: profeta eta errege askok ikusi nahi izan zuen zuek ikusten duzuen, baina ez zuen ikusi, eta entzun zuek entzuten duzuen, baina ez zuen entzun».

**A**rreba gazteago baten ondoan bizitzeko zoriona izan dut: bere gaixotasun latzean bakea irradiatu du. Ikusi dut, nola aukeratzen duen bizia istant bakoitzean: ospitaleko gela bat bere eremu sakratu bihurtu du, non Jainkoak bisita egiten baitio, eta ez da aspertu inoiz ere besteez arduratzeaz. Hil denean denek egin dute negar: emakume hematologotik solairuko emakume garbitzaileaganaino. Hura bitarteko, bazen gudan Jainkoaren zerbait. Gau eta egun txundiarazten gintuen, erre-pikatuz: «Eskerrak, Jauna». Gaurko ebanjelio hau entzutean, haren presentzia datozkit gogora eta azkeneraino agertu duen irribarrea. Beraren xumetasunean onberatasun harrigarri bat ikusi eta dastatu ahal izan genuen.

\*\*\*

Abendualdiko 1. astea.

San Frantzisko Xabierkoa (Nafarroako Xabierren 1508–  
Txinako atarian 1552), *apaiza, jesuita*.

### XABIERKO FRANTZISKOREN MEZA

#### § Sofonias profetaren liburutik 3,9-10.14-20.

Honela mintzo da Jauna:

Egun hartan, herrien ezpainak garbi bihurtuko ditut, guztiek Jau-  
naren izenari dei egin diezaioten eta guztiek bat eginik zerbitza naza-  
ten. Nire gurtzaileek, sakabanatu nituenek, eskaintzak ekarriko dizki-  
date Etiopiako ibaiaz bestaldetik.

Egin poz-irrintzi, Sion hiri! Egin oihu alai, Israel! Poztu zaitetz  
bihotz-bihotzez, alaitu, Jerusalem! Urratu du Jaunak zure kontrako  
erabakia, atzerarazi ditu zure etsaiak. Jauna, Israelgo erregea, zure er-  
dian dago: ez zara gehiago ezeren beldur izango. Egun hartan, honela  
esango diote Jerusalem:

«Ez beldur izan, Sion! Ez bitez erori zure eskuak! Jauna, zure Jain-  
koa, zure erdian dago salbatzaile indartsu! Pozaren pozez alaitzen da  
zugatik, bere maitasunez biziberritzen zaitu. Pozez jauzika dabil zu-  
gatik, jaiegunez bezala». Nik bilduko ditut, Jerusalem, zugandik urruti  
eta jairik gabe triste zeudenak.

Bai astuna zure lotsa! Aldi hartan, zapaltzen zaituzten guztiak  
suntsituko ditut, ezinduak salbatuko, sakabanatuak bilduko, eta gora-  
penez eta ospez beteko lotsaz bizi izan diren toki guztietan.

Aldi hartan, herrira ekarriko zaituztet eta bilduko; orduan, ospetsu  
eta goragarri egingo zaituztet lurreko herri guztien artean; zeuen begi  
aurrean aldatuko baitut zuen zoria» –hau dio Jaunak–.

[Sal 96 [95]: Zabaldu Jaunaren mirariak herri guztietan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16,15-20.

Aldi hartan, Jesus Hamaikei agertu eta esan zien: «Zoazte mundu  
guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen

# 3

## Asteartea / Martitzena **ABENDUA / GABONILA**

Abendualdiko 1. astea.

San Frantzisko Xabierkoa (Nafarroako Xabierren 1508–  
Txinako atarian 1552), *apaiza, jesuita*.

dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete, eta sendatu egingo dira». Horrela mintzatu ondoren, Jesus Jauna zerura jasoan izan zen eta Jainkoaren eskuinaldean eseri zen. Haiek, berriz, alde guztietara joan ziren Berri Ona hots egitera. Eta Jauna bera ari zen haiekin, egiten zituzten mirarien bidez hitza baiesten zuela.

**X**abierko Frantzisko beste askok ikusi ez zuena ikusi zuen gizona izan zen, beste batzuk entzutera ausartu ez zirena entzun zuena. Itzuliko txartelik gabe abiatu zen guztiz ezezaguna zuen mundu batera; bidaia-hornidura bakarra bere lagunak –beste aldetik sostengatzen zutenak– eta Jesusen izena, bere bularrean sutan. Dena denentzat egin zen, maitasunak eta esker onak zauritua. Beraren gutunek eta idazkiek irrika handi baten sekretua agertu digute. Bere buruaren jabe izateari utzi zion, eta maite zituen haiena bihurtu zen guztiz, eta, Kristo agertzeko, bera maitatzen utzi zien haiena. Irudika dezakegu, ez zela hori guztia batere gauza erraza izango, baina bera zoriontsu izan zen: behartsu Kristo behartsuarekin, alai Jesus alaiarekin.



Xabierko San Frantzisko,  
*apaiza, jesuita (Misiolarien Zaindaria)*

## ABENDUA / GABONILA Asteazkena / Eguaztena

Abendualdiko 1. astea.

San Joan Damaskokoa, *apaiza eta eliz irakaslea*. Santa Barbara, *birjina eta martiria*. Pio Heredia (1875 Larrea [Araba]–1936 Santander) eta lagunak, *Cobrezeko zistertarrak, dohatsu eta martiri*.

# 4

[Isaias 25,6-10a: Jai-otordua emango die Jaunak herri guztiei etaukatuko ditu aurpegi guztietako negar-malkoak. Sal 23 [22]: Jaunaren etxean naiz biziko luzaroen luzaro.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 15,29-37.

Aldi hartan, Galileako itsasbazterrera joan zen Jesus; mendira igo eta han eseri zen. Jende asko hurbildu zitzaion, herren, itsu, besamotz, mutu eta bestelako gaixo asko eramanez; oinetan jartzen zizkieten, eta hark sendatu egiten zituen. Jendea harritua gelditu zen ikusten zuenaz: mutuak hizketan, besamotzak sendatuak, herrenak ibiltzen eta itsuak ikusten. Eta Israelen Jainkoa goresten hasi ziren.

Jesusek ikasleei dei egin eta esan zien: «Erruki dut jende hau; badarama hiru egun nirekin eta ez du jatekorik. Ez ditut baraurik bidali nahi, bidean akitu ez daitezen».

Ikasleek esan zioten: «Nondik atera guk basamortu honetan horrenbeste jende asetzeko lain ogi?» Jesusek esan zien: «Zenbat ogi duzue?» Haiek erantzun: «Zazpi, eta arraintxo bakar batzuk». Lurrean esertzeko agindu zion jendeari; gero, hartu zituen zazpi ogiak eta arrainak eta, esker-otoitza egin ondoren, zatitu eta ikasleei eman zizkien, eta ikasleek jendeari. Denek jan zuten ase arte, eta gelditutako hondarrekin zazpi saski bete bildu zituzten.

**B**izitza biderkatzen ari da; halere, denentzat dago munduan, eskuak itxirik izatetik eskuak irekiz partekatzen jotzen dugunean. Atxikirik gorde nahi izaten dugunak lotu egiten gaitu, eta jabetzan daukagunak jabetzan harrapatzen gaitu. Prest bizi ahal izateko, gai izan behar dugu hartzeko, eskertzeko, banatzeko eta eskaintzeko. Ez, noski, geure indarrez, baizik eta Beste haren ahotsak eta keinuek animaturik: «Zenbat ogi dituzue?» Ez dio axola kopuruak, ezta efikaziak ere, ezta kalkuluek ere (ez digute emango); axola dutenak eskuzabaltasuna eta bihotza dira, atxikitzen eta gordetzen ez dugunean, berak egindakoan konfiantza duen bihotza; gainezka zaigu bera ematen eta digu ematen.

[Isaias 21,1-6: Sar bedi herri zintzoa eta leiala. Sal 118 [117]: Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7.21.24-27.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez da aski niri “Jauna, Jauna” esatea zeruetako erreinuan sartzeko; hau da beharrezkoa: zeruaren dagoen nire Aitaren nahia egitea.

Beraz, nire hitz hauek entzuten eta betetzen dituen bere etxea harkaitz gainean eraiki zuen gizon zentzudunaren antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; baina ez zen erori, harkaitz gainean oinarritua baitzegoen.

Nire hitz hauek entzun bai, baina betetzen ez dituen, bere etxea hondar gainean eraiki zuen gizon burugabearen antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; eta erori egin zen eta erabat hondatua gelditu».

**G**aurko ebanjelio honetara itzultzen naizen bakoitzean, argiro adierazten dit, geure etxea eraikitzeokan bota beharreko zimentarria beraren maitasuna dela, berak doan eta etengabe eskainitako maitasuna, geure hasiera eta oinarri dugun maitasun hori: hazten joateko orubea eta zeruertza ematen dizkiguna, geure jarrera zehazten joateko egunero behar duguna. Izan ere, ez da aski esatea, agertu egin behar da; ez da aski iragartzea, geure gorpuztasun osotik pasatu beharra du. Merezi izan gabe maiteak garelako esperientzia horretatik eta fondo galdura besteak maitatzetik eraikitzen ez duguna: etorriko da ekaitza eta lur joaraziko dio.

Abendualdiko 1. astea.  
San Nikolas, *gotzaina*.

[Isaias profetaren liburutik 29,17-34: Egun hartan ikusiko dute itsuen begiek. Sal 27 [26]: Jauna dut argi eta salbamen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,27-31.

Aldi hartan, Jesus handik ateratzean, bi itsuk jarraitu zioten, oihuka: «Erruki zakizkigu, Daviden Seme!» Etxera heltzean, itsuak hurbildu zitzaizkion eta Jesusek esan zien: «Sinesten al duzue hori egin dezakedala?» Haiek erantzun: «Bai, Jauna».

Orduan, begiak ukitu zizkien, esanez: «Gerta bekizue sinesten duzuen bezala». Eta ireki egin zitzaizkien begiak. Jesusek zorrotz agindu zien: «Begira, gero, ez dezala inork ere jakin». Baina haiek, atera orduko, eskualde guztian eman zuten Jesusen berri.

**B**egiak apartatu ala begira-begira jarraitu: horretan datza bide egiteari uztea ala bide egiten jarraitzea. Beste alde batera begira jarri ala dagokionari begira jarraitu, eta begi aurrean dugunaren aurpegia gurean gupidatsu inprimatu dadin utzi. Bere ondasunek lotua eta azpiratua zuten gazte harengan eta luzaro konkorturik bizi zen emakumearen sufrimendu isilean begiak ipini zituen hura [Jesus]; itsu bizi ziren haiei distira eta konfiantza eman zien eta ereile eskuzabal baten-gan Jainkoaren pazientziatzko egintza aurkitu zuen hura; historia maitasunez blai ikusten zuten begi haiek: nola eskatu hari gure begiak uki ditzan? Nolatan ez eskertu egunero haren argia, gauza guztien inguru guztian distiratsu?



Abendualdiko 1. astea.

San Anbrosio Milangoa, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

[Isaias profetaren liburutik 9,35–10,1.6-8: Errukituko zaizu Jauna zeure deiaren hotsera. Sal 147 [146]: Zorionekoak Jaunagan itxaro dutenak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,35–10,1.5a.6-8.

Aldi hartan, herriz herri eta auzorik auzo zebilen Jesus, hango sina-gogetan irakasten, erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzen. Jendetza ikustean, erruki izan zuen, nekata eta lur joa baitzegoen jende hura, artzainik gabeko ardiak bezala. Orduan, ikasleei esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Erregutu, bada, uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztera».

Eta hamabi ikasleei dei egin eta ahalmena eman zien espiritu gaiztoak botatzeko eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzeko. Hamabi horiek bidali zituen Jesusek, ohar hauek eginez: «Zoazte galduak dabil-tzan Israel herriko ardietara. Eta bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetao erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu lepradunak, bota deabruak; hutsean hartu duzue, eman hutsean».

«**J**endea ikustean gupidatu egiten zen Jesus». Barneratu ditzagun hitz hauek mantra edo lelo liturgiko bailiran, eta utz diezaiegun geure barnean txerta daitezen. Jesus barnean sutzen duen gogo hau ezin bete du berak bakarrik, ezta guk ere. Horregatik, lagunekin bidali gaitu arreta eskaintzera historiako gorputz zaurituei eta geure eskuak halarako gainean ipintzera, samurtasun- eta solidaritate-ehun edo sare hori ehaz, horrek bakarrik baititu sendatzen eta salbatzen gure egoismoak. Gero eta batura handiago sortu behar dugu besteekin, barruko eta kanpokoekin. Protagonismorik gabe, fakturarik egin gabe, Erreinuaren hurbiltasun saneagarria begi-bistan jarri ohi duen doakotasun horrekin.

Abendualdiko 1. astea.

ANDRE MARIA SORTZEZ GARBIA.

§ Hasiera liburutik 3,9-15.20.

Adamek zuhaitzetik jan ondoren, Jainko Jaunak dei egin eta esan zion: «Non zara?» Hark erantzun: «Zure oin-hotsa baratzean entzun dudanean, beldurtu eta gorde egin naiz, larrugorri nengoelako». Jainkoak esan zion: «Eta zeinek jakinarazi dizu larrugorri zeundela? Galarazi nizun zuhaitzeko fruitua jan al duzu?» Gizonak erantzun: «Larguntzat eman didazun emakumeak eskaini dit fruitua, eta jan egin dut». Orduan, Jainko Jaunak esan zion emakumeari: «Zer egin duzu?» Emakumeak erantzun: «Sugeak engainatu nau eta jan egin dut».

Orduan, Jainko Jaunak esan zion sugeari:

«Hori egin dualako, madarikatua izango haiz abere guztien eta basapiztia guztien artean; sabel gainean ibiliko haiz arrastaka eta hautsa jango duk heure bizitzako egun guztietan. Elkarren etsai egingo zaituztet hi heu eta emakumea, hire eta haren ondorengoa; honek burua zapalduko dik, eta hik orpotik helduko diok».

Gizonak bere emazteari «Eva» ezarri zion izena, bizidun guztien ama delako.

[Sal 98 [97]: Kanta Jaunari kantu berri, egin baititu hainbat harrigarri.]

§ San Paulok Efesoarrei 1,3-6.11-12.

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita, zeruan, Kristoren bitartez, Espirituaren era guztietako ondasunez bedeinkatu gaituena! Kristogan aukeratu gintuen, mundua sortu baino lehen, santu eta errugabe izan gaitezen beraren aurrean, maitasunez. Bere onginiak eraginda aurrez zuen erabakia, Jesu Kristoren bitartez gu seme-alabatzat hartzea, bere Seme maiteagan eskuzabal eman digun dohain zoragarria gorespen-kantu bihur dadin berarentzat.

Kristoren bitartez gara oinordeko gu ere, israeldarrok, lehendik Mesiasengan itxaroten genuenok, gauza guztiak berak nahi bezala

Abendualdiko 1. astea.  
ANDRE MARIA SORTZEZ GARBIA.

egiten dituen Jainkoak aurrez aukeratu baikaitu bere asmoaren arabera, beraren aintzaren gorespen-kantu izan gaitezen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemana zegoen.

Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zaitetz, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura.

Aingeruak esan zion: «Ez beldur izan, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta “Jesus” ipiniko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakob-en herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango».

Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi».

Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zuek jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrian, eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik».

Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekit zuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

**I**zatera deituak garen guztia kontenpla genezake Mariagan. Guta-ko bakoitzari eskainia zaiguna bizi du berak ere. Hau da aingeruaren albiste: «Poztu zaitetz... Ez beldur izan». Giza txikitetasun eta ezintasun-

Abendualdiko 1. astea.

ANDRE MARIA SORTZEZ GARBIA.

nean, Jainkoa etorri zaigu bisitan. Mariak ere gure ziurtasun-eza bizi izan du galdera hau egitean: «Nola gertatuko da?» Kezka eta beldur artean, onarpen-bizitzari ekin dio, eta konfiantza izateari handi den Norbait horri. Graziaz betea dago eta bere buruaz hustu egin da. Bada aldi bat geure buruari galderak egiteko, duda-mudak bizitzeko eta kezkek agertzeko... eta, hori guztia mahai gainean jarri ondoren, bada proposatzen zaigun gauza sakonago bat: utz iezaiozu berak egin zaitzan. Orain naizen eta nagoen bezala, zein da Jainkoak eskatzen didan «bai» hori, «gerta bedi» zehatz hori? Beraren bizia gudan pizten uzten duten «bai» horiek?

Sortzez Garbia ospatzea honetan datza: eskerrak ematean gizaki bakoitzak bere baitan duen txoko errugabe eta zuzen horrengatik, gertatua gertatu gudan osorik jarraitzen duen ontasunaren arrasto horrengatik. Mariaren bidez badakigu, badela gudan txoko garbi bat, zehinetatik ezin baitugu kalterik egin. Jainkoaren txoko bat, ezerk eta inork ukitu ez duena.

\* \* \*

### ANDRE MARIAZ DEKALOGOIA

(Jose Maria Conget Arizaletaren, 1990etik 2002an hil arte Jakan gotzain izanaren, dekalogoan inspiratua da.)

1. Andre Maria ohoratu Jainkoaren Ama bezala.
2. Andre Maria kontenplatu bere handitasun betean.
3. Andre Maria miretsi bere xumetasun osoan.
4. Andre Mariagan geure burua ikusi ispilu batean bezala.
5. Andre Mariari Jainkoak ez zion murriztu sufrimendua.
6. Andre Maria beti ari zaigu eskatzen Jesusen esana bete dezagula.
7. Andre Maria etengabe ari da erreguka gure, bekatarion, alde.
8. Andre Maria gizon-emakume guztion ama da.
9. Andre Mariak Elizaren seme-alaba ikusi nahi gaitu.
10. Andre Maria, gainera, bidea eta bete-betetasuna da. «Egun batean aintzatua izango den Elizaren irudi eta hasikin da bera».

# 9

Astelehena

ABENDUA / GABONILA

Abendualdiko 2. astea.

Santa Leokadia Toledokoa, *martiria*.

San Joan Diego Cuauhtlatoatzin (*Mexikon, Guadalupeko Amaren ikuslea*).

[Isaias profetaren liburutik 35,1-10: Jainkoa bera dator zuek salbatzera. Sal 85 [84]: Horra gure Jainkoa; bera dator gu salbatzera!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,17-26.

Aldi hartan, Jesus irakasten ari zen. Han zeuden eseriak Galileako eta Judeako auzo guztietatik eta Jerusalemik etorritako fariseu eta lege-maisu batzuk. Eta Jaunaren indarrak gaixoak sendatzera eragiten zion.

Hartan, etorri ziren gizon batzuk elbarri bat ohatilan zekartela eta barrura sartu nahi zuten, Jesusen aurrean ipintzeko. Baina jendetzagatik ez baitzuten aurkitzen nondik sartu, etxe gainera igo eta, teilak kendurik, ohatila eta guzti eraitsi zuten erdira, Jesusen aurrera. Haien sinesmena ikusirik, Jesusek esan zuen: «Gizona, barkatuak dituzu bekatuak!»

Lege-maisu eta fariseuek zioten beren baitan: «Nor dugu biraoka ari den hau? Nork barka ditzake bekatuak, Jainkoak baizik?»

Baina Jesusek, haien burutapenei antzemanik, esan zien: «Zer burutapen darabilzue zeuen baitan? Zer da errazago esaten: “Barkatuak dituzu bekatuak” ala “Jaiki eta zabilta?” Hara, bada, orain ikusiko duzue Gizonaren Semeak baduela lurrean bekatuak barkatzeko ahalmena. Eta esan zion elbarriari: “Zuri diotsut: Jaiki zaitez, hartu ohatila eta zoaz etxera”». Jaiki zen hura berehala denen aurrean, hartu zuen etzanik zegoen ohatila eta etxera joan zen, Jainkoa goretsiz.

Guztiak harriturik gelditu ziren eta Jainkoa gosten zuten. Eta, beldurrez beterik, honela zioten: «Harritzekoak ikusi ditugu gaur».

**B**adira gorputzeko eta arimako minak; azken hauek zailago izaten dira sendatzeko. Gizon elbarriaren adiskideen fedea eta sormena atsegin zaizkio Jesusi, eta hondo-hondotik saneatu nahi du gaixoa-

Abendualdiko 2. astea.

Santa Leokadia Toledokoa, *martiria*.

San Joan Diego Cuauhtlatoatzin (*Mexikon, Guadalupeko Amaren ikuslea*).

---

**ren bizitza: senti dadila maitatua eta barkatua bere ahuldadean. Eta guk, aintzat hartzen al dugu benetan geure bizitzan geurekin dugun erregutzeko ahalmen hau? Oinazea den hartan bihotz-samurtasunak eragiten duen sendatze ezti hau? On egite doako baten aurrean beti sortzen dira marmar ariko diren ahotsak. Gu geu, izango ahal gara liluraturik gelditzen direnetakoak. Jaunak bakarrik ezagutzen ditugure oinaze sekretuak, eta zenbat estimatzen ditugun bihotza arintzen duten hitzak!**

\* \* \*

San Joan Diego (1474-1548), kristau egindako indigena zen Mexikon.

Andre Maria agertu eta Mexikoko gotzainagana joateko esan omen zion, eliza bat eraiki zezala eskatuz, han herriari bere maitasuna agerian jarri nahi ziola eta. Gotzainak ezaugarri bat nahi zuela erantzun zion. Andre Mariak bere argazki ikusgarri bat utzi omen zuen Joan Diegoren soingainekoan. Hala, Guadalupeko Andre Mariaren basilika eraiki zuten Mexikon.

Abendualdiko 2. astea.

Santa Eulalia Meridakoa, *birjina eta martiria*.

[Isaias profetaren liburutik 40,1-11: Jainkoak bere herria kontsolatu. Sal 96 [95]: Hara, indarrez jantzia etorriko da gure Jainkoa!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,12-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zer deritzozue? Gizon batek ehun ardi baldin baditu eta bat galtzen bazaio, ez al da laurogeita hemeretziak mendian utzi eta galdutakoaren bila joango? Eta aurkitzen badu, benetan diotsuet, poz handiagoa izango du bakar harengatik, galdu ez diren laurogeita hemeretziengatik baino.

Era berean, zeruko zuen Aitak ez du nahi txiki hauetako bat ere galtzerik».

**B**ai era desberdinean hartu ohi dela istorio hau, ondo aseak diren laurogeita hemeretzien arteko izan ala galduak direnen arteko izan! Jesusen garaian, beren buruaz seguru sentitzen zirenek, kontzientzia lasai zutela uste zutenek, legea «betetzen zutenek» eta horrenbestez besteak baino hobeak zirela uste zutenek: halakoek ez zuten gustura entzungo istorio hau. Eta guk geuk zein aldetatik entzuten dugu? Bada maitasun asko galtzen denik, dohain asko eskertzen ez dugunik. Berak lepoan har gaitzan uztea eskatzen digu Jainkoak, jakin dezagula maiteak garaela geure pobretasunean, eta poz honek eman diezazkigula begi onak eta tterazkoak eta samurrak jende xumearekiko.

Abendualdiko 2. astea.  
San Damaso, 37. *aia santua*.

---

[Isaias profetaren liburutik 40,25-31: Jainko ahalguztidunak ematen dio nekatuari adorea. Sal 103 [102]: Bedeinka beza nire arimak Jauna!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,28-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartzazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

**N**ekaturik sentitzen naizenean, on egiten dit beste aurpegi batzuk gogora ekartzeak, neure nekeak haiekin partekatzeko. Nekaturik eta gainzaturik egoteko eta kexatzeko egiazko arrazoiak dituen jendearen aurpegiak izaten dira; halere, xume-xume eskertzen dute direna eta daukatena. Halakoen bitzta kontenplatzeak sosegatu egiten nau, sendatu egiten dizkit neure estutasunak, eta errealitatearen maila hondoago batean murgiltzen nau, xumeagoan. Adiskide ama uruguaiar bat lehertzeraino ari da lanean bere bi alabak aurrera ateratzeko; hura ikusteak galdera dakarkit: «zeinengatik nekatzen naiz ni?» Gure zama arintzen duena, zama hori beste batzuekin batean eramatea da eta elkarrekin bide egitea Jesusen pausaje apalean.



[Isaias profetaren liburutik 41,13-20: Ni Neu nauzu lagun, Israelgo Santua. Sal 144 [145]: Errukiorra eta bihozbera da Jauna, haserre-gaitza eta onginahiz betea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,11-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Egiaz diotsuet: Ez da sortu amaren semerik Joan Bataiatzailea baino handiagorik. Hala ere, zeruetako erreinuan txikiena, hura baino handiago da. Joan Bataiatzailea agertu zen egunetatik gaurdaino, zeruetako erreinua indarrez hartzen da, eta indar egiten dutenek eskuratzen dute. Profeta guztien eta Moisesen agintzarien garaia Joan Bataiatzailearekin bukatu da. Joan hau da etortzekoa zen Elias, nahi baduzue onartu. Belarrik duenak entzun beza».

**H**ainbat eta hainbat aldiz entzuten dugu aditu gabe eta begiratzen dugu ikusi gabe! Pantailaren aroan bizi gara eta oso zabarturik bizi, egundoko arreta- eta presentzia-faltaz. Jainkoak etengabe bidaltzen dizkigu mezulariak, eta ez gara gai izaten askotan haiei antzemateko. Joan Bataiatzaileak onartu zituen Isaiasen profeziak eta bidalia sentitu zen iragartzera bakea eta kontsolamendua zekartzan Hura, behartsuen eta premiadunen egarria arintzera zetorren Hura. Gaur ezin onartu ditugu haren hitzak, bizi garen lekuko ahulenei eta txikienei begira jarri gabe eta belarriak adi eduki gabe. Halako ahul eta txiki horiek dira Erreinuaren bermatzaile, Jainkoaren dohain ezezagunen eroale.

Abendualdiko 2. astea.

Santa Luzia, *birjina eta martiria*.

San Eugenio, *martiria*.

[Isaias profetaren liburutik 48,17-19: Nire aginduak aintzakotzat hartuko bazenitu! Sal 1: Zuri jarraitzen dizunak, Jauna, izango du bizirako argia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,16-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeinen antzekoa dela esango nuke gizaldi hau? Plazan eserita dauden haurren antzekoa da; honela oihu egiten baitiete batzuek besteei: “Soinua jo dizuegu, eta zuek dantzarik ez; hiletak jo, eta zuek aienerik ez”.

Izan ere, etorri zen Joan Bataiatzailea, ez jan ez edan egiten ez zuela, eta deabruak harturik dagoela diote. Etorri da Gizonaren Semea, jaten eta edaten duela, eta honela diote: “A zer tripazaina eta mozkorra, zergalari eta bekatarien adiskidea”. Baina egiteek Jainkoaren jakinduriari eman diote arrazoia».

**J**esusen hitzak astindu bat eman nahi digu, eta gu geure ase-gabeziatik ateratzera etorri da. Ez gara konforme izaten gertatzen zaigunarekin, eta aise aurkitzen ditugu arrazoiak geure burua zuritu eta egiaz konprometitu eta bizitzea egokitu zaigunetik geure burua bete-betean emateko ordua atzeratzeko. Beste gauza batean izaten ditugu geure buru-bihotzak, eta, abagunea iristen denean, ez dugu, ez ospatzen guztiz, ez deitoratzen guztiz. Jesusek estu eragiten digu, bai geure oraingo une hau sakon bizitzera, besterik ez dugulako, bai antzematera une sakratu honetan, aurpegien eta gertaeren bidez, Jainkoaren etengabeko iradokizunei.

Abendualdiko 2. astea.

Gurutzeko San Joan, *apaiza eta eliz irakaslea.*

[Ben Siraken liburutik 48,1-4,9-11: Berriz etorriko da Elias. Sal 80 [79]: Jainko, berpiztu gaitzazu; salba gaitezen, zeure begia leun ager ezazu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17,10-13.

Menditik jaistean, galdetu zioten ikasleek Jesusi: «Nola diote lege-maisuek, lehenbizi Eliasek etorri behar duela?»

Jesusek erantzun zien: «Bai, Eliasek etorri behar zuen eta gauza guztiak eraberritu. Baina hara zer diotsuedan: Elias etorria da, eta ez dute aintzat hartu, baizik eta nahi izan duten guztia egin diote. Era berean, Gizonaren Semeak ere oinazeak jasango ditu horiengandik». Orduan konturatu ziren Joan Bataiatzaileaz ari zitzaiela.

**A** bendualdiaren erdialdean, Gurutzeko Joanen irudiak suaren esperientzian murgildu gaitu, Elias profetak bezala haitzulo-sarreran Jainkoa noiz igaroko dagoela. Su honek gugan piztu nahi duen era ez da arranditsua, ez lasterra ere, ezta zaratatsua edo ikusgarria ere. Hasi-erian txingar apal bat izaten da bihotzean, doi-doi argi-izpitxo bat, txinparta arin bat, haziz doana topaketaren beroan: «Oi maitasun bi-ziaren sugarra, nire arima zauritzen duzu samurkiro bere muinik sako-nenean». Muin horretatik bizitzera egiten digu dei «fraidetxoak», erre-tzera isil-isilik Maitasun isilean.

Abendualdiko 3. astea.

Santa Silvia, *aitorlea*.

San Valeriano, *gotzaina*.

### § Isaías profetaren liburutik 35,1-6a.10.

Poztu bitez basamortua eta lur elkorra, alai bedi eremu, eta lilia bezala loratu, jantzi bedi lorez eta egin beza irrintzi eta jauzi pozaren pozez.

Libano bezain zoragarri eta Karmel mendia eta Xaron lautada bezain eder bihurtuko dira. Ikusiko dute Jaunaren aintza, gure Jainkoaren edertasuna.

Indar itzazue esku ahulduak, sendotu belaun makalduak; esan bihotz-beldurtiei:

«Eutsi gogor! Ez beldur izan! Horra zuen Jainkoa!  
Hura bera dator zuek salbatzera  
eta merezia duten zigorra etsaiei ematera».

Orduan, itsuen begiak irekiko dira eta gorren belarriak zabalduko; herrenak basahuntzak bezala jauzi egingo du eta mutuaren mihiak oihu egingo pozez.

Jaunak askatuak pozez kantari etorriko dira Sionera: amaigabeko alaitasuna haien aurpegian! Poza eta alaitasuna izango dituzte lagun. Nahigabeak eta negarrak ihes egingo dute.

[Sal 146 [145]: Zatoz, Jauna, eta salba gaitzazu.]

### § Santiago apostoluaren gutunetik 5.7-10.

Senideok: Izan ezazue pazientzia Jaunaren etorrera arte. Begira nekazariari: lurraren fruitu ederraren zain egoten da eta pazientziatz itzaroten ditu garaiz datorren euria eta berandu datorrena. Izan pazientzia zuek ere eta egon sendo, laster etorriko baita Jauna.

Senideok, ez ibili bata bestearen aurka marmarka, kondenatu ez zaitzaten; begira, epailea ate-atean da. Senideok, har itzazue sufrimenduaren eta pazientziaren eredutzat Jaunaren izenean hitz egin zuten profetak.

Abendualdiko 3. astea.  
Santa Silvia, aitorlea.  
San Valeriano, gotzaina.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,2-11.

Aldi hartan, Joan Bataiatzaileak, kartzelan Kristoren egiteen berri izanik, bere ikasle batzuk bidali zizkion galdetzera: «Zu al zara etortzekoa ala besteren baten zain egon behar dugu?»

Jesusek erantzun zien: «Zoazte eta esan Joani entzuten eta ikusten duzuen: itsuek ikusten dute eta herrenak badabilta, legendunak garbi gelditzen dira eta gorrek entzuten dute, hilak pizten dira eta behartsuei Berri Ona hots egiten zaie. Eta zorionekoa nigatik erorbide hartzen ez duena!»

Haiek alde egitean, Joanez mintzatzen hasi zitzaion Jesus jendeari: «Zer ikustera atera zineten basamortura? Haizeak astintzen duen kanabera? Edota zer ikustera atera zineten? Apain jantzitako gizona? Apain jantzen direnak errege-jauregietan egoten dira. Zer ikustera atera zineten, bada? Profetaren bat? Baietz diotsuet, eta profeta baino ere handiago dena. Horretaz dago idatzia Liburu Santuan:

“Begira, neure mezularia bidaltzen dut zure aurretik, zuri bidea prestatzera”.

Egiaz diotsuet: Ez da sortu amaren semerik Joan Bataiatzailea baino handiagorik. Hala ere, zeruetako erreinuko txikiena hura baino handiago da».

**J**oan Bataiatzailea nahasirik-edo dago: gauzak ez dira ari gertatzen berak espero zuen bezala. Eta guk, zein ondo ikusten dugun geure burua islaturik betetzen ez diren iguripen edo uste hauetan, denbora askoren buruan ustel ateratzen diren egitasmo hauetan, aurreikusi genituen bezala iristen ez diren hauetan. Eta adore-faltak eraginik, galdera datorkigu burura: beste aldi batzuen zain jarraitu behar al dugu, inguruabarrak geure aldekoago izango ditugulakoan? Jaunak kinka honetatik atera nahi gaitu, gure begiak errealitateari begira ipiniz: hainbat txokotan ari da ernetzen isil-isilik Berri Ona, hainbat gauza dakusagu sendatzeko edo argitzeko puntuan, hainbat bedeinkazio anonimo dakusagu hartzeko mo-

Abendualdiko 3. astea.

Santa Silvia, *aitorlea*.

San Valeriano, *gotzaina*.

duan jende xumea dela medio... Jesusek laudatu egin du Joanen biziera eta eskertu, bere modura –jakin gabe noraino iritsiko zen bere baldintzarik gabeko maitasuna–, bere hitzaren eta keinuen bidez, Erreinuaren ernamuntzea prestatu duelako, Lurreko jende hauskor eta xumea dela medio. Eta gu, ari al gara seinale hauek biltzen eta uztatzen? Ari al gara zuzentzen, geure eguneroko bizitzan, begiak eta belarriak egokitu zaigun aldi honetako aurpegi zaurgarrietarantz? Jende horrengan gorderik, Jainkoak berak dakartzkigu poza eta salbazioa.

\* \* \*

### ABENDUALDIKO 3. IGANDEA A

Joan Bataiatzaileak beste modu batekoa izango zela uste zuen etortzekoa zen Mesias: penitentzia egiteari eta penitentzia aldarrikatzeari lotuagoa. Eta Jesusen biziera, nahasgarria ez bada ere, despita-garria iruditu zaio. Horregatik, hari zuzenetik jakin nahi du egia, eta Jesusi berari galdetzeraz bidali ditu bere ikasleak. Zuzenean erantzun ordez, bere egintzak aipatzen dizkie Jesusek bidalitakoei. Egintza horiek, profeten arabera hartuz, beste ezerk baino hobeto argituko diote Joani Jesus Mesias dela, etortzekoa zen hura dela; argi jartzen diote berri ona dela Jesusen mezua. Joanen ikasleek alde egitean, Joanen laudorioa egin du Jesusek: Joan ez da kaskarin bat, ez da eroso bizi den bat; profeta da: Jainkoaren izenean mintzo dena, mezularia, Mesiasi bidea prestatu diona. Handia da, oso handia; halere, Jainkoaren erreinua hasi eta hartan fedez sartu dena hura baino handiagoa da; erreinuan sartzean arnasa berria sartu du Espiritu Santuak fededunaren bihotzean: beste ikuspegi bat, beste jarrera bat, beste jokabide bat Jainkoari eta munduari begira; Jesusena bera, Jesus askatzailearena bera. Azken batean, pozaren eta alaitasunaren jarrera ezarri du Espirituak bihotzean. Abendualdiko 3. igande honen ikurra den alaitasuna; garai batean, igande honetan, pozik abesten genuen «Gaudete in Domino semper...» (poztu zaitezte beti Jaunagan) (Flp 4,4).

Abendualdiko 3. astea.

San Agrikola, *martiria*.

Santa Adelaida, *enperadorea*.

[Zenbakiak liburutik 24,2-7.15-17: Izar bat aterako da Jakoben herri-  
tik. Sal 25 [24]: Erakutsi niri, Jauna, zeure bideak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21,23-27.

Aldi hartan, Jesus tenplura etorri eta, irakasten ari zela, apaizbu-  
ruak eta herriko zaharrak hurbildu zitzaizkion, galdezka: «Zein agin-  
pidez egiten duzu hori? Nork eman dizu aginpide hori?» Jesusek eran-  
tzun zien: «Nik ere gauza bat galdetuko dizuet; erantzuten badidazue,  
Nik ere esango dizuet zein aginpidez egiten dudan hori. Joanek noren  
aginduz bataiatzen zuen: Jainkoaren aginduz ala gizakien aginduz?»

Haiek beren baitan zioten: «Jainkoaren aginduz ari zela esaten ba-  
dugu, zergatik sinetsi ez genion esango digu. Eta gizakien aginduz ari  
zela esaten badiogu, berriz, jendearen beldur gara, guztiak profetatzat  
baitaukate Joan».

**P**roban jartzeko galdera egin diotenean, Jesusek ez die erantzun  
zuzenean; beraren keinuak dira –sufirimendua arindu, hats eman, bizi-  
tzen lagundu– hitz egiten dutenak beraren orde. Autoritate (aginpide)  
hitza latineko «*auger*» erroitik dator, eta «*hazarazi*» esan nahi du. Bi-  
zia zabaltzen duen autoritate edo aginpidea da, bizia faboratzen duena,  
hartatik duenik eta hoberena ateratzen duena. Jesusek grazia edo inda-  
rra zuen pertsona bakoitzari autoritatea emateko, nori bere duintasuna  
itzultzeko, nor bere buruari begira ipinarazteko, nori bere hondorik  
hondoenean maitasunarekin lotura egiten laguntzeko. Joan berak ere  
ikasi beharra izan zuen jokatzeko era berri eta askatzaile hau.

## ABENDUA / GABONILA Asteartea / Martitzena

Abendualdiko 3. astea.

Azarias, Ananias, Misael (Itun Zaharrekoak), *martiriak*. San Juan de Mata, *apaiza, fundatzailea San Felix de Valoisekin batean (trinitarioak)*. San Jose Manyanet, *apaiza eta fundatzailea*.

# 17

[**Hasiera liburitik 49,1-2.8-10:** Errege-makila ez da Judagandik al-  
denduko. **Sal 72 [71]:** Zuzentasuna garatuko da haren egunetan,  
eta bakea ugari betieran.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburitik 1,1-17.**

Abrahamen eta Daviden ondorengo den Jesu Kristoren jatorri-liburua.

Abrahamek Isaak sortu zuen, Isaakek Jakob, Jakobek Juda eta haren senideak; Judak Tamarrengandik Fares eta Zara sortu zituen, Faresek Esrom, Esromek Aram, Aramek Aminadab, Aminadabek Naason, Naasonek Salmon; Salmonek Rahabengandik Booz sortu zuen, Boozek Rutengandik Obed, Obedek Jese, Jese David erregea.

Davidek Uriasen emazte izanagandik Salomon sortu zuen, Salomonek Roboam, Roboamek Abia, Abiak Asaf, Asafek Josafat, Josafatek Joram, Joramek Ozias, Oziasek Joatam, Joatamek Akaz, Akazek Ezekias, Ezekiasen Manases, Manasesek Amon, Amonek Josias; Josiasen Babiloniako erbestealdian Jekonias eta haren senideak sortu zituen.

Eta Babiloniako erbestealdi ondoren, Jekoniasek Salatiel sortu zuen, Salatielek Zorobabel, Zorobabelek Abiud, Abiudek Eliakim, Eliakimek Azor, Azorrek Sadok, Sadokek Akim, Akimek Eliud, Eliudek Eleazar, Eleazarrek Matan, Matanek Jakob; Jakobek, berriz, Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariagandik jaio zen Jesus, Kristo deritzana.

Beraz, hamalau gizaldi izan ziren guztira Abrahamengandik Davidenganaino, hamalau gizaldi Davidengandik Babiloniako erbestealdiraino, eta hamalau gizaldi Babiloniako erbestealditik Kristoganaino.

**J**esusen genealogia edo jatorri-liburuan, Mariarekin batean, lau emakume-izen ageri dira: Tamar, Rut, Rahab eta Betsabe. Laurek his-



Azarias, Ananias, Misael (Itun Zaharrekoak), *martiriak*. San Juan de Mata, *apaiza, fundatzailea San Felix de Valoisekin batean (trinitarioak)*. San Jose Manyanet, *apaiza eta fundatzailea*.

toria oso gizatarrak dituzte. «Ez moralak» gure begientzat: bat prosti-tuitua, beste bat itxura hori egin zuena, hirugarrena atzerritarra eta laugarrena adulteriogilea. Laurak zaizkigu harrigarri, bai beren bizie-raz salbazio-historia ehotzeko duten moduagatik, bai Jainkoaren egi-tasmoan lankide izateko duten gaitasunagatik. «Eskandaluaren san-tuak» deitzen die Enri de Luca-k. Batzuetan erreparatu gabe entzuten dugu ebanjelio hau. Jainkoa gure lokatzean nahasturik agertzen digu eta lokatz horretaz biziki maitemindurik.

\* \* \*

### ABENDUALDIKO PREGOIA

Gaur egungo gizakia,  
non dituzu ezarri begiak,  
non duzu ezarri zeure esperantza?

Gaur egungo gizakia,  
non duzu zeure ibiliaren helmuga?  
Guztiaren zara gose eta ezin ezerk ase.  
Baduzu, baduzu, baduzu...  
eta zeure ukaiteak ezin eman zorionik.  
Hitzematen dizute eta zu etsirik beti.

Gaur egungo gizakia,  
entzun zeure egarri-goseak, beti ezin aseak,  
eta ireki bihotza berri denari.  
Berri den oro bere baitan du Hark.  
Ez ibili berri den hori ukaitean nola bilatuko,  
ez ibili hitzetan nola bilatuko,  
ondo dakizu-eta ez direla sekula betetzen.

(Ulibarri, Fl.)

Abendualdiko 3. astea.

Itxaropenaren Andre Maria.

San Modesto, *patriarka, Jerusalemen berritzailea.*

[Jeremias profetaren liburutik 23,5-8: Legezko muskila sortuko diot Davidi. Sal 72 [71]: Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari betieran.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1,18-24.

Jesu Kristoren sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzemanan zegoen eta, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, hura isilean uztea erabaki zuen.

Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez beldur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ipiniko diozu izena, hark salbatuko baitu bere herria bekatuetatik».

Hau guztia Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin gertatu zen:

«Begira, birjinak sabelean sortu eta semea izango du,  
eta Emmanuel ipiniko diote izena  
(izen honek “Jainkoa gurekin” esan nahi du)».

Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen, eta bere etxean hartu zuen emaztea.

**M**ateok Joserren irudia nabarmendu du, «ameslaria». Ezin ulertu izaten ditugun gertaeren aurrean, ulertzen ez dugunagatik norbait jutzatzeko tentazioa bizi ohi dugunean, ustekabeko bitartekoak ageri ohi dira, historia beste era batean hartzen laguntzen digutenak, gaitzetsi gabe; izan ere, «beragan [Mariagan] dagoena Espirituagandik dator». Bai modu fina aingeruaren Adierazpena Joseri kontatzeko. Jose ez da mintzo eszenan, mutua ageri da Maria haurdun ikustean. Sumatu duena egin du, barruntatu duena. Mariak Emmanueli eman dio etxea; Josek Mariari eman dio etxea, maitasunez eta isilik bera onartuz.

[Epaileak liburutik 13,2-7.24-25a: Aingeruak Samsonen jaiotza iragarri. Sal 71 [70]: Zure gorespenaz betea nuen ahoa zure ospea kantatzeko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,5-25.

Judeako errege Herodesen egunetan, bazen Zakarias izeneko apaiz bat, Abiaren apaiz-sailekoa; haren emaztea Aaronen ondorengoa zen eta Elisabet zuen izena. Biak zintzoak ziren Jainkoaren aurrean, eta Jaunaren agindu eta lege guztiak huts egin gabe betez bizi ziren. Ez zuten haurrik, agorra baitzen Elisabet eta biak urteetan aurreratuak.

Behin batean, Zakarias bere sailekoekin Jainkoaren aurrean apaiz-zerbitzua egiten ari zelarik, Jaunaren santutegian sartzea egokitu zitzaion, apaizen ohituren arabera, intsentsua eskaintzera. Intsentsua eskaintzen ari zen bitartean, herri osoa otoitzean ari zen atarian. Hartan, Jaunaren aingerua agertu zitzaion Zakarias, intsentsu-aldarearen eskuinaldean zutik. Hura ikustean, izutu zen Zakarias eta beldurrak hartu zuen.

Aingeruak, ordea, esan zion: «Ez beldur izan, Zakarias, entzun baitu Jainkoak zure eskaria. Zure emazte Elisabetek semea emango dizu, eta zuk “Joan” ipiniko diozu izena. Poz handia izango da zuretzat, eta haren jaiotzak jende asko poztuko du, handia izango baita Jaunaren aurrean. Ez du edango ardorik, ez edari bixigarririk. Espiritu Santuaz beteko da amaren sabelean bertan. Israeldar asko bihurtuko du Jaunagana, bere Jainkoagana; Jaunaren aurretik etorriko da, Eliasen espirituaz eta indarrez, gurasoak seme-alabekin adiskidetzeko, bihurriei zintzoen sena emateko eta Jaunarentzat herri egokia presatzeko».

Zakariasek esan zion aingeruari: «Nola jakin dezaket hori gertatuko dela? Ni zaharra bainaiz, eta nire emaztea ere urteetan aurreratuak».

Aingeruak erantzun zion: «Ni Gabriel naiz, Jainkoaren aurrean zerbitzari nagoena; hark bidali nau zuri hitz egitera, berri on hau em-

Abendualdiko 3. astea.

San Dario, *martiria*. Santa Protasia, *birjina*.

San Urbano V.a, 200. *aitasantua*.

San Anastasio I.a, *aita santua*.

teko. Baina begira, mutu geldituko zara, hitz egin ezinik, hauek gertatu artean, ez baitituzu sinetsi nire hitzak, bere garaian beteko diren hitzak».

Bitartean, herria Zakariasen zain zegoen, harriturik, santutegian hainbeste luzatzen zuelako. Atera zenean, ezin zien hitz egin, eta ohartu ziren ikuskariren bat izan zuela santutegian. Bera keinuka ari zitzaizen, mutu jarraitzen baitzuen.

Tenpluko bere zerbitzu-egunak bukatuta, etxera joan zen. Egun batzuen buruan, haren emazte Elisabet haurdun gelditu zen; bost hilabetez etxetik atera gabe egon zen, eta bere baitarako zioen: «Hara zer egin duen Jaunak nire alde, jendearen aurrean nuen lotsa kendu nahi izan duenean».

**E**lisabeten lokatza zahartua zegoen, baina gogortua ez. Haragi gogor eta fosildu batean Jainkoak ezin bibratu izaten du, Espirituak samur den hartan eragiten du beti dardara; horregatik, bere bizitzako sagan ere eskain dezake Elisabetek ernalmenik. Gure gizarteak gurealdi hau ezkor edo negatibo dakusa: mugak ikusten dira, adore txikiagoa dago, malgutasun txikiagoa, edertasun eta energia txikiagoak... Halaz guztiz, Ebanjelioa gogoan harturik, alderdi hauek bilaka daitezke aukera edo parada on, badute ahalbiderik espiritualki hazten joateko, eta konfiantza handiagoa bizitzera garamatzate. Gai izango al gara zahartzeko, geure burua samur eta gupidatsu bihurtuz?

Abendualdiko 3. astea.

Domingo santua, Silos-koa, *abadea*.

[Isaias profetaren liburutik 7,10-14: Begira, birjina haurdun dago. Sal 24 [23]: Badator Jauna: bera da errege ospetsua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,26-38.

Handik sei hilabetera, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemana zegoen.

Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zaitez, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura.

Aingeruak esan zion: «Ez beldur izan, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta “Jesus” ipini-ko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakoben herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango».

Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi».

Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zuek jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrean, eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik».

Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekit zuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

Abendualdiko 3. astea.

Domingo santua, Silos-koa, *abadea*.

**M**ariaren bizitza gizaki ororena bezalakoa da: gozarena eta oinazea berekin ditu. Garenagatik maite gaituztela sentitzen dugunean, bisitaturik eta eskerturik sentitzen gara. Horixe da Mariak Jainkoari eman dion «bai» hori, hartutako hainbat graziari emandako «bai» da. Bedeinkazioak ernalmen-tankera hartu du. Onar dezagun geure etxean hasiera berri bateko bedeinkazio hori. Zerk dit eragozten bedeinkaturik bizitza? Zerk dit eragozten neure baitan dudan hondo on hori bizitza?

\* \* \*

### GOIZEKO IHINTZA BEZALA

Mariaren Seme hori

Aitak sortua zuen betikotasunean:

“Neuk sortu zintudan santu dirdaitsu,  
egunsenti aurreko ihintza bezala” (Sal 110 [109],3)

Zeruak, isuri ihintza;

hodeiak, isuri Zuzena;

ireki bedi lurra eta erne bedi salbazioa,

eta sor bedi harekin zuzentasuna. (Is 45,8)

Munduak Kristo Salbatzailearen antsia zuen,

eta Isaias profetak oihu biziz eskatzen zion Jainkoari.

Jesus mundura etorri zenean,

Oseas profetaren hau bete zen:

“Ihintza bezala izango da Israelentzat:

lirio-lorategi bihurtuko da,

lore eta usain paradisu” (Os 14,6)

*(Testua: Pedro García, misiolari klaretarra,  
Mi hora Santa Eucarística; hemen zaititxo bat)*

Abendualdiko 3. astea.

San Pedro Canisio, *apaiza eta eliz irakaslea, jesuita.*

[Kantarik Ederrena liburutik 2,8-14: Hara non datorren, mendiz mendiz lasterka, nire maitea. Sal 33 [32]: Egin poz-oihu, zintzook, Jaunari, kanta iezaiozue kantu berria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-45.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion.

Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

**A** bendualdia topo egiteez markaturik dago: Mariak aingeruarekin egin duena Mariak Elisabetekin egindako topoak baietsi du. Andre biek besarkatu dute beren ahuldadea eta beste batzuen, esperimintatu dute beren bizitzan dena dutela dohain, ezer ez dutela beren ahaleginetik bakarrik etorria. Esker oneko dira eta hala ageri dira. «Bedeinkatua zure bizia», esango diote elkarri: Jainkoagan konfiantza ipintzeagatik, zaugarri zarela agertzeagatik, samurtasuna arriskuan jartzeagatik, ez uzteagatik zure bihotza ezerk gogortu dezan. Gonbit hau datorkigu gaur: andre bi hauek elkarri eskaini dioten esker oneko eremu horretan sartzekoa, Jainkoaren bizi horren poz xume horretan sartzekoa, barnean haziz joateko.

Abendualdiko 4. astea.

San Honorato Tolosakoa (Frantzia), *gotzaina*.

Santa Frantziska Javier Cabrini, *fundatzailea (Jesusen Bihotzaren misiolariak)*.

### § Isaias profetaren liburutik 7,10-14; 8.10.

Egun haietan, mezu hau eman zion Jaunak Akaz erregeari Isaias profetaren bidez: «Eska iezaiozu Jaunari, zeure Jainkoari, ezaugarri bat zeuretzat, lurraren barranean nahiz zeruen goiengan».

Akazek erantzun zion: «Ez dut ezaugarririk eskatuko, ez dut tentatuko Jauna». Orduan Isaiasek esan zuen: «Entzun, Daviden etxe: Gutxi al deritzozue gizakientzat aspergarri izateari? Nire Jainkoarentzat ere aspergarri izan behar al duzue? Horregatik, Jaunak berak emango dizue ezaugarria. Begira, birjina haurdun dago eta semea izango du; Emmanuel ipiniko dio izena, hau da, “Jainkoa gurekin”».

### [Sal 24 [23] Badator Jauna, bera da Errege ospetsua.]

### § San Paulok Erromatarrei 1,1-7.

Ni, Paulo, Jesu Kristoren zerbitzaria, Jainkoak deitu eta bereizi ninduen apostolu izateko eta Liburu Santuetan profeten ahoz aurrez agindua zuen bere Berri Ona hots egiteko. Berri On hau Jainkoaren Semeari buruz da, Jesu Kristo gure Jaunari buruz, alegia: hau giza jatorriz Daviden hazitik jaio zen; baina hilen artetik piztu denez gero, santu egiten duen Espirituak Jainkoaren Seme ahaltzu egin du.

Jesu Kristogandik hartu genuen apostolu izateko dohaina, beraren izenean jentil-herriei sinesmena eramateko eta haiengan fedezko erantzuna sortzeko, Jesu Kristo beraren aintzarako. Haietakoak zarete zuek ere, Erroman bizi zareten guztiok, Jainkoaren maiteok eta Jesu Kristok bere herri santuko izatera deituok. Grazia eta bakea zuei, Jainko gure Aitagandik eta Jesu Kristo gure Jaunagandik.

### † Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1,18-24.

Jesu Kristoren sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Josesekin ezkontzeko hitzeman zegoen eta, elkarrekin bizi izan baino



lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, hura isilean uztea erabaki zuen.

Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez beldur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ipiniko diozu izena, hark salbatuko baitu bere herria bekatuetatik».

Hau guztia Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin gertatu zen:

«Begira, birjinak sabelean sortu eta semea izango du,  
eta Emmanuel ipiniko diote izena  
(izen honek “Jainkoa gurekin” esan nahi du)».

Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen, eta bere etxean hartu zuen emaztea.

**A** bendualdiko azken igandea dugu; errealitatea sumatzeko gure modua eta hartarako hurbiltzeko gure era zabaltzera prestatu nahi gaitu. Gora begira jarri ohi gara, distiratsu eta argi den zerbaitetan norabidea bilatu nahiz; baina behera begira bizitzera gonbidatzen gaitu gaur liturgiak, txikarrena eta espero ez dugun hartara begira jartzera, ezkutuan bizi-hats bat garatzen hasi den puntu hartara begira jartzera. Jainkoaren hurbiltasuna, haren ontasunaren eta haren graziaren oldarra, ez da gertatzen era itsugarri eta izugarrian, baizik eta era leunean, gizatar den ororen ertzean. Mariaren borondatezko baietza eta Joseren konfiantzazko atxikimendua behar izan ditu Jainkoak, eta geurea ere eskatu digu. Guk amets egiteari ez uztea behar du, eta erakutsi digu, daitekeena dela borondate oneko begiratu bat ezin ulertu ditugun gauzei dagokienez. Hau du Jainkoak bere ametsa: unibertsoko sorkaririk txikienak senti dezala beraren samurtasunaren eta arduraren helburu dela. Jose partaide da amets horretan, eta isiltasunak ematen duen onarpen barea lortu du. Hain juxtu, gizakundearen misterio apalaren aurrean ezin dugu isilik eta hunkiturik gelditu besterik, arrazoiketa oro gelditurik, Jainkoa gudan baitaratzen duen Izena arnastuz.

Abendualdiko 4. astea.

San Joan Kety-koa, *apaiza*.

[Malakias profetaren liburutik 3,1-4.23-24: Elias profeta bidaliko dizuet, Jaunaren eguna etorri baino lehen. Sal 25 [24]: Izan bihotz eta jaso burua, hurbiltzen ari baita zuen askapena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,57-66.

Haurra izateko denbora bete zitzaionean, Elisabetek semea izan zuen. Jakin zuten auzokoek eta ahaideek zein erruki handia agertu zion Jaunak, eta zorionak ematen zizkieten.

Jaio eta zortzigarren egunera, haurra erdaintzera eraman zuten, eta aitaren izena jarri nahi zioten, Zakarias. Amak, ordea, esan zuen: «Ez! Joan izango du izena». Esan zioten: «Ez duzue senitar-tean inor izen hori duenik».

Orduan, aitari keinuka galdetu zioten zein izen eman nahi zion haurrari. Eta hark oholtxo bat eskatu eta idatzi zuen: «Joan du izena». Denak harriturik gelditu ziren. Bat-batean mihia askatu zitzaion Zakarias, eta hitz egiten hasi zen eta Jainkoa goستن.

Beldurrak hartu zituen auzoko guztiak, eta Judeako mendialde guztian zabaldu zen gertatuaren berri. Entzuten zuten guztiak beren baitarako esaten zuten: «Zer izango ote da ume hau?» Zeren Jainkoaren eskua harekin baitzegoen.

**E**lisabetegandik ikasi dugu, zain ditugula beste dei batzuk, eta, beranduko irudituko zaigun arren, beti geldituko dela Jainkoaren alderdi bat, bidaiaren azkena arte guretzat argitu gabe geldituko dena. Bizitzako etapa horietan jada dabiltzanek agertzen ahal digute, gauzarik garrantzizkoena ez dela «zerbait egitea», baizik eta «Norbait nork bere baitan eramatea», «Norbait geurekin izatea». Aurkitu dituen oztopoak eta guzti, Elisabetek, bere semeari ezarri dion izenarekin, erakutsi digu Jainkoak errukiz diharduela, eta erakutsi digu, aurpegi bakoitzaren aurrean galdera hau egin beharko genukeela: «zer izango da?», zein dohain ditu oraindik emateko? Izan ere, Jainkoaren eskuak ez dio zuten sekula gurekin egoteari.

[2 Samuelen liburutik 7,1-5.8b-12.141.16: Daviden erreinuak betiko iraungo du Jaunaren aurrean. Sal 89 [88]: Jauna, zure maitasuna abestuko dut betikoz.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,67-79.

Aldi hartan, Zakarias, Joan hauraren aita, Espiritu Santuaz betekirik, profeta bezala mintzatu zen, esanez:

«Bedeinkatua Jauna, Israelen Jainkoa, agertu eta bere herria askatu duena!

Salbamen-indarra digu eman bere morroi Daviden etxean. Hala hitzemana zuen antzinatik bere profeta santuen ahoz: salbatuko gintuela geure etsaien menpetik, gorroto gaituzten guztien eskutik.

Horrela agertu du gure gurasoenganako errukia eta oroitu da bere itun santuaz, gure guraso Abrahami egindako zinaz: berak emango zigula, etsaien eskutik askaturik, beldur gabe bera zerbitzatzea, santu eta zuzen izanez haren aurrean geure bizitza guztian.

Zuri, berriz, haurtxo horri, Goi-goikoaren profeta deituko dizute, Jaunaren aurretik joango baitzara hari bidea prestatuz, erakustearren haren herriari salbamena, beren bekatuen barkamena.

Gure Jainkoaren errai errukitsuengatik, agertuko zaigu goiz-eguzkia zeru goitik, ilunpean eta Herio-itzalean daudenei argi egitera, gure inok bake-bidean zuzentzera».

**L**ukasek gorazarre eder hau Zakariasen ahoan ipini zuenetik, gizon-emakumeek belaunez belaun otoiztu dute, Jainkoa goratuz, gure ondoan ibiltzeari inoiz ere utzi ez diolako. Aitortu behar dugu, aldi oro, ez dela gertatu ezer gure merezimenduengatik, ezta gure konkista edo jakitateagatik, baizik eta soilik eta beti: «Gure Jainkoaren bihotz errukitsuagatik, goitik jaio den eguzkiak bisitatzen gaitu –orainaldian otoiztea gustatzen zait–». Haren argiaren eztitasunak hartu ditu aurpegiak eta gauzak, gure begi itsuak sendatuz, urratsak eta bihotza baketuz.

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).  
Eguberri eguneko Meza.  
Betleemeko Andre Maria.

§ **Isaias Profetaren liburutik 9,1-6.**

Ilunpean zebilen herriak argi handia ikusi zuen; herio-itzalean bizi zirenei distira egin zien argiak. Gehitu zenuen poza eta handitu atsegina; pozetan dabilta zure aurrean, uzta biltzean izaten den pozez, harrapakinak banatzean izaten den atseginez.

Apurto baituzu lepoan zeramaten uztarri astuna, zapaltzailearen aginte-makila, Madiango gudarostea apurto zenuen bezalaxe.

Suak erreko ditu eta erraustuko lurra danbadaka zapaltzen zuten gudari-botak eta odolez zikinduriko jantziak.

Haurra jaio zaigu, semea eman zaigu; hari eman zaio aginpidea, eta haren izena Kontseilari harrigarri, Jainko indartsu, Aita betiko, Errege bake-emale. Handia izango da haren aginpidea, amairik gabekoa bakea Daviden tronuan eta haren erreinuan; sendo egingo da eta zuzenbidean eta justizian oinarrituko, gaurdanik eta betidaino.

Jaun ahalguztidunaren maiteminak egingo du hau.

[Sal 96 [95]: Salbatzailea jaio zaigu gaur: Mesias, Jauna.]

§ **San Paulok Titori gutunetik 2,11-14.**

Anaia maitea: Agertu da Jainkoaren onginahia, gizon-emakume guztien salbamenerako. Salbamen honek Jainkorik gabeko bizitzari eta munduko grina txarrei uko egiten irakasten digu, eta neurritz, zuzentasunez eta jainkozaletasunez mundu honetan bizitzen, gure itxaropen zorionsua noiz beteko zain, Jesu Kristo Jainko handia eta gure salbatzailea aintzaz beterik noiz agertuko zain. Hark bere burua eman zuen gugatik, gu gaiztakeria guztietatik askatu eta garbi egiteko, haren herri berezi izan gaitezen, on egin zale.

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,1-14.**

Egun haietan, mundu guztiaren errolda egiteko agindua atera zuen Augusto enperadoreak. Lehenengo errolda hau Siriako gobernadore

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).  
Eguberri eguneko Meza.  
Betleemeko Andre Maria.

Kirino zela egin zen. Beraz, erroldatzera joan ziren denak, nor bere herrira.

Jose ere, Daviden etxekoa eta jatorrikoa izanik, Galileako Nazaret herritik Judeara igo zen, Betleem deritzan Daviden herrira, bere emazte Mariarekin erroldatzera. Maria haurdun zegoen. Betleemen zeudela, haurra izateko egunak bete zitzaizkion, eta bere lehen-semea izan zuen. Oihaletan bildu eta askan etzan zuen, ez baitzen ostatuan haientzako lekurik.

Baziren inguru hartan artzain batzuk, gauez beren artaldea txanda-ka zaintzen. Honetan Jaunaren aingerua agertu zitzairen, eta Jaunaren aintzak argiz inguratu zituen; haiek, beldurrak jota gelditu ziren. Aingeruak, ordea, esan zien: «Ez beldur izan! Begira, poz handia sortuko duen berri ona iragartzen dizuet, herri guztiarentzat izango dena: Salbatzailea, hau da, Mesias Jauna jaio zaizue gaur Daviden herrian. Eta hau izango duzue seinale: haur bat aurkituko duzue, oihaletan bildua eta askan etzana». Eta bat-batean zerutar talde handia bildu zitzaion aingeruari, Jainkoa goستن zuela, esanez: «Aintza zeruetan Jainkoari, eta bakea lurrean haren gogoko gizon-emakumeei».

**A**tentzioa ematen du ikusteak, nola doan Lukas eszena prestatzen, nolako zehaztapena darabilen xehetasunak ematean, nolako prozesua garatzen duen, zirkulu zentrokideez kontraeraren bihotzeraino iristeko. Loiolako Ignaziok ere xehetasunei erreparatzeko eskatu digu Jesusen Jaiotza kontenplatzean, gai bakoitzari begiratzeko eskatu digu, geure zentzumenak adi jartzeko, gure gorpuztasun guztia erasanik gerta dadin miresten dugun gertaera hori dela medio. Kontakizunaren hasieran enperadorea eta mundu osoko izen ematea, erdialdean haur bat biluzik eta ganbela, eta bihotza izozten digun adierazpen bat: «ez zen lekurik beraientzat». Zein da gaur egun lekurik ez duen jende xume hori? Zein dute izena eta zein beren historia? Izan ere, jende horrengan ari da distiratzten guretzat Jainkoaren alderdi asko. Jende horrek ditu sendatzen gure beldurrak, horrek digu iragartzen inork, ez txandako Augus-

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).  
Eguberri eguneko Meza.  
Betleemeko Andre Maria.

toek, ez txandako Kirinoek, ezin kenduko digun poza. Frantzisko aita santuak egiazko Eguberrian murgiltzeko gonbita egin digu, artzainekin batean: «eraman diezaiogula Jesusi garen hura, geure bazterketak, sendatu gabeko geure zauriak. Horrela, Jesusengan, ahogozatuko dugu Eguberriaren zinezko espiritua: Jainkoak gu maite izatearen edertasuna».

\*\*\*

### EGUBERRI EGUNEKO MEZA

#### § Isaias Profetaren liburutik 52,7-10.

Bai ederrak direla mendi gainetan albistariaren oinak!

Bakea iragartzen du, zorionaren berri ona ematen eta salbamera iragartzen!

Sioni diotso: «Zure Jainkoa errege da!» Entzun zeure zaintzaileen oihua! Oihuka ari dira, poz-irrintzika, guztiak batera, beren begiz ikusten baitute Jauna Sionera itzultzen.

Ekin poz-oihuka guztiok batera, Jerusalemgo horma eroriok, Jau-nak bere herria kontsolatu baitu eta askatu du Jerusalem. Herri guztien aurrean erakutsi du Jaunak bere beso santuaren indarra, eta munduko bazter guztiak ikusiko dute gure Jainkoaren salbamera.

[Sal 98 [97]: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garai-pena.]

#### § Hebrearrei gutunetik 1,1-6.

Askotan eta era askotara hitz egin zien antzina Jainkoak profeten bidez gure arbasoei; azkenak diren egun hauetan, berriz, bere Semearen bidez hitz egin digu. Seme hau egin zuen gauza guztien oinordeko, egin ere honen bidez egin baitzuen mundua.

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).  
Eguberri eguneko Meza.  
Betleemeko Andre Maria.

Seme hau da Jainkoaren aintzaren distira eta Jainkoaren izatearen irudia. Honek eusten die gauza guztiei bere hitz indartsuaz. Eta, bekatuen garbikuntza egin ondoren, Jainko handiaren eskuinaldean eseri zen zeru-goienetan, aingeruak baino gorago jarria, ondareztat jaso zuen izena ere haiena baino goragokoa denez gero.

Izan ere, zein aingeruri esan dio inoiz:

«Nire Seme zara Zu;

Nik zaitut gaur sortu?»

Eta beste behin: «Aita izango nau hark Ni eta Seme izango dut Nik hura?»

Eta berriro, Lehen-semea munduan sarraraztean, hau dio:

«Gurtu bezate hura Jainkoaren aingeru guztiek».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,1-18.

Hasieran bazen Hitza,  
eta Hitza Jainkoarekin zen,  
eta Jainko zen Hitza.

Hitza hasieran Jainkoarekin zen.

Gauza guztiak haren bidez eginak dira,  
eta egindakorik ezer ez da hura gabe egin.

Hitzagan zen bizia,  
eta bizia gizakien argia zen;  
argiak ilunpean argi egiten du,  
baina ilunpeak ez zuen onartu.

Agertu zen gizon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitor-menerako etorria zen, argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiek sinets zezaten. Hura ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik.

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).  
Eguberri eguneko Meza.  
Betleemeko Andre Maria.

Hitza zen egiazko argia,  
mundura etorritz gizaki guztiak argitzen dituen.  
Munduan zegoen  
eta, mundua haren bidez egina den arren,  
munduak ez zuen ezagutu.  
Bereengana etorri zen,  
eta bereek ez zuten onartu.  
Onartu zuten guztiei, berriz,  
haren izenean sinesten dutenei, alegia,  
Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien.  
Hauek ez dira giza odoletik sortu,  
ezta giza nahieratik ere,  
Jainkoagandik baizik.  
Eta Hitza haragi egin zen,  
eta gure artean jarri zuen bizilekua,  
eta ikusi dugu haren aintza,  
Aitagandik graziaz eta egiaz betea datorren  
Seme bakarrari dagokion aintza.

Joanek hartaz egin zuen aitormen, oihuka esanez: «Hau zen nik esan nuen hura: “Nire ondoren datorrena nire aurretik jarri da, ni baino lehenagokoa baitzen”».

Eta haren betearen betetik guztiok hartu dugu, grazia graziaren gain hartu ere. Legea Moisesen bidez emana zen; grazia eta egia, berriz, Jesu Kristoren bidez etorri dira. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitarean altzoan dagoen eta Jainko den Seme bakarrak ezagutarazi digu.

**D**enok gorde ohi ditugu oroimenean aurpegi batzuk, aitorrarazten digutenak, ezen beraietan Hitza «ikusi eta entzun dugula», haragiaren ahuldadean garatzen, ezen beraietatik argia eta grazia graziaren



Jaunaren Jaiotza (Eguberri).  
Eguberri eguneko Meza.  
Betleemeko Andre Maria.

ren gain hartu ditugula. Eguberri-jai zorionsu honetan, zilegi bekit Teresa eta Pino aipatzea; garbitzaile ari dira, Ebanjelioko emakumeen oso hurbilekotzat ditut. Lan egiteko moduaz irakasten ari zaizkit: ordenatu, edertu egiten dute, guztiok ezagutzen gaituzte eta hor egon ohi dira beti; biak irribarretsu, esker oneko emakume baitira. Baita Lupe ere, ekuadortar etorkina, bere parekidea uzteko adorea izan zuen, umilazten zuelako, tratu txarra ematen ziolako, eta hilabete batzuetako alabatxoarekin bizi da, goizean goiz lanera joanez nola bizia ateratzeko, eta borroka eginez beldurrak poza irentsi ez diezaion. Eta Karmelo, hamabi urteko mutikoa; DBHren lehenengoan egin nuen topo berarekin eta goiz batean, begiak zaba-zabal, esan zidan: «Irakaslea, gurasoek bazter utzi ninduten hiru urteko nintzela eta barnetegi batean sartu», eta Nestor ikusirik: «hori nirekin egon zen barnetegian, eta zuk maite duzula ikusten badu eta hobetuz doala esaten badiozu, ondo portatuko da. Bihurria dela ematen du, baina ona da». Nola ari zaigun hitz egiten Jainkoa gaur ere bere seme-alaba txikiaren bidez!

\* \* \*

### ISILTASUN OSOAN

(Gora Jainkoa-7,50)

Gau erdian zu zara  
distira+argizkoa,  
isiltasun osoan  
hor zure mintzoa.

R/. – Maitasun agerpen!  
Isiltasun osoan  
Hitza gizon sortzen.

Urratu da mundutik  
ilunpe itxia,  
sortaraziz zerutik  
zuk argi berria. – R/.

San Esteban, lehen-martiria.

Santa Bizenta Lopez Bikuña (Kaskante [Nafarroa] 1847–  
Madril 1890), *fundatzailea (Maria Sortzez Garbiaren  
Erlijosak)*.

### § Apostoluen Eginak liburutik 6,8-10; 7,54-60.

Egun haietan, Estebanek, graziaz eta indarrez beterik, mirari eta ezaugarri handiak egiten zituen herrian.

Hartan, zirenean eta alexandriarrez osatua zegoen eta «Askatuena» zeritzan sinagogako batzuk, ziliziar eta asiar batzuekin batera, eztabaidan hasi ziren Estebanekin. Baina ezin izan zioten aurre egin Espirituak mintzatzeko ematen zion jakinduriari.

Estebanen hitzak entzutean, barrua lehertzen jarri zitzairen amorruz eta hortzak karraska haren kontra. Baina hark, Espiritu Santuaz beterik, zerura begiratu eta Jainkoaren aintza ikusi zuen, eta Jesus zutik Jainkoaren eskuinaldean. Eta esan zuen: «Horra, zerua zabalik ikusten dut eta Gizonaren Semea zutik Jainkoaren eskuinaldean».

Orduan, haiek, garrasika, belarriak itxi zituzten eta denak batean gainera oldartu zitzaizkion; hiritik atera zuten eta harrika hasi zitzaizkion. Saulo zeritzan gazte baten oinetan utzi zituzten testiguen beren jantziak. Harrika ari zitzaizkion bitartean, Estebanek honela egiten zuen otoitz: «Jesus Jauna, hartazu nire bizia».

Gero, belauniko jarrita, ahots handiz esan zuen: «Jauna, ez leporatu horiei bekatu hau». Eta, hau esanik, hil egin zen.

[Sal 31 [30]: Zure eskuetan uzten dut, Jauna, neure bizia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,17-22.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Kontuz jendearekin! Auzitegietara eramango zaituztete eta sinagogetan zigorkatuko; agintarien eta erregeen aurrera eramango zaituztete nigatik, aitormen egin dezazuen haien eta jentilen aurrean. Eramaten zaituztetenean, ez egon zer eta nola esango duzuen kezkatan: une hartan bertan adieraziko dizue Jainkoak zer esan; ez zarete zuek mintzatu, zuen Aitaren Espiritua mintzatu da zuen bidez.

Santa Bizenta Lopez Bikuña (Kaskante [Nafarroa] 1847–  
 Madril 1890), *fundatzailea (Maria Sortzez Garbiaren  
 Erlijiosak).*

Anaiak anaia emango du heriotzara, eta aitak semea; seme-alabak gurasoen aurka altxatuko dira eta hil egingo dituzte. Mundu guztiak gorroto izango dizue nigatik; baina azkeneraino irauten duena, horixe izango da salbatua».

**B**eti erasan izan dit Joanen baieztapen honek: «etorri zen bereengana eta bereek ez zuten onartu» (Joan 1,11). Eta pentsatzea, Herodes eta fariseuak ere bereetakoak zituela Jesusek! Batzuetan, amore eman izan diot tentazioari: uste izateari bera onartzen dutenetakoa naizela; halere, zenbat zona laiotz ene bizitzan!, zeinetan ez baitut jakin berari harrera egiten. Estebanen imajinak erronka handia bota ohi dit, eta maitasun handia ipintzen dit begi aurrean: norberari uko egin diotenei eskaini zaiena. Orobat erasan dit Sauloren imajinak ere eszenan: askotan gogoratu behar izan zuen gerora. Estebanen argia Saulori bidean bihotza leherraraziko zionaren aurrerapena izan zen.

\* \* \*

### SANTA BIZENTA LOPEZ BIKUÑA

Kaskanten, Nafarroan, jaio zen 1847ko martxoaren 22an.

Bazuen egoera sozial altuko izeba bat Madrilén, eta harengana bidali zuten gurasoek, formakuntzan jarraitzeko. Izeba hura arduratsu zen pobreekiko, eta ezaugarri hori kontuan hartu zuten gurasoek. Halako ekintzataraz askotan lagundu zion izebari Bizentak.

Gurasoek, pentsatua zuten maila sozial altuko batekin ezkontzea, baina gaztea beste bide bat ari zen marrazten bere bihotzean. Gurasoen bitarteko bezala, izebak gaia aipatu zioen batean, gazteak erantzun zion: «Izeba, ez errege batekin, ez santu batekin».

San Joan apostolua eta ebanjelaria.

§ 1 Joanen gutunetik 1,1-4.

Seme-alaba maiteok:

Hasieratik zen biziaren Hitza, entzun eta geure begiz ikusia, begiratu eta geure eskuz ukitua, iragartzen dizuegu.

Izan ere, bizia agertu zen,  
ikusi dugu eta beraren lekuko gara;

Aitarekin zegoen eta guri agertu zitzaigun betiko bizia iragartzen dizuegu. Ikusi eta entzun duguna iragartzen dizuegu, zuek ere gurekin elkartasunean bizi zaitetzen. Eta gure elkartasuna Aitarekin eta honen Seme Jesu Kristorekin da.

Eta gauzok idatzi, gure poza bete-betea izan dadin idazten dizkizuegu.

[Sal 97 [96]: Poztu zaitetze Jaunarekin, zintzook.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,2-8.

Asteko lehen-egunean, Maria Magdalena Simon Pedrogana eta Jesusek maite zuen beste ikasleagana itzuli zen lasterka, eta esan zien: «Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri duten».

Atera ziren, orduan, Pedro eta beste ikaslea, eta hilobirantz abiatu ziren. Biak batera zihoazen lasterka, baina beste ikaslea Pedro baino arinago zihoan, eta lehenago iritsi zen hilobira. Barrura begiratzeko makurturik, oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baina ez zen sartu.

Iritsi zen haren atzetik Simon Pedro ere eta hilobian sartu zen. Oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baita Jesusen burua biltzen egoniko zapia ere; hau, ordea, ez zegoen oihal-zerrendekin batera jarria, beste toki batean bildua baizik. Orduan, sartu zen beste ikaslea ere, hilobira lehenengo iritsi zena. Ikusi eta sinetsi egin zuen.

San Joan apostolua eta ebanjelaria.

**B**ada Berpiztuaren erliebe txiki bat Yaundeko santutegian, Kamerunen: Jesusek, dantzan konpasa markatuz, eskutik darama aingerua eta irribarrez dago. Pauso berean kulunka biak, bata besteari egokituz, atxikitzeko modu hoberik aurkitzen ez duen hura dantzaren arintasunean eta pozean adieraziz. «Korri eginez» bilatzen dugun hura guztia, bizitza honetan espero dugun guztia, gure bihotz beldurtiak opa duen guztia, irarria eta inprimatua dago dantza horretan, gordea Jesusen gorputzarekiko besarkada horretan: zeinetara baitarama Joan ebanjelaria Maria Magdalenak eta zeinetara eraman nahi baikaitu –bere jai honetan– gu geu Joanek.

\* \* \*

### SAN JOAN APOSTOLUA

San Joan, Zebedeoren semea (Mt 4,21) eta Jakue edo Santiago Nagusiaren anaia, gazte izanik ere, Jesusen lehenengo jarraitzaileetakoa izan zen. Betsaidan, Galileako itsasertzean, jaioa zen. Jesusek apostolu izatera deitu aurretik, Joan Bataiatzailearen ikasle izan zen (Jn 1,39). «Jaunak hain maite zuen ikaslea» zela uste da. Jesusen bizi-tzako unerik garrantzitsuenetan han izan zen. Bera izan zen gurutzearen oinetaraino hurbildu zen apostolu bakarra eta berari gomendatu zion Jesusek bere ama (Jn 19,26). Haren izena daraman Ebanjelioan idatziak daude Joani buruzko gertakariak.

Haur-aurpegia jarri ohi diote irudietan, herabe itxura emanez; baina izaera sutsua izan behar zuen, Jesusek berak «Boanerges» –Truioikume– (Mk 3,17) izena jarri baitzien Zebedeoren bi semeei.

Zaharturik hil zen, Trajano enperadore zela (98-117), I. mendearen bukaeran.

Haurtxo Errugabe Santuak, martiriak.

§ San Joan Apostoluaren 1 gutunetik 1,5–2,2.

Senide maiteok: Hona hemen Jesu Kristogandik entzuna dugun mezua eta zuei iragartzen dizueguna: Jainkoa argia da eta harengan ez da inolako ilunik. Harekin elkartasunean bizi garela esan eta ilunpean baldin bagabiltza, gezurra diogu eta ez gara egiaren arabera ari. Baina argian bagabiltza, elkartasuna dugu batak bestearekin eta haren Seme Jesusen odolak bekatu guztitik garbitzen gaitu.

Bekaturik ez dugula esaten badugu, geure burua engainatzen dugu eta egia ez dago gure baitan. Geure bekatuak aitortzen badi-tugu, ordea, leiala eta zuzena den Jainkoak barkatuko dizkigu bekatuak eta gaiztakeria guztitik garbituko gaitu. Bekaturik ez dugula egin esaten badugu, gezurri egiten dugu bera, eta haren mezua ez dago gugan.

Ene seme-alabok, bekatu egin ez dezazuen idazten dizuet hau. Hala ere, norbaitek bekatu egiten badu, badugu laguntzailea Aitaren aurrean: zuzena den Jesu Kristo. Hark bere burua eskaini zuen gure bekatuen barkamenerako; eta gureen barkamenerako ez ezik, baita mundu guztikoen barkamenerako ere.

[Sal 124 [123]: Txoria ehiztarien saretik bezala gara libratu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 2,13-18.

Magoek alde egitean, Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan Joseri eta esan zion:

«Jaiki, hartu haurra eta ama, eta zoaz ihesi Egiptora, eta egon han nik esan arte, Herodes erregea haurra hil nahian ibiliko baita».

Jaiki zen, beraz, Jose, hartu zituen haurra eta ama gauez eta Egiptora joan zen. Han egon zen Herodes hil arte. Horrela bete zen Jaunak profetaren bidez esandakoa: «Egiptotik etortzeko dei egin nion neure semeari».

Haurtxo Errugabe Santuak, martiriak.

---

Orduan, Herodes erregea, Magoek engainatu egin zutela oharturik, biziki haserretu zen, eta Betleemen eta inguruetan bi urtez azpiko haur guztiak hiltzeko agindu zuen, Magoek adierazitako denbora kontuan harturik. Honela bete zen Jeremias profetak esana:

«Oihua entzun da Raman, negar eta aiene ugari: Rakel ari da, bere haurrengatik negarrez; ez du kontsolatu nahi, ez baitira bizi».

**E**guberrietako bozkarioaren baitan, haur errugabeak datozkigu harridura eragitera, eta beren bizitza bortxatua ikusi duten txikiengana luzatzen dituzte gure begiak, luze-luze. Bere jaiotzatik elkartu zaie Jesus beren haurtzaroa lapurtu dieten eta zigor beldurrik gabe emana izan den tratu txarra jasan duten haurrei, eta, haur horietatik oso hurbil, beti aurkitu ohi ditugu emakumeak: babesa eskainiz eta deitoratuz kontsolamendurik gabe; aro guztietako «Rakel» direlakoak dira. Gogorra ditzagun gaur emakume palestinar eta israeldarrak: urteak daramatzate, ibilaldiak antolatuz bakearen alde basamortuan, zuriz jantzirik, eskatuz beren aurrek jolas egin ahal dezaten elkarrekin eta hazi ahal daitezen konfiantzaz.

**Familia Santua.**

Tomas Becket santua, *gotzaina eta martiria.*

San David, *erregea.*

**§ Ben Siraken liburutik 3, 3-7. 14-16. 17b (gr. 2-6. 12-14).**

Jaunak seme-alaben gainetik ohoratzen du aita,  
eta amaren aginpidea ezartzen bere umeen gain.  
Aita ohoratzen duenak bere bekatuak ezabatzen ditu, eta ama go-  
resten duenak ondasunak pilatzen.  
Aita ohoratzen duenak poza izango du bere seme-alabengan, eta  
otoitz-egunean entzun egingo dio Jaunak.  
Aita ohoratzen duena luzaro biziko da,  
eta Jaunari obeditzen dionak atsegin ematen dio amari.  
Ene seme, zaindu aita zahartzaroan  
eta ez eman nahigaberik bizi den artean;  
burua galtzen hasten bada ere, izan barkabera  
eta ez gutxietsi bizi den bitartean;  
aitari emandako laguntza ez da ahaztuko,  
bekatuen ordain izango duzu.  
Atsekabe-aldian gogoan izango zaitu Jaunak.

[Sal 128 [127]: **Zorionekoa Jaunari begirune diona, eta haren bideetan dabilena!**]

**§ San Paulok Kolosarrei 3,12-21.**

Senideok: Jantzi zaitetze bihotz errukitsuz, onberatasunez, apaltasunez, otzantasunez, eroapenez, Jainkoaren herri aukeratua, santua eta maita zaretenez gero. Eramazue ondo elkar eta barkatu batak besteari, inork inoren aurka ezer balu. Jaunak barkatu zizuen bezala, barkatu zuek ere elkarri. Eta horien guztien gainetik, izan maitasuna, hori baita elkartasun betearen lokarria. Kristoren bakeak agindu beza zuen bihotzean, bake horretara deituak zaretenez gero gorputz batean, eta izan esker oneko.

Bizi bedi oparo zuengan Kristoren hitza; irakatsi eta aholkatu jakinduria osoz; kantatu Jainkoari bihotzez eta esker onez salmoak, go-



Familia Santua.

Tomas Becket santua, *gotzaina eta martiria*.  
San David, *erregea*.

razarreak eta kantu inspiratuak. Edozer esaten nahiz egiten duzuela, egizue dena Jesu Kristo Jaunaren izenean, haren bidez Jainko Aitari eskerrak emanaz.

Emazteok, zaudete zeuen senarren mende, Jaunaren jarraitzaileei dagokien bezala. Senarrok, maita itzazue zeuen emazteak, eta ez izan gogor haiekin. Seme-alabok, egin zeuen gurasoen esana gauza guztietan, hori nahi baitu Jaunak. Gurasook, ez sumindu zeuen seme-alabak, gogogabetu ez daitezten.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 2,13-15.19.23.

Magoek alde egitean, Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan Joseri eta esan zion: «Jaiki, hartu haurra eta ama, eta zoaz ihesi Egiptora, eta egon han nik esan arte, Herodes erregea haurra hil nahian ibiliko baita».

Jaiki zen, beraz, Jose, hartu zituen haurra eta ama gauzez eta Egiptora joan zen. Han egon zen Herodes hil arte. Horrela bete zen Jaunak profetaren bidez esandakoa: «Egiptotik etortzeko dei egin nion neure semeari».

Herodes hil zenean, Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan Joseri Egipton eta esan zion: «Jaiki, hartu haurra eta ama, eta zoaz Israelgo lurraldera, hilak baitira haurrari bizia kendu nahirik zebiltzanak». Jaiki zen, beraz, Jose, hartu zituen haurra eta ama, eta Israelgo lurraldera itzuli zen.

Baina, Herodesen ondoren, Judean errege haren seme Arkelao zegoe-la jakinik, beldur izan zen hara joateko. Eta, ametsetan albistea harturik, Galileara jo zuen. Hara iritsi zenean, Nazaret deritzan herrian gelditu zen bitzitzen, profetek esan zutena bete zedin: «Nazaretarra deituko diote».

**J**esusen jaiotza ohoratzeak zerikusia du geure sustraiak eta geu garatzen joateko era zehatza ohoratzearekin. Eskerrak ematearekin,

## Familia Santua.

Tomas Becket santua, *gotzaina eta martiria*.

San David, *errega*.

alegia, jaiotzean beren besoetan hartu gintuztenei, geure lehen zain-tzaileei: elikatu eta hazi gintuztenei, berek zuten hobenarekin eta baita zauriekin ere lagunartea eskaini zigutenei. Mariaren eta Joseren «bai» hark bezala, beste hauenak urratu zigun bidea guri, hazi eta mundu honetan geure lekua topatzeko. Haien izenak bihotzera ekartzeko eguna dugu gaur, txoko bat eskaintzeko guretzat txoko bat egin zuten eta iraganetik euskarri ditugun guztiei. Geure gurasoen seme-alaba sentitzen gara, eta esker onez makurtzen gara haien bizitzaren aurrean, baita beraien gurasoen aurrean ere; aldi berean, beraiekin askoz lotuago sentitzen gara: «Zertako balio izango zidan Jesu Kristo Jainkoagandik jaiotzen bazen eta ni ez?», galdegiten zuen Eckart-ek.

Gaur, aldi berean, otoitz egiteko eguna dugu, beren harremanak hautsirik ikusi dituzten familien alde, beren lotura zauriturik dakusaten guztien alde, harreman-sare hori berregin eta saneatzeko bideak aurkitu beharrean sentitzen diren guztien alde. Ipin ditzagun Nazareteko familiaren bedeinkazioaren babespean: abegia, barkazioa, pazientzia, bigarren eta hirugarren aukerak, eta handiak, ulermen eta samurtasun handi-handiak... izan ditzaten.

\* \* \*

## FAMILIA

«Mehatxuka jardun ordeztarrazoiari lekua ematen zaionean; egiazko etxejabea Jainkoa denean, eta beldurrik sentitzen ez denean, baiziki eta denek elkar maite dutenean, orduan sortu ohi da familia». (*San Joan Bosco, 1815-1888*)

Eguberri ondoko 6. eguna.  
San Felix 1.a, 26. *aíta santua.*

[San Joan Apostoluaren 1 gutunetik 2,12-17: Jainkoaren nahia egiten duenak betiko irauten du. Sal 96 [95]: Poztu bedi zerua, alaitu lurra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,36-40.

Aldi hartan, bazen profetesatzen bat Ana zeritzana, Fanuelen alaba, Aserren jatorrikoa. Urteetan oso aurreratua zen; gaztetan ezkondu eta zazpi urtez senarrarekin bizi ondoren, alargun gelditu zen, eta bazituen laurogeita lau urte. Gau eta egun tenpluan egoten zen, barau eta otoitz, Jainkoa zerbitzatzeko. Ordu hartan han gertatu zen, eta Jainkoa gorensten eta haurraz mintzatzeko hasi zitzairen Jerusalemen askatasunaren zain zeuden guztiak.

Jesusen gurasoak, dena Jaunaren legeak agintzen duen bezala bete ondoren, Galileara itzuli ziren, beren herri Nazaretera. Haurra hazten eta indartzen zihoan, jakinduriaz betetzen ari zen eta Jainkoaren grazia berekin zuen.

**M**exikar lagun bati amonak esan ohi omen zion txikitik: «zer izango zara bizitzea lortzen baduzu?» Andre adineko horrek bere bilobagan ikusten zuenak zerikusia du Ana profetesak ikusi zuenarekin Jesusen bizitza hasiberria kontenplatzean. Dohain guztien emailea du Anak bere eskuetan, eta susmatzen du zer izango den bizitzea lortuko duenean. Fanuelen alaba da Ana; aitaren izenak «Jainkoaren aurpegi» esan nahi du, eta aurpegi hori besoetan duen haurragan aurkituko du Jainkoa; Anaren tribuaren izenak, berriz, Aser-ek, zoriona iradokitzen du. Izan ere, ez baita poz handiagorik Jainkoaren bizitza kontenplatzea baino eta sentitzea baino nola doan hazten Lurreko ahulengan eta txikiengan.

Eguberri ondoko 7. eguna.  
 San Silvestre I.a, *aita santua*.  
 Santa Columba, *birjina eta martiria*.

[1 Joan 2,18-21: Zuek Jainkoagandik datorren Espiritu Santua duzue eta guztiok ezagutzen duzue egia. Sal 96 [95]: Poztu bedi zerua, alaitu lurra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,1-18.

Hasieran bazen Hitza, eta Hitza Jainkoarekin zen, eta Jainko zen Hitza.

Hitza hasieran Jainkoarekin zen. Gauza guztiak haren bidez eginak dira, eta egindakorik ezer ez da hura gabe egin.

Hitzagan zen bizia, eta bizia gizakien argia zen; argiak ilunpean argi egiten du, baina ilunpeak ez zuen onartu.

Agertu zen gizon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen, argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiak sinets ezaten. Hura ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik.

Hitza zen egiazko argia, mundura etorritz gizaki guztiak argitzen dituen.

Munduan zegoen eta, mundua haren bidez egina den arren, munduak ez zuen ezagutu.

Bereengana etorri zen, eta bereek ez zuten onartu.

Onartu zuten guztiei, berriz, haren izenean sinesten dutenei, alegia, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien.

Hauek ez dira giza odoletik sortu, ezta giza nahieratik ere, Jainkoagandik baizik.

Eta Hitza haragi egin zen, eta gure artean jarri zuen bizilekua, eta ikusi dugu haren aintza, Aitagandik graziaz eta egiaz betea datorren Seme bakarrari dagokion aintza.

Joanek hartaz egin zuen aitormen, oihuka esanez: «Hau zen nik esan nuen hura: “Nire ondoren datorrena nire aurretik jarri da, ni baino lehenagokoa baitzen”».

Eta haren betearen betetik guztiok hartu dugu, grazia graziaren gain hartu ere. Legea Moisesen bidez emana zen; grazia eta egia, berriz, Jesu

Eguberri ondoko 7. eguna.  
San Silvestre I.a, *aita santua*.  
Santa Columba, *birjina eta martiria*.

Kristoren bidez etorri dira. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren al-  
tzoan dagoen eta Jainko den Seme bakarrak ezagutarazi digu.

**U**rtea bukatzean, bizi izandako guztian argia eta esker ona jar-  
tzera dator Hitza. Gertaera horietan, alegia, zeinetan jaso izan dugun  
hainbat gauza oni antzemateko gai izan baikara, eta gertaera horietan,  
zeinetan, begiak itsu, ez baikara gai izan inguruan mozorroturik geni-  
tuen bedeinkazioei antzemateko. Gaur Jesusek haragi eginez jarraitzen  
du gure gorputza dela medio, eta gure gorputzean barna igarotzen da  
guk merezi gabe historia besarkatu nahi duen maitasunez. Aurtengo  
aurpegi guztiek jo dute beraganantz; bizi izan dugun guztia –guzti-guz-  
tia– izan da beraren errukiaren eta graziaren parada edo okasio: «zeuk  
eman zenidan, Jauna, zeuri nahi dizut itzuli...».


\* \* \*

### URTE BUKAERAKO ESKER ONA

Eskerrak, Jauna,  
biziagatik eta maitasunagatik,  
loreengatik,  
aireagatik eta eguzkiagatik,  
zorionagatik eta oinazeagatik.  
Eskerrak, Jauna,  
lagunarteagatik, elkarreagatik,  
famiiliagatik.  
Eskerrak, Jauna,  
zure bidelagun egin nauzulako,

nire bidelagun egin zarelako,  
bideko janari eta edari  
zeure burua eman didazulako,  
bakardadean eta elkartean  
zurekin hitz egiteko aukera eman  
didazulako,  
aukera ez ezik zurekin jardutean  
poza ere sentitzea eman didazu-  
lako.  
Eskerrak, Jauna, eskerrak.

**OTOITZAK  
ETA DEBOZIOAK**



# Otoitzak

## EGUNERO

### GURUTZE SANTUAREN

† Gurutze santuaren seinaleagatik,  
gure etsaiengandik  
zaindu gaitzazu, Jauna, gure Jainkoa.  
Aitaren, eta Semearen  
eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

### GURE AITA

Gure Aita, zeruetan zarena:  
santu izan bedi zure izena,  
etor bedi zure erreinua,  
egin bedi zure nahia,  
zeruan bezala lurrean ere.  
Emaguzu gaur  
egun honetako ogia;  
barkatu gure zorrak,  
guk ere geure zordunei  
barkatzen diegunez gero;  
eta ez utzi gu tentaldian erortzen,  
baina atera gaitzazu gaitzetik.



## AGUR MARIA

Agur, Maria, graziaz betea:  
Jauna da zurekin:  
bedeinkatua zara zu  
andre guztien artean,  
eta bedeinkatua da  
zure sabeleko fruitua Jesus.  
Santa Maria,  
Jaungoikoaren ama,  
erregutu ezazu  
gu bekatarion alde  
orain eta  
gure heriotzako orduan. Amen.

## AINTZA AITARI

- Aintza Aitari eta Semeari eta Espiritu Santuari.
- Hasieran zen bezala, orain eta beti,  
gizaldi eta gizaldietan. Amen.

## ANGELUS (goizean, eguerdian eta arratsean)

- Jaunaren aingeruak Mariari adierazi zion.
- Eta Espiritu Santuaren egitez sortu zuen.  
Agur, Maria, graziaz betea...
- Hona hemen ni, Jaunaren mirabea.
- Gerta bekit zuk diozun bezala.  
Agur, Maria, graziaz betea...
- Eta Jainkoren Semea gizon egin zen.
- Eta gure artean bizi izan zen.  
Agur, Maria, graziaz betea...
- Otoitz egizu gure alde, Jainkoaren Ama santu horrek.

## Otoitzak

---

– Jesu Kristo gure Jaunaren aginduak irabaz ditzagun.

**Egin dezagun otoitz:** Isur ezazu, Jauna, gure bihotzean zeure grazia, eta, aingeruak esanik, zure Seme Jesu Kristo gizon egin dela jakin dugunok, egizu, haren nekaldi eta gurutzearen bidez eta Andre Mariaren otoitzari esker, irits gaitezela piztueraren ospera. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

## REGINA COELI (Zeruko erregina) (Pazkoaldian)

- Zeruko erregina, poztu zaitez, aleluia.
- Sabelean ekarri zenuena, aleluia.
- Piztu baita berak esan bezala, aleluia.
- Otoitz Jainkoari gure alde, aleluia.
- Egizu pozaz gainez, Andre Maria, aleluia.
- Jauna egiaz piztu baita, aleluia.

**Egin dezagun otoitz:** Jesu Kristo gure Jauna, zeure Semea, piztuz, mundua pozez bete duzun Jainkoa; egizu, arren, Andre Maria haren Amaren otoitzari esker, irits gaitezela betiko pozak goatzera. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

## GOIZEAN

### ESKERRAK EGUNSENTIAGATIK

Eskerrak, Jauna, egunsentiagatik;  
eskerrak egun berriagatik;  
eskerrak Eukaristiagatik;  
eskerrak Andre Mariagatik.  
Eta eskerrak gure erromesaldiko  
ordu bakoitzagatik.

Eskerrak zure bakearen eta maitasunaren,  
pozaren eta oinazearen  
jainkozko dohainagatik,  
zu gure bidelagun izateagatik.

## MAHAIA BEDEINKATZEA

### OTORDU AURRETIK

† Bedeinka gaitzazu, Jauna,  
eta bedeinkatu hartzera goazen janari hauek,  
zuk, guztiz onbera, emanak baitira.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.  
Betiko aintzaren Erregeak eman diezagula  
zeruko mahaian otordu-kide izatea. Amen.

## ARRATSEAN

### ESKERRAK EGUNA BUKATZEAN

Eskerrak, Jauna, / eguna bukatzean / zuri eskertzeko aukera dugula-  
ko, / zure heriotzaren merezimenduak / eta Eukaristiako ogia / alaita-  
sun betean / eta zurekiko elkertasunean bizi izan ditugulako; / fedea,  
maitasuna, esperantza / eta gure loa, / gorespen apal bihurtzeko, /  
zure graziaren ontasun hau / bizi izan dugulako.

## ESPIRITU SANTUARI

### VENI SANCTE SPIRITUS

(Mendekosteko sekuentzia) (Orixe, ukitu bakan batzuekin)  
Zatoz, bai, Gogo Guren eta bidal zerutik zure argi izpia.  
Zatoz, gaixoen Aita; zatoz, dohain emaile; zatoz, bihotzen argi.  
Poz-emaile bikain, etxelagun atsegin, sargorian haize fin.  
Lan artean atsedean, nekean aringarri, malkoetan pozgarri.  
Zure laguntza gabe ez du pertsonak ezer, ez du ezer on denik.  
Garbi, zikin dagona; busti, lehor dagoena; zauriak oro senda.  
Zurrun dena bigundu; makur dena zuzendu, hotz dagoena berotu.  
Zugan usteon duten zintzoei isuri zazpi dohain zerutik.  
Zintzo saria eman, osasun hil artean, poza betieran.  
Amen.

### VENI CREATOR SPIRITUS

#### ZATOZ ZINTZOEN BARNERA (Orixe ukitu bakan batzuekin)

Zatoz zintzoen barnera,  
Gogo Guren sortarazle;  
bete graziaz bihotz hauek, zu baitzaituzte egile.  
Poz-emaile deritzozu,  
Goiko Jaunaren dohain, ur bizi, su, maitasun, eta gantzu zerukoia.  
Zazpi dohainen isurle,  
Aitaren eskuin hatza, apostoluei hitzemana, haien ahoetan hitza.  
Argi iezaguzu zentzua, suaz sutu bihotza,  
indar horretaz sendatu argal daukagun gorputza.  
Haiza gugandik etsaia, eman berehala bakea,  
zu aurretik zaitugula, urrun iezaguzu kaltea.  
Erakuts iezaguzu Aita, harekin Semea ere;  
bien Arnasa duguna sinets dezagun beti ere.

Aitari, eta hilengandik berpiztu zen Semeari eta Gogo Gurenari edertasun orain eta beti. Amen.

## EUKARISTIA

### BEDEINKATUA JAINKOA

(Eukaristia adoratzean)

Bedeinkatua Jainkoa.

Bedeinkatua haren izen santua.

Bedeinkatua Jesu Kristo, egiazko Jainkoa eta egiazko gizona.

Bedeinkatua Jesusen izena.

Bedeinkatua haren bihotz txit santua.

Bedeinkatua haren odol txit baliotsua.

Bedeinkatua Jesus aldareko sakramentu santuan.

Bedeinkatua Espiritu Santu kontsolatzailea.

Bedeinkatua Jainkoaren Ama, Maria txit santua.

Bedeinkatua Mariaren sortze santu eta garbia.

Bedeinkatua haren zeruratze aintzatsua.

Bedeinkatua Maria birjina eta amaren izena.

Bedeinkatua San Jose, haren senar txit garbia.

Bedeinkatua Jainkoa bere aingeru eta santuengan.

**Egin dezagun otoitz.**

Jesu Kristo gure Jauna,

sakramentu miresgarri honetan

zeure nekaldiaren oroitzapena utzi diguzu;

arren erregutzen dizugu:

beneratu ditzagula zure gorputz-odolen misterio santuak,

zure salbamenaren fruituak geuregan etengabe sentitzeko moduan.

Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan. Amen.

## KOMUNIO ESPIRITUALA

Sinesten dut, Jesus,  
presente zaudela aldareko sakramentu santuan.  
Maite zaitut gauza guztien gainerik,  
eta neure bihotzean hartu nahi zaitut.  
Baina, une honetan ezin dudalarik hori egin,  
zatoz espirituz nire bihotzera.  
Ez utzi niri, ene Jesus, zugandik sekula apartatzen.

## GURUTZE BIDEA

### HASIERA

V/. - Adoratzen zaitugu, Kristo, eta bedeinkatzen.  
R/. - Zeure gurutze santuan mundua salbatu zenuelako.  
V/. - **Egin dezagun otoitz.**  
Jesu Kristo gure Jauna!  
Gurutzea hartzera gonbidatu gaituzu,  
eta gure aurretik zoaz etsenplu emanaz;  
emazkiguzu zeure argia eta grazia:  
Gurutze-bide honetan zure urratsak gogoan hausnartzean,  
izan gaitzela gai eta izan dezagula gogo bizia zuri jarraitzeko.  
Nazareteko Andre Maria,  
Doloretako Ama izan zinen;  
inspiratu guri,  
Jainko den zeure Semeari bide honetan atsekabez jarraitzean  
zeuk izan zenituen maitasun-sentimenduak.  
R/. – Amen.

## GELDIALDIAK

1. Lehen geldialdia: Jesus hiltzera kondenatua.  
*(geldialdi bakoitzaren ondoren  
segidako hau errepikatzen da)*
- V/. Adoratzen zaitugu, Kristo, eta bedeinkatzen.
- R/. Zeure gurutze santuan mundua salbatu zenuelako.
2. Bigarren geldialdia: Jesus gurutzea daramala.
3. Hirugarren geldialdia: Jesus erori lehen aldiz.
4. Laugarren geldialdia: Jesusek Amarekin topo.
5. Bosgarren geldialdia: Zirenearrak Jesusi lagundu.
6. Seigarren geldialdia: Veronikak Jesusi aurpegia xukatu.
7. Zazpigarren geldialdia: Jesus erori bigarren aldiz.
8. Zortzigarren geldialdia: Jesus eta Jerusalemgo emakumeak.
9. Bederatzigarren geldialdia: Jesus erori hirugarren aldiz.
10. Hamargarren geldialdia: Jesus erantzi eta biluztu.
11. Hamaikagarren geldialdia: Jesus gurutzean josi.
12. Hamabigarren geldialdia: Jesus gurutzean hil.
13. Hamahirugarren geldialdia: Jesus gurutzetik jaitsi.
14. Hamalauugarren geldialdia: Jesus hilobian.
15. Hamabosgarren geldialdia: Jesus berpiztu.
- V/. **Egin dezagun otoitz.**

Begiratu, Aita, begi onez zeure seme-alaba hauei;  
Jesu Kristo gure Jaunak ez zuen dudarik izan,  
gu guztiongatik gurutzeko heriotzara joateko;  
egizu:

haren nekaldiaz eta gurutzeaz gogoeta egin ondoren,  
parte har dezagula harekin batean haren Piztueraren aintzan.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez eskatzen dizugu,  
Errege bizi baita zurekin gizaldiz gizaldi.

R/. – Amen.

## ANDRE MARIARI

### SALVEA

Agur, erregina, ama errukiorra, gure bizi, gozo eta itxaropena, agur!  
Zuri deiez gaude Evaren ume erbestetuok; zuri aiezka, antsiak eta  
negarrez negar-herri honetan.

Ea, bada, itzul itzazu gugana zeure begi errukitsu horiek, eta erbeste  
honen ondoren erakutsiezaguzu Jesus, zure sabeleko Seme bedein-  
katu hori.

O bihozbera! O errukiorra!

O Maria Birjina gozoa!

- Otoitz egizu gure alde, Jainkoaren Ama santua.
- Jesu Kristo gure Jaunaren promesak iristeko gai izan gaitzen.

### ZURE BABESERA GATOZ

(Sub tuum praesidium)

Zure babesera gatoz ihesi, Jainkoaren Ama;  
gure otoitzei ez eman esker txarrik behar ordu estuan;  
arriku guztietatik onez atera gaitzazu,  
Birjina eder eta bedeinkatua.

## ARROSARIO SANTUA

### POZEEZKO MISTERIOAK (astelehena eta larunbata)

1. Jainkoaren Semea gizon egina.
2. Andre Mariak bisita Elisabet lehengusinari.
3. Jainkoaren Semea jaio.
4. Jesus Haurra Tenpluan aurkeztu.
5. Jesus Haurra galdu eta Tenpluan aurkitu.



### **DOLORETAKO MISTERIOAK (asteartea eta ostirala)**

1. Jesusen otoitza Getsemaniko baratzean.
2. Jesus zigortua.
3. Jesusen arantzazko koroia.
4. Jesus gurutzea lepoan duela.
5. Jauna gurutzean hil.

### **AINTZAZko MISTERIOAK (asteazkena eta igandea)**

1. Jesus Jauna piztu.
2. Jesus Jauna zerura igo.
3. Espiritu Santua jaitsi.
4. Andre Maria zeruratu.
5. Andre Maria koroatu.

### **MISTERIO ARGITSUAK (osteguna)**

1. Jesus bataiatua Jordan ibaian.
2. Jesus agertu Kanako ezteietan.
3. Erreinua hots egin, bihotz-berritzeko deia eginez.
4. Jesus antzaldatu.
5. Jesusek Eukaristia eratu.

### **OTOITZA (misterio bakoitzaren ondoren)**

Andre Maria, graziazko Ama, errukizko Ama onbera, zaindu gu geure etsaietatik,  
eta babestu orain eta geure heriotzako orduan. Amen.

### **ANDRE MARIAREN LETANIAK**

Erruki, Jauna. Erruki, Jauna.  
Kristo, erruki. Kristo, erruki.

Erruki, Jauna. Erruki, Jauna.  
Kristo, entzun guri. Kristo, entzun guri.  
Kristo, aditu guri. Kristo, aditu guri.  
Zeruko Aita Jainkoa. Erruki gutaz.  
Jainko Semea, munduaren Salbatzailea. Erruki gutaz.  
Jainko Espiritu Santua. Erruki gutaz.  
Hirutasun Santua, Jainko bakarra. Erruki gutaz.  
Andre Maria Santua. Otoitz gure alde.  
Jainkoaren Ama Santua. Otoitz gure alde.  
Kristoren Ama. Otoitz gure alde.  
Elizaren Ama. Otoitz gure alde.  
Ama txit garbia. Otoitz gure alde.  
Salbatzailearen Ama. Otoitz gure alde.  
Jainkoari eskaintzearen eredia. Otoitz gure alde.  
Elkartasun Berriaren Kutxa. Otoitz gure alde.  
Zerura jasotako erregina. Otoitz gure alde.  
Arrosario Santuaren erregina. Otoitz gure alde.  
Jesusen Lagundiaren erregina. Otoitz gure alde.  
Maria, fededun handia. Otoitz gure alde.  
Maria, Hitzaren entzule fededuna. Otoitz gure alde.  
Maria, Jaunaren Hitzaren gordetzailea. Otoitz gure alde.  
Maria, Hitzaren hausnartzaile handia. Otoitz gure alde.  
Maria, Jesusen jarraitzaile leial eta iraunkorra. Otoitz gure alde.  
Jesusen mezuarekin bat egin duzun Maria. Otoitz gure alde.  
Maria, Jainkoaren herriko lagun alaia. Otoitz gure alde.  
Maria, gizadi berriaren eredia. Otoitz gure alde.  
Maria, ama doloretakoa. Otoitz gure alde.  
Maria, esker onekoa. Otoitz gure alde.  
Maria, bisitari fina. Otoitz gure alde.  
Maria, eztei-lagun aztia. Otoitz gure alde.

## JAINKOAREN BILDOTSA

- Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua.
- Barkatu, Jauna.
- Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua.
- Entzun, Jauna.
- Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua.
- Erruki, Jauna.
- Otoitz egizu gure alde Jainkoaren Ama santu horrek.
- Jesu Kristo gure Jaunaren promesak eskuratu ditzagun.

### Egin dezagun otoitz.

Jaingo Jauna, pozez bete zenuen mundua  
Jesu Kristo zeure Seme eta gure Jauna piztean;  
mesedez, haren eta gure Ama Maria Birjinaren otoitzari esker,  
libra gaitzazu mundu honetako tristuratik  
eta emaguzu zeruko poza.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

## LOIOLAKO IGNAZIO SANTUA

### INAZIO,

gure patroï handia, / Jesusen konpainia / fundatu eta dezu armatu, /  
ez da ez etsairik / jarriko zaizunik inolaz aurrean / gaurko egunean,  
nahiz betor / Luzifer deabrua / utzirik infernua.  
Zure soldaduak / dirade aingeruak, zure gidaria / da Jesus handia.  
Garaitu ditu / zure konpainiak / etsaiak.  
Ez dauka fedeak, / ez kristau nireak, ez dauka beldurrik / inongo  
aldetik.

Inazio hor dago, / beti ernai dago, armetan jarria / dauka konpainia,  
txispaz armaturik / bandera zabalik, gau ta egun / guk guztiok / bakea  
dezagun, beti gau eta egun.

**KRISTOREN ARIMA (Ignazioren deboziokoa)**

*(anonimoa, XVI. mendea)*

Kristoren arima, santu egin nazazu.  
Kristoren gorputza, senda nazazu.  
Kristoren odola, birbiztu nazazu.  
Kristoren saihetseko ura, garbi nazazu.  
Kristoren nekaldia, indartu nazazu.  
Oi Jesus ona, entzun nazazu.  
Zeure zaurietan gorde nazazu.  
Zugandik alde egiten ez utzi niri.  
Infernuko etsaiengandik libra nazazu.  
Heriotzako orduan deitu nazazu,  
eta joanarazi nazazu zugana,  
zure santuekin batean  
mendez mende gorets zaitzadan. Amen.

**GOGOETARAKO**

**Abendualdia**

Jesu Kristo  
Zeruko Ihintza

Egunsentiko eguzkia bezala etorriko da munduaren salbatzailea  
eta Andre Mariaren sabelera jaitsiko,  
belardira ihintza bezala. Aleluia.

Goizeko ihintza

Bibliako esapidetik ederrenetakoa eta poetikoenetakoa da,  
Jainkoak munduan dagiena adierazteko.

Ihinzaren irudi hori ulertu nahi badugu,  
imajina dezagun Palestina udako galda batean.  
Jasanezina izan ohi da han beroa egunez.

Baina gaua iristean,  
eta inor konturatu gabe,  
ihintza eratzen da landareen hostoetan,  
loreen petaloetan,  
baita mendiko harri gainean ere.  
Ihinz-tanta dira,  
perla-sorta bihurturik,  
han eta hemen banaturik.

Ihinzaz,  
berde eta fresko bihurtzen da dena,  
lurraren lehorra bizigarri bihurtuz.

Mariaren Seme hori  
Aitak sortua zuen betikotasunean:  
“Neuk sortu zintudan santu dirdaitu,  
egunsenti aurreko ihintza bezala” (Sal 110 [109],3)

Zeruak, isuri ihintza;  
hodeiak, isuri Zuzena;  
ireki bedi lurra eta erne bedi salbazioa,  
eta sor bedi harekin zuzentasuna. (Is 45,8)  
Munduak Kristo Salbatzailearen antsia zuen,  
eta Isaias profetak oihu biziz eskatzen zion Jainkoari.

Jesus mundura etorri zenean,  
Oseas profetaren hau bete zen:  
“Ihintza bezala izango da Israelentzat:  
lirio-lorategi bihurtuko da,  
lore eta usain paradisu” (Os 14,6)

Gero, Isaiasekin batean,  
hau esan ahalko dugu Jesusez,  
Jauna hildakoen artetik piztuko denean gau isilean:  
“Zure ihintza ihintz dirdaitsua da,  
eta lurrak, hark blai eginik,  
argira ekarriko ditu hildakoak”(Is 26,19).

Zeruko ihintz honetaz profetizatu zuen Salmoak:  
“Ihintza bezala jaitsiko da,  
eta haren egunetan zuzentasuna loratuko  
eta bakea iraunkor da izango” (Sal 71[72],6)

Guri, Mikeas profetaren arabera,  
ihintza bezala izateko digu eskatzen,  
Kristoren premia duen mundu honetan:  
“Eta Jakobena hondarra,  
Jaunak bidaltzen duen ihintza bezala,  
belardira jaisten den euri-lanbroa bezala izango da  
herri askoren artean” (Mi 5,6).

Eukaristia hartzen dugunoi,  
ihintzak blai egin zuen soroko gari hura  
zeruko Ogi bihurtzen zaigu ...  
Ez ote gara izango ihintz bizi-emaile  
premia duten guztientzat?...

Jesu Kristo Jauna,  
zu zeu zara nire bihotzeko lur lehorrak behar duen ihintza.

Bizitzako nekea, lan gogorra, tentazio arriskutsua,  
egunean eguneko ahuldadea...  
Ez ote da hori guztia niretzat eguzki galda,  
askotan esperantza galarazten didana?...

Baina zu, ihintz bizi-emaile,  
zatoz egunero nigana,  
batez ere Eukaristian hartzen zaitudanean...  
Eta gai zara ni lorategi bihurtzeko  
eta kristau-bertutea sortzen den alor emankor.

Jesus Jauna,  
ihintz freskagarri lur idorarentzat,  
non bertute oro baituzu sortzen eta loratzen.  
Antsia biziz zaitut antsiatzen,  
Jainkoarentzat lore-soro atsegin bihur nazazun.

Ez dut opa zure onginahia baizik,  
bizia bera baino baliotsuagoa den hori baizik,  
egunsentiko freskuran nire Jauna abestu ahal izateko.

Ama Maria,  
zerutiko ihintza zeure sabelean hartzean,  
Espiritu Santuaren paradisu bihurtu zinen,  
hark zugan jainkozko atsegin guztia izan zuelarik.

Egizu,  
har dezadala Onginahi hori,

zuk bezala, guztiz esaneko,  
nire bihotza, erru guztitik garbi,  
zure Bihotz Garbiaren isla izan dadin.

Jainkoak maite gaitu  
eta badaki zeren faltan garen.  
Gure arimaren alor agorrera  
bere Graziaren ihintz freskagarria du bidaltzen,  
beti belardi berde izan gaitezen.

(Testua: Pedro García, misiolari klaretarra, Mi hora Santa Eucarística)

### Eguberrialdia

Endrikek postontzia ireki zuen. Gutun bat bakarrik. Ireki aurretik, ondo begiratu zion: ez zuen zigilurik, ez beste posta-markarik. Soilik, Endrikeren izena eta helbidea. Ireki eta irakurri zuen.

«Endrike maitea, zeurekin izango nauzu datorren larunbatean, arratsean. Bisitatxo bat zor dizut eta. Maitasunez, Jesus».

Eskuek dar-dar egiten zioten Endrikeri, mahai gainean, gutuna utzi zuenean.

«Zergatik etorri nahi du, ordea, Jaunak nigana bisitan? Zein naiz bani? Gainera, ez dut ezer eskaintzeko...».

Pentsamendu horiek buruan, sukaldeko apaletara begira hasi zen: hutsik zeuden.



«Ez, ez! Ez dut ezer eskaintzeko! Zerbait erostera joan beharko dut».

Soingainekoa jantzi, eta kalera irten zen. Baserri-ogi lodi bat, indioi-lar libra erdi bat eta kartoi bat esne.

Euro erdi batekin gelditu zen, astelehena artekoa egiteko. Halere, gustura sentitu zen, erosi berria eskuan zuela. Hontan,

«Aizu, gazte, laguntzerik bai, faborez?»

Endrike hartuegia zeukan bere afariak; ez zituen ikusi ere ezkaratzean zutik zeuden bi lagunak. Gizon bat eta emakume bat. Biak doi-doi jantzirik zarpailez.

«Entzun, gazte; ez dugu lanik, ez batuk eta ez besteak. Han, kalean bizi izan gara, baina, hara, hotz egiten du eta goseak gaude, eta hara, laguntza txikiren bat ematerik bai? Benetan eskertuko genizuke».

Arreta handiagoaz begiratu zien Endrikek. Pentsatu zuen bere baitan: «nahi balute, aurki lezakete lanik». Eta esan zien:

«Lagunok, gustura lagunduko nizueke, baina ni neu ere gizon pobre bat naiz. Haragi pixka bat eta ogi bat dut, besterik ez, eta lagun bat dut etortzekoa gaur arratsean, eta harentzat erosi ditut».

«Bai, gazte, bai, ulertzen dugu. Eskerrik asko nolana ere».

Gizonak besoa bota zion lepora andreari, eta kalera jo zuten. Haiei begira-begira, bihotz-taupada bizia sentitu zuen Endrikek.

«Aizuei, lagunok, itxaron, itxaron!»

Bikotea gelditu, eta atzera begira jarri zen. Endrike korrika zetorkien eta iritsi zen.

«Barkatu lehenagokoa. Har ezazue jateko hau. Aurkituko dut zerbait, neure lagunari eskaintzeko», eta janari-poltsa luzatu zien.

«Aaa, eskerrik asko, gazte, mila esker».

«Bai, eskerrak», esan zuen andreak ere.

Eta Endrikek nabaritu zuen andrea hotzak dar-dar zegoela.

«Badakizu, etxean badut beste bat, eta har ezazu hau ere». Botoiak askatu eta bizkarrean jarri zion emazteari bere berokia. Irribarrez, jira eta etxera jo zuen, soingainekorik gabe eta bisitan zetorkionari zer eskainirik gabe.

«Eskerrik asko, gazte, mila esker», hots egin zioten biek batean.

Endrike hotzak dar-dar iritsi zen etxera. Ez zuen ezer ere Jaunari eskaintzeko.

Giltza bila hasi zen patrikan. Hontan, erreparatu zuen beste gutun bat zegoela postontzian.

«Gauza bitxia! Postaria behin bakarrik etortzen da egunean!»

Karta hartu eta ireki zuen.

«Endrike maitea, bai atsegina zu gaur berriro ikusi izana. Eskerrik asko afari gozoagatik, eta eskerrik asko soingaineko ederragatik. Maitasunez, Jesus».

## **GARIZUMA, PAZKOAREN PRESTAERA**

### **Historia apur bat**

Pazko-gaubeila K.o. II. mendean hasi ziren ospatzen. Mende horretan berean hasi ziren Pazkoaldia ere ospatzen, 50 eguneko aldia.

Garizuma, berriz, IV. mendearen hasieran hasi ziren ospatzen, Pazkora begira.

Horrek adierazten du, erdigunea Jesu Kristoren Pazkoak hartu izan duela beti; Garizuma, bete-betean, Pazkorako prestaera da. Hiru maila edo alderdi bereiz ditzakegu prestaera horretan.

### **1. Bihotz-berritze edo konbertsioa**

Eguberrialdian ez bezala, Garizuman kanpo adierazpen gutxi bizi ohi dugu, aldi berezia bizitzen ari garela gogoratzeko; horregatik, arreta pertsonal biziagoa beharko dugu; bestela, gure bizitzan ezer gertatu ez balitz bezala iritsiko gara Pazkora eta, jakina, hartara, Pazkoa axaleko gauza gertatuko zaigu.

Horregatik, Garizuma hastean, eseri eta sakon hausnartu beharko genuke zertan aurrera egin edo zer alda genezakeen pentsatzeko, Jesu-sengana eta lagun hurkoagana gehiago hurbildu ahal izateko.

Hausterre egunak proposatzen dizkigun hiru bideak (Mt 6,1-6.16-18) egokiak gerta dakizkiguke, benetan eguneratzen baditugu: limosna, hau da, daukagunetik itxurazko zerbaite ematea; otoitza, hau da, Jainkoarekiko eta lagun hurkoarekiko munduaz (Bibliaz, munduko gertaerez...) gogoeta egitea (irakurriz, gauzak aztertuz, salaketa eginez, kontenplatuz, eskerrak emanez, bizitzarako ondorioak ateraz...); bauraua, hau da, zenbait gauza alde batera uztea, beste batzuei gehiago eskaintzeko.

## 2. Ondo norabideturiko ospakizunak

Eliz ospakizunak txukun ospatzea: garaiz iritsiz, aurrez norberaren barrua eta ingurunea girotuz; modu batean edo bestean parte hartuz, lotsa etxean utzirik.

Batez ere, ordea, ospakizunera zerk eragiten digun aztertuz: ez mortifikazio txiki bat egiteko bakarrik, ez tartetxo batez “mundua” uzteko asmoz, baizik Jesu Kristori eta haren asmoari estuago lotzeko gogoz. Beti ere, gaur egun ere Jesus pobreengan kalbarioa bizitzen ari dela kontuan izanik, begi aurrean Jesus berpiztua dugula, Pazko-  
ra bidean goazela pobreei ere Pazkoa agerian jartzen saiatuz, Pazko Gaubeila nola hobeto ospatuko irrikaz.

## 3. Pazkoaldiko berrogeita hamar aldia prestatu

Hirugarren ezaugarria, Pazkoaldia bera prestatzea da. Hori da Garizumaren helburua, hori da haren xedea.

Norberaren barrua eta elkarteara prestatzeko, eta Garizumako prestatze-aldiaren emaitza bizitzeko, bizitzen laguntzeko, ospatzeko, ospatzen laguntzeko eta agerian jartzeko, Pazkoaldian zer egin dezakedan hausnartzea: kantu egokiak prestatzeko entseguetara joatea, elkartea bilduko den lekua nola apaindu pentsatzea, jaialdi berezi bat antolatzea, kolektibo behartsu batentzat erregalu bat antolatzea...

2007ko otsailaren 21a

Hausterre eguna

Dionisio Amundarain

(Misal Dominical año XXXIX, nº 3, 2007 BLOC MD Josep Lligadas; laburbildua eta egokitua)

## PAZKOALDIA

Pazkoaldiko credoa

Jesu Kristo ene adiskide eta anaia!

- Sinesten dut, Zu hildakoen artetik piztearekin, zentzu betea lortzen dutela nire bizitzak, nire bideak eta nire hiltzeak.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, sostengurik sendoena lortu duela nire fedeak, zure presentziak eskaintzen digun argian, indarrean eta bakean.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, gauditua izan dela behin betiko nire koldarkeria, eta erronka bizia jaso dutela aspaldiko nire beldur zaharrek.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, esnatu egin naizela hesirik eta mugarik gabeko bizitza batera.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, indarra galdu dutela anai-arreba arteko gorrotoek, eta sostengua galdu dutela jende arteko trikimailu zikinek.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, heriotza baino harago luzatzen den bizi baten bermea segurtatu diozula nire haragi hilkor honi.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, ukigarritasun- eta harreman- kategoria, ziurtasun- eta promes-kategoria lortu duela gure fedeak.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, gure esperantzak gauditua egin dituela haizekeriazko optimismoa eta azal hutseko utopia.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, gure giza maitasuna biziberritu egin dela, noizbait ere, ezer ez direnei eta ezertako ez direnei zinez hurbiltzeko.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, gure gizarte honetako gizon-emaumeen historiak aurki dezakeela, azkenean, bere muina eta hondo-hondoko bere zentzua.

## Otoitzak

---

- Sinesten dut, Zu piztearekin, bizi garen mundu honek utzi diola eskenatoki huts izateari, benetan gizakiaren bidelagun bihurtzeko.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, ama lur honetako gauza guztiek berreskuratu dutela kreazio jaio berri hartako beren argi gardena.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, bedeinkatuak izan direla lana eta aurrerapena, oinazea eta sufrimendua, familia, maitasuna eta adiskidetasuna.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, mundu honetako pobre, marjinatu eta baztertu guztiei hots egin zaiela behin betiko askapen zoriontsua.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, gure aurretik fedearen lekuko izan diren anai-arreba hildakoek lortu dutela, azkenean, bakea eta zure presentziaren argia.

Amen. Aleluia.

## URTEKOA

On Bosko santuaren esapideak

«Zuen artean, gazteok, sentitzen naiz gustura».

«Zuengandik urrun egoten naizenean, zerbait falta zaidala sentitu ohi dut».

«Superga-raino joango nintzateke, mihia arrastaka, arima bat salbatzeagatik».

«Aholku bat onartuko nuke, deabruagandik baletor ere».

«Bizi beti Jaunari itsatsirik».

